
SMK

SANTA MARIA KALEA






Felix Ibargutxi Otermin


1956an jaioa Legazpiko Frailenean, Elbarrenan. Kazetaritza ikasitakoa Nafarroako Unibertsitatean (1973-78). 'Zeruko Argia' aldizkarian lehenbiziko artikuluak. Geroago (1981-86) 'Habe' eta 'Habeko Mik' aldizkarietako koordinatzailea. 1986-92an 'Zabalik' euskarazko gehigarria koordinatu zuen 'El Diario Vasco'-n. Eta ondoren egunkari honetako erredaktore izan zen, euskal kulturan espezialdua. Kazetaritza arloko bi sari irabazitakoa: Rikardo Arregi (1991n, 'Jainko' ezizeneko pertsonen gaineko erreportajeagatik) eta Argia (2007an, euskal kulturari egindako jarraipenagatik).

Burdinola elkartearen bidez hiru lan luze plazaratu ditu, Legazpiko etxeei buruzkoak: 'Elbarrena, auzo ahaztua' (2020), 'Atzoko Egialde' (2023) eta honako hau. Baita ere, 'Legazpiko bertsolaritza pausoz pauso' (2022) argitalpena. ❖



SAK

SANTA MARIA KALEA



BURDINOLA

Izenburua: Santa Maria Kalea

Egilea: Felix Ibargutxi Otermin

Zuzendaria: Jose Luis Ugarte Garrido

Argazkiak: Santiago Fz. de Quincoces, Fernando Mz. de Albeniz, Lucio Vergara, Enrique Guinea Makibar, Ignacio Agirre Montegi, Indalecio Ojanguren, Felix Ibargutxi, Jose Luis Ugarte

Kolaboratzaileak: Antonio Prada (Ospital zaharra), Nieves Saiz (Juanita Pasteleraren errezetak) Pedro Vega (Gaztelaniazko testuari zuzenketak)

Azaleko argazkia: Iturri ezezaguna

Konposizio grafikoa: Elena Aseginolaza Izagirre

Argitaratzailea: Burdinola Elkartea
www.legazpi.eus/burdinola
www.youtube.com > @Burdinola Elkartea

Laguntzailea: Legazpiko Udala

Inprimaketa: Gertu (Oñati)

2024. urtea

ISBN-a: 978-84-128144-0-8

Lege Gordailua: D 01041-2024

Inmari. Esker onez.

aurkibidea

00. ATARIKOA 10

01. ALEGIA 24

01.01.(eu) **Olaberri jauregia (Ariztitarrak)** 26
01.01.(es) Palacio de Olaberri (los Arizti)

01.02.(eu) **Olaberri jauregia (Zabaletatarrak)** 36
01.02.(es) Palacio de Olaberria (los Zabaleta)

01.03.(eu) **Olaberriko fabrikaldea** 43
01.03.(es) 'Fabrikaldea' de Olaberri

01.04.(eu) **Toki Eder** 52
01.04.(es) Toki Eder

01.05.(eu) **Goiko Izarra** 55
01.05.(es) Goiko Izarra

01.06.(eu) **Bikuñaerrota (Alegiko errota)** 57
01.06.(es) Bikuñaerrota (Molino de Alegría)

01.07.(eu) **Bikuña Berri** 62
01.07.(es) Bikuña Berr

02. BIKUÑANEA 64

02.01.(eu) **Lazkanotegi (Hilarionenea, Benturanea)** 66
02.01.(es) Lazkanotegi (Hilarionenea, Benturanea)

02.02.(eu) **Lazkanotegiberri (Prakalatzenea)** 69
02.02.(es) Lazkanotegiberri (Prakalatzenea)

02.03.(eu) **Bazterrekoa** 73
02.03.(es) Bazterrekoa

02.04.(eu) **Txipitzalle** 75
02.04.(es) Txipitzalle

02.05.(eu) **Illagorrikoa (Olaurrekoa, Kopatsunea)** 80
02.05.(es) Illagorrikoa (Olaurrekoa, Kopatsunea)

02.06.(eu) **Pedro Zubiaren lehen etxea** 84
02.06.(es) Primera casa de Pedro Zubia

02.07.(eu) **Bikuñaolea burdinola eta Bikuñaerrota zaharra** 87
02.07.(es) La ferrería Bikuñaolea y el antiguo molino Bikuñaerrota

índice

03. AIZTONAGA **90**

03.01.(eu) **Bikuñaaundi** **92**
03.01.(es) Bikuñaaundi

03.02.(eu) **Etxezarra** **98**
03.02.(es) Etxezarra

03.03.(eu) **Txorronea** **100**
03.03.(es) Txorronea

03.04.(eu) **Aiztonagabekoa eta Arrazolanea** **107**
03.04.(es) Aiztonagabekoa y la casa de los Arrazola

03.05.(eu) **Aiztonagagarakoa** **114**
03.05.(es) Aiztonagagarakoa

03.06.(eu) **Aiztonagaberri** **116**
03.06.(es) Aiztonagaberri

03.07.(eu) **Frontoi atzeko etxeak** **118**
03.07.(es) Casas de detrás del frontón

04. PLAZA **132**

04.01.(eu) **Ospital zaharra** **134**
04.01.(es) El hospital de la Villa de Legazpi (Antonio Prada Santamaría)

04.02.(eu) **Kontseju zaharra (Maixukoa)** **138**
04.02.(es) Antigua casa consistorial (Maixukoa)

04.03.(eu) **Txokolateronea** **142**
04.03.(es) Txokolateronea

04.04.(eu) **Kontseju-etxea** **144**
04.04.(es) Casa consistorial

04.05.(eu) **Otsategi (Josemarinea, Teresanea, Aseginolazanea)** **154**
04.05.(es) Otsategi (Josemarinea, Teresanea, Aseginolazanea)

04.06.(eu) **Sarasolanea (Sekretarikoa)** **160**
04.06.(es) Sarasolanea (Sekretarikoa)

04.07.(eu) **Ignazioagirrenea (Iturraundi)** **164**
04.07.(es) Ignazioagirrenea (Iturraundi)

04.08.(eu) **Etxezuri, Makibarren etxea eta Pedro Seguraren etxea** **168**
04.08.(es) Etxezuri, casa de Makibar y casa de Pedro Segura

05. ELIZONDO **174**

05.01.(eu) **Arrolategi (Elizondo, Gaxparrenea, Dendaberri, Mutilloarrana)** 176
05.01.(es) Arrolategi (Elizondo, Gaxparrenea, Dendaberri, Mutilloarrana)

05.02.(eu) **Ibarrategi (Muruanea)** 183
05.02.(es) Ibarrategi (Casa Murua)

05.03.(eu) **Gerranea** 191
05.03.(es) Gerranea

05.04.(eu) **Gerranetxiki** 198
05.04.(es) Gerranea Menor (Gerraneatxiki)

05.05.(eu) **Etxaestu (Mataderi zaharra, Apaolazanea)** 202
05.05.(es) Etxaestu (Matadero viejo, Apaolazanea)

05.06.(eu) **Beatakoa (Nikasionea)** 204
05.06.(es) Beatakoa (Nikasionea)

05.07.(eu) **Agirreplaza** 210
05.07.(es) Agirreplaza

05.08.(eu) **Buenaventura (Joxemanuelenea, Blasenea, Martxelinea)** 216
05.08.(es) Buenaventura (Joxemanuelenea, Blasenea, Martxelinea)

05.09.(eu) **Bikarioetxea** 222
05.09.(es) Casa vicarial

06. KALEGOENA-kale berria **226**

06.01.(eu) **Irubideko etxea** 228
06.01.(es) Casa de Irubide

06.02.(eu) **Araotzeneaundi (Lasanea, Isidranea, Gallegoen etxea)** 235
06.02.(es) Araotzeneaundi (Lasanea, Isidranea, Casa de los Gallegos)

06.03.(eu) **Araotzenetxiki (Panaderie, Santanderinoen etxea)** 241
06.03.(es) Araotzenetxiki (Panadería, Casa de los Santanderinos)

06.04.(eu) **Kantoikoa (Sakristaukoa, Pakanea)** 245
06.04.(es) Kantoikoa (Sakristaukoa, Casa Paca)

06.05.(eu) **Zabalonea (Aztirianea, Anamikalenea)** 250
06.05.(es) Zabalonea (La de Aztiria, Anamikalenea)

06.06.(eu) **Frantziskogarronea (Medikukoa, Bittorzapatarinea)** 256
06.06.(es) Frantziskogarronea (Medikukoa, Bittorzapatarinea)

06.07.(eu) **Arrolanea (Gorosabelenea, Jaureginea, Karmenenea)** 259
06.07.(es) Arrolanea (Gorosabelenea, Jaureginea, Karmenenea)

06.08.(eu) **Arabaolatzanea (Atxaparro, Xamoranea, Patxi taberna)** 270
06.08.(es) Arabaolatzanea (Atxaparro, Xamoranea, Bar Patxi)

06.09.(eu) **Santxoneaundi (Txanboliñenea, Alberdi jantzidenda)** 278
06.09.(es) Santxoneaundi (Txanboliñenea, Casa Alberdi)

06.10.(eu) **Santxoetxe (Santxonetxiki, Gasparrenea, Basaberen denda)** 282
06.10.(es) Santxoetxe (Santxonetxiki, Gasparrenea, La tienda de Basabe)

06.11.(eu) **Aberasturinea (Lizarazunea, Karreteronea, Arcadioren barberia, Odriozolaren harategia)** 290
06.11.(es) Aberasturinea (Lizarazunea, Karreteronea, la barbería de Arcadio, la carnicería de Odriozola)

06.12.(eu) **Eskribaukoa (Arrizabalaganea, Gariñenea)** 299
06.12.(es) Eskribaukoa (Arrizabalaganea, La de Garin)

06.13.(eu) **Etxagorri (Paco Barandiaranen etxea)** 303
06.13.(es) Etxagorri (Casa de Paco Barandiarán)

06.14.(eu) **Urmenetanea (Tranpatxikinea, Baldomeronea)** 309
06.14.(es) Urmenetanea (Tranpatxikinea, Baldomeronea)

07. KALEGOENA-Plazaola **314**

07.01.(eu) **Landaneaundi (Konpitteonekoa, Abarkeronekoa)** 316
07.01.(es) Landaneaundi (Konpitteonekoa, Abarkeronekoa)

07.02.(eu) **Landanetxiki (Txortxikonea, Mantxolaren etxea)** 323
07.02.(es) Landanetxiki (Txortxikonea, casa de Mantxola)

07.03.(eu) **Ugalde** 327
07.03.(es) Ugalde

07.04.(eu) **Etxaluze (Andresenea)** 330
07.04.(es) Etxaluze (Andresenea)

07.05.(eu) **Oiarbidenea (Agirrejauregi, Azkaratekoa)** 337
07.05.(es) Oiarbidenea (Agirrejauregi, Azkaratekoa)

07.06.(eu) **Medikuzarranea (Casa nueva de Gorosabel)** 343
07.06.(es) Casa del médico viejo (Casa nueva de Gorosabel)

07.07.(eu) **Elorzanea** 349
07.07.(es) Elorzanea

07.08.(eu) **Bizkaiñonea (Fragua vieja, Etxetxiki, Karbonerie)** 354
07.08.(es) Bizkaiñonea (Fragua vieja, Etxetxiki, Carbonería)

07.09.(eu) **Plazaola eta Plazaolaerrota** 356
07.09.(es) Plazaola y Plazaolaerrota

07.10.(eu) **Etxetorre** 365
07.10.(eu) Etxetorre

08. KALEBARREN **372**

08.01.(eu) **Botika etxea** **374**
08.01.(es) Botika etxea

08.02.(eu) **Mantxolanea (Bikario zaharraren etxea, Patrizioaundinea, Drogerikoa)** **378**
08.02.(es) Mantxolanea (casa del vicario viejo, Patrizioaundinea, Drogerikoa)

08.03.(eu) **Ermentariaundi** **387**
08.03.(es) Ermentaria Mayor

08.04.(eu) **Ermentaritxiki (Arttonea, Kojunea)** **391**
08.04.(es) Ermentaria Menor (Arttonea, Kojunea)

08.05.(eu) **Zulokoa (Monikanea, Ormaxarreta, Txoko Zarreko etxea)** **395**
08.05.(es) Zulokoa (Monikanea, Ormaxarreta, casa del Txoko Zar)

08.06.(eu) **Txokoko etxea** **404**
08.06.(es) La casa del Txoko

08.07.(eu) **Damata (Guridinea, Medikukoa)** **406**
08.07.(es) Damata (Guridinea, Medikukoa)

08.08.(eu) **Karlosenea (Bar Txiki, Traperoaren almazena, Amabiñea, Amabizarranea, Kamiñeronea)** **410**
08.08.(es) Karlosenea (Bar Txiki, almacén del Trapero, Amabiñea, Amabizarranea, Kamiñeronea)

08.09.(eu) **Anduezanea (Lasanea, Etxeberri, Antoninea)** **416**
08.09.(es) Anduezanea (Lasanea, Etxeberri, Antoninea)

08.10.(eu) **Domingonea (Etxeberri, Botoneria)** **422**
08.10.(es) Domingonea (Etxeberri, Botoneria)

08.11.(eu) **Iribarren eta Errotaritxonea (Bekoetxea, Kalebarren, Bazterrikanea)** **427**
08.11.(es) Iribarren y Errotaritxonea (Bekoetxea, Kalebarren, Bazterrikanea)

08.12.(eu) **Xesterokoa (Ermentaritxonea, Herreronea)** **435**
08.12.(es) Xesterokoa (Ermentaritxonea, Herreronea)

08.13.(eu) **Azpikoetxe Berria (Azpikoetxe taberna)** **440**
08.13.(es) Azpikoetxe Berria (Bar Azpikoetxe)

08.14.(eu) **Gregorionetxiki (Trapunea)** **443**
08.14.(es) Gregorionetxiki (Trapunea)

08.15.(eu) **Gregorioneaundi (Karreteronea, Joakiñanea)** **446**
08.15.(es) Gregorioneaundi (Karreteronea, Joakiñanea)

08.16.(eu) **Azpikoetxeerrota** **450**
08.16.(es) Azpikoetxeerrota

08.17.(eu) **Azpikoetxea eta Papelera** **453**
08.17.(es) Azpikoetxe y la Papelera

08.18.(eu) **Papelerako teknikarien etxea** **462**
08.18.(es) Casa de los técnicos de la Papelera

08.19.(eu) **Papelerako txoferraren eta mekanikariaren etxea** **465**
08.19.(es) Casa del chófer y del mecánico de la Papelera

08.20.(eu) **Txintxoetxe** **469**
08.20.(es) Txintxoetxe

09. MANTXOLA **476**

09.01.(eu) **Mantxolaaundi** **478**
09.01.(es) Mantxolaaundi

09.02.(eu) **Mantxola Berri** **484**
09.02.(es) Mantxola Berri

09.03.(eu) **Mantxolatxiki** **488**
09.03.(es) Mantxolatxiki

09.04.(eu) **Mantxolatxiki Berri** **492**
09.04.(es) Mantxolatxiki Berri

09.05.(eu) **Ajuex** **494**
09.05.(es) Ajuex

10. BERRIEMAILEAK **498**

ERANSKINA JUANITA PASTELERAREN ERREZETAK **503**

Kalea, plaza edo hiria, momentu historikoaren arabera

[eu]

Legazpiko jendeak "kaleaz" hitz egiten duenean, orokorrean, herrigunea du gogoan eta ez kale zehatz bat, Nafarroa kalea, Kale Nagusia, Patrizio Etxeberria kalea, Plazaola kalea edo Aizkorri kalea. "Kalea" ez dena, auzoak edo barrioak dira. Erabiltzen den esapideari erreparatuta, irudi luke kale bakarra daukagula. Eta kontu hori ez da kasualitatea, tradizio luzea du.

Alde batetik, jakina da Legazpiko herrigunea mendeetan zehar kale bakar batez osatua egon dela, 1930. hamarkadan, hazkunde demografikoarekin batera, bigarren kalea egin zen arte, "kale berria" (gaur egun, Kale Nagusia). Kale bakarra zen, hortaz, Ospital zaharretik hasi eta Azpikoetxen amaitzen zena. Izenik ere ez zuen behar egunerokoan, "kalea" zen eta kito. Horregatik, legazpiarrek gaur egun oraindik erabiltzen duten esamoldeak ("kalea" eta gaztelaniaz "la calle"), hein batean, horri erantzuten diola esango genuke.

Beste alde batetik, ordea, kontuan eduki behar da Legazpin "kalea" hitza herrigunea designatzeko ez dela oso zaharra. XVIII. mendeko agirietatik aurrera ikusiko dugu, baina ez lehenago:

- *Calle principal* (1735)
- *Calle pública* (1772)
- *Calle de esta Villa* (1775)
- *Calebarrena* (1793). Kontsultatutako agirian gerora Errotaritxonea izenez ezagutu den etxeari esaten zitzaion, kale zaharreko beheko aldean kokatua.

Horren aurretik, herrigunea designatzeko "plaza"

Calle, plaza o "hiria", según el momento histórico

[es]

Cuando la gente de Legazpi habla de "la calle" se refiere, en general, al centro urbano y no a una calle en concreto, como podrían ser Kale Nagusia, la calle Patrizio Etxeberria, la calle Plazaola o la calle Aizkorri. Y lo que no es "la calle" es el barrio o los barrios. Por la expresión que se utiliza, da la impresión de que no hay más que una calle. Esta es una cuestión que viene de antiguo.

Por una parte, es sabido que durante siglos el centro urbano de Legazpi lo conformaba una sola calle, hasta que en la década de 1930, con el crecimiento demográfico de la población, se abrió una segunda, la "calle nueva" (actual Kale Nagusia).

Teníamos, por lo tanto, una calle que comenzaba en el Hospital Viejo y terminaba en Azpikoetxe. Al ser solamente una, en la práctica diaria no necesitaba ni nombre, se trataba de "la calle" y punto. Diríamos así que la expresión "kalea", y en castellano, "la calle" responde a dichas circunstancias.

Pero, por otra parte, hay que tener en cuenta que el nombre de "calle" para designar a la vía principal de Legazpi no es de siempre. Lo vemos en la documentación a partir del siglo XVIII, pero no antes:

- *Calle principal* (1735)
- *Calle pública* (1772)
- *Calle de esta Villa* (1775)
- *Calebarrena* (1793). En la documentación consultada se indicaba con ese nombre la casa que se ha conocido posteriormente como Errotaritxonea, situada en la parte de abajo de la calle vieja.



Legazpiko herrigunea 1912. urtean (Felisa Anduezak emana).

[eu]

zen erabiltzen zen hitza, Legazpiko kasuan behinik behin, ondorengo adibideetan ikusten den bezala:

- *Camino público e real que va de Barrenola a la plaza; camino que va de la plaza a Urtaza* (1532)
- *Camino público de la plaza a la villa de Segura* (1532)
- *La casa de Juan Martinez de Vicuna de Barrenolea la plaça* (1532)
- *Dos cassas en la plaça* (1609)
- *Cassa que tiene en la plaça* (1609)

Hortik, halaber, Agirreplaza etxearen izena (1609, *Aguirre de la plaça*) eta Plazaola (1483: *ferrería de Plaçaola*), herrigunean zeudelako alegia, eta ez herriko plazaren bueltan.

Plazaren adiera hori ez da Orotariko Euskal Hiztegian jasotzen, ez eta Espainiako eta Frantziako Akademietako hiztegietan ere. Bitxia da.

[es]

Anteriormente, el término que se utilizaba para designar al centro urbano era "plaza", por lo menos en Legazpi, tal como se aprecia en los siguientes testimonios:

- *Camino público e real que va de Barrenola a la plaza; camino que va de la plaza a Urtaza* (1532)
- *Camino público de la plaza a la villa de Segura* (1532)
- *La casa de Juan Martinez de Vicuna de Barrenolea la plaça* (1532)
- *Dos cassas en la plaça* (1609)
- *Cassa que tiene en la plaça* (1609)

De ahí el nombre de Agirreplaza (1609, *Aguirre de la plaça*) y Plazaola (1483: *ferrería de Plaçaola*), dado que se encontraban en el casco urbano, pero no porque estuviesen alrededor de la plaza del pueblo.

Esta acepción de "plaza" no la hemos encontrado

[eu]

Bestelako plaza, herritarrak jai-egunetan eta aisialdian elkartzeko tokia, feriak egiteko tokia, normalean pilotalekua eta bolatokia egon ohi ziren tokia, oraingo plazaren leku berean zegoen Legazpin XX. mende hasierara arte, txikiagoa izatea. Izan ere, 1927 urtera arte, espazio horretan Kontseju-etxe edo udaletxe zaharra eta Txokolateronea etxea zeudela kontuan hartu behar da. Pilotalekua bi kontseju-etxeen artean zegoen (leiho bat zeukan frontisaren erdian eta beste bat ezker paretan) eta bolatokia, berriz, kontseju-etxe berria eta elizaren artean.

Beraz, goiko hariari jarraituz, ikusten dugu legazpiarrek herriguneari XV., XVI. eta XVII. mendean "plaza" esaten ziotela eta XVIII. mendetik aurrera, berriz, "kalea", gaur arte jarraitu duen ohiturari bide emanez.

Antzina, ordea, hirugarren termino bat ere bazela uste dugu, leku-izen bakarretik ondorioztatu badugu ere. Termino hori "hiri" da eta *Yribarren* leku-izenean topatuko dugu (1609. urtetik 1887. urtera arte behin eta berriro azaltzen da dokumentazioan). Goian aipatutako Errotaritxonea etxea erreferitzen zuen eta gaur eguneko Nafarroa kalearen beheko aldean zegoen. Suposatzen da, hortaz, izenaren osaketari erreparatuta ("(h)iri"+"barren") Legazpiko "hiriaren" barrenean zegoela eta gorago "(h)iri goiena" egongo zela, Elizondo inguruan seguruenik, alderdi horretan "(h)iri" osagaia duen etxe-izenik jaso ez badugu ere. Ezkioko Santa Lutzi auzoan ere antzeko adibidea daukagu. Udaletxetik behera Iriarte eta Iribarren baserriak daude, baina ez dago Irigoien izeneko etxerik. Pentsatzekoa da *Irigoien gorago zegoela, gaur egungo Anduagan, akaso.

Erregebidearen ondoan zegoen herria

Legazpiko kalea, plaza edo hiria (historikoki hirurak erabili izan dira, ikusi dugun bezala) bide garrantzitsu baten aldamenean zegoen eta izan zitekeen herrigunea sortzeko edota garatzeko arrazoietako bat,

[es]

en el Diccionario General Vasco, pero tampco en los diccionarios de las Academias de la Lengua Española ni en la Francesa. Es curioso.

La otra plaza, la que utilizaban los vecinos para reunirse en días festivos y actividades de ocio, donde se celebraba el mercado y donde se situaban el frontón y la bolera, se encontraba prácticamente en la ubicación actual, aunque más pequeña. Hay que tener en cuenta que hasta 1927 en el espacio que ocupa la plaza actual había dos edificios: el ayuntamiento viejo y la casa del Chocolatero. El viejo frontón se encontraba encajonado ente los dos ayuntamientos (tenía una ventana en el frontis y otra en la pared izquierda) y la bolera se situaba entre el ayuntamiento nuevo y la iglesia.

Con lo cual, y siguiendo al hilo de lo que veníamos contando, vemos que al centro urbano los legazpiarras le llaman "plaza" en los siglos XV, XVI y XVII y "kalea" a partir del siglo XVIII.

Pero aún hay un tercer término más para designar al centro urbano, y lo deducimos partiendo de un nombre de casa que aparece con asiduidad entre los documentos de 1609 y 1887. Se trata de *Yribarren* y se refiere a la misma casa Errotaritxonea que hemos citado más arriba. La composición del nombre ("(h)iri"+"barren") nos indica que la casa se encontraba en la parte inferior de centro urbano y que, por consiguiente, debería haber otra u otras en la parte superior, seguramente en la zona donde se ubica el Elizondo actual. Apreciamos un caso parecido en el barrio Santa Luzia de Ezkio, donde se encuentran las casas de Iriarte e Iribarren, pero no se conoce ninguna con el nombre de *Yrigoien, que podría ser el actual ayuntamiento.

Población a orillas de un Camino Real

La calle, la plaza o "(h)iria" (centro urbano o ciudad) de Legazpi (como se ha visto, históricamente se han utilizado las tres acepciones) se encontraba a la vera

[eu]

burdinola hidraulikoen gorantzarekin batera, gero ikusiko dugun bezala.

Badakigu, XIII. mendetik aurrera (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa Gaztelako Erresuman sartu zirenetik) Arabako lautada eta Donostialdea lotzeko bide nagusiak bi zirela: bata, Arlabango mendatetik igarotzen zena; eta bestea, Sandratitik igarotzen zena eta XIV. mende amaieratik aurrera indarra hartu zuena (Barrena 1991: 125-127). Lehenengo bideak Debagoiena gurutzazen zuen lehenengo eta, ondoren, Goierrira sartzen zen, bertatik Donostialdera joateko. Bigarrena Sandratiko koban sartzen zen Gipuzkoako lurraldean eta Beasaingo Igartza jauregi inguruan bat egiten zuen Debagoienatik zetorrenarekin. Bada, lehenengo bide hori Legazpitik igarotzen zela segurua da, baina ez dakigu nondik igaroko zen hasiera batean: Zatuitik eta Aztiritik, hori baitzen motzena, edo Udanatik eta Atagoititik (eta horrenbestez, Legazpiko kaletik), luzeagoa baina leunagoa. Edo bietatik egiten zuen (Ugarte 2015: 32-37). Udana eta Atagoitiko bidearen (eta ondorioz, Legazpiko kaletik igarotzen zen bidearen) aldeko testigantza idatziak berandukoak dira eta ezin dugu, tamalez, hortik ondorio sendorik atera:

- *camino real que se dirige de las Villas de Ormaiztegui y Gaviria para la mencionada Villa de Legazpia* (1650)
- *para la cruz de Udana se alló otro mojón de piedra arenisca con su testigo a la bista del camino real* (1718)
- *camino carretil público para Atagoiti* (1822).

Urretxuko Pello Gonzalez historialariaren iritzian, Urretxuko hiribildua sortzean 1383. urtean, Arlabango ardatzak indarra hartu zuen: *"La fundación de Urretxu en 1383 crea así el eslabón necesario para terminar de configurar un nuevo camino que pusiera en contacto el del Oria y el del Deva en sentido transversal, a la vez que se conformaba un nuevo acceso a Castilla a través de Alava-Pto. de Arlabán-Salinas-Mondragón-Oñati-Legazpia-Urretxu-Beasain, que veremos utilizar con frecuencia a los reyes de la casa de Austria camino de la frontera con Francia, Urretxu tendrá ocasión de ofrecer alojamiento a estos monarcas"* (González 1986:37). Urretxuko ikerlariak adierazitakoaren


[es]

de un Camino Real o camino público importante que pudo haber sido uno de los causantes de su fundación y/o desarrollo, junto a la pujanza de las ferrerías hidráulicas, como veremos más adelante.

Sabemos que a partir del siglo XIII (desde la anexión de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa al Reino de Castilla) se potenciaron los caminos que comunicaban la meseta castellana con San Sebastián y el mar. Destacaban dos: el que se introducía por el puerto de Arlaban, por un lado; y el que lo hacía por San Adrián, por otro, aunque este último no adquirió importancia hasta finales del siglo XIV (Barrena 1991: 125-127). Una vez en territorio guipuzcoano, el primero de ellos se adentraba en el Alto Deba, para hacerlo más tarde en el Goierri y dirigirse posteriormente a San Sebastián. El segundo penetraba en Gipuzkoa por el túnel de San Adrián y empalmaba con el camino de Arlaban en el solar de Igartza de Beasain. Pues bien, se puede afirmar, por lógica y por los datos históricos que hablan del paso de séquitos reales, caminos reales y caminos públicos, que la primera de las vías sí que atravesaba el valle de Legazpi. Sin embargo, es más complicado saber si lo hacía por los puertos de Zatui y Aztiri, más corto, o si lo hacía por Udana y Atagoiti (y por consiguiente por la calle), más largo pero más suave. O si lo hacía por ambos dependiendo de la época u otras circunstancias (Ugarte 2015: 32-37). He aquí algunos testimonios que hablan del camino de Udana y Atagoiti:

- *camino real que se dirige de las Villas de Ormaiztegui y Gaviria para la mencionada Villa de Legazpia* (1650)
- *para la cruz de Udana se alló otro mojón de piedra arenisca con su testigo a la bista del camino real* (1718)
- *camino carretil público para Atagoiti* (1822).

Llegados a este punto ,mencionaremos el nombre "Camino Real" que anda en boca de los legazpiarras para referirse al camino que va de Motxorro a Atagoti. Se trata de una expresión que no tiene ninguna base histórica, dado que dicho tramo se construyó entre 1846 y 1849 con motivo de la anexión de Oñati



1805. urteko Legazpiko mugarrien planoan garbi ikusten dira Gabiria aldera zihoazen bi bideak.

Gaur egun ere hortxe daude biak, bata Atagoititik doana, bestea Arrasetatik.

Esan beharra dago, dena den, Atagoitiko bidearen lehen zatia, Plazaola-Mantxola, desagertu zela

(Legazpiko Artxibo Historikoa).

[eu]

froga politak ditugu Legazpin. Badakigu, hala, 1721 eta 1722. urteetan Legazpiko Ibarrategi etxean lo egin zutela Espainiako Felipe V.aren alabak, Mariana Viktoria Borboikoak, eta Felipe II. Orleansko dukearen bi alabak, Luisa Isabel eta Felipa Isabelek. Atzerrirako joan-etorrian erret-familiako kideek Legazpin hartu zuten ostatu, erregebidea bertatik pasatzen zelako eta, kasu zehatz horretan, konfiantzazko "zaldun" eta laguna zutelako, Jose Francisco Zumalabe Plazaola (Salmerón 2014: 13-16).

Alabaina, Legazpiko herrigunea ez zen Urretxuko hiribilduaren sorreraren ondorioz sortu, 1384. urterako Legazpiko "plaza" bazegoelako: *en el valle de Legazpia, delante de la casa de piedra de la plaça* (Diez de Salazar 1985: 104).

1765. urtean, Gipuzkoako "kotxeen erregebide berria" eraiki zutenean, Legazpi Gipuzkoako komunikabidesare nagusitik kanpo geratu zen, bide berria ez zelako Legazpitik ez Oñatitik igarotzen. Urretxutik Bergara aldera egiten zuen eta handik Arrasate aldera.

[es]

a la provincia de Gipuzkoa. Anteriormente no existía ninguna vía por la falda del monte Aizaleku. No descartamos que el nombre se tomase del antiguo Camino Real que comunicaba la calle de Legazpi con Atagoiti, por Mantxola, al perder éste su importancia con la construción de la nueva carretera Oñati-Ormaiztegi.

Continuando con el eje Arlaban-Igartza mencionado más arriba, el historiador de Urretxu Pedro González afirma que con la fundación de la villa de Urretxu en 1383 se potenció el mismo y que afectó a todas las villas por donde transcurría: *"La fundación de Urretxu en 1383 crea así el eslabón necesario para terminar de configurar un nuevo camino que pusiera en contacto el del Oria y el del Deva en sentido transversal, a la vez que se conformaba un nuevo acceso a Castilla a través de Alava-Pto. de Arlabán-Salinas-Mondragón-Oñati-Legazpia-Urretxu-Beasain, que veremos utilizar con frecuencia a los reyes de la casa de Austria camino de la frontera con Francia, Urretxu tendrá ocasión de ofrecer alojamiento a estos monarcas"* (González 1986:37). En relación al paso de los séquitos re-

[eu] Atal honekin amaitzeko gaur egun legazpiarren ahotan dabilen "Kamiñu Erreala" aipatuko dugu. Esapide horrekin Motxorrotik Atagoitira doan bidea adierazten da, baina ez da zuzena. Izan ere, bide hori 1846-49 urte bitartean egin zen, Oñati Gipuzkoako lurralde historikoan sartzean. Bide zaharra ez zihoan Aizalekuko hegaletik, Plazaolatik Mantxolara egiten zuen eta hemendik Atagoitira eta Ormaiztegira.

Santa Maria, izen historikoa

"Santa Maria", Legazpiko eliza nagusiaren antzinako adbokazioa izateaz gain, izan liteke herriaren izen zaharra ere, horrela irakurtzen baita 1430. urteko agiri batean: *Valle e collaçión de Santa María de Legaspia* (Ayerbe 1995: 54). Hipotesi horrek, dena den, indarra galtzen du Antonio Prada historiagilearen eskutik pentsatzen badugu elizaren adbokazioa herriaren izenaren aurretik jartzea Erdi Aroko amaieraren ohitura administratibo bat zela, ondorengo adibideetan ere ikusten den bezala: *collaçión de Sant Miguell d'Esquioga* (1390), *collación de Santa María de Çumarraga* (1390), *collaçión de Sant Miguell de Ydiaçaval* (1402), *collaçión de Sant Pedro de Harriaran* (1402), *collaçión de Sant Andrés de Hormáystegui* (1402), *collaçión de San Martín de Çegama* (1402)... Zumarragako historiagileak gaineratzen du, balizko izen zaharraren arrastorik ez dela geratu herri gehienetan, baina ez du erabat baztertzen herria edo herrigunea izen horrekin ezaguna izatea garai batean.

"Santa Maria" izen hori, ordea, XIX. mendetik aurrera berriz azaltzen da Legazpiko dokumentazioan Legazpiko hiriguneari lotua: *Calle o Cuartel de Santa María* (1863, 1887), *Calle de Santa María* (1866), *Santa María, Sección 1ª* (1920)... Pentsatu liteke ez dela eztabaida luze baten ondoren hartutako erabakia, zerbait naturala baizik. Baina ez daukagu XIX. mende aurreko testigantza dokumentalik horrelakorik frogatzeko, 1430. urteko aipamena salbu.

Badakiguna da duela gutxi arte adineko legazpiarrek (Eugenio Elorza eta Mariatxo Andueza zirenak diales, el archivo municipal de Legazpi guarda un buen testimonio de ello, y gracias a él se sabe que en 1721 y 1722 se alojaron en la casa Ibarrategi de la villa de Legazpi la hija del rey de España, Mariana Victoria de Borbón, y las dos hijas del duque de Orleans Felipe II, Luisa Isabel y Felipa Isabel. Se ospedaron en Legazpi por dos razones, porque la villa se encontraba en el mismo camino real y les venía bien, y porque contaban con la confianza de un "caballero" y amigo oriundo de la villa como era José Francisco Zumalabe Plazaola (Salmerón 2014: 13-16). [es]

La fundación de la Villa de Urretxu y la promoción del eje Arlaban-Igartza para el tránsito de viajeros y mercancias no pudo ser la causa de la creación del centro urbano de Legazpi porque, entre otras cosas, ya existía en 1384, tal como se aprecia en este testimonio: *en el valle de Legazpia, delante de la casa de piedra de la plaça* (Diez de Salazar 1985: 104). Pudo ser un estímulo para su desarrollo, a lo mejor, pero la "plaza" o el "centro urbano" o "hiria" ya existía con antelación.

Para terminar con este apartado, indicaremos que con la finalización del nuevo trazado del *"Camino Real de Coches"* en 1775, Legazpi quedó fuera de la red viaria principal de Gipuzkoa, perdiendo de dicha manera la importancia estratégica que tuvo antaño.

Santa María, nombre histórico

"Santa María" no es solamente la advocación de la iglesia parroquial de Legazpi, sino que puede ser además su primitiva denominación, si nos fijamos en la expresión de un documento de 1430 donde se lee *Valle e collaçión de Santa María de Legaspia* (Ayerbe 1995: 54). Sin embargo, esta hipótesis pierde fuerza si creemos, de la mano del historiador Antonio Prada, que a finales de la Edad Media se añadía, por práctica administrativa, la advocación de la iglesia al nombre de la población, tal como se aprecia también en otros casos: *collaçión de Sant Miguell d'Esquioga* (1390), *collación de Santa María de Çumarraga* (1390),

[eu]

tugu gogoan) deitoratzen zutela 1937. urtean Legazpiko udal korporazio frankistak hartutako erabakia, kale zaharrari "Santa María" izena kendu eta "Navarra" izena jartzearena. Legazpiko historiari egindako traiziotzat jotzen zuten, nolabait.

Dena den, puntu honetara iritsita, Legazpi izenari buruz ere hitz egin behar dugu, "Santa Maria" izenarekin zerikusirik izan dezakeelakoan, amaieran ikusiko dugun bezala. Izan ere, baliteke garai batean Legazpi edo Legazpia izena eremu zabal-zabal bat izendatzeko erabiltzea, eta ez oraingo Legazpi haranak hartzen duen lurraldea. Hala, Zumarragako Antonio Prada ikerlariaren iritzian, Legazpi izenak antzina mendiko burdingintzaren jarduera ohikoa zen alderdia erreferitzen zuen, oraingo Legazpi, Gabiria, Mutiloa, Zerain, Segura eta Zegamako udalerrietako lursailak hartuz, Otañu mendi inguruan. Hona hemen Pradaren iruzkina:

> "*El hecho de que el rey mencionase únicamente a las ferrerías de Legazpia en 1290 nos hace pensar que por este apelativo se conocía a una zona hoy supramunicipal, pero entonces única, dado el comienzo de la territorialización de las diferentes zonas guipuzcoanas hacía muy poco tiempo: el Valle de Legazpia. Siempre según esta hipótesis, en el documento de 1290 el Rey, al mencionar la palabra "Legazpia", estaba haciendo referencia, lógicamente, al Valle coetáneo, y este concepto genérico no desapareció hasta que, efectuada ya la definitiva territorialización, no apareciesen los núcleos de población diferenciados en la década de los años ochenta del siglo XIV: Zerain, Zegama, Mutiloa, Gabiria, etc. Incluso en la fecha más moderna del 15 de mayo de 1335, en que aparecen por primera vez en la documentación nombres de otros topónimos, como Necaburu, Hayzpuru, Çamora, Ocannu y Barbaria, hemos de considerarlos a todos ellos dentro del Valle de Legazpia como entorno genérico* " (Prada 2008: 29).

Gure ustez, "Legazpi" izenak berak, gainera, izan dezake loturarik legarrarekin, burdinolek sortzen zuten zepa-harriekin, oso ugaria baita meatze-barruti

[es]


collación de Sant Miguell de Ydiaçaval (1402), *collación de Sant Pedro de Harriaran* (1402), *collación de Sant Andrés de Hormáystegui* (1402), *collación de San Martín de Çegama* (1402)... El historiador de Zumarraga añade que en la documentación histórica posterior no han quedado huellas de aquellas denominaciónes, por lo que descarta en principio que se tratasen de antiguos nombres, si bien no lo hace definitivamente.

Sin embargo, en el caso de Legazpi, observamos que el nombre de "Santa María" vuelve a aparecer a partir del siglo XIX, relacionado con el centro urbano: *Calle o Cuartel de Santa María* (1863, 1887), *Calle de Santa María* (1866), *Santa María, Sección 1ª* (1920)... Da la impresión que no es consecuencia de una decisión tomada tras un largo debate, sino algo natural. Por desgracia, no tenemos testimonios documentales anteriores al siglo XIX para probarlo, a excepción de la cita de 1430.

Lo que sí sabemos es que, hasta hace poco, la gente mayor de Legazpi (tenemos en mente a Eugenio Elorza y a Mariatxo Andueza) lamentaban la decisión tomada por la corporación franquista de 1937, por la cual cambiaron el nombre de "Santa María" por el de "Navarra", ya que les parecía, de alguna manera, una traición a la historia de Legazpi.

Una vez llegados a este punto, tenemos que hablar también del nombre Legazpi, por la relación que pudiera tener con "Santa María", tal como veremos más adelante. Según parece, antiguamente la denominación Legazpi o Legazpia podría no referirse al actual territorio que conocemos como Valle de Legazpi, sino a un territorio aledaño, y más concretamente al distrito minero de Otañu que incluye terrenos pertenecientes actualmente a Legazpi, Gabiria, Mutiloa, Zerain, Segura y Zegama. Se trata de una hipótesis elaborada por el historiador de Zumarraga Antonio Prada y que se recoge en una publicación de Burdinola de 2008, de la siguiente manera:

> "*El hecho de que el rey mencionase únicamente a las ferrerías de Legazpia en 1290 nos hace pensar que por este apelativo se conocía a una zona hoy supra-*



Antzinako burdingintzaren ondorioz Otañu-Barbari meatze-barrutian topatu daitezkeen eskoria-pilak, puntu gorriz irudikatuak (Erdi Aroko Burdin Arkeologia. Legazpi barrutiko zepadiak, 2014).

[eu]

osoan, eta hortik "leg(a)" hasiera. Horrekin lotuta, gaineratuko dugu, Gabiriko eta Zeraingo Legorburu izeneko baserri inguruetan (meatze-barrutian daude, biak ere) legar edo eskoria pilaz inguratuta daudela eta, horregatik, iruditzen zaigu haien izenetan "legar" hitza dagoela eta ez "legor", dokumentatuta ez dagoen arren. Kontu honek, egiaztatuko balitz, Antonio Pradaren hipotesia indartuko luke.

Horrekin guztiarekin, uste dugu badirela motiboak pentsatzeko bi errealitate desberdinen aurrean izen desberdinak beharko zirela, oso gertukoak izan arren. Alde batetik, antzinako "Legazpia" hutsa

[es]

municipal, pero entonces única, dado el comienzo de la territorialización de las diferentes zonas guipuzcoanas hacía muy poco tiempo: el Valle de Legazpia. Siempre según esta hipótesis, en el documento de 1290 el Rey, al mencionar la palabra "Legazpia", estaba haciendo referencia, lógicamente, al Valle coetáneo, y este concepto genérico no desapareció hasta que, efectuada ya la definitiva territorialización, no apareciesen los núcleos de población diferenciados en la década de los años ochenta del siglo XIV: Zerain, Zegama, Mutiloa, Gabiria, etc. Incluso en la fecha más moderna del 15 de mayo de 1335, en que aparecen por primera vez en la documentación nombres de otros topónimos, como Necaburu, Hayzpuru, Çamora, Ocannu y Barbaria, hemos de considerarlos a todos ellos dentro del Valle de Legazpia como entorno genérico " (Prada 2008: 29).

La denominación "Legazpi", además, pudiera tener una relación directa con "legar" o escoria de hierro, tan abundante en todo el distrito minero, y de ahí la forma inicial "leg(a)" del topónimo. Resulta que dentro del distrito minero de Otañu existen dos caseríos llamados Legorburu, uno perteneciente al municipio de Gabiria y el otro a Zerain, que se encuentran rodeados por grandes cantidades de escorias, lo cual nos induce a pensar que estamos ante el término "legar" y no "legor", aunque no esté documentado. Esta interpretación de nombre de Legazpi, en el caso de que pudiese probarse, reforzaría la hipótesis de Antonio Prada.

Con esto pensamos que hay suficientes motivos para pensar que ante diferentes realidades se necesitaban diferentes denominaciones, aunque éstas fueran muy similares. Así, por una parte tendríamos el primitivo "Legazpia", sin añadidos (*las ferrerías que son en Legazpia masuqueras*, 1290; *sus masuqueras que estavan en Legazpia*, 1300) que hace referencia al distrito minero de Otañu; y, por otro, tendríamos expresiones más recientes (*Valle de Legazpi,* 1421; *Balle de Legazpi,* 1430; *Balle de Legaspia,*1483; *Valle de Legaspy,* 1495, así como la expresión de 1430, citada más arriba *Valle e collación de Santa María de Legaspia*) que hacen referencia al actual término municipal. El añadido de

[eu]

izango genuke (*las ferrerías que son en Legazpia masuqueras*, 1290; *sus masuqueras que estavan en Legazpia*, 1300) Otañuko meatze-barrutia izendatzeko erabiltzen zena; eta, bestetik, esapide berrriagoak (*Valle de Legazpi,* 1421; *Balle de Legazpi,* 1430; *Balle de Legaspia,*1483; *Valle de Legaspy,* 1495; eta 1430. urtean jasotzen *den Valle e collaçión de Santa María de Legaspia*). Guk uste dugu testuinguru horretan "Santa Maria" gehigarriak Legazpiko errealitate berriari egiten diola erreferentzia.

Arabako izenen ugaritasun susmagarria

Liburu honetan aztertu dugun eremuan zortzi azpieremu bereizi ditugu: Alegia, Bikuñanea, Aiztonaga, Plaza, Elizondo, Kalegoena, Kalebarren eta Mantxola. Izan ere, Santa Maria kalean etxe eta eraikin asko egon dira historian zehar, eta irakurleareari begira erabaki dugu informazio guztia ahalik eta gehien xehetzea eta sailkatzea.

Bada, aipatutako azpieremu horien izenak aztertuz konturatu gara Arabako jatorria izan dezaketen bi leku ditugula: Alegia eta Bikuñanea. Lehenengoak izan dezake loturarik Alegría-Dulantzi udalerriarekin eta bigarrenak, berriz, San Millan udalerrian dagoen Bikuña kontzejuarekin. Kontu horrek, lehen kolpean, ausazkoa eta bitxia dirudien arren, beste dimentsio bat hartzen du Legazpi haraneko leku historikoak erreferitzeko izen gehiago aztertuta. Izan ere, beste lau izen gehiago ere badira, oro urrutira joan gabe, Arabarekin lotura izan dezaketenak. Hauexek: Arabaolea, Barrundiola, Mirandaola eta Bitoriola (azken hau Zumarragako udalerriaren mugan zegoen burdinola desagertua).

Sei izen gutxienez badira hortaz, eta litekeena da gehiago ere izatea. Ez du ematen kasualitatea denik. Denek, gainera, ur-ibilguren baten ondoan dagoen burdinola edo eremuren bati egiten diete erreferentzia. Esan liteke, hori ikusita, Arabatik etorritako jendeari edota "kapitalari" esker (Mirandatik, Bitoritik, Alegitik, Barrundiatik, Bikuñatik, Arabazelaitik...)

[es]

"Santa María" podía contribuir a señalar la nueva realidad que suponía Legazpi.

Una sospechosa profusión de nombres alaveses

Dentro del ámbito geográfico del objeto de estudio de esta publicación hemos contemplado ocho subzonas, debido a la gran cantidad de casas y construcciones que han existido a lo largo de la historia. Son las siguientes: Alegia, Bikuñanea, Aiztonaga, Plaza, Elizondo, Kalegoena, Kalebarren y Mantxola.

Pues bien, si analizamos sus nombres, nos daremos cuenta que los dos primeros pueden tener origen alavés: Alegia y Bikuñanea. Así, el primero de ellos podría tener relación con el municipio de Alegría-Dulantzi y el segundo con el concejo de Bikuña perteneciente al municipio de San Millán. Aunque en un principio puede parecer casual y curioso, sin más, dicha cuestión toma otra dimensión si observamos que existen, por lo menos, cuatro lugares más en el Valle de Legazpi que guardan relación con nombres alaveses, como son: Arabaolea, Barrundiola, Mirandaola y Bitoriola (ferrería desaparecida que se encontra cerca de la muga de Zumarraga).

Hemos identificado seis a lo largo del valle, pero pueden ser incluso más. Además, todos o casi todos hacen referencia a ferrerías hidráulicas y/o zonas aledañas, por lo que deducimos que no es casual. Pudo haber antiguamente un trasvase de población y/o de "capital" alavés hacia el Valle de Legazpi. Los lugares de procendencia serían, partiendo de los topónimos legazpiarras, los siguientes: Miranda, Vitoria, Alegría, Barrundia, Bikuña y la Llanada alavesa. Las causas de dicha "colonización" estarían relacionadas seguramente con el auge de las ferrerías hidráulicas de las provincias costeras junto al declive de la industria ferrona alavesa, tal como apunta la historiadora Elena Legorburu: "*Las ferrerías secas gozaron de una gran pujanza en el País Vasco hasta, aproximadamente, los siglos XII y XIII (…) La primacía alavesa declina con la llegada de la rueda hidráulica. Los aparejos hidráulicos suponen la promoción de las*



Arabako lautadako Bikuña herria 2010. urteko irudi batean (J.L.U.).

[eu]

burdinolak eraiki zirela Legazpi haranean. Elena Legoruburu historigileari esker badakigu XII eta XIII. mendeetan Arabako burdingintzak goia jo zuela eta, handik aurrera, teknologia hidraulikoa sartzean gainbehera hasi zela, kostaldeko lurraldeen mesedetan (Legorburu Faus 2000: 57). Horrek azaldu lezake arabarren presentzia Legazpin garai goiztiarretan.

Liburu honetan ikertutako eremuan, aipatu bezala, bi leku-izen dira Arabako jatorria izan dezaketenak. Bata Bikuña da, Legazpin Bikuñaolea, Bikuñanea, Bikuñazelai... izenak sortu dituena. Badakigu ziurtasunez Arabako Bikuña leinu boteretsuaren ondorengoek Legazpin erroak eman zituztela eta, horregatik, garbi dago ez dela jatorriz Legazpiko toponimoa. Alegia izena da bestea, Legazpiko Bikuñanea eta Olaberri auzuneen artean dagoen leku bat izendatzen duena. Agiri zaharretan era horretan ikusiko dugu: *Puente de Alegría* (1433), *Puerta que llaman de Alegría* (1609), *Término llamado Alegría* (1614), *Prado de Alegría* (1614), *Término llamado Alegría pegante al Calvario* (1825) eta abar. Sustraiak Bikuñaneko Lazkanotegiberri baserrian zituen Eugenio Elorza Guridi herritarrak "Alegierrekea" izena ematen zion Uztano aldetik Gurtzain garajerantz jaisten den errekari. Azkenik, Alegia izeneko parajean errota eraiki zuten

[es]

provincias atlánticas" (Legorburu Faus 2000: 57). Esto explicaría la tan temprana presencia de alaveses en la historia de Legazpi.

Tal como hemos apuntado más arriba, son dos los nombres citados en esta publicación que pueden tener un origen alavés. Por una parte, Bikuña y sus derivados, Bikuñaolea, Bikuñanea, Bikuñazelai... Sabemos con certeza que descendientes del poderoso linaje alavés echaron raices en Legazpi, con lo cual, no se trataría de un topónimo genuinamente legazpiarra. Y tenemos Alegia o Alegría, por otro nombre que hace referencia a un lugar ubicado entre la ferrería de Bikuña y la de Olaberri. En la documentación histórica aparece de esta manera: *Puente de Alegría* (1433), *Puerta que llaman de Alegría* (1609), *Término llamado Alegría* (1614), *Prado de Alegría* (1614), *Término llamado Alegría pegante al Calvario* (1825) etc. Eugenio Elorza Guridi, vecino de la Legazpi con raices en el caserío Lazkanotegiberri de Bikuñanea, utilizaba el nombre de "Alegierrekea" para referirse a la regata que, desde Uztano, bajaba al río Urola a la altura del Garaje Gurtzain. Y sabemos que el nombre original del molino construido en la década de 1860, conocido actualmente como Bikuñaerrota, era "molino de Alegría".

[eu]

1860. hamarkadan trenbidea egiteko Bikuñaerrota zaharra suntsitu zutenean.

Ez da segurua Alegia izen horrek Arabako Alegria udalerriarekin lotura zuzenik duenik, ez baitugu ezagutzen historian zehar Alegia izeneko ez burdinola ez etxerik inguru horretan. Susmoa dugu, ordea, izenak hartu zuen hedaduragatik eta garrantziagatik zerbait egon zela bertan. Urruneko hipotesi bezala planteatu liteke Alegia izatea Olaberri burdinola "berritu" aurretik (hortik "Ola-berria") han zegoen burdinolak eta etxaldeak zuen izen zaharra.

Legazpiko hiria antzinako garaietan

Legazpiren historia burdingitzari estuki lotuta egon da, baina ez lurralde osoa aldi eta intentsitate berean. Otañu aldeko mendialdea antzina ustiatu zen (VIII. eta XIV. mende bitartean, batez ere) eta haranaren beheko alderdi guztia, geroago, Erdi Arotik XIX. mendera arte. Ustiaketa horrekin batera jende mugimenduak ere egon ziren, Araba aldetik, lehen aipatu bezala, eta Goierri aldetik. Aitor Azpiazu ikerlariaren iritzian, "*hizkeraz goierritar zen jendea, eta haizeolen inguruan zebilena (Aztiria-Oamendi eremua haizeolez beteta dago), presio demografikoz eta nekazal-teknikak erabiliz, poliki-poliki Urola errekaren ertzeko lurrak moldatzen hasi zen. Hartara, kolonizazio isila et luzea izango litzateke, dokumentuetan hain nabaria ez dena, baina hizkeran arrastoa utziko zukeena*" (Txinpartak 28, 2014).

Burdingintza, ordea, ez da Legazpiko haranaren jarduera bakarra izan. Hura garatzen hasi aurretik abeltzaintzak, esaterako, indar handia zuela uste dugu (kontuan hartuta, besteak beste, bere lurraldean duen kortabaso kopuru handia) eta gerora ere izaten jarraitu zuen.

Ataltxo honetan, hala, jolas moduko ariketa bat egingo dugu Legazpiko herrigunea eta bere inguruak antzina nolakoak ziren irudikatzeko, ezagutzen ditugun lekuizen zaharrak oinarri hartuta. Gaur egun irudikaezinak

[es]

No sabemos a ciencia cierta si el nombre de Alegría tiene una relación directa con el municipio de Alegría-Dulantzi. Tampoco si ha habido históricamente algún edificio con ese nombre, fuera del molino decimonónico. Pero al tratarse de un nombre que ha perdurado en el tiempo, sospechamos que algo importante pudo haber en ese entorno. Planteamos como una hipótesis lejana que el solar de la ferrería de Olaberri, pudo acoger antes de su "hipotética" reforma (de ahí, "ola-berria" o nueva ferrería) una antigua ferrería llamada Alegría, y que cambió de nombre cuando se reformó completamente a finales del siglo XIV o principios del XV.

El centro urbano de Legazpi en la antigüedad

La historia de Legazpi se encuentrá estrechamente ligada a la industria metalúrgica, pero no todo su territorio al mismo tiempo ni con la misma intensidad. La zona de Otañu fue explotada en la Edad Media, entre los siglos VIII y XIV, pero la zona baja del valle con posterioridad, desde finales de la Edad Media hasta el siglo XIX. Hubo grandes movimientos de gente relacionados con dicha explotación. Desde Álava, como hemos visto antes, pero también desde el Goierri, tal como apunta el estudioso Aitor Azpiazu en un artículo del Txinpartak: "*hizkeraz goierritar zen jendea, eta haizeolen inguruan zebilena (Aztiria-Oamendi eremua haizeolez beteta dago), presio demografikoz eta nekazal-teknikak erabiliz, poliki-poliki Urola errekaren ertzeko lurrak moldatzen hasi zen. Hartara, kolonizazio isila et luzea izango litzateke, dokumentuetan hain nabaria ez dena, baina hizkeran arrastoa utziko zukeena*" (Azpiazu 2014).

Sin embargo, la metalurgia no ha sido la única actividad del valle. Con anterioridad al desarrollo de la industria ferrona presumimos, por ejemplo, una actividad ganadera importante (teniendo en cuenta, entre otras cosas, el gran número de seles que cuenta su territorio), que continuó en los siglos venideros.

[eu] diren entitate geografiko ugari azaleratuko ditugu, hala nola: ibaia, ibarra, hariztia, haustarritza edo saroia, iturriak, bideak, zurezko etxeak, gaztelua eta abar.

Ugaldea (1649). Ahoz ahoko transmisioan oinarrituta, Eugenio Elorza Guridi legazpiarrak esaten zuen Ugalde izeneko etxea Legazpiko zaharrena zela. Etxe txiki bat zen, erreka ondoan, gaur egungo Andresenea etxearen atzean. Gure iritzian, "ugaldea" erreka beraren izen zaharra zen, gaur egun Euskal Herriko hainbat lekutan gorde den bezala. Eta ez da Legazpiko adibide bakarra, Brinkola auzoan ere bazen Ugalde izeneko etxea, errekaren ondoan hura ere.

Ybarrategui (1607). Elizondoko etxe multzoan zegoen etxe hau, azken aldera Muruanea izenez ezagutzen zen, baina izen zaharra Ibarrategi zuen, seguruenik ibarrean kokatuta zegoelako. Aurreko aldean Plazaolatarren armarri eder bat erakusten zuen. Ibar eder horretan Legazpiko eliza zaharra eraiki zen noiz ez dakigula eta haren bueltan hiriburua hazten joan zen, gaur arte.

Areiztoguenaga (1433). Gaur egun, ahoz, Aiztona. Izen horren atzean "haritza" dago, kale ingurutik erabat desagertu den zuhaitza. Harizti bat baino gehiago izango ziren, gainera, eta, hortik, Areiztoguenaga, goiko aldean zegoen hariztia. Bitxia da "Areizto" izenak duen bukaera, ematen baitu horren oinarrian *(h)areiztoi behar duela, Goierrin batere tradiziorik ez duen atzizkia.

Austarriçaga (1485). Azken aldera, ahoz, Aizturritza. Gaur egun, Agirre-Etxeberri etxea dagoen lekuan zegoen. XV. mendeko aldaerari esker, badakigu etxe-izenak antzinako kortabaso bat erreferitzen duela, abereak bazkatzeko sail biribila, alegia. "Haustarria" kortabasoen erdiko harria izan ohi zen eta 1433. urteko Legazpiko agiri batean dokumentatzen da: *E que los dichos seles e cada uno d'ellos sean mididos desde la foguera qu es dicho austerreça* (Diez de Salazar 1993: 211).

Urbeltzalde (ahoz). Plazaola baserriko bizilagunek Aiztonaga aldera zegoen soro bat erreferitzeko erabiltzen zuten izena. Inguru hartan ur sufretsua edo "ur beltza" ematen zuen iturri bat zegoen eta hortik lursailaren izena.

[es] En este apartado realizaremos un ejercicio, a modo de juego, con el cual intentaremos recrear el paisaje que podía existir en el actual centro urbano de Legazpi y su entorno antes de su completa transformación, sirviendonos para ello de la toponimia más antigua que conocemos. Tal como veremos a continuación, irán surgiendo entidades geográficas inimaginables en los tiempos actuales como son el río, la vega, el robledal, el sel o pastizal, fuentes, caminos, casas de madera, el castillo, etc.

Ugaldea (1649). Nombre de una pequeña casa que se encontraba detrás del Andresenea, junto al río. Basándose en la tradición oral, el vecino de Legazpi Eugenio Elorza Guridi afirmaba que se trataba del edificio más antiguo del pueblo. A nosotros nos parece que "ugaldea", en el euskera de la época, en realidad significaba 'río' y que se utilizaba en lugar de "errekea" actual, al igual que en otras partes de Euskal Herria. Y no es el único ejemplo de Legazpi, en Brinkola también existía otra casa con el nombre de Ugalde, también cerca del río.

Ybarrategui (1607). La casa de Muruanea, que se encontraba en el bloque del Elizondo, se conocía antiguamente como Ibarrategi, seguramente porque estaba situada en una vega o "ibarra", de donde tomó el nombre. Se trataba de una hermosa casa que ostentaba el escudo de los Plazaola. Esta vega fue, precisamente, la elegida para construir la antigua iglesia parroquial de Legazpi, alrededor de la cual se ha ido conformando el centro urbano.

Areiztoguenaga (1433). Aiztona, según la tradición oral. Detrás del nombre podemos intuir el término "haritz" o roble, árbol que ha desaparecido completamente del entorno urbano de Legazpi. Se trataría, además, por la composición del nombre, del "robledal de arriba", lo que supone que habría varios. La desinencia "-to" que acompaña al "areiz" se nos antoja extraño, ya que parece que podría tratarse de una contracción del sufijo "-toi", sin ninguna tradición en el habla del Goierri.



Legazpiko Kalebarren auzo historikoa XX. mendearen bigarren erdian. Damata, Rufino eta Leonaren etxea, Anduezanea, Domingonea, Botoneria, Errotaritxonea eta Xesterokoa, lehen lerroan. Denak eraitsi ziren).

[eu]

Ategutia (1401). Gaur egun Gabirian dagoen baserria, Atagoiri izenez ezagutzen dena. Atal honetan sartu dugu jatorrian "mendate txikia" gisa itzul daitekeelako, eta Legazpirekin lotura estua zuelako, bertatik pasatzen baitzen Ormaiztegirako erregebide zaharra. Ugaldeko zubia gurutzatu eta gora egiten zuen Mantxola aldera. Mantxolatik gora Atagoiti bitartean hantxe jarraitzen du bide zaharrak.

Casa de piedra de la plaça (1384). Antzina etxe eta baserri gehienak zurezko habe eta oholekin egiten ziren, eta arraroa zen harrizkorik topatzea. Horrek azaltzen du Legazpiko hiribarruan zegoen etxe bat "harrizko etxe" modura ezagutzea XIV. mendean. Garrantzitsua izango zela uste dugu, bere aurrean sinatu baitzen Segurarekiko anexioa.

Gaztelutegui en la plaça (1570). Arestian aipatutako "harrizko etxea", beharbada. Ematen du, gainera, herrigunean zegoen gaztelu edo jauregi bati egiten diola erreferentzia, Ibarrategi etxeak ibarrari egiten dion bezala. Elizaren ondoan zeuden Gerranea eta Beatakoa etxeetako bat izan zitekeen, harri eder landuekin

[es]

Austarriçaga (1485). Aizturritza, según la tradición oral. Con esa denominación se conocía al caserío que se encotraba en el solar del actual palacio de Agirre-Etxeberri. Gracias a la variante documentada en el siglo XV, podemos saber que su nombre hacía referencia originalmente a un sel o pastizal de forma circular. El nombre de "haustarri" o piedra cenizal que se encontraba en el mismo centro de los seles se documenta en otro documento legazpiarra de 1433: *E que los dichos seles e cada uno d'ellos sean midídos desde la foguera qu es dicho austerreça* (Diez de Salazar 1993: 211).

Urbeltzalde (oral). Nombre con el que se conocía a un labrantío del caserío Plazaola que se encontraba en las cercanías de una fuente de agua sulfurosa o "urbeltz", y de ahí su nombre. A esta fuente y a otras de las mismas características se le atribuían propiedades medicinales.

Ategutia (1401). Atagoiti, según la tradición oral. Hoy se conoce así a un caserío que se encuentra en el término municipal de Gabiria, pero originalmete se trataba de un vocablo común que designaba 'portillo'. Lo hemos incluido por la estrecha relación que tuvo con el desarrollo del casco urbano de Legazpi. Desde aquí partía un Camino Real que se dirigía a Ormaiztegi, por la ruta de los molinos de Gabiria.

Casa de piedra de la plaça (1384). Antiguamente la mayoría de las casas y caseríos estaban construidos con vigas de madera y tablazones, y era raro que hubiese alguna de piedra. Se entiende así que en el siglo XIV una de las casas del centro urbano de Legazpi se conociese como "casa de piedra". Debía ser importante porque delante de ella se firmó la anexión de Legazpi a la Villa de Segura.

Gaztelutegui en la plaça (1570). Nombre que hace referencia a una casa que se encontraba en el casco urbano de Legazpi. A lo mejor, a la misma "casa de piedra" citada con anterioridad. Pensamos que se podría traducir como "casa del castillo", de la misma manera que Ibarrategi se puede traducir como "casa de la vega". Por su robustez y por la forma de sus

[eu] egindakoak baitziren, leiho eta ate dobeladun eta apuntatuekin.

Era honetan amaituko dugu antzinako Legazpitik egindako ibilaldi txiki baina iradokitzailea, gaur egun arte gorde den toponimiari eta ahozko tradizio aberatsari esker irudikatu ahal izan duguna. Sarrera ere bertan amaituko dugu. Eta honenbestez, Felix Ibargutxik pazientziaz eta maitasun handiz egindako lan izugarriari emango diogu bidea. ❖

[es] vanos, pensamos que podria referirse, a lo mejor, a la casa de Beatakoa ya derribada.


Aquí terminamos el breve, pero sugerente, recorrido por la primitiva Legazpi que hemos podido imaginar gracias a la toponimia y a la rica tradición oral que ha perdurado hasta nuestros días. Terminamos igualmente la introducción y daremos paso a continuación al formidable trabajo de Félix Ibargutxi, realizado con mucha paciencia y cariño. ❖


Jose Luís Ugarte
BURDINOLAKO LEHENDAKARIA

Bibliografia:

- Ayerbe, M.R., 1995, *Documentación medieval del archivo municipal de Legazpia (1290-1495)*, Fuentes Documentales Medievales del País Vasco 60, Eusko Ikaskuntza
- Azpiazu, A., 2014, "Legazpieraren historiarako apunte batzuk", *Txinpartak* aldizkaria, 28 zbia, Burdinola elkartea
- Barrena, E., 1991, *Historia de las Vías de Comunicación de Gipuzkoa. 1. Antigüedad y Medioevo*, Gipuzkoako Foru Aldundia
- Diez de Salazar, L.M., 1985, *Colección Diplomática del Concejo de Segura (Guipúzcoa) (1290-1500) (Tomo I (1290-1400)*, Fuentes Documentales Medievales del País Vasco 6, Eusko Ikaskuntza
- Diez de Salazar, L.M., 1993, *Colección Diplomática del Concejo de Segura (Guipúzcoa) (1290-1500) (Tomo II (1401-1450)*, Fuentes Documentales Medievales del País Vasco 47, Eusko Ikaskuntza
- Legorburu, E., 2000, *La labranza del hierro en el País Vasco*, EHU
- Prada, A., 2008, *Historica eclesiástica de Legazpi*, Burdinola elkartea
- Salmerón, M., 2014, "La Villa de Legazpi en la ruta de Versalles a Madrid (Un plazaola partícipe de un hecho histórico caecido en 1721-22)", *Txinpartak* aldizkaria, 28. zkia., Burdinola elkartea
- Ugarte, J.L., 1984, "Kale Zaharra", *Hots* aldizkaria, Legazpi
- Ugarte, J.L., 2015, "Kiputzen bideak", *Makilari* aldizkaria, 26. zkia., Gabiriko Udala

ARTXIBOAK:
- Legazpiko Artxiboa
- Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoa
- Gipuzkoako Protokolen Artxibo Historikoa
- Gipuzkoako Elizbarrutiko Artxiboa





01
[alegia]

1 2 Olaberri jauregia
3 Olaberriko fabrikaldea
4 Toki Eder
5 Goiko Izarra
6 Bikuñaerrota
7 Bikuña Berri



01_alegia

OLABERRI JAUREGIA (Ariztitarrak) 1 PALACIO DE OLABERRI (los Arizti)



Olaberri baserria. Eskuinaldean, Olatxo izeneko etxeordea (Fernando Mz. de Albeniz, 2013).

[eu]

Hamabosgarren mendearen bukaera aldera eraikitako etxea, aldameneko burdinolari lotua. Saturnino Telleria 'mediku zaharrak' (1880-1947) bere 'Historia de Legazpia' argitaragabean zioenez, bertako familia burdin-meatze handi baten jabe izan zen baita ere, Lekanburuko Ollargaña izeneko parajean zegoen meategiarena, alegia.

Iñigo Imazek azterlana publikatu zuen Txinpartak aldizkariaren 11. alean, eta bertan dioenez, hasiera batean burdinolaren jabeak 'porcionero' batzuk izan ziren; hau da, burdinolaren zatiren baten jabeak. Adibidez, Juan eta Pedro Otxoa de Olaberria izan ziren jabe 1483an, eta gainera bertan aritzen ziren olari. Baina hamabosgarren mende bukaeran, Burgosen bizi zen Juan de Lasalde errege diruzaina jabetu zen ola osoaz, ordura arteko nagusiek egindako zorrak baliatuz; eta gero Martin de Lizarazu ilobarengana igaro zen ondasun hori. Ikerlari honen arabera, beste burdinola batzuetan antzera gertatu zen.

Luis Alberdi Sudupe honela mintzo da Olaberriko jauregiaz 2023ko bere 'Arquitectura del caserío en Gipuzkoa' liburuan: "El edificio cuenta con una planta rectangular y un único pórtico interior que divide el espacio en tres crujías longitudinales y dos transversales". Bestalde, zehazten du 1607an teilatua erdi-erorita zegoela, eta 1613an eraikina kaltetuta zegoela suagatik.

San Millango markesei erosi zien Martin Ariztik

Ondoren, hemezortzigarren mendean, San Millango markesak bihurtu ziren burdinola eta jauregiaren jabe. Hemeretzigarrenean, ezkontza bidez bat egin zuten bi leinu indartsuk, San Millango markesenak eta Porceldarrenak. Hogeigarren mende hasieran, Olaberriko nagusiak Blanca eta Dolores Porcel Guirior ahizpak ziren, Luciano aitarengandik jaso zutelarik ondasun hau. Blanca San Millango markesa zen, eta Zestoako Lasao auzoko jauregian bizi zen. Hain zuzen ere, 1938an

[es]

Saturnino Telleria, el "médico viejo" (1880-1947), escribió en su 'Historia de Legazpia': "En 1440, la Casa de Garibay de Oñate se enlazó mediante casamiento de Emilia de Aguirre Garibay con Juan Ochoa de Olaberria, Vasallo del Rey y Señor de la Casa de Olaberria de Legazpia, quienes tuvieron por hijo a Pedro Ybañez de Olaberria Aguirre Garibay, que sucedió en la Casa de Olaberria. Casó con Dña. Sancha de Aldaola, hermana del Bachiller Dn. Juan de Aldaola, Vicario de Segura. (…) Esta familia de Olaberria fue rica en su tiempo por la industria de las ferrerías y por la explotación de minas. Juan Ibáñez de Olaberria, uno de los hijos de Lázaro de Olaberria y habitante en Aztiria, adoptó este apellido, y como dueño de una venera sita en Lecamburu llamada Ollargaña cedió en Sociedad una cuarta parte de ella a Juan de Aizpee".

Iñigo Imaz publicó un trabajo en el número 11 de la revista 'Txinpartak'. Según decía, en un comienzo los dueños de las ferrerías eran "porcioneros", es decir, cada propietario era dueño de una parte. Por ejemplo, Juan y Pedro Otxoa de Olaberria eran porcioneros en 1483, y además trabajaban en las instalaciones. Pero a fines del siglo XV, Juan de Lasalde, tesorero real que residía en Burgos se apropió de esta ferrería, aprovechándose de las deudas de los anteriores propietarios; y luego, la ferrería pasó a manos de su sobrino Martín de Lizarazu. Según este investigador, algo similar ocurrió en otras ferrerías.

Luis Alberdi Sudupe en su libro de 2023 'Arquitectura del caserío en Gipuzkoa'habla así del palacio: "El edificio cuenta con una planta rectangular y un único pórtico interior que divide el espacio en tres crujías longitudinales y dos transversales". Indica también que en 1607 la cubierta se hallaba hundida, y en 1613 quemada por un incendio.

Martín Arizti compró la casa en 1938

En el siglo XVIII, los marqueses de San Millán se convirtieron en propietarios de la ferrería y el palacio de al



Olaberriko nagusia, Blanca Porcel (1859-1940).



Marcelino Arizti eta emazte Maria Izagirre. Ezkontza argazkia (Olatz Ariztik emana).



Kontxes Alzola eta Martin Arizti (Olatz Ariztik emana).

[eu] Olaberrian bizi zen Martin Arizti Jauregik ahizpa haueXei erosi zien etxea.

Hogeigarren mende hasieran, ariztitarrak bizi ziren etxe honetan, eta orain ere halaxe da. Martin Arizti Jauregi, oraingo ariztitarren birraitona, Olaberrian jaioa zen 1867an. Honen amaren aldeko aitona ere, Jose Maria Jauregi, etxe honetantxe bizi zen, Zumarragan jaioa zen eta umerik izan ez zuten osaba-izeba batzuengandik (Jose Andres Urmeneta eta Francisa Antonia Jauregi) jaso zuen errenterotza.

Martin Arizti Jauregi (1867-1951) ez zen soilik baserritik bizi, uztargile ere bazen eta makina bat etxetarako egin zuen lan. Telleriarten bizi izan zen anaia Florentino ere uztargilea genuen. Uztarriak egiteko egurrak, burdinolako kanalean edukitzen zituen beratzen Martinek.

1923-24 urteetan alkate izan zen, eta 1924-1930 urtebitartean zinegotzi. Aretxabaletako Larrino auzoko Kontxes (Concepcion) Alzolarekin (1869-1948) ezkondu eta seme-alabok eduki zituzten: Gervasia (moja

[es] lado. En el XIX, mediante enlace matrimonial, se unieron el marquesado de San Millán y el linaje de los Porcel.

A comienzos del siglo XX, Olaberria pertenecía a las hermanas Blanca y Dolores Porcel y Guirior, en herencia de su padre Luciano. Blanca era marquesa de San Millán, y tenía su residencia en una casona del barrio de Lasao, en Zestoa. Y, precisamente, el inquilino del palacio de Olaberria, Martín Arizti, compró el inmueble que habitaba a las mencionadas hermanas, en 1938.

Al entrar en el siglo XX habitaban en la casona de Olaberria los Arizti, y hoy este linaje sigue presente. Martín Arizti Jauregi, el bisabuelo de los actuales hermanos Arizti, había nacido en el mismo Olaberria en 1867, y su abuelo por parte materna, José María Jauregi, también vivió en este edificio, tras recibir el estatus de inquilino a renta de parte de unos tíos sin niños, José Andrés Urmeneta y Francisca Antonia Jauregi.

Martín Arizti Jauregi (1867-1951) no vivió solo del caserío, se dedicó a hacer yugos, con continuos encargos. Un hermano suyo, Florentino, que vivió en Telleriar-



Goiko ilaran, ezkerretik eskuinera: Johanna von Daake, Friedrich Bähr (aita), Friecrich Bähr (semea), Joachim Bähr, Bitoriano Arizti, Florentino Arizti, Gerhard Bähr. Beheko ilaran: Manuela Arizti, Hans Bähr, Julia Arizti, Mercedes Föll. Hurrengo hirurak, ezezagunak (Mercedes Föll-ek emana).

[eu] joan zen); Victoriano (1896-1983, Gasteizen bizi izan zen, Filomena Mujika araiarrarekin ezkondurik); Florentino (1898-1963, Telleriarten bizi izan zen, Saletxeko Angeles Ugarterekin uztartuta); Julia (1901-1980, Telesforo Moraza okinarekin ezkondu eta kale aldean bizitu ziren); Marcelino (Olaberrian segitu zuen, Maria Izagirrerekin ezkonduta, eta 44 urte zituela hil); Manuela (1904-1993, gormutua zen eta Zaldun bizi izan zen, Evaristo Ereñarekin ezkondurik); Petra (1908-1985, Marciano Mercedo araiarrarekin ezkondu zen); eta Lazaro (1914-1991, Madrilen bizi izan zen, han errodamendu-banatzaile jardun zuelarik, bere enpresa propioa sortuta, Comercial Industrial Arizti).

Esanda bezala, Marcelino gelditu zen Olaberriko etxean. Baina, lehenbizi, ezkondu ostean, emaztearen baserrian bizi izan zen, Aretxabaletako Larrino auzoko Zuatzu baserrian, baserritik bizi zirelarik. 1930. hamarkada hasieran, han jaio zitzaizkien hiru seme-alabak: Antonia, Martin eta Victoriano. Baina 1936an guztiz irauli zen famili egoera. Urte hartan, Maria Izagirre hil eta Marcelino, hiru umeak hartuta, Olaberriko

[es] te, se dedicó también a estos menesteres. Martín solía tener los troncos de haya, humedecidos, en el antiguo canal de la ferrería.

En los años 1923-24 fue alcalde. Se casó con Kontxes (Concepción) Alzola (1869-1948), del barrio de Larrino de Aretxabaleta. Tuvieron estos hijos: Gervasia (que se hizo monja); Victoriano (1896-1983, vivió en Vitoria-Gasteiz, casado con Filomena Mujika, de Araia); Florentino (1898-1963, vivió en Telleriarte, casado con Ángeles Ugarte, de Saletxe); Julia (1901-1980, casada con el panadero Telesforo Moraza, para luego vivir en el casco urbano); Marcelino (vivió en el mismo Olaberria, casado con María Izagirre, y murió a los 44 años); Manuela (1904-1993, sordomuda, vivió en Zaldu, casada con el también sordomudo Evaristo Ereña); Petra (1908-1985, casada con Marciano Mercedo, de Araia); y Lázaro (1914-1991, vivió en Madrid, con un negocio de distribución de rodamientos, llamado Comercial Industrial Arizti).

Como se ha dicho, quien se quedó en el caserón de Olaberria fue Marcelino Arizti. Pero primeramente, tras el matrimonio, residió en el caserío de la esposa, María Iza-



Martin Arizti eta emaztea, Josefa Urbieta, urrezko ezteietan (Olatz Ariztik emana).



Lazaro Arizti 1970ean. Gabonetako zoriontze txartela (Olatz Ariztik emana).



Ariztitarrak. Antonia, Martin eta Victoriano anai-arrebak (Olatz Ariztik emana).

[eu] jaiotetxera itzuli zen. Gainera, ariztitarrek erabaki zuten baserria hiru haur horien izenean uztea.

Marcelinok, baserriko egitekoez gain, Udalerako egin zuen lan, batetik zakarra batzen zuelarik, behi batek tiratutako gurdia erabilita; bestetik, gauez sereno-lana egiten zuen. 1949an hil zen, gazterik, 42 urte zituela. Haren arreba gormutua, Manuela, bigarren ama izan zen hiru neska-mutikoendako. Zaldura ezkondu eta gero ere, sarri joan ohi zen Olaberrira bere ilobekin egotera.

girre, en el barrio de Larrino en Aretxabaleta, y vivían del caserío. Allí nacieron, a comienzos de los años 30, sus tres hijos: Antonia, Martin y Victoriano. Pero en 1936 todo cambió radicalmente: murió la esposa y Marcelino regresó a la casa natal con los tres hijos. Y, además, los Arizti decidieron inscribir la casona a nombre de los tres niños. [es]

Marcelino, además de las faenas del caserío, fue empleado del Ayuntamiento. Por un lado, se dedicaba a recoger

[eu] Hurrengo belaunaldiari dagokienez, Martin Arizti (1931-2017) gelditu zen Olaberriko buru. Bi senide zituen. Zaharrena, Antonia, Donostiara joan zen, Mesedeetako klinikan lan egitera, eta Victoriano Legazpiko Eguzkitzara ezkondu, bertako Nati Zabaletarekin, bere furgonetarekin rekardero moduan atera zuelarik bizimodua.

Martin mutikotan hasi zen lanean Peineterian, hamalau urte bete gabe, Papeleran ere aritu zen, baina, adin txikikoa izanik, bere arduradun gelditutako osaba Victorianoren esana egitera behartuta zegoen, eta haren agindua betez, Udalerako hasi zen lanean, kale-garbitzaile eta zakar-biltzaile. Geroago morroi joan zen Azpeitiko Loiola auzoko baserri batera eta, halaxe, gero emazte izango zuena ezagutu. Handik gertu, Mandiolatza baserriko baserrian bizi zen Josefa Urbieta Iraeta (1932-2018) hartu zuen emaztetzat.

Aldameneko etxea 1960an eraiki zuten

1955ean ezkondu ziren Martin eta Joxepa, eta urte hartan bertan jaio lehenengo semea, Jose Martin. Gero, urte-tarte txikian, beste lau mutiko etorriko ziren, eta 1965ean alaba Olatz. 1960an aldaketa gogorra suertatu zen. Jauregi zaharra, barrutik aski hondatua zegoela eta, aldamenean etxe berria egitera erabaki zuten. Hurrengo urtean aldatu ziren bertara, Joxepa negar batean zela, pena handia ematen baitzion bere lehenengo bost umeak jaiotako etxea utzi beharrak. Martinen osaba Lazarok emandako diruei esker altxa ahal izan zuten etxe berri ederra. Hango zimentazio-lanak, hala ere, dohainik izan ziren; toki hartantxe lehengo burdinolako zepak zeuden pilatuta eta, aspaldiko garai haietan zepak burdina franko izaten zuenez, pertsona batek interesa agertu zuen material hori jaso eta txatartegira eramateko, trukean zimenduak emanez.

Lazaro, esanda bezala, Madrilen bizi izan zen, eta Olaberriko etxe berria finantzatu. 1936ko gerrakoan Mari

[es] las basuras, con un carro tirado por una vaca; y además, de noche trabajaba como sereno. Falleció en 1949, a los 42 años. Su hermana sordomuda, Manuela, fue como una segunda madre para las tres criaturas. Incluso después de casarse e irse a vivir a Zaldu, iba con frecuencia a estar con sus sobrinos.

Por lo que respecta a la siguiente generación, Martín Arizti (1931-2017) se quedó a cargo de la casona. Tenía dos hermanos: la mayor, Antonia, se fue a Donostia y trabajó en la Clínica de las Mercedes; el otro, Victoriano, se casó al caserío de Eguzkitza de Egialde, con Nati Zabaleta, y trabajó con una furgoneta como recadista.

Martín empezó a trabajar en la Peinetería antes de cumplir los catorce años. También lo hizo en la Papelera, pero al ser menor de edad estaba obligado a obedecer a su tío Victoriano, que era el tutor, y siguiendo su mandato, pasó a trabajar en la limpieza de las calles y recogida de basuras como empleado para el Ayuntamiento. Luego fue de 'morroi' (sirviente) a un caserío del barrio de Loiola de Azpeitia, y allí conoció a la que luego sería su esposa, Josefa Urbieta Iraeta (1932-2018), del caserío Mandiolatza

La casa de al lado se edificó en 1960

En 1955 se casaron Martín y Josefa, y ese mismo año nació el primer hijo, José Martín. Más tarde vendrían otros cuatro hijos, y en 1965 la primera hija, Olatz. En 1960 se produjo un gran cambio: decidieron construir una nueva casa a pocos metros, dado que la vieja casona estaba muy deteriorada. El siguiente año se mudaron a la nueva vivienda, con Josefa muy emocionada y apenada, porque dejaban atrás la morada en la que habían nacido cinco hijos.

Levantaron la hermosa casa nueva gracias a la ayuda económica de Lázaro, el tío de Martín. Los cimientos re-



1. Mandi Moraza Arizti
2. Antxoni Arizti Izagirre
3. --
4. Kontxita Mercero Arizti
5. Anselmo Zabaleta
6. Leandra Telleria
7. --
8. --
9. Pilar Agirre
10. Socorrito Arizti Mugika
11. --
12. --
13. --
14. --
15. --
16. Juan Errazti
17. Bernarda Odria
18. Evaristo Eraña
19. Angeles Ugarte
20. Telesforo Moraza
21. Vitoriano Arizti Mugika (???
22. Angeles Vitoria (Madre M. Carmen ???
23. Filomena Mugika
24. Marciano Mercero
25. Mari Carmen Elorza
26. Manuela Arizti Alzola
27. Florentino Arizti Alzola
28. Julita Arizti Alzola
29. Concepción Alzola
30. Martin Arizti Jauregi
31. Vitoriano Arizti Alzola
32. Marcelino Arizti Alzola
33. Petra Arizti Alzola
34. Lázaro Arizti Alzola
35. Marixabel Arizti Ugarte
36. Mari Carmen Arizti Ugarte
37. Juanita Arizti Ugarte
38. Victor Arizti Ugarte
39. Tere Arizti Ugarte
40. Angel Mari Arizti Ugarte
41. Damaso Arizti Ugarte
42. Martin Arizti Izagirre
43. Vitoriano Arizti Izagirre
44. Loren Arizti Mugika
45. Jabier Arizti Mugika
46. Milagros Arizti Mugika
47. Martin Mercero Arizti
48. Forin Moraza Arizti



Martin Arizti eta Kontxes Alzolaren urrezko ezteiak.

[eu] Carmen Elorza bilbotarra izan zuen 'madrina' eta hain zuzen ere emakume honekintxe ezkondu.

Martin Arizti fabrikan jardun zen, baina etxean behiak eta ardiak zituelarik, asko gainera. Seme zaharrenek, umetan, gurditxoa hartu eta behi-esnea partitzen zuten

[es] sultaron gratis, porque en ese lugar se habían almacenado antiguamente las escorias de la ferrería, que aún contenían bastante hierro, y una persona estuvo interesada en costear la cimentación a cambio de llevar todas las escorias a la chatarrería.

Lázaro Arizti, como se ha dicho, vivió en Madrid. En

[eu] etxez etxe, jendeari abisatzeko tronpetatxoa erabilita. Barandiarandarren gozotegira ere eraman ohi zuten esnea. Ardiak, uda partean, Katabera aldean edukitzen zituzten. 1983an zinegotzi hasi zen Martin, EAJren izenean, alkate Jose Ignazio Elorza zegoela, eta 1986an, Eusko Alkartasuna sortu zelarik, EAJn jarraitu zuen, eta udaltaldearen idazkari moduan.

1960ko hamarkadan, hainbat maizter pasatu ziren baserri zaharretik. Lehenbiziko familia, Teódulo Tejedor eta Clotilde Díezena izan zen. Eta Caballerotarrak ere bizitu ziren, hortik Kale Zaharrera pasa zirelarik.

2020an, Martin eta Joxepa hilda zeudelarik, seme-alabek guztiz berritu zuten etxe zaharra, barrutik eta kanpotik, eta halaxe agerian geratu nolako jauregi ederra izan zen garai batean. Esaterako, barruko habe asko zizelkatuta zeuden eta daude, eta bistaratu egin dituzte leihoetako harlandu handiak. Eraikina senide guztiena da, baina alaba Olatz jarri da bizi izaten, usufruktuan, eta ibai aldeko etxeordean denentzako txokoa atondu dute.

Bestalde, 2011n, Martin Arizti eta Kontxes Alzolaren ondorengoak (130 bat lagun, ume eta guzti) bildu ziren eta Gabiriako Korta jatetxean bazkaria egin. ❖

[es] la guerra de 1936 tuvo de 'madrina' a la bilbaína Mari Carmen Elorza y acabó casándose con ella.

Martín Arizti trabajó en la fábrica, pero siempre con ganado en casa, vacas y ovejas. Los hijos mayores, siendo niños, repartían la leche con un carrito y una trompeta para avisar a los vecinos. También surtían de leche a la pastelería Barandiaran. Las ovejas, en verano, pastaban en la zona de Katabera.

En 1983, Martín comenzó de concejal, por el PNV, con José Ignacio Elorza en la alcaldía. En 1986, al surgir Eusko Alkartasuna, siguió en el PNV y como secretario del grupo municipal.

En la década de 1960 pasaron muchos inquilinos por el viejo caserón. La primera familia fue la de Teódulo Tejedor y su esposa Clotilde Díez. También vivieron los Caballero, que luego se trasladaron a la Calle Vieja.

En 2020, ya muertos Martín y Josefa, los hijos restauraron completamente el viejo caserón, por dentro y por fuera, y quedó de manifiesto el valor de este edificio histórico; por ejemplo, dentro había vigas talladas. Uno de los trabajos fue dejar a la vista las piedras sillares de las ventanas. El edificio es de todos los hermanos, pero Olatz lo usa en usufructo como vivienda. Y en la zona que da al río, en un adosado, han montado un espacio de disfrute para todos los hermanos.

Por otro lado, en 2011 se reunieron los descendientes de Martín Arizti y Kontxes Alzola, incluidos niños, unas 130 personas. La comida de hermandad se celebró en el Korta de Gabiria. ❖

Olaberri Jauregia

















Olaberri jauregiaren barruan gordetzen diren antzinako elementu arkitektonikoak:
zurajea, egur landuak, lur-zorua, leiho eta ateak
(argazkiak: Santiago Fz.de Quincoces)



01_alegia

OLABERRI JAUREGIA (Zabaletatarrak) 2 PALACIO DE OLABERRI (los Zabaleta)



Olaberriko zabaletatarren aldea (Gure Gipuzkoa, GipuzkoaKultura).



Zabaletatarren etxe barruan gordetzen den grabatu zaharra (J.L.U.).

[eu]

Olaberriko jauregiaren halako eranskin bat da etxe hau, itxura batean. Ba omen dago barruan ate bat biak lotzen dituena.

1910eko udal errolda egin zenean bi familia bizi ziren bertan, batetik Braulio Zabaleta Agirre (56 urteko alarguna, baserritar errenteroa, ("labrador colono") eta bi seme-alaba, Francisca Zabaleta Guridi (30 urte, etxeko lanak egiten dituena) eta Dimas (27 urte, errementari ofiziala). Eta beste familia, seme batena: Anselmo Zabaleta Guridi (29 urte), emazte Leandra Telleria Galfarsoro eta bi urteko haurra, Juan izenekoa.

Dimasek herentzia jaso zuen ahaide batengandik, herriko bikario izandako Ignacio Antonio Zabaletarengandik, eta horri esker diruduna izan zen bizi guztian; besteak beste Olaetxe eta Takolokoa baserriak jaso baitzituen. Brinkolako Josemarinean bizi izan zen, 'beheko tabernako etxean'.

1936ko gerra aurrean Anselmo eta Leandra izan ziren etxeko buru. Anselmo, esan bezala, etxean jaiotakoa zen; emazte Leandra, berriz, Santunekoa genuen. 1920an, oraindik ere, errentero bizi ziren; handik aurrera, eta 36ko gerra baino lehenago, erosi zuten eraikina.

San Millango markesena zen hau ere

Inguru hura guztia (burdinola eta etxeak) San Millango markesena izana zen, eta orduko markesarekin (Blanca Porcel Guirior) adostu zuten salerosketa Anselmo eta Leandrak.

Antselmok, gauez, trenbidea zaintzen zuen, farol bat eskuan. Zati jakin bat zeukan bere ardurapean eta Renfek kapa ematen zieten horrelako langileei, hotzik izan ez zezaten. Behin, trenbidean oztoporen bat ikusi eta trena gerarazi zuen. Barruan erregea zetorren, eta domina eman zioten Anselmori. Gero, egunez, baserriko lanak egin ohi zituen. Behiak zeuden etxean. Hala ere, adinean aurrera zihoala, Patrizio Etxeberriarendako ere egin zuen lan.

[es]

Este edificio parece una prolongación o adosado del viejo palacio de Olaberria. En la zona interior existe una puerta que comunica ambas edificaciones.

En el padrón municipal de 1910 aparecen dos familias. Por un lado, Braulio Zabaleta Agirre (viudo, "labrador colono" de 56 años) y dos hijos, Francisca Zabaleta Guridi (30 años, ama de casa) y Dimas (27 años, herrero oficial). La otra familia era la de otro hijo de Braulio, Anselmo Zabaleta Guridi (29 años), su esposa Leandra Telleria Galfarsoro y un niño de dos años, Juan.

Dimas fue el destinatario de la herencia de un pariente, el párroco de la localidad Ignacio Antonio Zabaleta. Entre otras propiedades, recibió los caseríos Olaetxe y Takoloko, y gracias a ello fue un hombre adinerado durante toda su vida. Vivió en la casa Josemarinea de Brinkola, "la del bar de abajo".

Antes de la guerra del 36, los dueños de la casa eran Anselmo y Leandra. Anselmo, como se ha dicho, era hijo de la casa, y Leandra venía de Santune. En 1920 eran todavía gente a renta, pero para 1936 ya se habían hecho con la propiedad.

Esta casa también era de los marqueses de San Millán

Toda esa zona de Olaberria (ferrería y casas) había pertenecido al marquesado de San Millán, y Anselmo y Leandra compraron su edificio a la marquesa, que se llamaba Blanca Porcel Guirior.

Anselmo, por las noches, se encargaba de cuidar la vía férrea, con la ayuda de un farol. Cada guarda tenía adjudicado un tramo, y Renfe les entregaba un buen capote con el fin de que no pasaran frío. Un día vio un obstáculo en la vía e hizo detener un tren. Ese día pasaba el rey en un convoy, y por ello Anselmo recibió una medalla. De día realizaba las tareas del caserío, entre otras



Leandra Telleria, aurrean Olatxo ikusten dela (Enrique Guinea Makibar, Gasteizko Udal Artxiboa, GUI VI-5.3).



Leandra Telleria eta Anselmo Zabaleta (Juan Luis Peñagarikanok emana).



Luis Zabaleta, 36ko gerran hila (Juan Luis Peñagarikanok emana).



Carmen Zabaleta eta Jesus Peñagarikano (Juan Luis Peñagarikanok emana).

[eu] 1930eko hamarkadan, Antselmo eta Leandrak handitu egin zuten eraikina, bi solairu erantsi ziotelarik, baserriari kale-etxe itxura emanez.

Hona seme-alabak: Juan Zabaleta Telleria (1908), Luis (1911), Carmen, Romualdo (1920), Ines, Cristina, Emilio eta Juanita.

Seme zaharrena, Juan, ez zen ezkondu eta helduaroa eta

[es] cosas el cuidado de las vacas. Ya entrado en años también trabajó para la empresa de Patricio Etxeberria.

En la década de 1930 Anselmo y Leandra levantaron dos plantas más en la casa. De esta manera, el caserío adoptó un aspecto de casa urbana.

Tuvieron estos hijos: Juan Zabaleta Telleria (1908), Luis (1911), Carmen, Romualdo (1920), Inés, Cristina, Emi-



Cristina Zabaletaren ezkontzan. Ezkerretik hasita, Juan Luis Peñagarikano, Juanita Zabaleta, M. Carmen Peñagarikano, Angelita Peñagarikano, Cristina Zabaleta eta Ines Zabaleta. Aurrean, ezkerretik hasita Jesus M. Peñagarikano eta Pedro Peñagarikano.



Juan Zabaleta (eskuinean), aldamenean Bittor Urmeneta. Aurrean dagoen mutila Pedro Peñagarikano (Juan Luis Peñagarikanok emana).

[eu] zahartzaroa Olaberrian bertan eman zuen. 'Juan Zakar' esaten zioten. Honek ere Renferako egin zuen lan, aitak bezala, baina elektrifikazio arloan, Zumarragako argindar-estazioan eta gero Bartzelonan. UGT sindikatuko kide izanik, 1936ko gerrakoan Errepublikaren alde egin zuen borroka, preso hartu eta Cadizen lan-batailoi batean ibili zen gero. Gaztetan denboraldi labur bat egin zuen Mexikon, Santuneko osaba batek, Romualdo Telleriak, burdindegia baitzeukan bertan. Ez zitzaion gustatu hango giroa eta itzuli egin zen.

1980ko hamarkadan, PSOEk agintea eskuratu eta, lege berri bati esker, Juanek pentsio txiki bat eskuratu zuen metraila zeukalako soinean.

Anselmo eta Leandraren alaba Carmen ere etxe honetan bizi izan zen, beste pisu batean, Jesus Peñagarikano beasaindarrarekin ezkonduta. Hortxe hil zen. Familia honek, etxetik gertu, tailertxoa eduki zuen 1970eko hamarkadan, besteak beste, teilatutik behera joan ohi diren hodiak lotzeko burdinazko piezak egiten zituztelarik.

[es] lio y Juanita. El hijo mayor no se casó, y pasó su etapa adulta y la vejez en el mismo Olaberria. Le decían 'Juan Zakar'. También trabajó para Renfe, como el padre, pero en la sección de electrificación, primero en Zumarraga y luego en Barcelona. Era afiliado a la UGT y en la guerra del 36 batalló contra Franco, fue hecho prisionero y acabó en un batallón de trabajadores en Cádiz. En su juventud tuvo una estancia breve en México. Un tío de Santune, Braulio Telleria, poseía allí una ferretería. Pero a Juan no le gustó el ambiente y regresó pronto a Legazpi.

En la década de 1980, al llegar el PSOE al poder, Juan empezó a cobrar una pequeña pensión porque todavía conservaba en su cuerpo metralla de la guerra del 36.

Otra hija, Carmen, también vivió y murió en este edificio, casada con el beasaindarra Jesús Peñagarikano. Esta familia tuvo en los 70 un taller pequeño en una chabola cerca de casa, donde hacían piezas metálicas para sujetar las conducciones de agua que bajaban por las fachadas.



Behean, ezker-eskuin, Bittor Andueza Zangitu, Juan Zangitu Arsuaga eta Olaberriko Emilio Zabaleta (Juan Luis Peñagarikanok emana).



Ezker-eskuin, Antonina (Jesus Peñagarikanoren koinata), Carmen Zabaleta eta Ignacia Peñagarikano (Juan Luis Peñagarikanok emana).



Romualdo Zabaleta eta Mertxe Barandiaran beren ezkontza-ospakizunean. Mutikoa, Jesus Mari Peñagarikano (Mertxe Zabaletak emana).

[eu] Beste seme-alabei dagokienez, Luis, 1910ean jaioa, Renfeko elektrifikazio arloan hasi zen lanean. Dantzari eta pilotaria omen zen, eta ideologiaz ezkertiarra. UGTren milizietan eman zuen izena eta hainbat frontetan borrokatu zen, harik eta 1937ko irailaren 7an hil zuten arte, Asturiasko Posada de Llanesen.

Emilio ere 36ko gerran jardun zuen, hura ere galtzaileen bandoan. Teruelen preso eduki zuten, lan-batailoi batean, eta, herrira itzuli eta Latxartegi aurreko etxe batean jarri zen bizi izaten, Pia Bengoetxearekin ezkonduta.

Romualdo (1920), berriz, eskola amaitutakoan baserrian hasi zen lanean. Goiz eta arratsaldean etxeko esnea partitzen zuen. Ez zen fabrikara joan hamazazpi urte bete arte, izan ere hiru anaia joan baitziren gerrara: Juan, Luis eta Emilio. Eta Patrizioren fabrikan hasi zelarik, lantegia militarizaturik zegoen. Romualdoren ama, Leandra, saiatu zen mutila fabrikako alde militarizatuan hasi zedin lanean, hartara gerratik libratuko zelako, baina ez zuen lortu. Hurrengo urtean, 1938an, soldaduskara bidali zuten ('biberoiaren kinta' zen) eta gerra bukatuta ere hor ibili zen, armadan guztira sei urte egin zituelarik. 1944an, fabrikan Segategian hasi zen eta segak zuzentzea zuen egitekoa. 'Enderezador' esan ohi

[es] Luis, nacido en 1910, trabajó en la sección de electrificación de Renfe. Era dantzari y pelotari, y políticamente de izquierdas. En 1936 se alistó en un batallón de la UGT y combatió en diferentes frentes, hasta que murió el 7 de septiembre de 1937 en el pueblo asturiano de Posada de Llanes.

Emilio también combatió en el bando perdedor. Estuvo en un campo de trabajadores de Teruel y al volver a Legazpi residió en una casa de enfrente de Latxartegi, casado con Pía Bengoetxea.

Romualdo (1920), por su parte, al acabar la etapa escolar trabajó en el caserío. Repartía la leche de sus vacas por la mañana y a la tarde. No comenzó en la fábrica de Patricio hasta los 17 años, dado que tres hermanos se habían marchado a la guerra: Juan, Luis y Emilio. En esa época la factoría estaba militarizada y se fabricaban materiales bélicos. La madre, Leandra, se afanó porque Romualdo entrara en alguna sección militarizada, porque así se libraría de ir al frente de guerra, pero no lo consiguió. Al año siguiente, en 1938, el joven fue llamado a filas (fue de 'la quinta del biberón') y al acabar la contienda tuvo que seguir. Hizo seis años en el ejército. En 1944 regresó a la fábrica y trabajó en Guadañas, como 'enderezador'. Fue el último operario de Guadañas, dado que los compañeros se fueron jubilando y nadie más en-



Jesus Mari Peñagarikano, Bittor Urmeneta, Romualdo Zabaleta, Mertxe Barandiaran, Pedro Peñagarikano eta Juanita Zabaleta (Mertxe Zabaletak emana).

[eu] zioten. Hain zuzen ere, bera izan zen Segategiko azken langilea. Horko beste langile guztiak jubilatzen joan ziren eta ez zen jende berririk hasten, lana oso artesanala baitzen eta errentagarritasun gutxikoa. 62 urte zituela hartu zuen erretiroa. Mertxe Barandiaranekin ezkondu zen; hau, berriz, Elgoibarren jaio eta bost urterekin Legazpira etorria, ezkondu aurretik Julian Lasa eta Loren Etxeberriarenean neskame jardun zelarik.

Ines, berriz, Santanderren bizi izan zen, eta azken urteak Legazpin eman. Cristina Legazpiko kale aldera ezkondu zen, Bitor Urmenetarekin, eta gazteena, Juanita, Olaberriko etxean bizi izan zen baita ere, Pedro Alesonekin ezkonduta, eta bertan hil. Gizon hau (2024an hila) Azkoitian jaio zen, baina Olaberriko jauregian bizitzen jarri, apopilo, eta han zegoela Carmen ezagutu.

Eugenio Agirre Odriak kontatu ohi zuen bera mutiko txikia zela, 1930eko hamarkadan, oker galanta egin zuela. Aldamenean bizi zen, fabrikaldeko etxean, eta beste askotan bezala, Antselmoren ikuilura joan zen. Han 'Kuate' behia zegoen, zilbor aldetik zeozer zintzilik zuela. Tira egin zuen eta odolusten hasi zen behi gaixoa. Antselmok hartu zuen disgustuarekin, mutikoa ez zen gehiago inguru hartara azaldu.

[es] traba en la sección, porque estaba considerada como demasiado artesanal y poco rentable. Se jubiló a los 62 años. Su esposa fue Mertxe Barandiaran, que había llegado a Legazpi desde Elgoibar, con cinco años, y en su juventud trabajó como criada de Julián Lasa y Loren Etxeberria.

Inés vivió en Santander y pasó sus últimos años en Legazpi. Cristina se casó al casco urbano, con Víctor Urmeneta; y la menor, Juanita, vivió y murió en la casa natal, casada con Pedro Alesón. Este hombre, nacido en Azkoitia, vivió como pupilo en Olaberria y entonces conoció a la que luego sería su esposa. Falleció en 2024.

Eugenio Agirre Odria contaba que, siendo un chaval pequeño, en los años 30, hizo una fechoría. Vivía el lado, en Fabrikaldea, y como tantas otras veces, un día entró en la cuadra de Anselmo Zabaleta, vio a la vaca Kuate con algo colgando de la tripa y tiró del colgajo, produciéndole una gran hemorragia. Tras percatarse del tremendo disgusto de Anselmo, no volvió a esa cuadra nunca más.

Todavía en los años 50 había vacas en esta casa, y Carmen llevaba leche a varias familias. Los Zabaleta tuvieron un depósito de agua propio en la ladera del otro lado



Miguel Barandiaran abadea, Romualdo Zabaleta eta Emilio Zabaleta. Umea, Marta Zabaleta, Romualdoren alaba (Mertxe Zabaletak emana).



Juanita Zabaleta eta Pedro Aleson 2000. urtean (Pedro Alesonek emana).



Cristina, Romualdo eta Carmen Zabaleta (J.L.U.).



Jose Mari Bereziartu eta Juan 'Zakar' Zabaleta (Mertxe Zabaletak emana).

[eu] 1950eko hamarkadan, oraindik ere, behiak zeuden ikuilu honetan, eta Carmenek esnea eraman ohi zuen zenbait etxetara. Garai batean, Zabaletatarrok ur-biltegi propioa zeukaten mendi aldean, Madresakoneko ura hartzen zuena, baina Barrendiolako urtegi handia egin zenean handixe hasi ziren hornitzen.

Legazpiko plazako iturrirako ura (Iturraundi, 1772) Madresakonetik eramaten zuten. Oraindik ere teilazko hodi pusketak ikus daitezke inguru hartan. ❖

[es] de la carretera, que se abastecía de la regata de Madresakona, pero al hacerse el embalse de Barrendiola dejaron de usarlo.

En la fuente de Iturraundi (1772) del edificio de Correos manaba también agua de Madresakona. Todavía en la zona se pueden ver trozos de tubería de cerámica. ❖



01_alegia

OLABERRIko FABRIKALDEA 3 "FABRIKALDEA" de Olaberri



Fabrikaldea. 2024ko Ikuspegi orokorra (F.I.O.).

[eu]

Burdinola egon zen hemen zenbait mendetan zehar, hamabosgarren mendeaz geroztik. 'Zeharrolak Urola Garaian' (Lenbur, 2007) argitalpenaren arabera, 1539an Lope Garro ari zen bertan lanean maizter, eta jabea Lope Zabalo semea zen. 1782an, nagusiak Joaquin Agirre Porcel (San Millango markesa, Donostia 1729-1817) eta emazte María Ana Joaquina Bikuña Oiarbide ziren. 1822an, berriz, jabea Andres Porcel genuen, eta geroago Luciano Porcel. Hemeretzigarren mendean zehar aldaketa handiak gertatu ziren: burdinola izateari utzi, eta irin-errota, zerrategi, munizio fabrika (azken karlistada garaian) eta kartoi fabrika izan zen. Eta kartoia egiten, Juan Cruz Apaolaza Goia jardun zen, zeina 1836an jaioa baitzen.

Esanda bezala, errota ere egon zen bertan. 1890eko udal erroldak adierazten duenez, Zacarias Apaolaza Zumeta (Juan Cruzen semea) bizi izen zen bertan, ogibidez errotaria. Antxon Agirre Sorondok 1980ko azaroaren 9an hemendik pasa zen, bere 'Tratado de molinología. Molinos de Guipúzcoa' prestatzen ari zelako, eta esan zioten errotak 1930ean utzi ziola lan egiteari, eta azken errotaria Juan Apaolaza izan zela, zeina 1974an hil baitzen, 77 urte zituela. Garai hartan, nagusiak, San Millango markesak, baimena eskatu zuen errotako ura, laborea ehotzeko ez ezik, argindarra sortzeko ere baliatzeko. Eman zioten, eta zenbait urtetan zehar horko etxebizitzek bertatik izan zuten argindarra.

Hemeretzigarren mendean bazegoen, burdinolari erantsita, etxe bat seguru asko bi bizitzakoa. 1910ean, adibidez, hortxe bizi zen Juan Cruz Apaolaza Goia, ordurako alarguna (1859an ezkondu zen Francisca Zumeta Ulazia aizarnazabaldarrarekin). Gizona Biurraingoikoan jaioa zen, eta, kasualitatea: mendi aldeko etxe hau ere burdinolako jabeak eraikitakoa zen, Joaquin Agirre Porcelek, hemezortzigarren mende bukaeran. Juan Cruzekin batera, erraina bizi zen, Simona Telleria, 41 urtekoa eta Zacarias Apaolazaren alarguna, seme-alabokin: Jose, Elena, Rosendo eta Enrique. Eta,

[es]

Olaberria fue ferrería durante siglos, a partir de fines del siglo XV. Según la publicación 'Zeharrolak Urola Garaian' (Lenbur, 2007), en 1539 trabajaba allí como arrendatario Lope Garro, y el dueño era Lope Zabalo hijo. En 1782, los propietarios eran Joaquín Aguirre Porcel, marqués de San Millán (Donostia, 1729-1817) y su esposa María Ana Joaquina Vicuña Oiarbide. En 1822 aparece como dueño Andrés Porcel, luego perteneció a Luciano Porcel y a partir de ahí se dejó de producir hierro para pasar a ser molino harinero, aserradero de madera, fábrica de munición en la última guerra carlista y factoría de cartón; esta última, regentada por Juan Cruz Apaolaza Goia, legazpiarra nacido en 1836.

Como se ha dicho, también fue molino, y en 1890 aparece trabajando y viviendo ahí el molinero de 27 años Zacarías Apaolaza Zumeta, hijo de Juan Cruz. El 9 de noviembre de 1980 pasó por aquí el etnógrafo Antxon Agirre Sorondo, que estaba preparando su 'Tratado de molinología. Los molinos de Guipúzcoa'. Le informaron de que la última molienda de cereal se realizó 1930, a cargo de Juan Apaolaza, que falleció en 1974 con 77 años. En esa época, concretamente, en 1929, la propietaria del edificio, la marquesa de San Millán, solicitó permiso para usar las aguas del molino también para generar energía eléctrica. Se lo concedieron, y las viviendas contaron con electricidad propia durante algunos años.

En el siglo XIX existía, adosado a la antigua ferrería, un edificio con seguramente dos viviendas. En 1910, vivía la familia de Juan Cruz Apaolaza Goia, viudo de 74 años, que se había casado en 1859 con Francisca Zumeta Ulazia, de Aizarnazabal. Era nacido en Biurraingoikoa, un caserío, curiosamente, edificado a fines del XVIII por Joaquín Agirre Porcel, el marqués de San Millán que poseyó Olaberria. Junto con Juan Cruz, vivía allí su nuera, Simona Telleria, de 41 años, viuda de Zacarías Apaolaza, con sus hijos José, Elena, Rosendo y Enrique. Y, por otro lado, residía en ese edificio Luis Guridi Etxeberria, viudo de 54 años, que se había casado con una



Alegiako kalbarioan ateratako argazkia.

Ezkerretik eskuinera, lehenengoa, Altagracia Makibar Muñoz (Pachuca, Mexiko, 1876); laugarrena, Manuel Gabiria Legazpia (Makatzaga, 1863).
Barrenean, Olaberri

(Enrique Guinea Makibar, Gasteizko Udal Artxiboa, GUI VIII-2.6).

[eu] beste alde batetik, bertan bizi zen Luis Guridi Etxeberria ere, 54 urteko alarguna (Juan Cruzen alaba Francisca Antoniarekin ezkondua), Mexikon bizitutakoa.

Eugenio Agirre Odria oso zen historiazalea eta Olaberriko bizilagunen historia labur bat idatzi zuen, 'Olaberri en mi corazón' zeritzana. Ikertzaile honen arabera, hementxe bizi zen Trifon Mujika Olaberria ere (Zerain, 1877), Amerikatik bueltan etorritakoan. Gizon hau, Patrizio Elorza, Papelerako nagusiaren bigarren emaztearen anaia genuen, eta Ameriketatik bueltan hiru iloba jaso zituen: Filomena, Asun eta Remedios.

Bährtarren ostean Agirretarrak

Eta 1910eko hamarkada hartan, familia entzutetsu bat jarri zen bizitzen Olaberrian: Bährtarrak. Udanako etxetik bota zituzten, Lehen Mundu Gerra alemaniarrek galdu eta gero. Izan ere, Real Compañía Asturiana de Minas enpresak Belgikako kapitala zuen, alemania-

[es] hija de Juan Cruz y que, según Eugenio Agirre Odria (nacido aquí y fallecido en 2022) era 'americano', había trabajado en ese continente.


Eugenio Agirre Odria fue una persona muy interesada por la historia y elaboró una monografía sobre su casa natal, titulada 'Olaberri en mi corazón'. Según este investigador, en este edificio vivió también Trifón Mujika Olaberria (Zerain 1877, hermano de la segunda esposa del empresario papelero Patricio Elorza), tras regresar de América.

Tras los Bähr, los Agirre

Pero en la década de 1910, la propietaria de todo ese complejo, Dolores Porcel (emparentada con los marqueses de San Millán), desalojó a los Apaolaza, que se trasladaron a la zona del casco urbano. Trifón Mujika se fue también. En esa década entró a vivir una familia ilustre: los Bähr. Fueron desalojados de la casa de Uda-



Frantzisko Mari Agirre eta Bernarda Odriaren seme-alaba eta bilobak (Manuel Salvadorrek emana).



1. Jesus Mari Aguirre
2. Glori Aguirre Vila
3. Benita Aguirre
4. Federico Ruiz Errazu
5. Pilar Aguirre
6. Agustin Zabaleta
7. Mari Cruz Aguirre
8. Esteban Aguirre
9. Pepita Bereciartu
10. Rosa Vila
11. Socorro Aguirre
12. Antonio Goñi Larrea
13. Manuel Salvador Aguirre
14. Eugenio Salvador Aguirre
15. Frantxiskomari Aguirre
16. Bernarda Odria
17. Bittori Aguirre
18. Mariangeles Salvador Aguirre
19. Eugenio Aguirre
20. Mari Cruz Aguirre Vila
21. Socorro Goñi Aguirre
22. Rosi Aguirre Vila
23. Federico Ruiz Aguirre
24. Jesus Esteban Ruiz Aguirre
25. Alvaro Goñi Aguirre
26. Pancho Goñi Aguirre
27. Jose Mari Ruiz Errazu

[eu] rren arerio. Baina alemaniarrok denbora gutxi egin zuten Olaberrian. Hortik Ormaiztegiko etxe batera bizialdatu ziren, eta Friedrich bertan hil. Orduan, familia Alemaniara bueltatu zen.

1921. urtetsuan aldaketa latza gertatu zen. Francisco Mari Agirre Villar eta emazte Bernarda Odria toki honetara bizialdatu ziren. Bährtarrak bizi izandako etxean sartu ziren. 1920an, artean Etxetorren bizi ziren beren lehenbiziko hiru haurrekin, eta handik mugitu baziren, izan zen Patrizio Etxeberriak bultz eginda. Errementari hasi eta enpresaburu bihurtutako legazpiar hau beldur zen, baten batek ez ote zion konpetentzia egingo Olaberriko instalazio zaharrak erabilita. Halaxe, erabaki zuen hamar urterako errentan hartzea ola zaharra eta

[es] na porque la Real Compañía Asturiana tenía capital belga y esa nación era enemiga de Alemania, la potencia que acababa de perder en la primera guerra mundial. El alemán Federico Bähr había trabajado como ingeniero en el complejo minero de Katabera y estaba casado con Joanna von Draacke. Uno de sus cinco hijos, Gerhard, fue un conocido lingüista, colaboró con Euskaltzaindia y con los grandes lingüistas de la época, como Azkue y Urkijo.

Hacia 1921 todo cambió. Francisco Mari Agirre Villar y su esposa Bernarda Odria llegaron a este inmueble a comienzos de la década de 1920, para ocupar la vivienda en la que habían vivido los Bähr. En 1920 todavía residían en Etxetorre con sus tres primeros hijos,

[eu] aldameneko etxebizitzak. Kontratua adostu zuen nagusiarekin, Lasaon bizi zen Dolores Porcelekin. Zestoako auzo horretan baitzen Millango markesen jauregia, eta orduan markesa Doloresen ahizpa zen, Basilia María de la Blanca Porcel y Guirior (1859-1940). Zehatzago esanda, San Millango VII. markesa eta Villa Alegreko VII. markesa.

Francisco Mari Agirre Mantxolaaundikoa zen, eta umetan asko jolastutakoa Patrizio Etxeberriarekin, hau Azpikoetxen bizi baitzen. Bernarda, berriz, Aztiriko Baztarretxen jaioa genuen, eta umetan Legazpiko kale aldera jaitsitakoa, zerbitzeko. 1911n ezkondu ziren eta, aurrena, Txortxikonean jarri ziren bizitzen. Andresene ondoan zegoen. Hantxe jaio zitzaien lehenbiziko haurra, Bittori, 1913an. Baina segituan hil eta, hurrengo urtean beste ume bat munduratu zen, hura ere Bittori izenaz bataiatu zutelarik. Gero Etxetorren jarri ziren, eta hantxe semea eta alaba jaio: Esteban (1916) eta Pilar (1919).

1920ko hamarkada hasieran, esanda bezala, Francisco Mari eta Bernarda Olaberrira joan ziren bizitzera. Ez zen erabaki erraza izan. Etxetorren lasai bizi ziren, baina jakitun ziren, baita ere, Patrizio nolako egoera ekonomikoan zegoen murgilduta: aurreko enpresa desegina zuen eta orain erreminta-enpresa berriaren nagusi bakarra zen, baina dirutza zeukan Pedro Segurari itzuli beharrekoa. 1935ean lortu zuen zor guztia kitatzea.

Hamar urtez, Francisco Mari eta Bernarda batere errentarik ordaindu gabe bizitu ziren Olaberrian. Patriziok egiten zuen. 1930 eta 1940 bitartean, orduan bai, errenta pagatu zioten Dolores Porcel nagusiari. Gero, 1940an, senar-emazteok erosi egin zuten Olaberriko fabrikalde guztia; burdinola ez ezik, etxebizitzak eta aldameneko sagasti eta baratzeak. Eta orduan, jabe zirelarik, etxetzarra eraiki zuten. Hasieran bi bizitza baino ez ziren; gero, hamalau.

Bestalde, Francisco Marik esan ohi zuen bera Olaberrira aldatu zenean, Urola ibaia aingiraz beterik egoten zela.

[es] y se mudaron a Olaberria porque así lo deseaba Patricio Etxeberria. El herrero, ya convertido en empresario, temía que alguien montara allá alguna actividad relacionada con el hierro y ser así su competencia. Entonces, alquiló por diez años las viejas instalaciones de la ferrería y las viviendas superiores. La dueña, Dolores Porcel, residía en el palacio del marquesado de San Millán, en el barrio zestoarra de Lasao. Era hermana de Basilia María de la Blanca Porcel y Guirior (1859-1940), VII marquesa de San Millán y VII marquesa de Villa Alegre.

Francisco Mari Agirre y Bernarda Odria se casaron en 1911 y vivieron primeramente en Txortxikonea, una casa del casco urbano situada al lado de Andresenea. Mientras uno había nacido en Mantxolaaundi y en su infancia fue gran amigo de Patricio, Bernarda era natural de la casa Bazterretxe de Aztiri. Allí mismo, en Txortxikonea, en 1913, les nació la primera hija, Victoria, que murió al poco tiempo. En 1914 nació otra niña, que fue bautizada con el mismo nombre. Luego la familia se trasladó a Etxetorre, y allí nacieron otros dos hijos, Esteban (1916) y Pilar (1919).

A comienzos de los años 20, como se ha dicho, Francisco Mari y Bernarda se trasladaron a Olaberria, tras superar fuertes dudas. Vivían muy tranquilos en Etxetorre, pero también conocían la situación delicada de Patricio Etxeberria: había liquidado la compañía, se había quedado en exclusiva con la fábrica de herramientas, pero debía devolver una fuerte suma de dinero a Pedro Segura. No acabó de resolver la deuda hasta 1935.

Francisco Mari y Bernarda vivieron en Olaberria durante diez años sin pagar ninguna renta; lo hacía Patricio Etxeberria. Entre 1930 y 1940, el matrimonio pagó la renta a la propietaria, Dolores Porcel, y en 1940 el matrimonio compró todo el viejo complejo de la ferrería, las viviendas, las huertas de al lado y el manzanal. Y entonces remodelaron y ampliaron la casona, que pasó de tener 2 viviendas a tener 14.

Por otra parte, Francisco Mari solía comentar que, al instalarse en Olaberria, el río Urola bajaba lleno de anguilas.

[eu] Baina obra handi hau egin aurretik, Bernardak eta Francisco Marik beste haur batzuk ekarri zituzten mundura: Benita (1922), Eugenio (1923), Socorro (1926), Mari Cruz 1929) eta Jesus Mari (1932). Guztira, zortzi seme-alaba aurrera egin zutenak eta txikitan hildako beste hiru.

1930eko hamarkadan, lehengo ola zaharrean zegoen burdinazko tresneria dena urtu egin zuen Patriziok. Lehen esan duguna: ez zuen nahi han beste inork inolako industriarik jartzerik.

Agirre Odriatarrekin jarraituz, alaba zaharrena, Bittori, Manuel Salvadorrekin ezkondu zen. Hau, berriz, Luzaiden jaioa, gaztetan basolanetan aritutakoa eta bizikleta-konpontzaile ere bai, eta gero karabinero hasitakoa; mugazaina, alegia. 1936ko gerra piztu eta Francoren alde jardun zen borrokan. Udalaitz aldean ari zela zauritu egin zuten eta Legazpiko odol-ospitalera ekarri. Olaberriko etxetzar ondoko labaderoan ospitaleko arropak garbitu ohi ziren eta, lantegi hori zela eta, hasi zuten hartu-emana Bittorik eta Manuelek. Ezkondu eta Irunen bizi izan ziren, han hasi baitzen lanean Manuel, guardia zibil gisa. Gerrakoan eskuin besoan zauritu zuten eta ezkerrarekin idazten ikasi zuen.

Manuel gazterik hil zen, 41 urte zituela, eta 1952an, alargundu eta handik hiru urtera, Bittori Legazpira itzuli zen, gurasoen ondora.

Bernarda eta Francisco Mariren hurrengo haurra Esteban izan zen, zeina Rosa Vilarekin ezkondu baitzen. Emakume hau, berriz, Papelerara lanera (fieltroaren fabrikazioa irakastera) etorritako gizon baten alaba zen, Ramon Vila, alegia, Alacantekoa. Esteban, Patrizioren fabrikako Laminazio zaharreko enkargatua izan zen.

Estebanen ostean Pilar jaio zen. Federico Ruizekin ezkondu zen, zeina etxe-margotzaile izan baitzen. 1953an Kolonbiara joan ziren, eta han lehen bi semeak jaio; gero, 1958an, Perura, eta han beste haur bat munduratu. 1963an itzuli ziren, eta Olaberrian bertan bizitzen jarri.



Azurmenditarrak.

Amona,
Agustina Intxausti.
Gurasoak,
Juan Mari Azurmendi
eta Maria Urruzola.
Umeak, ezker-eskuin,
Antonio, Miguel, Joxe
eta Blas.

[es] Pero antes, en la vieja casa de Olaberria, a Bernarda y Francisco Mari les nacieron otras criaturas: Benita (1922), Eugenio (1923), Socorro (1926), Mari Cruz 1929) y Jesús Mari (1932). Fueron un total de ocho hijos vivos y tres muertos.

En la década de 1930, Patricio fundió todos elementos metálicos de la vieja ferrería. Seguía empeñado en que nadie acometiese alguna labor industrial en esas instalaciones.

Por lo que respecta a los Agirre Odria, la primogénita, Victoria, se casó con Manuel Salvador, natural de Valcarlos, que en su juventud trabajó en los bosques y reparando bicicletas, y luego se hizo carabinero. Llegó la guerra del 36 y Manuel batalló en el bando nacional. Resultó herido en la zona del monte Udalaitz y fue trasladado al hospital de sangre de Legazpi. En el lavadero de al lado de la casona de Olaberria se solían lavar ropas de los alojados en el hospital, y fue esa la razón por la que Victoria y Manuel comenzaron la relación. Luego vivieron en Irun, donde fue destinado Manuel como guardia ci-

[eu] Hurrengo alaba, Benita, bederatzi urte zituela, Ezkioko bidenteetako bat izan zen. Adierazi zuen Ama Birjina ikusi zuela eta, eliz agintariei kontra eginez, bereari eutsi zion, azkenean eskumikatu egin zutelarik. Madrilera joan zen bizi izatera eta Robert Pierre Theodore Vernayrekin ezkondu. Olio-margolan artistiko ederrak egin zituen.

Gero Eugenio etorri zen mundura. Patrizio Etxeberriaren halako idazkari moduko bat izan zen eta historialari izaten saiatu zen. Pepita Bereziarturekin ezkondu eta, lehenbiziko urteetan, aitaginarrebaren etxean (Joaquin Bereziartu industria-gizona) bizi izan ziren, tailerraren ondo-ondoan.

Socorro, berriz, Antonio Goñirekin ezkondu zen. Venezuelara joan ziren eta handik aberastuta itzuli, eta gero Madrilera bizialdatu, elikadura-negozioa eduki zutelarik. 1960ko hamarkada hasiera aldera, Antoniok taberna-kafetegi entzutetsua zabaldu zuen Legazpin, Caribe izenekoa. Toki aurreratua zen, zerbitzariek uniformea janzten zutelarik. Hurrengo alaba, Mari Cruz (Kruzita), 1929an jaio zen, eta Urretxun bizi, Jose Agustin Zabaleta Urkiola banku-enplegatuarekin ezkonduta. Eta azkenekoa, Jesus Mª, Patrizioren fabrikako bulegoetako enplegatua izan zen, eta gero Madrilera bizialdatu, Mª Dolores Galvezekin ezkonduta.

Hamalau etxebizitza

Lehen esan dugun bezala, 1940ko hamarkadan Olaberriko eraikinean etxebizitza asko egin zituzten Bernarda eta Francisco Marik. Handik aurrera hamalau bizitza egon ziren bertan. Etxeko bi alaba, Bittori eta Pilar, bertan bizi izan ziren, bakoitza bere pisuan. Hona handik pasatako errentero-familia batzuk: Juanito Ibarreta eta Joxepa Goikoetxea (emakume honek pentsioa eduki zuen gero Arantzazu auzoan); Juan Ayerbe mikelete ohia eta emazte Francisca Agirre, biak Ataunen jaioak; Juan Azurmendi hargin eta igeltsero zegamarra,

vil. Había sido herido en el brazo derecho y debió aprender a escribir con la mano izquierda. [es]

Manuel murió a los 41 años, y en 1952, a los tres años de enviudar, Victoria volvió a Olaberria, junto a sus padres.

El siguiente hijo de Bernarda y Francisco Mari fue Esteban, que se casó con Rosa Vila, hija del técnico de fieltros de la Papelera, y fue encargado en la Laminación vieja de Patricio. Luego nació Pilar, que se casó con Federico Ruiz, que se dedicó a pintar viviendas. En 1953 se fueron a vivir a Colombia, y allí nacieron los dos primeros hijos; y en 1958 a Perú, donde les nació la tercera criatura. Regresaron en 1963 y al comienzo vivieron en el mismo Olaberria.

La siguiente hija, Benita, siendo una niña de nueve años, declaró ver a la Virgen María en Ezkio, persistió en su creencia y acabó excomulgada. Se marchó a vivir a Madrid y se casó con Robert Pierre Theodore Vernay. Destacó como pintora al óleo. Luego vino al mundo Eugenio, que fue una especie de secretario de Patricio Etxeberria y destacó como historiador aficionado. Se casó con Pepita Bereziartu y durante los primeros años residieron en el edificio anexo a la fundición del suegro Joaquín.

Socorro, por su parte, se casó con Antonio Goñi y, tras una estancia exitosa en Venezuela, vivieron en Madrid, dedicándose al negocio de la alimentación. A comienzos de los años 60, Antonio fundó en Legazpi el bar Caribe, con camareras de uniforme, algo muy avanzado para la época La siguiente hija, Mari Cruz, nació en 1929, y vivió en Urretxu casada con el empleado de banca José Agustín Zabaleta Urkiola. El último hijo, Jesús Mª, trabajó primero en la oficina de la empresa de Patricio, y luego vivió en Madrid, casado con Mª Dolores Gálvez.

Catorce viviendas

Como se ha dicho, en los años 40 Francisco Mari y Bernarda ampliaron el caserón que ha llegado hasta nuestros días. El edificio tuvo catorce viviendas y dos de ellas



Fabrikaldeko Francisca Auza eta Juan Zubillaga (Juanjo Zubillagak emana).



Bernarda Odria bere sukaldean, biloba Manuel Salvadorren emazte Mª Angeles Azurmendirekin (Manuel Salvadorrek emana).

[eu] gero bere etxe propioa egin zuena gasolindegi ondoan; baita ere, Angelita Duran bilbotarra, Manjonen alarguna, gero Pedro Elizburu araoztarrarekin ezkondu zena; Julian Belastegiren familia ere bai, eta Felitxu Sarazibar gorraren familia, eta Isabel Kerejeta, Goiategi baserriko emakumearena, zeinaren senarra lan-istripuan hil baitzen Patrizionean. Halaber, Jose Giné, Pello Zubizarreta, Ikutzatarrak, Tirso Huete (Cascantekoa), Angel Okariz, Jose Zazpe eta Zubillagatarrak.

60. hamarkadatik aurrera, familiok guztiok kale alderago bizialdatu ziren. Handik aurrera, Galizia, Gaztela eta urrutiko beste toki batzuetatik etorritako familiak azaldu ziren Olaberrira.

2008an, agirretarrek Udalari saldu zioten etxe osoa eta inguru dena. Baziren hamar urte, gutxienez, eraikina hutsik zegoela.

Basaburutik etorriak

Jende asko pasatu zen Olaberritik. Langile jendea, eta lagun ia guztiak Patrizioren lantegian enplegatuak. Ba-

[es] fueron ocupadas por las familias de dos de las hijas, Victoria y Pilar. He aquí algunas de las familias que pasaron por ahí en la década de 1950: la de Juanito Ibarreta y Joxepa Goikoetxea (ésta última tendría luego pensión en el barrio Aranzazu); la del exmiquelete Juan Ayerbe y su esposa Francisca Agirre, ambos ataundarras; y la del cantero zegamarra Juan Mari Azurmendi, quien luego se haría una casa propia al lado de la gasolinera. También, una mujer, Angelita Durán, bilbaína, viuda de Manjón, que luego se casó con el araoztarra Pedro Elizburu; la familia de Julián Belastegi, la de Felitxu Sarazibar y la de Isabel Kerejeta (del caserío Goiategi, cuyo marido murió en la fábrica de Patricio en accidente laboral). Además, las familias de Pello Zubizarreta, los Ikutza, José Zazpe, Juan Zubillaga, Tirso Huete (de Cascante), José Giné y Ángel Okariz.

A partir de los años 60, estas familias se trasladaron a zonas más céntricas, y los pisos sirvieron de vivienda a gentes venidas de Castilla, Galicia y otras regiones lejanas.

En el año 2008 los Agirre vendieron al Ayuntamiento tanto el edificio entero como los alrededores. Ya llevaba deshabitado más de una década.

[eu] koitza bere historia eta zama pertsonalarekin. Adibidez, hor dugu Juan Zubillaga eta emazte Frantziska Auzaren kasua. Biak Nafarroako Basaburuko Itsason jaioak, bata 1906an, Frantziska 1918an.

Juan, Legazpira baino lehenago, bere jaiotetxe inguruko basoetan ibili zen lanean, ikazkin ere bai, baserri batzuetan morroi eta Irabiako urtegia egiten. Frantziska, berriz, Ameriketatik etorritako osaba bat zaintzen eman zituen urte batzuk, Izurdiagan, Irurtzundik gertu.

Juan, lehenbizi bera bakarrik azaldu zen herrira, eta apopilo bizi zenbait etxetan, besteak beste Bikuñaneko batean.

Telleriarten ezagun batzuk bizi ziren, Nafarroako senaremazte batzuk. Juani esan zioten utziko ziotela gela bat eta sukaldean otorduak prestatzeko modua ere izango zuela, eta orduan, gutxieneko bizitoki hori bermatuta zeukala, Juanek eta bere andregaiak, Frantziskak, pausoa eman zuten eta ezkondu 1952an.

Telleriarten jaio zen lehenengo semea, Juanjo. Handik laster aldatu ziren Olaberrira, eta etxe honetan bizi zirela, jaio ziren Josu eta Mari Carmen.

Olaberrian bizi zirela, Zoilo Aldasorori etxebizitza eskatu zioten fabrikako nagusiak eraikitako auzoetan, baina honek Brinkolan eskaini zien etxea, horrelakorik nahi ez eta, azkenean, 1968an Itxaropeneko etxe batera bizialdatu ziren.

Patrizioren fabrikan lanean hasi aurretik, Urtatzako urtegiaren eraikuntzan, Aztiriko harrobian eta Flejeetako pabiloia eraikitzeko lanean jardun zuen Juanek. Azken urteetan gauez jardun zuen, guarda, eta ez zuen lan oso atsegina, ardura handia sentitzen zuelako, adibidez zenbait makina eta instalazio handi piztu behar zituelako ordu jakin batean.

70 urte bete arte ibili zen fabrikan, gaztetan gutxi kotizatu zuenez pentsio oso txikia geratuko litzaiokeelako bestela.❖

Familia llegada de Basaburua [es]

Por Olaberria pasaron muchas familias. Eran familias de obreros, casi todos de la fábrica de Patricio. Cada una con su historia y sus dificultades. Por ejemplo, la familia de Juan Zubillaga y Francisca Auza, ambos nacidos en la Basaburua navarra, en Itsaso, el hombre en 1906, la esposa en 1918.


Juan, primeramente, trabajó en los bosques de los alrededores de su casa natal, y como carbonero. También como 'morroi' en otras casas y en la construcción del pantano de Irabia. Francisca pasó un tiempo en Izurdiaga, al lado de Irurtzun, cuidando de un tío que había regresado de América.

Juan apareció por Legazpi en solitario, y se alojó como pupilo en varias casas, una de ellas de Bikuñanea.

En Telleriarte vivía una familia navarra conocida que comunicó a Juan que le dejarían una habitación con derecho a cocina. Se lo comunicó a su novia Francisca, y una vez asegurado el alojamiento, se animaron a casarse. Era el año 1952.

El primer hijo, Juanjo, nació en Telleriarte. Pronto se mudaron a Olaberria y allí nacieron las otras dos criaturas, Josu y Mari Carmen. Viviendo en Olaberria, solicitaron casa en los nuevos barrios a Zoilo Aldasoro, el jefe de personal de la fábrica de Patricio, y éste les ofreció solamente una casa en Brinkola. No se mudaron. Finalmente, en 1968 se trasladaron a una vivienda en el barrio de Itxaropen.

Antes de comenzar en la fábrica de Patricio, Juan trabajó en la obra del pantano de Urtatza, en la cantera de Aztiri y en la construcción del pabellón de Flejes. Los últimos años de trabajador los pasó en la fábrica como guarda nocturno. No era una tarea de su agrado y sentía mucha responsabilidad, pues de noche, a unas horas concretas, debía poner en funcionamiento algunas máquinas e instalaciones. Siguió en activo hasta los 70 años, porque en su juventud apenas cotizó a la Seguridad Social. ❖



TOKI EDER 4 TOKI EDER



Etxea baino lehen, 1940ko hamarkadan, txabola egin zuen Juan Mari Azurmendik (Antonio Azurmendik emana).



Toki Eder etxea (Santiago Fz. de Quincoces).

[eu]

1960an egindako etxea. Hemen "Olaberriko basoa" izeneko paraje zabala zegoen aspaldiko garaietan. Etxea eginarazi zuena, Juan Mari Azurmendi. Zegamako Urretane baserrian jaioa zen eta, Urnietan lanean hargin ari zela, hango herri-eskola handitzen, Maria Urruzola ezagutu zuen, gero ezkondu egingo zirelarik.

1941ean, Juan Mari Azurmendiri esan zioten Legazpin ikastetxe berria egiten hastera zihoazela, gero lasalletarrek gobernatuko zutena, eta gizona herri honetara azaldu zen, eta Olaberriko etxetzarrean (Agirre-Odriatarren eraikinean) bizitzen jarri. 1943an, ikastetxea inauguratu zen urtean, lehenengo semea jaio zitzaien, Antonio.

Gero beste bost mutiko munduratu ziren: Joxe, Miguel, Blas, Marcos eta Eugenio. Denak ere Olaberriko etxetzarrean jaio ziren.

Hona Juan Mari Azurmendik bere etxe propia nola egin zuen, seme Antoniok kontatuta; hala ere, lehenbizi txabola bat altxatu zuen, hortik gertu. Herrira etorri eta segituan baratzea egiten hasi zen toki honetan. Sasiarte bat zegoen, eta istinga, alde banatan bi errekatxo jaisten baitziren mendi aldetik. Ingurukoek ez zuten uste lur-sail hura mendean hartzea lortuko zuenik, baina azkenerako baratze ederra zertu. 1944anedo, baimena lortu zuen txabola egiteko. Planoa aurkeztu behar izan zuen, eta horretarako Santiago Andueza delineatzailearengana jo zuen. Diputazioak esan zion kamiotik zortzi metroko tartea utzi behar zuela gutxienez. Txabolaren beheko partean harrizko paretak egin zituen, goi aldea adreiluekin osatu zuen, Halako batean, jakin zuen, zeharka, bazegoela Legazpin saihesbidea egiteko asmoa, eta errepide berria baratze alde horretatik pasako zela. Halaxe, erabaki zuen aurrea hartzea eta bertan etxea egitea berarendako. Diruz ez zebilen sobrante eta sozioa bilatu zuen: Gregorio Muguruza, Azpeiti aldeko gizona, hura ere, Juan Mari bezala, Patrizioneko langilea.

[es]

Casa edificada en 1960. Este paraje estaba situado dentro de una amplia zona antiguamente llamada 'Olaberriko basoa' (Bosque de Olaberria). Quien mandó construirla, Juan Mari Azurmendi, era nacido en el caserío Urretane de Zegama, y estando trabajando de cantero en la ampliación de una escuela de Urnieta, conoció a María Urruzola, la que luego sería su esposa.

En 1941 Azurmendi supo que en Legazpi se iba a construir un colegio para los Hermanos de la Salle, y así se presentó en Legazpi con su esposa, instalándose en la casona de Olaberria. En 1943, el año en que se inauguró el centro de enseñanza, les nació el primer hijo, Antonio.

Luego, en esa casona vinieron al mundo otros cinco niños, todos varones: Joxe, Miguel, Blas, Marcos y Eugenio.

El hijo Antonio nos contó cómo su padre hizo esta casa, y antes una chabola a pocos metros de distancia. Desde su llegada a Legazpi, Juan Mari trabajaba una huerta situada en esa zona. En un principio todo era un zarzal y ciénaga, porque dos riachuelos bajaban del monte a escasa distancia. Los vecinos no creían que Juan Mari sería capaz de hacer allí una huerta, pero finalmente limpió y trabajó una hermosa pieza, y además hacia 1944 edificó con sus manos una chabola, en la zona inferior de piedra, más arriba de ladrillo. Debió de dejar ocho metros de distancia de la carretera, por indicación de la Diputación, y presentar unos planos de la chabola, que los realizó Santiago Andueza.

Un día se enteró de que existía un proyecto para que pasara por ahí una nueva variante, y decidió tomar la delantera y edificar ahí su propia casa. No andaba sobrado de dinero y se buscó un socio, el azpeitiarra Gregorio Muguruza, empleado de la fábrica de Patricio, al igual que Juan Mari. Ese hombre tendría luego un negocio de huevos en la zona de Zubitxo.



Azurmenditarrak.

Juan Mari, Maria eta seme-alabak.
Zaharrenaz aurrera, Antonio, Miguel, Blas,
Markos eta Eugenio.
Joxe falta da, kanpoan ikasten ari zelako
(Antonio Azurmendik emana).

[eu] Eraikitze lanetan gogotik jardun zuen Juan Marik berak ere. Bikuñaerrotako kanaleko harri batzuk ere erabili zituen, Agapito Etxeberriari erosita.

1960an burutu zen etxea. Lehenengo solairuan Gregorio Muguruzaren familia bizitu zen, eta bigarrengoan azurmenditarrak. Orain ere bertan bizi da Juan Mariren bigarren semea, Joxe. ❖

[es] En las tareas de edificación de esta casa de 1960 Juan Mari participó activamente. Como cantero que era, preparó piedras procedentes del canal del antiguo molino de Bikuñanea. Se las compró a Agapito Etxeberria.

La nueva casa se acabó de levantar en 1960. En la primera planta vivió la familia de Gregorio Muguruza, y en la de encima los Azurmendi. Ahora en la casa vive el segundo hijo de Juan Mari, Joxe. ❖



GOIKO IZARRA 5 GOIKO IZARRA



Goiko Izarra etxea, Olaberritik Mantxolazar aldera (J.L.U.).



Etxe aurrean Javier Balerdi (Javier Balerdik emana).



Goiko Izarrako Mª Teresa Arrese, Eustaquio Balerdi eta seme Javier (Javier Balerdik emana).

[eu]

Etxe hau Eustaquio Balerdik eta emazte Mª Teresa Arresek (Eskoriatzako Maringoa) egin zuten 1958an. Eraikitzen, Damaso Arizti kontratista jardun zen. Urte batzuk lehenago, 1952an, erre egin zen Eustaquio eta Mª Teresaren bizilekua, Zatui baserria, eta Olaberrira bizialdatu ziren, ola zaharraren gainean Bernarda Odria eta Francisco Mari Agirrek egindako etxera. Beraz, egonaldi aski laburra izan zen hangoa, eta tarte horretan, 1956an, semea jaio zen, Javier.

Zehatzago esanda, Eustaquiorekin batera anai-arreba ezkongabe batzuk bizi izan ziren Goiko Izarran, Gregorio eta Maria. Eustaquiok Patrizionean egin zuen lan, Palategian, eta anaiak ere fabrika horretantxe.

Gizon-emakumeok baserritarrak izanak ziren eta Goiko Izarran baratzea eta ganadu piska bat eduki zuten; behi bat, astoa, zerria eta oiloak.

1977an, balerditarrok alde egin zuten etxe honetatik (Gregorio hilda zegoen) Laubide aldera, eta galiziar familia bat sartu zen, Rogelio Barbeira eta emazte Albina. Gizona igeltseroa zen eta Suitzan lan egindakoa. Gero, 1987an, jatetxea zabaldu zuten Egialden eta hari izen hauxe ipini: Goiko Izarra. ❖

[es]

Esta casa la hicieron Eustaquio Balerdi y su esposa Mª Teresa Arrese (del barrio Marín de Eskoriatza) en 1958, con Dámaso Aristi como contratista. Unos años antes, en 1952, se quemó el caserío Zatui, en el que residía el matrimonio, y en un principio se trasladaron a Olaberria, a un piso de la casona de Bernarda Odria y Francisco Mari Agirre. En medio de ese periodo, en 1956, nació el hijo, Javier.

En Goiko Izarra vivieron también dos hermanos solteros de Eustaquio, Gregorio y María, que habían perdido también la vivienda de Zatui. Eustaquio y Gregorio trabajaron en la fábrica de Patricio, el primero en Palas.

Los Balerdi habían sido baserritarras y en Goiko Izarra tuvieron huerta y algo de ganado: una vaca, burro, cerdo y gallinas.

En 1977 se trasladaron a un piso de la zona de Laubide. Gregorio ya había fallecido. A partir de entonces la casa fue habitada por unos gallegos, Rogelio Barbeira y su esposa Albina. Rogelio trabajó como albañil en Suiza y en 1987 abrió un bar-restaurante en Egialde, precisamente con el nombre de Goiko Izarra. ❖



BIKUÑAERROTA (Alegiko errota) 6 BIKUÑAERROTA (Molino de Alegría)



Bikuñaerrota (Fernando Mz. de Albeniz, 2013).

[eu] 1832an, nagusia Juan Antonio Lardizabal Altuna zen, Bikuñaandiko jabeen leinukoa eta Gipuzkoako diputatu nagusi izandakoa; eta orduko maizterra, Jose Joaquin Zabaleta.

Mendeetan zehar, Bikuñako burdinolaren ondoan egon zen errota. Baina Norteko Trenbidea egindakoan (1864an inauguratu zen), errota bota egin zuten, trenbideak harrapatu behar zuelako. Handik gutxira, berria egin zen, ibaian gora, eta eraikina hor dago orain ere, Gurtzain garajearen ondoan. Paraje honi Alegia esaten zioten, eta errota hau Molino de Alegría izenez ere ezagutu zen.

1866ko nagusiak, Irunen bizi zen Ramon Lardizabal Otazuk, bertako errotariari saldu zion etxea (AHPG 1/4704/226); hau da, Marcos Zabaleta Makibarri (1835), zeina aipatutako Jose Joaquinen semea baitzen.

Benetako handiki bat zen Ramon Lardizabal. Etxe asko zituen Gipuzkoan barrena eta 1858an diputatu nagusi izendatu zuten.

1910eko udal erroldan hiru bizilagun ageri dira: Marcos Zabaleta Makibar (75 urteko alarguna, Gabriela Iñurritegi Guridirekin ezkondutakoa) eta bi seme-alaba, Joaquin (49) eta Pilar (34), biak ala biak ezkongabeak. Marcos "labrador propietario" da, semea "labrador" eta Pilarren eginkizuna "labores de la casa" dira. Beraz, ematen du errota ordurako isildu egin dela, baina ez zen hala: 1920ko erroldan, Joaquin "molinero propietario" da. Antxon Agirre Sorondok 1988ko bere 'Tratado de molinología. Molinos de Guipúzcoa'-n dioenez, bertara bisita egin eta esan zioten errota, azkeneko aldiz, 1939an ibili zela, Joaquin Zabaleta errotariak eraginda, zeina 1940an hil baitzen, 78 urte zituela.

Gainera, Marcos eta Gabrielaren beste seme bat, Ameriketan urteak emandakoa, handik itzuli eta etxe honetan garagardoa egiteko tresneria ipini zuen, latoizkoa edo urregorrizkoa, alanbike eta guzti, Eugenio Agirrek kontatu ohi zuenez. Baina garagardoa ekoizten hasi eta handik gutxira baten batzuek dena lapurtu zuten.

[es] En 1832, el propietario de este edificio, al igual que de la ferrería de Bikuña, era Juan Antonio Lardizabal Altuna, del linaje de los dueños de Bikuñaaundi, quien años antes había sido diputado general de la provincia. Y en esa época el inquilino era José Joaquín Zabaleta.

En un principio, el molino estaba enclavado junto a la ferrería de Bikuña. Al hacerse el trazado del Ferrocarril del Norte, en 1864, el edificio se derruyó, por estar en la zona de la vía férrea. Y al poco tiempo se edificó el nuevo molino río arriba, en el edificio que ha llegado hasta nuestros días, al lado del garaje Gurtzain. Este paraje recibía el nombre de Alegia, y al molino se le conoció también como Molino de Alegría.

En 1866, el propietario, Ramón Lardizabal Otazu, que vivía en Irun, vendió el inmueble (molino y viviendas) al molinero, Marcos Zabaleta Makibar, hijo del mencionado José Joaquín (AHPG 1/4704/226).

Ramón Lardizabal era un potentado. Poseía casas en varios pueblos de Gipuzkoa y en 1858 fue nombrado diputado general.

En el padrón de 1910 aparecen estas personas; Marcos Zabaleta Makibar (viudo de 75 años, casado anteriormente con Gabriela Iñurritegi Guridi) y dos hijos, Joaquín (49) y Pilar (34), ambos solteros. Según el padrón, Marcos es "labrador propietario", el hijo es "labrador" y Pilar se dedica a "labores de la casa". Por lo tanto, podría parecer que la maquinaria del molino ya se había silenciado, pero no era así; en el padrón de 1920, Joaquín aparece como "molinero propietario". Según dice Antxon Agirre Sorondo en su libro de 1988 'Tratado de molinología. Molinos de Guipúzcoa', en su visita a esta casa le informaron que la última molienda se realizó en 1939, de manos de Joaquín Zabaleta Iñurritegi, quien falleció en 1940 con 78 años.

Además, Eugenio Agirre Odria solía contar que otro hijo de Marcos y Gabriela, al volver de América, instaló en esta casa el instrumental necesario para la ela-



Bikuñaerrota
eta kirten fabrika
eta inprimategi izandako eraikina
(Ibon Etxeberriak emana).

[eu] Zabaletatar haiek zahartutakoan edo hildakoan, Agapito Etxeberriak (1903-1996) erosi zuen eraikina. Makatzagaetxeberrin jaioa zen eta 1936ko gerratik bueltan egin zuen erosketa. 1940an izan ote zen… Arotza zen eta gerra aurretik Bilboko Euskaldunan jardun zuen, zurgin. Han zegoela, Maria Aranzeta iurretarra (Orobiño auzokoa) ezagutu zuen, gero emaztea izango zuena. Gerra garaian ertzain izan zen eta, preso hartu eta gero, besteak beste Alcalá de Henaresen eduki zuten. Heriotzetik salbatu zen arotza zelako. Eskola-pupitreak egiten jardun zuen.

Eraikina erosi eta, segituan, bertan etxebizitza berriak egin zituzten Agapito eta Mariak, eta zenbait legazpiarri saldu. Eurentzat pisu bat hartu zuten. Beste bat, Irazola baserrian jaiotako Anita Zumarragak (senarra Tomas Zubia oñatiarra, Zulatza baserrikoa, zuen); beste bat, Rosario Uranga eta Pilar Alberdi senar-emazte legazpiarrek.

Eta beste pisu batean, errentan, Miguel Angel Azpiroz eta Xixili Salegi bizi izan ziren beren umeekin. Leitzan

[es] boración de cerveza, que debía ser de latón o de cobre, con su correspondiente alambique. Pero al poco de echar a andar el proceso de elaboración alguien robó todo el aparataje.

Al envejecer o morirse aquellos Zabaleta, Agapito Etxeberria (1903-1996) compró la casa entera. Nacido en Makatzagaetxeberri, realizó la compra tras volver de la guerra de 1936, sospechamos que hacia 1940. Era carpintero y antes del 36 trabajó en Euskalduna de Bilbao. En esa época conoció a María Aranzeta (del barrio de Orobiño de Iurreta), con la que luego se casaría. En los años de la guerra se alistó en la Ertzaintza y acabó preso. Se libró de la ejecución gracias a que dominaba el oficio de carpintero, y se dedicó a fabricar pupitres para las escuelas.

Al poco de comprar Bikuñaerrota, Agapito y María construyeron dentro varias viviendas, que vendieron a ciertos legazpiarras. Se quedaron con uno de los pisos, otra vivienda fue adquirida por Anita Zumarraga, de Irazola, casada con el oñatiarra Tomás Zubia, del ca-



Agapito Etxeberria eta emazte Maria Aranzeta (Ibon Etxeberriak emana).



Tomas Zubia eta Anita Zumarraga bi alabekin, Mª Angeles (txikia) eta Mª Jesus.



Bikuñaerrotako bi lagun Cesareo de la Presaren ezkontzan. Goian (esk), Rufino Antonio Etxeberria; behean (esk), Javier Azpiroz. Besteak, Juan Makibar, Juan Luis Aseginolaza, Jose Mª Garmendia eta Javier Alzelai (Ibon Etxeberriak emana).

[eu] jaio eta Atarrabian bizi ziren, gizona Erbiti Aizkorak enpresan egiten baitzuen lan. Baina Xixiliren ahizpa bat hementxe bizi zen, Eusebio Galarzarekin ezkonduta, eta bi familiok elkarrekin bizi izan ziren hasiera batean. Etxenagusia, berriz, Zumarragako Peñagarikanotar bat zen.

Bestalde, Txomin Zubeldiak bebarruko parte handi bat erosi zuen eta hainbat urtetan zehar edari-almazen moduan erabili.

Gerra ostean, Agapitok kirten-tailer batean egin zuen lan, Elbarrenan, Lekuona baserri ondoan. Enpresa, Mantxolatxikiko Ignazio Intxaustik sortu zuen, Joaquin Urteagarekin batera (hau, berriz, Patrizio Etxeberriaren kolaboratzailea).

Agapitok eta Mariak haur bat adoptatu zuten, Bikuña aldeko familia batena. Cirilo Arbuluk (Eginon jaioa) eta

[es] serío Zulatza; otra, por Rosario Uranga y Pilar Alberdi. Y en otra de las viviendas vivieron a renta Miguel Angel Azpiroz y Xixili Salegi, nacidos en Leitza, pero llegados desde Villaba, porque el hombre trabajaba en Hachas Erbiti. Una hermana de Xixili ya vivía aquí de antes, casada con Eusebio Galarza, y unos y otros vivieron en el mismo piso en un comienzo. El propietario de esa vivienda era un Peñagarikano de Zumarraga.

Por otra parte, Txomin Zubeldia adquirió buena parte de la planta baja, que destinó a almacén de bebidas durante bastantes años.

En los años 40, Agapito Etxeberria trabajó en un taller de mangos, en Elbarrena, al lado del caserío Lekuona. Era una empresa creada por Ignazio Intxausti, de Mantxolatxiki, junto con Joaquín Urteaga, que era colaborador de Patricio Etxeberria.



Omenaldia Agapito Etxeberriari (antezko txamarraz), ertzaina izan zelako (Ibon Etxeberriak emana).



Bikuñaerrota, aurrean zuen harrizko zubi ederra eraitsi aurretik, 1998. urtean (Gure Gipuzkoa, GipuzkoaKultura).

[eu] emazte Gertrudis Uriartek (hau ere arabarra) familia ugaria zeukaten, sei seme-alaba, eta 1945ean Antonio izeneko umea jaio zitzaien, handik hilabete gutxira Getrudis hil egin zelarik. Orduan, haurtxoa Agapitok eta Mariak adoptatu zuten.

Antonio Etxeberriak (1945-2022) arrasto sakona utzi zuen Legazpin, enpresa-gizon ekintzailea izan baitzen. Gaztetan, Bikuñaerrota ondoko etxe-orde batean kirten-fabrika jarri zuen. Gero, 1970ean Etxe izeneko kirtendegia fundatu zuen Mantxola aldean, Julian Apaolaza 'Damata'-rekin batera, ondoren Atagoiti baserriko Jesus Zufiria batu zitzaielarik.

Bazkideekin desadostasun batzuk izan eta gero, Antoniok, bere kabuz, beste kirten-fabrika bat abiarazi zuen Oñatin, Olabarrieta auzoan, AIM izenekoa. Eta ondoren, zenbait inprimategitarako aritu zen, ordezkari komertzial gisa.

Lehengo familia haiek denek utzi zuten Bikuñaerrota eta orain beste familia batzuk bizi dira. ❖

[es] Agapito y María adoptaron un niño de una familia de Bikuñanea, la de Cirilo Arbulu (natural de Egino) y su esposa Gertrudis Uriarte, que era también alavesa. Habían tenido antes seis hijos y en 1945 les nació un niño llamado Antonio, y a los pocos meses murió Gertudis. Entonces, Agapito y María adoptaron a la criatura.

Antonio Etxeberria (1945-2022) fue un emprendedor. En su juventud montó una empresa de mangos de herramienta en un pabellón anexo a Bikuñaerrota. Luego, en 1970, fundó Etxe, factoría también de mangos, en la zona de Mantxola, con Julián Apaolaza 'Damata' como socio, y más tarde con un tercero, Jesús Zufiria, del caserío Atagoiti.

Tras unos desencuentros con los socios, Antonio Etxeberria montó otra factoría de mangos, de nombre AIM, en el barrio de Olabarrieta de Oñati. Y más tarde trabajó cono agente comercial de varias imprentas.

Todas esas familias originarias dejaron Bikuñaerrota y ahora otra gente habita en esas viviendas. ❖



01_alegia

BIKUÑA BERRI 7 BIKUÑA BERRI



Bikuñaerrota eta, atzean, Bikuña Berri (Fermin Azpeitiak emana).



Bikuña Berri etxearen aurrean, kalbarioko gurutzea eta Fermin Azpeitia (Fermin Azpeitiak emana).



Francisco Azpeitia eta Hilaria Zabaleta, 1961ean (Fermin Azpeitiak emana).



Francisco Azpeitia eta seme Fermin, etxe atzeko oilategi handiaren ondoan (Fermin Azpeitiak emana).

[eu]

Francisco Azpeitia Alustiza eta Hilaria Zabaleta senar-emazteek 1942an egindako etxea, oso itxura berezia daukana. Orduan, inguru hau urbanizatu gabe zegoen, Bikuñaerrota zen etxe bakarra. Francisco gabiriarra zen; Hilaria, berriz, Zegaman jaioa, baina bost urte zituela Urretxura etorritakoa. Ezkondu eta Olaberrian jarri ziren, Francisco Mari Agirre eta Bernarda Odriaren etxean, eta hantxe jaio zitzaizkien lehenengo hiru umeak: Fermin (1934), Cristina eta Felisa. Behin Bikuña Berrira etorrita beste bi alaba jaio ziren, Clarita eta Mª Jesus.

Etxea Santiago Andueza delineatzaile legazpiarrak diseinatu zuen. Oñatiko arkitekto batek sinatu zuen gero proiektua. Aizturritzaga baserria bota berria zen eta hango harriak aprobetxatu ziren. Harginetako bat Crispin Irizar izan zen, eta gizon honek bere etxe propioa egin zuen 1955ean, Laubidetik gertu. Gure informatzaileak, Ferminek, ez daki lursail hori norena zen, baina bai bakarrik bizi zen Bikuñatxikiko emakume batena zela. Susmoa daukagu ez ote zen Lazkanotegiko Ventura Oriarena izango.

Francisco Azpeitiak jardinero jardun zuen Patrizio Etxeberriarentzat. Gero emazte izango zuena, Hilaria, neskame ari zen Pionean, Luis Etxeberriaren etxean. Jakina, etxe horretako lorategian ere aritzen zen Francisco, eta halaxe bi gazte haiek harremanetan hasi. Patrizioren etxeko arbola handi bat botatzen ari zirela, Franciscok min hartu zuen. Ordurado adinean aurrera zihoan eta ez zuen istripu larria ematen, baina gero zahartzaro tristea eragin zion.

1944an, altolagirretarrak sartu ziren, errentero, etxeko bizitza batean. Francisco eta Hilariaren seme nagusia, Fermin, etxera ezkondu zen 1960an, eta orduan altolagirretarrek alde egin. Gurasoak zahartu zirenean, alaba Clarita bizi izan zen haiekin.

Francisco Azpeitiak oilategi handia ipini zuen Bikuña Berriko atzeko aldean, arrautzak jatetxeetara-eta eramaten zituztelarik. Bolada onenean seiehun oilo edukitzera iritsi ziren. Inkubagailua ere eduki zuten, baina azkenean Errioxatik hasi ziren txitak ekartzen, era horretara bazekitelako goi-mailako oilar baten kume zirela. 1970ean-edo kendu zituzten oiloak. ❖

[es]

Esta casa, de aspecto tan original, la mandaron hacer en 1942 Francisco Azpeitia Alustiza y su esposa Hilaria Zabaleta. Entonces, el entorno estaba despoblado, la única casa era Bikuñaerrota. Francisco había nacido en Gabiria, e Hilaria en Zegama, pero a los cinco años su familia se trasladó a Urretxu. Tras casarse se instalaron en Olaberria, en la casona de Francisco Mari Agirre y Bernarda Odria. Allí les nacieron las tres primeras criaturas: Fermín (1934), Cristina y Felisa. Y una vez viviendo en Bikuña Berri, nacieron Clarita y Mª Jesús.

El edificio fue diseñado por el delineante legazpiarra Santiago Andueza, y el proyecto lo firmó luego un arquitecto oñatiarra. Se emplearon las piedras del recién derribado caserío Aizturritzaga. Uno de los canteros fue Crispín Irizar, que en 1955 se hizo una casa propia cerca de Laubide, con diseño también de Santiago Andueza. Nuestro informante Fermín Azpeitia sabe que el terreno pertenecía a una mujer que vivía sola en Bikuñatxiki, y sospechamos que se trata de Ventura Oria, de la casa Lazkanotegi.

Francisco Azpeitia ejerció de jardinero para Patricio Etxeberria. Hilaria, la que luego sería su esposa, trabajaba como criada en la 'Casa de Pío', la de Luis Etxeberria, y ese jardín también estaba cuidado por Francisco. Así se conocieron y comenzaron su relación. Cuando ya estaba entrado en años, Francisco resultó herido al derribar un árbol del jardín de Patricio. Ese accidente, al comienzo no grave, le acarreó luego una vejez complicada.

En 1944 se instalaron en una de las viviendas los Altolagirre. Vivieron allí a renta hasta 1960, año en que se casó a esta misma casa Fermín Azpeitia. Al envejecer Francisco e Hilaria, vivieron junto a su hija Clarita.


Francisco Azpeitia hizo un gallinero grande en la parte trasera de Bikuña Berri. Surtían de huevos a varios restaurantes. En los mejores años llegaron a tener seiscientas gallinas. Tuvieron incubadora, pero más tarde optaron por traer pollitas desde La Rioja, porque de esta manera sabían que contarían con animales seleccionados, hijas de gallos de primera categoría. Quitaron las gallinas hacia 1970. ❖





02
[Bikuñanea]

1. Lazkanotegi
2. Lazkanotegiberri
3. Bazterrekoa
4. Txipitzalle
5. Illagorrikoa
6. Pedro Zubiaren lehen etxea
7. Bikuñaolea burdinola



LAZKANOTEGI (Hilarionenea, Benturanea) 1 LAZKANOTEGI (Hilarionenea, Benturanea)



Lazkanotegi (ezk), Bazterrekoa (erd) eta Lazkanotegiberri (esk) (F.I.O.).

[eu]

Hemeretzigarren mendean oriatar batzuk bizi izan ziren. 1910eko udal erroldaren arabera, Hilarion Oria Zabaleta, 85 urteko alarguna, zen etxeko buru, eta berarekin bi alaba ezkongabe bizi ziren: Juana Antonia eta Ventura (Buenaventura) Oria Iñurritegi, bata 55 urtekoa, bestea 37koa. Hilarionen emaztea, Manuela Iñurritegi Makibar, 1878an hila zen.

Oriatarrok etxeko jabe ziren. Gero, 1920an, Hilarion hilda zegoelarik, bi alabak bizi ziren bakarrik eraikin honetan. Ez ditugu oriatarrok Apatsokoekin nahastu behar, han ere bazeuden-eta Hilarion eta Ventura Oria batzuk.

Bertako azken oriatarrak, Venturak, Patrizio Etxeberriari saldu zion etxea eta orubea, "huskeria baten truk", jendeak esan ohi zuenez. Eta 1957an, Miguel Ugarte Garmendiak (1930-2020) erosi egin zion orubea Patriziori, eta etxe zaharraren tokian berria egin, goian beste pisu bat altxata. Gero bertan jarri ziren bizitzen ugartetarrok, bai Miguel eta emaztea, bai Miguelen gurasoak.

Udanan jaiotakoa zen Miguel, Diputazioaren kaminero etxean. Aitari (Jose Ugarte Arregi, Oñatiko Arrikrutz baserrikoa) 'Kamiñero Txiki' esan ohi zioten, lanbide hori zeukalako, eta ama, Castora Garmendia, Aztiriko Lizardi baserrikoa zen. Joseren egitekoa, Udana eta Brinkola bitarteko errepide zatia zaintzea eta konpontzea ohi zen. Bizikletan ibiltzen zen eta panazko txaketadun uniformea zeukan. Semea, Miguel, Mutiloako emakume batekin ezkondu zen: Mª Teresa Azurmendi Telleria.

Bai Miguel eta Mª Teresa, bai Miguelen gurasoak bizi izan ziren etxe honetan hogeigarren mende erdialdetik aurrera, eta gero Arantzazu auzora aldatu. Jose Ugartek Udanako baratzeari eutsi zion eta behin, hara bizikletan zihoala, Pastain aldean, auto batek harrapatu eta handik egun gutxi batzuetara hil, istripuaren ondorioz. Erlezale gogorra ere izan zen.

Bebarruan, hainbat urtez, Jose Luis Urkizu 'patateroak' almazena eduki zuen, eta Laskurain taxilariak bertan

[es]

En el siglo XIX vivieron aquí gentes de apellido Oria. Según el censo municipal de 1910, residían Hilarión Oria Zabaleta, de 85 años, junto con dos hijas solteras: Juana Antonia y Ventura Oria Iñurritegi, una de 55 años, la otra de 37. La esposa de Hilarión, Manuela Iñurritegi Makibar, había fallecido en 1878.

Esta familia Oria era propietaria del inmueble. Más tarde, en 1920, y con Hilarión ya fallecido, vivían aquí sus dos hijas, ambas solteras. Existe el riesgo de confundir a estos Oria con los de Apatso, dado que allí también hubo dos personas llamadas Hilarión y Ventura Oria.

La última persona de ese linaje, Ventura Oria, vendió a Patricio Etxeberria tanto la casa como el solar, según se dijo "por una miseria". Y en 1957, Miguel Ugarte Garmendia (1930-2020), compró la finca al empresario y en el lugar del viejo edificio levantó uno nuevo, añadiendo una altura. Allí vivieron tanto Miguel y su esposa como los padres de Miguel.

Miguel Ugarte había nacido en Udana, en la casa de camineros de la Diputación. Al padre (José Ugarte Arregi, del caserío Arrikrutz de Oñati) le decían 'Kamiñero Txiki', porque tenía ese oficio; y la madre, Castora Garmendia, era del caserío Lizardi de Gabiria. El cometido de José era cuidar el tramo de carretera, y sus bordes, comprendido entre Udana y Brinkola. Andaba en bicicleta con su uniforme de chaqueta de pana. El hijo, Miguel, se casó con una mujer de Mutiloa, Mª Teresa Azurmendi Telleria.

Como se ha dicho, a partir de los años 50 en la nueva edificación vivió el matrimonio joven y los padres de Miguel. Luego se trasladaron al barrio Arantzazu. José Ugarte siguió trabajando en la huerta de Udana, y un día que iba allá en su bicicleta, fue atropellado por un coche a la altura de Pastain, y falleció a los pocos días. También fue apicultor, con una gran dedicación.

En la planta baja, el 'patatero' José Luis Urkizu tuvo almacén, y el taxista Laskurain guardaba su coche. Los Ugarte tuvieron a pocos metros una chabola que era em-



Jose Ugarte 'Kamiñero Txiki' (Maite Ugartek emana).



Lazkanotegi etxearen aurreko aldean, ezker-eskuin: Juana Antonia Oria Inurritegi, Hilarión Oria Zabaleta eta Ventura Oria Inurritegi (Enrique Guinea Makibar, Gasteizko Udal Artxiboa, GUI VII-10.7).




Miguel Ugarte, ama Castora Garmendia eta emazte Mª Teresa Azurmendi (Maite Ugartek emana).

[eu] gorde ohi zuen autoa. Etxetik gertu, txabola modukoa izan zuten ugartetarrek, errentan utzia, Luis Ugarte zestoarrak zerabilena garaje moduan. Laskurain Legazpin bizi zen, frontoi zaharraren atzean, baina lan egiteko baimena Zumarragan zeukan.

1980ko hamarkadan, ugartetarrek saldu egin zituzten hemengo bi bizitzak. ❖

[es] pleada por el zestoarra Luis Ugarte como garaje. Laskurain vivía en Legazpi, pero tenía su licencia de taxi en Zumarraga.

En la década de 1980, la familia Ugarte-Azurmendi vendió los dos pisos. ❖



02_bikuñanea

LAZKANOTEGIBERRI (Prakalatzenea) 2 LAZKANOTEGIBERRI (Prakalatzenea)



Bikuñanea gauez. Eskuineko etxea, Lazkanotegiberri (F.I.O.).

[eu] 1850. urtean eraikitako etxea, ama bertakoa zuen Eugenio Elorza Guridik esaten zuenez. Eugenioren ama Isidora Ignacia Guridi Zabaleta zen, 1864. urtean jaioa, eta gerora ezaguna egin zena kalean Isidranea izeneko denda eta burdindegia jarri zuelako. 1863. urtean Isidra izeneko ahizpa hil zitzaion aingerutan, urtebete zuela, eta ia segurua da antzeko izena jarri nahi ziotela berari ere.

Pentsatzen dugu Lazkanotegiberri etxea Isidora Ignaciaren amaren aldeko aiton-amonak (parean zegoen Lazkanotegi etxean bizi zirenak) eraikiko zutela, bere gurasoak, Jose Miguel Guridi Zabaleta eta Maria Josefa Zabaleta Zabaleta 1855. urtean ezkondu zirelako.

Lazkanotegiko aiton-amonak Jose Ignacio Zabaleta Makibar (1798) eta Juana Micaela Ildenfonsa Zabaleta Aztiria (1792) ziren, eta pentsatzen dugu Jose Ignacio "Prakalatz" ezizenez ezagutzen zela, Lazkanotegiberri etxea Prakalatzenea izenez ere ezagutzen zelako, baita Aizaleku aldera dagoen egileor edo borda bat ere.

Etxe honetan beste bi haur ere jaio ziren hemeretzigarren mende erdialdera: Maria Josefa Cipriana Guridi Zabaleta, 1857an; eta Petra Guridi Zabaleta, 1859an.

Isidora Ignacia Guridi Zabaleta Plazaolako Silvestre Elorza Plazaolarekin ezkondu zen 1890. urtean eta XX. mende hasieran kaleko Beatakoa etxean jarri ziren bizitzen.

1894an, adibidez, lagunok bizi ziren etxe honetan: batetik, Silvestre eta Isidra senar-emazteak eta emaztearen ama, Mª Josefa Zabaleta Zabaleta (Jose Miguel Guridiren alarguna); gainera, familiaren lehenbiziko haurra, Isidro Elorza Guridi, gero jesuita izango zena. Ondoren, Silvestre eta Isidrak beste seme-alaba batzuk izan zituzten: Pedro (matarife, harakina eta, geroago, familiaren burdindegiko enplegatua), Crescencia (Kresen) (hainbat urte eman zuena lanean burdindegian), Juan (1901-1938) (gerrakoan gudarien kapitaina, atxilotu zuten, gero askatu presoen truke batean, berriro Errepublikaren armadan jardun eta azkenean Ebroko

[es] Edificio levantado en el año 1850, según decía Eugenio Elorza Guridi, cuya madre era precisamente de esta casa. La madre era Isidora Ignacia Guridi Zabaleta, nacida en 1864 y que luego sería una persona relevante, porque abrió en la calle una tienda-ferretería a la que llamaban Isidranea o Casa Isidra. En 1863 se había muerto una hermana suya, Isidra, con solo meses, y por ello, según parece, fue bautizada con un nombre muy parecido.

Creemos que Lazkanotegiberri fue edificado por los abuelos maternos de Isidora Ignacia, dado que los padres, José Miguel Guridi Zabaleta y María Josefa Zabaleta Zabaleta, se casaron más tarde, en 1855. Esos abuelos residían en una casa, Lazkanotegi, situada a pocos metros.

Los abuelos de Lazkanotegi se llamaban José Ignacio Zabaleta Makibar (1798) y Juana Micaela Ildenfonsa Zabaleta Aztiria (1792), y creemos que a José Ignacio le pusieron el mote de "Prakalatz", hasta el punto de que a la casa Lazkanotegiberri se le conocía también como Prakalatzenea. Una chabola para ovejas de la zona de Aizaleku también era llamada de esa manera.

A mediados del XIX, en esta casa nacieron otras dos hermanas de Isidora Ignacia: María Josefa Cipriana Guridi Zabaleta en 1857 y Petra Guridi Zabaleta en 1859.

Isidora Ignacia Guridi Zabaleta se casó en 1890 con Silvestre Elorza Plazaola, del caserío Plazaola, y tras unos años en Lazkanotegiberri, a comienzos del siglo XX se instalaron en la casa Beatakoa de la Calle Vieja.

En 1894, vivían en este edificio el matrimonio formado por Silvestre e Isidra, acompañados de la madre de ella, Mª Josefa Zabaleta Zabaleta, viuda de José Miguel Guridi. Un año antes había nacido el primer hijo, Isidro Elorza Guridi, que luego se haría jesuita. Los otros hijos de Isidra y Silvestre fueron Pedro (matarife, carnicero y más tarde empleado de la ferretería de la familia), Crescencia (la que más años trabajó en esa ferretería), Juan (1901-1938, capitán de gudaris, hecho





Bikuñaneko zubi ondoan ateratako argazkia. Litekeena da bertan Lazkanotegiberriko bizilagunak egotea, baina soilik pertsona bakarra identifikatu dugu, ezkerretik hasita lehenengoa, Lazkanotegiko Juana Antonia Oria Iñurritegi (Enrique Guinea Makibar, Gasteizko Udal Artxiboa, GUI VII-19.3).

Lazkanotegiberriko Antonio Zumarraga eta Maria Iciar hiru alabekin. Zaharrenaz aurrera, Arantxa, Maribel eta Asun (Maribel Zumarragak emana).

[eu] batailan hila) eta Eugenio (Errepublika garaian Legazpiko Udaleko zinegotzia EAJren aldetik, eta kartzelatik pasa ostean Papelerako bulegoetako goi-arduraduna).

Hemeretzigarren mende bukaera aldera, Elorza-Guridi familia hau zen etxearen jabea. Geroxeago, hogeigarrenaren hasieran, Kale Zaharreko Beataetxera (gero Nikasioren harategia egon zen etxera) bizialdatu ziren, eta Eugenio hortxe jaio. Beste seme batek, Pedrok, hortxe eduki zuen harategia. Aldameneko Araotzeneko denda traspasoan hartu zuten Bilboko jabeek utzi zutenean, eta geroago, 1930. hamarkada hasieran, etxe berria egin zuten herriaren kale berriaren ondoan.

preso, luego canjeado por mandos nacionales y reintegrado en el ejército republicano, para acabar muriendo en el frente del Ebro) y Eugenio (concejal por el PNV en los años de la República, y después de sufrir cárcel uno de los pilares de la Papelera desde su puesto de jefe de la oficina). [es]

A fines del siglo XIX, la casa pertenecía a esta familia Elorza-Guridi. A comienzos del siglo XX, se trasladaron a la casa Beataetxea (la de la carnicería de Nikasio), y allí nació Eugenio. Otro hijo, Pedro, tuvo carnicería en la planta baja. Luego, a comienzos del siglo XX, cogieron en traspaso la tienda de la casa Araotzenea, muy cercana, cuando la dejaron los dueños de Bilbao. Y en

[eu]

Irazolakoak jarri bertan

Lazkanotegiberrira itzulita, 1920ko udal erroldan bizilagunok ageri zaizkigu: Venancio Mujika Berasategi (Donostian jaioa, 34 urtekoa), ogibidez basozaina, eta beronen emazte Mª Luisa Alustiza Mujika (Seguran jaioa, 27 urtekoa) eta beren lau ume, zaharrena sei urtekoa: Susana, Mª Josefa, Cristina eta Benita.

1928. urte aldera, Gabiriko Irazola baserritik jaitsitako familia bat jarri zen etxe honetan. Josefa Makibar alargundu berria zen eta Arraseta alde hartatik bizialdatu zen hona, aldean bost seme-alaba zituela. Gainera, semeetako bat, Antonio (1914-1986), bertan bizi izan zen helduaroan ere, Maria Iciarrekin ezkonduta, hau berriz Oñatiko (Udana aldeko) Andolatza baserrikoa. 1976ra arte bizi izan ziren bertan Antonio eta Maria beren hiru alabekin: Arantxa, Maribel eta Asun. Orduan, Bikuñako futbol-zelai ondoko etxe berri batera joan ziren.

Eraikin honen bebarruan ikuilua zegoen eta oilategia. Behi eta txekorrak ibaiaz beste aldean larratzen ziren, eta hain zuzen ere Guridi-Elorzatarren lursail horretan egin zen gero futbol-zelaia. Inguru horretantxe egiten zuen baratzea Antonio Zumarragak, kamio bazterrean.

Etxea hutsik geratu eta handik urte gutxira, 1970. hamarkada bukaera aldera, Ziper musika-taldeko kideek (artean gaztetxoak) hortxe egin ohi zituzten entseguak. Kideetako bat Iñaki Igon Garitaonaindia 'Gari' baitzen, hain zuzen ere eraikinaren jabe den familiako kidea. Etxea zutik dago, adreiluz itxita ate-leihoak, okupen beldurrez. ❖

[es]

los años 30 levantaron una casa nueva en esa misma zona, que luego se conocería como Isidranea y La casa del Irubide, por el bar de este nombre.


Volviendo a la pequeña casa Lazkanotegiberri, en el padrón de 1920 aparece ocupada por Venancio Mujika Berasategi (nacido en Donostia, de 34 años), de profesión "celador de montes" (guardabosques) y su esposa Mª Luisa Alustiza Mujika (de 27 años, nacida en Segura), con cuatro hijos de entre seis y un año: Susana, Mª Josefa, Cristina y Benita.

Se instala gente de Irazola

Hacia 1928, pasó a ser habitada, a renta, por Josefa Makibar, del caserío Irazola, que había enviudado recientemente. Se trasladó desde ese caserío de la zona de Arraseta con cinco hijos (otros dos hijos habían fallecido). Uno de esos hijos, Antonio (1914-1986) siguió viviendo aquí, casado con María Iciar, del caserío Andolatza de Oñati (situado en la bajada del puerto de Udana). Antonio y su esposa, con sus hijas Arantxa, Maribel y Asun, vivieron en esta casa hasta 1976. Entonces se trasladaron a una casa nueva cercana al campo de fútbol de Bikuña.

En la planta baja de la edificación había cuadra y gallinero. Las vacas y terneros pastaban en un prado al otro lado del río, propiedad de los dueños de Lazkanotegi, y precisamente en ese lugar se haría luego el campo de fútbol. Antonio Zumarraga trabajaba la huerta allí mismo, en una parcela que lindaba con la carretera.

El edificio sigue en pie, pero vacío desde hace bastantes décadas, y con la puerta y ventanas tapiadas, por miedo a los okupas. Hasta fines de la década de 1970 fue el local de ensayo del grupo musical Ziper. Uno de los miembros, Iñaki Igon Garitaonaindia 'Gari', es miembro de la familia que todavía posee el inmueble. ❖



02_bikuñanea

BAZTERRERKOA 3 BAZTERREKOA



Ezker-eskuin, Bazterrekoa (bi eraikin) eta Txipitzalle (Fernando Mz de Albeniz, 1998).



Txipitzalle
Zutik, Pedro Murguzur eta Eugenia Iñurritegi. Behean, Marcelina Makibar eta Mª Ines Murguzur.



Bazterrekoa. Marcelina Makibar Agirre.



Bazterrekoa etxearen aurrean. Ezkerretik eskuinera, Marcelina Makibar Agirre, Eugenia Inurritegi Makibar eta Jose Luis Inurritegi Zabaleta

(Enrique Guinea Makibar, Gasteizko Udal Artxiboa, GUI V-9.11).

[eu]

Etxe hau "Berroetaran" izenez azaltzen da 1832 eta 1843. urteko agirietan. Jose Luis Ugarte ikerlariak ikusi du 1649. urtean ere aitatzen dela Bikuñaneko beste etxe batzuekin batera, era honetara: "Casa de Geronimo de Berroetaran**:** Juan de Goya (Idiazabal), errenteroa". Hortaz, baieztatu daiteke XIX. mendeko etxe-izen hura lehengo jabearen deituratik eratorritakoa zela.

1910ean, Jose Luis Iñurritegi Zabaleta eta emazte Marcelina Makibar Agirre bizi ziren bertan. Etxea eurena zuten. Bederatzi urteko alaba bat zeukaten, Eugenia. Eta beraiekin batera umezurtz bat bizi zen, Sebastiana Galdos Jauregi, 26 urtekoa, seguru asko neskame moduan.

Jose Luis Iñurritegi 1867an jaioa zen, Brinkolazar baserrian. Marcelina Makibar, berriz, Bikuñaaundikoa, eta lau urte gehiagokoa. 1887an dirutza jaso zuen Jose Luisen familiak Kubako osaba indiano batengandik (Olazarren jaiotako Francisco Iñurritegi Zangiturengandik, alegia). Halaxe, Jose Luisek gero etxe hau berritu ahal izan zuen; zehatzago esanda, lehengo etxe zaharrari beste bat, berria, erantsi zion 1887. urte inguruan.

Jose Luis eta Marcelinaren alaba Eugeniak etxe honetan jarraitu zuen. Pedro Murguzur oñatiarrarekin (Olabarrietakoa, Papelerako enplegatua) ezkondu eta alaba bakarra eduki zuten, Mª Ines (1941), orain eliz parrokiatik gertu bizi dena eta 'señorita' esaten ziotena.

Mª Ines kalera joandakoan baserria hutsik geratu zen eta badira hamarkada batzuk bota egin zutela, egoera txarrean zegoelako. ❖

[es]

Esta casa aparece como "Berroetaran" en documentos de 1832 y 1843. El investigador José Luis Ugarte ha comprobado que también se menciona en 1649, junto a otras casas de la zona de Bikuñanea, con la denominación "Casa de Geronimo de Berroetaran**:** Juan de Goya (Idiazabal), inquilino". Por lo tanto, está claro que denominación del XIX surgió del apellido del antiguo propietario.

En 1910, el edificio estaba habitado por José Luis Iñurritegi Zabaleta y su esposa Marcelina Makibar Agirre. Eran propietarios y tenían entonces una hija de nueve años, Eugenia. Junto con ellos vivía una persona huérfana, Sebastiana Galdos Jauregi, de 26 años, pensamos que a modo de criada.

José Luis Iñurritegi era nacido en Brinkolazar en 1867. Marcelina Makibar era natural de Bikuñaaundi y cuatro años mayor. La familia de José Luis recibió en 1887 una gran cantidad de dinero, dado en herencia por un tío de Cuba, Francisco Iñurritegi Zangitu, que era nacido en Olazar. Gracias a esa donación, se pudo reformar la casa Bazterrekoa; para ser más precisos, se le acopló un nuevo edificio en la esquina junto al río, aproximadamente en ese mismo año de 1887.

La hija, Eugenia, siguió viviendo aquí, casada con el oñatiarra de Olabarrieta y empleado de la Papelera Pedro Murguzur, y tuvieron una hija, Mª Inés (1941), que vive cerca de la parroquia y a quien llamaban 'señorita'. Esta mujer abandonó el caserío y ya son varias décadas que se demolió, dado su estado de ruina. ❖



02_bikuñanea

TXIPITZALLE 4 TXIPITZALLE



Txipitzalle etxearen aspaldiko itxura.

[eu]

Eraikin hauxe zen 1832an Udalak eragindako etxe eta baserri zerrenda batean 'Vicuñaecheverri' deiturarekin aipatzen dena. 'Txipitzalle' deiturari dagokionez, Orotariko Euskal Hiztegian ikusi dugunez, antzina, burdinola txikietako ofizialeari edota nagusiari 'txikitzaile' (eta Legazpin 'txipitzalle') esaten zitzaion.

1832an Martin Elortondo delakoa zen bertako nagusi eta bizilaguna. Baina Udalaren zerrenda hartako izenabizenok ez ziren berez horrela; gizonaren benetako deitura Martin Ignacio Zabaleta Elortondo zen, Legazpin jaioa genuen 1804an, aita bertakoa zuelarik, eta ama Bergarakoa.

Oraindik denbora asko ez dela, XX. mende erdi aldera, etxe-nagusia Tomas Telleria zen, Saturnino 'mediku zaharraren' anaia, ogibidez pediatra eta lau senideetan (bi arreba ere baziren) gazteena. Inork ez zuen seme-alabarik izan eta azkenean 'pobreentzat' izan ziren beren ondasunak, eta zehazkiago esanda Matia Fundazioa arduratu zen haiek kudeatzeaz edota saltzeaz. (Ikus 'Mediku zaharraren etxea'-ri buruzko atala).

Telleriatarrok amaren aldetik jaso zuten Txipitzalle eta bi Lakiola (Erdikoa eta Etxeberri), Idefonsa Zabaleta Urmenetaren aldetik edota honen anaia Cayetano Zabaleta Urmenetak emanda herentzian, osaba honek ez baitzuen seme-alabarik izan.

Atzera eginez: Txipitzallen, XIX. mende erdialdera, Martin Ignacio Zabaleta Elortondo bizi zen, 1826az geroztik Maria Luisa Guridi Agirrerekin ezkonduta. Izan zuten Martin Maria izeneko semea, zeina 1847an Josefa Antonia Urmeneta Etxeberria hartu baitzuen emaztetzat. Emakume hau Isidoro handikiaren alaba zen eta handik aurrera ekonomikoki gora egin zuten ondorengoek.

Martin Maria eta Josefa Antoniak zenbait seme-alaba izan zituzten, besteak beste Cayetano eta Ildefonsa, azkeneko hau Saturnino eta Tomas medikuen ama. Baina gurasook ez ziren jadanik Txipitzallen bizi, baizik eta Kale Zaharrean, 'Mediku zaharraren etxea' esan ohi zitzaion eraikinean.

[es]

Esta era la casa que, en la lista de edificios promovida por el Ayuntamiento en 1832, es la denominada 'Vicuñaecheverri', con Martín Elortondo como dueño y habitante. Pero en realidad, esa persona se llamaba Martín Ignacio Zabaleta Elortondo (Legazpi, 1804), hijo de legazpiarra y bergaresa.

En cuanto al significado del nombre de la casa, leemos en el diccionario Orotariko Euskal Hiztegia que, en tiempos pretéritos, al oficial o propietario de una ferrería menor se le decía 'txikitzaile' (y en Legazpi, 'txipitzalle').

Todavía no hace mucho, a mediados del siglo XX, pertenecía a Tomás Telleria, hermano de Saturnino el 'médico viejo'. Tomás era más joven ejercía de pediatra y vivía en Donostia. Falleció en 1974. Eran cuatro hermanos (dos varones y dos mujeres) y dado que ninguno tuvo descendencia sus propiedades pasaron "a los pobres"; concretamente, fue la Fundación Matía la que las gestionó y vendió. (Ver el apartado de la llamada 'casa del médico viejo').


Estos Telleria recibieron Txipitzalle y dos de los caseríos Lakiola (el del Medio y Lakiolaetxeberri) por vía materna, bien de manos de su madre Ildefonsa Zabaleta Urmeneta, bien del tío Cayetano Zabaleta Urmeneta, que no tuvo descendencia.

En Txipitzalle, a mediados del XIX, vivió como se ha dicho Martín Ignacio Zabaleta Elortondo, casado en 1826 con María Luisa Guridi Agirre, padres de un varón llamado Martín María, que en 1847 tomó por esposa a Josefa Antonia Urmeneta Etxeberria, hija del potentado Isidoro Urmeneta. Estos jóvenes tuvieron varios hijos, entre ellos los mencionados Cayetano e Ildefonsa, esta última la madre de los médicos Saturnino y Tomás. Pero esa generación anterior a los médicos ya no vivió en Txipitzalle, sino, como propietaria, además, en la casa de la Calle Vieja que luego se llamaría "la del médico viejo".

Hacia mediados del siglo XX, los Aztiria eran algunos de los inquilinos a renta de Txipitzalle, y precisamente



Sebastian Aztiria (Legazpi 1894) eta Juana Martina Jauregi (Urretxu 1899).



Cirilo Arbulu eta Gertrudis Uriarte seme-alabekin. Aurrean, Felisa, Herminia. Erdian, Mª Dolores, Antonio, Isidro. Atzean, Angel, Narciso (Ibon Etxeberriak emana).

[eu] Hogeigarren mende erdi aldera, Aztiriatarrak ziren Txipitzalleko maizterretako batzuk, eta azkenean, 1991n, Matia Fundazioak familia honixe saldu zion etxe osoa.

1910eko udal erroldak erakusten digunez, orduko etxeko buru Basilio Aztiria Telleria eta emazte Josefa Martina Zabaleta San Esteban de Betoño (Lazkanotegi, 1860). Errentero zeuden etxe honetan. Basilio Urtatzagarakoan jaioa zen, 1864an, aita bertakoa zuelarik, eta ama Muntegikoa. 1887an Lazkanotegiko Martinarekin ezkondu zen, eta Txipitzallen bertan bizitzen jarri, lehenbiziko solairuan. Beheko solairuan ikuilua zegoen. Egun bestela bada ere, 1960ko hamarkadan, oraindik ere, behiak zeuden, gero futbol-zelaia egin zen tokian larratzen zirenak, eta inguru horretan bazituen soroak ere.

Basilio eta Martinak seme-alabok eduki zituzten: Mauricia (1888), Genoveva (1890-1911), Toribia (1892),

[es] la Fundación Matía vendió el edificio entero a esta familia, en 1991.

Retrocedamos un poco nuevamente. El censo municipal de 1910 nos informa que entonces residían aquí Basilio Aztiria Telleria y su esposa Martina Zabaleta Betoño. Eran inquilinos a renta. Basilio había nacido en Urtatzagarakoa, en 1864, de padre de ese mismo caserío y de madre de Muntegi. En 1887 se casó con Josefa Martina Zabaleta San Esteban de Betoño (Lazkanotegi, 1860), y vivieron en la primera planta de Txipitzalle. La planta baja era cuadra. Ahora el aspecto es diferente, pero todavía en la década de 1960 había allí vacas, que pastaban en la pradera en la que luego se hizo el campo de fútbol de Bikuña.

Basilio y Martina tuvieron estos hijos: Mauricia (1888), Genoveva (1890-1911), Toribia (1892), Demetrio (1896-1975), Margarita (quien vivió en Madrid y murió



Antonio Aztiria, emazte Margarita Etxabe eta Rio de Janeirora joandako Narciso Arbulu (Ibon Etxeberriak emana).

[eu] Demetrio (1896-1975), Margarita (Madrilera joan eta 1959an hil zen), Felicia (1901-1931) eta Sebastian (1894). Hain zuzen ere, azken seme honek jarraitu zuen gero etxean. Demetrio, adibidez, Masukariolako Paula Plazaolarekin ezkondu eta Zaldun jarri ziren bizi izaten.

1920ko udal erroldaren arabera, aztiriatarrez gain, Renfeko enplegatu bat bizi zen hemen, Gregorio Gatón Rubio (Palentziakoa, 32 urte), bere emazte Victorina Melendez (Torremolinosekoa, 27 urte) eta Gregorioren ama ere bai, Estanislada.

Urretxuko Larrea baserriko Juana Martina Jauregirekin ezkondu zen Sebastian. Papeleran egin zuen lan, txofer, baina hortik aparte baserriko ganaduari eutsi zion. Lehen esan bezala, larre-toki eta soroak ibaiaz bestaldean zeuden. Geroago, Sebastian bere kabuz ere aritu zen kamioi-gidari, sozio batzuekin batera. Gainera, bi kamioirendako moduko garajea zeukan Bikuñaerrota ondoan, errekaz beste aldean.

Juana Martina eta Sebastianen seme-alabak: Salvador Basilio (1923-1947, soldaduskatik pattal bueltatu eta handik laster hildakoa), Angel (1924-1991, Pilar Carnerorekin ezkondua), Antonio (1926-2011, Altzagako

[es] en 1959), Felicia (1901-1931) y Sebastián (1894). Este último fue quien siguió en la casa. Demetrio, por su parte, tomó por esposa a Paula Plazaola, de Masukariola, y vivieron en Zaldu.

Según el padrón de 1920, además de los Aztiria, vivían Gregorio Gatón Rubio (palentino de 32 años, empleado de Renfe), su esposa Victorina Meléndez (de Torremolinos y de 27 años) y la madre de Gregorio, de nombre Estanislada.

Sebastián Aztiria se casó Juana Martina Jauregi, del caserío Larrea de Urretxu. Trabajó en la Papelera, haciendo de chófer, y además cuidó del caserío y sus ganados. Como se ha dicho, tenía los prados y campos de labranza al otro lado del río. Ya con cierta edad, Sebastián trabajó también como camionero a cuenta propia, con otros socios, y tuvo garaje para dos camiones en una edificación cercana a Bikuñaerrota, al otro lado del río.

Juana Martina y Sebastián tuvieron estos hijos: Salvador Basilio (1923-1947, muerto tras volver muy debilitado del servicio militar), Ángel (1924-1991, casado con Pilar Carnero), Antonio (1926-2011, casado con Margarita Etxabe, de Altzaga) y Rosario (1930-2020,

[eu] Margarita Etxaberekin ezkondua) eta Rosario (1930-2020, Jesus Mujika Ruiz de Eginorekin ezkondua).

Antonio Aztiria Jauregi gelditu zen etxean. Bai bera bai anaia Angel kamioilariak izan ziren, beren kamioi propioarekin jarduten zirenak. Antonio, adibidez, gogor jardun zuen Urtatzako urtegirako materialak garraiatzen. Gero, adinean aurrera zihoala Patrizioren fabrikan hasi zen, palategian. Angel, berriz, Udalak kontratatu zuen zaborren kamioia gidatzeko.

Hogeigarren mende erdi aldera, lehen solairuan Antonio Aztiriaren familia bizi izan zen (bi seme-alaba izan zituzten, Sebastian eta Marian), eta bigarrengoan Rosario Aztiria eta Jesus Mujika seme Agustinekin.

Gainera, bigarren solairuan Cirilo Arbulu (Eginon jaioa) bizi izan zen, Renfeko enplegatua. Gertrudis Uriarte arabarrarekin ezkondu eta familia ugaria eduki zuten, azken haurra, Antonio, Bikuñaerrotako Etxeberria-Aranzeta familiak adoptatu zuelarik. Izan ere, umetxoa jaio eta handik hilabete batzuetara Gertrudis hil egin zen.

Gertrudis eta Cirilok zazpi seme-alaba eduki zituzten. Mª Dolores, Isidro, Herminia eta Felisa Parisen jardun ziren lanean, azkeneko hori bi etxe handitan: prefetarenean eta Philipe Junotenean. Angel garraiolari izan zen, Narciso Brasilen bizi izan zen.

Cirilok, tren-bidaiak libre zituenez, Araba aldetik sarri ekarri ohi zuen patata, gero Legazpin saltzeko.

1951n jaiotako Sebastian Aztiriak baserri-giroa (behiak, soroa-eta) ezagutu zuen etxean. Hau adierazi digu: "Saturnino Telleria eta arrebei, errentaren parte bat, generoarekin ordaintzen genien. Egunero eramaten genien esnea etxeko atarira. Urtean zaku bat arto eman behar izaten genien eta bi gurdikada sits beren baratzerako". ❖

que tuvo por esposo a Jesús Mujika Ruiz de Egino). [es]

Antonio Aztiria Jauregi se quedó a cargo de Txipitzalle. Tanto él como su hermano Ángel fueron camioneros con camión propio. Antonio, por ejemplo, trabajó duro acarreando materiales para la construcción del pantano de Urtatza, y ya con cierta edad pasó a la plantilla de Patricio Etxeberria. Ángel fue luego contratado por el Ayuntamiento para conducir el camión de la basura.

A mediados del siglo XX, en la primera planta vivía la familia de Antonio Aztiria y Juana Martina Jauregi, con sus hijos Sebastián y Marian. En el segundo piso, Rosario Aztiria y Jesús Mujika con el hijo Agustín. Además, en esa planta segunda tenía su vivienda Cirilo Arbulu, natural de Egino y empleado de Renfe, casado con la alavesa Gertrudis Uriarte. Tenían una abundante prole, y el último de los hijos, Antonio, fue adoptado por la familia Etxeberria-Aranzeta, de Bikuñaerrota. Ocurrió que a los pocos meses de nacer Antonio falleció Gertrudis.

Gertrudis y Cirilo tuvieron siete hijos. De ellos, Mª Dolores, Isidro, Herminia y Felisa trabajaron luego en París, esta ultima sirviendo en dos casas importantes, la de un prefecto y la de la familia de Philipe Junot. Ángel fue transportista y Narciso vivió en Brasil.

Cirilo, al tener gratis los desplazamientos en Renfe, aprovechaba para traer patata de Alava, que luego vendía en Legazpi.

Sebastián Aztiria, nacido en 1951, conoció un Txipitzalle que era caserío, con sus vacas y los campos de labranza. Nos comentó: "A Saturnino Telleria y sus hermanas se les pagaba parte de la renta en género. Les llevábamos la leche a diario hasta el portal. Además, se les debía entregar un saco de maíz y dos carros de estiércol para su huerta". ❖



ILLAGORRIKOA (Olaurrekoa, Kopatsunea) 5 ILLAGORRIKOA (Olaurrekoa, Kopatsunea)



Illagorrikoa 80ko hamarkadan (Mari Jose Jimenez de Bikuñak emana).

[eu]

1649. urteko agiri batean era honetara aitatzen da: "Casa frontera de la ferrería de Vicuña: Juan de Ucelay y el mozo (Zumarraga)". Askoz geroago ere, XX. mendean, Eugenio Elorzak erabiltzen zuen "Olaurrekoa" leku-izenaren erdal itzulpena dala ikusi liteke. Izan ere, Bikuñako burdinola parean zegoen etxe hau. Bertakoek 'kopatsu' gaitzizena zeukaten; ez dakigu nondik nora, ezta deitura horren esanahia ere.

1991ko agiri batean (Txipitzalle etxearen salerosketa) 'Illagorrikoa' izenez agertzen da, eta jabearen izena ere aipatzen da: Ramon Lardizabal (Bikuñaaundiko jabeen leinukoa, eta Bikuñaerrotako jabe izandakoa).

Etxe hau Txipitzalleri itsasita dago. Orain hutsik dugu eta nahiko hondatua. Azkeneko bizilagunek (Mercedes Galarza Iñurritegi eta senar Sandalio Jimenez de Bikuña) 1990eko hamarkadan egin zuten alde. Gero izan zen arazorik okupekin. Garai batean Santa Maria kaleko 75a zen.

Hemeretzigarren mende bukaeran galarzatarrak bizi ziren. Francisco Galarza Agirre Josefa Ramona Plazaola Mantxolarekin ezkondu eta seme-alabok izan zituzten: Mª Angela (1871-1876), Martina Maria Cruz (1874-1876), Venancio (1877, Limara joan zen eta han bere emaztea izango zena ezagutu zuen, Elgetan jaiotakoa), Estefania (1879), Martin Ignacio (1881, etxean jarraitu zuena), Cipriana (1883-1900), Geronima (1885, Oñatira ezkondu zen dirudun batekin) eta Antonina (1889)

1908an, Martin Galarza Plazaola (1881) etxera ezkondu zen Juliana Iñurritegi Iturberekin (1884). Etxe ondoko lehorpeari "larrañe" deitzen zioten eta Martin eta Julianaren ezkontza hortxe ospatu zen, traste guztiak kendu eta txukunduta. Ez zuten ezkonbidaiarik egin, baina txekor bat hil eta zortzi egun iraun omen zuen jaiak.

[es]

En 1649, aparece citada como "Casa frontera de la ferrería de Vicuña: Juan de Ucelay y el mozo (Zumarraga)". Se puede ver que es la traducción al castellano de una denominación que llegó hasta el siglo XX y era usada por Eugenio Elorza: "Olaurrekoa". Realmente, este edificio estaba situado enfrente de la ferrería de Bikuña. A sus habitantes, en el siglo XX, se les adjudicó el mote 'kopatsu'; no sabemos ni el porqué ni su significado.

En un documento de 1911, relativo a la compraventa del edificio Txipitzalle, aparece con el nombre de Illagorrikoa y se menciona al propietario, Ramón Lardizabal. Este hombre, del linaje de los dueños de Bikuñaaundi, fue también el dueño del molino Bikuñaerrota.

Illagorrikoa se encuentra adosado a la casa Txipitzalle. Está vacío y muy deteriorado. Los últimos habitantes, Mercedes Galarza y su esposo Sandalio Jiménez de Bikuña, lo abandonaron en la década de 1990. Más tarde hubo problemas con los okupas. En un tiempo fue el número 75 de la calle Santa María.

A fines del siglo XIX vivía la familia Galarza. Francisco Galarza Agirre se casó con Josefa Ramona Plazaola Mantxola y tuvieron esta descendencia: Mª Ángela (1871-1876), Martina María Cruz (1874-1876), Venancio (1877, que marchó a Lima y se casó con una mujer de Elgeta que conoció allí), Estefanía (1879), Martín Ignacio (1881, que siguió en la casa), Cipriana (1883-1900), Gerónima (1885, que se casó a Oñati con un adinerado) y Antonina (1889).

En 1908 Martín Galarza Plazaola (1881) se casó a su casa natal con Juliana Iñurritegi Iturbe (1884). En el espacio de la casa al que llamaban "larrañe" se hizo la celebración de la boda. Para ello hubo que retirar los trastos y adecentar el espacio. No hicieron viaje de novios, pero mataron un ternero y los festejos duraron una semana.



Martin Galarza Plazaola, Juliana Iñurritegi Iturbe eta seme-alabak (Mari Jose Jimenez de Bikuñak emana).



Illagorriko Jacinto Galarza, arreba Mercedesen ezkontzakoan (Mari Jose Jimenez de Bikuñak emana).



Illagorrikoa etxeko larrainean, 1906ko irailaren 8an:

Ezkerretik eskuinera, Geronima Galarza Plazaola (Illagorrikoa 1885), Venancio Galarza Plazaola (Illagorrikoa 1877), Josefa Plazaola Mantxola (Mantxolaaundi 1846) eta Francisco Galarza Agirre (Etxezar 1842) (Enrique Guinea Makibar, Gasteizko Udal Atxiboa, GUI VII-10.2).



Illagorrikoa etxearen aurreko aldean: Martin Galarza Plazaola (Illagorrikoa 1881) (Enrique Guinea Makibar, Gasteizko Udal Artxiboa, GUI IV-19.6).

[eu] "Trukaketa ezkontza" egin zen San Migel Etxeberrikoekin: Martin Galarza Plazaolak hango andrea ekarri zuen (Juliana Inurritegi Iturbe). Eta San Migel Etxeberriko Anbrosio Inurritegi Iturbek, Illagorriko Antonia Galarza Plazaola eraman zuen.

Bost seme eta lau alaba izan zituzten Juliana eta Martinek, eta alaba gazteena, Mercedes, gelditu zen gero etxeko buru. Beraiekin, Mercedesen anaia ezkongabe bat bizi izan zen, Jacinto, ganadua perratzen zuena.

[es] Fue una "boda doble" entre los los de Illagorrikoa y los de San Miguel Etxeberri de Telleriarte. Martín Galarza Plazaola tomó como esposa a una mujer de aquella casa, y Antonia Galarza Plazaola se casó a San Miguel Etxeberri con Ambrosio Iñurritegi.

En 1908, Martín Galarza Plazaola (nacido en 1881) siguió en su casa natal, casado con Juliana Iñurritegi Iturbe (1884). Tuvieron cinco hijos y cuatro hijas, y la menor, Mercedes, fue la que siguió aquí una vez ca-

[eu] Martin eta Julianaren seme zaharrenak, Joaquinek (1908), Peineteria hartu zuen bere gain, tarte ez oso luze batean, 1940ko hamarkada hasieran. Deitura hau hartu zuen enpresak: 'Joaquín Galarza. Fábrica de peines de asta, celuloide y galalith. Materias primas para material de asta y derivados. Abonos orgánicos para la agricultura'. Zera gertatu zen, 1936an, frankistak Legazpi mendean hartutakoan, fabrika hau kendu egin ziotela Ubaldo Segura nagusiari, Errepublika garaian alkate izana baitzen, Euzko Alderdi Jeltzalearen izenean. Ondoren, agintariek enkantera atera zuten Peineteria eta Manuel Sadornil burgostarrari eman zitzaion. Honek utzitakoan, Joaquin Galarzak hartu zuen, baina handik laster Ubaldo Segurak berriro eskuratu ahal izan zuen.

Joaquin Galarza bera ere 1936ko gerrakoan galtzaile gertatutakoa zen; 'Legazpi 1936' liburuaren arabera, lan-batailoietan jardun zen Castellón. Eta Joaquinen beste bi anaia ere ibili ziren lan-batailoietan, Carlos eta Leandro.

Esan bezala, alaba Mercedes gelditu zen etxean. Mercedes Galarza (1924-2012) Arabako Urabain herrian jaiotako Sandalio Jimenez de Bikuña Lopez de Gereñurekin (1926-2015) ezkondu zen. Gizonak, alargundu eta gero, azken urteak Azpeitian eman zituen, alaba Mari Joserekin. Beste seme bat ere izan zuten, Rafael, zeinak Renault auto-markaren kontzesionarioa eduki baitzuen etxe honetatik oso gertu, gero Marbellara bizialdatu zelarik.

Sandaliok, Urabaindik alde egin eta lehenbizi Beasainen egin zuen lan. Gero, Patrizioren fabrikan lanean ari zela, istripu larria izan zuen eta hanka batetik oso herren gelditu. Baina bizimodu guztiz autonomoa izateko gai izan zen.

1950. hamarkadan erosi zieten etxea Segurako lardizabaldarrei. Ordura arte, Santo Tomas egunean Segurara joaten ziren errenta ordaintzera (garia, hegaztiak eta dirua). Egun horretan bakailaoa ematen zien nagusiak opari modura. ❖

[es] sada. También siguió un hermano soltero, Jacinto, que herraba ganado.


Joaquín (1908), el hijo primogénito de Martín y Juliana, se hizo cargo de la Peinetería a comienzos de los años 40. La empresa tuvo esta denominación: 'Joaquín Galarza. Fábrica de peines de asta, celuloide y galalith. Materias primas para material de asta y derivados. Abonos orgánicos para la agricultura'. Ocurrió que en 1936, al tomar Legazpi las tropas franquistas, incautaron esta factoría a su dueño, Ubaldo Segura, quien había sido alcalde en los últimos años de la República, por el PNV. A continuación, las nuevas autoridades sacaron la fábrica a subasta, y se la adjudicó el burgalés Manuel Sadornil, quien poco más tarde decidió abandonar. Entonces se animó a gestionarla Joaquín Galarza, pero no hizo mucho tiempo, dado que Ubaldo Segura pudo recuperar su empresa.

Al igual que Segura, Joaquín Galarza fue del bando republicano en la guerra de 1936. Según el libro 'Legazpi 1936' estuvo en un batallón de trabajadores en Castellón. Otro tanto les ocurrió a dos hermanos, Carlos y Leandro.

Tal como se ha dicho, en Illagorri se quedó Mercedes Galarza (1924-2012), casada con Sandalio Jiménez de Bikuña López de Gereñu (1926-2015), alavés de Urabain, quien tras quedar viudo pasó sus últimos años en Azpeitia, junto a su hija Mari Jose. El otro hijo, Rafael, tuvo un concesionario de automóviles Renault en esta zona de Bikuñanea, y luego marchó a Marbella.

Sandalio, tras dejar la casa natal de Urabain, primero trabajó en Beasain. Más tarde, ya en la fábrica de Patricio Etxeberria, tuvo un accidente grave y quedó muy cojo de una pierna. Aún así fue capaz de llevar una vida siempre autónoma.

Los inquilinos compraron la casa a los Lardizabal de Segura en los años 50. Hasta entonces los Galarza acudían a Segura a pagar la renta el día de Santo Tomás, pagando a base de trigo, aves y dinero, y recibían como regalo algo de bacalao. ❖



02_bikuñanea

PEDRO ZUBIAREN lehen etxea 6 Primera casa de PEDRO ZUBIA



Segurajauregitarrak, Ripatarrak-eta bizi izandako etxea (F.I.O.).

[eu]

Hauxe omen da Pedro Zubia araoztarrak Legazpin egin zuen lehenbiziko etxea. 1952an eraiki zuen. Bost bizitza zituen eta lehenbiziko solairuko pisu batean, 1953an, Teodoro Segurajauregi eta Martina Arana jarri ziren, beren bost seme-alabekin. Biak ala biak araoztarrak ziren, gizona Madina ('Maña') baserrikoa zen, hango seme nagusia, eta Patrizioren fabrikan hasi zen lanean. Haren hiru anaia ere azaldu ziren Legazpira lanera: Bernardo (Brinkolan bizi izan zen), Rafael (San Ignazio auzoan) eta Eustasio (Urtatzolaerrotan). Beste etxeetan, Etxabetarrak (Eulatetik etorriak), Ripatarrak (gizona Arbeizakoa, emaztea Maeztukoa), eta Murgialdaitarrak (Kontrastakoak).

Orain ere bertan bizi da Teodoro Segurajauregiren seme Hipolito. Lehengo familia haiek denek alde egin zuten.

Pedro Zubia, etxegile araoztar legazpiartua

Pedro Zubia Zubiak arrasto sakona utzi zuen Legazpin, hainbat etxe eraiki baitzuen. 1920an jaioa Araozko Erramunenean, soldaduska luzea egin behar izan zuen Ceutan, Francok zalantzak baitzituen Bigarren Mundu Gerran sartu ez sartu. Etxeratutakoan igeltsero hasi zen Oñatin, aurrena peoi moduan. 1948an ezkondu eta Legazpira azaldu zen, Zumarragako Orbegozo enpresan igeltsero jardun zelarik, kontrata baten bidez. Baina handik gutxira bere kabuz hasi zen eta bi eratako zereginetan: batetik, igeltserotza, bestetik eraikitzaile-lana. Construcciones Zubia fundatu zuen eta anaia Eulogio izan zuen gertuko laguntzaileetako bat; hau, berriz, bost urte gazteagoa zen.

Pedroren familia Kale Nagusian bizi izan zen 1950 eta 1960ko hamarkadetan, lehenbizi Kalotx taberna zegoen etxean, gero Gurrutxaga taberna gainean. Enpresaren bulegoa Kale Zaharrean zegoen, Andres-Enea taberna gainean.

Legazpin lehenbiziko etxea Bikuñanean altxa zuen. Geroago, Patrizio Etxeberria kaleko etxe-ilada egin zuen,

[es]

Según parece este es el primer edificio que levantó en Legazpi el promotor araoztarra Pedro Zubia. Lo hizo en 1952. Tenía cinco viviendas, y en una de ellas, en 1953, entró la familia de Teodoro Segurajauregi y Martina Arana, ambos araoztarras, el hombre hijo primogénito del caserío Madina ('Maña'). Vino y comenzó a trabajar en la fábrica de Patricio. También llegaron a Legazpi otros tres hermanos: Bernardo (que vivió en Brinkola), Rafael (en el barrio San Ignacio) y Eustasio (en Urtatzolaerrota). En las otras viviendas vivieron en un principio los Etxabe (llegados de Eulate), los Ripa (el hombre de Arbeiza, la esposa de Maeztu) y los Murgialdai (procedentes de Kontrasta).

Uno de los hijos de Teodoro, Hipólito Segurajauregi, sigue viviendo en la casa. Las otras familias se mudaron a otros pisos.

Pedro Zubia, un constructor muy presente en Legazpi

Pedro Zubia Zubia fue un constructor que dejó huella profunda en Legazpi, dado que construyó numerosos edificios de viviendas. Nacido en 1920 en el caserío Erramunenea de Araotz, tras un largo servicio militar en Ceuta porque había dudas de si Franco entraba en la Segunda Guerra Mundial, comenzó a trabajar como albañil en Oñati, primero como peón. Al casarse en 1948 se trasladó a Legazpi. Ejerció de albañil en una contrata en la Empresa Orbegozo de Zumarraga. Al poco tiempo, se independizo y empezó ya a construir, compatibilizando su trabajo de albañil con el de constructor. Fundó la empresa Construcciones Pedro Zubia y uno de sus principales ayudantes fue su hermano Eulogio, que era cinco años más joven.

En Legazpi, la familia de Pedro residió primeramente encima del Bar Kalotx, luego en Kale Nagusia 8, encima del Bar Gurrutxaga. Las oficinas estaban en el edificio del Andres-Enea.



Ezker-eskuin, Pedro Zubia, Antonio Urrestarazu gerentea eta Eulogio Zubia (Pedro Mari Zubiak emana).



Teodoro Segurajauregi eta Martina Arana (Hipolito Segurajauregik emana).

[eu] eta "loteriaren etxea" parrokia ondokoa. Urretxu, Arrasate eta Oñatin ere jardun zuen. Gipuzkoa eta Bizkaian ume txikientzako ikastetxeak ere altxa zituen, 50en bat, Murias enpresarekin batera. Eta baita ere Ipuruako kiroldegia, Eibarren.

Hiru fabrikarekin hitzarmena zeukan, haien mantentzalanetararako eta eraikin berriak altxatzeko: Fundiciones José María Aristrain (Olaberria), CAF (Beasain) eta Laminaciones de Lesaca (Bera de Bidasoa eta Lesaka).

Motxorron tailerrak zeuzkan non lan oso desberdinak egiten baitziren: burdin-lanak (ferralla), arotz-lanak eta ibilgailuen mantentze-lanak.

1967an, Pedroren familia Donostiara bizialdatu zen, semealaben ikasketak errazteko. Bost neska-mutiko ziren, 1950 eta 1958 bitartean jaioak. Handik aurrera, enpresaren bulegoa Amarako Balezaleak kalean egon zen. 1960ko hamarkada bukaeran Aiegiko txaletak eraikitzeari ekin zion, batzuk bizitza bakarrekoak, besteak bikoak. Iratxeko monasterio ondoan zeuden eta daude. Eta handik gertu, Hotel Irache altxa zuen, aldameneko kirol-instalazio galantekin.

1970eko hamarkada bukaeran petrolioaren krisia piztu zen, eta harekin batera etxegintzaren gainbehera. Pedro Zubia, S.A. enpresak porrot egin zuen (orduko hizkera erabilita, "suspensión de pagos"). Anaiak, Eulogio Zubiak, lehengo enkargatu batzuekin batera, beste enpresa bat sortu zuen eta aipatutako hiru fabrika haietan zenbait lan egin 1980ko hamarkadan zehar. ❖


[es] Edificó primeramente una casa en la zona de Bikuñanea. Más tarde levantó las casas de la calle Patrizio Etxeberria y la casa "de la lotería", junto a la iglesia parroquial. También edificó en Urretxu, Arrasate y Oñati. Otra de sus tareas fue la construcción de medio centenar de escuelas para niños pequeños, junto con Construcciones Murias, y el polideportivo de Ipurua en Eibar.

Tenía los contratos de mantenimiento, reparaciones y nuevos edificios de tres fábricas: Fundiciones José María Aristrain (Olaberria), CAF (Beasain) y Laminaciones de Lesaca (Bera de Bidasoa y Lesaka).

En Motxorro poseía unos talleres para elaborar ferralla, carpintería de madera y taller para los vehículos de la empresa.

En 1967 Pedro se trasladó a Donostia para facilitar los estudios de los hijos; eran cinco, nacidos entre los años 1950 y 1958. Las oficinas de la empresa pasaron a estar en la calle Balleneros del barrio de Amara. A fines de los años 60 edificó los chalés unifamiliares y bifamiliares de Ayegui, junto al monasterio de Iratxe. Y allí cerca, el Hotel Irache, con una amplia zona deportiva.

Tras la crisis de la vivienda, motivada por la crisis del petróleo de finales de años 70, la empresa Pedro Zubia, S.A. hizo un Ere (entonces se llamaba suspensión de pagos), y poco más tarde dejó de tener actividad. El hermano, Eulogio Zubia, junto con otros antiguos encargados de la empresa, creó otra empresa que, en los 80, siguió haciendo obras en las tres empresas mencionadas. ❖




BIKUÑAOLEA BURDINOLA eta BIKUÑAERROTA ZAHARRA

7

La FERRERIA BIKUÑAOLEA y el antiguo molino BIKUÑAERROTA

Jose Luis Ugarte



Bikuñaolea burdinolaren planoa trenbidea egin baino lehen.

[eu]

Bikuñaolea burdinola eta Bikuñako errota zaharra Bikuñanea auzoan zeuden, gaur egun zutik dauden Txipitzalle eta Illagorrikoa etxeen parean.

Ez dakigu noiz eraiki ziren, baina pentsa liteke 1340. urtean jadanik burdinola bazela, urte horretan bikuñatar bat azaltzen baitzen Legazpin olagizon: "Martín d'Oria e Johan Pérez de Çornoça e Miguel Yvánez de Muguertegui e Lope Martínez de Gorrichategui e Johan Martínez de Bicunna e Sancho López de Mendiçaval ferreros de las ferrerías de Legazpi" (Fuentes Documentales Medievales del País Vasco, 6. alea, 32. or.).

1426. urtean, berriz, espreski aipatzen da burdinolaren izena: "Ferreria llamada Vicunnaolea, que dis que es de Pero Yvanes de Arostegui, vesino de Vergara" (Fuentes Documentales Medievales del País Vasco, 47. alea, 158.or.).

1485. urteko agiri batean, lehen aldiz, errotaren aipamena irakur dezakegu: "ferrería de Vicuña e casas e molino della" (Juan Mz. de Araiztegui eta Ochanda de Elorzaren testamentua, Oñatiko Protokolo Artxiboa). Badakigu burdinolaren aldamenean zegoela.

Beatriz Herreras arkeologoak idatzita utzi zuenez "burdinola honek XVI. mendeko krisialdian bizirik irautea lortu zuen eta, gehiago edo gutxiago, XIX. mendea arte jardunean egon zen. XVIII. mendean goitik behera berritu zuten, eta hori erraz nabari da gaur egun arku-aldaparoan [dagoeneko desagertua] eta antepararen eraikuntza sendoan" (Arkeoikuska 2000: 423). Ez zen, hala ere, berandura arte eutsi zion Legazpiko burdinola bakarra: Bengoleak, Olaberrik, Mirandaolak eta Olazarrek ere beren produkzioari XIX. mendera arte eutsi zioten.

Azken aldera altzairua egiten zen, 1820. urteko pasarte honek garbi erakusten duenez: "En la Villa de Segura, a veinte de marzo de mil ochocientos y veinte ante mi el Essno. y tgos. infrascritos Dn. Juan Antonio de Lar-

[es]

La ferrería Bikuñolea y el antiguo molino de Bikuña se encontraban en el barrio de Bikuñanea, en frente de las actuales casas Txipitzalle e Illagorrikoa.

Desconocemos la fecha de construcción de ambas, pero pensamos que para el año 1340 ya debía existir la ferrería, dado que en dicho año se menciona, en la documentación histórica consultada, a un Bikuña como ferrón en Legazpi: "Martín d'Oria e Johan Pérez de Çornoça e Miguel Yvánez de Muguertegui e Lope Martínez de Gorrichategui e Johan Martínez de Bicunna e Sancho López de Mendiçaval ferreros de las ferrerías de Legazpi" (Fuentes Documentales Medievales del País Vasco, vol. 6, p. 32.).

En un documento de 1426 se menciona expresamente el nombre de la ferrería: "Ferreria llamada Vicunnaolea, que dis que es de Pero Yvanes de Arostegui, vesino de Vergara" (Fuentes Documentales Medievales del País Vasco, vol. 47, p. 158).

En otro documento de 1485, se cita ya el molino: "ferrería de Vicuña e casas e molino della" (testamento de Juan Mz. de Araiztegui y Ochanda de Elorza, Archivo de Protocolos de Oñati). Sabemos que el molino estaba al lado de la ferrería.

Según la arqueóloga Beatriz Herreras "esta ferrería consiguió sobrevivir a la crisis del siglo XVI y perduró con mayor o menor intensidad hasta el siglo XIX. En el siglo XVIII sufrió una profunda renovación, hoy fácilmente identificable en la presa de arco [desaparecida] y en la sólida construcción de la antepara" (Arkeoikuska 2000: 423). No fue, sin embargo, la única ferrería legazpiarra que aguantó hasta el siglo XIX. También lo hicieron las ferrerías de Bengolea, Olaberri, Mirandaola y Olazar.

Sabemos que en sus últimos años se labraba acero, tal como se muestra en esta transcripción de 1820: "En la Villa de Segura, a veinte de marzo de mil ochocientos y veinte ante mi el Essno. y tgos. infrascritos Dn. Juan



Bikuñaolearen aurriak Bikuñanea auzoan (J.L.U., 2020).



Bikuñaolearen aldaparoko kontrafuerteak (J.L.U., 2020).

[eu] dizabal Altuna y Amezqueta, Dn. Domingo de Zumalacarregui vecinos de esta Villa, y Antonio de Zabaleta vecino de la Villa de Legazpia dijeron que el citado Dn. Juan Antonio tiene y goza en la Villa de Legazpia la Ferrería y Molino de Vicuña con sus pertenecidos, la que al presente trabaja azero de fundición y la han tenido en arriendo Dn. Miguel Antonio de Guridi Zaldua, ya difunto, y su hijo Dn. José Juaquín Fco. vecino en aquella Villa y hallándose ya a disposición libre de él han combenido en arrendar entre los tres, formalizando al mismo tiempo una sociedad y Compañía para la labranza del azero...” (Oñatiko Protokolo Artxibo Historikoa, 1/2328).

Alabaina, 1860. hamarkadaren hasieran burdinolaren zati bat eraitsi egin behar izan zuten Norteko trenbidea egin ahal izateko eta, horren ondoren, erabat desagertu zen. Esan beharra dago, dena den, 2000. urtean egin zen indusketa batean aldaparoa eta ikaztegiaren oinarriak bistaratu zirela.

Errota berria Alegia izeneko parajean berreraiki zuten eta, horregatik, gaur egun Bikuñaerrota izenez ezagutzen dugun eraikina hasiera batean “molino de Alegría” izenez azaltzen da paperetan. ❖

[es] Antonio de Lardizabal Altuna y Amezqueta, Dn. Domingo de Zumalacarregui vecinos de esta Villa, y Antonio de Zabaleta vecino de la Villa de Legazpia dijeron que el citado Dn. Juan Antonio tiene y goza en la Villa de Legazpia la Ferrería y Molino de Vicuña con sus pertenecidos, la que al presente trabaja azero de fundición y la han tenido en arriendo Dn. Miguel Antonio de Guridi Zaldua, ya difunto, y su hijo Dn. José Juaquín Fco. vecino en aquella Villa y hallándose ya a disposición libre de él han combenido en arrendar entre los tres, formalizando al mismo tiempo una sociedad y Compañía para la labranza del azero...” (Archivo de Protocolos de Oñati, 1/2328).

Después de una larga vida, parte de la ferrería se derribó a comienzos de la década de 1860 con motivo de la construcción del ferrocarril del Norte y, posteriormente, desapareció del paisaje legazpiarra. En una excavación arqueológica que se realizó en el año 2000 se descubrieron los cimientos de la parte final de la antepara y de la carbonería.

El molino se reconstruyó en el paraje denominado Alegia, cerca del calvario de Legazpi, y por dicha razón la construcción que se conoce actualmente como Bikuñaerrota se conoció también en la documentación oficial como “molino de Alegría”. ❖





03
[aiztonaga]

1. Bikuñaaundi
2. Etxezarra
3. Txorronea
4. Aiztonagabekoa eta Arrazolanea
5. Aiztonagagarakoa
6. Aiztonagaberri
7. Frontoi atzeko etxeak



03 _ aiztonaga

BIKUÑAAUNDI 1 BIKUÑAAUNDI



Bikuñaaundi (Indalecio Ojanguren, Gure Gipuzkoa bilduma).

[eu]

Hamazazpigarren mendean, bigarren erdialdean, eraikitako jauregia, bikuñatarren leinuari lotua, zeinaren ezkutua fatxadan ikus daitekeen. Saturnino Telleriak bere 'Historia de Legazpia'-n dio bikuñatar batzuk 1212ko Navas de Tolosako batailan jardun zirela. Kontua da leinu hau oso-oso garrantzitsua izan zela gero herriko bilakaeran, burdinolen eta basoen jabe izan baitzen, hainbat kidek goi-mailako postua izan zutelarik administrazio zibilean nahiz parrokian.

Ezkontzen bidez, jauregiaren jabetza Lardizabaldarrengana, Seguran jauregi printzipala zeukaten jauntxo haiengana, pasatu zen gero. Adibidez, 1832an, Bikuñako jauregia eta izen bereko burdinola Juan Antonio Lardizabalena zen, zeina hemeretzigarren mende hasiera aldera Gipuzkoako diputatu nagusi izan baitzen.

Gero seme Ramon Lardizabal Otazuk (1811-1880) heredatu zituen ondasunok, eta geroago honen seme Ignacio Lardizabal Altunak (1844-1926), politikari entzutetsua, karlismo eta integrismotik euskal nazionalismora pasatu zena, eta 1908an EAJren lehenengo Gipuzko Buru Batzarreko lehendakari izan zena.

Gerrakoan lardizabaldarrei kendu

1936an, jauregi honetako nagusia Jose Maria Lardizabal Valenzuela genuen (Irun, 1872). Frankistek konfiskatu egin zioten eraikina, 28.920,40 pezetako balioa ipini zitzaiolarik. Maizterrak (Manuel Gabiriak) ordaintzen zion errenta-dirua ere kendu zioten (urtean 525 pezeta). Lardizabaldar hau Madrilen bizi izan zen gehienbat, eta 1918ko hauteskundeetan saiatu zen EAJren izenean Gipuzkoari zegokion Kongresuko aulkietako bat lortzen, baina pott egin zuen. 1936ko gerra ostean Ziburun bizi izan zen eta hantxe hil 1944an.

Jose Mª Lardizabal Valenzuela Mª Josefa de Silva y Fernandez de Henestrosarekin ezkondu zen. Hona seme-alabak: Mª Luisa, Ramon eta Mª Josefa. Ramon

[es]

Palacio construido en la segunda mitad del siglo XVII, vinculado al linaje de los Vicuña, cuyo escudo se puede ver en la fachada. Saturnino Telleria, en su ´Historia de Legazpia', dice que unos Vicuña intervinieron en la batalla de las Navas de Tolosa de 1212. El linaje fue luego realmente trascendente en el devenir del pueblo, dado que fueron dueños de ferrerías y de bosques, y además muchos de sus miembros ocuparon puestos importantes en la administración civil y eclesiástica.

Mediante enlaces matrimoniales, la propiedad del palacio pasó luego a manos de los Lardizabal, que tenían su residencia principal en Segura. Por ejemplo, en 1832, tanto el palacio de Vicuña como la ferrería de igual nombre pertenecían a Juan Antonio Lardizabal, quien a comienzos del XIX fue diputado general de Gipuzkoa.

Luego estas propiedades pasaron a manos del hijo Ramón Lardizabal Otazu (1811-1880), y más tarde el propietario fue el nieto Ignacio Lardizabal Altuna (1844-1926), político renombrado, que desde el carlismo y el integrismo dio el salto al nacionalismo vasco, y en 1908 se convirtió en el presidente del primer Gipuzko Buru Batzar del PNV.

Confiscan el palacio a los Lardizabal

En 1936, el dueño de Bikuñaaundi era José María Lardizabal Valenzuela (Irun, 1872). Los franquistas se lo confiscaron y fue valorado en 28.920,40 pesetas. A Lardizabal se le privó también de la renta (525 pesetas al año) que pagaba el inquilino, Manuel Gabiria.

Este Lardizabal residió mayormente en Madrid, y en las elecciones de 1918 intentó hacerse con uno de los sillones al Congreso que correspondían al territorio guipuzcoano. Pugnó bajo las siglas del PNV, pero fracasó. Tras la guerra del 36 vivió en Ziburu y murió allí mismo en 1944.



Bikuñaaundi etxearen aurrean. Ezker-eskuin, zutik, Altagracia Gabiria Makibar (Bikuñaaundi 1896), Jose Mari Gabiria Makibar (Bikuñaaundi 1900), Justa Gabiria Makibar (1899) eta Saturnino Gabiria Makibar (Bikuñaaundi 1904). Eserita, Mª Luisa Gabiria Makibar (Bikuñaaundi 1902), Manuel Gabiria Legazpia (Makatzaga 1863) eta Ramona Makibar Agirre (Bikuñaaundi 1862)

(Enrique Guinea Makibar, Gasteizko Udal Artxiboa, GUI V-9.13)



Bikuñaaundiko galerian. Ezker-eskuin, zutik, Justa Gabiria Makibar (Bikuñaaundi 1899), Lorenzo Makibar Agirre (Bikuñaaundi 1866), Mª Luisa Gabiria Makibar (Bikuñaaundi 1902), Altagracia Gabiria Makibar (Bikuñaaundi 1896), Victoriana Gabiria Makibar (Bikuñaaundi 1871) eta Juan Ginea Makibar (Bikuñaaundi 1865). Eserita, Sinforosa González de Peñalba, ezezaguna eta Amalia (Lorenzoren andrea, Pachuca)

(Enrique Guinea Makibar, Gasteizko Udal Artxiboa, GUI V-21.5).

[eu] izan zen Bikuñaaundiko jauregia heredatu zuena. Eta hura hildakoan, alarguna, 1906an jaiotako Maria (de la Concepcion) Barcaiztegui y Uhagon (Tabalosos-eko markesa) bihurtu zen jabe bakar. Hain zuzen, emakume honek eman zion jauregia, dohaintzan, Legazpiko Udalari. 1977an izan zen. Eta 1990ean zaharberritu egin zen eraikina, orduan Burdinolaren egoitza bihurtu, eta geroago Lenbur erakundearena.

Azken makibartarrak

Etxe honen argazki asko daude, Enrique Guinea Makibarrek (1874-1944) eginak. Gizon hau Gasteizen jaio eta bizi izan zen, eta burdindegi bat gobernatzen zuen anaiarekin batera, baina ordu asko ematen zion argaz-

[es] José Mª Lardizabal Valenzuela se casó con Mª Josefa de Silva y Fernández de Henestrosa. Tuvieron estos hijos: Mª Luisa, Ramón y Mª Josefa. Y fue Ramón quien heredó Bikuñaaundi, y al fallecer éste, su viuda, María (de la Concepcion) Barcaiztegui y Uhagon (marquesa de Tabalosos), que era nacida en 1906. Precisamente fue esta mujer quien donó el palacio al Ayuntamiento en 1977. En 1990 se restauró, primeramente fue sede de la asociación Burdinola, y luego del organismo Lenbur.

Los últimos Makibar

Existen varias fotografías de esta casona, realizadas por Enrique Guinea Makibar (1874-1944), que nació y vivió en Vitoria-Gasteiz, ciudad en la que regentaba una



Bikuñaaundiko enparantzan, ezker-eskuin: Francisco Galarza Agirre (Etxezar 1842), Martin Galarza Plazaola (Illagorrikoa 1882), Manuel Ignacio Makibar Zabaleta (Bikuñaaundi 1831-1911) eta Manuel Gabiria Legazpia (Makatzaga 1863)

(Enrique Guinea Makibar, Gasteizko Udal Artxiboa, GUI VII-6.7).



Ezkerretik eskuinera, Ramona Makibar Agirre, Angela Makibar Gordillo (Mexikotik aberastuta etorri eta Pedro Regalado Segurarekin ezkondua), Ventura Oria (Bikuñaneko Lazkanotegi etxean bizi zena eta beste emakumeen tartekoa) eta Bittori Makibar Agirre

(Ignacio Agirre, Burdinola Elkartea, 9x12.58).

[eu] kigintzari ere. Ama, Manuela Ignacia Makibar Zabaleta, Bikuñaaundin jaioa zen eta Enrique sarri etorri ohi zen Legazpira, azkenean hainbat toki eta familia erretratatu zituelarik.

Baserriko azken bizilagunak Gabiria-Makibartarrak izan ziren. 1895ean, Makatzako Manuel Gabiria Legazpia etxe honetara ezkondu zen bertako Ramona Makibar Agirrerekin, azken hau 1861ean jaioa eta senideetan zaharrena. Bost seme-alaba izan zituzten: 1896an lehenbiziko haurra jaio zen, Altagracia izeneko neska; eta gero Justa (1899), Jose Mari (1900), Maria Luisa eta Saturnino munduratu ziren. Eta hauek baino lehenago, Ramona Makibarren gurasoak bizitu ziren (Manuel Makibar Zabaleta eta Mª Josefa Agirre Mantxola) eta Ramonaren anai-arrebak (Marcelina, Lorenzo, Victoriana eta Mª Agueda).

[es] ferretería junto con su hermano. Pero también dedicaba muchas horas a la fotografía. La madre, Manuela Ignacia Makibar Zabaleta, había nacido en Bikuñaaundi. Enrique venía a Legazpi con frecuencia y acabó retratando muchos tipos y paisajes de este pueblo.

Los últimos habitantes del palacio, ya convertido en caserío, fueron los Gabiria-Makibar. En 1895, Manuel Gabiria Legazpia, del caserío Makatza, se casó a Bikuñaaundi con una hija de la casa, Ramona Makibar Agirre, que, nacida en 1861, era la primogénita. En 1896 les nació la primera criatura, una niña llamada Altagracia. Luego vinieron al mundo Justa (1899), José Mari (1900), María Luisa y Saturnino.

La anterior generación residente en la casona fue la de los padres de Ramona Makibar, Manuel Makibar Zabaleta y Mª Josefa Agirre Mantxola. Ramona tuvo como



Saturnino Gabiria, Bikuñaaundiko toreroa.



Rufino Garitano, Mari Paz Galparsoro, Pepita Izagirre eta María (de la Concepción) Barcaiztegui Uhagon, Ramon Lardizabalekin ezkondutakoa (Jose Javier Garitanok emana).



Bikuñaaundiko txanpinoi haztegia. Rufino Garitano, seme Jose Javier eta laguntzaile bat, 1965ean (Jose Javier Garitanok emana).

[eu] Ramonaren ondorengana bueltatuz, Justa Gabiria Bengolea baserrira ezkondu zen, hango seme nagusiarekin, Jose Antonio Aztiria (1898) errotariarekin. Ez zuten familiarik izan. Saturnino, berriz, Mexikora joan zen eta, itzultzeko dirurik ez zeukanez, futbolari eta torero moduan egin zuen lan, besteak beste, bertan ezkondu zelarik Valladolideko Villalón de Camposen jaiotako emakume batekin.

hermanos a Marcelina, Lorenzo, Victoriana y Mª Águeda. [es]

Y en cuanto a los descendientes de Ramona, Justa Gabiria se casó al molino de Bengolea con el hijo mayor de la casa, José Antonio (1898). No tuvieron hijos. Saturnino marchó a México, no tenía dinero para volver y trabajó entre otras cosas como torero y futbolista, y se casó con una mujer de Villalón de Campos (Valladolid).

[eu] Altagracia zoritxarrekoa izan zen. Ezkontzekotan zela, senargaia hil egin zitzaion lan-istripuz, eta handik aurrera beti beltzez jantzita bizi izan zen.

1936ko gerra ostean hiru anai-arreba ezkongabe bizi ziren Bikuñaaundin: Altagracia, Maria Luisa eta Jose Mari, azkeneko hau Patrizioren fabrikan jarduten zelarik. Soroak goldatzera, Makatzako lehengusu batzuk etortzen ziren. Jose Mari nahiko gazterik hil zen eta 1964-65ean Altagracia eta Maria Luisa Urretxura bizialdatu ziren, ahizpa Justaren ondora; Bengoleakoek herri horretan martxan jarritako zerrategiko etxera, alegia.

Bikuñaaundi hutsik geratu zen. Handik aurrera, 1965-75 epean, Rufino Garitanok txanpinoi haztegia eduki zuen bebarruan, horretarako zaldi-simaur pilak ekartzen zituelarik Iruñe ondotik, Campanas izeneko herrixka batetik. Izan ere, Rufinoren emazteak, Mari Paz Galparsorok, hartu-emana eduki zuen Bikuñaaundiko jauregiko jabearekin; Seguran jaioa zen, eta gaxtetan Lardizabaldarren jauregian jardundakoa zen neskame.

Halaxe, Rufinok Ramon Lardizabal ezagutu zuen, Bikuñaaundiko jauregiaren jabea, eta haren emazte Maria (Concepcion) Barkaiztegi Uhagon. Mari Paz Galparsorok egonaldiak egiten zituen Lardizabaldarren beste etxeetan, adibidez Toledo eta Hondarribikoan. Eta Bikuñaaundi hutsik geratutakoan, Maria Barkaiztegik (ordurako alargunduta) Mari Paz eta Rufinoren esku utzi zuten etxetzar horren zainketa.

Txanpinoi haiek etxez etxe banatzen, Rufino eta Mari Pazen seme Jose Javier (1960) ibiltzen zen. Berau arduratzen zen enkarguak jasotzeaz ere. Baina aldameneko Itxaropen auzoan bizi zen jendea kexuka hasi zen simaurraren usaina zela-eta. Orduan, Rufinok erabaki zuen oilasko eta oilandak haztea Bikuñaaundiko bebarruan.

Etxean altzari asko zeuden, batzuk eder askoak, eta hango gehienak Ignazio Mari Atxukarrok eraman zituen. Zegaman museoa zeukan handik eta hemendik jasotako gauzekin, eta altzariok ere han gorde zituen. Atxukarro oso gizon ezagun eta maitatua izan zen, irratian hizketaldi ederrak egiten zituena, umoretsuak, eta 'Irriparrezko printzak' prosa-liburua ere plazaratutakoa. ❖

[es] Altagracia no tuvo suerte. Cuando iba a casarse, su novio falleció en accidente laboral, y a partir de ahí guardó luto toda la vida,

Tras la guerra del 36, en Bikuñaaundi vivieron tres hermanos solteros: Altagracia, María Luisa y José Mari. Este último trabajaba en la fábrica de Patricio. Los campos de labranza eran arados por unos parientes del caserío Makatza. José Mari murió relativamente joven y en 1964-65 las hermanas se mudaron a Urretxu, para vivir junto a la hermana Justa en la casa-serrería de los de Bengolea.

Bikuñaaundi quedó vacío. A partir de entonces, en el periodo 1965-75, Rufino Garitano (que había vivido en el viejo Olaetxe) montó un criadero de champiñones en la planta baja del caserío. Se valía de estiércol de caballo procedente de Campanas, un pueblo de al lado de Pamplona. Y es que la esposa de Rufino, Mari Paz Galparsoro, conocía a los dueños de Bikuñaaundi, porque había nacido en Segura y siendo una chavala había trabajado como criada en el palacio de los Lardizabal.

Así, Rufino, conoció a Ramón Lardizabal, el dueño de Bikuñaaundi y a su esposa, María (Concepción) Barkaiztegi Uhagon. La mujer de Rufino, Mari Paz Galparsoro, hacía estancias en las otras casas de Lardizabal, como por ejemplo en Toledo y Hondarribia. Y al quedar vacío Bikuñaaundi, María Barkaiztegi, que ya había enviudado, encomendó el cuidado del caserón a este matrimonio legazpiarra.


Los champiñones eran distribuidos por las casas y bares por José Javier (1960), el hijo de Mari Paz y Rufino. También este chaval se encargaba de apuntar los pedidos. Pero los vecinos del recién construido barrio deItxaropen comenzaron a quejarse del olor del estiércol y entonces Rufino decidió cambiar el uso del caserón y criar pollos y pollas.

Había muebles, algunos de ellos de valor, y la mayor parte fueron recogidos por Ignazio Mari Atxukarro, un hombre famoso y muy estimado en aquella época, que se dedicaba a hablar por la radio en euskera con mucha gracia y humor, y publicó en la colección Auspoa el libro 'Irriparrezko printzak'. ❖



03 _ aiztonaga

ETXEZARRA 2 ETXEZARRA



Alegia-Bikuñanea-Aiztonaga-Plaza, 1781.



Bikuña jauregiaren aurreko aldean, 1906. urtean gutxi gorabehera: Manuel Gabiria Legazpia (Makatzaga 1863). Atzean, Etxezar baserria zegoen lekuan, bi etxola. Atzerago, Apatso zaharra (Enrique Guinea Makibar, Gasteizko Udal Artxiboa, GUI VII-6.8).

[eu]

Izenak bestela iradokitzen badu ere, ez dirudi Etxezarra izeneko etxea Bikuñaaundi baino zaharragoa zenik. Jauregiaren parean zegoen, orain Gaztetxea dagoen lekuan, gutxi gorabehera. Ezagutzen dugun etxearen aipamenik zaharrena 1781. urtekoa da: Echezarra.

1832. urtean badakigu etxe hau lardizabaldarrena zela, Bikuñaaundiko nagusiena, alegia, eta maizterra, Juan Olaberria Aizkibel (1783).

1843. urteko erroldaren arabera, berriz, bi familia bizi ziren etxe honetan: olaberriatarrak eta galarzatarrak.

Dirudienez, aipatutako Juan Olaberria Aizkibel bi aldiz ezkondu zen. Lehenengo, Simona Agirre Galarzarekin eta seme bat izan zuten 1818an: Juan Ignacio Olaberria Agirre. Baina handik gutxira gizona alargundu eta 1820. urtean Tomasa Arrieta Ezpeletarekin ezkondu zen. Azken honekin, berriz, beste seme bat izan zuen 1822an: Jose Maria Olaberria Arrieta.

Bi semeak kanpoan ziren 1843. urteko errolda egin zenean ("ausente en Oyón" eta "ausente en la Cantería", hurrenez hurren). Harginak izan zitezkeen.

Goian aipatu bezala, galarzatarrak ere Etxezarra etxean bizi izan ziren 1843 eta 1861. urteetan, behinik behin. Pentsatzen dugu Jose Manuel Galarza Gerra (1814-1873) etxe honetara ezkondu zela Maria Juana Agirre Urzelairekin 1839. urtean. Bost seme-alaba izan zituzten: Juan Vicente (1840-1842), Jose Cruz (1843-1843), Francisco Pedro Pablo (1845), Carlos (1847) eta Bernardo (1850-1850). Ikusten denez, horietako hiru umetan hil ziren.

Hirugarren semea, Francisco Galarza Agirre, 1867. urtean Bikuñaneko Illagorrikoa etxera ezkondu zen Josefa Ramona Plazaola Mantxolarekin. Ez dakigu laugarren semearekin, Carlosekin, zer gertatu zen. Susmoa daukagu horien gurasoak, Jose Manuel Galarza eta Maria Juana Agirre, izan zirela Etxezarra etxeko azken bizilagunak.

Enrique Guinea Makibarren (1875-1944) argazki batean bi txabola ikusten dira Etxezarra etxea egondako orubean eta barrenean Apatso zaharra. ❖

[es]

Si bien este nombre sugiere lo contrario, no parece que esta casa fuera más antigua que Bikuñaaundi. Se encontraba enfrente de este palacio, aproximadamente donde hoy tenemos el gaztetxe. La primera mención (Echezarra), es de 1781.

Sabemos que en 1832 pertenecía a los Lardizabal, el mismo linaje que poseía el palacio de Bikuñaaundi. El inquilino, ese año, era Juan Olaberria Aizkibel (1783).

Según el padrón municipal de 1843, vivían aquí dos familias, los Olaberria y los Galarza.


Según parece, el mencionado Juan Olaberria Aizkibel se casó dos veces. Primeramente, con Simona Agirre Galarza, y en 1818 les nació un hijo, Juan Ignacio Olaberria Agirre. Al poco tiempo, Juan enviudó, y en 1820 se enlazó con Tomasa Arrieta Ezpeleta. Tuvieron otro hijo en 1822: José María Olaberria Arrieta.

Estos dos hijos se hallaban fuera de Legazpi cuando se llevó a cabo el padrón de 1843. Juan Ignacio estaba "ausente en Oyón" y José María "ausente en la Cantería". Es probable que fueran canteros.

Como se ha mencionado, los Galarza también vivieron en Etxezarra, al menos los años 1843 y 1861. Creemos que José Manuel Galarza Gerra (1814-1873) se casó a esta casa con María Juana Agirre Urzelai en 1839. Tuvieron cinco hijos: Juan Vicente (1840-1842), José Cruz (1843-1843), Francisco Pedro Pablo (1845), Carlos (1847) y Bernardo (1850-1850). Como puede verse, tres de ellos murieron siendo niños.

El tercer hijo, Francisco Galarza Agirre, en 1867 se casó a la casa Illagorrikoa de Bikuñanea con Josefa Ramona Plazaola Mantxola. No sabemos el paradero del cuarto hijo, Carlos. Y sospechamos que estos padres, José Manuel Galarza y María Juana Agirre, fueron los últimos habitantes de Etxezarra.

En una foto de Enrique Guinea Makibar (1875-1944) se aprecian dos chabolas en el solar que ocupaba Etxezarra, y al fondo el viejo Apatso. ❖



03 _ aiztonaga

TXORRONEA 3 TXORRONEA



Txorronea. Jende asko bizi zen hemen eta "gomazko etxea" esaten zioten (F.I.O.).

[eu]

1856an egindako etxea da, halaxe adierazten du ate gainean zizelkatutako zenbakiak. Orduan egañatar batzuk jarri ziren bertan bizitzen. Eta haietako bati 'Txorro' ezarri zioten gaitzizena; edo, akaso, egañatar denek zeukaten goitizen hori. Hara hor, gure ustez, gaur arte iraun duen etxe-izenaren nondik norakoa.

Nor ote zen 'Txorro' delako hori? Saturnino Telleriak, bere 'Historia de Legazpia'-ko 149. orrialdean, dio 1867an, alkate Martin Makibar zegoela, herriko lehenengo udal musika-banda sortu zela. Hamalau lagunеko talde horretan, kideetako bat Jose Agustin Egaña 'Txorro' zen, zeinak 'bajo' izeneko tresna jotzen baitzuen. Ogibidez errementaria zen, eta orain 'Txorronea' izenez ezagutzen dugun etxearen jabea.

1870ean, etxejabeak Jose Agustin Egaña Zabaleta, artean 27 urteko errementaria, eta emazte Fermina Mendizabal Ansuategi genituen. Andreak 34 urte zeuzkan. Bost urte lehenago erosia zioten ahaide batzuei, hil berriak ziren Francisco MªEgaña eta Matea (Matiasa) Iturriza edo Iturrizagaren seme-alabei (Jose Francisco, Antonio, Mª Josefa eta Simona).

Mendizabal Liziagatar ahizpa aberatsak

Eta 1870eko urte hartan, Jose Agustin 'Txorro' eta emazteak, zer egingo eta saldu egin zieten etxea herriko handiki batzuei, Micaela Antonia eta Bautista Ignacia Mendizabal Liziaga ahizpei. Ez ziren oso edadetuak: Micaela Antonia 1824an jaioa zen, Bautista Ignaciak 1828an. Amezketan jaiotakoa zen Micaela Antonia eta XIX. mende erdialdean Ibarrategi erosi zuen (gero Casa Murua izenez ezagutu zena), eta gainera kapera eraiki zuen kanposantu zaharrean, eta baita mausoleo dotorea jarri ere, orain kanposantu berrian goi-goian dagoena.

Egañatarrek jabetza galdu zuten, baina etxearekiko lotura ez zen eten. 1894an, bertan bizi zen Fermina (Jose Agustin Egañaren alarguna, 55 urtekoa) eta beronen

[es]

Txorronea es una casa edificada en 1856, como atestigua la inscripción en piedra de la puerta principal. Entonces fue vivienda de unas gentes de apellido Egaña, y a uno de los miembros le pusieron el sobrenombre de 'Txorro'; o quizá era el mote de toda la familia. Ese es el origen del nombre con el que todavía hoy se conoce la casa.

¿Pero quién era aquel 'Txorro'? El 'médico viejo' Saturnino Telleria dice en la página 149 de su 'Historia de Legazpia' que, siendo alcalde Martín Makibar, en 1867, se creó la primera banda municipal de música. En ese conjunto de catorce personas, uno de los miembros era José Agustín Egaña 'Txorro', que tocaba el instrumento llamado 'bajo'. Tenía el oficio de herrero y entonces era el dueño de esta casa que nos ocupa.

En 1870, los propietarios eran José Agustín Egaña Zabaleta (herrero de 27 años) y su esposa Fermina Mendizabal Ansuategi (de 34 años). Habían comprado el edificio cinco años antes a unos parientes, los hijos de los esposos Francisco Mª Egaña y Matea (Matiasa) Iturriza (o Iturrizaga). Esos hijos se llamaban José Francisco, Antonio, Mª Josefa y Simona.

'Txorro' vende a dos hermanas pudientes

En aquel año de 1870, José Agustín 'Txorro' y su esposa vendieron el inmueble a unas mujeres pudientes de Legazpi, las hermanas Micaela Antonia y Bautista Ignacia Mendizabal Liziaga, que no eran muy añosas, pues la primera había nacido en 1824 y la hermana cuatro años más tarde. Micaela Antonia vino al mundo en Amezketa y a mediados de siglo había comprado en Legazpi la casona Ibarrategi, lo que luego se conocería como Casa Murua, y además mandó edificar una capilla en el cementerio, y un mausoleo elegante que luego se trasladaría piedra a piedra a la zona más alta del cementerio actual.

[eu] alaba bat, Pascuala Egaña Mendizabal, Gregorio Arrizabalaga Gabiria errementari legazpiarrarekin ezkonduta, biak ala biak 29 urtekoak, ordurako bost urteko umea zeukatelarik, Hermogenes, gero Patrizio Etxeberriaren lehen langileetako bat izango zena.

1897an Micaela Antonia Mendizabal Liziaga hil zen, eta urte horretantxe egindako testamentuan, Urretxun bizi zen Francisca Mendizabal Agirre lehengusinari eman zizkion etxe hau eta aldameneko baratzea.

1890eko hamarkadan eta hogeigarren mendeko lehen bi hamarkadetan arrizabalaga-egañatarrak bizi izan ziren hemen. Aipatutako Gregorio eta Pascuala gurasoekin batera, seme-alabok: Hermogenes, Constanza, Gervasia, Dionisia, Daniela eta Valeriana. Hermogenesen berri, Azkaratekoa edo Oiarbidenea etxeko atalean eskaintzen dugu. Honen arreba denak, Daniela izan ezik, herritik alde egin zuten. Constanza, Madrilera serbitzera joan eta bertan ezkondu zen. Valeriana ere Madrilean egin zuen lan, neskame. Dionisia, berriz, moja izan zen. Eta Daniela etxera ezkondu zen, Txorroneara, segurar batekin, Juan Alustiza Mujika. Hauen seme-alaba batzuk (Lourdes, Mª Dolores eta Luis Mari) Venezuelara joan ziren gero, eta atzera Legazpira bueltatu.

1932an Justo San Miguelek erosi

1932an, Justo San Miguelek (1898-1964) eta emazte Maria Zabaleta Sasietak (1901-1979) erosi zuten etxea, eta bertan bizi hil arte. Aurretik, 1930eko udal erroldan, agertzen zaizkigu aldameneko etxe batean bizitzen, Aiztonagabekoan. Txorroneko saltzailea, berriz, aipatutako Francisa Mendizabal Agirre hura izan zen. Eta bikote hau etxeko jabe egitean, Daniela Arrizabalaga eta senarra Kale Berrira joan ziren bizitzera, 'kooperatiba gainera'.

Justo inklusatik ekarritakoa zen, eta Frailenean hazia, lehenbizi Seguraren teilerian lan egin zuelarik, labearen

[es] Los Egaña perdieron la propiedad de Txorronea, pero siguieron viviendo allí. En 1894 aparecen como residentes Fermina, la viuda de José Agustín Egaña, de 55 años, y su hija Pascuala Egaña Mendizabal, que había tomado por esposo al herrero legazpiarra Gregorio Arrizabalaga Gabiria. Ambos tenían 29 años y un hijo, Hermógenes, que luego sería uno de los primeros operarios de la fábrica de Patricio Etxeberria.

Micaela Antonia Mendizabal Liziaga falleció en 1897, y en el testamento entregó esta casa y su huerta cercana a una prima de Urretxu, Francisca Mendizabal Agirre.

En la última década del siglo XIX y las dos primeras del XX, vivieron aquí los Arrizabalaga-Egaña. Junto a los ya mencionados Gregorio y Pascuala, estos hijos: Hermógenes, Constanza, Gervasia, Dionisia, Daniela y Valeriana. Ofrecemos datos biográficos de Hermógenes en el apartado de la casa Azkaratekoa u Oiarbidenea. Y todas sus hermanas, a excepción de Daniela, emigraron de Legazpi. Constanza se fue a servir a Madrid y se casó allí. Valeriana también trabajó como criada en Madrid. Dionisia, en cambio, se hizo monja. Y Daniela se casó al mismo Txorronea, con Juan Alustiza Mujika, natural de Segura. Algunos de sus hijos e hijas (Lourdes, Mª Dolores y Luis Mari) fueron a Venezuela y luego regresaron a Legazpi.

A partir de 1932, Justo San Miguel y "la colchonera"

En 1932, Justo San Miguel Expósito (1898-1964) y su esposa María Zabaleta Sasieta (1901-1979) compraron este edificio y vivieron aquí hasta que fallecieron. Anteriormente, en el padrón de 1930, aparecen como residentes en la cercana casa de Aiztonagabekoa. Compraron Txorronea a la mencionada Francisa Mendizabal Agirre. Y al entrar Justo y María, Daniela Arrizabalaga y su marido se trasladaron a la Calle Nueva, 'encima de



Antonio San Miguel bizikletan, Ilintxa soziedade ondoan (Floren Gutierrezek emana).



Maria Zabaleta (Maria Koltxonera) eta Justo San Miguel (Floren Gutierrezek emana).



Maria koltxoia jotzen



Maria Zabaleta eta Justo San Miguel gurasoak. Seme-alabak, Antonio, Ignazio, Tomasa, Nieves eta Asun (Floren Gutierrezek emana).

[eu] arduradun, eta gero Patrizioren fabrikan, azken urteetan lorezain gisa nagusiaren etxaldean. Maria, berriz, Antzuolako Mutilaun baserrian jaioa zen eta 'koltxonerea' esaten zioten, koltxoi-jotzen atera baitzuen bizimodua.

Bost seme-alaba eduki zituzten: Asun, Tomasa, Antonio, Nieves eta Ignazio. Asun, Antonio eta Nieves, ezkondu ondoren, etxean bizi izan ziren. Asun Antonio Fernandezekin ezkondu zen; Antonio, Nerea Gorritirekin; eta Nieves, Florentino Gutierrezekin. Tomasa Bikuñaneko pisu batean bizi izan zen senar Manolo

[es] la cooperativa'. En el periodo 1935-65 la casa tuvo bastantes familias a renta o simples pupilos, y sirvió también de alojamiento provisional para familias que llegaban al pueblo.

Justo San Miguel era recogido del hospicio y se crió en la casa Frailenea. Trabajó en la tejería de Segura como encargado del horno, luego en la fábrica de Patricio Etxeberria, en su última etapa como jardinero en la mansión del empresario. María era nacida en el caserío Mutilaun de Antzuola y le decían "la colchonera", porque se dedicó al oficio de sacudir la lana de los colchones.

[eu] Fernandezekin; eta Ignazio Urretxuko Intxene baserrira ezkondu zen bertako Isabel Urreagarekin.

Justo eta Mariak, etxea erosi eta hurrengo urtean obra handia egin zuten, barruan bizitzak prestatu zituztelarik. 1935-65 urte-bitartean hainbat familia bizi izan zen hemen errentero, eta apopiloak ere ugari izan ziren.

Azken mende erdi honetan lau bizitza egon dira. Errentero jendea ere pasatu da bertatik. Beheko solairuan, Martinez de Albeniztarrak, eta gero Campotarrak. 'Ondo' izeneko tailer mekanikoa ere egon zen hor.

Francisco Martínez de Albeniz García 1905ean jaioa zen, Donemiliagan, baina umetatik Araian bizitutakoa. Angela Onzoñorekin ezkondu eta herriko fabrikan egin zuen lan, Ajuria y Urigoitia-n. 1930ean Jesus izeneko haurra izan zuten, eta handik gutxira Angela hil. Orduan, umetxo hori Gasteizko senitarteko batzuekin utzi eta gizona Legazpira azaldu zen. 1931n hasi zen Patrizioren Laminazioan. 1934an, Lucrecia Valdivielsorekin ezkondu zen, zeina Burgosko Los Balbases herrian jaioa baitzen. Eta Olazazal etxean bizitu ziren.

Piztu zen 1936ko gerra eta komunisten Larrañaga batailoian eman zuen izena Franciscok. Anaia Jose ere komunistekin borrokatu zen, eta Otxandioko frontean hil. Lucrecia emaztea Legazpitik ihesi joan zen Kantabria aldera bi umetxorekin, Magdalena (1935) eta Esteban (1936), eta Magdalena han hil. Une oso mingarriak izan ziren. Francisco preso hartu zuten nazionalek, baina ez zen giltzapean luzaroan egon. 1938an, Francisco eta Lucrecia Txorronean jarri ziren, eta hurrengo urtean beste seme bat jaio zitzaien, Julian (2024an hildakoa). Gerratik bueltan, Franciscok lantxo batzuk baino ez zituen egin ahal izan, Udalaren agindupean, eta 1941ean utzi zioten atzera Patrizioren Laminazioan lanean hasten. Azken haurra, Fernando, San Ignazio auzoko etxe berrian jaio zen. Francisco 1960an hil zen, Lucrecia 1976an.

Ez batera, baina 1940ko hamarkadan hiru emakume valvidielsotar bizitu ziren hemen, Burgosko Los Bal-



Txorronea. Francisco Martinez de Albeniz eta Lucrecia Valdivielsoren zilarrezko ezteiak 1959an.
Esteban, Faustina Santa Maria, gurasoak, Fernando,
Jesus M.A. Onzoño eta Julian
(Fernando Mz. de Albenizek emana).

[es] Tuvieron cinco hijos: Asun, Tomasa, Antonio, Nieves e Ignacio. Asun, Antonio y Nieves, tras casarse, siguieron en Txorronea. La primera se casó con Antonio Fernández; Antonio, con Nerea Gorriti, y Nieves con Florentino Gutiérrez. Tomasa, por su parte, se instaló en un piso de Bikuñanea, casada con Manuel Fernández. Ignacio se casó al caserío Intxene de Urretxu con una hija de la casa, Isabel Urreaga.

Justo y María hicieron una obra importante y dotaron al edifico de varias viviendas. En el periodo 1935-65 la casa tuvo bastantes familias a renta o simples pupilos, y sirvió también de alojamiento provisional para familias que llegaban al pueblo.

En los últimos cincuenta años Txorronea ha tenido cuatro viviendas. Ha sido el hogar de varias familias a renta. En la planta baja vivieron los Martínez de Albe-



Eskuinetik hasita Nieves San Miguel, Nerea Gorriti eta Asun San Miguel lagunen merienda batean, 1990eko harmarkadan (Floren Gutierrezek emana).

[eu] bases herritik etorriak. Batetik, aipatutako Lucrecia (Francisco Martinez de Albenizekin ezkondua); bestetik, Vicenta (Juan Jose Cantero 'Tamborrerico'-rekin ezkondua); eta Gloria (Florentino Zubillaga tolosarraren emaztea). 33 urte zituela hil zen Florentino, Patrizioren Laminazioan, lan-istripuan. 1948an izan zen. Orduan oso lantoki arriskutsua zen hura.

Txorroneko beste bizitza batean Zabaleta-Idigoras familia bizi izan zen. Zazpi seme-alaba izan ziren, era honetara ezkondu zirelarik: Rosario Teodoro Hernandezekin, Juanito Isabel Urbizurekin, Eulogio Ines Lonbiderekin, Jose Leonor Goienetxearekin, Jesus Filomena Riverorekin, Arantxa Felix Asteasurekin; eta Martin ez zen ezkondu.

1933an, erreforma handi bat egin zela-eta, Udalak zerga eskatu zionean nagusiari (Justo San Migueli),

[es] niz, y más tarde los Campos. Más tarde fue el emplazamiento del taller mecánico Ondo.

Francisco Martínez de Albeniz García era nacido en San Millán en 1905 y criado en Araia. Se casó con Ángela Onzoño y trabajó en la metalurgia del pueblo, Ajuria y Urigoitia. En 1930 tuvieron un hijo de nombre Jesús y ese mismo año murió Ángela. Entonces, Francisco vino a Legazpi, dejando a la criatura al cuidado de unos familiares de Vitoria, y vivió en la Calle Vieja. Comenzó a trabajar en la Laminación de Patricio en 1931. En 1934 se casó con Lucrecia Valdivielso Santa María, que era nacida en el pueblo burgalés de Los Balbases, y vivieron en la casa-caserío Olazabal. Llegó la guerra del 36 y Francisco se alistó en el batallón Larrañaga, integrado por comunistas. También lo hizo un hermano, José, que acabó muerto en el frente de Otxandio. Lucrecia escapó hacia Santander con dos hijos pequeños, Magdalena (1935) y Esteban (1936), y la primera falleció en Cantabria. Fue una época muy dolorosa. Francisco estuvo preso, pero no mucho tiempo. En 1938, Francisco y Lucrecia se instalaron en Txorronea y el año siguiente nació otro hijo, Julián (que ha muerto en 2024). Francisco se dedicó a trabajillos a las órdenes del Ayuntamiento hasta que en 1941 fue readmitido en la Laminación. El último hijo, Fernando, nació en la casa del barrio San Ignacio. Francisco murió en 1960 y Lucrecia en 1976.

En los años 40, sin coincidir en el tiempo, vivieron aquí tres hermanas Valdivielso, llegadas desde el pueblo burgalés de Los Balbases. Por un lado, la mencionada Lucrecia, casada con Francisco Martínez de Albeniz. Además, Vicenta, casada con Juan José Cantero 'Tamborrerico', y Gloria, cuyo marido, Florentino Zubillaga, falleció en 1948 a los 33 años de accidente laboral en la Laminación de Patricio; se trataba de un taller muy peligroso en esa época.

Otra vivienda fue habitada por los Zabaleta-Idigoras. Eran siete hijos, que se casaron de esta manera: Rosario y Teodoro Hernández, Juanito e Isabel Urbizu,



Floren Gutierrez eta Nieves San Miguelen ezkontzako gonbidatuak (Floren Gutierrezek emana).



Ezkerretik hasita, Benjamín Fernández, Lourdes Asteasu, Sebastián Fernández, atzean Goio Aseginolaza Atzeko biak ezezagunak (Gregorio Aseginolazak emana).



Lucrecia Valdivielso eta Francisco Martinez de Albeniz seme Fernandorekin (Fernando Mz. de Albenizek emana).




Ezkerretik hasita, Benjamín Fernández, Sebastián Fernánez eta Goio Aseginolaza. Txakurra, Pintto. (Gregorio Aseginolazak emana).

[eu] agirian ez zuen 'Txorronea' idatzi, 'Aiztona' baizik. Baina kobrantza-agiri horretan nekez ager zitekeen 'Txorronea' deitura, goitizen batean oinarritutako herri-deitura baita. ❖

[es] Eulogio e Inés Lonbide, José y Leonor Goienetxea, Jesús y Filomena Rivero, Arantxa y Félix Asteasu. Martín quedó soltero.

En 1933, cuando se hizo una reforma importante, el Ayuntamiento envió a Justo San Miguel un requerimiento para el pago de un impuesto. En el documento, a la casa se le denominaba Aiztona. Difícilmente podía aparecer la denominación Txorronea, dado que está asociada a un mote. ❖



AIZTONAGABEKOA eta ARRAZOLANEA 4 AIZTONAGABEKOA y la casa de los ARRAZOLA



Aiztonagabekoa, Enrique Guinearen argazki orokor batetik aterata.
Eskuinetara dagoen kaxeta tzuriaren barruan Urbeltz iturria zegoen. Harmaila batzuk jaitsi behar ziren bertaratzeko.

[eu]

Antzinako dokumentuetan bi etxe edo baserri agertzen zaizkigu: Aiztonagabekoa eta Aiztonagagarakoa. Eta 1820an, bata nahiz bestearen jabea, José Joaquín Guridi-Zaldua genuen. Gizon honek ondasun handiak zituen, beste baserriok adibidez: Zaldua (Zaldu), Peruzelaeta (Zaldutxiki), Apaezsoro (Apatso), Argindegi eta Zabaleta.

Ondasunok guztiok seme Miguel Ignacio Guridi-Zaldua Narbaizak heredatu zituen. Seme hau Joaquina Garagarzarekin ezkondu zen 1828an Ordizian eta lau seme-alaba izan: Jose Domingo (1829), Benita (1830), Felicia (1832) eta Adelaida. Miguel Ignacio Guridi munta handiko jauntxoa zen: hiru aldiz Gipuzkoako diputatu nagusi, lehenbizi Mutrikuko batzar nagusian (1828) hautatua, gero Segurakoan (1841) eta azkenik Oñatikoan (1847).

Juan Carlos Guerra (1860-1941) genealogista arrasatearrak dioenez, Guridi-Zaldua leinuak Legazpiko Zaldu edo Zaldua etxean ditu sustraiak. Adibidez, Miguel de Guridi y Elorza kapitaina, 1681ean jaioa, Nueva Españako gobernadore izan zen, hau da, Ipar eta Ertamerikako goi-agintaria. Beste bat, Valentin Guridi-Zaldua y Urcelay (1739-1791) apaiz eta lege-gizona, Legazpiko bikarioa izanik, mesede handiak egin omen zizkion herriari, besteak beste Lazcano edo Valmediano etxeari aurre egin zielako, eta baita Segurako kontzejuari ere, "halako arrakastaz, legazpiarrek, eskertsu, bikarioetxe berri ederra eraiki ziotela".

Aiztonagabekoaren lehen aipamena, Jose Luis Ugarte ikerlariaren arabera, 1787koa da, eta deitura honekin agertzen da: 'Ayztonaga la nueba'. 1832an, jabe moduan, Miguel Ignacio Guridi agertzen da, eta maizter gisa, berriz, Ignacio Mª Guridi, 1796an ezkondua Mª Ignacia Oria Anduezarekin. 1857an bi familia agertzen zaizkigu: Juan Mª Guridi Oria eta Manuela Guridi Villarrena (biak ala biak 52 urtekoak) eta Prudencio Andueza Inza eta Mª Josefa Agirre Urmenetarena (40 urtekoak). Batzuek nahiz besteek bazituzten seme-alaba zenbait.

[es]

En los documentos antiguos se mencionan dos casas Aiztonaga, la de arriba y la de abajo. En 1820, el dueño de ambas era José Joaquín Guridi-Zaldua. Poseía bastantes más caseríos: Zaldua (Zaldu), Peruzelaeta (Zaldutxiki), Apaezsoro (Apatso), Argindegi y Zabaleta.

Esas propiedades las heredó su hijo Miguel Ignacio Guridi-Zaldua Narbaiza. Se casó con Joaquina de Garagarza en 1828 en Ordizia y tuvieron cuatro hijos: José Domingo (1829), Benita (1830), Felicia (1832) y Adelaida. Miguel Ignacio Guridi era renombrado en Gipuzkoa: fue tres veces diputado general, la primera vez elegido en las Juntas Generales de Mutriku (1828), luego en las de Segura (1841) y más tarde en las de Oñati (1847).

Este linaje de los Guridi-Zaldua, según el genealogista arrasatearra Juan Carlos Guerra (1860-1941), hunde sus raíces en la casa Zaldua (Zaldu) de Legazpi. El capitán Miguel de Guridi y Elorza, nacido en 1681, fue gobernador de una zona de Nueva España (América del Norte y América Central). Otro miembro del linaje, el sacerdote y jurista Valentín de Guridi-Zaldua y Urcelay (1739-1791), fue según Guerra, "vicario de Legazpia y bienhechor insigne de su iglesia y pueblo, a los que favoreció con grande éxito en sus pleitos con la casa de Lazcano ó Valmediano y la villa de Segura; por lo que, reconocidos los legazpianos, construyeron en su obsequio una nueva y hermosa casa rectoral".

La primera mención de Aiztonagabekoa es, según el investigador José Luis Ugarte, de 1787, y se le da el nombre de 'Ayztonaga la nueba'. En 1832 aparece, según se ha dicho, como propiedad de Miguel Ignacio Guridi, y uno de los inquilinos era Ignacio Mª Guridi, casado en 1796 con Mª Ignacia Oria Andueza. En 1857, habitan este edificio al menos dos matrimonios, el formado por Juan Mª Guridi Oria y Manuela Guridi Villar, ambos de 52 años, y el de Prudencio Andueza Inza y Mª Josefa Agirre Urmeneta, ambos de 40 años, en ambos casos con hijos.



Aspaldiko Aiztonagabekoan bizi izandakoak.
Josefa Murua eta Cruz Arrizabalaga gurasoak eta, ezker-eskuin, Nieves, Secun, Julio, Alicia, Jesus 'Pitxin' eta Florita (Mertxe Ulangak emana).



Felisa Arrazola (ezk) eta Teodora Elorza (koinatak) (Mari Carmen Arrazolak emana).



Doroteo Arrazola, etxea egin zuena (Mari Carmen Arrazolak emana).

[eu] 1894ko udal erroldari erreparatuta, ikusten da Prudencio eta Mª Josefaren alaba batek, Basilia Andueza Agirrek, etxean segitzen duela, Olazargo Francisco Ugalde Etxeberriarekin ezkonduta, hiru ume dituzte-

[es] En 1894 se aprecia que una de las hijas de Prudencio y Mª Josefa, Basilia Andueza Agirre sigue en la casa, casada con el carpintero Francisco Ugade Etxeberria de Olazar y con tres hijas de entre 10 y tres años: Marce-

[eu] larik, hamar eta hiru urte bitartekoak: Marcelino, Silverio eta Rufina. Azkeneko hau ez zen ezkondu eta frontoi atzeko etxeetako batean bizi izan zen gero, Tomasa Urkiolaren ikaztegiaren ondoan.

1910ean, berriz, ugalde-etxeberriatarrez gain, Oñatitik etorritako batzuk bizi ziren: Pedro Uribe-Etxeberria Balanzategi eta emazte Mª Andresa Agirre Yarza.

1930eko udal erroldan izen berri batzuk ageri zaizkigu: Jose Murua Letamendi ('jornalero') eta emazte Micaela San Miguel, goitizenez 'Matrakesea', biak ala biak Oñatitik etorriak eta 50 urtekoak. Bi seme-alaba zituzten, Maria eta Estanislao, Oñatin jaioak.

1930eko urte hartan arrizabalagatarrak genituen baita ere: Cruz Arrizabalaga Murgiondo, legazpiarra, 33 urtekoa eta 'chauffeur' (Patrizioren familiaren kotxe-txoferra); emazte Josefa Murua, oñatiarra eta 26koa; eta lau seme-alaba txiki, Nieves, Flora, Julio eta Secundino; gero beste bi haur jaio ziren, Jesus 'Pitxin' eta Alicia. Eta, gainera, Justo San Miguel bizi zen, Oñatin jaioa, eta emazte Maria Zabaleta 'koltxonerea', Antzuolan jaioa, bi umerekin. Handik laster, 1932an, senar-emazteok Txorronea erosi zuten eta han jarri.

Cruz Arrizabalaga, berriz, hainbat urtez herriko aguazil izandako Francico Arrizabalaga Gabiria (Legazpi, 1859) haren seme zaharrena dugu. Udaltzaina 1915eko agintarien argazki ezagunean (Indalecio Ojangurenek egina) azaltzen da. Kontsejuko etxean bizi zen eta seme Cruz ere hortxe bizi izan zen ezkondu arte. Esanda bezala, Cruzek Patriziorentzako txofertzatik atera zuen bizimodua, baina 1930ean Udaleko ur-agente gisa ere agertzen zaigu; orduan abiatu berria zen ur-sare publikoa.

Cruz, emazte Josefa eta seme-alabak, 1930eko hamarkada bukaera aldera, Telleria-Enera bizialdatu ziren, Kale Berrira, eta han denbora gutxi egin zuten. Agirre-Etxeberritik gertu, Patriziok bere familiaren txoferrentzako egindako etxe berri batera joan ziren; bizitza batean familia hau bizitu zen, eta bestean Angel Odriozolarena.

lino, Silverio y Rufina. Esta última no se casó y vivió luego en una de las casas de detrás del frontón, junto a la carbonería de Tomasa Urkiola. [es]

En el padrón de 1910, además de los Ugalde-Etxeberria, aparece la familia compuesta por los oñatiarras Pedro Uribe-Etxeberria Balanzategi y Mª Andresa Agirre Yarza.

En el padrón de 1930 nos aparecen caras nuevas: el jornalero José Murua Letamendi y su esposa Micaela San Miguel, a quien decían 'Matrakesea', ambos oñatiarras de 50 años, con dos hijos, María y Estanislao, nacidos en Oñati.

En ese año de 1930 residen también en este edificio los Arrizabalaga: Cruz Arrizabalaga Murgiondo, legazpiarra de 33 años y 'chauffeur'; su esposa Josefa Murua, oñatiarra de 26; y los hijos pequeños Nieves, Flora, Julio y Secundino; después nacieron otras dos criaturas, Jesús 'Pitxin' y Alicia. Y además, vivían Justo San Miguel, de Oñati y su esposa María Zabaleta 'la colchonera', con dos criaturas, y que en 1932 compraron Txorronea y se trasladaron allá.

Cruz Arrizabalaga era el hijo mayor de Francisco Arrizabalaga Gabiria (Legazpi, 1859), el aguacil que aparece en la foto de las autoridades de Legazpi, realizada por Indalecio Ojanguren en 1915. Vivía en una de las viviendas de la casa concejil, y el hijo Cruz también residió allí hasta que se casó. Cruz trabajó como chofer de Patricio, como se ha dicho, pero en 1930 aparece como agente municipal de aguas. Entonces se había puesto en marcha la red pública de abastecimiento de agua.

Cruz, su esposa Josefa y los niños, a fines de los años 30, se fueron a vivir a la Calle Nueva, a la casa Telleria-Enea, pero la estancia fue breve, pues la familia se trasladó a una casa nueva, edificada por Patricio, para sus chóferes particulares. Una de las viviendas fue para los Arrizabalaga, en la otra vivió la familia de Ángel Odriozola. El edificio se hallaba cerca de la mansión de Agirre-Etxeberri.



Altagracia Gabiria Makibar (Bikuñaaundi 1896) eta Saturnino Gabiria Makibar (Bikuñaaundi 1904), barrenean Aiztonagabekoa ikusten delarik

(Enrique Guinea Makibar, Gasteizko Udal Artxiboa, GUI VIII-8.8).

[eu]

Bertan Arrazolanea egin zen

1940. urtetsuan guztiz aldatu zen hemengo itxura. Doroteo Arrazola Isasmendik orube hau dena erosi zuen eta, etxe zaharraren zenbait pareta aprobetxatuz, berria altxatu zuen, orain ere hor dagoena.

Oñatin jaioa zen Doroteo. Hango batekin ezkondu zen, Teodora Elorza Beitia, Elias dendari ezagunaren arreba. Lehenbizi Agirreplazan bizitu ziren, eta han lehenengo bi semeak jaio, Victoriano eta Javier. Lehenengoa hainbat elkartetako bultzatzaile izan zen. Adibidez, entitate hauetan nabarmendu zen: San Miguel Patrotanua, Guraso Elkartea, Gureak tailerrak, Agifes, Burdinola, Nagusilan eta Buztintegi. 2005ean Olaria saria eman zioten, eta hurrengo urtean hil. Javier, berriz, fraide domingotar izan zen, eta lehenbizi Filipinetan lan egin (Manilako seminario nagusiko buru izan zen) eta gero Hego Korean.

Doroteo Arrazola igeltsero zen eta 1940. urtetsuan ekin zion Aiztonagabeko etxe hau eraikitzeari. Mate-

[es]

La casa de los Arrazola

Hacia 1940 el solar de Aiztonagabekoa cambia completamente de aspecto. Tras comprar el solar, y aprovechando paredes del viejo caserío, Doroteo Arrazola Isasmendi levantó un nuevo y amplio edificio de viviendas, que aún perdura. Doroteo había nacido en Oñati, se casó con Teodora Elorza Beitia, de aquel mismo pueblo y hermana de Elías, una persona muy emprendedora que fue comerciante en Legazpi. Se casaron y residieron primeramente en la casa Agirreplaza, donde luego se edificó el cine Eslesa.

Allí nacieron los dos primeros hijos: Victoriano y Javier. El primero fue destacado colaborador y líder en asociaciones de la localidad. Trabajó para el Patronato San Miguel, la Asociación de Padres de Familia, los talleres Gureak, Agifes, Burdinola, Nagusilan y Buztintegi. En 2005 recibió el premio Olaria y falleció en 2006. Javier se hizo fraile dominico y residió mucho tiempo en Filipinas. Fue rector del seminario central de



Bitoriano Arrazolaren ezkontza eta anaia Javier dominikoaren lehen meza, 1960ko uztailaren 31n
(Iñaki Arrazolak emana).



Bitoriano Arrazola eta Arantxa Iturberen ezkontza eta anaia Javier dominikoaren lehen meza. 1960-07-31
(Iñaki Arrazolak emana).

[eu] rialak eskatu zizkion Patrizio Etxeberriari eta honek baiezkoa eman bi baldintzarekin: horko bi bizitza berarentzat izan behar zuten. Haietako batean Guillermo Lamsfus (Patrizioneko bulegaria) bizi izan zen gero, eta bestean Jose Labaka tolosarra, Coel-eko funtzailee-tako bat izan zena. Honek, 1963an, hemendik gertu, kamioz beste aldean txalet handia eraiki zuen, buruhauste bati egin ziolarik aurre: toki horretan ikaragarrizko hezetasuna sortzen zen.

Doroteo eta Teodora etxe berrira aldatu ziren eta hor beste hiru ume jaio zitzaizkien: Mari Carmen (orain ere hor bizi da, Jose Kerejetarekin ezkonduta), Jose (Zumarragara ezkondu zen) eta Jesus (2021ean hila).

Manila y luego ha trabajado en Corea del Sur. [es]

Doroteo era albañil y hacia 1940 se decidió a edificar en el solar de Aiztonagabekoa. Le pidió material de construcción a Patricio Etxeberria y este le dio la conformidad con una condición: tendría acceso a dos de las viviendas. En una de ellas se alojaría luego Guillermo Lamsfus, administrativo de la fábrica de Patricio, y en la otra el tolosarra José Labaka, que luego sería uno de los fundadores de la factoría Coel, y que en 1963 construyó un chalet de grandes dimensiones al otro lado de la acera. Tuvo problemas, porque en la zona afloraba una grandísima humedad.

Doroteo y Teodora se instalaron en la nueva casa y allí nacieron otros tres hijos: Mari Carmen (que todavía re-



Arrazola-Elorza sendia 1985ean Etzegaraten.
Emakumeak, Mari Carmen Hernandez, Arantxa Iturbe,
Mari Carmen Arrazola eta Mª Jesus Zubeldia. Beste gizona, Jose Kerejeta
(Iñaki Arrazolak emana).




*Aiztonagabekoa eta aldameneko etxeak (*F.I.O.*).*

[eu] Lehen etapako (hogeigarren mende erdialdean) beste bizilagun batzuk: Luciano Galfarsoro (Felisa Arrazola, Doroteoren arrebarekin ezkondua), Pedro Lizarralde (hau ere oñatiarra), Andres Urbizu eta Vicente Arrizabalaga.


[es] side en el edificio, casada con el zegamarra José Kerejeta), José (tras casarse residente en Zumarraga) y Jesús (fallecido en 2021).

En la primera fase, la de mediados del siglo XX, vivieron también estas personas: Luciano Galfarsoro (casado con Felisa, hermana de Doroteo Arrazola), Pedro Lizarralde (también oñatiarra), Andrés Urbizu y Vicente Arrizabalaga.



03 _ aiztonaga

AIZTONAGAGARAKOA 5 AIZTONAGAGARAKOA



1860. urteko planoa. Pello Joxe Aranburuk eta Luis Mari Intzak argitaratutako "Norteko trenbidearen eraikuntza, ebaluaketa eta ondorioak Gipuzkoan" liburutik aterata.

[eu]

Txorronetik eliza alderago zegoen, mendi aldetik datorren errekaz bestaldean. Hemeretzigarren mende bukaerarako desagertuta zegoen.

Aiztonagabekoa eta Aiztonagagarakoa, biak ala biak, 1820an Jose Joaquin Guridi-Zalduarenak ziren, oso gizon ahaltsua, bereak zituen-eta Legazpiko beste etxeok: Zaldua (Zaldu), Peruzelaeta (Zaldutxiki), Apaezsoro (Apatso), Argindegi eta Zabaleta. Leinu honi buruzko informazioa Aiztonagabeko atalean eskaini dugu.

Ondasunok guztiok seme Miguel Ignacio Guridi-Zaldua Narbaizak jaso zituen oinordetzan. Seme hau Joaquina Garagarzarekin ezkondu zen 1828an Ordizian eta lau seme-alaba izan: Jose Domingo (1829), Benita (1830), Felicia (1832) eta Adelaida. Miguel Ignacio Guridi munta handiko jauntxoa zen: hiru aldiz Gipuzkoako diputatu nagusi, lehenbizi Mutrikuko Batzar Nagusian (1828) hautatua, gero Segurakoan (1841) eta azkenik Oñatikoan (1847).

Etxe hau, hemeretzigarren mende akabera aldera, hutsik zegoen edo erorita. 1896an, Elortza baserriko Jose Maria Aseginolaza Ugartek erosi zion Adelaida Guridi Garagarzari (Miguel Ignacioren alaba txikiari), eta 1925ean hor inguruan Aiztonagaberri izeneko etxea eraiki. ❖

[es]


Este caserío se encontraba cerca de Txorronea, más hacia la iglesia, al otro lado del riachuelo que baja del monte. Ya para fines del XIX había desaparecido.

Tanto Aiztonagabekoa como Aiztonagagarakoa en 1820 pertenecían a José Joaquín Guridi-Zaldua, un potentado que poseía otras casas como Zaldua (Zaldu), Peruzelaeta (Zaldutxiki), Apaezsoro (Apatso), Argindegi y Zabaleta. Ofrecemos información sobre este linaje en el apartado de Aiztonagabekoa.

Esas propiedades las heredó su hijo Miguel Ignacio Guridi-Zaldua Narbaiza. Se casó con Joaquina de Garagarza en 1828 en Ordizia y tuvieron cuatro hijos: José Domingo (1829), Benita (1830), Felicia (1832) y Adelaida. Miguel Ignacio Guridi era renombrado en Gipuzkoa: fue tres veces diputado general, la primera vez elegido en las Juntas Generales de Mutriku (1828), luego en las de Segura (1841) y más tarde en las de Oñati (1847).

Aiztonagagarakoa se hallaba vacía y seguramente derruida a fines del XIX. En 1896, José Mª Aseginolaza Ugarte, del caserío Elortza de Telleriarte, siendo todavía soltero, compró este solar a Adelaida Guridi Garagarza, la hija menor de Miguel Ignacio.

Luego, en 1925, Aseginolaza y su esposa Eugenia Aranburu edificaron en esta zona una casa que se llamó Aiztonagaberri y estuvo en pie hasta 2002 ❖



03 _ aiztonaga

AIZTONAGABERRI 6 AIZTONAGABERRI



Tomas Aseginolazaren etxe berria (Socorro Aseginolazak emana).



Maria Ugalde (Gregorio Aseginolazak emana).



Ezkerretik hasita, Juan Luis, Ama Maria Ugalde besoetan Gregorio duelarik, atzean Rosi, aita Tomas Aseginolaza eta Luciano (Gregorio Aseginolazak emana).

[eu]

Jose Mari Aseginolaza Ugartek eta emazte Eugenia Aranburu Guridik 1925ean egindako etxea. 2002an bota zuten. Inguru honetan zegoen Aiztonagagarakoa izeneko baserria, oso aspaldi (hogeigarren mendea baino lehenago) desagertua.

Gizon ekintzaile eta ausarta izan zen Jose Mari. 1867an jaioa, 1896an, artean ezkondu gabe, Aiztonagagarakoa izeneko etxea egondako orubea erosi zion Adelaida Guridi Garagarzari (Miguel Ignacio handikiaren alaba txikiari), eta hurrengo urtean Telleriarteko Esaizabalgo (Simona) Eugenia Aranburu Guridirekin ezkondu. Segituan, 1898an, kale aldeko Otsategi izeneko etxea erosi eta han jarri ziren bizi izaten senar-emazteok, lau seme izan zituztelarik.

1925ean, esan bezala, etxe hau egin zuten Jose Mari eta Eugeniak, eta bertara aldatu ziren, semeak Otsategin gelditu zirelarik. Baina gero seme Tomas ere etxe honetantxe bizi izan zen.

"Goiko etxea" edo Aiztonagaberri esaten zioten eta Santa Maria kaleko 68 zenbakia ezarri zioten. Zera gertatu zen: Jose Marik ganadua zeukan bere etxean, Otsategin, eta behin, alkateak esan zion ez zela oso gauza dotorea behiak ibiltzea herriko plazatik hain gertu, eta egin behar lukeela etxetik Bikuña alderago ikuilu moduko zerbait. Horretan hasi zen Jose Mari eta azkenean, ikuilua ez ezik, etxebizitza ere egin. 1925ean inauguratu zen.

Etxeko balkoiak seme Raimundok egin zituen. Errementaria zen eta aitak esan zion soldaduskara joan aurretik lan hori egin behar ziola. Patrizionean ari zen, baina etxean sutegi propioa zeukan.

Seme Tomas ere hantxe bizi izan zen, esanda bezala. Gizon hau Olazargo Maria Ugalde Alustizarekin ezkondu zen 1939an. Emakume hau, hamasei urte zituela, 1932an, aldameneko Sarasolanean hasi zen neskame. Patrizioren fabrikan aritu zen lanean Tomas, estanpak edo matrizak egiten. Jose Mari 1935ean hil zen, eta emaztea 1939an. ❖

[es]

Casa edificada en 1925 por José Mari Aseginolaza y (Simona) Eugenia Aranburu. Desapareció en 2002.

Aseginolaza, nacido en 1867 en el caserío Elortza de Telleriarte, estando aún soltero, en 1896, compró el solar del antiguo caserío Aiztonagarakoa a Adelaida Guridi Garagarza, hija del potentado Miguel Ignacio Guridi-Zaldua, que había poseído varios caseríos en el pueblo. Y luego, en 1925, levantó esta casa en un lugar que se supone estaba cercano al viejo caserío.


Al año siguiente, en 1897, Aseginolaza se casó con (Simona) Eugenia Aranburu Guridi, y compraron la casa Otsategi, cercana al edificio de Correos. La esposa era de una familia adinerada, propietaria del caserío Esaizabal de Telleriarte, y se supone que financiaría la compra de esa casa del casco urbano.

Aiztonagaberri (también llamado Goiko Etxea por los Aseginolaza), fue el número 68 de la calle Santa María. Ocurrió lo siguiente: el padre, José Mari, tenía ganado en la casa Otsategi, y en una ocasión el alcalde le comentó que no daba buena imagen el ganado tan cerca de la plaza mayor del pueblo, y que debería construir un establo en la zona de Bikuña. José Mari se puso a la tarea y, finalmente, además del establo el nuevo edificio contó con una vivienda. Se inauguró en 1925.

José Mari encargó a su hijo Raimundo los balcones. Le dijo que debía hacerlos rápido, antes de ir a la mili. Era herrero, y al margen de su trabajo en la fábrica de Patricio, tenía su pequeña herrería en el mismo Otsategi.

José Mari y su esposa Eugenia se mudaron a este nuevo edificio, y el hijo Tomás también vivió allí. En 1939 se casó con María Ugalde Alustiza, de Olazar, quien con 16 años, en 1932, había comenzado de criada en una casa cercana, la de los Sarasola. Tomás trabajó en la fábrica de Patricio, haciendo estampas o matrices.

José Mari murió en 1935 y su esposa en 1939. ❖



03 _ aiztonaga

FRONTOI ATZEKO ETXEAK 7 CASAS DE DETRÁS DEL FRONTÓN



Frontoi atzeko lehen bi etxeak. Lehenengoan, gero beste pisu bat altxa zuten (Rosario eta Belen Villarrealek emana).

[eu]

Frontoi atzeko lehenengo bi etxeak, egungo Aizkorri kalean, Jose Mari Agirrezabal Etxeberriak egin zituen 1927an (Jose Mari Urcelay, 'Legazpi siglo XX: hitos…', 296. or). Ariztibekoan jaioa zen 1884an, eta 1887an sortutako Cesarea Ormazabal Galfarsororekin ezkondua, hau berriz Elortza baserrikoa.

Senar-emazteok Brinkolako Josemarinean (beheko taberna zegoen etxean) bizi izan ziren, eta etxe hori, berriz, 1910eko hamarkadan eraiki zuen Jose Mariren osaba batek, Araiztegiko Jose Agirrezabal Zabaletak, alegia. Jose Mari 'negoziantea' zen, eta Brinkolako taberna horretaz gain, bazituen beste diru-iturri batzuk: baserrietako esnea batu eta Altsasun saldu ohi zuen, egur-ikatza erosi eta Bergarako labe garaietan edota Araiako Ajurianean saltzen zuen… 1930eko hamarkadan zinegotzi izan zen, EAJkoa, eta gero frankistek zigor ekonomikoa ezarri zioten, Brinkolako tabernako genero guztia kendu zioten, frontoi atzeko bi etxeok konfiskatu zizkioten (eta gero berreskuratu), baina kartzelatik libratu zen behintzat.

Lehenengo etxea (Francoren diktadura garaian Jose Antonio Primo de Rivera 2), lehen etapan, txikia izan zen: solairu bat errepidea baino beherago, espaloiaren parean beste solairu bat, eta gainean beste bat. Behe-beheko horretan, lehenbizi Julian serenoaren familia bizi izan zen: Julian Ojanguren Etxeberria (Brinkolako Etxeaundi, 1900) eta emazte Joxepa Aristizabal (Donostia). Gizon hau, lehenbizi, Kataberako meatzeetako langileen buru ibili zen. Gero, sereno-lanaz gain, Aizkorpeko iturburuak zaindu ohi zituen, eta emazteak janari- eta txutxe-denda eduki zuen, toki hari "serenaren aldapa" esaten ziolarik jendeak. Garai hartan, Ojangurendarrek Brinkolako Etxeaundi baserria saldu egin zuten, ordurarte bizitoki izandakoa.

1936ko gerra hasieran, ospitalea egon zen errepide azpiko solairu honetan, eta umeendako aterpe ere izan zen.

Gero Felipe Izagirre Peña arotzak bertan eduki zuen lantegia. Lazkaoko Enpaundi baserrian jaioa zen eta Lakiolaerdiko Agustina Sologaistoa Elorzarekin ezkon-

[es]

Las dos primeras casas de detrás del frontón viejo se levantaron en 1927, a iniciativa de José Mari Agirrezabal Etxeberria, según los datos de José Mari Urcelay en su libro 'Legazpi, siglo XX: hitos…' (pág 270). Este emprendedor había nacido en 1884 en el caserío Ariztibekoa y estaba casado con Cesárea Ormazabal Galfarsoro, tres años más joven y del caserío Elorza

El matrimonio regentaba el bar de la zona baja del puente de Brinkola (Josemarinea) y residía en el mismo edificio, que había sido construido por un tío de José Mari (José Agirrezabal Zabaleta, del caserío Araiztegi) en 1910.

José Mari Agirrezabal era 'negociante', y además de la taberna, se dedicaba a otros menesteres, como recoger la leche de los caseríos y venderla en Altsasu, o comprar carbón vegetal para venderlo a los Altos Hornos de Bergara o la metalurgia de Ajuria de Araia.

En los comienzos de los años 30 fue concejal, por el PNV, y luego los franquistas le impusieron una multa económica, le quitaron todas las bebidas del bar de Brinkola, se incautaron de estas dos casas de detrás del frontón… pero al menos se libró de la cárcel.

La casa pegada al viejo frontón (durante la dictadura de Franco su dirección era Primo de Rivera, 2) era una casa al comienzo pequeña. Constaba de un piso por debajo del nivel de la carretera, y otros dos por encima. En ese piso inferior, en un principio, se instaló la familia de 'Julián el sereno', Julián Ojanguren Etxeberria (caserío Etxeaundi de Brinkola, 1900) y su esposa, la donostiarra Josefa Aristizabal. Julián, además de trabajar como sereno por las noches, se encargaba de cuidar los manantiales de agua del Aizkorri, y la esposa tuvo tienda de chucherías y alimentación, por lo que a la zona la acabaron denominando 'la cuesta de la serena'. En su juventud, Julián fue encargado de los obreros de la mina de Katabera.

Los Ojanguren vendieron por aquella época el caserío Etxeaundi de Brinkola, en el que habían residido.

[eu] dua. Lehenbizi CAFen jardun zuen arotz, gero Zorrotz arotzerian (Patxi Berasategi zuen nagusia) eta ondoren, behin etxe honetan bizi zela ezkonduta, berekasa aritu zen, autonomo. Hasiera batean etxeetarako egin zuen lan, besteak beste formica izeneko materiala erabilita, baina urteak pasa ahala, inguruko enpresetarako enbalajeetan espezializatu zen, eta 1970eko hamarkadan pareko etxe azpira (Labakaren etxera) aldatu zuen tailerra. Bi seme izan zituen laguntzaile, Jose Luis eta Jose Joakin, eta anaia batek, Valentinek, Toki Alai taberna gobernatu zuen.

Espaloi pareko etxebizitzetan, berriz, Martin Etxaberen eta Paco Barandiaranen familiak bizitu ziren. Eta gorago, Pedro Arzuagarena eta Narciso Villarrealena. Gero, 1940ko hamarkadan, solairu bat gehiago altxatu zen. Zenbait urtetan, Bittor Andueza eta Pilar Alustizaren familia ere bizi izan zen, eta Jose Munduaterena. Bittor El Diario Vasco-ko berri-emaile izan zen urteetan; Munduate, berriz, 1899an jaioa zen Urtsuaranen, Errepublika garaian mikelete izan zen eta Angelita Olasagasti donostiarrarekin ezkondu 1937an, lehenbizi Kontsejuko etxean bizi izan zirelarik, gero gizonak Aurrezki Kutxa Probintzialean lan egin zuelarik.

Pedro Arzuaga Etxezarretari dagokionez, gizon hau ere mikelete izan zen. Urtsuaranen 1900ean jaioa, aita urrestildarra zuen, baina mutikotan Urtsuaranera etorria, eta hango maisutza eta sakristautza bere gain hartutakoa. Mikelete hasi zen, 1927an ezkondu zen Juliana Ayerbe Lezetarekin, Legazpira destinatu eta etxe hauxe estreinatu. Iritsi zen 1936ko gerra eta frankistek preso hartu zuten eta Bilboko Arriaga antzokian giltzapean eduki. Handik gaixotuta itzuli zen, hasieran ez zioten lanik ematen, baina gero Patrizionean sartu zen gaueko zaintzaile. Osasun aldetik sekula ez zen bere onera etorri, eta azkenean 1954an hil. Alarguna engainatuta eduki zuten eta urte asko eman zituen alargun-pentsioa kobratu gabe.

Narciso Villarreal gizon ospetsua izan zen. 'Xauen-go heroia' esan ohi zioten, domina irabazi baitzuen Afrikako gerran, 1920ko hamarkadan. Soldadu batzuk salbatzea lortu baitzuen, bizia arriskuan ipinita. Gero, Wen-

Durante la guerra del 36, en este piso inferior se habilitó un hospital y fue también refugio para niños. [es]

Más tarde, este sótano albergó la carpintería de Felipe Izagirre Peña, que era nacido en el caserío Empaundi de Lazkao y se casó con Agustina Solagoaistoa Elorza, de Lakiolaerdikoa. Primero trabajó como carpintero en CAF, más tarde en la carpintería Zorrotz, regentada por Patxi Berasategi, y finalmente, ya casado y residente en esta casa, ejerció por su cuenta. Primeramente, hizo encargos para casas, usando con frecuencia la formica, y más tarde se especializó en los embalajes, trabajando para varias empresas. En los años 70 trasladó el taller a los bajos de la casa de Labaka, en el otro lado de la acera. Tuvo de ayudantes a dos hijos, José Luis y Jose Joakin. Un hermano de Felipe, Valentín, regentó el bar Toki Alai.

En la planta baja, al par de la acera, vivieron las familias de Martín Etxabe y Paco Barandiaran. Y en el piso superior, las de Pedro Arzuaga y Narciso Villarreal. Ya en la década de 1940, levantaron una planta más, en la que residieron Bittor Andueza y su esposa Pilar Alustiza, y la familia de José Munduate Imaz. Bittor trabajó en la factoría de Patricio y fue corresponsal de El Diario Vasco. Munduate, por su parte, era nacido en 1899 en Urtsuaran, en los años de la República fue miquelete y en 1937 se casó con la donostiarra Angelita Olasagasti. Primero, antes de llegar a esta casa, vivieron en la casa consistorial, y José acabó trabajando en la Caja de Ahorros Provincial.

Pedro Arzuaga Etxezarreta, por su parte, también fue miquelete. Nacido también en Urtsuaran en 1900, su padre era de Urrestilla, pero llegado muy joven a Urtsuaran, donde trabajó como maestro y sacristán. Se hizo miquelete, en 1927 se casó con Juliana Ayerbe, fue destinado a Legazpi y fueron de los que estrenaron este edificio. En la guerra del 36 los franquistas lo tuvieron preso en el teatro Arriaga de Bilbao. Volvió de allí muy debilitado y al principio no le daban trabajo, pero luego consiguió un puesto de guarda nocturno en la fá-



Jose Mari Agirrezabal Etxeberria (Ariztibekoa) eta Cesarea Ormazabal Galfarsoro (Elortzakoa), frontoi atzeko hiru etxeren jabeak. (Pello Agirrezabalek emana).



Bi mikelete, Pedro Arzuaga (ezk) eta Angel Murua 'Kabo zaharra' (Jose Luis Arzuagak emana).

[eu] ceslao Azpilikueta kronistaren bidez, familia saiatu zen dominari zegokion diru-saria eskuratzen, besteak beste Lacarra izeneko goi-mailako militar batengana joz (Lucia Lacarra dantzariaren aita), baina ez zuten ezer lortu. Eta, domina, berriz, galdu egin zen; pentsatzen dute seme-alabek jolasten ari zirela utziko zutela nonbaiten.

Kale Zaharrean jaioa zen Narciso, 1902an, Ermentaritxiki izeneko etxean. Bederatzi urte zituela hasi zen Patrizioren fabrikan, gauez eskola partikular batzuk jasotzen zituelarik. Gero, Peineterian ere jardun zuen. Azken lan-urteak Joaquin Bereziartunean eman zituen. Ajustadore abila omen zen. Dantzari izan zen, soinujolea, Ilintxa futbol-taldearen hasierako jokalaria, bolaria, soinujolea… Mutiloako Maria Goiarekin ezkondu eta 1930ean izan zuten lehen umea, Inozentzio. Bigarrena, Miren, jaio eta handik bederatzi hilabetera zendu zen. Gero beste sei etorri ziren: Rosario (1934), Luis (1937), Angel Mari, Jose Ramon (1940), Belen (1944) eta Begoña.

brica de Patricio. Nunca recuperó la salud y murió en 1954. Su viuda fue engañada y pasó bastantes años sin cobrar la pensión de viudedad. [es]

Narciso Villarreal fue célebre en Legazpi. Le llamaban 'El héroe de Xauen' y ganó una medalla en la guerra de África de los años 20. Se debió a que había ayudado a salir vivos a un grupo de soldados, arriesgando para ello su vida. Más tarde, la familia, a través del corresponsal Wenceslao Azpilikueta, se esforzó en lograr la pensión que correspondía a esa distinción, pero sin éxito. Contactaron con un militar de alto rango, Lacarra, padre de la bailarina Lucía Lacarra.

Además, la medalla acabó perdiéndose, porque los niños de la casa la utilizaban para sus juegos.

Narciso había nacido en 1902 en la casa Ermentaritxiki de la Calle Vieja. Comenzó a trabajar en la fábrica de Patricio a los nueve años, y a las noches recibía algunas clases particulares. Luego trabajó en la Peinetería, y su



Villarrealdarrak. Gurasoak, Narciso eta Maria Goia. Goian, Angel Mari, Begoña, Belen eta Inocencio. Behean, Luis, Rosario eta Jose Ramon.



Felipe Izagirre eta Juli Urmeneta koinata (Jose Joakin Izagirrek emana).



Felipe Izagirre, Agustina Sologaistoa eta semeak. Ezkerretik, Jose Joakin, Valentin eta Jose Luis (Jose Joakin Izagirrek emana).

[eu] Etxe hau desjabetu egin zuen Udalak 1960ko hamarkadan, errepide-proiektu handi bat zela-eta, baina azkenean bertan behera geratu zen egitasmoa. Etxeak zutik iraun zuen urte askoan.

'Bikuña' taberna eta 'Euskalzaleak' elkartea

Hurrengo etxeari dagokionez (Primo de Rivera 4), batean, besteak beste familiok bizi ziren: Secundino Zaldua (San Migelgo Anbrosia Iñurritegirekin ezkondua), Pablo Lazkanoiturburu (oñatiarra), Andres Maiztegi (Severiana Inzarekin ezkondua, Jose Luis izeneko semea izan zuten, gero Real Sociedadeko futbolaria izan zena) eta Julian Gurrutxaga (Miguel tabernariaren osaba, Engracia Ezeolazarekin ezkondua). Baita ere, Juan Pedro Aranburu (Telleriarteko

[es] última etapa laboral fue en la fundición de Joaquín Bereciartu. Era un ajustador muy reconocido. Fue dantzari, acordeonista, futbolista del Ilintxa, bolari… Se casó con María Goia, de Mutiloa, y en 1930 tuvieron la primera criatura, Inocencio. Luego nació Miren, que murió a los nueve meses, y más tarde otros seis: Rosario (1934), Luis (1937), Angel Mari, José Ramón (1940), Belén (1944) y Begoña.

El Ayuntamiento expropió esta casa en los años 60, con vistas a un gran proyecto de carretera, que al final no se llevó a cabo. El edificio siguió en pie bastantes años más.

El Bar Bikuña y la sociedad Euskalzaleak

La siguiente casa (Primo de Rivera 4 en los años del franquismo) albergó en los años 30 a familias como la de Secundino Zaldua, casado con Ambrosia Iñurritegi,



Secundino Zaldua eta Ambrosia Iñurritegi.



"Bikuña" elkarteko bazkideak (1932-33).

(Zutik) Serapio Alustiza (segurarra, Urtatzazarren bizi izan zen), EusebioAztiria (Bengolea), Tomas Aseginolaza, Luis Murua (Joanaztegi, luzaroan ihesiibilitakoa), Ildenfoso Aztiria (Urtatzola), Carlos soinujolea (Carlos Egiguren, azpeitiarra izatez,Zumarragako Melitonen bizi zen), Jose Etxeberria (Andresenea), EnriqueMantxola (Urtatzaazpikoa), Cecilio Aseginolaza, Eugenio Elorza, EugenioUrzelai (Errotaritxonea), txoferra (Errenteriakoa)

(Eserita) Estanis Gisasola (Mallabiakoa, teileriako eskribientea), ZoiloAldasoro, Doroteo Arrazola, ezezaguna, Plaxido Elorza(Plazaola), Serapio Lizarazu, Juan Iturbe (Arrolanea), Daniel Aranguren(Erraizabal).

[eu] Esaizabal edo Sagastizabal baserrikoa) eta emazte Tomasa Urkiola, bebarruko 'Bikuña' izeneko taberna gobernatzen zutenak.

'Bikuña' taberna eta aldameneko egongela garrantzitsuak izan ziren Errepublika garaian, 1930. hamarkadako lehen urteetan. Hantxe biltzen ziren hasiera batean Euzko Alderdi Jeltzaleko kideak, Euskalzaleak elkartekoak gero, eta Jose Mari Urcelayk bere 'Legazpi siglo XX: hitos en el camino hacia la modernidad' zionenez (87. orria) Emakunde eta Solidaridad de Trabajadores Vascos-en egoitza ere izan zen.

[es] del caserío San Miguel; el oñatiarra Pablo Lazkanoiturburu; Andrés Maiztegi (casado con Severiana Inza, padres de José Luis, que luego sería futbolista de la Real Sociedad) y Julián Gurrutxaga (tío del tabernero Miguel, casado con Engracia Ezeolaza). Asimismo, residieron aquí Juan Pedro Aranburu (del caserío Esaizabal o Sagastizabal de Telleriarte) y su esposa Tomasa Urkiola, que regentaron el Bar Bikuña, situado en los bajos de este edificio.

El Bar Bikuña y su local anexo fueron importantes a comienzos de los años 30. Los miembros y simpatizantes



Iñaki Aranburu 'Kaki', emazte Lidia Juaristi, eta Iñakiren anaia apaiza, Sabin (Ione Aranburuk emana).



Tomasa Urkiola eta Juan Pedro Aranburu (Ione Aranburuk emana).

[eu] Aitor Ibañez de Garatxana historialaren arabera ('Urola Garaiko Elkarteak', Zum Edizioak, 2011), toki honetan EAJko 'Aberri' multzokoak bildu ohi ziren, nazionalista sutsuenak, alegia, eta buru Estanislao Gisasola Artamendi zuten; beste kide batzuk, Daniel Aranguren, Facundo Urzelai, Eugenio Elorza eta Jose Mari Mujika. 'Comunión' lerrokoak, 'epelagoak' nolabait esateko, Bikuñaaundin eta Ubaldo Seguraren etxean elkartzen ziren. Kontuan izan behar da Bikuñaaundiko nagusiak, lardizabaldarrak, puntako kideak izan zirela EAJren lehen aroan.

Aipatutako Juan Pedro Aranburu eta Tomasa Urkiolaren semeetako bat 'Kaki' izan zen, 1978an Arrolamendin hildakoa, txangoa egiten ari zela; bestea, Sabin, apaiz izan zen. Gainera, gerra ostean Juan Pedro eta Tomasak ikaztegia eduki zuten etxe honetantxe, soto batean. Patrizioren kamioi batek ekarri ohi zuen ikatza, eta espaloiko zulo batetik botatzen zuten sotora.

[es] del Partido Nacionalista Vasco se reunían aquí, y luego los de la asociación Euskalzaleak, según el libro de José Mari Urcelay 'Legazpi siglo XX: hitos en el camino hacia la modernidad' (página 87). Fue asimismo sede de Emakunde y Solidaridad de Trabajadores Vascos.

Según el historiador Aitor Ibáñez de Garatxana ('Urola Garaiko Elkarteak', Zum Edizioak, 2011), en Euskalzaleak se agrupaban los miembros de la tendencia 'Aberri', la más radical del PNV. El presidente era Estanislao Gisasola Artamendi, y otros miembros Daniel Aranguren, Facundo Urzelai, Eugenio Elorza y José Mari Mujika. Los de la tendencia 'Comunión', más conservadora o posibilista, se reunían en el palacio de Bikuña o en casa de Ubaldo Segura. Hay que tener en cuenta que los propietarios del palacio, los Lardizaba, fueron dirigentes del PNV en su primera fase.

Uno de los dos hijos de los mencionados Juan Pedro Aranburu y Tomasa Urkiola fue Iñaki 'Kaki', que en



Auzmendi-Matxain familiako kideak Araizko Azkarate herrian. Ezker-eskuin, goian: Antonio, Jose Mari eta Bittori. Behean, Mariaje, Marivi, Lurdes, Iñaki eta Julian (Julian Auzmendik emana).



Bittori Matxain eta Jose Mari Auzmendi (Julian Auzmendik emana).



Jose Mari Auzmendi eta Bittori Matxain. Ubitarten bizi zirenean, 1960ko hamarkadan (Julian Auzmendik emana).

[eu] Ikaztegi horren aldamenean espaloia baino beherago, etxebizitza bat zegoen, non Rufina Ugalde bizi baitzen. Olazargo Jose Frantziskoren alaba, bakarrik bizi zen, oso behartsua zen eta batzuek gogoan dute nola etxe ondoan, frontoiko terrazan lotuta egoten ziren baserritarren astoen gorotzak jasotzen zituen gero baratzean erabiltzeko.

Goiko solairuan, besteak beste, Felix Garai Agirre eta Agustina Eraña Ruiz de Gaunaren familia bizi izan zen 1936az geroztik eta urte askoan. Arabarrak ziren. Gizona Larrean jaioa zen eta Araiatik azaldu zen herrira; emaztea Ozaetan jaiotakoa genuen. Lau alaba izan zituzten: Josefa, Paquita, Conchita eta Piedad.

Baita ere, auzmenditarrak bizitu ziren atari honetan. 1957an azaldu ziren Legazpira, Nafarroako Azkarate herritik, Jose Mari Auzmendi eta emazte Bittori Matxain beren bederatzi seme-alabekin. Aurrena, zazpi urtez, Telleriarteko Ubitarten jarri ziren. Gero Itxaropen auzoan etxea erosi zuten, baina Bittorik biriketako gaitz-

[es] 1978 murió en Arrolamendi, cuando hacía montañismo; el otro, Sabin, se hizo sacerdote. Tras la guerra del 36, Pedro y Tomasa tuvieron carbonería en los bajos del edificio. El carbón lo aportaba Patricio Etxeberria y el camión descargaba por una trampilla situada en la acera.

Pegando a la carbonería, en el sótano, vivía sola una mujer, Rufina Ugalde, hija de Jose Francisco de Olazar. Era muy pobre y los vecinos de edad la recuerdan recogiendo los excrementos de los burros de las caseras los días de mercado, para luego emplear ese estiércol en su huerto. Los burros solían estar atados ahí cerca, en la terraza superior del frontón.

Asimismo, en este portal vivieron los Auzmendi. Jose Mari Auzmendi y Bittori Matxain llegaron a Legazpi desde el pueblo navarro de Azkarate, en 1957. Lo hicieron con sus nueve hijos. Los primeros siete años residieron en el caserío Ubitarte de Telleriarte. Luego compraron casa en Itxaropen, pero Bittori tenía una afección pulmonar y no



Ezkerretik hasita, Paquita, ama Agustina, Piedad, Conchita, aita Felix eta Josefa. (Yolanda Gomezek emana).



Felix Garai Aguirre eta emazte Agustina Eraña Ruiz de Gauna (Yolanda Gomezek emana).



Arantxa Maiztegi eta Yolanda Gomez (Yolanda Gomezek emana).



Seberi Inza etxaurrean, Ines Beitialarrangoitia eta Yolanda Gomezekin (Yolanda Gomezek emana).



Manuel Gomez eta Piedad Garai kotxea erosi berritan (Yolanda Gomezek emana).

[eu] tza zeukanez ezin zuen hango joan-etorria egin eta orduan, 1971. urtetsuan, frontoi atzeko etxe honetara aldatu. Seme-alabak alde egiten joan ziren eta ama Bittori hemen hil zen 1997an.

podía subir esas cuestas, de manera que pronto, hacia 1971, se instalaron en esta casa de detrás del frontón. Los hijos fueron abandonando la vivienda y la madre murió en esta casa en 1997, con 88 años. En la última planta, a partir de 1936 y lo largo de varias décadas, vivió la familia de los alaveses Félix Garai Agirre y Agustina Eraña Ruiz de Gauna, él nacido en Larrea y llegado desde Araia, la esposa natural de Ozaeta. Tuvieron cuatro hijas: Josefa, Paquita, Conchita y Piedad. [es]



Santi Gabiriaren denda
(Amaia Enrique Gabiriak emana).



Santi Gabiria lantokian katuarekin
(Amaia Enrique Gabiriak emana).

[eu]

Santi Gabiriaren argazki-denda

Bebarruan, 'Bikuña' taberna egon zen tokian, Santi Gabiriak argazki-denda zabaldu zuen 1958an. 1966ra arte jardun zuen, eta gero Jesus Anduezak eman zion segida negozioari.

Santi Gabiria benetako instituzio bat izan zen Legazpin. Etxetorren jaio zen 1935ean. Hamalau urte zituela, Patrizioren fabrikan ari zela, lan-istripua izan eta eskuko bi hatz galdu zituen. Hemezortzi zituela, soldaduskatik libratuko zela jakinik, argazkigintza ikasten hasi zen, Donostiako Felix Maturanaren aldamenean. Lehenbiziko argazki-estudioa, Etxetorreko etxebizitzan bertan ipini zuen. 1958an, errentan hartu zuen Primo de Rivera kaleko bebarru hau, eta bertan argazki-denda zabaldu: Foto Gabiria. 1958-66 epean herriko bizitza soziala jaso zuen argazkien bidez: festak, ezkontzak, bataioak, lehen jaunartzeak… 1967an Jesus Anduezak hartu zuen

[es]

Tienda de Santi Gabiria

A la altura de la acera, en el lugar que ocupó el Bar Bikuña, tuvo Santi Gabiria su tienda y laboratorio de fotografía, a partir de 1958. Trabajó allí hasta 1967, y entonces traspasó el negocio a Jesús Andueza.

El fotógrafo Santi Gabiria, toda una institución en Legazpi, nació en Etxetorre en 1935. Cuando tenía 14 años y trabajando en la factoría de Patricio Etxeberria perdió dos dedos de la mano. Con 18, ya sabiendo que no debería hacer el servicio militar, comenzó a estudiar fotografía de la mano de Félix Maturana, en San Sebastián. Su primer estudio de fotografía lo tuvo en su casa natal, en Etxetorre. En 1958 entró a renta en esta casa de la calle Primo de Rivera y abrió su tienda de fotografía: Foto Gabiria. Entre 1958 y 1966 retrató la vida social de Legazpi: fiestas, bautizos, comuniones, bodas…

En 1967 traspasó la tienda a Jesús Andueza. Santi tra-

[eu] denda hori, eta Santi beste zeregin batean murgildu: agente komertzial; baina argazkizaletasuna baztertu gabe. Kotxe-istripuan hil zen, 1990ean, 55 urte baino ez zituela; eta berarekin batera, bere bi txakur maiteak, Udine eta Pax.

Benito Hernandezen inprimategia

1962. urte aldera, Benito Hernandez Zabalak bere Korosti inprimategia jarri zuen abian beheko solairuan, errepidea baino beherago. Aurretik, 1950ean hasita, Telleriarteko erdigunean eta Kale Nagusian (Korosti Kafeak egondako tokian) eduki zuen, eta 1968an Patrizio Etxeberria Kalera eraman zuen.

Dirudienez, Benito izan zen lehena Korosti izena komertzialki erabilitakoa. Tolosan jaioa zen, aita Renfek hara bidalitako bidalitako kapataza zuelarik, eta ama amezketarra, Pello Zabala frantziskotarraren izeba. 1936an, hamabost urte zituela, Benito Santoñan zen, ontzi baten zain, gerratik ihes egiteko, baina frankistek preso hartu eta Miranda de Ebron eduki zuten giltzapean.

Hurrengo bi atariak

Hurrengo bi etxeak 1940ko hamarkadan eraiki ziren. 6 zenbakikoa, hura ere, Brinkolako Jose Mari Agirrezabalena zen, eta bizilagun hauek izan genituen, besteak beste: Felipe Alberdi, zeinak argindar-denda eta tailertxoa eduki baitzuen bertan; eta arindarrak eta armendariztarrak.

Juan Bautista Armendariz Nafarroan jaioa zen, Hiriberri Arakilen, 1899an. Aita, Miguel, errotaria zen eta, etxe hura existitzen ez bada ere, errotaren aldaparoa hantxe dago oraindik. Juan Bautistak maisutzako ikas- [es] bajó a partir de entonces como agente comercial, pero sin abandonar la afición a la fotografía. Falleció en 1990, a los 55 años, al sufrir un violento accidente con su coche. También murieron sus dos perros, a los que adoraba: Udine y Pax.

Imprenta de Benito Hernández

Hacia 1962, Benito Hernández Zabala montó en el sótano su imprenta Korosti. Antes, a partir de 1950, la había tenido en el casco urbano de Telleriarte y en el local de la Calle Nueva que luego ocupó Cafés Korosti. En 1968 se instaló en la calle Patrizio Etxeberria. Según parece, Benito fue la primera persona que empleó ese nombre como marca comercial.

Era nacido en Tolosa, hijo de un capataz de la Renfe y una amezketarra, tía del franciscano Pello Zabala. En 1936, con quince años, Benito se encontraba en Santoña, esperando un barco que le alejara de la guerra, y entonces los franquistas lo capturaron y lo tuvieron preso en Miranda de Ebro.

Los dos portales siguientes

En el siguiente portal (durante el franquismo, Primo de Rivera 6), que fue edificado también por José Mari Agirrezabal de Brinkola, estos fueron algunos de los vecinos: Felipe Alberdi, que tuvo tienda y taller de electricidad ahí mismo; los Arin y los Armendariz.

Juan Bautista Armendariz era nacido en Hiriberri Arakil en 1899. Su padre era molinero y hoy en día, si bien el molino ha desaparecido, pervive la vieja presa de agua. Estudió Magisterio en Pamplona y en las vacaciones se dedicaba, en Ziordia, a hacer traviesas de madera para




Benito Hernandez (Javier Hernandezek emana).



Juan Bautista Armendariz. Umeak, Axun, Juan Jose eta Julian (Julian Armendarizek emana).



Juan Bautista Armendariz seme-alabekin. Atzean, Ana Mª, Miguel Angel. Aurrean, Axun, Juan Jose eta Julian (Julian Arzmendarizek emana).



Juan Bautista Armendariz maisua 1950-51ko ikasleekin (Julian Arzmendarizek emana).

[eu] ketak egin zituen Iruñean, eta oporretan trenbide-trabesak egin ohi zituen Olaztin. Intzako Catalina Saralegirekin ezkondu eta herri horretantxe jaio ziren semealaba denak: Miguel (1929), Ana Mari, Miguel Angel, Maria Jesus, Asun, Julian (1941) eta Juan Jose (1944).

Lehenbizi Intzan jardun zuen maisu. Bailarako eskola zen hura eta inguruko herrixketako haurrak biltzen zi-

el ferrocarril. Se casó con Catalina Saralegi, de Intza, y allí ejerció de maestro, con niños de todos los pueblitos de alrededor y de todas las edades. Todos los hijos nacieron en Intza: Miguel (1929), Ana Mari, Miguel Angel, María Jesús, Asun, Julián (1941) y Juan José (1944). [es]

En 1945 enviudó y entre 1947 y 1960 trabajó en las escuelas públicas de Legazpi. Tras jubilarse, fue uno de



Ezker eskuin, Ixiar Arin, Antton Arin, Mª Luisa Letamendia eta Nekane Arin (Antton eta Julianek emana).



Antton Arin, Mª Luisa Letamendia, Nekane Arin eta Ixiar Arin (Antton eta Julianek emana).



Mª Luisa Letamendia eta Juan Arin (Antton eta Julianek emana).

[eu] ren bertara, gelan adin desberdinetako neska-mutikoak edukitzen zituelarik.

Juan Bautistak 1947-1960 urte-bitartean jardun zuen Legazpin. Alargundu berria zen, 1945ean hil baitzen Catalina. Erretiroa hartu ostean, guraso-elkarteko (Padres de Familia elkartea) fundatzaileetako bat izan zen. Alaitasuna errondaila sortu zuen, anaia Julianekin batera, eta horko zuzendari ere aritu zen eta hainbat umeren sokazko musika-tresnen irakasle ere izan zen. 1974an omenaldi egin zion Udalak, bai berari bai Bittor Yarzari. 85 urte zituela hil zen.

Etxetik zekarren musikazaletasuna. Aitak dultzaina jo ohi zuen eta baita atabala eta gitarra ere. Herrietako festetan jo ohi zuen eta halaxe txanpon batzuk irabazten.

Beste bizilagun batzuk, arindarrak. Juan Arin Muñoa eta Maria Luisa Letamendia Arrillaga Tolosaldeko alegiarrak ziren. Gizona Papelerara etorri lanera eta Zubitxon jarri ziren bizitzen. Han jaio ziren Ixiar, Julian eta Nekane (ikastolako lehen andereñoa). 1947an etorri ziren frontoi atzeko etxera eta bertan jaio zen Antton Mari txikiena. Ama bertan hil zen 1997an, 88 urte zituela.

Hurrenagoko eraikina (Primo de Rivera 8), besteak baino estuagoa, osorik Nicasio Lasa harakinarena zen

los fundadores de la Asociación de Padres de Familia. [es] Fundó la rondalla, junto con su hermano Julián, la dirigió y enseñó a tocar instrumentos de cuerda a decenas de chavales. En 1974 recibió el homenaje del Ayuntamiento, junto con Bittor Yarza. Falleció a los 85 años.

La afición por la música la traía desde su casa natal. El padre, Miguel, dominaba la dulzaina y la guitarra y tocaba en las fiestas de los pueblos, consiguiendo así unos dineros. Tanto el padre como el tío Julián tocaban además el atabal.

Otra familia fue la de los Arin. Juan Arin Muñoa y Maria Luisa Letamendia Arrillaga eran de Alegia. El hombre consiguió trabajo en la Papelera y se instalaron en Zubitxo. Allí nacieron Ixiar, Julián y Nekane (la primera andereño de la ikastola). Llegaron a esta casa del casco urbano en 1947, donde nacío el hijo menor Antton Mari. Aquí falleció la madre en 1997, a los 88 años.

La siguiente casa, Primo de Rivera 8, era más estrecha y la edificó el carnicero Nicasio Lasa. Luego la fue vendiendo a sus inquilinos. En la planta baja estuvo, al comienzo, el garaje y taller del camionero Jorge Peñagarikano. Vecinos, entre otros, fueron Angel Aztiria y su esposa Pilar Carnero (él trabajo como chófer de camión



Rufina Usabiaga eta Miguel Etxezarreta okina, Errioxako Anguiano herrian. (Joserra Etxezarretak emana).



Etxezarretatarren dendako eskaparate ondoan, Mª Isabel Garate, Anttoni Antia eta Rufina Usabiaga (Joserra Etxezarretak emana).



Pilar Carnero eta Angel Aztiria (Txaro Aztiriak emana).

[eu] hasiera batean, eta gero bizilagunak erosten joan ziren bakoitzak bere partea. Bebarruan Jorge Peñagarikano kamioizaleak garaje eta tailerra zeukan. Eta goiko bizitzetan, Angel Aztiria eta emazte Pilar Carnero (gizona Udaleko kamioi-gidaria, 1960an Txipitzalletik etorriak), Bixente Laskurain (Zumarragan aritzen zen taxista) eta Jesus Barandiaran 'Naparra' (kamioizalea, gero Txoko ondoko gasolindegia gobernatu zuena). Aztiriaren etxebizitzan, berau baino lehenago, Sebastian Murua bizitu zen, Coel enpresaren sortzaileetako bat.


Geroago, Agustin Areizaga eta Lorenzo Goikoetxearen familiak bizitu ziren baita ere.

Bebarru horretan, 1959tik aurrera, eta zazpi bat urtetan zehar, Etxezarretatarren okindegia egon zen, eta sotoan labea. Hiru anaia jardun ziren, Miguel, Eduardo eta Jesus. Miguel, aurrena, Urretxuko 'La Estrella' okindegian aritutakoa zen. Irina, Jose Leon Taberna nafar enpresarena ibiltzen zuten, eta labea Balart markakoa zuten. Gero labea Urtatzagarakoa baserri ondoan jarri zuten eta Miguel Etxezarreta, arratsaldez, ogi sobatua egiten hasi, 'ogi nafarra' esan ohi ziotena. ❖

[es] para el Ayuntamiento y como bombero, y hasta 1960 vivieron en Txipitzalle); Bixente Laskurain (que ejercía de taxista en Zumarraga); y Jesús Barandiaran 'Naparra' (camionero, regentó la gasolinera de al lado del bar Txoko). En el piso de Aztiria, previamente, vivió Sebastián Murua, fundador de la empresa Coel. En una etapa posterior, otros vecinos fueron Agustín Areizaga y Lorenzo Goikoetxea.

En la planta baja, a partir de 1959 y a lo largo de unos siete años, estuvo la tienda y despacho de pan de los hermanos Etxezarreta. El horno se hallaba en el sótano. Trabajaron en la panadería tres hermanos, Miguel, Eduardo y Jesús. Miguel, primeramente, había trabajado de panadero en 'La Estrella' de Urretxu. Usaban harina de José León Taberna y tenían horno de marca Balart. Luego trasladaron el horno a Urtatzagarakoa y Miguel comenzó a elaborar pan sobado ('pan navarro') por las tardes. ❖





04
[plaza]

1. Ospital zaharra
2. Kontseju zaharra
3. Txokolateronea
4. Kontseju-etxea
5. Otsategi
6. Sarasolanea
7. Ignazioagirrenea
8. Etxezuri



04 _ plaza

OSPITAL ZAHARRA 1 EL HOSPITAL DE LA VILLA DE LEGAZPI

Antonio Prada Santamaría



Ospital zaharra eta Txokolateronea, 1927. urte aurretik.

[eu]

Legazpiko "ospital zaharrak" ez zuen gaur egungo ospitale batek duen funtziorik, osasunari edo medikuntzari lotutakorik, ez behintzat zuzenean. Esan genezake gure probintziako herri bakoitzean zeuden ospitaleak fundazio modukoak zirela, gaur egun Ongintza deituko genukeen guztian laguntzen zutenak, udal erakundeak behar bezala gidatuta eta zuzenduta, zaindari gisa, eta bikarioak lagunduta.

Bestelako izenez ere ezagutu izan da, hala nola, *Behartsu Lotsagarrien Ospitalea* edo *Miserikordiako Ospitale Santua*. Eskaera bat jaso ondoren, kontzejuetako agintariek, geroago udalekoek, beren kabuz sostengatu ezin ziren pobreak onartzen zituzten, nahiz eta leku txiki bat ere egon, ohe kopuru txikiarekin eta gainerakoetatik aparte, gaixoak artatzeko. Eraikinaren barruan egon zitekeen, halaber, tokiren bat pobreak ez ziren herritarrentzat, garai hartako erlijioak sorrarazitako girotik hurbilago bizi ahal izan nahi zutenentzat sortua. Normalean norbere gela izaten zuten, beren kontura eraikia.

Inguruko herrietan bezala, ospitaleko etxezain edo maiordomo kargua izan ohi zen, udal-hauteskunde egunean aukeratzen zena (alkatearekin, erregidorearekin, epaimahaikideekin, eskribau-diputatuarekin, parrokiako tenpluko maiordomoarekin eta abarrekin batera). Gaur egungo zinegotzi baten moduko kargua zen.

Etxezain hura ez zen eraikinean bizi, eta diru kontuak administratzen zituen. Beharrezkoak zirenak eskuratzen zituen ospitalearen funtzionamendu egokiari begira eta, oro har, ordena onari eusteaz arduratzen zen.

Etxea bertatik bertara zaintzeko eta mantentze-lanak egiteko ospitalezaina zegoen. Horrek, bakarka edo emaztearekin batera, ospitaleko eguneroko lana egiten zuen.

Ospitalearen sarrera-iturriak bat baino gehiago izan zitezkeen: legazpiarrek beren testamentuetan utzitako ondasunak, partikularrek sortutako errukizko obrak, zeinen bitartez eraikinean bizi ziren "behartsu lotsagarrientzat" zuzenean dirua ematen zuten eta abar.

[es]

El edificio destinado a hospital de la población de Legazpi no tenía la función que hoy tiene, relacionada con la Salud, o con la Medicina, al menos de forma directa. Podríamos contemplar el hospital de cada una de las poblaciones de nuestra provincia como la sede de una fundación que ayudaba en todo aquello que hoy llamaríamos Beneficencia, convenientemente *guiada y dirigida* por la institución municipal, como patrona, con el apoyo del párroco.

En ocasiones puede conocerse su nombre como *Hospital de los Pobres Vergonzantes*, o como *Santo Hospital de la Beneficencia*: tras una solicitud en ese sentido, las autoridades concejiles, más tarde municipales, admitían en ese edificio a los pobres de la población que no pudiesen sustentarse por sí mismos, aunque también solía haber un pequeño lugar, con un número reducido de camas y apartado del resto, para atender a enfermos. Podía, también, haber algún lugar dentro del edificio, destinado a un particular que, no siendo pobre, pidiese y obtuviese autorización para vivir allí de una forma más cercana a lo que inspiraba la religión de la época, con sus propias habitaciones, normalmente construidas a sus propias expensas.

Como en las diferentes poblaciones de la zona, existía la figura del Mayordomo del Hospital, persona elegida el día de las elecciones de los oficiales municipales (junto con el alcalde, el regidor, el jurado, el diputado de escribanos, el mayordomo del templo parroquial, etc., etc.), teniendo la consideración de lo que hoy llamaríamos *concejal*.

No viviendo en el edificio, este mayordomo administraba el dinero, adquiría lo necesario para su buen funcionamiento, y se ocupaba de que se mantuviere, en el ámbito general y en último término, el buen orden.

Para el cuidado de lo que allí pasaba, y para el mantenimiento diario del edificio estaba la figura del hospitalero, quien de forma individual o con su esposa, podría dedicarse a atender ese día a día del hospital.

[eu] Diru hori ez zen zuzenean behartsuen onurarako erabiltzen, baizik eta horrekin, ospitalea banku-erakundea balitz bezala, dirua mailegatzeko erabiltzen zen, "zentsua" izeneko entitate juridikoaren bidez (gaur egun mailegua deituko geniokeena). Zentsu horiek urteko interesak eskaintzen zituzten, eta haiekin bakarrik erantzuten zitzaien ospitaleko etengabeko beharrei[2]. Diru gehiago behar izanez gero, dohaintzetara jo zitekeen, edo kontzejuak berak edo eliz erakundeak berak emandako maileguetara.

Hona hemen *Legazpi Hiriko Ospitale Santuaren Araudia*, 1827an egina:

"Aurrerantzean ospitaleko behartsuen artean begirune eta lasaitasun handiagoa egon dadin, Manuel Asensio de Aguirre izendatuko dugu ospitalezain, eta bertan dauden behartsu guztiek obeditu beharko diote, gauza onetan eta aginduak irauten duen bitartean. Horretan hutsegiteren bat gertatzen bada, ospitalezainak maiordomoari parte eman beharko dio, honek hari entzun ondoren eta ospitalearen zaindiariekin hitz egin ondoren, gaizkileak behar duen zigorraz erabaki bat har dezan.

Ospitale horretako bai garbiketa guztiak, bai bertan dauden gaixoak eta behartsuak artatzea, batak besteari lagunduz egin beharko dira edo, bestela, txandakatuz, ospitalezainak agindutakoaren arabera, bera ere halako lanetan partaide izanez.

Las fuentes de ingresos del hospital podían ser varias: [es] desde las mandas dejadas por los propios legazpiarras en sus testamentos, a las obras pías que, fundadas también por particulares, dejaban dinero directamente para los pobres vergonzantes, reunidos en el edificio sobre el que tratamos.

Ese dinero no se utilizaba directamente en su beneficio, sino que, con él, y como si fuera el hospital una institución bancaria, se dedicaba a prestar dinero, por medio de la institución jurídica del censo (lo que hoy llamaríamos *préstamo*). Esos censos ofrecían unos intereses anuales, y era solo con ellos con los que se atendían las necesidades del hospital, de forma permanente[1]. En caso de que se necesitare más dinero, se podía recurrir a donaciones o a dinero dejado, a préstamo, por el propio concejo o por la propia institución eclesiástica.

Tenemos a nuestra disposición el *Reglamento del Santo Hospital de la villa de Legazpia*, realizado en 1827:

"Para que en lo sucesivo haya mayor respeto y tranquilidad entre los pobres de él, se nombra por hospitalero a Manuel Asensio de Aguirre, a quien deberán obedecer todos los pobres que hay en él, en cosas buenas y hasta que les ordenare, y si en esto faltase alguno, dará parte el hospitalero al mayordomo para que éste, después de oído aquel, conferencie con los

Zentsu horietako baten adibidea da 1641eko otsailaren 10ean Pedro de Aizquibel, Asencio de Aizquibel eta Catalina de Eyçaguirre Vidaurreta zumarragarrek gure ospitalearen alde sortutakoa, urteko interesa dukat batekoa izanik. Horretarako Joan de Guridi de Echeandia maiordomoak hogei dukat utzi zizkien, Christoval de Aguirre Ygueraldek horretarako utzitako dirutik zetozenak. Zumarragatar horiek Vidaurreta eta Aizquibel baserriekin bermatzen zuten mailegua eta etekinak ordaintzea, baserri haien lursailekin batera. Interesei zegokien lehen ordainketa dokumentua egin zen egunetik urtebetera egin behar zen. Baldintzak ezarri zitzaizkien ondasun bermatzaileei. Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoa - Archivo Histórico Provincia del Gipuzkoa, 1/4030, B, 55r – 56r

[1] Ejemplo de uno de estos censos es el fundado a beneficio de nuestro hospital el 10 de febrero de 1641 por los zumarragarras Pedro de Aizquibel, Asencio de Aizquibel y Catalina de Eyçaguirre Vidaurreta, por valor de un ducado de interés anual, pues para ello les había prestado el mayordomo, Joan de Guridi de Echeandia, veinte ducados, provenientes del dinero que para ello dejó Christoval de Aguirre Ygueralde. Esos zumarragarras garantizaban el pago del principal y réditos con los caseríos zumarragarras de Vidaurreta y Aizquibel, junto con todos sus pertenecidos. La primera paga de intereses habría de ser satisfecha en el día de la fecha del documento en un año. Se impusieron condiciones a los bienes garantes. En Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoa - Archivo Histórico Provincia del Gipuzkoa, 1/4030, B, 55r – 56r

[eu] Ospitalezainak gaixoren bat hil-zorian edo etsipena emanda ikusiko balu, haren kutxako giltzak hartu, ondasunak bildu eta maiordomoari emango dizkio zaindu ditzan.

Urteko egun guztietan arrosario santua errezatu beharko da, denak elkarturik, ospitalezaina buru delarik eta, hura ez balego, haren emaztea edo horretarako egokiagoa dena. Udan, maiatzeko Santikutz egunetik iraileko Santikutz egunera arte, beheko solairuan errezatuko da, eta urteko gainerako egunetan, goiko solairuan. Batean zein bestean, otoitzerako deia egin ondoren.

Ospitalezainak etxeko geletan zein sukaldeetan egiten diren behartsuen bilera guztiak zaindu behar ditu, harmoniatsuak eta istilurik gabeak izan daitezen. Liskarrik bada errieta egin behar du eta maiordomoari parte eman, gaizkile nagusiaren aurkako beharrezko probidentziak har ditzan, hala behar izanez gero.

Egoiliar guztiek, beren baratzetarako komunean egiten den simaurra erabili ahal izateko, saiatu behar dute garoa eta lastoa ekartzen bertan botatzeko. Sortzen dena guztion onurarako erabiliko da eta soberan geratzen dena ospitalezainak erabakiko du zer egin.

Otoitzekin batera arimentzat jotzen den txilina ospitalezainak hartuko du datorren urteko urtarrilaren lehenetik aurrera, 1828tik aurrera. Dagokion orduetan joko du eta dagokion garaian jasoko du ordaina”[2] (sic). ❖

[2] Legazpiko Udal Artxiboa – Archivo Municipal de Legazpi, c) 67/12

[es] compatronos sobre el castigo que se ha de dar el delincuente según su merecimiento.

Que todas las limpiezas de dicho hospital, asistencia a los enfermos que hubiese, como a los pobres mendigos que lleguen a él, deberán hacer ayudándose unos a otros, o bien alternando según les mandare el hospitalero, incluyéndose también él en tales fatigas.

Que siempre que se viese cualquiera de los enfermos que caigan en el hospital en punto de expirar o deshauciado, recogerá las llaves de la arca que tuviese tal enfermo, y recogerá cuanto perteneciese a éste, y luego entregará al mayordomo para su custodia.


Que todos los días del año deberán rezar el santo rosario todos reunidos, capitulando por el hospitalero, y en falta de éste, por su mujer, o por la que fuere más apta para el efecto, para cuyo acto deberán reunirse el verano que va desde Santa Cruz de mayo al de septiembre en el piso bajo, y en lo restante al año, en el piso de arriba, y en uno y otro a luego del toque de oraciones.

Que el hospitalero cuide el que todas las reuniones de los pobres, así en casa como en las cocinas, sean armoniosas y no quimerosas, reprendiendo él, si tal sucediere, y dando parte al mayordomo en caso necesario para que se tomen las debidas providencias contra el delincuente principal.

Que para que todos puedan utilizarse del ciemo que se haga en el común, para sus huertas, procuren también traer todos helechos o paja para echar en él, lo que quedase ahora queda a beneficio de todos y cuidado del hospitalero para beneficiar y utilizar el ciemo que sobrare.

Que la campanilla que se toca para las ánimas al tiempo de las oraciones tome el hospitalero desde primero de enero de año próximo de 1828 en adelante y la toque a sus horas, y cobre su estipendio en sus tiempos”[2] (sic). ❖

[2] Este reglamento, en Legazpiko Udal Artxiboa – Archivo Municipal de Legazpi, c) 67/12.



KONTSEJU ZAHARRA (Maixukoa) 2 ANTIGUA CASA CONSISTORIAL (Maixukoa)



Kontseju zaharra 1927. urte aurretik (Arantxa Berasategik emana).

[eu]

Udaletxetik eta Otsategitik gertu etxe batzuk zeuden, 1927an desagertu zirenak, eskolak egin zirenean eta aldameneko frontoia berritu zenean. Ez dugu horko egoera guztiz argitzerik lortu.

Etxe haietako bat Kontseju zaharra zen, Maixukoa izenez ere ezaguna. 1787an deitura Casa Concejil Vieja zen. 1832an, Mª Josefa Makibar Zangitu agertzen zaigu bertako jabe eta bertan bizitzen. Geroxeago, 1857an, haren alaba bat ageri da bertako bizilagun, Beatriz Zabaleta Makibar, Jose Guridi Lasarekin ezkonduta, hau berriz lehen hezkuntzako maisua. Eta 1894ko udal erroldan, hauen alaba Enrica (Enriqueta) Guridi Zabaleta dugu, ogibidez dendaria.

Enriqueta hura ez zen ezkondu eta, holaxe, hogeigarren mende hasieran beste abizen batzuk ikus ditzakegu etxe honi lotuak.

Bertako bizilagunetako batzuk, bai 1910ean bai 1920an, Tiburcio Yarza Zabaleta (1879) eta Vicenta Urzelai Zabaleta (1884) senar-emazteak ditugu; biak Egialdean jaioak, bata Urtatzazarren, bestea Eguzkitzan.

Eibartik etorri berriak ziren, 1903-1904 inguruan han jardun baitzen hargin-lanean Tiburcio, Astelena frontoia eta beste zenbait eraikin altxatzen. Eta bertan jaio zitzaizkien lehenengo eta hirugarren umeak, Bittor eta Dominga ('Domi').

Legazpin zegoela, Vicentak sakristau lanak egin ohi zituen, eta lantegi horretan jardun zuen gero seme Bittorrek ere. Gizon hau oso-oso estimatua izan zen herrian.

Tiburcio eta Vicentak seme-alabok izan zituzten: lehenengoa, esan bezala, Bittor (1906), eta gero Bittori, Dominga, Juan Jose eta Carmen; azkeneko hau, 1916an jaioa. Tiburcio nahiko gazterik hil zen.

"Etxe hau, nire amonak, Vicenta Urzelaik, heredatu zuen, izeba ezkongabe batek emanda. Nonbait, amonak lagundu izan zion etxean", adierazi zigun Ixiar Yarzak, Bittorren alabak. "Etxea bota zutenean, amona eta bere seme-alabak aldameneko etxe batera aldatu ziren, Aseginolazanera. Eta gero Kale Berrira, bikarioe-

[es]

Cerca de la casa consistorial y de la casa Otsategi había unas casas que desaparecieron en 1927, al edificarse las escuelas públicas y renovar el frontón. No hemos podido aclarar del todo este extremo.

Una de esas casas era el Ayuntamiento viejo, también llamada Maixukoa (del maestro). En 1787, se le denominó Casa Concejil Vieja. En 1832, aparece como dueña Mª Josefa Zabaleta Makibar y vive ahí mismo. Más tarde, en 1857, reside una hija suya, Beatriz Zabaleta Makibar, casada con José Guridi Lasa, quien era maestro de primera enseñanza. Y en el padrón de 1894 nos aparece su hija Enrica (Enriqueta) Guridi Zabaleta, de profesión tendera.

Aquella Enriqueta no se casó y a comienzos del siglo figuran gentes de otros apellidos como residentes aquí. Por ejemplo, en los años 1910 y 1920, vivían Tiburcio Yarza Zabaleta (1879) y su esposa Vicenta Urzelai Zabaleta (1884), ambos del barrio de Egialde, Tiburcio de Urtatzazar, ella de Eguzkitza. Habían llegado a esta casa desde Eibar, porque alrededor de 1903-04 Tiburcio trabajó de cantero, levantando el frontón Astelena y otros edificios. Allí nacieron sus hijos primero y tercero, Bittor y Dominga 'Domi'.

Estando residiendo en Legazpi, Vicenta ejerció de sacristana, y a eso mismo se dedicó luego luego su hijo Bittor, un hombre muy querido en el pueblo.

Tiburcio y Vicenta tuvieron esta descendencia: primero nació Bittor (1906), luego Bittori, Dominga, Juan José y Carmen. Esta última vino al mundo en 1916. Tiburcio murió bastante joven.

"Esta casa la heredó mi abuela Vicenta Urzelai, de manos de una tía soltera. Según parece, nuestra abuela ayudaba en casa a aquella señora", nos comentó Ixiar Yarza, hija de Bittor. "Cuando se echó el edificio la abuela se instaló con los hijos primero en una casa cercana, la de los Aseginolaza, y luego en Lore Toki, en la Calle Nueva, al lado de la casa de los curas. Nuestro padre vivió allí antes de casarse".

Por lo que respecta a los hermanos de Bittor, Bittori se casó al caserío Eguzkitza, con Joxe Zabaleta, de Egi-



Eserita, bi eskuinekoak: Eugenio Garrido eta Josefa Ignacia Aranguren (Marina Arangurenek emana).



Eugenio Garrido maisua eskola-umeekin (Marina Arangurenek emana).

[eu] txe ondoan egin zuten Lore Toki etxera. Gure aita, ezkondu aurretik, hor bizi izan zen".

Bittorren anai-arrebei dagokienez, Bittori Eguzkitza baserrira ezkondu zen, Egizabalgo Joxe Zabaletarekin. Gertatu zen hango osaba-izebek, Justo eta Santurak, ez zutela familiarik izan eta odol berria behar zela baserrian. Dominga eta Juan Jose Madrilera joan ziren bizi izatera, bigarren honek burdindegia eta errodamendu-negozioa eduki zuelarik. Eta Carmen Legazpin bizi izan zen, Patxi Bengoetxea garraiolariarekin ezkonduta.

Bittor Yarzak lerro gehiago merezi ditu. 1974an omenaldi egin zion Udalak, bai berari bai Juan Bautista Armendarizi (bigarren hau, eskolako maisua eta Alaitasuna errondailako zuzendari izandakoa hainbat urtez). Sei urte zituela hasi zen meza-mutil (amak sakristau ziharduela), gero sakristau jardun zuen urte askoan, baina gizon honen herrigintza askoz harago joan zen: ur kontuetan asko lagundu zion Udalari, eta baita Patrizioren fabrikari, besteak beste ederki zekielako ur-hozabal. Sucedió que el matrimonio que vivía allí, los tíos [es] Justo y Santura, no tuvieron hijos y hacía falta sangre nueva para sacar adelante el caserío. Los hermanos Dominga y Juan José marcharon a Madrid y este último montó una ferretería y tuvo también negocio de distribución de rodamientos. Carmen vivió en Legazpi, casada con el transportista Patxi Bengoetxea.

Bittor Yarza merece unas líneas. El Ayuntamiento le homenajeó en 1974, junto con Juan Bautista Armendariz, maestro de enseñanza primaria y director de la rondalla Alaitasuna. Comenzó de monaguillo a los seis años y luego ejerció de sacristán durante muchos años, al igual que lo había hecho su madre. Pero hizo muchas más cosas por el pueblo: ayudó al Ayuntamiento y a la fábrica de Patricio en asuntos de aguas, dado que conocía todas las conducciones, y también fue bombero voluntario. Además, en el periodo 1949-1955 ejerció de concejal. El cronista José Mari Urcelay, en el primer tomo de 'Legazpi siglo XX', dejó escrito: "Fue siempre la imagen del hombre providencial, presto al apoyo en cualquier lugar en que se necesitara ayuda".



Maixukoa etxeko Bixenta Urzelai eta errain Maria Mujika (Ixiar Yarzak emana).



Maixukoa etxeko Tiburcio Yarza eta Bixenta Urzelairen bost seme-alabak. Juan Jose, Carmen, Dominga, Bittori eta Bittor (Ixiar Yarzak emana).



Maixukoa etxeko Bixenta Urzelai bi bilobarekin, Ixiar Yarza eta Mari Tere Bengoetxea, 1940ko hamarkada hasieran (Ixiar Yarzak emana).




Bittor Yarza eta Maria Mujika emaztea (Ixiar Yarzak emana).

[eu] diak non zeuden; eta suhiltzaile boluntario ere ibili zen denbora askoan. Gainera, 1949-1955 urte-epean zinegotzi aritu zen. Jose Mari Urcelayk bere 'Legazpi siglo XX' obrako lehen tomoan hau utzi zuen idatzita: "Fue siempre la imagen del hombre providencial, presto al apoyo en cualquier lugar en que se necesitara ayuda".

Bittor Yarzak esan ohi zuen Maixukoa izan zela Legazpiko lehenbiziko desjabetze edo espropiazioa. Etxe horretan Udalari lotutako apopiloak bizitu ziren; adibidez, Angel Enparanza idazkari gaztea, 'señorita Pepita' maistra eta Justo Ruiz de Larrinaga praktikantea. ❖

[es] Bittor Yarza solía comentar que la de Maixukoa fue la primera expropiación que se llevó a cabo en Legazpi. Allí vivieron, alojados como 'pupilos', varias personas relacionadas con la actividad municipal, como el joven secretario Ángel Enparanza, la 'señorita Pepita' (maestra) y el practicante Justo Ruiz de Larrinaga. ❖



04 _ plaza

TXOKOLATERONEA 3 TXOKOLATERONEA



Txokolateronea etxearen iparraldeko aldea pilotaleku zaharreko ezker-pareta ere bazen. Argazki honetan ondo ikusten da Ospital zaharra eta Kontseju-etxe berriaren artean.

[eu]

Kontseju zaharraren aldamenean zegoen eta, hura bezala, 1927an desagertu zen. Bertan, Kontseju zaharreko Mª Josefa Makibar haren seme bat bizi zen, Martin Antonio Zabaleta Makibar (1808-1875), zeinak txokolatetik ateratzen baitzuen bizimodua.

Gainera, haren alaba Isabel Antonia Zabaleta Salsamendi Zumarragan jaiotako txokolatero batekin ezkondu zen: Cipriano Kortaberria Zaldua. ❖


[es]

Al lado de Kontseju zaharra existía un edificio llamado Txokolateronea, desaparecido también en 1927. Allí vivía Martín Antonio Zabaleta Makibar (1808-1875) hijo de la mencionada María Josefa Makibar de Kontseju zaharra y de profesión chocolatero.

Y además, una hija suya, Isabel Antonia Zabaleta Salsamendi, se casó con un chocolatero nacido en Zumarraga: Cipriano Kortaberria Zaldua. ❖



Kontseju zaharraren ondoan ateratako argazkia, gaur egungo Euskal Herria plazatik Bikuña aldera begira, gutxi gorabehera. Ezkerreko aldean bi ate ikusten dira: batetik, zapi zuria duen andrea dagoen lekutik, Txokolateronea etxera sartzen zen (San Joan loreak dauzka ate gainean); bestetik, ate-erdia zabalik dagoen horretatik, Ospital zaharrean sartzen zen. Eskuinetara Aseginolazanea eta Sarasolanea etxeak ikusten dira. Andrea zein den ez dakigu (Ignacio Agirre, Burdinola Elkartea, 9x12.54).



04 _ plaza

KONTSEJU-ETXEA 4 CASA CONSISTORIAL



Kontseju-etxea 1893. urtean (Rafael Munoaren funtsa, Kutxateka).



Kontseju-etxea, gaur egungo udaletxea, Maixukoa, Txokolateronea eta Ospital Zaharra eraitsi eta urte gutxira (Foto Marin, 1940, Kutxateka).

[eu]

Legazpiarrek 1624. urte aldean eduki zuten lehenbiziko kontseju-etxea, alkate Diego Martinez de Vicuña zegoela. Ordura arte, batzarrak, jeneralean, elizatarian egiten ziren. Eraikin hura "Kontsejuak egin zuen, ospitalearen ondoan". Egun ikusten dugun eraikina geroagokoa da: 1730-1752 urte-bitartean burutu zen, arkitekto Jose de Lizardi asteasuarra jardun zelarik. Ana Peña historialariak eraikin honi buruzko artikulua plazaratu zuen 2010ean, Txinpartak aldizkariaren 20. alean, eta han esaten duenez Azkoitiko kontseju-etxea oso-oso antzekoa da, han ere Jose de Lizardi aritu zelarik.

1968an zaharberritze-lan handiak egin ziren kanpo nahiz barruko aldean, eta 1998an asko aldatu zen atzeko partea, izan ere nahita eragindako sute batek kalte handiak eragin zituen beheko solairuan.

Hemeretzigarren mendean, eraikin honetan bizitzak zeuden, eta bertan bizi ohi ziren aguazilak eta maisumaistrak. Bazegoen taberna ere, eta kartzela, eta 1869an soziedadea jarri zen abian.

Legazpiko lehen soziedadea

Datu bitxia da, 1972ko aldizkari batean topatu duguna. 'Legazpia' izeneko aldizkaria, urtekari itxurakoa, plazaratu zen orduan, Jose Gonzalezek koordinatua, Udalaren eskariz. 'Sociedades populares' izenburuko artikulu baten barruan (sinatu gabea), egileak dio 1869an 'Sociedad de Legazpia' jarri zela abian, Udalak errentan utzitako gela batean; areto nagusiaren ondoko gelan, hain zuzen ere. Artean, alkate Antonio Mª de Aztiria zegoen.

"Esta Sociedad tiene por objeto una reunión de amigos a fin de divertirse y estrechar íntimamente las amistades", adierazi zuten jaiotze-agirian. Hasierako bazkideek, hemezortzi lagunek, hogei erreal ordaindu zuten, batik bat berogailurako egurra erosteko enple-

[es]

Los legazpiarras tuvieron su primera casa consistorial hacia el año 1624, con Diego Martínez de Vicuña como alcalde. Hasta entonces, las reuniones de vecinos se realizaban, generalmente, en los pórticos de la iglesia. El edificio "lo hizo el concejo, junto al hospital".

El edificio que ha llegado hasta nuestros días es posterior, levantado entre 1730 y 1752, con el asteasuarra José de Lizardi como arquitecto. La historiadora Ana Peña publicó un trabajo en el número 20 de Txinpartak, en el que comentaba que la casa consistorial de Azkoitia es muy similar, y que allí trabajó el mismo arquitecto.

La fachada trasera es posterior. Más tarde, en 1968, se produjeron unas renovaciones importantes, tanto exteriores como interiores. En 1998 cambió la fisonomía de la zona trasera, debido a un incendio provocado que dañó la planta baja.


A lo largo del siglo XIX, el edificio albergó varias viviendas para alguaciles y maestros y maestras. Hubo taberna, cárcel e, incluso, una sociedad popular.

La primera sociedad recreativa

En la revista-anuario 'Legazpia' de 1972, promovida por el Ayuntamiento y coordinada por José González, nos topamos con un artículo titulado 'Sociedades populares', de autor desconocido. Allí se comenta que en 1869 se puso en marcha la llamada 'Sociedad de Legazpia', que tenía su sede en una habitación contigua a la "sala mayor" de la casa consistorial. El Ayuntamiento la cedía a cambio de una renta. Entonces el alcalde era Antonio Mª de Aztiria.

"Esta Sociedad tiene por objeto una reunión de amigos a fin de divertirse y estrechar íntimamente las amistades", se decía en el acta de constitución de la asociación. Los socios pagaron una cuota inicial de veinte reales, que se destinarían sobre todo a comprar leña para luego poder templar la sala.





Kontsejuko jangelan 1940. urtean, baserritarren Suaro ermandadeko bilera batean:
1.- Pedro Urzelai (Kontsejuko jatetxeko arduraduna); 2.- Antonio Telleria (Muntegi); 4.- Frantzisko Mantxola (Urtatzaazpikoa); 6.- Canuto Plazaola (Masukariolaberri); 8.- Rufino Zabaleta (Olaetxe); 9.- Romualdo Etxeberria (alkatea); 11.- Leonardo Agirre (Ibarrola); 13.-Justo Urzelai (Egialdeko Eguzkitza); 14. Joakin Ormazabal (Elorza); 15. Jose Andres Agirre Zangitu (Barrundiola); 16. Agustin Gerra (Errekaeta); 17. Estanislao Agirre (Igeraldegarakoa); 18. Eustaquio Urzelai (Kontsejukoa, Pedroren anaia); 19. Isidro Olabide (Mirandaolakoa); 20. Nicolasa zerbitzaria (Lucio Vergara).

[eu] gatu zirenak. Hona bazkideak, hitzez hitz orduko grafia gordeta: Martín Salaverri, Martín Maquivar, Juan Ignacio Galarza, Miguel Galarza, José Igº de Galarza, José de Guridi, José Fco de Sangróniz, Aztiria, Juan Martín Lasa, P. Zabaleta, Antonio Urmeneta, José de Zabalo, José Pablo de Zabaleta, Pablo de Aseguinolaza, José Ignacio de Aguirre, José de Aguirre, Antonio Mª de Aztiria eta J. Francisco de Andueza.

Ikusten denez, bazkideen artean alkatea bera zegoen, eta baita Zangroniz bikarioa ere. Bazegoen elkartean lagun gehiago sartzeko aukera, baina hautagaiak bazkideen oniritzi eta adostasuna behar zuen.

Soziedadeak ez zuen asko iraun. Udalak 1872an bertan behera utzi zuen gelaren alokairua.

[es] Estos fueron los socios fundadores, con los nombres con la grafía original: Martín Salaverri, Martín Maquivar, Juan Ignacio Galarza, Miguel Galarza, José Igº de Galarza, José de Guridi, José Fco de Sangróniz, Aztiria, Juan Martín Lasa, P. Zabaleta, Antonio Urmeneta, José de Zabalo, José Pablo de Zabaleta, Pablo de Aseguinolaza, José Ignacio de Aguirre, José de Aguirre, Antonio Mª de Aztiria y J. Francisco de Andueza.

Como se ve, el alcalde era uno de los socios, y el párroco Zangroniz también lo era. Existía la posibilidad de ampliar la lista, pero el candidato debía ser aceptado por los fundadores.

La sociedad duró poco. El Ayuntamiento rescindió el contrato de alquiler en 1872.

[eu]

Maisu-maistrak eta aguazila

1894an, adibidez, bi maisu-maistrak zeukaten bertan bizitokia, Ginés Lara de Fernándezek (murtziarra) eta Mª Ana Mintegiagak. Francisco Arrizabalaga Gabiria aguazilaren familia ere hortxe bizi zen. 1920an, berriz, Florencia Etxabe Yaben maistra, 3 urtekoa, eta ama Bernarda Yaben Esnaola, 74koa; bost urte zeramaten herrian.

1910eko udal erroldaren arabera, Francisco Arrizabalaga Gabiria aguazila bizi zen bertan, artean 51 urtekoa eta Mª Antonia Murgiondo Mendizabal mutiloarrarekin ezkondua, seme-alabokin: Cruz (gero Patrizio Etxeberriaren txoferra izango zena), Andresa, Carmen eta Florentino (13 urte eta urtebete bitartekoak). Eraikinaren atzeko partean taberna-jatetxea zegoen, eta bertako buru Mª Antonia Elorza Plazaola alarguna, 50 urtekoa eta Plazaola baserrian jaioa; Gaspar Urzelai oñatiarraren alarguna, hain zuzen.

Udalari errentan hartua zion lantegi hau, eta bertan bizi zen bere seme-alabekin: Pedro (26 urtekoa, zaregilea), Florentino (errementaria), Valentin (zapataria), Eustaquio (errementari ikasten ari zena) eta Facundo (zaregile ikasten ari zena). Azken hau hamalau urteko mutikoa zen 1910ean.

Pedro eta Iñaxiren aro luzea

1920ko hamarkadan, etxe honetan protagonismo gehien Pedro Urzelai eta Iñaxi Gabiriaren familiak eduki zuen. Eraikinaren atzeko aldean bizi ziren, lehen solairuan. Taberna eta jatetxea zeukaten bertan, eta oheak ere eskaintzen zituzten. Egunean berrogei

[es]

Maestros y alguaciles

En 1894, por ejemplo, vivían los maestros Ginés Lara de Fernández, murciano, y Mª Ana Mintegiaga, y el alguacil Francisco Arrizabalaga Gabiria. En 1920, residían la maestra Florencia Etxabe Yaben, nacida en Berastegi, de 31 años y con cinco de residencia en el pueblo, y su madre Bernarda Yaben Esnaola, de 74 años.

En 1910, aparece como residente la familia del alguacil Francisco Arrizabalaga Gabiria, de 51 años, casado con Mª Antonia Murgiondo Mendizabal, de Mutiloa, con los hijos Cruz (que luego sería chófer de Patricio Etxeberria), Andresa, Carmen y Florentino, de entre trece años y uno. Igualmente, en esa zona de atrás estaba entonces la taberna-restaurante del Concejo, regentada en alquiler por Mª Antonia Elorza Plazaola, del caserío Plazaola, de 50 años y viuda del oñatiarra Gaspar Urcelay. Vivía allí mismo con sus hijos Pedro (de 26 años, cestero), Florentino (herrero), Valentín (zapatero), Eustaquio (herrero aprendiz) y Facundo (cestero aprendiz). Este último tenía catorce años.

La larga etapa de Pedro e Iñaxi

En la siguiente década, la de 1920, el mayor protagonismo de este edificio corrió a cargo del matrimonio formado por Pedro Urcelay e Ignacia Gabiria con sus hijos. Regentaban el bar-restaurante y ofrecían camas. Llegaron a ofrecer cuarenta comidas al día. Además, se encargaban del teléfono público, situado ahí mismo, y Pedro se dedicaba también a fabricar cepos.

Pedro Urzelai Elorza nació en 1884. Sus padres eran Gaspar Urzelai Gereta (Oñati, 1850, residente en Legazpi desde que tenía 28 años) y Mª Antonia Elorza



Pedro Urzelai gaztetan bere ama Mª Antonia Elorza Plazaolarekin (Pello Agirrezabalek emana).



Iñaxi Gabiria eta Pedro Urzelai (Pello Agirrezabalek emana).

[eu] otordu eman izan zituzten. Halaber, telefono publikoaz arduratzen ziren, eta Pedrok txori-zepoak egiten zituen baita ere.


Pedro Urzelai Elorza 1884an jaio zen. Gurasoak Gaspar Urzelai Gereta (Oñati, 1850, Legazpira 28 urte zituela etorria) eta Mª Antonia Elorza Plazaola (1860, Plazaola baserria) zituen. Gurasook Legazpin ezkondu ziren 1883an eta sei seme izan zituzten: Pedro (1884-1967), Florentino (1886), Valentin (1889-1942), Eustaquio (1898-1964), Facundo (1895-1970) eta Roman Vicente (1899). Florentino Azkoitian bizi izan zen, eta Valentin Eibarren, motor-istripuan hil zelarik. Eustaquiok, berriz, ezgaitasun psikikoa zeukan, Patrizioren fabrikan jardun zuen eta anaia Pedroren babesean bizi izan zen beti, parrokiarako era askotako lanak egiten zituelarik. Facundo, aldiz, udal-txistulari eta zapatagile eta zapata-konpontzaile izan zen. Roman Vicente umeP[es]

Plazaola (1860, caserío Plazaola). Se casaron en Legazpi en 1883 y tuvieron estos hijos: Pedro (1884-1967), Florentino (1886), Valentín (1889-1942), Eustaquio (1898-1964), Facundo (1895-1970) y Román Vicente (1899). Florentino vivió en Azkoitia y Valentín en Eibar. Este último falleció en accidente de moto. Eustaquio tenía una minusvalía psíquica y vivió siempre integrado en la familia de su hermano Pedro, trabajó en la fábrica de Patricio y destacó por su dedicación constante a los asuntos de la parroquia. Por su parte, Facundo fue txistulari municipal y zapatero. Román Vicente falleció siendo niño. Esta familia residía en la casa consistorial desde al menos 1894.

Ignacia nació en 1886 en el caserío Makatza y falleció en 1960. Era hija de Prudencio Gabiria Iñurritegi (1856) y Casimira Balerdi Iñurritegi (1861, caserío Uerkalde).



Rafael Urzelai dantzaria, goian eskuineko lehena.



Pedro Urzelairi omenaldi egin zioten parrokiako abesbatzakoa izan zelako denbora askoan.

[eu] tan hil zen. Familia hau, gutxienez, 1894az geroztik bizi izan zen Kontsejuko etxean.

Iñaxi Gabiria Balerdi, berriz, Makatza baserrian jaioa zen, 1886an. 1960an hil zen. Gurasoak Prudencio Gabiria Iñurritegi (1856) eta Casimira Balerdi Iñurritegi (1861, Uerkalde baserria) zituen.

1913an ezkondu eta Plazaola baserrian jarri ziren Pedro eta Iñaxi. Baina han denbora gutxi egin zuten, bi urte baino gutxiago. Segituan Kontsejura aldatu ziren. Hantxe jaio zitzaizkien seme-alaba denak. Pedro eta Iñaxik Kontsejuan atera zuten familia aurrera, Iñaxi sukaldean eta Pedro tabernan. Laguntzaileak zituzten: Nikolasa (Aginagakoa), Maria eta Cayetano. Seme-alabek ere lagundu ohi zuten lan handiak zeuden egunetan. Bizar-kentzaile ere bazen Pedro. Legazpin, XX. mende hasieran, hiru bizar-kentzaile zeuden: Baldomero Urmeneta, Andreseneko Doroteo eta Kontsejuko Pedro.

[es] Pedro e Ignacia se casaron en 1913 y se instalaron en el caserío Plazaola. Allí la estancia fue breve, de menos de dos años. Enseguida se trasladaron a la casa consistorial y aquí nacieron todos los hijos. Pedro se encargaba de la taberna e Ignacia cocinaba para el restaurante. Tenían ayudantes: Nicolasa (del barrio de Aginaga), María y Cayetano. Los hijos también ayudaban en los días de mucho ajetreo. Además, Pedro ejercía de barbero.

En 1965 se homenajeó a varias personas de edad avanzada, entre ellos a Pedro Urzelai y Avelino Ciaran, porque durante 70 años habían cantado en las celebraciones litúrgicas.

Estos fueron los hijos de Pedro e Ignacia: María (muerta siendo muy pequeña), Jesús (casado con Mª Luisa Mendizabal, del caserío Urzabaleta de Urretxu, y fallecido en 1989 a los 73 años), Lorenzo (casado con



Facundo Urzelairen kutxatxoa,
Puerto de Santa Mariako kartzelan egindakoa
(Idoia Lasak emana).



Jose Ignacio Elorza, Don Jesus apaiza, Jesus Maiztegi, Facundo Urzelai eta ezezaguna (Jon Amilibiak emana).

[eu] 1965ean, herritar batzuk omendu zituzten, tartean Pedro Urzelai eta Avelino Ziaran, 70 urte eginak zituztelako elizkizunetan kantari.

Hona Pedro eta Iñaxiren seme-alabak: Maria (aingerutan hila), Jesus (Urretxuko Urzabaleta baserriko Mª Luisa Mendizabalekin ezkondu eta 1989an hila, 73 urte zituela), Lorenzo (Teresa Iribarrenekin ezkondu eta 2011n hila), Antonio (ez zen ezkondu eta 1953an hil, 34 urte zituela), Julia (ez zen ezkondu, eta 2001ean hil), Juan (Olaetxeko Paula Zabaletarekin ezkondu eta 2013an hila), Kontxita (1924-2002, Angel Agirrezabalekin ezkondu eta Brinkolako Josemaiñe taberna gobernatu zuten), Rafael (Mª Asun Iribarrenekin ezkondu eta 2011n hil zen), Joxe (Ixiar Yarzarekin ezkondu eta 2013an hil zen) eta David (Lekuonako Ana Maria Zalduarekin ezkondu eta 2022an hila). Horietako bi, Rafael eta David, zapatariak izan ziren, bata Legazpin bestea Zumarragan; eta beste gizonek Patrizioren fabrikan egin zuten lan. Hiru senide pilotari izan ziren, Jesus, Antonio eta Joxe, eta azkeneko hau nabarmendu zen gehien. Jesus ere oso pilotari ona zetorren, baina gerrak eten egin zion pilota-ibilbidea.

1935eko ekainean, Pedro Urzelaik lur-saila erosi zion Pedro Segurari, eta segituan etxe berria eraikitzen hasi; egin berria zen Kale Berrian, hain zuzen. Antonio Zal-

[es] Teresa Iribarren y fallecido en 2011), Antonio (murió a los 34 años, soltero, en 1953), Julia (murió soltera en 2001), Juan (casado con Paula Zabaleta, del caserío Olaetxe, y fallecido en 2013), Conchita (1924-2002, casada con Ángel Agirrezabal, regentaron la taberna Josemaiñe de Brinkola), Rafael (casado con Mª Asun Iribarren y fallecido en 2011), Joxe (casado con Iciar Yarza y fallecido en 2013) y David (casado con Ana Mª Zaldua, del caserío Lekuona, y fallecido en 2022). Dos de ellos, Rafael y David, fueron zapateros, uno en Legazpi y el otro en Zumarraga. Los demás trabajaron en la fábrica de Patricio. Tres hermanos fueron pelotaris aficionados, Jesús, Antonio y Joxe, y este fue quien más destacó. Jesús también estaba llegando a un buen nivel, pero la guerra del 36 truncó su carrera.

En junio de 1935, Pedro Urzelai compró un terreno a Pedro Segura, en la recién estrenada Calle Nueva, y comenzó enseguida a edificar un edificio de viviendas. El arquitecto Antonio Zaldua hizo el proyecto y dirigió las obras. El edificio costó finalmente 89.524,61 pesetas. Las obras finalizaron en 1936 y se instalaron Pedro e Ignacia con sus hijos. Algunas viviendas se destinaron al alquiler. En la planta baja, Rafael montó al comienzo una taberna, y más tarde tienda de zapatos.

[eu] dua arkitektoak zertu zuen proiektua eta beronen gidaritzapean burutu ziren lanak. 89.524,61 pezeta kostatu zen eraikina. 1936an bukatu ziren lanak eta bertara aldatu Pedro, Iñaxi eta seme-alabak, bizitza batzuk errentan utzi zitzaizkielarik beste herritar batzuei. Bebarruan, Rafaelek taberna jarri zuen hasieran, gero zapata-denda.

Gerrak biziki kolpatu zuen familia. Pedro eta Iñaxiren hiru semek, Lorenzo, Jesus eta Antoniok, Durango aldera egin zuten ihes, Alustiza anaiekin, 1936ko irailaren 19an, nazionalak herrian sartu ziren egunean. Egoera latzena Jesusena izan zen: zigor-eremuetan eduki zuten eta zazpi urte eman zituen etxetik kanpo. Lorenzok ere bi urte eman zituen zigor-eremuetan, eta gero beste bi soldaduskan.

Pedro Urzelai, bestalde, Beataetxeko jabea izan zen 1936ko gerraren ostean. Ez dakigu nolatan bihurtu zen bertako nagusi. Kontuan izan behar da bertan bizi izan zela bere izeba Facunda Elorza Plazaola (1870an jaioa), serora-lanak egiten zituena, parrokiari guztiz emana.

Pedroren ama, Maria Antonia Elorza Plazaola, eta Eugenio Elorzaren aita, Silvestre Elorza Plazaola, Plazaolakoak ziren eta, ematen duenez, Plazaolak jabetzan zuen Beataetxea. Horregatik Eugenio Elorza bertan jaio zen.

Idazkaria eta Silverio aguazila

Angel Enparanza Iñurritegi udal idazkariaren familia eraikin honetan bizi izan zen, bigarren solairuan. Ez dakigu zehatz noiztik, seguru asko 1925. urteaz geroztik-edo. Enparanza Oñatiko Olabarrieta auzoan jaioa zen, 1895ean, ikasketak egin zituen Valladoliden eta legazpiar batekin ezkondu: Candida Gereta Langarika (1896, garai bateko alkatearen alaba).

Zortzi seme-alaba eduki zituzten: lehenbizikoa, Teresa (1922-2021, Victor Andueza Ugarte alargunarekin ez-

[es] La guerra de 1936 golpeó duro a la familia. Tres hijos, Lorenzo, Jesús y Antonio, escaparon hacia Durango el día en el que entraron en Legazpi las tropas franquistas, el 19 de septiembre. Lo hicieron junto con los hermanos Alustiza. Lo más duro le tocó a Jesús: pasó por batallones de trabajadores y no volvió a casa hasta pasar siete años. Lorenzo pasó dos años en campos de castigo y luego otros dos en el servicio militar.

Pedro Urzelai fue dueño de la casa Beatakoa (o Beatatxea) tras la guerra de 1936. No sabemos cómo accedió a la propiedad, pero sí que allí vivía una tía suya, Facunda Elorza Plazaola (1870), dedicada en exclusiva, como serora, a los trabajos de la iglesia parroquial.

La madre de Pedro, María Antonia Elorza Plazaola, y el padre de Eugenio Elorza, Sivestre Elorza Plazaola, eran del caserío Plazaola, y según parece las gentes de ese caserío eran los propietarios de Beatakoa. Por eso nació ahí Eugenio Elorza.

El secretario y el aguacil Silverio

Como se ha dicho, el secretario Ángel Enparanza Iñurritegi también vivió en la casa consistorial con su familia, a partir de 1925 aproximadamente. Enparanza era nacido en el barrio de Olabarrieta de Oñati, en 1895, hizo estudios en Valladolid, se casó con la legazpiarra Cándida Gereta Langarika y tuvieron ocho hijos: Teresa (la mayor, de 1922, que se casó con el viudo Víctor Andueza Ugarte), Sara 'Txatxi' (que regentó un estanco), Judith (misionera seglar, trabajó en Cataluña), Jaime (1928, el primero de los hijos nacido en la casa consistorial y casado con Iciar Apaolaza), Ricardo (1930, casado con Rosa Arostegi), Carmina (1932, esposada con Carlos Arbide), Alberto (casado con Concepción Alzelai), Mariví (casada con José del Río, vive en Vigo) y Juan Carlos (1941).



Candida Gereta eta Angel Enparanza (Carmina Enparanzak emana).



Silverio Arana, "Tali" Castresana eta ezezagun bat (Juan Carlos Aranak emana).



Lehen ilaran, ezkerretik bigarren eta hirugarrena, Felicitas Oñatibia eta Lucio Vergara, alabaren ezkontzakoan (Lucio Vergara) (Angel Muruak emana)

[eu] kondu zen), gero Sara 'Txatxi' (estankoa eduki zuen), Judith (misiolari seglarra, Katalunian egin zuen lan), Jaime (1928an kontseju-etxean jaioa eta Iciar Apaolazarekin ezkondua), Ricardo (1930, Rosa Arostegirekin ezkondua), Carmina (1932, Carlos Arbiderekin ezkondua), Alberto (Concepción Alzelairekin ezkondua), Marivi (José del Ríorekin ezkondua, Vigon bizi da) eta Juan Carlos (1941).

Ezkondu aurretik, Maisukoan bizi izan zen Angel, apopilo. Candida, berriz, Gerranean.

Angel Enparanza eta Candida Geretak 1960ko hamarkada hasieran alde egin zuten udaletxeko etxebizitzatik, Kale Nagusira aldatu zirelarik. Gero hor hurrengo idazkaria jarri zen, Urretxuko udaletxean lan berean jardundako Francisco Mendizabal Zeziaga. Gizon hau 1965-1977 epean aritu zen lantegi horretan.

[es] Antes del matrimonio, Ángel había vivido como 'pupilo' en Maisukoa, y Cándida residía en Gerranea.

El secretario y su esposa abandonaron esta vivienda del ayuntamiento a comienzos de los años 60, para instalarse en la Calle Nueva. La vivienda pasó a ser ocupada por el siguiente secretario, Francisco Mendizabal Zeziaga, que antes había ejercido en Urretxu, y en Legazpi lo hizo en el periodo 1965-1977.

La familia del aguacil Silverio Arana vivió en la casa consistorial a lo largo de tres décadas, las de los años 60, 70 y 80. Este navarro nació en 1928 en San Martín de Amescoa, y tras unos trabajos breves en Donostia y Bilbao, en 1958 se casó con Italia 'Tali' Castresana. Trabajó un año en Arrasate en la Unión Cerrajera y en 1959 comenzó de ordenanza en el ayun-

[eu] Bestalde, Silverio Arana aguazilaren familia luzaroan bizi izan zen udaletxean, 60, 70 eta 80ko hamarkadetan zehar. Gizon hau 1928an jaio zen Nafarroako San Martin Ameskoan. Donostiako eta Bilboko lanaldi labur batzuen ondoren, 1958an Italia 'Tali' Castresanarekin ezkondu eta Arrasateko Unión Cerrajeran ekin zion lanari. Hurrengo urtean, 1959an, Legazpiko udaletxean hasi zen, ordenantza moduan.

Silverio eta Italia udaletxeko beheko solairuan jarri ziren bizi izaten. Gizona segituan hasi zen, ordenantzaz gain, aguazilen buru.

Handik hiru-lau urtera guztiz berritu zuten udaletxea. Lanek bi urte iraun zuten eta bitarte horretan Silverioren familia "telefonoen etxean" bizi izan zen, hau ere Udalaren etxea. Eten horren ostean udaletxean jarri zen berriz ere bizi izaten, baina goi-goiko solairuan.

Silverio eta Italiak 1992an alde egin zuten udaletxeko etxebizitzatik.

Felicitas, azken maistra

Halaber, Felicitas Oñatibia (1887-1971) maistra bizitu zen hemen. Hain zuzen, hauxe izan zen udaletxean etxea izandako azken irakaslea. 1930ean azaldu zen herrira. Oiartzuar kastakoa eta Urretxun jaioa, Nafarroako Arantza herrian jardun zen lanean eta 1920an bertako gizon batekin ezkondu: Lucio Bergara Matxikote (1892-1978). Legazpira 1930ean etorri ziren, eta 1962. urtean-edo alde egin zuten etxe honetatik Kale Nagusira.

Lucio, berriz, Patrizionean egin zuen lan eta bakeepaile ere izan genuen. Kalitate handiko argazkilaria, Arantzan bizi zela ederki erretratatu zuen hango gizarte-giroa, eta Legazpiko lehen hamarkadan ere egin zuen erreportajerik. Argazki horiek oso baliotsuak dira orduko Legazpi ezagutzeko. Haren argazki-funtsa Nafarroako Gobernuari eman zioten ondorengoek, orain urte gutxi. Alabetako bat, Maria Josefa, Legazpin maistra jardun zen urte askoan. ❖

[es] tamiento legazpiarra, residiendo ahí mismo, en la planta baja. Pero enseguida compaginó el trabajo de ordenanza con el de jefe de aguaciles.

A los tres o cuatro años se renovó por completo la casa consistorial, y en los dos años que duró la obra, la familia de Silverio residió en la llamada casa de los teléfonos, de propiedad municipal. Luego volvió a la casa consistorial, pero a la última planta.


Silverio y su esposa abandonaron la casa consistorial en 1992.

Felicitas, la última maestra

Asimismo, tuvo aquí su vivienda la maestra Felicitas Oñatibia (1887-1971), y fue la última enseñante que residió en la casa consistorial. Trabajaba en el pueblo navarro de Arantza y en 1920 se casó con uno de los vecinos, Lucio Vergara Machicote (1892-1971). Consiguió trabajo en Legazpi y el matrimonio llegó al pueblo en 1930. El matrimonio abandonó la vivienda hacia 1962, para instalarse en la Calle Nueva.

Lucio trabajó en la fábrica de Patricio y fue juez de paz. En Arantza había destacado como fotógrafo aficionado, con reportajes que mostraban la vida social. Luego, ya aquí, en los años 30, también hizo fotos que hoy resultan clave para conocer el viejo Legazpi.

Hace pocos años los familiares donaron su fondo fotográfico al Gobierno de Navarra. Una de las hijas, María Josefa, también trabajó como maestra en Legazpi durante décadas. ❖



04 _ plaza

OTSATEGI (Josemarinea, Aseginolazanea Teresanea) 5 OTSATEGI (Josemarinea, Aseginolazanea Teresanea)



Otsategi etxea, eskuinean. Ezkerrean, berriz, Jose Mari Aseginolazak egindako eranskina. Behean almazena eta goian etxebizitza.

[eu]

1781ko planoan ez zen etxe hau agertzen, baina 1860koan bai. 1857an lagun hauek bizi ziren bertan: Jose Ignacio Agirrebengoa Enparanza (52 urte, "alambrero"), Josefa Pildain Lekuona (40 urte), Alejandra Esposita (28 urte), Jose Manuel Ytarte Rios (urte bat), Anastasia Arizgoiti Larrañaga (Urretxun jaioa, 57 urte Juan Bautista Zendoiaren alarguna, pelaire), Jose Mª Zendoia Arizgoiti (21 urte, zapataria), Jose Felix Zendoia Arizgoiti (54 urte, zapataria) eta Maria Ignacia Aranburu (54 urte, alarguna, ehulea).

1910eko erroldan, alde batetik Mª Teresa Guridi Makibar alarguna ageri zaigu, 58 urtekoa eta landa- eta kale-lursailen jabea), bi ilobarekin bizi delarik: Joaquina eta Catalina Aristi Guridi. Beste aldetik, aseginolazatarrak bizi dira bertan: Jose Mª Aseginolaza Ugarte (Tellleriarteko Elortza baserrian jaioa, 43 urte, arotza), emazte Simona Eugenia Aranburu Guridi (43 urte, Telleriarteko Sagastizabal edo Esaizabalgoa) eta semealabok: Juan Aseginolaza Aranburu (1898-1972), Trinidad 'Trino' (1899-1969), Tomas (1902-1955), Raimundo (1905-1993), Roberto (1907-1980) eta Ignacia (oso gaztetan hila, 1909-1920).

Jose Maria Aseginolaza Ugarte, 1867an Telleriarteko Elortza baserrian jaioa, gizon adoretsua izan zen. Ezkondu aurretik, 1896an hain zuzen ere, Aiztonagagarakoa izeneko baserria erosi zion Adelaida Guridi Garagarzari; etxe honetatik gertu zegoen baserria, alegia. Hurrengo urtean, 1897an, Eugenia Aranburu Guridirekin ezkondu zen, eta emakume hau ere baserri-jabea zen: Telleriarteko Esaizabal (Sagastizabal) baserria aportatu zuen ezkontzara. Handik laster, 1898an, orain ari garen Otsategi izeneko etxe hau erosi zieten Pedro Jose Guridi Mujikari eta Ignacia Guridi Raizabali.

Aseginolazatarrak, Elortza baserrian, bost senide ziren. Zaharrena, Bernarda Aseginolaza Ugarte, Brinkolako Igeraldera ezkondu zen eta Teresa Agirre, Patrizio Etxeberriaren emaztearen ama izan zen. Bigarrena Zumarragago Apaolazatar batekin ezkondu zen. Hirugarrena gaztetan hil zen. Laugarrena, Joxe, Elortzan ge-

[es]

Este edificio no aparecía en el plano de 1781, pero sí en el de 1860. En 1857 estaba habitado por José Ignacio Agirrebengoa Enparanza (52 años, "alambrero"), Josefa Pildain Lekuona (40 años), Alejandra Espósita (28 años), José Manuel Ytarte Ríos (un año), Anastasia Arizgoiti Larrañaga (natural de Urretxu, de 57 años, viuda de Juan Bautista Zendoia, de profesión pelaire), José Mª Zendoia Arizgoiti (21 años, zapatero), José Félix Zendoia Arizgoiti (54 años, zapatero) y María Ignacia Aranburu (54 años, viuda, tejedora).

En el censo de 1910 aparecen como residentes, por un lado, la viuda de 58 años Mª Teresa Guridi Makibar, propietaria de fincas rústicas y urbanas, quien vive con dos sobrinas, Joaquina y Catalina Aristi Guridi. Por otro lado, viven aquí los Aseginolaza: José Mª Aseginolaza Ugarte (nacido en el caserío Elortza de Tellleriarte, carpintero de 43 años), su esposa (Simona) Eugenia Aranburu Guridi (de 43 años, nacida en el caserío Sagastizabal o Esaizabal de Telleriarte) y estos hijos: Juan Aseginolaza Aranburu (1898-1972), Trinidad 'Trino' (1899-1969), Tomás (1902-1955), Raimundo (1905-1993), Roberto (1907-1980) e Ignacia (fallecida muy joven, 1909-1920).

José Mª Aseginolaza Ugarte, nacido como se ha dicho en el caserío Elortza en 1867, fue un hombre emprendedor. En 1896, antes de casarse, compró el caserío Aiztonaga Garakoa a su propietaria Adelaida Guridi Garagarza. Se trataba de un edificio cercano a la casa que nos ocupa. Al año siguiente, en 1897, se casó con Eugenia Aranburu Guridi, quien también era propietaria, y aportó al matrimonio su caserío natal, Sagastizal o Esaizabal, de Telleriarte. Poco más tarde, en 1898, compraron esta casa Otsategi a Pedro José Guridi Mujika e Ignacia Guridi Raizabal.

Los Aseginolaza del caserío Elortza eran cinco hermanos. La mayor, Bernarda Aseginolaza Ugarte, se casó al caserío Igeralde de Brinkola y fue la madre de Teresa Agirre, la esposa de Patricio Etxeberria. La siguiente hermana se casó con un Apaolaza de Zuma-



Otsategiko Jose Mª Aseginolaza Telleriarteko Elortza baserrian jaioa zen (Socorro Aseginolazak emana).



Eugenia Aranburu (Socorro Aseginolazak emana).



Tomas Aseginolaza eta Maria Ugalde (Socorro eta Mª Cruz Aseginolazak emana).



Raimundo Aseginolaza eta emazte Dolores Inza (Socorro eta Mª Cruz Aseginolazak emana).

[eu] ratu zen, Errautegiko Martina Guridi Ugalderekin ezkonduta. Eta bosgarrena Jose Maria Aseginolaza zen.

Beraz, hogeigarren mende hasieran, Jose Mari Aseginolaza eta emazte Eugenia Aranburu hemen bizi zirelarik, jendea 'Josemarinea' hasi zen deitzen eraikinari. Santa Maria kaleko 66 zenbakiduna zen.

Gero, semeak ere eraikin honetan edo inguruan bizi izan ziren. Bertan, lehenengo solairuan, Raimundo (forjaria, San Migelgo Dolores Inzarekin ezkondua); eta bigarrengoan, Juanito (arotza, gero Patrizioren kirtendegiko enkargatu izandakoa, Fraileneko Juliana (Julita) Larrearekin ezkondua). Biak Patrizioren fabrikan jardun ziren. Eta Juanitoren etxean anaia ezkongabe bat bizi izan zen, Roberto. Raimundok bere sutegia zeukan etxe atzeko aldean, non kateak, aizkorak, hortzak eta bestelako burdinazko piezak egiten baitzituen baserritarrentzat.

[es] rraga, la tercera murió joven. El cuarto, Joxe, se quedó en el caserío natal y se casó con Martina Guridi Ugalde de Errautegi. Y el menor era José Mª.

Así pues, a comienzos del siglo XX, con José Mª y Eugenia viviendo aquí, la gente comenzó a denominar a la casa como 'Josemarinea'. Era la número 66 de la calle Santa María.

Más tarde, los hijos vivieron aquí mismo o en los alrededores. En esta misma casa, en el primer piso, el hijo Raimundo (forjador, casado con Dolores Inza, del caserío San Miguel); y en el segundo piso, Juanito (carpintero, encargado en la sección de Mangos de la fábrica de Patricio, casado con Juliana (Julita) Larrea, de Frailenea). Ambos trabajaron en esta fábrica. Y en la casa de Juanito vivía también un hermano soltero, Roberto. Raimundo tenía su fragua en la trasera del edi-



Juan Aseginolaza, emazte Juliana Larrea, semea Jesus eta alaba Eugeni (Elena Aseginolazak emana).



Eugenia Aranburu, seme Raimundoren umeekin (Socorro Aseginolazak emana).



Hondarribiko aireportuan. Ezkerretik hasita, Agustin Garmendia, Deogracias Agirre (Argindegi), Eugenio Urzelai (Errotaritxo), Roberto Aseginolaza (Otsategi), Jose Etxeberria (Andresenea) eta Ildefonso Aztiria (Urtatzola) (Elena Aseginolazak emana).



Otsategiko Roberto Aseginolaza

[eu] Roberto, 1930eko hamarkadan, EAJko kide izan zen, eta 1936an, nazionalak herriaren jabe egitean, Ondarretako kartzelan sartu zuten. Gero Galizian egin zuen beste kartzelaldi bat. 1944an lortu zuen erabateko askatasuna. Hau ere Patrizioren fabrikan enplegatu zen.

Eraikin honetan, beheko solairuan, dendak eta tailerrak egon ziren 1936ko gerraren ostean. Correosetik gora joanda, lehenbizi, Herminio Carneroren jostundegia, gizonezkoentzakoa. Galiziatik etorri zen, eta aurrena

ficio y allí hacía trabajos para los baserritarras, tales como cadenas y hachas. [es]

Roberto, en la década de 1930, fue miembro del PNV, y al entrar los nacionales en 1936 se lo llevaron preso a Ondarreta. Más tarde hizo un tiempo en una cárcel de Galicia. Consiguió la libertad definitiva en 1944. También trabajó en la factoría de Patricio.

En los bajos de este edificio hubo tiendas y talleres tras la guerra del 36. Primeramente, si nos situamos en la



Otsategi etxea, Sarasolanea etxearen ondoan (Elena Aseginolazak emana).



Roberto Aseginolaza (behean, erdian) kapela-dantzan txistulari (Elena Aseginolazak emana).



Raimundo Aseginolaza eta alabak. Mariasun, Socorro, Mª Cruz, Juani eta Mª Dolores (Socorro Aseginolazak emana).



Raimundo Aseginolaza (ezk) eta Bikuñaaundiko Saturnino Gabiria, Azpeitira zezenetara joanak (Socorro Aseginolazak emana).

[eu] Urolako trenbidea egiten jardun. Hurrengo atea atarikoa zen, eta ondoren Juanita Zabaleta 'Juanita pastelearen' gozodenda zegoen. Toki horretan Sotera Chascok (Arabako Kontrastan jaioa) janari-denda eduki

zona más próxima a la parroquia, estuvo la sastrería para caballeros de Herminio Carnero, un hombre venido de Galicia que primero trabajó en la construcción del ferrocarril del Urola. Luego estaba la puerta del por- [es]

[eu] zuen, ez luzaroan. Ramon Baskaran, Patrizioren fabrikara etorritako araiarraren emaztea zen. Bebarru horretan, Biurraingo Juanita Apaolaza jostunak bere lantokia eduki zuen baita ere.

Eraikin honi erantsita beste etxetxo bat egin zuen Jose Mª Aseginolazak. Bertako bebarruan almazena zegoen, eta goiko pisuan Carnerotarrak bizi izan ziren.

Beste seme bat, Tomas Aseginolaza Aranburu, handik gertu, Txorrone ondoko etxe batean bizi izan zen, gurasoekin batera. "Goiko etxea" edo Aiztonagaberri esaten zioten eta Santa Maria kaleko 68 zenbakia ezarri zioten. Zera gertatu zen: Jose Marik ganadua zeukan bere etxean, eta halako batean, alkateak esan zion ez zela oso gauza dotorea behiak ibiltzea herriko plazatik hain gertu, eta egin behar lukeela etxetik Bikuña alderago ikuilu moduko zerbait. Horretan hasi zen Jose Mari eta azkenean, ikuilua ez ezik, etxebizitza ere egin. 1925ean inauguratu zen. Toki hartantxe zegoen Aiztonagagarako baserri zaharra, Jose Mari ezkongaietan erositakoa.

Etxe berri hartara aldatu ziren Jose Mari eta emazte Eugenia, eta seme Tomas ere hantxe bizi izan zen, esanda bezala. Gizon hau Olazargo Maria Ugalde Alustizarekin ezkondu zen 1939an. Emakume hau, hamasei urte zituela, 1932an, aldameneko Sarasolanean hasi zen neskame. Patrizioren fabrikan aritu zen lanean Tomas, estanpak edo matrizak egiten. Jose Mari 1935ean hil zen, eta emaztea 1939an.

Beste semea, Trino, berriz, burutik gaixotu zen eta Santa Agedako ospitalean bizi izan zen hainbat urtez. ❖


[es] tal, y a continuación la pastelería de Juanita Zabaleta, del caserío Egizabal. Al lado hubo una escuela de cocina, regentada por Juanita, con gran éxito. Luego tuvo tienda de alimentación, por poco tiempo, Sotera Chasco, nacida en Kontrasta (Álava) y esposa de Ramón Baskaran, un hombre nacido en Araia y empleado de Patricio. En esta planta tuvo también su local la modista Juanita Apaolaza, del caserío Biurrain.

José Mª Aseginolaza hizo otra casita adosada a este edificio, en cuya planta baja hubo un almacén. Y en el primer piso vivió la familia Carnero.

Un hijo, Tomás Aseginolaza Aranburu, vivió luego junto a los padres en otro edificio, cercano a Txorronea, al que decían Aiztonagaberri o Goiko Etxea, y que fue el número 68 de la calle Santa María. Ocurrió lo siguiente: el padre, José Mari, tenía ganado en casa, y en una ocasión el alcalde le comentó que no daba buena imagen el ganado tan cerca de la plaza mayor del pueblo, y que debería construir un establo en la zona de Bikuña. José Mari se puyo a la tarea y, finalmente, además de establo el nuevo edificio contó con una vivienda. Se inauguró en 1925. En ese lugar estuvo enclavado el viejo caserío Aiztonagagarakoa, que José Mari compró siendo aun soltero.

José Mari y su esposa Eugenia se mudaron a este nuevo edificio, y el hijo Tomás también vivió allí. En 1939 se casó con María Ugalde Alustiza, de Olazar, quien con 16 años, en 1932, había comenzado de criada en una casa cercana, la de los Sarasola. Tomás trabajó en la fábrica de Patricio, haciendo estampas o matrices. José Mari murió en 1935 y su esposa en 1939.

Otro hijo, Trino, tuvo problemas siquiátricos y vivió bastantes años en el hospital de Santa Águeda. ❖



04 _ plaza

SARASOLANEA (Sekretarikoa) 6 SARASOLANEA (Sekretarikoa)



Ezker-eskuin, Aseginolazanea, Sarasolanea eta Inazioagirrenea etxeak.

[eu]

1852n, Jose Guridi agertzen da jabe gisa; eta 1877an, Felix Makibar. 1894ko udal erroldan, Bernardo Sarasola Iturralde (Altzaga, 1859) azaltzen da bertako bizilagun moduan, zeina udal idazkaria baitzen; hala ere, maisu-ikasketak zituen eginak, eta horretan jarduteko asmoarekin etorri zen Legazpira. Denboralean izan zen idazkari: 1888ko apiriletik 1918ko apirilera; orduan hil zen-eta. Bernardo Sarasolaren emaztea Juana Leona Guridi Raizabal (Legazpi, 1856) zen. Seme-alabok zituzten: Mª Cruz (1891), Ceferino (1892) eta Lucio Melquíades (1893). Haiekin batera neskamea bizi zen: Joaquina Zangitu Legorburu (Legazpi, 1877).

1910eko udal erroldan, Bernardo eta Juana Leonaren beste bi alaba aipatzen dira, Vicenta eta Luisa, 1895 eta 1896an jaioak. Maila ekonomiko oneko familia zen, eta jakin-mina zeukana: seme Ceferino apaiz-ikasketak egiten ari zen orduan; Lucio, berriz, merkataritza ikasten ari zen, eta Vicenta maistra izateko bidean zen.

Gerora, Patrizio Etxeberriaren fabrikako gerente izatera iritsi zen Lucio. Ez zen ezkondu. Madrilen estudiatu zuen eta Iñaki Beldarrainek Patrizioren biografi liburuan azaltzen du noiz bereganatu zuen enpresa-buruaren konfiantza: "Segura, Echeverría y Cía desegin aurretik izan ziren negoziazioetan, eta handik aurrera gerente-lanak egin zituen".

Beldarrainek bere liburuan esan zuenez, Lucio oso gizon diskretu eta apala zen, "baina berezko dotorezia zeukana, beti atzean egoten zena, nabarmenkerietan ibili gabe, ez arlo zibilean ez erlijiosoan". Gero, gerentelanak Julian Lasarekin partekatu zituen eta azkenean kontabilitate orokorra, kostuak eta finantza kontrola izan zituen bere kargu.

Bernardo eta Juana Leonaren beste seme bat, Ceferino, apaiztu egin zen. 1939an, Bergarako seminario txikiko zuzendari agertzen zaigu, eta gero Saturrarango seminario txikiko zuzendari. Garai hartan oporretan baino ez zen Legazpira etortzen. Erretiroa hartu ostean Do-

[es]

En 1852, aparece como propietario José Guridi; y en 1877, Félix Makibar. En el censo de habitantes de Legazpi de 1894, figura como residente Bernardo Sarasola Iturralde (Altzaga, 1859), de profesión secretario municipal, si bien había realizado estudios de Magisterio y llegado a Legazpi con la intención de ejercer esa profesión. Fue secretario durante un largo periodo, desde abril de 1888 hasta su fallecimiento en abril de 1918. Su esposa era Juana Leona Guridi Raizabal (Legazpi, 1856) y tenían estos hijos: Mª Cruz (1891), Ceferino (1892) y Lucio Melquíades (1893). También vivía ahí la sirvienta Joaquina Zangitu Legorburu (Legazpi, 1877).

En el padrón de 1910 figuran otras dos hijas, Vicenta y Luisa, nacidas en 1895 y 1896. Era una familia con inquietudes y buen nivel económico: Ceferino se halla entonces realizando estudios eclesiásticos, Lucio estudios de comercio y Vicenta de magisterio.

Con el paso de los años, Lucio, que no se casó, acabó siendo gerente de la fábrica de Patricio Etxeberria. Había estudiado en Madrid y, según cuenta Iñaki Beldarrain en su biografía de Patricio Etxeberria, este hombre se ganó la confianza del empresario "durante las negociaciones previas a la disolución de Segura, Echeverría y Cía, a partir de lo cual ejerce funciones de gerente". Beldarrain lo describe así: "Soltero, sencillo y modesto, pero dotado de un señorío natural y distinguido, es un hombre permanentemente en la sombra, que no realiza ningún alarde en ningún campo, civil ni religioso, en ningún momento". Luego compartió tareas de gerencia con Julián Lasa, y acabó vinculado a tareas de contabilidad general, costes y control financiero.

Otro hijo de Bernardo Sarasola y Juana Leona Guridi, Ceferino, se hizo cura.En 1939 figura como rector del seminario menor de Bergara y, más adelante, en el seminario menor de Saturraran. Solamente aparecía por Legazpi en sus vacaciones. Ya jubilado, residió en San Sebastián. Vicenta vivió también fuera de Legazpi, sospechamos que ejerciendo la profesión de maestra.



Lucio Sarasola eta Zoilo Aldasoro Panticosako bainu-etxean (Tomas Etxeberriaren argazki bildumakoa).

[eu] nostian bizi izan zen. Vicenta ere Legazpitik kanpo bizi izan zen, eta pentsatzen dugu maistra moduan aterako zuela bizimodua.

1936ko gerra ondoren, etxe honetan hiru senide bizi ziren, hirurak ezkongabeak: Mª Cruz (Crucita), Lucio eta Luisa. 1932-1939 urte-bitartean, beraiekin batera Maria Ugalde Alustiza gaztea bizi izan zen, zeina Olazar baserrikoa zen eta 1939an aldameneko etxe bateko semearekin ezkondu, Tomas Aseginolazarekin. Mariak bi kontu zituen gogoan, gerra garaikoak: Luciok pistola omen zeukan etxean eta behin esan omen zion, Guardia Zibila azaltzen bazen, lasai erakutsi behar zuela arma hori, baimena bazeukalako; eta, bestetik, Pedro Seguraren alabek Zumarragara bidali omen zuten bera, ezkutuan maleta bat eros zezan, gero erabiltzeko herritik alde egiteko, nazionalak Legazpin sartzen zirenean, alegia. Elantxobera joan nahi zuten, handik ontzian sartu eta Iparraldera ihes egiteko.

Bebarruan oihal- eta arropa-denda zegoen, etxeko bi ahizpek gobernatzen zutena. Bazuten laguntzailea, Felipa Albisu Sarasola beasaindarra, amaren aldetik ahaidea zena. Geroago, Felipak bi iloba, Natividad eta Te-

[es] En esta casa de los Sarasola, tras la guerra de 1936, vivían tres hermanos solteros: Mª Cruz (Crucita), Lucio y Luisa. Entre 1932 y 1939 vivió junto a ellos, como criada, la joven María Ugalde Alustiza, del caserío Olazar, quien en 1939 se casó con un hijo de una casa muy próxima: Tomás Aseginolaza. Esta mujer recordaba dos anécdotas de la época de la guerra del 36: que Lucio tenía una pistola en casa y que una vez le dijo que, si aparecía la Guardia Civil, la mostrara tranquilamente, dado que tenía licencia de armas; y que las hijas de Pedro Segura la mandaron a Zumarraga para que comprara una maleta con discreción, que luego emplearían para salir huyendo poco antes de que las tropas nacionales tomaran el pueblo, para llegar a Elantxobe y de allí embarcar hacia Iparralde.

En la planta baja había una tienda de tejidos y ropa, regentada por las dos hermanas de la casa, con la ayuda de Felipa Albisu Sarasola, de Beasain, que era pariente lejana, por parte materna, de los Sarasola legazpiarras. Pero luego Felipa se trajo, para que ayudaran, a dos sobrinas de Beasain, Natividad y Teresa. Eran hijas de José Albisu Sarasola (Beasain, 1888), un hombre que



Sarasolanea. Bebarruan, arropa-denda izandako lokala.

[eu] resa, ekarri zituen Beasaindik, lanean laguntzeko. Bi emakumeok, Jose Albisu Sarasolaren (Beasain, 1888) alabak ziren, eta gizon hau, berriz, feriaz feria ibili ohi zen, txerrikumeak saltzen, gero etxean hazteko izaten zirenak. Felipa eta Natividad aldameneko etxean bizi izan ziren, 'Korreosekoan', zenbait urtetan, hutsik baitzegoen eta nagusiak Madrilen.

Ez Felipa ez bi ilobok ezkondu ziren. Erretiroa hartu ostean, Natividad eta Teresa Donostian bizitu ziren.

Dendan, oihalak ez ezik, lan-arropa asko saltzen zuten; eta baita 1950 eta 60ko hamarkadetan egin ziren langile-barrakoietarako koltxonetak eta ohe-arropa ere.

1956an, denda lekualdatu zuten eta Kale Nagusi aldean ipini, kale zaharra eta kale berria lotzen zituen pasadizoan, hain zuzen ere, gero pasaleku hori Sarasolaren izenarekin bataiatu zuelarik herriak. Aro berri horretan, Natividad eta Teresak Socorro Aseginolaza izan zuten laguntzaile. Emakume hau aldameneko etxean jaioa zen, Aseginolazanean, 1939an, hamasei urte zituela hasi zen lantegi horretan eta 1970era arte jardun. Jose Mari Urcelay kronistaren arabera, Sarasolatarren negozioak ia ehun urte iraun zuen. ❖


[es] sobre todo se dedicaba a vender cerdos pequeños en las ferias, para luego ser engordados.

Natividad y Teresa vivieron durante unos años en la casa de al lado, la de Correos, pues se hallaba deshabitada, con los dueños residiendo en Madrid.

Tanto la tía Felipa como estas dos sobrinas no se casaron. Ya jubiladas, Natividad y Teresa acabaron viviendo en San Sebastián.

La tienda, además de telas, ofrecía mucha ropa de trabajo. También se preparaban colchonetas y ropa de cama para los distintos barracones que en los años 50 y 60 albergaron a obreros.

En 1956, la tienda se trasladó a lo que luego se llamaría "el pasadizo de Sarasola", que actualmente sigue ahí y conecta la Calle Vieja y la Calle Nueva. En esa nueva etapa, Natividad y Teresa tuvieron de ayudanta a Socorro Aseginolaza, que nació en la casa contigua a la de los Sarasola en 1939 y comenzó en esa tarea con 16 años, siguiendo ahí hasta 1970. Según el cronista José Mari Urcelay, este negocio tuvo casi cien años de vida. ❖



04 _ plaza

IGNAZIOAGIRRENEA (Iturraundi) 7 IGNAZIOAGIRRENEA (Iturraundi)



Iturraundi etxea Legazpiko plazan. Izen bereko iturriaren gainean eraiki zuen XIX. mendean Ignacio Agirre Montegiren aitak (Ignacio Agirre, Burdinola Elkartea, 5-9).

[eu]

Etxe honetan bizi zen, Legazpira etortzen zenetan, Ignacio Agirre Montegi (Madril, 1861-Madril, 1942). Arbasoak legazpiarrak zituen eta historiara pasa da maila handiko argazkilari izan zelako. Haren irudiei esker hobeto ezagutu ahal izan da hogeigarren mende hasierako Legazpi.

Esteban Alzelai Guridi ikerlariak gizon honen biografia publikatu zuen 'Brinkola gogoan' liburuan (152. orria). Han zioenez, 1852an Igeraldegoiko maiorazkoak, Jose Ignazio Agirre Aztiriak, baratze bat erosi zion Udalari, toki honetan zen herri-iturriaren aldamenean; eta baita ere, gertuko etxe bateko (Otsategiko) teilape zati bat eskuratu zuen. Ondoren, estalpe hori bota eta, iturriaren gainean, gaur ezagutzen dugun eraikina altxatu zuen. Dena dela, eraiki eta handik gutxira, Igeraldeko maiorazkoak anaia bati, Miguel Ignaziori, saldu zion etxea, 7.000 pezetan.

Miguel Ignazio hau genuen gure Ignacio famatuaren aita. "Don Ignacio el madrileño", esan ohi zioten legazpiarrek. Miguel Ignacio Agirre Aztiria, berriz, 1818an jaioa zen eta gaztaroan Kubara joan zen lanera. 1843ko erroldak hau dio: "ausente en ultramar".

Gure protagonistaren ama, Carmen Montegi Markaide, Donostian jaioa zen 1826an, aita hangoa zuelarik eta ama arrasatearra. Bera txikia zela, familia honek ere Kubara egin zuen. Carmen alargundu egin zen eta orduan Miguel Ignacio Agirrerekin esposatu zen, gizon hau ordurako indiano aberatsa zelarik. Gero Madrilera etorri eta hortxe jaio ziren beren lau umeak, hiru neska eta Ignacio.

Ignacio Agirrek Madrilen zeukan etxe printzipala, baina sarri etorri ohi zen Legazpira, eta udako egun batzuk Deban ematen zituen. Gaztaroan Madrilgo banku batean egin zuen lan, baina gero errentetatik bizi izan omen zen. Nahiz eta ez zen unibertsitatetik pasatu, gizon kultua zen. Europan barrena bidaiatzea maite zuen, eta zaletasun hori ongi islatuta gelditu zen bere argazkietan. Bazekien frantsesez, ez ordea euskaraz.

[es]

En esta casa vivía, cuando venía a Legazpi, Ignacio Agirre Montegi (Madrid, 1861-Madrid, 1942), un hombre de ascendencia legazpiarra que ha pasado a la historia local como fotógrafo de alto nivel. Gracias a sus imágenes se conoce mejor el Legazpi de comienzos del siglo XX.

En su artículo del libro 'Brinkola gogoan' (página 152), acerca de Ignacio Agirre Montegi, el estudioso Esteban Alzelai Guridi ofreció una detallada biografía. Según decía, en 1852, el mayorazgo del caserío Igeraldegarakoa, José Ignacio Agirre Aztiria, compró al Ayuntamiento una huerta anexa a la fuente pública que existía en este lugar, y una parte de la tejavana de un edificio anexo, llamado Otsategi. A continuación, derribó la vieja tejavana y construyó encima de la fuente el edificio que ha llegado hasta nuestros días. Pero al poco de la construcción, el mayorazgo de Igeralde vendió el edificio a su hermano, Miguel Ignacio, en 7.000 pesetas.

Este Miguel Ignacio era el padre de la persona que luego sería la gran referencia de esta casa: "Don Ignacio el madrileño", tal como le decían los legazpiarras. Miguel Ignacio Agirre Aztiria era nacido en 1818 y en su juventud marchó a trabajar a Cuba. En el padrón de 1843 aparece como "ausente en ultramar".

La madre de Don Ignacio, Carmen Montegi Markaide, vino al mundo en 1826 en Donostia, de padre donostiarra y madre de Arrasate. Siendo pequeña, esta familia se fue también a Cuba. Carmen, tras enviudar, se casó con Miguel Ignacio Agirre, quien ya para entonces vivía allí como un indiano adinerado. Luego vinieron a vivir a Madrid y allí nacieron sus cuatro hijos, tres niñas e Ignacio.

Don Ignacio el madrileño tenía su residencia principal en la capital de España, pero acudía con frecuencia a la casa de Legazpi, y veraneaba en Deba. En su juventud trabajó en un banco en Madrid, pero luego vivió de rentas. Era culto, pero no pasó por la universidad. Le



Carmen eta Ignacio Agirre Montegi anai-arrebak balkoian (Ignacio Agirre, Burdinola Elkartea, 9x12.01).

[eu] Legazpin zegoela neskamea eduki ohi zuen, hauek besteak beste: Markastegierrotako Paulina Zangitu, Aiztonagako Rufina Ugalde eta Araiako Nicolasa Amiano Albisu. Lasai bizi zen, Abc egunkaria irakurriz eta Brinkola aldera paseoan. Bazuen adiskide berezi bat, Olaberriko Braulio Zabaleta, eta sarri egoten zen Igeraldekoekin eta Patrizio Etxeberriarekin.

Gorka Salmeron argazkilari eta ikerlariak hitzaldia egin zuen 2024an kultur etxean, eta esan Ignacio izan zela lehenengo legazpiarra argazkiak egin zituena. Horiei esker, ezagunago zaigu Legazpiko orduko bizimodua. Eraikin hau hustu eta birmoldatzen hasi aurretik, Jose Luis Ugarte eta Batis Otaegi bertara sartu ahal izan ziren eta argazki-plaka asko errekuperatu, bestela seguru asko betiko galduko zirenak. Harrezkero, irudi horiek Burdinola elkarteak kudeatu ditu.

Agirrek bizimodu erosoa izan zuen, aitak Ameriketan egindako dirutzari esker. Halaxe bere bi zaletasunak landu ahal izan zituen: argazkia eta bidaiak. 2006an, Zarauzko Photomuseumek haren argazkien erakusketa eskaini zuen, 1900-1908 urte-bitarteko materialekin. Legazpitik hasi eta Donostia, Venezia, Murtzia, Valentzia, Burgos, Madril, Kordoba, Marseilla, Tanger, Biarritz eta

[es] gustaba viajar por Europa, tal como se aprecia en sus trabajos fotográficos. Dominaba el francés, no así el euskera.

En Legazpi contaba con criada, entre las que se encontraban Paulina Zangitu de Markastegierrota, Rufina Ugalde de Aiztonaga y Nicolasa Amiano Albisu de Araia. Hacía vida tranquila, leyendo el periódico Abc y paseando hacia Brinkola. Tenía una amistad especial con Braulio Zabaleta, de Olaberria, y también trato frecuente con Patricio Etxeberria y la familia de Igeraldegarakoa.

Tal como informó el fotógrafo y estudioso Gorka Salmerón Murgiondo en una conferencia en la casa de cultura en 2024, Agirre fue el primer legazpiarra que hizo fotografías. Parte de ellas son documentos muy interesantes sobre las personas y modos de vida del Legazpi de comienzos del siglo XX. Poco antes del derribo de todo el interior del edificio, pudieron entrar en el inmueble José Luis Ugarte y Batis Otaegi, y recogieron placas fotográficas, un material que de otra forma hubiera podido desaparecer. Luego, estas imágenes han sido gestionadas por la asociación Burdinola.

Agirre llevó una vida cómoda gracias a la fortuna que hizo su padre, el legazpiarra Miguel Ignacio Agirre, en América. De este modo, pudo dedicarse a cultivar diferentes aficiones como la de viajar y la fotografía.

En 2006, el Photomuseum de Zarautz le dedicó una amplia exposición, con fotografías datadas entre 1900-1908, que mostraban motivos de que iban desde Legazpi a Venecia, pasando por Donostia, Murcia, Valencia, Madrid, Burgos, Sevilla, Málaga, Córdoba, Tánger, Biarritz, Marsella y el Rhin. El crítico de arte

[eu] Rhin-eko irudiak ziren, adibidez. El Diario Vasco-ko kritikari Jose Javier Fernandezek hau idatzi zuen: "Ondorioztatu dezakegu Ignacio Agirrerentzat argazkia ez zela denbora-pasa hutsa, bere mailako eta bizimoduko pertsona askorentzat ez bezala; aitzitik, bere munduikuskera erakusteko bidea izan zuen".

Gizon honek kezka agertu zuen bere herriarekiko. Jose Mari Urcelay kronistak, 2006ko 'Txinpartak' aldizkarian, kontatu zuen nolako pausoak eman zituen Legazpik tren-geltokia eduki zezan. Lehenbiziko saiakerek, 1908-09koek, ez zuten fruiturik eman, baina azkenean 1931n helburua lortu zen.

1942an hil zen Don Ignacio, eta orduan eraikina iloba batzuek eskuratu. Udalak, 1946an, Correosi eskaera egin zion, bulegoa zabaldu zezala Legazpin, eta baiezkoa jaso. Txinpartak aldizkariaren 12garren alean Jose Mari Urcelay kronistak azaldu zituen handik aurrerako pausoak: Correosek baietz esan zuen, baina Udalak egoitza jarri behar zuen eskura, eta postariaren etxebizitza ere eskaini behar zuen. Azkenean, Udalak Ignacio Agirreren ilobarengana jo zuen, Alvaro Rodrigez Agirre, eta adostu zuten Iturraundiko etxe hau hamar urterako errentan uztea, urtean 175 pezeta ordainduta. Lokala egokitzeko lanak Udalak hartu zituen bere gain eta 1947ko urtarrilak 16 eman zuen ministerioak bulegoa zabaltzeko agindua. Lehenbiziko postaria Gabino Escudero izan zen, eta lana eta bizi, dena egin zuen eraikin honetan.


Gorka Salmeronek bere hitzaldian gogorarazi bezala, kontu bitxia gertatu zen: 1940.eko hamarkada bukaeran, postari moduan Luis López Rodríguez palentziarra (Santullán, 1923) jardun zen, etxe honetantxe bizi zelarik, eta hain zuzen ere bera izan zen Legazpiko lehenengo argazkilari profesionala, estudioa Santikutz kaleko laugarren zenbakian eduki zuelarik; hala ere, toki horretan beste negozio bat ere bazuen, bigarren eskuko liburuena. López Errusian izan zen bigarren mundu gerrakoan, División Azul-eko kide gisa, eta Elfrida Strauss-ekin ezkondu zen. Nolanahi ere, ez ziren luzaroan bizi Legazpin, 1950ean Brasilera joan ziren. ❖

[es] de El Diario Vasco José Javier Fernández, escribió entonces: "Podemos deducir que la fotografía no era para Ignacio Aguirre solamente un pasatiempo, como ocurrió en el caso de otras muchas personas en su situación y su posición, sino un medio a través del cual expresarse y mostrar su propia visión del mundo".

Este hombre se preocupó por el pueblo. El cronista José Mari Urcelay, en la revista 'Txinpartak' de 2006, detalló las gestiones ante la Renfe para que se instalara un apeadero en Legazpi. Los primeros intentos, en 1908-09, infructuosos, pero finalmente en 1931 se consiguió.

Al fallecer Ignacio, en 1942, la casa pasó a sus sobrinos. El Ayuntamiento, en 1946, se dirigió a Correos para solicitar una estafeta para la localidad, y Correos respondió positivamente. El cronista José Mari Urcelay escribió en el número 12 de 'Txinpartak': "El Ayuntamiento recibió respuesta favorable, pero tenía que proporcionar local para la oficina y vivienda para el funcionario. Tras examinar diferentes opciones para la ubicación de la estafeta, gestionó con el heredero de Ignacio Aguirre, su sobrino Alvaro Rodríguez Aguirre, el alquiler por 10 años de la casa de Iturraundi, con una renta anual de 175 pesetas. Las obras de acondicionamiento se llevaron a cargo del Ayuntamiento. El 16 de enero de 1947 se recibió la orden ministerial de la apertura de la estafeta y el 20 de febrero era designado Gabino Escudero como primer funcionario que ocupaba la oficina y la vivienda".

Tal como recordó en su conferencia Gorka Salmerón, curiosamente, a fines de la década de 1940, trabajó de administrador de Correos, con vivienda en el primer piso, el palentino Luis López Rodríguez (Santullán, 1923), que fue el primer fotógrafo profesional de Legazpi, con estudio en la Calle Santa Cruz número 4, si bien en el local se dedicaba también al negocio de los libros usados. López estuvo en Rusia en la segunda guerra mundial, alistado en la División Azul, y se casó con Elfrida Strauss. El matrimonio no hizo mucho tiempo en Legazpi; en 1950 se trasladó a Brasil. ❖



04 _ plaza

ETXEZURI 8 ETXEZURI
Makibarren etxea eta Pedro Seguraren etxea
casa de Makibar y casa de Pedro Segura



Plaza inguruko etxeak 1927. urte aurretik. Lehen planoan, Aseginolazanea, Ospital zaharra, Txokolateronea eta oraingo kontseju-etxea. Erdian, Pedro Seguraren etxea, Buenaventura eta eliza. Atzean, Agirreplaza
(Enrique Guinea, Gasteizko Udal Artxiboa, GUI VII-145.22).

[eu]

Aspaldi batean bi etxe zeuden toki honetan, hogeigarren mende hasieran Ignacio Agirre Montegik eginiko argazki batzuetan ondo ikus daitekeenez. Bikarioetxetik gertuen, kare zuriz margotutako etxea zegoen, 1637an aipatuta agertzen dena. Oñatiko protokolo artxiboan bada orduko agiri bat (AHPG-GPAH 1/4029, F:24r-24v) honela dioena: "Escritura de arrendamiento de la casa Echeçuria, sita en la plaza de Legazpia, junto a la iglesia, junto con todos sus pertenecidos, por parte de su propietario, el legazpiarra Lorenço Lopez de Plaçaola, a favor de los esposos y convecinos Francisco de Oruesagasti y Ana de Herraçu". 1631n Lorenzok berea zuen Mirandaolako burdinola ere, eta herriko alkate ere bazen.

Geroxeago, 1678an, etxe honen jabeak Juan Bauptista de Vicuña eta Phelipa Antonia de Plaçaola senaremazte legazpiarrak genituen. Urte horretan alokairua berritzen dute eta maizterrei esaten zaie Mirandaolako burdinolako hondarrak ("los asíes o despojos") bildu eta aprobetxatu nahi badituzte errenta handiagoa ordaindu beharko dutela.

1832an, hemengo jabea Juan Antonio Lardizabal zen, zeina Bikuñaaundiko nagusia ere bazen, eta baita Bikuñako burdinolakoa ere. Handiki nabarmen bat zen eta hemeretzigarren mende hasiera aldera Gipuzkoako diputatu nagusi izendatu zuten. Ez dugu uste Legazpin bizi zenik.

1832an, Francisca Ignacia Etxeberria delakoa bizi zen Etxezurin. 1843an, Nicolas Mendizabal Beresiarte (Eskoriatzan jaioa 1802an eta ogibidez olaria), emazte Mª Cruz Agirre Guridi (legazpiarra, lau urte gazteagoa), eta zazpi seme-alaba (Jose Joaquin, Valentin, Dominica, Francisca, Mª Antonia, Jose eta Faustina), 18 eta 2 urte bitartekoak.

Jose Luis Ugarte ikerlariaren arabera, etxe honetan jaio ziren Jose Antonio eta Gaspar Alustiza Egaña, bata 1876an, bestea 1879an. Jose Antoniok drogeria eduki zuen Mantxolanean, Gasparrek hotela kalebarrenean.

[es]

Antiguamente, en este lugar había dos edificios, como se puede ver en varias fotos de comienzos del siglo XX realizadas por Ignacio Agirre Montegi. Cerca de la casa parroquial estaba una casa revestida de cal, blanca, que ya está citada en 1637. En el archivo de protocolos de Oñati (AHPG-GPAH 1/4029, F:24r-24v) existe una "escritura de arrendamiento de la casa Echeçuria, sita en la plaza de Legazpia, junto a la iglesia, junto con todos sus pertenecidos, por parte de su propietario, el legazpiarra Lorenço Lopez de Plaçaola, a favor de los esposos y convecinos Francisco de Oruesagasti y Ana de Herraçu". Lorenzo era en 1631 propietario también de la ferrería de Mirandaola, y alcalde de la villa.

Un poco más tarde, en 1678, los propietarios de la casa eran los esposos legazpiarras Juan Bauptista de Vicuña y Phelipa Antonia de Plaçaola. Dejan la casa en arriendo y estipulan que, en el caso de que a los inquilinos les interese recoger "los asíes o despojos" de la ferrería de Mirandaola deberán pagar una renta más alta que si no lo hicieran.

En 1832, su dueño era Juan Antonio Lardizabal, que también poseía el palacio de Bikuña y la ferrería de igual nombre y había sido a comienzos del XIX diputado general de la provincia. Pero no creemos que viviera en ese edificio.

En 1832, esa casa, llamada Etxezuri, estaba habitada por Francisca Ignacia Etxeberria. En 1843, viven ahí Nicolás Mendizabal Beresiarte (nacido en 1802 en Eskoriatza y de profesión ferrón) y su esposa Mª Cruz Agirre Guridi (legazpiarra y cuatro años más joven), junto con siete hijos (José Joaquín, Valentín, Dominica, Francisca Mª Antonia, José y Faustina), de entre 18 y 2 años.

En esta casa Etxezuri, según el investigador José Luis Ugarte, nacieron José Antonio y Gaspar Alustiza Egaña, en 1876 y 1879 respectivamente. El primero destacó por su establecimiento de droguería, en la casa en la que vivía, Mantxolanea; y Gaspar abrió un hotel en el extremo del casco urbano.

[eu]

Makibar indianoaren etxea

Aldamenean, beste etxe handiago bat zegoen, balkoi dotoreak zituena. Martin Jose Makibar indianoak (Legazpi, 1815) XIX. mendearen bigarren erdian eraikitakoa zen. Mexikon aberastu zen, elikagaien inguruko negozioei esker, eta Angela izeneko alaba eduki zuen (Angela Makibar Gordillo), Legazpiko gizon oso-oso esanguratsu batekin ezkondu zena: Pedro Regalado Segura enpresa-burua. Hain zuzen ere, uste izan da Seguraren enpresa-ibilbidean oso garrantzitsuak izan zirela emazteak aitarengandik herentzian jasotako diru eta ondasunak.

1877an ezkondu ziren Pedro Regalado Segura (1852-1936) eta Angela Makibar Gordillo. Bata Elgetan jaioa zen eta Oñatiko notarioaren semea genuen. Angelaren jaioturterik ez dakigu, baina bai Mexikoko hiriburuan jaioa zela. Ezkondu eta etxe dotore honetan bizitu ziren, bertan jaio zirelarik beren bederatzi seme-alabak: Joaquin Antonio (1878), Ana Mª Jesus (1880), Josefa Raimunda Eufemia Dorotea (1882), Norberta Margarita Ysidora (1884), Eugenia (1885-1957), Ubaldo (1887-1950), Catalina (1889-1957), Jesus (1890-1970) eta Luciano (1891-1955).

Azken semea jaio eta orduko osasun-arazo batzuengatik hil zen Angela, 1891n bertan. Pedro Segura hurrengo urtean ezkondu zen berriz ere, Aretxabaletako Joaquina Otadui Altunarekin, zeinak 36 urte baitzituen. Honekin ez zuen haurrik izan.

[es]

La casa del indiano Makibar

Adosada, en dirección hacia Bikuña, había otra casa mayor, con balcones elegantes, la que había edificado el indiano Martín José Makibar (Legazpi, 1815) en la segunda mitad del siglo XIX. Se enriqueció en México, en negocios relacionados con la alimentación, y tuvo una hija, Ángela Makibar Gordillo, que luego se casó con un hombre que ha sido capital en la historia de Legazpi, el empresario Pedro Regalado Segura. Además, se piensa que la aportación económica de la esposa sería de gran trascendencia en los posteriores negocios de Segura.

Pedro Regalado Segura (1852-1936) y Ángela Makibar Gordillo se casaron en 1877. Él era nacido Elgeta, e hijo del notario de Oñati. No sabemos la fecha de nacimiento de Ángela, pero sí que nació en la capital de México. Tras casarse vivieron en esta hermosa casa, y allí nacieron sus nueve hijos: Joaquín Antonio (1878), Ana Mª Jesús (1880), Josefa Raimunda Eufemia Dorotea (1882), Norberta Margarita Ysidora (1884), Eugenia (1885-1957), Ubaldo (1887-1950), Catalina (1889-1957), Jesús (1890-1970) y Luciano (1891-1955).

Los cuatro primeros niños murieron pronto, según parece. Las complicaciones en el último parto, el de 1891, pudieron con la vida de Ángela. Pedro Segura se casó de nuevo al año siguiente, esta vez con Joaquina Otadui Altuna, de 36 años y natural de Aretxabaleta. No tuvieron más hijos.

[eu]

1912an etxe berria

1912an, etxe hau eta aldameneko Etxezuri bota, eta orube zabal horretan gaur ikus daitekeen jauregi moduko etxe hori altxarazi zuen Pedro Segurak. Hortxe bizi izan zen familia zabala.

Pedro Segura, ideologiaz, karlista izan zen, eta oso gizon kontserbadorea. Ez dago argi noiz eta nolatan azaldu zen Legazpira. Seguru asko, Candelario Iturbek deituta. Gizon hau ere Elgetan jaioa zen, Zumarragan bizi zen eta Legazpin kartutxo fabrika zeukan.

Segurak eta Iturbek elkar hartu zuten, eta 1888ko Bartzelonako Erakusketa Unibertsalean erakusmahaia ipini. Gero, Segurak bere bide propioari ekin zion eta kartutxoen zorroak eta pirotekniako tutuak egiten hasi. Kanuteria esan ohi zioten Elbarrenako fabrika horri. Bestalde, 1888an teileria jarri zuen martxan. 1894an bi fabrika zituen: kartutxo fabrika (45 langile) eta teileria (40 langile). Geroago orrazi-fabrika sortu zuen, Peineteria.

Pedro Seguraren bi alaba, Eugenia eta Catalina, Emakume Abertzale Batzako kide izan ziren. Bigarren horrek euskarazko katekesia ematen zuen eta baita euskara-eskolak ere. 1936ko gerrakoan isun handiei egin behar izan zien aurre. Beste seme bat, Jesus, aitaren teileriaz arduratu zen, eta seme Luciano ere hor aritu zen, bulegari. Herrian eragin handiena eduki zuena, hala ere, seme Ubaldo izan zen; herriko alkate izan zen Errepublika garaian, EAJren izenean, eta nazionalak herrian sartzean Ipar Euskal Herrira egin zuen ihes. Gerra baino lehen, aitak sortutako Peineteria gobernatu zuen.

[es]

Casa nueva en 1912

En 1912, Pedro Segura derruyó estos dos edificios y en el amplio solar mandó edificar la casa-palacio que ha llegado hasta nuestros días. Y ahí vivió la amplia familia.

Pedro Segura era un hombre de ideología carlista y muy conservador. No está claro cuándo y cómo llegó a Legazpi, pero se cree que lo hizo invitado por Candelario Iturbe, un hombre nacido también en Elgeta, que residía en Zumarraga y en Legazpi tenía una fábrica de cartuchos.


Segura e Iturbe se aliaron y en 1888, en la Exposición Universal de Barcelona, montaron un stand conjunto. Luego Segura siguió su propio camino y puso en marcha en la zona de Elbarrena una factoría de fundas de cartuchos y canutos para pirotecnia. Se le decía Canutería. Además, en 1888 puso en marcha una tejería. En 1894 poseía dos fábricas, la de cartuchos, con 45 operarios, y la tejería, con 40. Más tarde fundó la Peinetería.

Dos hijas de Pedro Segura, Eugenia y Catalina, fueron miembros de Emakume Abertzale Batza, y Katalintxo daba catequesis en euskera y también clases de euskera, por lo que tras la guerra del 36 hubo de hacer frente a una gran multa.

Otro hijo, Jesús, fue el que gobernó luego la tejería, y en esa factoria trabajó también Luciano, como oficinista. Pero el hijo que mayor huella dejó fue Ubaldo, pues en los años de la república fue alcalde, por el PNV, y al entrar los nacionales en 1936 marchó al exilio, a Iparralde. En los años anteriores a la contienda había dirigido la Peinetería.



Mª Teresa Yanci eta Ubaldo Segura.



Pedro Segura (Mª Jesus Segurak emana).

[eu] 1936ko gerra piztu zenean, gizon ezkongabea zen Ubaldo Segura. Erbestetik bueltan, 1940ko hamarkadan, Donostian bizi izan zen, etxe batean apopilo, eta bertan Mª Teresa Yanci ezagutu, nazionalek fusilatutako karabinero baten alaba, ordurako alargun gelditutakoa. Ezkondu ziren Ubaldo eta Mª Teresa, eta gizonak alabatzat hartu emazteak lehendik zeukan alaba, izen berekoa: Tere Camps Yanci.

1950ean hil zen Ubaldo, eta Mª Teresa Yanci alarguna parroki ondoko etxe honetan bizi izan zen. 1954an ezkondu zen haien alaba Tere Camps, Eugenio Arbiderekin, hau berriz Papelerako gerentearen semea. Ezkontza-elizkizunerako alfonbra gorria ipini zuten etxetik elizatariraino.

[es] Al estallar la guerra del 36 Ubaldo Segura estaba soltero. A la vuelta del exilio, en los años 40, vivió de pupilo en una casa de Donostia. Allí conoció a Mª Teresa Yanci, hija de un carabinero fusilado por los franquistas, que ya para entonces estaba viuda y tenía una hija, de igual nombre: Tere Camps Yanci. Se casaron y Ubaldo adoptó como hija propia a Tere.

Ubaldo Segura falleció en 1950 y su esposa Mª Teresa Yanci vivió en esta casa-palacio. En 1954, Tere Camps se casó con Eugenio Arbide Elorza, un hombre de otro linaje importante de Legazpi, pues era hijo del gerente de la Papelera y de la hija del antiguo dueño. Ese día se puso alfombra roja desde el palacio hasta el pórtico de la iglesia parroquial.



Eliza aldeko ikuspegi bitxia, 1912. urtekoa baino lehenagokoa, ez baita Pedro Seguraren etxea ikusten. Haren lekuan Etxezuri dago eta ondoan, balkoiarekin, Angela Makibarren etxea, XIX.mendean eraikitakoa. Beherago, Bikarioetxe zaharra, pareta handi batek bertako baratza inguratzen duela
(Ignacio Agirre, Burdinola Elkartea, 5-1).

[eu] Legazpiarren oroimenean, hura izan zen etxe honetako une gorena. Izan ere, bi familia indartsuk bat egin baitzuten. Bi atari zituen Seguraren etxeak. Behean, Eugenia, Katalintxu eta Luziano anai-arreba ezkongabeak bizi ziren azken aldera. Goiko atarian, lehenengo solairuan, Jesus Segura Makibar eta Estefania Arregi, "niño de oro"-ren gurasoak; bigarren solairuan, Tere Camps eta Eugenio Arbide. Hauek sei seme-alaba izan zituzten, eta 1970eko hamarkada hasieran-edo Donostiara bizialdatu. ❖


[es] Esa fecha de 1954 quedó marcada para siempre en la memoria de los legazpiarras. Se fundían dos estirpes muy importantes. La casa de los Segura tenía dos portales. En el de abajo vivieron los hermanos solteros Eugenia, Katalintxu y Luciano. En el de arriba, en la primera planta, Jesús Segura Makibar y Estefanía Arregi, padres del hijo al que decían 'el niño de oro'; y en el segundo piso, Tere Camps y Eugenio Arbide, que tuvieron seis hijos y hacia comienzos de los años 70 se trasladaron a San Sebastián. ❖





05
[elizondo]

1. Arrolategi
2. Ibarrategi
3. Gerranea
4. Gerranetxiki
5. Etxaestu
6. Beatakoa
7. Agirreplaza
8. Buenaventura
9. Bikarioetxea



05 _ elizondo

ARROLATEGI (Elizondo, Gaxparrenea, Dendaberri, Mutilloarrana)

1 ARROLATEGI (Elizondo, Gaxparrenea, Dendaberri, Mutilloarrana)



Arrolategi antzina, Elizondo gaur egun (Santiago Fz. de Quincoces)

[eu]

1832an, jabea Domingo Guridi zen; eta maizterrak, Juana Bautista Ymaz Zugasti legazpiarra eta beronen senarra, Arrasaten jaiotako Valerio Aranguren Sagasta.

1910ean, biztanleok ageri zaizkigu: Gaspar Alustiza Egaña (Legazpi, 1879, ezkondu aurretik Etxezuri eta Buenaventura etxeetan bizitutakoa), artean 31 urtekoa eta Felipa Mujika Legorbururekin ezkondua, hau berriz Gabirian jaioa eta 36 urtekoa. Gasparren aita, Ascencio (Mutiloa, 1832); ama, Josefa (1839, Aizarnazabal). Arrolategiko etxe honetan, bizi ez ezik, bertako taberna ere eraman zuten Gaspar eta Felipak. Eta 1920an, seme-alabok bizi ziren Gaspar eta Feliparekin: Alonso (14 urte), Josefa (12), Marcelina (8), Elisa (6) eta Julia (4).

Gaspar, baita ere, postari izan zen, eta 1930ean hotela fundatu zuen, herriko kale aldeko beste muturrean. Halaber, gasolindegia ipini zuen. Garai hartan protagonismo handia eduki zuen herrian, noski.

1910ean Arrolategin zegoen beste familia bat, Zabaleta-Apaolazatarrena. Juan Jose Zabaleta Gurrutxaga Matxinbentatik etorria zen eta saskiak egin ohi zituen; emazte Petronila Apaolaza, berriz, Legazpin jaioa genuen. Biak ala biak 1861ean jaioak ziren eta bi seme eduki zituzten, Demetrio eta Felix, goitizena 'Bildotsola' zutenak, seguru asko aitaren jaiotetxea horixe zelako. Horietan gazteena, Felix, 1904an jaioa, dantzari izan zen. Bi senideok ezkondu gabe hil ziren.

Felix 'Bildotsola' katebegi garrantzitsua izan zen euskal dantzen transmisioan. Ezpatadantzako kapitaina izana zen, eta aurreskularia. Nicolas Urmenetak berarengandik ikasi zituen lehen pausoak, eta baita Avelino Ziaranengandik ere. 1981ean omenaldi egin zioten Felixi, eta Sustraiak taldea aritu zen herriko plazan.

1920ko urtean, Gaspar Alustizak lagunok zituen ostatu emanda, herriko fabriketan ari zirenak: Octave Bouchandon frantziarra (ajustadorea), Felipe Mondragon Aiastui 'Errosta' eta Francisco Anduaga Txintxurreta oñatiarrak, Segundo Fernandez Martinez asturiarra,

[es]

En 1832, el propietario era Domingo Guridi, y los inquilinos, la legazpiarra Juana Bautista Ymaz Zugasti y su marido, el arrasatearra Valerio Aranguren Sagasta.

En 1910, aparecen como residentes Gaspar Alustiza Egaña (1879), de 31 años, y su esposa Felipa Mujika Legorburu, de 36, natural de Gabiria. Antes de casarse, Gaspar había residido en la casa Buenaventura, "la de la Martxeli", y era hijo de Asencio (1832, Mutiloa, cantero) y Josefa (1839, Aizarnazabal). En esta casa de Arrolategi, Gaspar y Josefa no solo vivieron, sino que regentaron el bar de la planta baja. Y en 1920 tenían estos hijos: Alonso (14 urte), Josefa (12), Marcelina (8), Elisa (6) y Julia (4).

Gaspar fue también cartero y en 1930 fundó el hotel que llevaba su nombre, situado en el otro extremo del casco urbano. Llevó también un negocio de suministro de gasolina. Tuvo un gran protagonismo en aquella época.

Otra familia de ese año 1910 era la de los Zabaleta-Apaolaza. Juan José Zabaleta Gurrutxaga había venido de Matxinbenta y era cestero; su mujer, Petronila Apaolaza, era natural de Legazpi. Ambos habían nacido en 1861 y tuvieron dos hijos, Demetrio y Félix, a quienes les llamaban con el apelativo de 'Bildotsola', seguramente porque el padre era nacido en el caserío de ese nombre. El menor, Félix, nacido a comienzos del siglo XX, fue dantzari. Ambos fallecieron solteros.

Félix 'Bildotsola' fue importante en la transmisión de las danzas. Había sido capitán de la ezpatadantza y también aurreskulari. Enseñó los pasos a Nicolás Urmeneta, que también tuvo como instructor a Avelino Ciaran. En 1981, Félix recibió un homenaje, con bailes del grupo Sustraiak en la plaza del Ayuntamiento.

En el año 1920, Gaspar Alustiza tenía alojados a varios operarios de las fábricas del pueblo: el francés Octave Bouchandon, los oñatiarras Felipe Mondragón Aiastui 'Errosta' y Francisco Anduaga Txintxurreta, el gerundense Segundo Fernández Martínez, el legazpiarra Ce-



Arrolategiko Mendinueta eta Urkia zaharrak.



Teresa Mendinueta.



Juan Kruz Belaunzeta Mendinueta.



Felix 'Bildotsola', goian erdi aldean, eskuan makila berezia duela. (Angel Muruak emana).



Felix 'Bildotsola'-ri omenaldi egin zion Sustraiak taldeak 1981ean (Angel Muruak emana).

[eu] Celestino Makibar Civera (legazpiarra, teileriako langilea) eta Julian Lasa Sarasola beasaindarra, orduan 22 urteko gaztea, eta gero Patrizio Etxeberriaren fabrikako goi-karguduna izango zena, eta nagusiaren alaba nagusiarekin, Lorenekin, ezkonduko zena.

1923tik aurrera, Jose Etxeberria Aranburu (1877-1954) eta emazte Dolores Murgiondo Barrenetxea (1888-1969) hasi ziren etxe honetan bizitzen. Mutiloako Olamuño edo Kantiña baserritik azaldu ziren, lau semealaba zituztela: Juan (1910, gero harakin eta bolari sonatua izango zena), Emilia (1912, EAJko Daniel Aranguren alkatearekin ezkondu eta Kuban deserrira-

[es] lestino Makibar Civera (de la tejería) y un joven beasaindarra de 22 años, Julián Lasa Sarasola, entonces "escribiente", y que luego serían un alto cargo en la fábrica de Patricio Etxeberria y se casaría con la hija mayor del patrón, Loren.

A partir de 1923 se instalaron en esta casa José Etxeberria Aranburu (1877-1954) y su esposa Dolores Murgiondo Barrenetxea (1888-1969, que habían llegado del caserío Olamuño o Kantiña de Mutiloa con cuatro hijos: Juan (1910, que luego sería carnicero y afamado jugador de bolos); Emilia (1912, que se casó con el al-



Mariatxo Etxeberria eta Txomin Zubeldia (Agustin Zubeldiak emana).

[eu] tua bizi izan zena), Lucas (1914, gazterik hila) eta Maria (1921-2015, jendeak Mariatxo esaten ziona, Txomin Zubeldia edari-banatzailearekin ezkondu zena).

Etxeberria-Murgiondotarrok beheko solairuko taberna hartu zuten gainera. 1934an, Antonia Bereziartua (Anttoni pelukerea) Legazpira azaltzean, hamalau urte zituela, familia honekin jarri zen bizitzen. Alaba Mariatxoren laguna egin zen, hau berriz, urte bat gazteagoa. Anttoni gertaera larriak bizitutakoa zen 1931n: Andres anaia (lau urte gazteagoa) eta bera izan ziren Ezkion Ama Birjina ikusi uste zuten lehenak. Jakina denez, gotzainak erabaki zuen agerpen horiek ez zirela egiazkoak, eta handik aurrera Anttoni estigmatizatuta gelditu zen. Ez zuen denbora asko egin Arrolategin, berari aterpe emandako familia Kale Berriko etxe batera pasa baitzen. Orduan, Irubiden jarri zen, taberna eta jatetxe ez ezik pentsio ere bazen eta. Geroago ile-apaindegia zabaldu zuen Irubide parean, beste espaloian, eta bertan jarri gelatxoa eta sukaldea. Ile-apaindegiko lanetik atera zuen bizimodua, eta mediak konpontzen ere lortu zuen sosa franko.

1940 eta 1950eko hamarkadetan, eta beharbada lehenago ere bai, Arrolategiko jabea Juan Plazaola Ormazabal izan zen, 'Juan kojoa' (Legazpi, 1897), 1930ean al- [es] calde del PNV Daniel Aranguren y vivió exiliada en Cuba); Lucas (1914, fallecido joven) y María (1921-2015, conocida como Mariatxo, se casó con Txomin Zubeldia, distribuidor de bebidas).

Los Etxeberria-Murgiondo no solo se alojaron en esta casa, sino que regentaron el bar de la planta baja. Cuando en 1934, con catorce años, Antonia Bereziartua ('Anttoni pelukerea') llegó a Legazpi se alojó con esta familia, y se hizo amiga de Mariatxo, que era un año menor. Antonia había pasado por una experiencia traumática en 1931: fue, junto con su hermano Andrés (cuatro años menor), la vidente inicial de las llamadas Apariciones de la Virgen de Ezquioga. Como se sabe, el obispo dictaminó que no eran ciertas y Antonia a partir de entonces llevó una existencia estigmatizada. Su estancia en Arrolategi no fue larga, dado que la familia de acogida fue a vivir a un nuevo edificio de la Calle Nueva. Entonces, Antonia se instaló en Irubide, que además de bar-restaurante era pensión, y más tarde abrió peluquería al otro lado de la calle, y allí mismo se hizo su habitación-cocina. Vivió de sus trabajos de peluquera y de recoger los puntos de las medias.

En los años 40 y 50, y quizá antes también, el dueño de la casa Arrolategi fue Juan Plazaola Ormazabal,



Zabaleta erloju eta bitxi-denda, inaugurazio egunean (Xabier Zabaletak emana).



Jesus Urkia, Juan Kruz Belauntzeta, Mª Jesus Urkia, Esteban Urkia, Mª Teresa Urkia, Luis Arrizabalaga, Teresa Mendinueta eta Jose Mari Belauntzeta (Mª Jesus Urkiak emana).

[eu] kate izandakoa eta gero Donostian bizi izandakoa, han negozioak zeuzkalarik. Agirreplazan jaioa zen, bertako jabe genuen baita ere (ikus Agirreplazako atala).

Hogeigarren mendean aurrera eginda, beste pertsona giltzarri bat Teresa Mendinueta (Arbizu, 1907) izan zen. Lehenbizi Arrolategiko tabernaren ardura izan zuen, gero eraikin osoa erostera ailegatu zen. Nafarroako Arbizun jaioa, zazpi urte zituela gertuko herri batera bidali zuten, Irañetara, ume batzuk zaintzera. Ez zuen Arbizun baserritar bukatu nahi, eta ezkondu aurretik Iruñeko kafetegi batean egin zuen lan, Iruña izenekoan, eta baita Donostiako Casa Nicolasan ere.

Lehenbiziko senarra Santiago Urkia izan zuen, hura ere arbizuarra. Gizonak Patrizionean lan egin behar zuela eta, Legazpira azaldu ziren eta, lehenbizi, Brinkolako zubi ondoko etxeetako batean hartu zuten aterpe. Zoruan egiten zuten lo, oheak apopilo batzuei utzita. Gero Kale Berrira jaitsi ziren, Errepublikaren Etxea izandakora. Beheko solairuan Sagastume linterneroak bere tailerra zeukan.

'Juan kojoa' (Legazpi, 1897), un hombre nacido en Agirreplaza, hijo de la familia propietaria de ese inmueble, y donde pasó su juventud. En 1930, antes de la proclamación de la república, fue alcalde durante catorce meses. Luego residió en Donostia. [es]

En el siglo XX, una figura clave fue Teresa Mendinueta (Arbizu, 1907), que regentó el bar Elizondo, situado en esta casa, y con el paso del tiempo fue también propietaria del edificio. Nacida en Arbizu, con siete años la mandaron a cuidar niños al cercano pueblo de Irañeta. No quería acabar siendo casera en esa localidad, y siendo soltera trabajó en la cafetería Iruña de Pamplona y en Casa Nicolasa de San Sebastián.

Su primer marido fue Santiago Urkia, también natural de Arbizu. Llegaron a Legazpi porque Santiago iba a trabajar en la fábrica de Patricio, y se instalaron en Brinkola, en una de las casas del puente. Dormían en el suelo, para que los pupilos tuvieran cama. Después se instalaron en la Calle Nueva, en la casa que en su planta baja tenía la fontanería de Sagastume; precisa-

[eu] 1930. hamarkada bukaera aldera, Elizondo taberna gobernatzen hasi zen Teresa Mendinueta. Horretarako, Zumarragako okin batek, Agirrek, dirua utzi zion. Lehenago, taberna hori Gaspar Alustizak izana zuen, esan bezala. Ordurako, eraikin honetan egina zen hirugarren solairua; kanpo aldetik harririk agertzen ez den solairua, alegia.

Teresa Mendinueta 1944an gelditu zen alargun. Santiagorekin lau seme-alaba izan zituen: Mª Teresa (1933), Esteban, Maria Jesus (1936) eta Jesus (1941). Hurrego urtean Pedro Belauntzetarekin ezkondu zen, hau ere Patrizioneko langilea. Gizon honekin beste bi seme eduki zituen, Jose Mari (1946) eta Juan Cruz (1948), azkeneko hau gazterik hil zelarik, 44 urte zituela. Bigarren senar hau 1952an hil zen.

1958. urte aldera, Teresak eraikin osoa erosi zuen, taberna eta guzti. Lehenago aipatutako Juan Plazaolari ('Juan kojoa') erosi ere.

1950eko hamarkada erdialdera, eguerdian hirurogei otordu ematen zituzten, Teresa sukaldeko buru. Bigarren solairuan apopiloak zituzten. Teresaren semeak goizean goiz joan ohi ziren tren-geltokira, Zegamako baserri batetik zetorren esnea jasotzera. Gero, atzera beste tren batean uzten zituzten hustutako marmitak.

Emakume hau oso ekintzailea izan zen. 1950eko hamarkadan luzatu bat eman zion etxeari bi aldeetan. Andresene aldera, zati berrian, janari-denda zabaldu zuen, non baita ere apretak eta txapelak saltzen baitzuen. Oskarbi optika dagoen lekua, berriz, ikuilua zen. Eta Biteri anaiek ere, Luis eta Segundok, hortxe eduki zuten ile-apaindegia. Teresak 1960-61era arte egin zuen lan taberna-jatetxean. Gero, seme gazteek hartu zuten horko ardura, Jose Mari eta Juan Cruz Belauntzetak.

Pedro Belauntzeta oso zen pilotazalea eta berak eraman zuen frontoiko taberna ere. San Ignazio auzoko festetan ere taberna ipintzen zuen bertan.

1950eko hamarkadatik aurrera, Teresaren seme eta alaba batzuk eraikin honetantxe bizi izan ziren: Maria

[es] mente en el sitio que en los años de la República había sido sede de Izquierda Republicana.

A fines de los años 30, Teresa Mendinueta cogió el bar Elizondo, con el dinero que le prestó Agirre, un panadero de Zumarraga. Hasta entonces, el bar había sido gestionado por la familia de Gaspar Alustiza, el hombre que puso en marcha el Hotel Gaspar en el otro extremo de la Calle Nueva. Ya para entonces al edificio se le había levantado el tercer piso, el que no tiene piedra en la fachada.

Teresa Mendinueta enviudó en 1944. Había tenido con Santiago cuatro hijos: Mª Teresa (1933), Esteban, María Jesús (1936) y Jesús (1941). Al año siguiente se casó con Pedro Belauntzeta, quien también trabajó en la fábrica de Patricio. Con este marido tuvo otros dos hijos: José Mari (1946) y Juan Cruz (1948), quien murió joven, a los 44 años. Este segundo marido murió en 1952.

Hacia 1958 Teresa compró el edificio entero, incluyendo el bar, que ya llevaba décadas siendo también restaurante. Lo compró al ya mencionado Juan Plazaola, 'Juan kojoa'.

A mediados de los 50 se daban sesenta comidas, con Teresa al mando de la cocina. El segundo piso estaba destinado a alojar pupilos. Los hijos de Teresa acudían temprano a la estación de la Renfe para recoger la leche procedente de un caserío de Zegama, y más tarde devolvían las marmitas en otro tren.

Esta señora era muy emprendedora. En la década de 1950 alargó la casa en los dos extremos. En dirección hacia Andresenea abrió una tienda de ultramarinos, donde también vendía alpargatas y txapelas. En esa zona estuvo también la peluquería de los hermanos Biteri, Segundo y Luis; y en el lugar que hoy ocupa la óptica Oskarbi hubo cuadra. Teresa trabajó en el bar-restaurante hasta 1960-61. Luego el negocio fue gestionado por los hijos más jóvenes, José Mari y Juan Cruz Belauntzeta.

Pedro Belauntzeta era aficionado a la pelota y gestionó el bar del frontón. Cuando llegaban las fiestas de San Ignacio, instalaba un bar en el barrio.

[eu] Teresa Urkia (Luis Arrizabalagarekin ezkonduta), Esteban Urkia (Feli Inzarekin ezkonduta), Mª Jesus Urkia (Juan Jose Yancirekin ezkonduta), Jose Mari Belauntzeta (Mila Suduperekin ezkonduta) eta Juan Cruz Belauntzeta (Arantxa Manzisidorrekin ezkonduta). Beste seme bat, Jesus Urkia, Gasteizera ezkondu zen.

Hogeigarren mende erdi aldera bertan bizi izandako beste batzuk: Kortazar-Laskuraindarrak (Antzuolatik etorriak) eta Luis Sologaistoaren familia. Honek bizikleta-tailerra eduki zuen Kale Nagusian.

Lagun Artea elkartea

Legazpiko bigarren soziedadea Elizondo tabernaren gainean egon zen. Lehenengoa, 1869ko hura, Kontseju-etxekoa izan zen.

Etxe honetako soziedadea tabernako erreserbatu moduko bat zen eta 'Lagun Artea' ipini zioten izena. Horregatik, 1925ean kale berrian sortu zen elkarteari Lagun Artea Berri izena jarri zioten.

Aitor Ibañez de Garatxana historialariaren arabera arabera ('Urola Garaiko Elkarteak', Zum Edizioak, 2011), Lagun Artea 1920ean fundatu zen, eta lehenbiziko presidentea Martin Plazaola Murua ('Martin Bost') izan zuen, zeina Círculo Carlista Tradicionalista-ko buru ere baitzen.

Ari garen elkarte horretara herriko handiki batzuk joaten ziren, hala nola Telleria aita-semeak (Saturnino eta aita, biak ala biak medikuak), Bernardo Sarasola udalidazkaria, Udana gainean bizi zen Friedrich Bähr ingeniaria… Azken hori, postaren aitzakian, ia egunero jaisten omen zen zaldi-kotxean eta berdinduta ateratzen omen zen askotan. Gaspar Alustiza negozio-gizona ere biltzen omen ziren bertara. Alkate izandako Prudencio Gereta eta Romualdo Etxeberria, berriz, ez omen ziren tabernazaleak. ❖

[es] A partir de los años 50, en los diferentes pisos de la casa vivieron varios de los hijos de Teresa: María Teresa Urkia (casada con Luis Arrizabalaga), Esteban Urkia (casado con Feli Inza), Mª Jesús Urkia (casada Juan José Yanci), José Mari Belauntzeta (casado con Mila Sudupe) y Juan Cruz Belauntzeta (casado con Arantxa Manzisidor). Otro hijo, Jesús Urkia, se casó a Vitoria-Gasteiz.


Otras familias que habitaron la casa a mediados del siglo XX fueron los Kortazar-Laskurain, de Antzuola, y la de Luis Sologaistoa, quien tuvo un taller de bicicletas en la Kale Nagusia.

La sociedad Lagun Artea

Aquí estuvo enclavada la segunda sociedad de Legazpi (tras la de 1869 en la casa consistorial), concretamente encima del actual bar Elizondo. Era una especie de reservado, que fue bautizado con el nombre de Lagun Artea. Y por eso, cuando en 1925 se abrió en la calle nueva otra sociedad, le pusieron el nombre de Lagun Artea Berri.

Según el historiador Aitor Ibáñez de Garatxana ('Urola Garaiko Elkarteak', Zum Edizioak, 2011), esta sociedad nació en 1920, con Martín Plazaola Murua como primer presidente, una persona que también fue el máximo representante del Círculo Carlista Tradicionalista.

Por allí pasaban los Telleria (Saturnino y su padre, ambos médicos), el secretario Bernardo Sarasola, el ingeniero Friedrich Bähr, que vivía en el Alto de Udana… Según parece, se reunía la gente importante del pueblo. Bähr, con el pretexto de recoger el correo, bajaba casi todos los días en su coche de caballos, y según contaban, volvía algo tocado. También recalaba por allí el hombre de negocios Gaspar Alustiza. En cambio, Prudencio Gereta y Romualdo Etxeberria, que fueron alcaldes, no acostumbraban ir a las tabernas. ❖



05 _ elizondo

IBARRATEGI (Muruanea) 2 IBARRATEGI (Casa Murua)



Ibarrategi edo Casa Murua
(Gure Gipuzkoa, Indalecio Ojangurenen bilduma).



Kale Zaharraren hasiera. Lehen etxea, Ibarrategi. Bigarrena, Beatakoa
(Gure Gipuzkoa, GipuzkoaKultura).

[eu]

Aspaldi-aspaldiko etxea, orain mende batzuk Ibarrategi edo Ibarrotegi izena zeukana. Baita ere, 'Amezketa etxea' edota 'Amezketarren etxea' esaten zioten. 1997an eraitsi zuten. Gero, kalearen kontrako paretetako bat (XVI. mendekoa), harriz harri berreraiki zuten Kale Zaharreko etxe berri baten kontra; Oiarbidenea zegoen etxe berriari erantsita, hain zuzen ere.

'Txinpartak' aldizkariaren 28. alean (2014) hau dio Manolo Salmeronek: "Ibarrategi aipaturik agertzen da 1607an zerga-liburuan: 'Salete. Esalete por mirandaola, ybarrategui y más', eta aipamen horren arabera abizen hori, Legazpin, XVII. mendean existitzen zen gutxienez". Ikerlari horrek dio, baita ere, litekeena dela Felipe IV.a espainiar erregearen alaba María Victoriak etxe honetan lo egin izana, 1721eko urtezahar gauean, Leintz-Gatzaga, Arrasate eta Oñatitik zetorrela, Parisera bidean, han bere lehengusu propioarekin ezkondu behar zuela-eta. Neska hau lau urtekoa zen eta mutikoa, artean 11 urtekoa, Frantziako errege Luis XV.a izango zen gero.

Salmeronek bi legazpiar aipatzen ditu, herrian giltzarri izan zirenak eta biak ala biak etxe honi lotuak: Jose Francisco de Zumalabe y Plazaola (1682) eta beronen seme Jose Tomas Zumalabe Corta, herriko alkate 1721eko urte hartan. Jose Franciscok Madrilgo Gortean jardun zuen, errege-erreginen zaldizaina izan baitzen, hau da, errege-erreginen familiaren zalgurdien ondoan joan ohi zen haiek zaindu eta babesteko.

1832ko etxe eta baserri-zerrenda batean hau agertzen zaigu: "Ibarrotegi. Nagusia, Jose Ramon Zumalabe; maizterrak, Manuel eta Pedro Mendizabal". Beraz, ehun urte pasata ere, hortxe segitzen dute zumalabetarrak nagusi.

Baina gero, seguru asko XIX. mende erdialdera, lehengo mendizabaldar errentero haien ondorengo bat bihurtu zen etxearen jabe: Micaela Antonia Mendizabal Liziaga (Amezketa, 1824 - Legazpi, 1897). Ahizpa zenbait izan ziren: Mª Martina (Amezketa, 1820), Mª

[es]

Una casa muy antigua, que hace siglos se denominaba Ibarrategui o Ibarrotegui. También se le decía "Casa de los Amézqueta". Fue demolida en 1997, y una de las paredes de la planta baja (que data del XVI) fue trasladada, piedra por piedra, y reconstruida adosada al muro de la casa nueva que ocupa el antiguo solar de Oiarbidenea.

Leemos en un artículo de Manolo Salmerón (revista 'Txinpartak', nº 28, 2014): "Ibarrategi aparece mencionado en 1607 en el libro de impuestos: 'Salete. Esalete por mirandaola, ybarrategui y más'", e indica que este apellido, en Legazpi, data por lo menos del siglo XVII. Manolo Salmerón lanzó también la teoría de que una hija del rey español Felipe V, María Victoria (4 años), pudo aposentarse en esta casa de Ibarrategi cuando el día de Nochevieja de 1721 recaló en Legazpi, proveniente de Leintz-Gatzaga, Arrasate y Oñati, camino de París, para casarse con su primo hermano, que tenía 11 años y luego sería el rey Luis XV de Francia.

Salmerón menciona dos legazpiarras clave, ambos ligados a esta casa: José Francisco de Zumalabe y Plazaola (1682), que estuvo vinculado a la Corte Real al ser Caballerizo de S.M., es decir, ofició de jinete de compañía y seguridad junto a los coches en los que viajaba la familia real; y su hijo José Tomás Zumalabe Corta, alcalde de esta villa en 1721.

En una relación de casas de 1832 aparece lo siguiente: "Ibarrotegi, propietario José Ramón Zumalabe; inquilinos, Manuel y Pedro Mendizabal". Es decir, han pasado cien años y los dueños siguen siendo gente de apellido Zumalabe.

Pero luego, seguramente a mediados del XIX, la casa pasa a ser propiedad de una descendiente de aquellos Mendizabal inquilinos: Micaela Antonia Mendizabal Liziaga (Amezketa, 1824 - Legazpi, 1897). Según parece, fueron varias hermanas: Mª Martina (Amezketa, 1820), Mª Juana (Amezketa, 1822), Micaela Antonia (Amezketa, 1824), Rita Mª (Legazpi, 1826), Bautista Ygnacia (Legazpi, 1828) y Francisca Ygnacia (Legazpi, 1831).



Amezketarra edo Ibarrategi etxeko ezkutua (Indalecio Ojanguren, Gure Gipuzkoa bilduma).



Ibarrategiko teilatu azpia (J.L.U.).



Ibarrategi barruko eskailera (J.L.U.).

[eu] Juana (Amezketa, 1822), Micaela Antonia (Amezketa, 1824), Rita Mª (Legazpi, 1826), Bautista Ignacia (Legazpi, 1828) eta Francisca Ygnacia (Legazpi, 1831).

Ahizpok (edo haietako batzuk behintzat) Legazpiko Aiztonagabekoa baserriaren jabe izan ziren baita ere, 1874an erosita, eta eduki zituzten beste baserri batzuk Larraulen, Aizarnan eta Arrasateko Udala auzoan.

Micaela Antonia Mendizabalek protagonismo handia izan zuen Legazpin. Ez dakigu zenbat urtez bizi izan zen herri honetan, 1843an Mantxolanean bizi zen eta garbi dago 1878ko urtean Donostian bizi zela. 1888an, Legazpiko kanposantuan, bere diruz eraiki zuen kapera publiko bat, Karmengo Ama Birjinari eskainia, kapilau eta guzti, berau ere berak ordaindua (AHPG 3/3732/736).

Orain ari garen etxe honetantxe bizi behar zuen delako kapilau horrek, artxiboko agiriaren arabera Urola Kaleko 8an. Euskara jakin behar zuen eta, urtean zehar, bi bederatziurren egin behar zituen. Gainera, agiri horren

[es] Estas hermanas (al menos algunas de ellas) poseyeron también en Legazpi la casa Aiztonagabekoa (adquirida en 1874), y otros caseríos en Larraul, Aizarna y el barrio Udala de Arrasate.

Micaela Antonia Mendizabal tuvo un gran protagonismo en Legazpi. No sabemos cuanto tiempo residió en la villa, pero sí que en 1843 vivía en la casa Mantxolanea (Casa Nueva del Vicario) y que en 1878 tenía su residencia habitual en San Sebastián. En 1888, en Legazpi, "construyó en terrenos de su propiedad, a sus expensas, una capilla pública dedicada a Nª Sra. Del Carmen, dotada de capellán a expensas de la misma" (AHPG 3/3732/736). Se trataba de la capilla del cementerio viejo que las siguientes generaciones conocieron. Ese capellán residirá en usufructo en la casa que nos ocupa (según el documento, el número 8 de la Calle Urola), deberá saber euskera y llevar a cabo dos novenarios de misas rezadas. Además, se especifica que "el día de Corpus y su octava habrá que poner el altar en el sitio convenido". El primer adjudicatario fue el sa-



Victor Elustondo abadea eta, kantuan, Juanito Kortaberria (Nati Bolinagak emana).



Valentin Bolinaga, emazte Asentxi Orbegozo eta arreba Bibiana Bolinaga (Nati Bolinagak emana).



Omenaldia parrokiako kantariei. Zuzendari, Victor Elustondo apaiza (Ana Alustizak emana).

[eu] arabera "Korpus egunean eta zortziurrenean aldarea ipini beharko du adostutako lekuan". Kapilautza eman zitzaion lehenbiziko laguna Manuel Isidro Mendizabal Agirre izan zen, 62 urtekoa eta kapilautzaren fundatzailearen tartekoa.

Kaperak mausoleoa eduki zuen, harri beltzezkoa, gero egungo hilerrira aldatuko zutena, goi-goiko partera hain zuzen ere.

[es] cerdote Manuel Ysidro Mendizabal y Aguirre, de 62 años, y pariente de la fundadora de la capellanía.

La capilla tuvo un mausoleo, de piedra negra, que se trasladaría luego a la zona más alta del cementerio actual.

Posteriormente, en 1893, Micaela Antonia otorgó poder a Félix Orella Peña para hacer la donación a la Igle-

[eu] Gero, 1893an, Micaela Antoniak, notarioaren aurrean, ahalordeak eman zizkion Félix Orella Peñari, Abarrategi (sic) Aundia (etxe hauxe) emateko Elizari. (AHPG-GPAH 3/3727/975). Eta hor beste aro bat hasten da.

1894ko udal erroldan, jadanik agertzen zaigu etxe honetan bizitzen aipatutako kapilau hori, Manuel Mendizabal Agirre (1832) apaiza, eta berarekin batera neskamea: Venancia Aizpurua Mendizabal (1871).

Handik aurrera, etxe hau Elizaren jabetzakoa izan zen beti, eta hilerriko kaperako kapilauaren bizitoki. Orain ere, adin handiko pertsonek gogoan dute nola duela 50 urte hemen bizi zen Victor Elustondo, hilerri zaharreko azken kapilaua. Etxea bota zenean, Gotzaitegia zen jabea.

Hogeigarren mendean, beheko solairuan janari-denda egon zen, jendeak Muruanea esaten ziona. 1920ko udal erroldaren arabera, bertako dendaria (eta bizilaguna) Rosa Kerejeta Gisasola zen, muruatar baten alarguna, 38 urtekoa eta Legazpira etorri berria. Argentinan bizitua zen, dirudienez han hil zitzaion senarra, eta ume batzuekin etxe honetan ekin zion berriz ere, bizimodua ateratzeko, denda jarrita.

1920ko udal erroldak erakusten digunez, Ladislao Segura Zabarte eta emazte Esperanza Lopez de Sagredo ere hemen bizi ziren. 1917an iritsiak ziren herrira, Madrildik. Bata Madrilen jaioa zen, bestea, Esperanza, Diman (goi-mailako militar baten alaba genuen), eta 1907an ezkondutakoak. Ez ziren etxe honetan luzaroan bizi, gero Ladisene esango zioten etxera aldatu ziren (Pedro Seguraren teileriatik gertu), eta etxeetara argindarra eramaten atera zuen bizimodua gizonak. Hamasei seme-alaba izan zituzten, eta gehiago ere bai, hildakoak eta abortuak.

Eraikina bota aurretiko hamarkadetan, hirurogei urtetan zehar (1930-1990), dendaria Asentxi Orbegozo izan zen, bere alaba Jesusa eta Maritxu Bolinagak lagunduta. Azpeitikoa zen Asentxi eta Valentin Bolinagarekin zegoen ezkonduta, hau berriz Antzuolan jaioa.

[es] sia de la casa Abarrategi (sic) Aundia (AHPG-GPAH 3/3727/975). Entonces comenzó otra etapa.

En el padrón de 1894, ya aparece como habitante de la casa el mencionado Manuel Mendizabal Agirre (1832), capellán, y su sirvienta Venancia Aizpurua Mendizabal (1871).

Esta casona siguió siendo, ininterrumpidamente, propiedad de la Iglesia y residencia del capellán del cementerio. Y las personas de más edad recuerdan como hace 50 años vivía Víctor Elustondo, el último cura de la capilla del cementerio antiguo y organista de la parroquia; y cuando la casa se demolió seguía siendo del Obispado.

Ya en el siglo XX, en la planta baja existió una tienda de alimentación que la gente llamaba Casa Murua. Según el censo de habitantes de 1920, vivía en la casa Rosa Kerejeta Gisasola, de 38 años, nacida en Azpeitia y viuda de una persona de apellido Murua. El matrimonio había vivido en Argentina, donde les nacieron varios hijos, y al parecer murió allí el marido. Rosa se instaló en esta casa y abrió una tienda para intentar sacar adelante a la familia.

El censo de 1920 nos muestra que también en ese momento vive la familia de Ladislao Segura Zabarte y Esperanza López de Sagredo, él nacido en Madrid, la esposa en Dima, hija de militar de alta graduación. Habían llegado al pueblo tres años antes, desde Madrid. No hicieron mucho tiempo en este edificio, se trasladaro a la que luego llamarían Ladisenea o casa de Ladis, junto a la tejería de Pedro Segura. Este hombre se dedicó a llevar la luz eléctrica a los domicilios. Tuvieron dieciséis hijos vivos y algunos más muertos o abortos.

Antes de que el edificio fuera demolido, y a lo largo de sesenta años (1930-1990), la tienda fue regentada por Asentxi Orbegozo y sus hijas Jesusa y Maritxu Bolinaga. La azpeitiarra Asentxi estaba casada con Valentín Bolinaga, natural de Antzuola.

[eu] Hori baino lehenago, Valentin Bolinagaren arreba Martzeliñak eduki zuen denda hori. Emeterio Ibargurenekin zegoen ezkonduta eta Kaxiano Ibarguren soinu-jotzaile handiaren gurasoak izan ziren. Egun batez, Legazpiko santikutzetan, Martzeliñak anaia Valentin gonbidatu zuen bazkaltzera, eta esan zion negozio hori utzi nahian zebilela, bronkioetako gaitzaren ondorioz nekatuta zegoela eta. Laster esan zion anaia Valentinek emazte Asentxi prest zegoela denda bere gain hartzeko. Hain zuzen ere, bazkaria egin eta zortzi egunera hasi zen lanean Asentxi.

Bolinagatarrek uste dute lehenago muruatar batzuek jardun zutela dendan, eta hortik establezimenduaren izena.

Valentin Bolinaga Antzuolako Erautza baserrian jaioa zen, 1897an. Gaztaroan hargintzan jarduna zen. Asentxi (1901-1998), berriz, Azpeitiko Loiola auzoko Ule baserrikoa genuen. Elkar ezagutu zuten gizona Loiolan ari zenean lanean, Esklabetako komenturako harriak lantzen. Ezkondu eta, hasieran, Azpeitian bizi izan ziren, lehenengo bi seme-alabak, Jesusa eta Jose, hantxe jaio zirelarik, Errabal kalean. Gero, Valentin meatze lanetan hasi zen, Legazpiko Kataberan, eta familia Udanako etxeetako batean bizi izan zen, Bähr ingeniari alemaniarraren bizilekutik gertu. Hantxe jaio zen beste alaba bat, Mari, eta beste bi ume laster hil zirenak, pneumoniak jota. Geroago, Valentin Papeleran hasi zen lanean eta orduan aldatu ziren Ibarrategira, Muruanera. Guztira zortzi seme-alaba izan zituzten, eta beste bat hilik jaio.

Alaba bat, Mari, Instituto Misionero Secular-eko kide izan zen eta hogeita hamar urte baino gehiago eman zituen Parisen.

Dendan ia denetik saltzen zuten. Janari eta edariez gain, kristalezko ontziak, loza, ongarriak, gomazko eta espartzuzko oinetakoak. Gure berri-emaileak, Nati Bolinagak (bere belaunalditik bizi den bakarra), gogoan ditu Oñatitik etortzen ziren txokolateen izenak: Zahor, Guereta, Maiztegui, Loyola eta, seguru asko, beste

[es] Anteriormente, el establecimiento comercial fue dirigido por una hermana de Valentín Bolinaga, de nombre Marcelina (Martxeliña), y su marido Emeterio Ibarguren, los padres del afamado acordeonista ciego Kaxiano Ibarguren. Pero un día de Santa Cruz, ella invitó a comer a su hermano Valentín y le comentó que quería dejar el negocio porque estaba fatigada por su problema de bronquios. Enseguida le dijo el hermano que Asentxi estaba dispuesta a coger el relevo. Asentxi se hizo cargo del establecimiento a los ocho días de aquella comida.

Los Bolinaga creen que, anteriormente, la tienda estuvo en manos de unas gentes de apellido Murua. De ahí el nombre comercial.

Valentín era nacido en el caserío Erautza de Antzuola en 1897. En su juventud trabajó como cantero. Asentxi (1901-1998) había venido al mundo en el caserío Ule, del barrio azpeitiarra de Loiola. Se conocieron cuando el hombre trabajaba preparando las piedras para el convento de las Esclavas en Loiola. Se casaron y vivieron al comienzo en Azpeitia; los dos hijos mayores, Jesusa y José, nacieron en la calle Errabal. A continuación, Valentín consiguió trabajo en la mina de Katabera y la familia vivió en una de las casas de Udana, cercana a la de "los alemanes", la familia Bähr. Allí nació otra hija, Mari, y otras dos criaturas que murieron enseguida. Más tarde Valentín empezó a trabajar en la Papelera y residieron en Casa Murua. Tuvieron ocho hijos y otro nació muerto. Dos hijos murieron de pequeños por pulmonía.

La hija Mari fue miembro del Instituto Misionero Secular y pasó más de treinta años en París.

En la tienda se vendía casi todo. Además de alimentos y bebidas, cristalería, loza, abonos, piensos y calzado de goma y esparto. Nuestra informante, Nati Bolinaga (la única descendiente viva), recuerda que varias marcas de chocolate eran de Oñati: Zahor, Guereta, Maiztegui, Loyola y seguramente alguna más. El vino tinto, "que había que pagarlo antes de que te lo trajeran", era na-



Mari Bolinaga, ahizpa Nati eta honen alaba Itziar Kortaberriarekin (Nati Bolinagak emana).



Nati Bolinaga eta Juanito Kortaberriaren seme Iñaki pankartarekin (Nati Bolinagak emana).



Asentxi Orbegozo (Nati Bolinagak emana).

[eu] bakarren bat. Ardo beltza, berriz, "ekarri aurretik ordaindu behar izaten zen" eta nafarra izaten omen zen, Oscoz etxekoa. Zazpiehun litroko upeletan ekartzen zuten eta Valentin arduratzen zen ontzietara ateratzeaz.

Etxeak, bere azken urteetan, lehengo egitura zaharra zeukan. Bi sarrera zeuden, bata ibai aldeko kaletik, bestea Nikasio Lasaren harakinaren ondotik. Barruan patioa zeukan, non Bolinagatarrek zerri bat eta usoak gobernatzen baitzituzten. Bolinaga-Orbegozo familiak beheko solairuan zeukan sukaldea, eta logelak lehenengoan; horietako batzuk, alkobak, leihorik gabeak.

Bigarren solairuan "Don Victor organistea" bizi zen, Victor Elustondo, alegia. Haren egiteko bat izaten zen hilerrian egunero meza ematea, aspaldiko ohiturari jarraituz.

[es] varro, de la casa Oscoz. Llegaba en barricas de 700 litros y del trasiego se encargaba Valentín.

La casa conservaba la estructura antigua. Había dos entradas, tanto por una calle cercana al río como por la otra, junto a la carnicería de Nicasio Lasa. Asimismo, patio interior, en el que los Bolinaga criaban un cerdo y pichones. La familia Bolinaga-Orbegozo tenía la cocina en la planta baja, y las habitaciones en el primer piso; algunas eran alcobas, sin ventana. En el segundo piso vivía Don Víctor "el organista", el sacerdote Víctor Elustondo, que también tuvo la tarea de dar misa diaria en el cementerio.

La casa entera era propiedad del Obispado y el sacerdote tenía ama de cura, que le hacía de criada. Los Bolinaga-Orbegozo le preparaban el desayuno, comida y cena. Nati Bolinaga cree que a cambio de ese servicio

[eu] Etxe osoa Gotzaitegiarena zen eta, esan bezala, kaperako apaiza bizi zen bertan bere neskamearekin. Otorduak, Bolinaga-Orbegozotarrek prestatzen zizkioten. Nati Bolinagak uste du zerbitzu horren truke etxeko errenta barkatzen ziela Gotzaitegiak. Familia honek goitizena ipini zion etxeari: 'Mixerikordia'. Izan ere, behartsuei laguntzen gogotik saiatzen zen Asentxi. Haren alaba Natiren esanak: "Ama hil zenean, extremeñoek zera esan ziguten tanatorioan: pobreen ama hil da. Goizero, 6:30ean, joaten zen mezatara, eta handik bueltatutakoan kafea egiten zuen sukaldean, eta kanpotarrak gure sukaldean sartu eta amak kafea ematen zien. Beste batzuetan, gure sukaldean geratzen ziren, harik eta taxia azaldu arte beren etxera joateko, izan ere batzuk urruti bizi ziren, Zatuin edo Brinkolan. Ni neu, igande goiz batean esnatu nintzen eta emakume bat ikusi nuen aldameneko ohean. Ondoeza eman omen zion elizan zegoela eta gure etxera ekarri".

Kaxianok akordeoia jotzen zuenean Aztiri eta inguruko beste leku batzuetan, etxe honetan egiten zuen lo. Asentxiri gehien gustatzen zitzaiona 'Porrusalda' zen. Jakina denez, Kaxiano hamazazpi urte zituela gelditu zen itsu. Tunel bat egiten ari ziren eta bera lanean. Halako batean, aldamenean dinamitak leher egin zion eta aurpegian kalteak eragin.


Goiko pisuan, Victor Elustondo apaiza hil ostean, Crescencio Gereta eta emazte Vicenta Elkoroaristizabal bizi izan ziren, eta beronen ama Genoveva. Hau, berriz, goizero joan ohi zen gosaltzera Don Patrizionera, Doña Teresarekin gosaltzeko. Familia hori, lehenago, Andreseneko atikoan bizitua zen, eta beste etxe honetara aldatu ziren seme nagusiak, Sabinek, sututako egurra eraman eta atikoak su hartu zuelako ('suberri' esaten zitzaion egurra, alegia, Aste Santuan Zapatu Santuan piztu ohi zena). Geroago, etxebizitza horretan, Edurne Elkoroaristizabal (Vicentaren ahizpa) bizi izan zen, senar Mariano Aldearekin. ❖

[es] Casa Murua se libraba de pagar renta alguna al Obispado.

La familia había puesto mote a su casa: 'La Misericordia'. Asentxi Orbegozo se esforzaba en ayudar a los necesitados. Palabras de su hija Nati: "Cuando se murió, los extremeños nos dijeron en el tanatorio: se ha muerto la madre de los pobres. Iba todos los días a la misa de las 6:30. A la salida, los emigrantes entraban en la cocina y la madre les daba café recién hecho. Otras veces, se quedaban en nuestra cocina esperando a que les llevaran adonde vivían, porque algunos vivían lejos, en Zatui, en Brinkola. Yo, un domingo a la mañana, me desperté y me encontré a una mujer en la cama de al lado. Se había desmayado en la iglesia y la habían traido a nuestra casa".

Cuando Kaxiano tocaba en las romerías de Aztiri y otros lugares cercanos, dormía en esta casa de sus parientes. La pieza que más le gustaba a Asentxi era 'Porrusalda'. Como se sabe, Kaxiano quedó ciego a los 17 años, cuando trabajaba en un túnel y un barreno de dinamita estalló cerca.

En el piso de arriba, después de haber fallecido don Víctor, vivió Crescencio Gereta con su esposa Vicenta Elcoroaristizabal, y la madre de esta, Genoveva, quien todos los días iba a desayunar con doña Teresa, la esposa de Patricio Etxeberria. Antes habían vivido en la buhardilla de Andresenea. Se mudaron de casa porque el hijo mayor, Sabin, llevó un tizón (del tronco 'suberri' que se encendía el día de Sábado de Gloria) que originó un fuego que se llevó por delante la vivienda. Luego viviría ahí Edurne (casada con Mariano Aldea), la hermana de Vicenta. ❖



05 _ elizondo

GERRANEA 3 GERRANEA



Elizaren ondoan Gerranea etxearen atzeko ikuspegia. Eliza azpiko labaderoa ere ikusten da (Dolores Garmendiak emana).

[eu]

Hemeretzigarren mende hasieran, Jose Gerra abadea (herriko bikario edo erretorea) bizi zen bertan, eta bere arreba Frantziska. Hildakoan, Biziolan bizi zen iloba bati eman zioten etxea, Josefa Gerra Azpilletari, alegia.

1832an, etxe honen jabeak, aipatutako Josefa Gerra Azpilleta eta beronen senar Jose Antonio (Diaz de) Agirre Iturbe (1776-1845) ziren. 1804an ezkondu eta Biziola baserrian bizi ziren.

Handik aurrera Biziolako agirretarrak izan ziren nagusi. 1857az geroztik, jabea Jose Agustin Agirre Gerra zen. Jose Antonio hila zen, Josefa de Guerra y Guridik urte horretantxe hil zen eta orduan seme Jose Agustinentzat izan zen etxea. Jose Agustin nekazaria genuen eta Biziolan jaioa. Aitaren aldetik (Jose Antonio Agirre Iturbe) bazituen lur-sail batzuk Biziola eta Korostiaga aldean. Hala ere, baserrian errentero ziren. 1870ean, kaleko etxe hau eta mendiko lur-sail horiek erregistratzeko pausoa eman zuen Jose Agustinek (AHPG 1/4711/183)

Gero, Biziolako gizon hauek (Jose Agustin Agirre haren ondorengoak) izan ziren Gerraneko jabe: Jose Tomas Agirre Andueza (1840-1897), haren seme Cesareo Agirre Epelde (1884-1942) eta, azkenik, honen seme Placido Agirre Aiastui (1918-1997).

Hemeretzigarren eta hogeigarren mendeetan zehar maizter jendea bizi izan zen hemen. XIX. mendean, Jose Miguel Andueza Agirre (1831) apretagilea. Micaela Zabala Zabalorekin zegoen ezkondua eta bost seme-alabaren guraso ziren: Mariano (1852), Cesarea (1855), Leona (1857), Francisca Gregoria (1862) eta Feliz (1864). Francisca Gregoria etxera ezkondu zen eta bere gizona ere, Fermin Jose Beristain Mendizabal 'Fermin Trapu', apretagintzatik bizi izan zen.

Hogeigarren mendean, berriz, 1920an Victoriano Zaldua Plazaolaren familia bizi zen. Zumarragan jaioa, 45 urte zituen, paper fabrikan ari zen eta Estefania Galarza Plazaola legazpiarrarekin zegoen ezkonduta. Konpitteonekoa etxetik aldatu ziren etxe honetara.

[es]

Era casa muy antigua. En 1832, los propietarios eran José Antonio (Díaz de) Aguirre y su esposa Josefa Guerra Azpilleta.

A lo largo de los siglos XIX y XX perteneció a la familia Agirre del caserío Biziola. A comienzos del siglo XIX, vivió en ese caserío José Antonio Agirre Iturbe (1776-1845), hijo de Mathias y Agustina, y casado en 1804 con la legazpiarra Josefa Guerra Azpilleta. Precisamente esta mujer recibió en herencia la casa de manos de su tía Francisca Guerra. Y en este inmueble de la Calle Vieja vivieron tanto la tía Francisca como un hermano de ésta, José de Guerra, que fue vicario (párroco) de la localidad.

Desde 1857, la casa perteneció a José Agustín Agirre Gerra, el hijo del matrimonio mencionado. José Agustín, nacido en Biziola, era baserritarra. Por el lado paterno (el de José Antonio Agirre Iturbe) tenía algunos terrenos en la zona de Biziola y del monte Korostiaga. La familia vivía a renta en ese caserío. En 1870, José Agustín hizo gestiones para registrar los terrenos y la casa Gerranea (AHPG 1/4711/183).

Posteriormente, los dueños de Gerranea fueron estos descendientes de Biziola: José Tomás Aguirre Andueza (1840-1897), su hijo Cesáreo Agirre Epelde (1884-1942) y, finalmente, un hijo de Cesáreo: Plácido Agirre Aiastui (1918-1997).

En los siglos XIX y XX vivieron aquí inquilinos a renta. En el XIX, José Miguel Andueza Agirre (1831), de profesión alpargatero. Casado con Micaela Zabala Zabalo, tenían cinco hijos: Mariano (1852), Cesárea (1855), Leona (1857), Francisca Gregoria (1862) y Feliz (1864). Francisca Gregoria se casó a esta misma casa con Fermín José Beristain Mendizabal 'Fermin Trapu' (1866, Ormaiztegi), también dedicado a la fabricación de alpargatas.

En 1920, vivía la familia de Victoriano Zaldua Plazaola, operario de la Papelera nacido en Zumarraga y de 45 años, casado con la legazpiarra Estefanía Galarza



Gerraneko jabe izan zen Biziolako familia (Lucio Vergara).



Esteban Sagastizabal eta Clarita Lopez umeekin. Zaharrenaz aurrera, Elias, Begoña, Maribel, Jose Luis eta Jesus Mari. (Begoña Sagastizabalek emana)




Sinforoso Sagastizabal, 1936ko gerraren ondorioz gaixotutakoa (Begoña Sagastizabalek emana).



Joaquin Sagastizabal, 1936ko gerran hildakoa.



Jose Luis Sagastizabal (Begoña Sagastizabalek emana).



Jose Iturbe Larrañaga (Agurne Iturbek emana).



Maria Zumarraga Makibar, Jose Iturberen emaztea (Agurne Iturbek emana).

[eu] Baita ere, Prudencio Gereta Irazabalen (Oñati, 1860) familia. Catalina Langarika Otegi zegamarrarekin ezkonduta, enpresa-gizona genuen eta munta handiko pertsona: Legazpiko alkate izan zen 1895-1903 epean, eta baita 1910, 1914 eta 1916. urteetan ere. Patrizio Etxeberriaren ibilbidearen hasieran, haren sozio izan

[es] Plazaola, quienes se habían trasladado desde la cercana casa de Konpitteonekoa; y la familia de Prudencio Gereta Irazabal (Oñati, 1860), casado con la zegamarra Catalina Langarika Otegi, hombre emprendedor, y que había sido alcalde de Legazpi entre 1895 y 1903, y que luego lo volvió a ser en 1910, 1914 y 1916. En los co-

[eu] zen (enpresaren %20 zeukan) eta Guriditegiko turbinako jabeetako bat izan zen, jabetzarren %18 zeukalarik. Zenbait seme izan zituen eta baita bi alaba ere, Candida (1896) eta Angeles (1902), gizaseme ahaltsuekin ezkondu zirenak, bata Angel Enparanzarekin (udal idazkaria), bestea Tomas Etxeberria (Patrizioren fabrikako kudeatzaile edo gerentea). Horren aurretik, 1910eko hamarkadako udal erroldan ikus daitekeenez, Gereta-Langarika familia hau kartutxo fabrikaren etxean bizi izan zen, Seguraren teileriaren ondoan.

Etxea eraitsi aurreko azken hamarkadetan (1930eko hamarkadan hasita 1968ra arte), lehenengo solairuan Iturbe-Zumarragatarrak bizi izan ziren: Jose Iturbe Larrañaga (Antzuolako Iñurrigarro baserrian jaioa), emazte Maria Zumarraga Makibar (Gabiriako Irazola baserrikoa) eta seme-alabok: Agurne (1936), Carmen (1939), Ambrosio, Jose Mari (1944), Mª Eugenia (1949) eta Jesus Mari (1952).

Jose Iturbe Papeleran lan egiteko etorri zen Legazpira. Baita ere Bengoleako zerrategian jarduten zen zenbait orduz, Papelerako soldata txikia baitzen, eta familia ugaria.

1920ko hamarkadatik aurrera, Biziolan jaiotako Fidel Agirre Epelde (1891-1948), Cesareo nagusiaren anaia, bizi izan zen etxe honetan, beheko solairuan, Paula Ayerbe urtsuarandarrarekin ezkonduta. Jende asko joaten zen emakume honengana, oiloak eta oilaskoak hil eta lumatu zitzan. Fidel hildakoan (seme-alabarik eduki gabe), iloba Joxe Agirre Aiastui (1913-2005) bizi izan zen hor pare bat urtez, ondoren Etxe-Alaira joan zelarik. Eta Joxeren ostean, 1961-63 urte-bitartean haren anaia Manuel Etxabe (anaiorde, Fraisorotik ekarria zen-eta) eta emazte Isabel Lasa jarri ziren bizi izaten, hantxe jaio zitzaielarik, 1962an, alaba Sagrario. Muru-San Ignazioko etxea noiz eraikiko zain zeuden, eta 1963an estreinatu zuten etxe berria.

Manuel Etxabek gogoan zuen nola bere aita, Biziolako Xexareo, Arrasatera joan ohi zen kapoi parea eramatera, beti saski jakin batean, gainerakoan gordeta edu- [es]

mienzos como fabricante de herramientas de Patricio Etxeberria, fue uno de los socios, con el 20% de las acciones, y poseía el 18% de la central hidroeléctrica de Guriditegi en Brinkola. Además de varios hijos varones, tuvo dos hijas, Cándida (1896) y Ángeles (1902) que se casaron con hombres influyentes, la primera con el secretario municipal Ángel Enparanza y la otra con Tomás Etxeberria, que fue gerente de la fábrica de Patricio Etxeberria. Anteriormente, en el censo de 1910, la familia Gereta-Langarika aparece como residente en la casa de la fábrica de cartuchos, junto a la fábrica de tejas de Pedro Segura.

En la última fase antes de su demolición (desde la década de 1930 hasta 1968), en la primera planta vivieron los Iturbe-Zumarraga: José Iturbe Larrañaga (nacido en el caserío Iñurrigarro de Antzuola), su esposa María Zumarraga Makibar (del caserío Irazola de Gabiria) y sus hijos: Agurne (1936), Carmen (1939), Ambrosio, José Mari (1944), Mª Eugenia (1949) y Jesús Mari (1952).

José Iturbe llegó a Legazpi para trabajar en la Papelera. También hacía horas en la serrería de Bengolea, dado que el sueldo de la Papelera era exiguo, y la familia numerosa.

A partir de la década de 1920, en la planta baja de esta casa vivió Fidel Aguirre Epelde (1891-1948), nacido en Biziola y hermano del mayorazgo de ese caserío, Cesáreo. Su esposa, Paula Ayerbe, de Urtsuaran, se dedicaba ahí mismo a matar y desplumar pollos y gallinas, y tenía mucha clientela. Al morir Fidel (sin descendencia), vivió en ese piso su sobrino Joxe Agirre Aiastui durante un par de años, para después recalar en Etxe-Alai. Y tras Joxe, en los años 1961-63 ese piso fue la residencia de un hermano, Manuel Etxabe (realmente hermanastro, pues era adoptado, llegado del hospicio de Fraisoro), casado con Isabel Lasa. Allí les nació la hija Sagrario (1962). Estaban a la espera de que se construyera el que luego sería el hogar definitivo, en Muru-San Ignacio. Lo estrenaron en 1963.

[eu] kitzen zutena. Zer dela eta ohitura hori? Ohikoa izaten zen errenteroek nagusiari kapoiak eramatea, baina Biziolakoak kaleko etxe honetako nagusi ziren ordea. Ez dakigu zergatik ote zen kapoi-emate hori. Aldiz, Biziolakoak bere baserrian errentero izan ziren, eta 1890eko hamarkadara arte ez zuten lortu baserria eurena izatea. Baserria Mondragoeko batzuena izana ote zen? Auskalo.

1940ko hamarkadan, sagastizabaldarrak

Azkeneko etapa hartan, 1940ko hamarkadan, Biziolako haiek ez ezik, Sagastizabaldarrak bizi izan ziren Gerranean, beheko solairuan: Sinforoso Sagastizabal (1874) eta emazte Juliana Aranburu (1887) beren bi semeekin, Esteban eta Jose Luis.

Sagastizabaldarrok bizipen oso latza izan zuten 1936ko gerrakoan: Sinforoso, Brinkolako Aulde baserrian jaioa zen eta Bilboko Alhondigan egiten zuen lan, zerga-kobratzaile, Olaetxeko Juliana Aranbururekin ezkonduta zegoelarik. Han, Bilbon, ezagutu zuten elkar, Juliana neskame baitzebilen bertan. 1936an, bonbardaketa batean, babesleku batean zeuden eta, handik irtetean, ikusi zuten etxea txikituta gelditu zitzaiela. Dena galdu zuten eta Legazpira bueltatzea erabaki. Sinforoso burutik gaixotuta etorri zen eta azkenean Santa Agedako erietxera eraman zuten.

Sinforoso eta Julianari seme bat eta alaba bat hil zitzaizkien. Alaba (Begoña), ume zela, gaitzen baten ondorioz; Joaquin, berriz, 1936ko gerrakoan hil zen, soldadutzara joan eta nazionalekin ari zela. Legazpira bi semerekin azaldu ziren gurasook: Esteban ('Euzkadi' egunkarian linotipista jardundakoa) eta Jose Luis.

1953-1958 urte-bitartean, beheko solairuan Garmendia-Loiditarren familia bizi izan zen. Biziolako Joxe Agirrek utzi zien bizitza hori, koinatu-koinatak baitziren. Andres Garmendia eta emazte Mari Carmen Loidi

[es] Manuel Etxabe recuerda que su padre, Cesáreo, iba a pie hasta Arrasate, para entregar un par de capones, siempre en un cesto especial que se destinaba exclusivamente a este cometido. ¿Cuál era el motivo de esta costumbre? Era habitual que los inquilinos pagaran parte de la renta a base de capones, pero resulta que las gentes de Biziola no eran inquilinos, sino dueños de Gerranea. En cambio, eran renteros en su caserío, en Biziola, y no consiguieron comprarlo hasta la década de 1890. ¿Quizá los antiguos dueños de Biziola residìan en Arrasate?

En los 40 vivieron los Sagastizabal

En la última etapa de Gerranea, en los años 40 y en la planta baja, además de los Agirre de Biziola vivieron los Sagastizabal-Aranburu: Sinforoso Sagastizabal (1874), su esposa Juliana Aranburu (1887) y los hijos Esteban y José Luis.

Para los Sagastizabal la guerra del 36 fue una experiencia traumática. Sinforoso había nacido en el caserío Aulde (Agirreburualde, Brinkola) y trabajaba en la Alhóndiga de Bilbao como cobrador de arbitrios y estaba casado con Juliana Aranburu, del caserío Olaetxe. Se habían conocido en el mismo Bilbao. Juliana trabajaba como criada. En 1936 habían acudido a un refugio a resultas de una alarma, y al salir de allí se encontraron con que el bombardeo había destruido completamente su casa. Perdieron todos sus enseres y decidieron volver a Legazpi. Sinforoso volvió muy afectado sicológicamente y acabó ingresado en el sanatorio de Santa Águeda.

Sinforoso y Juliana vieron morir un hijo y una hija. La hija, Begoña, cuando era una niña pequeña, a resultas de una enfermedad; el hijo, Joaquín, falleció en la guerra del 36, después de que, por edad, fuera alistado por los nacionales. Volvieron a Legazpi con los otros dos



Fidel Agirre Epelde eta Paula Ayerbe (Lucio Vergara) (Angel Muruak emana).



Andres Garmendia eta Mari Carmen Loidi, Madrilen 1940an ezkonbidaian (Migel Joxe Garmendiak emana).



Gerraneko Carmen, Jesus Mari eta Maria Eugenia Iturbe etxe aurrean (Carmen eta Agurne Iturbek emana).

[eu] Zizurkildik iritsi ziren lau seme-alaba zituztela: Miguel Jose (1944), Dolores (1946), Martin (1949) eta Milagros (1950). Mari Carmen Loidi, Biziolako Joxe Agirreren emazte Antoniaren ahizpa zen, eta loiditarrok Atallun zeukaten jatorria. 1958an, Garmendia-Loiditarrak San Juan auzoko txalet batera aldatu ziren, eta han beste hiru ume jaio: Mª Angeles, Patxi eta Javier.

Kale Zaharreko etxe honetan bizitzen jarri eta handik aste gutxira, 1953ko urrian, Urola ibaiak gainez egin zuen eta sotoa guztiz hartu, non Joxe Agirrek eta lehen solairuko Iturbetarrek oilo eta untxiak baitzituzten.

hijos: Esteban, que había sido linotipista en el diario 'Euzkadi´, y José Luis. [es]

Entre 1953 y 1958, en la planta baja vivió la familia Garmendia-Loidi. Les dejó el piso Joxe Agirre, de la familia propietaria, porque eran cuñados. Andrés Garmendia y su esposa Mari Carmen Loidi llegaron de Zizurkil con cuatro hijos: Miguel José (1944), Dolores (1946), Martín (1949) y Milagros (1950). La esposa, Mari Carmen, era hermana de Antonia, la mujer de Joxe Agirre del caserío Biziola; esa familia Loidi procedía del pueblo navarro de Atallu. En 1958 la familia

[eu] Garmendia-Loiditarren bizitzan urak hamabost bat zentimetroko altuera harrapatu zuen, eta familiak elizatarian pasa zuen gau hura.

Andres Garmendiak, hasiera batean, San Martin, Arantzazu eta San Jose auzoetako eraikitze-lanetan jardun zuen. Geroago, Patrizioneko Fundizioan. 1950eko hamarkada hartan familia estu bizi izan zen diru aldetik. Antonio Sarasola erretoreak hilero lata handi batzuk ematen zizkien, hauts-esnea eta gurina zeukatenak.

1973an, jabeek (Biziolako Agirretarrek) saldu egin zuten Gerranea eta aldameneko etxea, Gerranetxiki, hau ere eurena zuten eta. Gerranea eraikin handia zen, 119,5 metro koadrokoa. Pedro Zubia kontratistak bi etxe egin zituen bertan, lehengo bi eraikin haien tokia hartuta. Etxe berri hauetako bat abade-etxe izan da eta da. ❖

[es] Garmendia-Loidi se trasladó a un chalet del barrio San Juan, y allí nacieron otras tres criaturas: Mª Angeles, Patxi y Javier.

A los meses de entrar en la casa, en octubre de 1953, la familia vio como se desbordaba el río hasta el punto de sepultar el sótano, en el que los Iturbe y Joxe Agirre tenían gallinas y conejos, y anegar con un palmo de altura la vivienda. Pasaron esa noche en los pórticos parroquiales.

Andrés Garmendia, en una primera etapa, trabajó en la construcción de los barrios San Martín, Arantzazu y San José. Más tarde, en la Fundición de la fábrica de Patricio. En esa década de los 50 la familia vivió con estrecheces económicas y el párroco Antonio Sarasola les daba todos los meses unas latas grandes de mantequilla y leche en polvo.

En 1973, los propietarios (los Agirre de Biziola) vendieron esta casa y la contigua, Gerranetxiki, que también poseían. Gerranea era un edificio grande, de 119,5 metros cuadrados de planta. El contratista Pedro Zubia hizo dos casas de viviendas en la zona, en los terrenos que ocuparon aquellos dos edificios. Una de las casas ha sido y es casa cural. ❖

05 _ elizondo



GERRANETXIKI 4 GERRANEA MENOR



Ikuspegi orokor batetik ateratako zatia. Geziaz adierazita, Gerranetxiki.

[eu]

Gerranearen kontra zegoen, Andresene alderago. Bestea baino txikiagoa zen (49 metro koadro), baina altua: beheko solairua, lehenengoa, bigarrena (zurezko miradore ederrarekin) eta ganbarotea.

Etxe hau ere, Gerranea bezala, Biziolako Agirretarrena zen, baina dirudienez ez oso aspalditik. Eta Gerranea bezalaxe 1973an saldu zitzaion Pedro Zubia kontratistari.

Hogeigarren mende erdi aldera, bigarren pisuan, miradorea zegoen tokian, Sole Langarika Etxeberria izeneko emakumea bizi zen, ordurako edadetua. Tomas Etxeberria (PESAko kudeatzaile edo gerentea) eta Angel Enparanza (udal idazkaria) geretatar ahizpa batzuekin ezkonduta zeuden eta emakume horien izeba genuen Sole hau. Gasteizen jaioa, 1920an etxe honetan azaltzen da, artean 34 urtekoa, eta handik aurrera ama Antonia Etxeberria Agirrerekin batera biziko.

'Señorita' moduan bizi zen Sole, kanpoan lanik egin gabe, beti dotore eta betaurreko ilunekin. Bazituen ahizpa batzuk, eta baita anaia bat ere, Eloy, Aranda de Duerora joan zena bizi izatera eta, iturriren baten arabera, Bellota etxearen ordezkari izan zena alde hartan. Esan ohi zuten emakume honen ama, Antonia Etxeberria Agirre, tartekoa egiten zela Patrizio Etxeberriarekin edo honen emazte Teresa Agirrerekin.

Etxea bota behar zutela-eta, Gasteizko zahar-etxe batera joan zen Sole, baina Gabon batzuetan Legazpira etorri zen egun batzuk pasatzera, Tomas Etxeberriaren etxera, eta hantxe hil.

Lehenxeago, etxe honetan bizitua zen Santos Lasa Guridi, estankoa eduki zuelarik bertan. 1930ean karamelusaltzaile eta linternero moduan ere agertzen zaigu. Patrizioneko enplegatua zen eta gero Elbarrenan etxe propioa egin zuen, Zalduren parean, baina kamioz bestaldean, Arraseta mendi azpian, Rufina Gerra Telleriarekin ezkondu eta Rafael izeneko semea izan zuten, zeinak gero Bilbora alde egin zuen.

[es]

Se encontraba al lado de Gerranea, era el siguiente edificio en dirección a Andresenea. Casa más pequeña (planta de 49 metros cuadrados), pero con una buena altura: constaba de planta baja, primer piso, segundo (con un hermoso mirador) y desván.

Este edificio, al igual que Gerranea, era de los Agirre del caserío Biziola, pero según parece no desde mucho tiempo atrás. Al igual que aquella otra casa, se vendió al contratista Pedro Zubia en 1973.

Hacia mediados del siglo XX, en el segundo piso, en el del mirador, vivía Soledad Langarika Etxeberria, una mujer ya bastante entrada en años. Era tía de las Angeles y Cándida Gereta Langarika, que se habían casado con dos personas de relevancia, Tomás Etxeberria (gerente de la fábrica de Patricio) y el secretario municipal Ángel Emparanza. Era nacida en Vitoria y ya en 1920 aparece como residente en esta casa, con 34 años de edad y viviendo junto a su madre, la legazpiarra Antonia Etxeberria Agirre, que debía tener algún parentesco con Patricio o su mujer Teresa Agirre. Sole vivía como una 'señorita', sin trabajar fuera de casa y siempre con aspecto elegante y gafas oscuras. Tenía varias hermanas, y un hermano llamado Eloy, que fue a vivir a Aranda de Duero y según alguna fuente fue representante de la casa Bellota en la zona. Al saber que se iba a demoler el edificio, Sole fue a vivir a una residencia de Vitoria, pero finalmente falleció en Legazpi, en la casa de Tomás Etxeberria; había venido a esa casa a pasar unos días por Navidades.

Según el censo de 1920, también residía aquí Santos Lasa Guridi, un empleado de Patricio que tuvo en este mismo edificio un estanco. Además, en 1930 aparece como vendedor de caramelos y fontanero. Luego se construyó una casa en el Barrio de Abajo, cerca de Zaldu, pero al otro lado de la carretera, pegado a las faldas del monte Arraseta, y que fue demolido por Patricio Etxeberria para construir un nuevo pabellón. Casado con Rufina Gerra Telleria, tuvieron un hijo, Rafael, que más tarde se trasladó a Bilbao.



Santos Lasa
(Lucio Vergara)
(Angel Muruak emana).



Francisco Caballero
(Patxi Caballerok emana).



Sole Langarika erdian. Besteak, Angeles Gereta
(Tomas Etxeberriaren emaztea)
eta Angel Enparanza udal idazkaria
(Mertxe Etxeberriak emana).



Juana Gurrutxaga eta Boni Quintana Larrea
(Mariaje Gurrutxagal emana).



Sole Langarika erdian.
Besteak, Felix Etxeberria, Manolita Mendiola,
Anita Lasa etaTeresa Etxeberria
(Mertxe Etxeberriak emana).

[eu] Bonifacio Quintana ere bizi izan zen hemen, Juana Gurrutxagarekin ezkonduta; bata Ilarduian jaioa, bestea Araian. Zaldi batek tiratutako gurdiarekin, Zumarragatik enkarguak ekartzen zituen Bonik. Lehenbizi Patrizioren fabrikan jardun zuen, gero bere kabuz zaldiarekin, tarte batean Felix Basaberekin sozio eginda, eta atzera Patrizionean. Seme bat izan zuten, Jose Luis. Beren etxean apopilo batzuk izan zituzten, sagastizabaldarrak. Boni eta Juana, aldameneko etxean (Gerranean) bizi ziren ziren sagastizabaldarren lagunak ziren,

[es] También vivió aquí Bonifacio Quintana, casado con Juana Gurrutxaga. Ambos eran alaveses, él había nacido en Ilarduia, la mujer en Araia. Se dedicó a traer paquetería desde Zumarraga con un carro tirado por un caballo, en algunos años asociado a Félix Basabe. Anteriormente trabajó en la fábrica de Patricio, y después de la época de transportista volvió allí. Boni y Juana tuvieron un hijo, llamado José Luis. Tuvieron pupilos en su casa, miembros de una familia amiga que vivía en la casa de al lado, Gerranea. El joven Esteban Sagastiza-

[eu] eta animatu zuten Esteban gaztea ezkontzera, zeina Clarita Lopez Arinekin ibiltzen hasia baitzen (Altsasutik Morazaren okindegira lan egitera etorria). Estebani esan zioten ezkontzeko, gero apopilo egongo zela beren etxean, eta halaxe egin zuten; gainera, hantxe jaio zitzaien lehenbiziko semea, Elias (EAJko zinegotzia), eta handik urtebetera-edo, 1947an, San Ignazio auzoko etxe berri batera aldatu ziren, Estebanek berekin aita Sinforoso eta anaia Jose Luis eraman zituelarik; ama Juliana hilda zegoen.

Geroago, 1960ko hamarkadan, beheko solairuan Caballero-Hurtadotarrak bizi izan ziren. Valle de la Serenatik (Badajoz) etorriak ziren eta, lehenbizi, Oñatiko Imittola baserrian bizi izan ziren (Korosti mendi atzean), gero Zatuin eta ondoren Olaberriko jauregi zaharrean. Eta goiko solairuan, Pablo Moral eta emazte Amparo Gil bizi ziren, apopilo moduan Pabloren anaia Juan Jose zegoelarik. Juan Jose Moral (1951) txirrindulari sonatua izan zen: 1971n Espainiako txapeldun izan zen afizionatu mailan eta 1975ean titulu bera lortu zuen erloju kontrako txapelketan. Mutikotan gelditua zen umezurtz: zortzi urte zituela ama hil zitzaion, eta hamalau zituela aita.

Eraikin hau botatzera zihoazela, Caballero-Hurtado familia Kalebarrenera aldatu zen, Karlosenera (Iriondotarren etxeko) lehen pisura. ❖

[es] bal y su novia Clarita López Arin (que trabajaba en la panadería de Moraza, venida desde Altsasu) pensaban casarse, y Boni y Juana les invitaron a pasar por el altar e instalarse junto con ellos. Además, allí nació Elías, el primer hijo de la joven pareja, quien luego fue concejal por el PNV. Aproximadamente un año más tarde, en 1947, los Sagastizabal-López se trasladaron a una casa del recién construido barrio de San Ignacio. Esteban se llevó consigo a su padre Sinforoso y a su hermano José Luis. La madre, Juliana, ya había fallecido.

Más tarde, en los años 60, en la planta baja vivieron los Caballero-Hurtado, una familia llegada de Valle de la Serena (Badajoz), que antes había pasado por los caseríos Imittola (Oñati, en la parte trasera del monte Korosti), Zatui y por el antiguo palacio de Olaberria. Y en la planta superior vivieron Pablo Moral y su mujer Amparo Gil, que tenían de pupilo a un hermano de Pablo, Juan José Moral (1951), corredor ciclista de renombre, que fue campeón de España en aficionados en 1971 y luego logró ese trofeo en la categoría contra el crono en 1976. Con 14 años, Moral se quedó sin padre, y ya antes se le había muerto la madre.

Al derribarse este edificio, los Caballero-Hurtado pasaron a la casa Karlosenea de Kalebarren (la de los Iriondo) y vivieron en el primer piso. ❖



ETXAESTU (Mataderi zaharra, Apaolazanea) 5 ETXAESTU (Matadero viejo, Apaolazanea)



Etxaestu, Gerranetxiki eta Gerraneaundi, hurrenez hurren.

[eu]

1866ko agiri batean esaten da Valentin Arrieta Mendizabal delakoak erosi ziola etxe hau Jose Antonio Apaolaza Anduezari, zeina teilagina baitzen, 46 urtekoa. Gizon gonek herentzian jasoa zuen Ignacia Oraa Guridi izebarengandik.

Valentin Arrieta (Zumarraga, 1832), berriz, igeltseroa genuen eta Legazpin bizi zen, 1857an Zumarragako Mª Andres Oraa Izagirrerekin ezkondu zelarik.

Etxea Santa Maria kaleko zazpi zenbakikoa zen. Txikia, 51 metro koadrokoa, iparraldera Konpitteokoa (Landaneaundi) zeukan, eta hegoaldera Gerranetxiki. Bebarruaz gain, beste bi solairu zituen.

1881an, Udalak erabaki zuen etxe hau erostea, bertan mataderia ipintzeko. Hainbat urtez egon zen ganaduhiltegia, 1950ean berria egin zen arte, Bikuñaaundi ondoan.

1857an Izagirre-Ibargurendarrak bizi izan ziren etxe honetan: Miguel Antonio Izagirre Oiarbide zapataria, 40 urtekoa, emazte Maria Bautista Ibarguren Legorburu, hiru urte gazteagoa, eta seme-alabok: Antonio, Nicasia, Facundo eta Martin, lehenengoa 11 urtekoa, txikia urte batekoa. Bertan bizi zen, baita ere, Francisca Legorburu, Maria Bautistaren ama, artean 66 urte zituena. ❖

[es]

En un documento de 1866 se menciona que Valentín de Arrieta y Mendizabal (Zumarraga, 1832), albañil, residente en Legazpi y casado en 1857 con Mª Andres Oraa Yzaguirre, de Zumarraga, compró esta casa al legazpiarra José Antonio de Apaolaza y Andueza, tejero de 46 años, quien la había recibido en herencia de manos de su tía Ignacia de Oraa y Guridi. Era un edificio pequeño, de 51 metros cuadrados y tenía adjudicado el número 7 de la calle Santa María. Lindaba, al norte, con la casa Konpitteonekoa (Landanea Mayor), y hacia el sur con Gerranea Menor (Gerranetxiki).

Constaba de planta baja, con tienda, y otros dos pisos. En 1881, el Ayuntamiento decidió adquirir este edificio para instalar el matadero de ganado, que funcionó durante bastantes años, hasta que en 1950 se construyó el nuevo matadero junto al palacio de Bikuña.

En el año 1857 vivían aquí los Izagirre-Ibarguren: el zapatero Miguel Antonio Izagirre Oiarbide, de 40 años, con su esposa María Bautista Ibarguren Legorburu y los hijos Antonio, Nicasia, Facundo y Martín, de entre 11 y 1 años, además de Francisca, la madre de la esposa, de 66 años. ❖



BEATAKOA (Nikasionea) 6 BEATAKOA (Nikasionea)



Ibarrategi (ezk.) eta Beatakoa etxeak (J.L.U.).

[eu] Jose Luis Ugarteren ikerketaren arabera, 1787ko agiri batean etxe hau 'Casa del organista' deiturarekin agertzen da. 1857an, berriz, 'Casa seroral', eta Josefa Martina Murua serora bizi zen bertan, artean 48 urteko emakumea. Geroago, 1887an, biztanleok ageri zaizkigu: Martin Joaquin Zabalo-Zuazola Zabaleta (1840, apretagilea), emazte Catalina Gilllerna Murua (1842) eta lau seme-alaba.

Martin Joaquin Zabalok goitizena zeukan, 'Siete', eta sakristau lanak egiten zituen baita ere. Hain zuzen ere horregatixe biziko zen etxe honetan, pentsatzen dugu. Jose Luis Ugartek esaera hau jaso du: abade batek esan omen zuen hogei lagun jarriko zituela kanpai jotzen, 'Martin Bost' (Martin Plazaola, Oiarbidenekoa), 'Siete' eta Jose Bildotsola 'Txortxi'.

1910ean beste serora bat agertzen zaigu etxe honetan bizitzen: Facunda Elorza Plazaola, 1870ean Plazaola baserrian jaiotakoa. Ugarte ikerlariaren arabera, etxearen jabea zen, 'Siete'-ri erosita. 1920ko udal erroldaren arabera, Facunda ez ezik, abade bat bizi bertan, Miguel Soroa Atorrasagasti. Andoainen jaioa, 30 urte zituen eta hiru zeramatzan Legazpin, koadjutore moduan. Gero urte asko eman zituen Igeldoko elizan.

Anastasio Arbide Larrea eta Placida Elorza Etxeberria 1920an ezkondu ziren eta Buenaventura etxean (gero 'Martxelirena' esaten ziotena, egungo Patrizio Etxeberria kale hasieran) jarri ziren bizi izaten, gizonaren amarekin batera (Calixta Larrea zegamarra). Baina han denbora gutxi egin zuten, eta Beatakoa izeneko etxe honetara aldatu ziren. Placida aberaskumea zen, Papelerako nagusiaren alaba, eta Anastasio ere enpresa horretan ari zen.

1932an alde egin zuten etxe honetatik, eurek egindako etxe berri batera joateko. Txoko taberna eta Xesterokoaren artean zegoen eta dago etxe berria, dotore askoa, Luis Astiazaran arkitektoak burutua.

Arbide-Elorzatarrek etxebizitza hau utzi eta gero, Nicasio Lasa harakinaren familia sartu zen bertan. Segituan oso ezaguna egin zen eta jendea "Nikasioren etxea" hasi zen deitzen.

[es] Según las investigaciones de José Luis Ugarte, en 1787 a este edificio se le decía 'Casa del organista'. En 1857 se le denominaba Casa Seroral y vivía la serora Josefa Martina Murua, que entonces tenía 48 años. Más tarde, en 1887, aparecen como residentes Martín Joaquín Zabalo-Zuazola Zabaleta (1840, alpargatero) y su esposa Catalina Guillerna Murua (1842), con cuatro hijos.

Martín Joaquín Zabalo tenía el apodo de 'Siete' y hacía también tareas de sacristán. Se supone que precisamente por ser ayudante de la Iglesia residía en esta casa. José Luis Ugarte ha recogido la tradición según la cual un cura dijo que pondría a veinte personas a tocar las campanas: a 'Martín Bost' (Martín Plazaola, de Oiarbidenea), a 'Siete' y a José Bildosola 'Txortxi'.

En 1910 aparece como residente otra serora: Facunda Elorza Plazaola, natural del caserío Plazaola, nacida en 1870. El investigador Ugarte ha escrito que esta serora compró la casa a 'Siete'.

En el censo de habitantes de 1920 se aprecia que, además de Facunda, vivía aquí un cura de treinta años, el coadjutor de la parroquia Miguel Soroa Atorrasagasti, natural de Andoain y que llevaba tres años en el pueblo. Luego haría muchos más en el barrio donostiarra de Igeldo.

Anastasio Arbide Larrea y Plácida Elorza Etxeberria se casaron en 1920 y se pusieron a vivir, junto con la madre de él, la zegamarra Calixta Larrea, en la casa Buenaventura, "la de la Martxeli", que sigue en pie en la actual Calle Patricio Etxeberria. Pero allí hicieron poco tiempo porque pasaron a vivir en esta casa de la Calle Vieja. Plácida era hija del propietario de la Papelera y Anastasio trabajaba en esa empresa.

Los Arbide abandonaron esta casa en 1932 para ir a vivir en una casa unifamiliar al final de la Calle Vieja, entre la casa del Bar Txoko y Xesterokoa, recién construida y de su propiedad. Era, y sigue siendo, un edificio elegante, diseñado por el arquitecto Luis Astiazaran.



Beatakoa. Miradorea (J.L.U.).



Antonio Agirreburualde eta Tomasa Alkorta, seme Iñaki, errain Carmen Balerdi eta seme Sabin, 1959an (Iñaki Agirreburualdek emana).



Beatakoa. Barruko atea (J.L.U.).



Bertako iturria (Gure Gipuzkoa, GipuzkoaKultura).

[eu] Nicasio Lasa Zubillaga Ordizian jaioa zen, Sagastizabalgarakoa baserrian, hogeigarren mende hasieran. Gurasoak Fructuoso Lasa Garin eta Francisca Ignacia Zubillaga Zubeldia zituen, 1900ean ezkonduak. Nicasio bera Mª Victoria Araiztegirekin ezkondu zen, Antzuolan jaio eta Urretxun hazitako emakumearekin. Donostian ezagutu omen zuten elkar, Nicasio bertako harategi batekin zebilela ofizioa ikasten.

Ezkondu aurretik iritsi zen Nicasio Legazpira. Lehenbizi, Kalebarreneko Errotaritxonea kale-baserrian jarri zen bizitzen, arreba Serapiarekin batera. Ezkondutakoan, orduantxe jarri ziren Nicasio eta Mª Victoria Beatakoan. Garai hartan, bertan bizi zen Legazpik izan duen azken seroretako bat, Facunda Elorza Plazaola, Plazaola baserriko alaba.

[es] Tras dejar el piso los Arbide-Elorza, entró allí Nicasio Lasa, un carnicero muy conocido en la localidad, y a partir de entonces se le llamó "la casa de Nicasio".

Nicasio Lasa Zubillaga era nacido en el caserío Sagastizabalgarakoa de Ordizia a comienzos del siglo XX. Hijo de Fructuoso Lasa Garin y Francisca Ignacia Zubillaga Zubeldia, casados en 1900. Por su parte, Nicasio se esposó con Mª Victoria Araiztegi, nacida en Antzuola y residente en su juventud en Urretxu. Según parece, se conocieron en San Sebastián, cuando Nicasio hacía prácticas en una carnicería de la capital.

Nicasio llegó soltero a Legazpi y se instaló primero en el caserío urbano Errotaritxonea, en la zona de Kalebarren, junto con su hermana Serapia. Tras el casa-



Beataetxeko balkoian, Josean Larrea Roa eta bere aitona Alejandro Larrea Azurmendi, 1961ean hila (Josean Larreak emana).



Nikasio Lasa harategian (Maricris Lasak emana).



Nikasio Lasa gurdiarekin (Maricris Lasak emana).

[eu] Baina etxe honetako jabea nor zen 1936ko gerra osteko garai hartan?: Pedro Urzelai Elorza (1884), txikitatik kontseju-etxean bizi izandako gizona eta bertako taberna-jatetxearen arduradun izandakoa, alegia; eta lehen aipatutako Facunda Elorza seroraren iloba, hain zuzen ere. Gero Nicasiok eraikin osoa erosi zuen, eta Pedrok eskatu zion Nicasiori Facundari errentarik ez kobratzeko. "Espiritua zen emakume hura, argal-argala eta eta oso ile-txuria", esan digu Mª Cristinak, Nicasioren alabak. Ia-ia miserian bizi omen zen.

Aurrera ateratzeko, Nicasiok laguntza handia izan zuen Manuel Odriozolarena. Harakin hau Nicasio baino zaharxeagoa zen eta berak ere Kale Zaharrean zeukan harategia. Elkarrekin bisitatzen zituzten baserriak, behi eta txahalak ikusi eta erosteko. Legazpin ez ezik, Oñati eta Gabirian ere ibiltzen ziren.

Nicasioren odolkiak sonatuak ziren, baina haiek egiten alaba Mª Cristina ibiltzen zen gehienbat. Honi ez zimiento, Nicasio y Mª Victoria pasaron a vivir en esta casa Beatakoa, bajo el mismo techo con la que fue una de las últimas seroras de la localidad, Facunda Elorza. [es]

¿Pero quien era el propietario de la casa en aquellos años tras la guerra de 1936? Pertenecía a Pedro Urzelai Elorza (1884), que había residido en la casa concejil, encargado del bar-restaurante de ese mismo edificio; y era sobrino de la ya mencionada serora Facunda Elorza. Luego Nicasio compró todo el edificio. Pedro le pidió a Nicasio que no le cobrara renta a la serora, dado que vivía sin apenas dinero. "Era como un espíritu, muy flaca y con el pelo totalmente blanco", nos ha comentado Mª Cristina Lasa, la hija del carnicero.

Nicasio contó con la ayuda de un carnicero algo mayor y de más experiencia, Manuel Odriozola, que tenía la tienda en la Calle Vieja. Juntos recorrían los caseríos para apalabrar terneros y vacas. Visitaban tanto cuadras de Legazpi como de Oñati y Gabiria.

[eu] tzaion jendaurreko lana gustatzen eta nahiago zuen odolkiak egitea eta arkume-hankak eta odola prestatzea.

1936ko gerra piztu zenean, lehen solairuko bi etxeetako batean agirreburualdetarrak bizi ziren. Antonio Agirreburualde Zubizarreta eta emazte Tomasa Alkorta Zubizarreta Azkoititik etorriak ziren 1920ko hamarkada bukaeran. Gizona Patrizioren fabrikan ari zen eta 'Antonio Benta' deitzen zioten, izen hori baitzeukan bera jaiotako baserri-tabernak. Tomasari, berriz, 'Txibiter' deitzen zioten, baina dirudienez bere jaiotetxearen izenaren ('Gibraltar') desitxuraketa zen hori.

Agirreburualde-Alkortatarrok bi seme izan zituzten, Iñaki (1930) eta Sabin (1933-2023), eta baita alaba bat ere, Teresita, hamaika urte zituela hildakoa.

Francoren soldaduak herrian sartzen ari zirela, 1936ko irailean, Antoniok ihes egin zuen Bilboraino. Bueltatu eta hilabetez-edo eduki zuten preso Zumarragako kartzelan, Apaolaza erloju-saltzailearekin batera. Askatu zutenean, atzera ez zioten Patrizioren fabrikan lanik eman. Orduan, Aizkorpean ibili zen pikatxoiarekin zangak egiten herriarentzako ur-hornidura berria prestatzen. Udalaren aginduz jardun zuen.

Gero, Paca Urdingio dendariaren bitartez, Papeleran hastea lortu zuen. Horko lana bukatutakoan, Placida Elorza, enpresako nagusiaren alabaren jardina zaintzen zuen. Kointzidentzia: Iñaki Agirreburualde jaiotako egunean, 1930eko urriaren 5ean, hil zen enpresaburua, Patricio Elorza.

Antonio eta emazte Tomasa etxe honetantxe hil ziren, seme Iñakik eta beronen emazteak zainduta. Iñaki 1959an ezkondu zen, Uerkalde baserriko Carmen Balerdirekin, eta hauxe izan zuten lehen urteetako bizitokia.

Agirreburualdetarrok, aldameneko atean bizi zen eta aipatu dugun Facunda Elorza Plazaolari (1870) ordaintzen zioten errenta. Emakume hau, lehen esan bezala, serora zen eta parrokiarako egiten zuen lan. Ez zegoen ezkonduta eta asko irakurtzen zuen. Iñakik gogoan du nola, Korpus egunean, apaintzen zuen lorez Kale Zaharra, prozesioa zela-eta. Facundak jasotzen zituen

[es] Tenían mucha fama las morcillas de Nicasio, pero realmente estaban elaboradas por su hija Mª Cristina, a quien no le gustaba estar de cara al público y prefería dedicarse a hacer morcillas, y preparar otras cosas como las patas de cordero y la sangrecilla de este animal.

Cuando la guerra de 1936, en uno de los dos pisos de la primera planta vivían los Agirreburualde. Antonio Agirreburualde Zubizarreta y su esposa Tomasa Alkorta Zubizarreta habían llegado a fines de los años 20 desde Azkoitia, y el hombre trabajaba en la fábrica de Patricio. Le llamaban 'Antonio Benta', pues había nacido en un caserío-taberna que llevaba ese nombre. A la mujer le decían 'Txibiter', pero según parece esa denominación de su caserío natal era una deformación de la original 'Gibraltar'.

Tuvieron dos hijos, Iñaki (1930) y Sabin (1933-2023), y también una hija, Teresita, fallecida a los once años.

Al entrar las tropas de Franco en Legazpi en septiembre de 1936, Antonio huyó hasta Bilbao. Regresó y pasó alrededor de un mes en la cárcel de Zumarraga, junto al relojero Apaolaza. Le soltaron, pero no fue readmitido en la fábrica de Patricio. Entonces trabajó con pico y pala en las faldas del Aizkorri, haciendo los trabajos de traída de agua, por iniciativa del Ayuntamiento.

Luego, por mediación de la tendera Paca Urdingio, consiguió entrar en la Papelera. Acabada la jornada laboral, cuidaba los jardines de la casa de Plácida, la hija del empresario, quien se había casado con Anastasio Arbide. Una coincidencia: el día que nació Ignacio Agirreburualde, el 5 de octubre de 1930, murió Patricio Elorza, el propietario de la Papelera.

Antonio y su esposa Tomasa fallecieron en esta casa, y el domicilio sería luego ocupado por el hijo Iñaki, casado en 1959 con Carmen Balerdi, del caserío Uerkalde. Fueron ellos quienes cuidaron de Antonio y Tomasa hasta su fallecimiento.

Los Agirreburualde pagaban la renta a la persona que vivía en el piso contiguo: la mencionada Facunda Elorza Plazaola (1870). Era serora y leía mucho. Iñaki



Nikasio Lasa zahartuta (Maricris Lasak emana).




Nikasio Lasaren familia. Jose Luis, Maricris, Pedro Urzelai, Marivi eta Iñaki (Maricris Lasak emana).

[eu] errentako diruak, baina ez dago garbi etxea berea zuen; edozein modutan, ia-ia mixerian bizi zen. Agirreburualde-Balerditarrok 1964an alde egin zuten etxe honetatik. Handik gutxira eraitsi zuten.

Bestalde, 1940ko hamarkadan, Alejandro Larrea eta Bittori Pinedo bizi izan ziren hirugarrengo solairuan, Txintxoetxetik hona aldatuta, familia ugaria zutenez toki gehiago behar zuten-eta. Bata Zalduondon jaioa, bestea Gesaltza Añanan, eta Beasainen elkar ezagutuak, lanean ari zirela. Alejandro Legazpira etorri zen, entzunda Patrizio Etxeberriak jendea behar zuela, eta fabrikari begira zegoela, Patrizio bera gerturatu eta lana eskaini. Geroago, 1950eko hamarkadan, hirugarren solairuko pisu honetan, Alejandro eta Bittoriren seme bat bizitu zen, Antonio Larrea, Margarita Roarekin ezkonduta. ❖

[es] recuerda que se encargaba de engalanar con flores y vegetales las calles por las que iba a pasar la procesión del Corpus. Vivía rozando la miseria. Los Agirreburualde-Balerdi dejaron esta casa en 1964 y poco más tarde fue derruida.

Por otra parte, en los años 40 entró en el tercer piso la familia de Alejandro Larrea y Bittori Pinedo, llegada desde Txintxoetxe, buscando una casa más amplia porque eran familia numerosa. Alejandro era nacido en Zalduondo y su esposa en Salinas de Añana. Se habían conocido en Beasain, localidad en la que ambos trabajaban. El hombre acudió un día a Legazpi porque había oído que la fábrica de Patricio necesitaba operarios, y al estar observando la factoría se le acercó el mismísimo patrón para ofrecerle empleo. Ya en los años 50, esta tercera planta sería el domicilio de uno de los hijos de Alejandro y Bittori, Antonio, casado con Margarita Roa. ❖



05 _ elizondo

AGIRREPLAZA 7 AGIRREPLAZA



Agirreplaza, erdi-erdian, egungo Itxaropen auzotik ikusita (Felisa Anduezak emana).

[eu]

Etxe hau, bota zuten Patrizio Etxeberria kaleko etxe-ilada berria egin zenean, 1968an. Azkeneko bizilagunak Canuto Agirre eta emazte Catalina Berasategi izan ziren, bata Berokin jaioa, bestea Brinkola aldeko trenbide-kaxeta batekoa, baina zegamar jatorriko familia bateko kide. Etxe-deiturari dagokionez, esan beharra dago 'plaza' horrek 'kalea' edo herrigunea esan nahi zuela lehengo garaietan.

'Txinpartak' aldizkariaren 18. alean artikulu oso jantzia plazaratu zuen Miguel Angel Agirre Alvarezek, 'Origen del linaje Agirre de la Plaza' izenburupean. Han zioenez, Legazpiko herriari dagokion leinuko kide aspaldikoena, ezagutzen dena, Martin Agirre de la Plaza da, Ibarrategiko Jordana de Ybarrarekin ezkondua eta, gutxi gorabehera, 1490-1550 urte-tartean bizitutakoa.

Gero, hamaseigarren mendearen bigarren erdialdean zehar, agirreplazatarrak alde egin zuten beren hasierako etxetik, gorago bizitzen hasteko, Murugarakoan, alegia, hango lurrak hobeak baitziren. Abizena ere mudatu zuten; Agirre de la Plaza izateari utzi eta Agirre de Murua bihurtu zen.

Hamazpigarren mendean, ugaldetar batzuk izan ziren Agirreplazako bizilagun eta jabe. Eta 1785ean, Tomasa Lekuona Ugalde de Agirreplaza, Zumarragan jaioa, ezkontzen da Joseph Angel Odria Ynzarekin, hau berriz Zerainen jaioa. Handik aurrera, hemeretzigarren mende bukaera arte, odriatarrak izango ditugu etxeko bizilagun eta nagusi. Ondoren, plazaolatar batzuk, eta Juan Plazaola izan genuen azken-azkeneko jabea, hogeigarren mendean.

Azken etxe-nagusia, Juan Plazaola Ormazabal, 'Juan Kojoa' (Legazpi, 1897) izan zen. Bera Donostian bizi zenez, koinatu-koinata batzuei esan zien Agerreplazan bizitzeko, etxea zainduta egon zedin. Esan bezala, maizterrok Canuto Agirre eta Catalina Berasategi ziren, eta hain zuzen ere Catalinaren ahizpa batekin zegoen ezkonduta Plazaola. Senar-emazteok ez zuten seme-alabarik izan; eta Canutok eta Catalinak ere ez.

[es]

Esta casa fue demolida en 1968, cuando se acabó de hacer la fila de casas de la calle Patrizio Etxeberria. Los últimos habitantes fueron Canuto Agirre y su esposa Catalina Berasategi, él nacido en Beroki, la mujer en una caseta de la Renfe de Brinkola, si bien era descendiente de zegamarras. En cuanto al nombre de la casa, hay que precisar que, en origen, ese vocablo 'plaza' viene a significar 'calle' o casco urbano.

El investigador madrileño Miguel Ángel Agirre Álvarez publicó un trabajo en el número 18 de la revista Txinpartak. "El representante más antiguo de este linaje registrado en Legazpia es Martín Aguirre de la Plaza, que estimamos vivió en el periodo 1490-1550", escribió. Estaba casado con una mujer de la casa Ibarrotegi, Jordana de Ybarra. Pero luego, a lo largo del XVI, los Agirreplaza se fueron desvinculando de este solar, para instalarse en Murua de suso (Murugarakoa), según Agirre Álvarez porque era una casa mayor y con mejores tierras. A partir de entonces se denominaron Agirre de Murua.

Luego, esta casa de Agirreplaza fue habitada por personas de apellido Ugalde, que eran sus propietarios. En 1785, Francisca Tomasa Lekuona Ugalde, que era nacida en Zumarraga, tomó por esposo al zeraindarra Joseph Angel Odria Ynza. Y a partir de ahí, hasta fines del XIX, fueron gentes de apellido Odria los habitantes y propietarios del caserío.

A finales del XIX, el último de los Odria marchó a América, y entonces empezó la era de los Plazaola. El último propietario, antes del derribo, fue Juan Plazaola Ormazabal, 'Juan Cojo' (Legazpi, 1897).

Como se ha dicho, en la década de 1960, antes de que Agirreplaza fuera derribada, en la casa vivían Canuto Agirre y su esposa Catalina Berasategi, un matrimonio sin hijos. El cuñado, 'Juan Cojo', que era el dueño del inmueble, vivía en Donostia y les había encomendado el cuidado de la casa. Tampoco Juan Plazaola tuvo descendencia.



Hemezortzi laguneko talde bat etxe baten aurrean. Aurrean dultzaina-jolea eta atabalaria. Jai-eguna dirudi denak jantzita dauden moduagatik, akaso maiatzaren 3a. Etxearen itxuragatik, antzinako Agirreplaza dela esan liteke (Ignacio Agirre, Burdinola Elkartea, 9x12.41).



Agirreplaza aurrean, Pilar Zabalo (Anjelitaren ahizpa), Ines Zubia (Juanito Zubiaren arreba) eta Elena Zaldua. Juan Plazaolak ondorengo etxe hauen jabetza zuen: Elizondo, Bodega Gurrutxaga, Agirreplaza, bi etxe Donostian, Narrika kalean, denda bat ere bai. Likoreak eta Donostiako oroigarriak saltzen omen zituen.

[eu] Canutok ere herren egiten zuen oso nabarmen, umetan polioaren erasoa jasan zuelako. Halako arazoa edukita, familiak diruz lagunduta, zurgintza ikasi zuen, gero Patrizioren fabrikan jardun zuelarik, beti arotz, eta Agirreplazan ere bazeukan bere tailertxoa.

Bestalde, 1930eko hamarkadan, Doroteo Arrazola Isasmendi eta Teodora Elorza Beitia bizi izan ziren baita ere, biak oñatiarrak, bigarren hau Elias Elorza dendari ezagunaren arreba, eta hementxe jaio zitzaizkien lehen bi semeak, Bitoriano (oso pertsona ezaguna, Olaria saria jasotakoa) eta Javier (fraide dominiko egin zena eta Filipinetan eta Korean bizitutakoa). Gero Doroteok etxe berria egin zuen Aiztonagabekoa zegoen tokian, eta familia bertara bizialdatu.

1950 eta 1960ko hamarkadetan, Andres Goia dentista gabiriarrak etxe honetantxe eduki zuen legazpiarrak artatzeko tokia. Herriko beste neska gazte baten ostean,

[es] El inquilino, Canuto Agirre, también tenía una cojera muy pronunciada, pues había tenido en su niñez un ataque de polio. Al tener esta incapacidad, la familia le apoyó para que aprendiera el oficio de ebanista, y luego en sus muchos años de trabajo en la fábrica de Patricio siempre ejerció de carpintero. También tenía un pequeño taller en Agirreplaza.


En la década de 1930 vivieron también Doroteo Arrazola Isasmendi y Teodora Elorza Beitia, ambos oñatiarras, la mujer hermana del célebre comerciante Elías Elorza. Aquí nacieron los dos primeros hijos: Victoriano y Javier. El primero fue líder en asociaciones de la localidad y recibió el premio Olaria, y Javier se hizo dominico y ha trabajado en Filipinas y Corea. Luego Doroteo construyó un edificio de viviendas en el lugar donde estaba enclavado Aiztonagabekoa, y la familia se trasladó allí.



Agirreplazako Canuto Agirre Berokin jaioa zen (Mertxe Agirrek emana).



Agirreplazako Juan Plazaola sidekar barruan (Erraizabalgo Aranguren Agirretarrek emana).



Juan Plazaola, txofer here kotxean (Erraizabalgo Aranguren Agirretarrek emana).

[eu] Apatsoko Puri Oria (1942) izan zuen laguntzaile. Honek bost urte egin zituen, 1960-65 epean, eta ezkondutakoan utzi egin zion lantegi horri. Goia dentista berezia zen: asko kostatzen zitzaion enpasteak bukatzea eta, zenbaitetan, lana burutu gabe eta dirua kobratu gabe geratzen zen. Agirreplaza desagertu zenean, Patrizio Etxeberria kale berrian jarri zuen kontsulta.

Itxura dotorea zeukan etxeak, eta barrua ere halakoxea. Azken nagusia, esan bezala, Juan Plazaola Ormazabal izan zuen. Juanen gurasoak, berriz, Antonio Plazaola Ugalde legazpiarra eta Angela Ormazabal Oiarbide idiazabaldarra. Familia hau Agirreplazan bizi izan zen eta Juanek, gaztetan, saskigile jardun zuen. Halako batean Arrolategiren jabe bihurtu zen, gero Elizondo izenaz ezagutuko genuen etxearena, alegia.

1930ean, Juan herriko alkate izendatu zuten. Primo de Rivera jeneralaren diktadura bukatu berritan, Alfonso XIII.ak Berenguer jenerala izendatu zuen gobernu-

[es] En las décadas de 1950 y 1960, el dentista gabiriarra Andrés Goia tuvo aquí un despacho en el que atendía a los legazpiarras. Tras otra chica joven de este pueblo, ejerció de ayudante, entre 1960 y 1965, Puri Oria (1942), del caserío Apatso. Goia era un dentista peculiar: le costaba mucho acabar los empastes, de manera que en algunos casos el paciente se quedaba sin empaste y el dentista sin cobrar la faena. Tras la demolición del caserío, Goia tuvo consulta en la nueva calle Patrizio Etxeberria.

La casona tenía buen aspecto, y el interior estaba muy cuidado. El último propietario, como se ha dicho, fue Juan Plazaola Ormazabal, hijo del legazpiarra Antonio Plazaola Ugalde y la idiazabaldarra Ángela Ormazabal Oiarbide. Esta familia vivió en el mismo Agirreplaza, y Juan en su juventud ejerció de cestero y luego se convirtió en dueño de Arrolategi, casa que conocemos como Elizondo.



Zutik, Felisa Arrazola eta Cristina Berasategi. Eserita, Kattalin Berasategi eta Simona Etxeberria.



Pilar Alberdi (Motxorro), "Joxepa Txiki" (Trekurena), Kattalin Berasategi eta Felisa Arrazola (Erraizabalgo Aranguren Agirretarrek emana).



Juan Plazaola, 'Juan Kojo', udaletxean, aldamenean Pedro Arzuaga mikeletea duela.

[eu] buru, eta honek, segituan, udaletan gestora berriak osa zitezela agindu zuen. Orduantxe izendatu zuten alkate. Hurrengo urtean, 1931n, Errepublika sortu zelarik, Juan Plazaolak utzi egin behar izan zuen alkatetza. Hamalau hilabeteko agintaldi labur horretan tramiteak egin zituen Kale Berriaren eraikuntzari ekiteko. Gero Donostian bizi izan zen. Narrika kalean bazituen zenbait etxe, eta oraingo Askatasunaren Hiribidean denda zabala, non lanparak eta etxeetako apaingarriak saltzen baitzituen.

'Juan Kojoa' Legazpira azaltzen zenetan, Mercedes markako auto oso dotore batean etortzen zen. Ez zuen gidatzen eta txoferra zeukan. Udalaren eskariz Luis Astiazaran arkitektoak 1930ean egindako plano batean (Kale Berria izango zenaren tokia adierazten da bertan), Juan Plazaola agertzen zaigu Agirreplazako jabe moduan. Ez dakigu noiz bihurtu zen etxetzar hartako nagusi, bai ordea 1872an jabea Pedro José de Odria y Zabalo zela, artean 55 urtekoa eta nekazaria.

Pedro Jose Odria Zabalo 1817an jaioa zen. Aita Jose Andresengandik jaso zuen, herentzian, Agirreplaza. Bi aldiz ezkondu zen, lehenbizi, 1845ean, Mª Teresa Izagirre Txintxurreta gabiriarrarekin. Hau 1861ean hil zen eta, hurrengo urtean, gizonak Mª Estefania Berasategi Telleria (Zerain, 1840) hartu zuen emaztetzat. Lehenbiziko emazteak bost seme-alaba ekarri zituen mundura, bigarrenak hiru.

[es] En 1930, Juan fue elegido alcalde. Al finalizar la dictadura del general Primo de Rivera, el rey Alfonso XIII encargó al general Berenger la constitución de nuevas gestoras en los municipios. Fue entonces cuando Juan Plazaola se convirtió en alcalde, no sabemos si mediante sufragio directo. En siguiente año, en 1931, llegó la República y Juan debió abandonar el puesto. En sus catorce meses al mando del Ayuntamiento, realizó trámites para acometer la construcción de la Calle Nueva. Luego vivió en Donostia, poseía varias casas en la calle Narrika y una tienda de lámparas y complementos para el hogar en la actual Avenida de la Libertad.

Cuando Juan venía a Legazpi lo hacía en un coche Mercedes conducido por su chófer, pues su cojera le impedía llevar un vehículo. Cuando el arquitecto Luis Astiazaran realizó en 1930 el plano del proyecto de Calle Nueva, este hombre ya aparece como propietario de Agirreplaza, pero no sabemos desde cuándo era esta familia la propietaria. Se sabe que en 1872 el dueño era Pedro José de Odria y Zabalo, labrador de 55 años.

Pedro José Odria Zabalo había nacido en 1817. Recibió el caserío en herencia de su padre José Andrés. Se casó dos veces, primero con la gabiriarra Mª Teresa Izagirre Txintxurreta en 1845, con la que tuvo cinco hijos. Esta mujer falleció en 1861, y al año siguiente Pedro tomó como esposa a Mª Estefanía Berasategi Telleria (Zerain, 1840). Con ella tuvo otras tres criaturas.

[eu] Badirudi Pedro Jose diruz estu xamar zebilela, behin baino gehiagotan eskatu baitzuen diru-mailegua. 1872an, 2.718 pezeta utzi zizkion Urretxuko okin batek, Santiago Zabaleta Zabaletak. Artean 55 urteko gizon aski adindua zen Pedro Jose, baina hurrengo urtean, 1873an, erabaki latza hartu zuen: Ameriketara joango zela-eta, Agirreplazako etxea eta lursail guztiak (Gabiriako Iturgorriko sail batzuk barne) eman zizkion errentan, sei urterako, Francisco Zumarraga Exposito izeneko 25 urteko legazpiarrari. Bai joan ere. Eta alaba txikiena, Francisca Sales (sei urtekoa), Zumarraga maizterrarekin utzi zuen ("en compañía del colono"), bai egoera harrigarria).

Pedro Jose Uruguaira joan zen eta badakigu alaba Juanak (1863an jaioa) han bukatu zuela, izan ere haren biloba bat, Hector Rodolfo Iriarte, Legazpira azaldu baitzen 1994an, amonaren herriaren berri jakin nahi zuelako. Gizon hau Líbano izeneko herrian bizi zen, Argentinan, Buenos Aireseko probintzian. Kontua da, bisita haren ondorioz, herriko Odriatarrek juntadizo handia egin zutela. Istorio bitxia da: halako batean Legazpira iritsi zen Hector Rodolfo Iriarteren eskutitz bat, "Juana Josefa Odriaren familiartekoen" izenean. Manuel Salvador eta Justino Madinak, biak ala biak Odriatar batzuen ondorengo, gutun bana bidali zioten argentinarrari, esanez Legazpira etortzen bazen gustura hartuko luketela. Halaxe, Hector eta emazte Zelfa azaldu ziren herrira eta Manuel Salvadorrek (Aztiriko Baztarretxeko Bernarda Odriaren bilobak) odriatarren gaineko ikerketa genealogikoa entregatu zien. Eta Aztiriko ostatuan 66 lagun (denak odriatarrekin zerikusia zutenak) bildu ziren ospakizuna egiteko, gero Josema Azpeitiak artikulua publikatu zuelarik 'Ene Bada'-n.

Odriatar haiek alde egin zutenean Ameriketara, hemen, baserri-errentak kobratzeko lana, lehen aipatu dugun Santiago Zabaleta Zabaleta okin urretxuarrari utzi zioten. Pentsatzen dugu handik gutxira egingo zirela plazaolatarrak Agirreplazaren jabe. ❖

[es] Según parece, Pedro José, que vivía del caserío, tenía problemas económicos, pues solicitó préstamo en más de una ocasión. En 1872, el panadero urretxuarra Santiago Zabaleta Zabaleta le prestó 2.718 pesetas. Entonces Odria contaba con 55 años, y al año siguiente tomó una decisión que pensamos no sería fácil: se marchó a las Américas, abandonó Agirreplaza y lo dejó a renta (incluidos los terrenos de Iturgorri en Gabiria) a un joven legazpiarra de 25 años llamado Francisco Zumarraga Expósito. Y Pedro José dejó "en compañía del colono" a su hija menor, Francisca Sales, de seis años. Algo difícil de entender con los ojos de hoy en día.

Pedro José marchó primero a Uruguay y sabemos que su hija Juana (nacida en 1863) también acabó en tierras americanas, dado que un nieto de ésta, Héctor Rodolfo Iriarte, vino a Legazpi en julio de 1994 desde el pueblo de Líbano, de la provincia de Buenos Aires, buscando noticia de sus antepasados. Con ese motivo, los Odria se congregaron en un restaurante de Aztiria en comida de hermandad.

Es una historia curiosa. Llegó a Legazpi una carta, dirigida a "los familiares de Juana Josefa Odría". Dos legazpiarras con apellido Odria se movilizaron: Manuel Salvador y Justino Madina. Enviaron sendas cartas al argentino Iriarte, comunicándole que si venía a Legazpi sería bien recibido. Finalmente vino con su esposa Zelfa, y Manuel Salvador le entregó una investigación propia sobre la genealogía de los Odria. Además, en el ostatu de Aztiri se reunieron 66 personas descendientes de algún Odria y agasajaron a los americanos. Josema Azpeitia publicó un reportaje en 'Ene Bada'.

Cuando los Odria marcharon a Uruguay, en la década de 1870, Pedro José dejó al panadero urretxuarra Santiago Zabaleta Zabaleta como encargado de cobrar las rentas de Agirreplaza. Pensamos que no pasaría mucho tiempo hasta que el caserío fue adquirido por los Plazaola. ❖



BUENAVENTURA (Joxemanuelenea, Blasenea, Martxilinea) 8 BUENAVENTURA (Joxemanuelenea, Blasenea, Martxilinea)



Buenaventura, eraiki berritan, eraikin baxuagoa zenean (Arantza Renomek emana).



Buenaventura 1940ko hamarkadan (Arantza Renomek emana).

[eu]

Jose Manuel Alustiza Guridik egin zuen etxe hau hemeretzigarren mende bukaeran. Jose Luis Ugarte ikerlariak batutako datuen arabera, gizon hau Legazpiko Araotzenean jaioa zen 1861ean eta hargina genuen, aita bezala; hau, berriz, Asentzio Alustiza Goia (Mutiloa, 1832). Brinkolazargo Dominica Iñurritegi Zabaletarekin ezkondu zen Jose Manuel eta, Pasai aldeko Molinaon lanean ari zela, hanka hautsi zuen. Itzuli ziren jaioterrira, Legazpira, aldamenean beren lehenengo umea zutela, Zacarias, 1888an jaioa Altzan.

Atzera eginez, esan dezagun Jose Manuel Alustiza Guridik bazituela beste zortzi bat senide eta senide-orde. Aita, Asentzio, bi aldiz ezkondu zen, lehenbizi Mª Carmen Guridi Guridirekin, eta Jose Manuel ez ezik, Martin (1859) eta Benita (1864) izan zituzten. Berriro ezkondu, Josefa Egaña Juaristirekin, eta seme-alabok izan zituzten: Jose Martin Alustiza Egaña (1868), Petra, Ignacio Maria, Mª Isidora, Jose Antonio (1876) eta Gaspar (1879). Azkeneko bi semeok oso ezagunak izan ziren, batak drogeria eduki baitzuen, eta besteak hotela abian jarri, bere izenarekin bataiatua.

Jose Manuel Alustizaren emaztea, Dominica Iñurritegi, diruduna zen. 1887an, iñurritegi-zabaletatar senideek dirutza handia jaso zuten, Kuban bizi zen indiano batek emana, Olazarren 1827an jaiotako Francisco Iñurritegi Zangituk, alegia. Halaxe, indianoari esker, lau etxe berri egin ziren Legazpin: Brinkolan Zubiaur, Telleriarte aldean Makatzaga, Bikuñaenean Bazterrekoa eta kale aldean Buenaventura.

Buenaventura egiteko, herriko bikario Jose Francisco Zangroniz Olearen oztopoak gainditu behar izan zuten. Nonbait, ez zuen nahi abade-etxe ondoan beste eraikinik.

Jose Manuel eta Dominica, Altzatik etorri ostean, eta etxe berria egin bitartean, Aseginolazanean bizitu ziren. Handik ekarritako Zacarias txikiaren ondoren hiru haur jaio ziren: Fermin (1890), Maria (1891) eta Saturnino (1902). Azkeneko hau Buenaventuran bertan munduratu zen.

[es]

La mandó edificar José Manuel Alustiza Guridi a fines del siglo XIX. Según los datos recogidos por José Luis Ugarte, esta persona nació en 1861 en la casa Araotzenea de la Calle Vieja y era cantero, al igual que su padre, Asencio Alustiza Goia (Mutiloa, 1832). Tomó por esposa a Dominica Iñurritegi Zabaleta, de Brinkolazar, y estando trabajando en la zona de Molinao en Pasaia, se le fracturó una pierna y entonces volvieron a Legazpi, junto con el primer hijo, Zacarías, que había nacido en Altza en 1888.

Retrocediendo en el tiempo, digamos que José Manuel Alustiza tenía alrededor de ocho hermanos y hermanastros. El padre, Asencio, se casó dos veces, primero con Mª Carmen Guridi Guridi, y tuvieron, además de a José Manuel, a Martín (1859) y Benita (1864). Después de quedar viudo, se casó con Josefa Egaña Juaristi, y tuvieron esta descendencia: José Martín Alustiza Egaña (1868), Petra, Ignacio María, Mª Isidora, José Antonio (1876) y Gaspar (1879). Estos dos últimos hijos fueron muy conocidos, dado que el primero tuvo droguería en su casa de la Calle Vieja, y Gaspar fundó un hotel que llevaba su nombre.

La esposa de José Manuel Alustiza, Dominica Iñurritegi, tenía buena posición económica. En 1887, los miembros del linaje Iñurritegi-Zabaleta recibieron una fuerte cantidad de dinero, por herencia de un indiano que había vivido en Cuba: Francisco Iñurritegi Zangitu, nacido en 1827 en Olazar. Gracias a la herencia del indiano se edificaron cuatro casas en Legazpi: Zubiaur en Brinkola, Makatzaga en Telleriarte, Bazterrekoa en Bikuñanea y Buenaventura en el núcleo urbano.

A la hora de edificar, José Manuel tuvo que hacer frente a las trabas que le puso el párroco, José Francisco Zangroniz Olea, que por lo visto no quería vecinos cerca de su casa.

Dominica y José Manuel, antes de regresar de Altza-Pasaia, y mientras se edificaba su nuevo hogar, vivieron en Otsategi, la casa de los Aseginolaza. Allá nacieron otras dos criaturas, Fermín (1890) y María (1891); Sa-



Fermin Alustiza eta aita, Jose Manuel Alustiza (Elena Zalduak emana).



Martin Jose Alustiza Guridi (Araotzenea, 1860) eta emaztea, Ines madrildarra. 1918-02-09 (Elena Zalduak emana).



Martin Alustiza Guridi (1859) eta anaia Jose Manuel Alustiza Guridi (1861), Buenaventura etxea egin zuena (Arantza Renomek emana).

[eu] 1910eko udal erroldaren arabera, Zacarias 23 urteko harakin eta matarifea zen, eta "expendedor" ere bai. Harategia ote zeukan? Feminek 20 urte zituen eta "cochero" moduan ateratzen zuen bizimodua.

Maria Alustiza Iñurritegik etxe honetan segitu zuen gero. Blas Zaldua Zufiaurrerekin ezkondu zen, hau berriz Zumarragakoa, Iburretagoikoan jaioa, eta, besteak beste, Martinaren anaia. Martina Zaldua hau izan genuen Txoko taberna, eta bertako etxea, egin zuena.

1920ko udal erroldari erreparatuta, garai hartan Jose Manuel bizi zen Buenaventuran, alargunduta (artean 59 urte zituen) eta berarekin batera hiru seme-alaba, hirurak ezkongabeak: Zacarias (32 urtekoa eta "comerciante en granos"), Maria (27 urte, etxeko lanak) eta Saturnino (18 urte, ajustadore mekanikoa). Horiez gain, errentero-familia bat: Anastasio Arbide Larrea (27

[es] turnino (1902), en cambio, ya vino al mundo en Buenaventura.

Según el padrón municipal de 1910, el primer hijo, Zacarías, era un joven de 23 años, carnicero, matarife y "expendedor", se supone que de carne. Fermín tenía 20 años y se ganaba la vida como "cochero".

Otra hija, María Alustiza Iñurritegi, fue la que luego seguiría en la casa. Se casó con Blas Zaldua Zufiaurre, nacido en el caserío Iburretagoikoa de Zumarraga, y que era hermano de Martina, la mujer que regentó en el Bar Txoko y además levantó ese edificio de viviendas.

Si observamos el padrón de 1920, veremos que entonces en Buenaventura vivían José Manuel, viudo de 59 años, y tres hijos, los tres solteros: Zacarías (de 32 años y "comerciante en granos"), María (de 27 años y



Zacarias Alustiza eta emaztea (Arantza Renomek emana).



Maria Alustiza, Blas Zaldua eta alaba Elena (Arantza Renomek emana).



Bidaia batean ateratako argazkia. Ezker-eskuin, zutik: Blas Zaldua, Reyes Urtatza "Reyes Kirrin", Rosita Arregi "Juanitosa" eta Angelita Ugarte "Pasteleronekua". Eserita, Zacarias Alustiza, Rositaren gizona (Aretxabaletakoa) eta ezezagunak (Elena Zalduak emana).

[eu] urte), emazte Placida Elorza Etxeberria (22 urte) eta Anastasioren ama, Calixta Larrea Berasategi. Andre gazte hori Papelerako nagusiaren alaba zen, eta senarra bertako zuzendaria izango zen gero. Buenaventuratik Beatakora (Nikasioren etxera) bizialdatu ziren gero, eta 1932an beren etxe propio dotorea egin zuten Papelera ondoan.

1930ean handitze-lanak egin ziren eraikin honetan, eta sei bizitza gehiago erantsi.

Maria Alustiza Iñurritegi eta Blas Zalduak Elena izeneko alaba izan zuten. Gero berau izan zen etxe-nagusia, eta etxe honetantxe bizi osoa eman eta gero 2017an hil zen, 90 urte zituela.

Miguel Renom Arrazola oñatiarrarekin ezkondu zen Elena Zaldua, eta gizon honek aterkiak konpontzeko

[es] dedicada a las tareas domésticas) y Saturnino (de 18 años y ajustador mecánico). Además, residían allí, a renta, Anastasio Arbide Larrea (27 años), su esposa Plácida Elorza Etxeberria (de 22 años, hija del dueño de la Papelera) y la madre de Anastasio, Calixta Larrea Berasategi. Arbide, más tarde, llegaría a ser gerente de la empresa papelera. Esta familia se trasladó luego a la casa Beatakoa (donde estuvo la carnicería de Nicasio), y en 1932 edificaron su chalet propio al final de la Calle Vieja.

En 1930 se hizo una gran ampliación en este edificio y se consiguieron seis viviendas más.

María Alustiza Iñurritegi fue la que regentó Buenaventura. Se casó con Blas Zaldua, del caserío Iburretagoikoa de Zumarraga y operario de la fábrica de Patricio, y tuvieron una hija de nombre Elena. Esta mujer



Miguel Renom etxeko aterki-tailerrean (Arantza Renomek emana).



Martxeliren goxoki denda (Lenbur erakundeak emana).



Martxeliren denda aurrean, bertan lan egin zuen Mertxe Lizarazu (esk) eta Beatriz Zaldua (Iñaki tabernakoa) (Lenbur erakundeak emana).

[eu] tailertxoa eduki zuen eraikin honetan bertan, eta saldu ere egiten zituen, Oñatiko lantegi batetik ekarrita. Azken urteak Ulma enpresan eman zituen. Elenaren aita, Blas Zaldua, Patrizioren fabrikako enplegatua izan zen.

Denboran atzera eginez, Zacarias Alustiza Oñatira ezkondu zen gero, bertako batekin, eta ez zuten haurrik izan. Anaia Saturnino, berriz, Donostian bizi izan zen, Patrizio Etxeberriarekin zenbait negozio egin eta gero.

Bestalde, Elena Zalduak Jose Luis Ugarte ikerlariari adierazi zionez, Jose Manuel Alustizak, Oiarbidenean kartatan ari zela, apustua egin eta Latxartegi baserria erosi ahal izan zuen 13.000 erreal ordainduta. Biziola baserrikoena omen zen. Dolores Egaña, Jose Manue-

[es] fue luego la propietaria del edificio y vivió aquí mismo hasta su fallecimiento en 2017, a los 90 años. Se casó con el oñatiarra Miguel Renom Arrazola, quien montó un taller de arreglo de paraguas en el bajo de este edificio, y que además traía de una fábrica de Oñati género nuevo para venderlo. Sus últimos años de trabajo fueron en Ulma.

Retrocediendo en el tiempo, Zacarías Alustiza se casó a Oñati con una mujer de esa localidad. No tuvieron hijos. Saturnino, por su parte, vivió en Donostia, tras una época de negocios con Patricio Etxeberria.

Por otra parte, según contó Elena Zaldua a José Luis Ugarte, José Manuel Alustiza, en un día que jugaba a las

[eu] len amaordekoaren ahizpa, Latxartegin bizi zen eta urrea soinean eramaten omen zuen, gona barrenean.

Hainbat familia bizitu ziren eraikin honetan errentero, eta bebarruan historia handiko bi lokal egon ziren, batetik Iñaki taberna, Jose Ignacio Zalduak (Blasen anaia) eta emazte Maria Zabaleta Idigorasek abian jarria 1956an, eta 2019an itxi zena, baina lehenago ikuilu izan zen eta bertan bi buru, lau belarri eta zortzi hankako txahala jaio omen zen. Bestetik, parroki elizaren aldeko kantoian, Martxeli Aiastuiren goxoki-denda egon zen, 1930, 40 eta 50eko hamarkadetan jaiotako umeen paradisua.

Marcelina Aiastui Errasti Otala Zelai baserrian (Aretxabaletako Aozaraza auzoan) jaio zen 1902an. Zazpi senideren artean bera zen neska bakarra, eta gazterik etorri zen Legazpira. Ez dago argi, baina badirudi hasieran neskame jardun zuela etxe 'handiren' batean, eta ondoren bere kasa hasi dendan, gainera Buenaventura etxe honetantxe bizi zelarik. Gero, Patrizio Etxeberria kalean pisua erosi eta bertara bizi aldatu zen, eta 1974ko uztailaren 18an hil.

Hona maizter izandako familia batzuk, denak edo ia denak Patrizioren fabrikako langile jendea: Isidro Grandmontagne eta Rosario 'la riojana' (alde egindakoan ELA sindikatuaren egoitza izan zen); Pedro Zabaleta ('Pedro Xaldu') eta Muntegiko Eulogi Telleria; Basilio Otaegi zegamarra eta Aztiriko Crucita Imaz. Gabriel Otaegi eta Francisca Berasategi; Jose Madina eta Juana Sarasola; Claudio Lizarazu eta Antonia Kortaberria. ❖

[es] cartas en Oiarbidenea, ganó una apuesta que le permitió comprar el caserío Latxartegi, a cambio de 13.000 reales. Pertenecía a gentes del caserío Biziola. Dolores Egaña, hermana de la madrastra de José Manuel (Josefa Egaña) vivía en Latxartegi y acostumbraba llevar sus monedas de oro entre las faldas.

En Buenaventura han vivido muchas familias a renta, y en dos locales de la planta baja hubo sendos negocios con solera. Por un lado, el Bar Iñaki, fundado en 1956 por José Ignacio Zaldua (hermano de Blas) y su esposa María Zabaleta Idigoras. Ese bar se cerró en 2019. Antes había sido cuadra y allí nació una ternera de dos cabezas, cuatro orejas y ocho patas.

Además, en la esquina del edificio más próxima a la parroquia, estuvo la tienda de golosinas y chucherías de Martxeli Aiastui, un auténtico paraíso para la chavalería nacida en las décadas de 1930, 40 y 50. Era nacida en 1902 en el caserío Otala Zelai del barrio Aozaraza de Aretxabaleta, y la única mujer de entre siete hermanos. Según parece vino joven a Legazpi, a servir en alguna casa 'grande', y luego montó la tienda, con vivienda en la misma casa Buenaventura. Más tarde compró piso en la calle Patrizio Etxeberria y vivió allí en su última etapa. Falleció el 18 de julio de 1974.

He aquí algunas de las familias que residieron en las diferentes plantas del edificio, en todos o casi todos los casos operarios de la fábrica de Patricio: Isidro Grandmontagne y Rosario 'la riojana' (ese piso fue luego sede del sindicato ELA); Pedro Zabaleta (Pedro Xaldu) y Eulogi Telleria, nacida en el caserío Muntegi; el zegamarra Basilio Otaegi y Crucita Imaz, de Aztiri; Gabriel Otaegi y Francisca Berasategi; José Madina y Juana Sarasola; Claudio Lizarazu y Antonia Kortaberria. ❖



BIKARIOETXEA 9 CASA VICARIAL



Bikarioetxe zaharra, barrenean, tanborrada egunean ateratako argazki batean.

[eu]

1972-3an desagertutako etxea. Saturnino Telleriak dioenez bere 'Historia de Legazpia'-n, 1790ean egin zuen herriak, Ignacio Valentin de Guridi (1739-1791) bikarioaren omenez, esker ona agertu nahian. Baina gizonak ez zuen disfrutatzeko modurik izan, lanak bukatu aurretik hil baitzen. Gertatu zen Valentinek asko lagundu ziola herriari, bai Segurako eliz agintarien bai Lazkano etxeko handikien kontra izandako auzietan, azkenean legazpiarrak garaile atera zirelarik.

Jose Mari Urcelay kronistak bestelako data bat eman zigun Txinpartak aldizkarian (seigarren alea, 2002). Han zioenez, bikarioetxea 1794an inauguratu zen.

Nolanahi ere, garbi dago lehenengo bikario edo erretorea, etxe berrian bizi izan zena, Juan Francisco Gorosabel izan zela. Abade honen ostean, 1818-1842 urte-bitartean, Jose Joaquin Mantxola aritu zen bikario; gero, Juan Olabide (1842-1847), Jose Antonio Agirre (1847-1849), Ignacio Antonio Zabaleta (1849-1891), Jose Francisco Zangroniz (1891-1912), Jose Antonio Larrea (1912-1942) eta Antonio Sarasola (1942-1972).

Urcelayk dioenez, etxea eraikitzeko Oako harrobiko harria eta toki hauetako 233 haritz tantai erabili ziren: "Arantzabesti, Pagola-aldea, Satui-erreka, Bederatzi-iturrieta, Muña-zorrotz eta Kortatzo". Hargin-maisua Martin Oraa izan zen, arotz-lana Manuel Urmenetak koordinatu zuen eta eraikitze lanen zuzendari Juan Agustin Alzola jardun zen. Etxea egin zen lursaila, berriz, Bidaurretako mojei erosi zitzaien, zehatzago esanda haien administratzaileari, zeinari Maese Juandegi esaten baitzioten.

Esan ohi zuten etxe honetan bazela ohol oso-oso handi bat, zorura lotzeko ehun iltze behar izan zituena. Jose Mari Urcelayk argitu zuen kontu hori ere: delako ohol hori zortzi metro luze zen, eta 60 zentimetro zabal, eta 95 iltzerekin zegoen josia.

Jabea Eliza izan zen. Esanda bezala, 1848-1891 tarte luzean Ignacio Antonio Zabaleta Aztiria egon zen bikario, eta etxe honetantxe bizi, aldamenean, neskame moduan, 1829an jaiotako Juana Josefa Oiarbide Izagi-

[es]

Casa derribada en 1972-3. Según comenta el médico Saturnino Telleria en su 'Historia de Legazpia', fue edificada por el pueblo, en 1790, a modo de homenaje al párroco Ignacio Valentín de Guridi (1739-1791). Pero según Telleria, el vicario no pudo disfrutarla, porque falleció algo antes de acabar la obra. Al parecer, Valentín ayudó sobremanera a los legazpiarras en los pleitos contra las autoridades eclesiásticas de Segura y contra los nobles de la casa de Lazcano, de manera que prevalecieron los intereses de los vecinos.

El cronista José Mari Urcelay mencionó otra fecha en su artículo publicado en el número 20 de la revista Txinpartak (año 2002). Según este periodista, que consultó los libros de cuentas de la parroquia, la casa se inauguró en 1794.

De cualquier manera, el párroco que inauguró la casa cural fue Juan Francisco Gorosabel. Luego, los párrocos fueron José Joaquín Mantxola (1818-1842), Juan Olabide (1842-1847), José Antonio Agirre (1847-1849), Ignacio Antonio Zabaleta (1849-1891), José Francisco Zangroniz (1891-1912), José Antonio Larrea (1912-1942) y Antonio Sarasola (1942-1972).

Según Urcelay, se empleó piedra de la cantera del monte Oa y 233 robles bravos de los siguientes parajes: "Arantzabesti, Pagola-aldea, Satui-erreka, Bederatzi-iturrieta, Muña-zorrotz y Kortatzo". El maestro en cantería fue Martín Oraa, y el jefe de carpinteros Manuel Urmeneta. El maestro de obra en construcción, Juan Agustín Alzola. Los terrenos fueron adquiridos a Maese Juandegi, administrador de las monjas del convento de Bidaurreta.

Se decía que en el edificio había una tabla tan grande que, para sujetarla al suelo, precisó de cien clavos. Urcelay, en su artículo, dilucidó la cuestión: la tabla, de una sola pieza, medía ocho metros de largo por 0,60 de ancho, y estaba cosida con 95 clavos.

Luego el edificio perteneció a la Iglesia. En el largo periodo 1848-1891, fue la sede y vivienda del párroco Ignacio Antonio Zabaleta Aztiria, que tuvo como criada





1915eko udal korporazioa eta eliz gizonak. Indalecio Ojangurenen argazkia, frontoi zaharrean egina.

1. *Bernardo Sarasola Iturralde. Idazkaria. Altzagan jaioa 1859an. Maisu-ikasketak zituen eginak, eta horretan jarduteko asmoarekin etorri zen Legazpira. Luzaroan izan zen idazkari: 1888ko apiriletik 1918ko apirilera, hil arte. Korreoseko etxe ondoan bizi zen.*

2. *Jose Joaquin Iñurritegi Zabaleta. Zinegotzia. 1856an Brinkolazar baserrian jaioa, baserritik bizi izan zen. Eguzkitzagoiko Maria Micaela Etxeberria emaztearekin batera 1887an Zubiaur baserria berreraiki zuen, metro batzuk mendi alderago.*

3. *Jose Miguel Olabide Plazaola. Zinegotzia. Hargina, besteak beste Donostiako Artzain Onaren katedralaren eraikuntzan jarduna. Telleriarteko Markastegi errotan jaioa.*

4. *Juan Aztiria Larrañaga. Sindiko edo diru-sarrera eta irteeren arduraduna. 1872an jaioa. Kale Zaharreko bizilaguna, 1936. urte aldera bere jabetzako Urtzaolaaundi baserrira bizialdatua. Ogibidez, konpitteo edo gozogilea.*

5. *Antonio Mª Aztiria Telleria. Alkateordea. 1861-1922. Urtatzagarakoan jaio eta bizitua. Baserritarra. 1896-1917 epe luzean udal karguak edukitakoa.*

6. *Benito Iturbe. Zinegotzia. Igeltseroa, Arrola baserrian jaio eta Kale Zaharrean Arrolanea izeneko bere jabetzako etxean bizitua.*

7. *Esteban Ormazabal. Zinegotzia. Telleriarteko Lopetegin jaio eta Elorza baserrira ezkondua, bertako Petra Galfarsororekin. Ogibidez, nekazari eta arotza, auzokoentzat hilkutxak egiten zituelarik.*

8. *Francisco Mantxola. Zinegotzia. Urtatzaazpikoan jaio eta bizitua. Baserritik bizi zen eta Beroki baserria ere berea zuen.*

9. *Francisco Arrizabalaga Gabiria. Aguazila. 1859an jaioa. Kontsejuan bizi zen, Antonia Murgiondo Mendizabal mutiloarrarekin ezkonduta.*

10. *Jose Galarza. Apaiz eta organojolea. Uste dugu familiaren etxean bizi zela, Kale Zaharrean, Kantoikoa izenekoan.*

11. *Miguel Mujika Olano. Hondarribian jaioa 1884an. Apaiz laguntzailea. Kale Zaharrean bizi zen apopilo, Mantxolanea edo Bikario Zaharraren etxean.*

12. *Jose Antonio Larrea. Bikarioa hainbat urtez, 1912-1942 epean. Zegaman jaioa. Bikarioetxean bizi zen.*

13. *Prudencio Gereta Irazabal. Alkatea 1895-1903 epean, eta baita 1910, 1914 eta 1916. urteetan ere. Oñatin jaioa 1860an. Enpresa-gizona. Patrizio Etxeberriaren ibilbidearen hasieran, haren sozio izan zen (enpresaren %20 zeukan) eta Guriditegiko turbinako jabeetako bat izan zen. Kartutxo fabrikaren etxean bizi izan zen, Elbarrenan, Seguraren teileriaren ondoan.*

14. *Pedro Izagirre Salaberria. Apaiz laguntzailea, Urretxuko Santa Krutz baserrian jaioa.*

15. *Jose Goia. Apaiz laguntzailea.*

16. *Francisco Elustondo Sagastume. Kanposantu zaharreko kapilaua. Amezketan jaioa 1884an. Kale Zaharrean bizi zen apopilo, Mantxolanea edo Bikario Zaharraren etxean. Gero anaia gazteago bat hasi zen lantegi horretan, Victor (1894), eta hau berriz Ibarrategin bizi izan zen.*

[eu] rre zeukalarik. Abade hau diruduna zen eta 1862an Olaetxe, Mendizabal eta Takolokoa baserriak erosi zizkien bikuñatarrei, zehazkiago esanda Italian bizi zen Carlos Bikuñaren alargunari, Geronima Castiglioneri.

Susmoa daukagu gero Juana Josefa neskameari utzi zizkiola ondasunok. Kontu segurua da azkenean herentzia mardul hori abadearen ahaide batengana pasa zela, Olaberrian jaiotako Dimas Zabaleta Guridiren eskuetara. Zehatzago esanda, Ignacio Antonio bikarioaren iloba baten seme zen Dimas.

[es] a Juana Josefa Oiarbide Izagirre, nacida en 1829. Este sacerdote poseía mucho dinero y en 1862 compró a los Bikuña los caseríos Olaetxe, Mendizabal y Takolokoa; concretamente, a Gerónima Castiglione, viuda de Carlos Bikuña, residente en Italia.

Sospechamos que luego el cura Zabaleta dejó en herencia esos caseríos a Juana Josefa Oiarbide. Lo que sí es seguro es que esas grandes propiedades pasaron finalmente a manos de Dimas Zabaleta Guridi, nacido en Olaberria, hijo de un sobrino del antiguo párroco Zabaleta.



Ezkerrean, Don Antonio eta Don Jesus 1963an (Arantza Renomek emana).



Abade desfilea 1963an, Buenaventuran bizi izandako Josu Zabaletaren lehen meza zela-eta (Arantza Renomek emana).

[eu] Hemeretzigarren mende bukaeran, etxeko bizilagun printzipala Jose Frantzisko Zangroniz Olea zen, Bizkaiko Arbatzegin jaiotako abadea. Gero, 1912-1942 tarte luzean, Jose Antonio Larrea bikarioa, zeina Zegaman jaioa baitzen eta Segundo Biteri Larrea barberoaren osaba.

Azkeneko etapan, hauek izan ziren bizilagunak: lehen solairuan, Antonio Sarasola (bikario edo erretorea, Altzagan jaioa eta 1979an hila, herriko eliz agintari nagusi moduan hiru hamarkadatan jardun eta gero); bigarrengoan, beste bi abade, Jose Cecilio Atxukarro (Pasaiakoa) eta Jesus San Sebastian. Bebarruan parrokiaren bulegoak zeuden. Miguel Barandiaran abadea, berriz, arreba Mertxe eta honen senar Romualdo Zabaletaren etxean bizi zen.

Bakoitzak bere emakume laguntzailea eduki zuen. Don Antoniok, lehengusina bat, Eulalia izenekoa; don Josek, Gregori Uzkudun, eta don Jesusek Adriana izenekoa. Don Jesusek, batik bat, gaztediarekin egin nahi izan zuen lan.

Aizarnazabalgoa zen Gregori Uzkudun eta modernitatean sartu gabekoa, sorgin-kontuak itsu-itsu sinesten zituelarik. Hori zela-eta, abadeek adarra jotzen zioten.

1972-3an eraitsi zuten eraikin hau, abade-etxe berria elizaren aldamenean egin zutelarik, baina ibai aldean. ❖

[es] A fines del XIX, el principal residente de la casa era el párroco José Francisco Zangroniz Olea, nacido en el pueblo vizcaíno de Arbatzegi. Y en el extenso periodo de entre 1912-1942, el zegamarra José Antonio Larrea, tío de un legazpiarra muy conocido, el barbero Segundo Biteri.

En su última etapa, vivieron el párroco Antonio Sarasola (nacido en Altzaga, máxima autoridad eclesiástica a lo largo de tres décadas y fallecido en 1979); en el segundo piso, otros dos sacerdotes, José Cecilio Atxukarro (de Pasaia) y Jesús San Sebastián; en el bajo se hallaban las oficinas parroquiales. El cura Miguel Barandiaran, en cambio, vivía en casa de su hermana Mertxe y su marido, Romualdo Zabaleta.

Cada sacerdote tenía su mujer ayudante, que también vivía allí. Don Antonio empleó a una prima de nombre Eulalia; la criada de don José fue Gregori Uzkudun, y la de don Jesús se llamaba Adriana. Este último se dedicó sobre todo a evangelizar a la juventud.

Gregori era nacida en Aizarnazabal y todavía seguía creyendo profundamente en las brujas, lo que era motivo de frecuentes comentarios jocosos por parte de los sacerdotes.

El edificio fue demolido en 1972-3 y la nueva casa para los sacerdotes se hizo también al lado de la iglesia parroquial, pero en el lado del río. ❖





06
[kalegoena]
kale berria

1. Irubideko etxea
2. Araotzeneaundi
3. Araotzenetxiki
4. Kantoikoa
5. Zabalonea
6. Frantziskogarronea
7. Arrolanea
8. Arabaolatzanea
9. Santxoneaundi
10. Santxoetxe
11. Aberasturinea
12. Eskribaukoa
13. Etxagorri
14. Urmenetanea



IRUBIDEKO ETXEA 1 Casa de IRUBIDE



Irubideko etxea (Maritxu Alberdik emana).

[eu]

Baratzeak zeuden leku batean eraiki zen etxe hau 1932an. Isidra Guridi Zabaletak (1864) altxarazi zuen. Bikuña aldeko Lazkanotegiberrin jaioa zen eta Plazaola baserriko Silvestre Elorza Plazaola okinarekin zegoen ezkonduta 1890az geroztik. Senarra bi urte gazteagoa zen. Lehenbizi Beatakoan bizi izan ziren, eta denda zeukaten Araotzeneaundin. Etxe hauxe, Araotzeneaundi, erosten saiatu ziren eta, saltzen ez zietenez, aldameneko baratze-sail batean altxa zuten etxe berri hau.

Esan bezala, etxea egindako tokian baratze batzuk zeuden lehen; zehazkiago esanda, Makibartar anaiarreben baratzea eta Andreseneko Doroteo Etxeberriarena. Jose Luis Ugarte ikerlariaren arabera, dirua lortzeko, aurrena familiaren harategia saldu zuten, zeina Beatakoan baitzegoen, alegia, gero Nicasio Lasak bere harategia eduki zuen lekuan. Lehenbizi gaztainondo batzuk bota omen zituzten Bidezar (Kamiñu Erreal) aldean, baina orduan jakin zuten arkitekto batzuk hormigoi armatua erabiltzen hasiak zirela, adibidez Luis Maria Astiazaranek, gero etxea egingo zuena, eta material horretaz baliatzea erabaki zuten. Legazpin aitzindariak izan ziren.

Silvestre eta Isidraren seme-alabak: Isidro, Pedro, Crescencia, Eugenio eta Juan. Zaharrena, Isidro, 1893an jaioa, jesuita izan zen. Juan, gazteena, 1938an hil zen, gerrako frontean, Levanteko frontean hain zuzen ere. EAJren Loiola eta Aralar batailoietan jardun zuen aurrena, kapitain izatera iritsi eta preso hartu zutenean heriotza-zigorra jaso. Orduan, 1937an, harenganako errukia eskatu zioten Francori bai udal berriak bai herriko Falange Española Tradicionalista y de las JONSek berak. Baina azkenean presoen trukaketa batean aske gelditu zen, eta orduan berriro ekin zion borrokari. Herrian ajustadore izana zen eta 'Laka' esan ohi zioten, Athleticeko futbolari horren zale zelako.

Eugenio ere EAJko militante izan zen bigarren Errepublika garaian eta zinegotzi ere bai. Papelerako gerente ere izan zen. Fabrika horretan goi karguak izan zituen gerra aurretik ere. Hango nagusia, Patricio Elorza, nahiko gazterik hil zen, 1930ean, eta or-

[es]

Esta casa se edificó en 1932, promovida por Isidra Guridi Zabaleta (1862). Esta mujer había nacido en Lazkanotegiberri, de la zona de Bikuñanea y estaba casada, desde 1890, con Silvestre Elorza Plazaola, del caserío Plazaola y panadero de profesión. El marido era dos años más joven y no sabemos durante cuanto tiempo ejerció ese oficio. Al comienzo vivieron en la casa Beatakoa, y tenían tienda ahí cerca, en Araotzeneaundi. Intentaron comprar Araotzeneaundi, y al no conseguirlo, optaron por edificar en la zona cercana de huertas.

Tal como se ha dicho, la casa se erigió en una zona de huertas, que pertenecían a los hermanos Makibar y a Doroteo Etxeberria, de Andresenea. Según la investigación de José Luis Ugarte, para lograr financiación, la familia vendió la carnicería que poseía en la casa Beatakoa, en el lugar en el que luego Nicasio ejerció de carnicero. Primeramente se talaron unos castaños en la zona del Camino Real, pero enseguida supieron de la existencia de un nuevo material, el hormigón armado, que ya lo estaban utilizando algunos arquitectos, como por ejemplo Luis María Astiazaran, que luego sería el arquitecto encargado de la obra. Esta fue la primera casa de Legazpi levantada con este material novedoso.

Los hijos de Isidra y Silvestre fueron Isidro, Pedro, Crescencia ('Krexen'), Eugenio y Juan. Este último murió en 1938 en el frente de batalla de Levante. Primeramente combatió en los batallones Loyola y Aralar del PNV, fue nombrado capitán y al ser capturado en el frente del Norte fue condenado a muerte. Entonces, en 1937, tanto la nueva corporación municipal como la misma Falange de la localidad pidió clemencia a Franco. Quedó libre, debido a un canje de prisioneros, y entonces decidió seguir batallando. En el pueblo había trabajado como ajustador y se le conocía con el mote de 'Laka', porque era hincha de ese futbolista del Athletic.

Eugenio fue también militante del PNV, y concejal en los años de la República. Antes de que los nacionales tomaran el pueblo, huyó a Iparralde y allí, durante no mucho tiempo, formó parte de la corpora-



Prozesioa.



Batzokiaren inaugurazioa 1932an (Lucio Vergara).



Estanislao Gisasola, teila-fabrikako "eskribientea".

[eu] duan haren seme-alaben testaferro geratu zen Eugenio, gazte haien babesle ere izan zelarik.

Krexen (Crescencia) oso ezaguna izan zen herrian, ia bizi guztia eman baitzuen lanean familiaren burdindegian, etxe honetan bertan. Laurogeitaka urterekin utzi zion lanari eta denda 1989-1990ean itxi zen. Gero elikagai izoztuen denda egon zen bertan. Burdindegiari 'Isidranea' deitzen zion jendeak eta bi sarrera zituen, Kale Zaharretik nahiz Berritik. Era askotako gauzak saltzen ziren han, ez bakarrik etxerakoak; adibidez, Papeleran egiten ziren feltrozko diskoak ere egoten ziren salgai.

Anaia Pedro, berriz, harakina izan zen, harategia Beatakoan eduki zuelarik, gero Nicasio Lasak berea eduki zuen leku berean. 1920an agertzen da harakin moduan, eta baita 1930ean ere. Baina arotza ere izan zen, eta burdindegiko kajoi txiki pila haiek berak eginak ziren. Ez zen ezkondu eta erretzaile porrokatua genuen.

Etxe honetan, beheko solairuan, Irubide izeneko taberna egon zen, etxea egin eta handik gutxira hasi zena. Nagusiak elorzatarrak ziren (Crescencia, Pedro, Eugenio…) eta Erraizabal baserriko arangurendar anaiak izan ziren bertako lehen kudeatzaileak: Daniel

[es] ción municipal en el exilio. Regresó, fue denunciado y acabó preso en la cárcel de Ondarreta. Fue alto cargo de la Papelera, tanto antes como después de la guerra. El propietario de la factoría, Patricio Elorza, falleció en 1930, siendo relativamente joven, y Eugenio ejerció como testaferro y hombre protector de los hijos.

Krexen (Crescencia) fue muy conocida en el pueblo, dado que pasó casi toda su vida en la ferretería propiedad de la familia. Tenía más de 80 años cuando dejó el trabajo, y la tienda se cerró en 1989-1990. Luego pusieron allí una tienda de productos congelados. A la ferretería se le conocía con el nombre de 'Casa Isidra'. Tenía dos entradas, tanto desde la Calle Vieja como la Calle Nueva. Se vendía de todo, y no solamente artículos para los hogares; por ejemplo, también discos de fieltro fabricados en la Papelera.

Otro hermano de Eugenio y Crescencia fue Pedro. Era carnicero y tuvo su establecimiento en la casa Beatakoa, en el mismo lugar que luego albergó la carnicería de Nicasio Lasa. En los documentos del Ayuntamiento, Pedro aparece como carnicero tanto en 1920 como en 1930. Pero también fue carpintero, y por ejemplo fue el autor de los abundantes cajones pequeños que se podían ver en las paredes de la ferre-



Abel Ertzilla, ama Juanita Etxeberriarekin (Juli Ertzillak emana).



Anttoni Larrañaga (Eugenio Elorzaren emaztea) (ezk) eta ezezaguna (Tere Murgiondok emana).



Abel Ertzilla eta emazte Blanca Lezea. Gurasoak, Juanita Etxeberria eta Pedro Ertzilla, eta arreba Juli (Juli Ertzillak emana).

[eu] (1905), 1931-33 epean alkate izandakoa eta Legazpiko EAJko kide nabarmena, Inozentzio (1907) eta Maria (1910). Baina 1936an, frankistak nagusitzean, Danielek ihes egin behar zuen (aurrena Ipar Euskal Herrira, gero Kubara).

1932ko azarotik aurrera, tabernaren gainean, lehenbiziko solairuan, EAJren Euzko Batzokia egon zen. Aurretik, Euzkaltzaleak izeneko elkartean biltzen ziren nazionalistak, horren egoitza egungo Aizkorri kalean zegoelarik, 'Bikuña' taberna ondoko areto batean. 1936an, Francoren aldekoak herriaren jabe egin zirenean, Falangearen egoitza soziala jarri zuten

[es] tería familiar. Era muy fumador y permaneció soltero. El mayor de los hermanos, Isidro, nacido en 1893, se hizo jesuita.

En la planta baja estuvo el bar-restaurante Irubide, propiedad de los Elorza (Crescencia, Pedro, Eugenio…). Primeramente fue simplemente bar y echó a andar al poco de construirse la casa, regentado por los hermanos Aranguren, del caserío Erraizabal: Daniel (1905), quien fue alcalde por el PNV en unos años de la República, el periodo 1931-1933, Inocencio (1907) y María (1910). Pero al entrar los nacionales en 1936, Daniel debió huir, primero a Iparralde y luego a Cuba.



Crescencia Elorza (ezk)
(Tere Murgiondok emana).



Feliciano Etxaniz abadea, Tere Murgiondo eta Jose Mª Garitaonandiaren ezkontzan
(Tere Murgiondok emana).



Tere Murgiondoren ezkontzan, Benita Gisasola amaginarreba eta Krexen Elorza ama
(Tere Murgiondok emana).

[eu] batzokia izandako tokian, Círculo Juan Sebastián Elcano zeritzana. 1974an berreskuratu ahal izan zuten Elorza-Guriditarrek solairu hori.

1939an, Zegamatik etorritako familia batek hartu zuen beheko solairuko Irubide taberna, eta gainera jatetxea sortu bertan: Calixto Etxeberria zegamarra, emazte Leona Otaola (Laudion jaioa), alaba Martxeli eta bi neskame, Iñaxi eta Manoli. Gero, 1943an, Juli Ertzilla batu zitzaien, hau berriz Calixto eta Leonaren biloba (Juanita Etxeberriaren alaba), orduantxe Legazpira etorria gurasoekin batera. Ondo ari zen Irubideko taberna-jatetxea eta hainbat ospakizun izaten zen bertan. 1963ko uztailaren 28an itxi zuen atea betiko, batik bat nekeagatik. Itxi eta handik hilabete gutxira, Martxeli Etxeberria ezkondu egin zen legazpiar oso-oso ezagun batekin, Zoilo Aldasoro, Patrizioren lantegiko pertsonal-burua.

Bigarren solairuan, eraikinaren jabe ziren bi familia bizi ziren; batetik, Eugenio Elorza eta emazte Anttoni Larrañaga Azpiazu (elkar ezagututakoak Ondarretako kartzelan, seme-alabarik eduki ez zutelarik); bestetik, Krexen eta senar Joxe Murgiondo alaba Teresarekin. Joxe, berriz, Mutiloan jaioa zen, kami-

[es] Encima del bar, en el primer piso, en los años de la República, a partir de noviembre de 1932, estuvo el batzoki del PNV. Antes, los nacionalistas tenían otra asociación, Euzkaltzaleak, que tenía su sede en un bar anexo al bar Bikuña, en la actual calle Aizkorri. Al entrar los nacionales, en septiembre del 36, este batzoki de Irubide fue incautado y se convirtió en sede de la Falange, el llamado Círculo Juan Sebastián Elcano. Los Elorza-Guridi pudieron recuperar el local en 1974.

En 1939, la planta baja volvió a ser bar-restaurante, regentado por unas gentes recién llegadas de Zegama: Calixto Etxeberria, su esposa Leona Otaola, la hija Martxeli y dos criadas, Iñaxi y Manoli. En 1943 comenzó a trabajar también Juli Ercilla, nieta de Calixto e hija de Juanita Etxeberria. El establecimiento tuvo muy buena acogida y fue escenario de numerosas celebraciones. Se cerró el 28 de julio de 1963, debido al cansancio de quienes lo regentaban. Y ese mismo año, a los pocos meses, Martxeli Etxeberria se casó con una persona muy conocida en el pueblo, Zoilo Aldasoro, el jefe de personal de la fábrica de Patricio.

En el segundo piso vivieron dos familias, que eran propietarias del edificio: por un lado Eugenio Elorza con



Tomas Aseginolaza (Otsategi), Agapito Agirrezabal (Plazaolaerrota), Plazido Elorza Plazaola (Plazaola), Eugenio Elorza Guridi (Irubide) (Lucio Vergara) (Juan Luis Aseginolazak emana).



Kale aldeko gizonak Kapela-dantza egunean, maiatzaren 4an. Zutik, 'Errexil', Plaxido Elorza, Tomas Aseginolaza, Inazio Elorza (seguru asko), Tomas Etxeberria, Juanito Aseginolaza, Serapio Lizarazu, Errotaritxoko bat, Segundo Ugarte. Behean, Plazaolako Agapito Agirrezabal, Bikuñaaundiko Jose Mª Gabiria, Olaberriko Arizti (akaso) eta Demetrio 'Bildotsola'
(Socorro Aseginolazak emana).



Patrizionean tornuan lanean ari ziren lagunen bilera 1950eko hamarkadan. Beheko ilaran, ezker-eskuin, Paco Zabaleta, Joxe Etxeberria (Andresenekoa), Angel Portilla, Iñaki Lazkanoiturburu, Pedro 'Pedrolas' Maiztegi, Esteban Alzelai, Luis Ulanga eta Teodoro Apaolaza. Bigarrengoan, Fermin Azpeitia, Periko Intxausti, ezezaguna, Ramon Lasa, ezezaguna, Miguel Gurrutxaga eta Angel Agirrezabal. Hirugarrengoan, Herguedas (beasaindarra), Juanito Aztiria, Alejandro Marañon, Segundo Ugarte, Alvaro Marañon, Julio Agirreurreta 'Arretxe', Paco Urzelai eta Santi Gabiria. Goian, Campos (ormaiztegiarra) (?) eta Jose Ramon Ibeas (?) (Rakel Etxeberriak emana).

[eu] nero lanean jardun zen eta Urretxuko kaminero-etxean bizi; gainera, alaba han jaio zitzaien.

Errepublika garaian, hirugarrengo solairuan, Estanis Gisasola bizi izan zen, orduan gizon esanguratsua Legazpiko EAJn. Mallabian jaioa zen, Artamendi baserrian, eta Jesus Seguraren teilerian jardun zen lanean. Gainera, zenbait marka eta enpresaren merkataritza-agente ere izan zen. Urretxuko Primi Berriotxoarekin ezkondu eta lehenengo bi alabak (Garbiñe eta Eguzkiñe) Legazpiko etxe honetan jaio ziren; Iñaki, berriz, Urretxun.

Estanis eta Eugenio Elorza, biak EAJko kide, oso lagunak izan ziren. Garbiñeren aitapontekoa, bataiokoan, Eugenio izan zen.

[es] su esposa Anttoni Larrañaga Azpiazu (que se habían conocido en la cárcel de Ondarreta y no tuvieron hijos); y además, Krexen Elorza y su marido Joxe Murgiondo con su hija Teresa. Joxe había nacido en Mutiloa, trabajó como caminero y había vivido previamente en Urretxu, en la casa de la Diputación destinada a esos operarios; y fue precisamente en esa casa donde nació la hija Teresa, quien falleció en 2024.

En los años de la República, a comienzos de los 30, en el tercer piso vivió Estanis Gisasola, hombre influyente en el PNV local. Era nacido en el caserío Artamendi de Mallabia, y trabajó en la tejería propiedad de Jesús Segura. También fue representante comercial de varias marcas y empresas. Se casó con Primi Berriotxoa, de Urretxu, y las dos primeras hijas, Garbiñe y Eguzkiñe, nacieron en esta casa; el hijo Iñaki, en Urretxu.



Patrizioneko almazeneko langileak. Andreseneko jangelan, eta zutik dagoena bertako Mª Jesus Etxeberria. Ezker-eskuin, Simona Etxeberria (Andresenekoa), Mari Tere Ugarte, Paquita Maiz, ezezaguna, Martina Alzelai (Abalosen alarguna), Mendia (bixkietako bat), Josefina Ikutza, Josefa Murua eta alaba Mari Carmen Murua (Etxe-Alaikoak), Miren Inza, Mari Cruz Plazaola eta Pilartxo Alzelai (Rakel Etxeberriak emana).

[eu] 1936ko gerra hasi eta Estanis Bilbora joan zen, Eusko Jaurlaritzako diruzain modura jarduteko. Gero, itsasoz, ihes egin zuen Iparraldera, eta azkenean bueltatzea erabaki. Hiru urte egin zituen Ondarretako kartzelan, heriotza zigorra hiru bider izan zuelarik. Kartzelatik irten ostean, familia osoa Iruñera joan zen, eta gero Eibarrera.

1960ko hamarkadan, Estanisen lehengusina baten semea, Jose Mari Garitaonaindia berriztarra, Krexen Elorzaren alaba Teresarekin ezkondu zen. Hiru seme-alaba izan zituzten: Idoia, Aitor eta Iñaki.

Geroago, goi-goiko solairu horretan, Pedro Ertzilla (sifoiak egiten zituena), emazte Juanita Etxeberria eta seme-alabak bizi izan ziren. Seme Abel hasi zen gero sifoiak egiten, eta alaba Juli Irubide jatetxean aritu zen luzaroan. Gainera, solairu horretan abade bat bizi zen, Feliciano Etxaniz, zeinak Teresa Murgiondo ezkondu baitzuen. Apaiz hau, zigortu nahian bidali zuten Legazpira eliz agintariek, nazionalista euskaltzalea zelako. Ignacio Arbidek, 'Txinpartak' aldizkarian, kontatu zuen nola Felicianok egin zion aurre maistra falangista bati, zeinak neskatila-abesbatza baitzeukan prestatuta elizkizunetan jarduteko. Feliciano maistra harengana joan zen, eta denen aurrean, esan zion paretik kentzeko, "elizaren barruan bera ez zelako inor, eta han apaizak agintzen zuelako". ❖

[es] Estanis y Eugenio Elorza, ambos del PNV, tuvieron una estrecha relación. Este último fue padrino en el bautizo de Garbiñe.

Comenzó la guerra del 36 y Estanis marchó a Bilbao para trabajar como tesorero en el Gobierno Vasco. Luego huyó a Iparralde por mar, y al regresar estuvo preso durante tres años en la cárcel de Ondarreta, con tres condenas de muerte a sus espaldas. Al salir del penal, la familia se marchó a Pamplona, y más tarde a Eibar.

En la década de 1960, la hija de Krexen Elorza, Teresa Murgiondo, se casó precisamente con un hijo de una prima de Estanis, José Mari Garitaonaindia. Tuvieron tres hijos: Idoia, Aitor e Iñaki.

También en la última planta se situó la vivienda de Pedro Ercilla (fabricante de sifones), su esposa Juanita Etxeberria y sus hijos. El hijo Abel trabajaría luego también en el negocio de los sifones, y la hija Juli en el bar-restaurante Irubide, como se ha dicho. Además, en ese último piso vivía Feliciano Etxaniz, el cura que casó a Teresa Murgiondo Elorza, que se hallaba en Legazpi apartado por las autoridades eclesiásticas debido a su ideología nacionalista vasca. Ignacio Arbide contó en un artículo de la revista Txinpartak cómo Etxaniz se enfrentó, dentro del templo parroquial, a una maestra que era la jefa local de la Falange y formaba a un coro de niñas cantoras. Le impidió que las niñas cantaran las canciones de su gusto porque "dentro de la iglesia ella no era nadie y mandaba él". ❖



ARAOTZENEAUNDI (Lasanea, Isidranea, Galegoen etxea) 2 ARAOTZENEAUNDI (Lasanea, Isidranea, casa de los Gallegos)



Araotzenea ezkerraldean (Ignacio Agirre, Burdinola Elkartea, 5-5).



Araotzeneaundi etxea, irudiaren erdian, bost leiho ikusten direla. Haren barrenean Latxartegi baserria, leiho zuri batekin (Ignacio Agirreren argazki orokor batetik aterata).

[eu]

Bai eraikin hau, bai aldamenekoa (Araotzenetxiki), egoera nahiko txarrean zeuden hogeigarren mende hasieran, eta 1953an bota egin zituzten. Bi eraikinok utzitako tokian Kale Nagusiko seigarren atariko etxea altxatu zuten.

Jose Luis Ugarte ikerlariak batutako datuen arabera, 1775ean nagusiak Phelipe de Aguirre eta María Asensio de Texeria ziren. Eta 1832an, José María de Aguirre, zeina Murugarako jabe ere bazen, hortxe bizi zelarik.

1857an, etxe honetan Josefa Antonia Agirre Uzelai bizi zen, ogibidez nekazaria, eta Sebastián Mujika Olainetarekin ezkondua, orduan hiru seme-alaba zituztelarik: Santos, Claudia eta Demetrio, 9, 5 eta 2 urtekoak. 1894an, Jose Antonio Lasa Galarza (zapataria) eta Martina Guridi Iraburrondo (1872an ezkonduak) bizi ziren.

Geroxeago, 1910, hiru senide bizi ziren, Pio, Bonifacia eta Francisco Mª Lasa Agirre, gurasorik gabe gelditutakoak; izeba batekin bizi ere, Mª Andresa Lasa Andueza. Pio saskigile ari zen, Bonifacia etxeko lanetan eta Francisco Mª, berriz, "escribiente de la fábrica de cartón" genuen. Horregatixe, etxeari Lasanea deitzen zioten hogeigarren mende hasieran.

1936 gerra aurretik, Isidranea esaten zion jendeak, izan ere bertan Isidra Guridi Zabaletak (1862) denda eduki zuen, arrasto sakona utzitako emakumea. 1890ean, Plazaola baserriko Silvestre Elorza Plazaolarekin (1864) ezkondu zen, eta hasieran Lazkanotegiberri etxean bizitzen jarri, Bikuña aldean; gero Beatakora aldatu ziren.

Kale Zaharreko eraikin honetan denda eduki zuen Isidrak, janari-denda eta burdindegia. Baita ere, harategia zeukaten Beatakoan, non gero Nicasio Lasak ere berea eduki baitzuen. Harategi horretan, Isidraren semeeetako bat jarduten zen, Pedro Elorza, eta baserriz baserri ere ibiltzen zen txerri-hiltzen eta. Olaberriko Antonio Azurmendik (1943) esan digunez, adarjotzaile zen: "Gu ume ginela, etortzen zi-

[es]

Tanto este edificio, como el contiguo, Araotzenetxiki, se hallaban al entrar el siglo XX en un estado deficiente y fueron demolidos hacia el año 1953. En el solar conjunto de las dos edificaciones se levantó la casa número 6 de la Kale Nagusia.

Según los datos recopilados por el investigador José Luis Ugarte, en 1775 los dueños de Araotzeneaundi eran Phelipe de Aguirre y María Asensio de Texeria. En 1832, el propietario era José María de Aguirre, que también poseía Murugarakoa y residía allá. En 1857, en esta casa vivía Josefa Antonia Agirre Uzelai, de profesión labradora, casada con Sebastián Mujika Olaineta y entonces con tres hijos, Santos, Claudia, Demetrio, de 9, 5 y 2 años. En 1894, vivían los esposos José Antonio Lasa Galarza (zapatero) y Martina Guridi Iraburrondo, casados en 1872. Algo más tarde, en 1910, residían aquí varios hijos huérfanos (Pío, Bonifacia y Francisco) de Francisco María Lasa Andueza y Felipa Luisa Agirre Agirre. Estos tres hermanos vivían con una tía llamada Mª Andresa Lasa Andueza, y Pío aparece como cestero, Bonifacia como encargada de las tareas de la casa y Francisco María como "escribiente de la fábrica de cartón". De ahí que a comienzos del siglo XX a esta casa se le denominara Lasanea.

Luego, antes de la guerra del 36, a este edificio se le llamó popularmente Isidranea, porque tuvo tienda Isidra Guridi Zabaleta (1862). Fue una mujer que dejó huella. Se casó en 1890 con Silvestre Elorza Plazaola (1864), del caserío Plazaola, y primero vivieron en la casa Lazkanotegiberri, de la zona de Bikuñanea. En este edificio de la Calle Vieja tuvo tienda de comestibles y ferretería. Vivieron también en Beatakoa, y allí tuvieron carnicería, donde luego Nicasio Lasa tendría la suya. Estaba al cargo de la misma uno de los hijos de Isidra, Pedro Elorza. Solía pasar por las casas y caseríos para matar el cerdo. Antonio Azurmendi (1943), de Olaberria, recuerda que era bromista: "Se nos acercaba, abría la mano y nos mostraba un ojo de cerdo, diciendo: ¡mirad qué reloj!"



Filomena Silva eta Victorino Salgado (Marivi Salgadok emana).



Salgadotarrak. Zutik, Victorino, Araceli, Juanito, Victorino aita, Filomena Silva, Maruja, Conchita. Txikiak, Trini, Tino. Eserita, Daniel, Joaquin (Marivi Salgadok emana).



Juan Elorza "Laka" ezkerretik bigarrena, gerra garaian.

[eu] tzaigun ondora, zabaldu eskua eta txerri-begia erakusten. Begira zer erlojua!, esaten zigun".

Isidra Guridi nahiko gazterik gelditu zen alargun. Seme nagusia, Isidro, 1893an jaioa, jesuita izan zen. Bigarrena, Pedro, esan bezala harakin izan zen, eta baita arotza ere, eta berak egin zituen familiaren geroagoko burdindegi handi hartan, generoa sailkatzeko, zeuden kaxoi haiek. Beste seme batek, Eugeniok, 1930eko hamarkada hasieran EAJko zinegotzi jardun zuen eta gero, frankistek ezarritako kartzelaldia bukatutakoan, Papelerako zutabeetako

[es] Isidra Guridi enviudó joven. Su hijo mayor, Isidro, nacido en 1893, se hizo jesuita. Pedro, el segundo, que permaneció soltero, ejerció de carnicero pero también era carpintero, y fabricó aquella multitud de cajones pequeños que se veían en la pared de la ferretería familiar. Eugenio destacó como concejal por el PNV en los primeros años 30, y luego, tras pasar por la cárcel franquista, acabó siendo uno de los pilares de la Papelera, como jefe de la oficina. Crescencia (Krexen), se casó con Joxe Murgiondo y regentó la ferretería de la familia. Y el hijo menor, Juan

[eu] bat izan zen, bulegoko arduradun nagusia hain zuzen ere. Crescencia (Krexen), berriz, Joxe Murgiondorekin ezkondu eta burdindegia gobernatu zuen. Seme txikia, Juan (1908-38) 1936ko gerran hil zen, Ebroko frontean. Gudarien kapitaina zen, preso hartu zuten eta, nazionalen ofizial batekin trukatu ostean, berriz ere Errepublikaren alde borrokatzera joan zen.

1930ean, Luis Astiazaran arkitektoak egindako mapa baten arabera Araotzene biak, Aundi eta Txiki, Leon Urmenetarenak ziren. Gizon hau Murugarakoan bizi zen eta urte hartantxe hil. Bai bera bai senideak semealabarik eduki gabe hil zirenez, azkenean Kale Zaharreko ondasunak 'Muruko amerikanoak' (Juan Manuel Ibargurenek) eskuratu zituen.

Leon Urmenetaren ama Bernarda Agirre genuen, eta hain zuzen ere agirretarren leinu hori izan zen denbora askoan Murugarako jabe, eta, itxura denez, baita kaleko bi Araotzenekoa ere.

Isidra Guridi saiatu zen Araotzeneaundi erosten eta, lortu ez zuenez, azkenean aldameneko lur-sail bat inguratu zuen, eta bertan Irubideko etxea eraiki. Dirua edukitzeko, Beatakoan zeukaten harategia saldu egin zuten.

Salgadotarren ailegaera

Araotzeneaundi, 1930. hamarkada bukaeran, elorzatarrek elde egin eta gero, 'Casa de los gallegos' bihurtu zen. 1938an ailegatu zen Legazpira Victorino Salgado, eta aurrena osaba-izeba batzuen (fariña-silvatarrak) etxean jarri ziren, Kale Zaharreko Gasparrenean. Hurrengo urtean, Victorinok emaztea (Filomena Silva) eta bederatzi seme-alabak ekarri zituen, eta Araotzeneaundin etxea hartu.

Galiziarrok Ourenseko Baños de Molgas-tik etorri ziren, seme-alaba sorta galantarekin: José Luis, Agueda, Dani, Victorino, Joaquín, Maruja, Araceli, Juanito

(1908-38) murió en la guerra, en el frente del Ebro. [es] Era capitán de gudaris, cayó preso, pero tras ser canjeado por algún oficial nacional, volvió al ejército republicano.

En 1930, según un mapa de elaborado por el arquitecto Luis Astiazaran en el que propone al Ayuntamiento el emplazamiento de lo que luego sería la Calle Nueva, las dos casas Araotzenea, Aundi y Txiki, pertenecían a León Urmeneta, que vivía en el caserío Murugarakoa y fallecería ese mismo año. Tanto él como sus hermanos murieron sin descendencia, sus propiedades fueron adquiridas por Juan Manuel Ibarguren, 'el americano de Lakiola', y sabemos que al menos Araotzenetxiki sí pasó a manos del 'americano'.

León Urmeneta era hijo de Bernarda Agirre, y ese linaje de los Agirre fue el propietario de Murugarakoa durante siglos, y al parecer de los dos Araotzenea también durante bastante tiempo.

Isidra Guridi quería adquirir Araotzeneaundi, y al no conseguirlo, compró un terreno adyacente, que estaba ocupado por huertas, y edificó la casa Irubide. Para ello, vendieron el local de la carnicería de la casa Beatakoa.

Llegan los Salgado

Araotzeneaundi, a fines de la década de 1930, ya con los Elorza fuera, se convirtió en la "Casa de los gallegos". Victorino Salgado llegó a Legazpi en 1938, y primero se alojó en la casa de unos tíos, los Fariña-Silva, en la llamada casa de Gaspar Alustiza, de la Calle Vieja. Al año siguiente, se trajo a su mujer, Filomena Silva y sus nueve hijos, y la familia se instaló en esta casa de Araotzeneaundi, en el primer piso. Este matrimonio había llegado de Baños de Molgas (Ourense), con muchos hijos (José Luis, Águeda, Dani, Victorino, Joaquín, Maruja, Araceli, Juanito y Conchita) y una vez en este pueblo tuvieron otras dos

[eu] eta Conchita. Legazpin beste bi haur jaio ziren, Constantino y Trini.

Kontua da Legazpitik baten bat joan zela Galiziara langile bila, Patrizio Etxeberriak bere trenbide propioa egin nahi zuelako Zumarragako tren-geltokiraino. Victorinok ezagutzen zuen ogibide hori, lanean jarduna zelako Ourense-Vigo trenbidearen eraikuntzan edo mantentze-lanetan. Lehenbizi, familia honek, Basaberen denda gainean hartu zuen ostatu, baina han denbora gutxi egin zuen. Segituan aldatu zen etxe honetara, zeina Eugenio Elorza eta Juanito Etxeberria harakinarena baitzen.

Lehenengo solairuko etxebizitza horretan, senaremazteak eta hamaika seme-alaba bizi izan ziren; gela bakoitzean lau ume. Baina etxea nahiko handia zen eta Galiziatik Victorinorekin batera etorritako beste batzuk ere bizi izan ziren bertan. Besteok, Patrizioren trenbideko lanak amaitutakoan alde egin zuten. Goiko pisuan, berriz, Zalduendo abizeneko gizon baten familia bizi izan zen, eta haren seme Jesusi (1942-2023) 'Pilis' esaten zioten, izan ere 'Phillips' transistore eta telebista markaren saltzaile izan zen.

Victorinok, trenbideko langileen kapataz jardun zuen. Lan hura bukatutakoan, San Ignazio auzoko etxeak eraikitzen eman zituen beste urte batzuk.

Araotzeneaundi eta Araotzenetxikiko azken jabeak, oker ez bagaude, Eugenio Elorza Guridi eta Juanito Etxeberria izan ziren. Bata Isidra sonatuaren semea zen, EAJko zinegotzi Errepublika garaian eta horregatik Ondarretako presondegia ezagututakoa, handik bueltan Papelerako bulegoko arduradun bilakatu zelarik.

Juanito Etxeberria, berriz, Mutiloako herritik etorritako familia bateko kide zen. Gurasoek taberna eduki zuten etxean, Olamuñon, meategi ondoan baitzegoen. Olamuñoko Kantiña esan ohi zioten. Aita, Jose Lucio Etxeberria Aranburu (1877-1954), Legazpiko Makatzagaetxeberrin jaioa zen, eta atzera Legazpira bueltatutakoan Elizondo taberna hartu.

[es] criaturas, Constantino y Trini. Los propietarios eran dos hombres que en en la guerra del 36 se posicionaron frente a Franco y sufrieron cárcel: Eugenio Elorza, directivo de la Papelera, y el carnicero Juanito Etxeberria. Eugenio era, hijo de Isidra Guridi, ya había vivido en este edificio en su infancia.

Ocurrió que una persona de Legazpi fue a Galicia en busca de obreros para la construcción del tren privado de Patricio Etxeberria entre su factoría y la estación de ferrocarril de Zumarraga. Victorino ya conocía ese oficio, dado que había participado en las obras y mantenimiento de la línea Ourense-Vigo.

En el primer piso de esta casa vivieron el matrimonio y sus once hijos; cuatro en cada habitación. Victorino trabajó como capataz de los obreros de la línea férrea. Al finalizar esa obra pasó otros años trabajando en la construcción del barrio San Ignacio.


Los Salgado-Silva vivieron en el primer piso, pero el edificio era amplio y dio cobijo a otros gallegos llegados junto con Victorino y Filomena. Estas otras gentes se volvieron a su tierra al acabar la obra de la vía férrea. En el segundo piso vivió la familia de un hombre de apellido Zalduendo, a cuyo hijo Jesús (1942-2023) luego apodaron 'Pilis', porque fue representante de la casa de televisores y transistores 'Phillips'.

Hablemos de los dueños de estas casas. Eugenio Elorza Guridi, hijo de Isidra, fue concejal por el PNV en los años 30 de la República y en 1936-37 encarcelado por los franquistas en el penal de Ondarreta. Luego regresó a su trabajo como directivo en la Papelera.

Por su parte, Juanito Etxeberria era hijo de un matrimonio llegado desde Mutiloa, quienes tuvieron taberna al lado de la zona minera: Olamuñoko Kantiña. El padre, José Lucio Etxeberria Aramburu (1877-1954) había nacido en el caserío Makatzagaetxeberri de Legazpi, y al volver a su pueblo natal regentó la taberna Elizondo.



Eugenio Elorza (J.L.U.).



Eugenio Elorzaren kartzela-agiria (Tere Murgiondok emana).



Juanito Etxeberria eta emazte Carmen Murua.

[eu] Juanitok, harakintza ikasi eta lehenbizi Zumarragako kooperatiba batean egin zuen lan, zeina Bravoren burdindegi ezagunaren ondoan baitzegoen. Bertan ari zen Carmen Murua ere, hau berriz Zumarragan jaioa. Elkarrekin hasi eta 1932an ezkondu ziren. Orduan harategia ipini zuten Legazpiko Kale Berrian, Ibargutxi Kirolak egon izan den tokian.

1936ko gerrakoan, Juanito EAJko gudariekin borrokatu zen. Hurrengo urtean, Gernikan zen eta bonbardaketaren lekuko izatea egokitu. Presondegi eta kontzentrazio-zelaiak ezagutu zituen. Herrira itzuli eta bi alaba izan zituzten: Carmen (1941) eta Mariló (1945).

Hona Juanito Etxeberriaren senideak: Emilia (Errepublika garaian alkate izandako Daniel Aranguren-ekin ezkondua, 1936ko gerrakoan Kubara egin zuten alde, eta hantxe hil, 1980ko hamarkadan); Joaquin; Lucas (hau ere harakina, Zestoan hil zelarik 33 urte zituela); eta Mariatxo (Txomin Zubeldia edari-banatzailearekin ezkondu eta 2015ean hila).

1953. urte aldera bota egin zuten etxe hau, eta nagusiek, Eugenio Elorza eta Juanito Etxeberriak, etxe berria eraiki, horko hiru bizitza Papelerari saldu zitzaizkielarik. ❖

[es] Juanito aprendió el oficio de carnicero y primeramente trabajó en una cooperativa de Zumarraga, situada al lado de la famosa ferretería de Bravo. Allí trabajaba también Carmen Murua, nacida en el mismo Zumarraga. Se hicieron novios y se casaron en 1932. Entonces se instalaron en Legazpi y abrieron carnicería propia en la Calle Nueva, en el sitio que luego albergaría Ibargutxi Kirolak.

Al comienzo de la guerra del 36, Juanito se alistó en un batallón del PNV y batalló en el frente. Al año siguiente se encontraba en Gernika y fue testigo directo del bombardeo. Tras ser hecho prisionero, conoció cárceles y campos de concentración. Volvió al pueblo y la familia tuvo dos hijas: Carmen (1941) y Mariló (1945).

Estos fueron los hermanos de Juanito: Emilia (casada con Daniel Aranguren, alcalde de Legazpi en la República, vivieron desde 1936 exiliados en Cuba y allí fallecieron en los 80); Joaquín; Lucas (también carnicero, murió en Zestoa a los 33 años); y Mariatxo (casada con el distribuidor de bebidas Txomin Zubeldia, fallecida en 2015).

A mediados de los 50 se derruyó el edificio, y los dueños, Eugenio Elorza y Juanito Etxeberria, levantaron una casa nueva. Tres de los domicilios fueron vendidos a la Papelera. ❖



ARAOTZENETXIKI (Panaderie, Santanderinoen etxea) 3 ARAOTZENETXIKI (Panadería, Casa de los santanderinos)



Araotzenetxiki, gezi batez .
(Foto Marin, 1943 - Kutxateka).

[eu]

Araotzeneaundi eta Araotzenetxiki elkarren kontra zeuden, eta bigarren honen aldametik kanposantura zihoan bidea pasatzen zen. Zor zen bidea izanik, gero metro horiek 'Sarasolako pasadizoa' bihurtu ziren. Parrokia aldera, eraikin honen aldamenean Araotzeneaundi zegoen. Badirudi batera bota zirela, 1953. urtetsuan. Segituan, bi orube horietan Kale Nagusiko 6garren atariko etxea eraiki zuten.

Jose Luis Ugarte ikerlariaren arabera, etxe honek, 1775ean, 'Araozenea la nueva' zuen izena; nagusiak, berriz, Phelipe de Aguirre eta María Asensio de Texeria. 1832an, jabea Francisco Maria Agirre zen, zeina Murugarakoan bizi baitzen, baserri hori ere berea zuelarik.

1857an, Araotzenetxikin, Pedro Oiarbide bizi zen, 66 urteko mandazaina, eta oiarbide-plazaolatar batzuk ere bai. Gero, 1894an, José Antonio Insausti (Idiazabalgo kamineroa) eta emazte Maria Esnaola, hau Seguran jaioa. Seguratik etorritakoak ziren, bi ume zituztela, eta gero beste hiru jaio ziren etxe honetantxe.

1910eko udal erroldan, berriz, Angel Mujika Mujika ageri da. 45 urte ditu, Ezkioko Ugarte baserritik etorri da eta ogibidez "okin ofiziala". Victoriana Zufiaurre Alberdi urretxuarrarekin zegoen ezkonduta, zeinak lau urte gehiago baitzituen. Ez zuten seme-alabarik izan eta 1913an iloba bat ekarri zuten etxera, Juan Jose Mujika Beain (Ezkio, 1885), zeina Rosa Alzola Azurmendirekin baitzegoen ezkonduta, hau ere ezkiotarra. Ordurako, Juan Jose eta Rosak bost seme-alaba zituzten (Maria, Ignacio, Bittori, Ramon eta Amparo), eta 1921ean, etxe honetantxe, azkena jaio, Angel.

1930ean, etxe hau eta aldameneko Araotzeneaundi, Leon Urmenetarenak ziren. Gizon hau Murugarakoan bizi zen eta baserri hura ere berea zuen. 1930ean hil zen, ez zuen seme-alabarik izan eta, az-

[es]

Se trataba de un edificio bajo situado al lado del camino que conducía al cementerio (junto al llamado 'pasadizo de Sarasola') y estaba adosado a la casa llamada Araotzeneaundi. Según parece, ambos edificios se demolieron a la vez, hacia 1953, y en la superficie resultante de los dos solares se edificó la casa del portal número 6 de la Kale Nagusia.

Según la documentación recopilada por el investigador José Luis Ugarte, en 1775 se denominaba Araozenea la nueva y sus dueños eran Phelipe de Aguirre y María Asensio de Texeria. En 1832, el propietario era Francisco María Agirre, que vivía en Murugarakoa y era también propietario de este caserío.

En 1857, habitaban esta casa el arriero Pedro Oiarbide, de 66 años y otras personas de apellidos Oiarbide Plazaola. Luego, en 1894, vivían José Antonio Insausti, caminero de Idiazabal, y su esposa Maria Esnaola, de Segura, quienes habían llegado desde Segura con dos hijos y luego tuvieron otros tres en esta casa.

En 1910 aparece como residente Ángel Mujika Mujika, de 45 años, natural del caserío Ugarte de Ezkio, "panadero oficial" y casado con Victoriana Zufiaurre Alberdi, nacida en Urretxu y cuatro años mayor. No tuvieron hijos y en 1913 trajeron a casa a un sobrino, Juan José Mujika Beain (Ezkio, 1885), que estaba casado con Rosa Alzola Azurmendi, también de Ezkio. Ya para entonces, Juan José y Rosa tenían cinco hijos (María, Ignacio, Bittori (Victoriana), Ramón y Amparo), y en 1921, en esta casa de Legazpi, nació el último hijo, Ángel.

En 1930, esta casa era, al igual que la anexa, Araotzeneaundi, propiedad de León Urmeneta, quien vivía en Murugarakoa y tenía otras posesiones. En 1930, al morir esta persona sin descendencia, Araotzenetxiki fue adquirida por Juan Manuel Ibarguren, el 'americano de Muru', que había conseguido hacerse rico en su estancia en Argentina.

Araotzenetxikiko 'santanderinoak'. Manuel Ruiz Lapeire eta Matilde Diez. (Coro Paternainek emana).





Juan Jose Mujika (Juan Luis Mujikak emana).



Araotzenetxikiko 'santanderinoak'. Manuel Ruiz eta Matilde Diez, alaba Manoli eta Mª Luzekin, eta honen senar Corpus Paternain (Coro Paternainek emana).



Juan Jose Mujika okinaren seme-alabak. Ramon, Angel, Ignacio; Maria, Bittori, Josepantoni, Amparo (Juan Luis Mujikak emana).

[eu] kenean, Juan Manuel Ibargurenentzat ('Muruko amerikanoa') izan zen Araotzenetxiki. Argentinan diru eginda etorri eta baserri batzuk erosi zituen Legazpin eta beste toki batzuetan.

1930eko hamarkadan, Ibargurenek Donostiako arrizabalagatar batzuei saldu zien eraikin hau. Besteok,

En los años 30, Ibarguren vendió esta edificación a los Arrizabalaga de Donostia, quienes habían sido dueños de otras casas en Legazpi, como "la de Garin" o Eskribaukoa en la Calle Vieja, Garrotxiki en Brinkola e Imittola en Oñati, en la parte trasera del monte Korosti. [es]

[eu] berriz, Kale Zaharreko Eskribauko etxeko ('Garinena') jabeak izan ziren, eta Brinkolako Garrotxiki eta Oñatiko Imittola ere eurena ziren.

Juan Jose Mujikaren okindegia negozio indartsua izan zen. Labea atzeko partean zegoen, eta lehen solairuan logelak. Itziar Yarzak esan zigunez, bere ama, Maria (Juan Joseren alaba zaharrena) askotan joaten zen Udana, Telleriarte eta Brinkolara, ogia eramatera. Zaldiak tiratutako gurdi batekin egin ohi zen ogiaren partiketa.

Juan Jose Mujikak, 1930eko hamarkadan, etxea egin zuen Kale Berrian, Errepublikaren Etxea (Sagastume iturgina) eta egungo Eroskiren artean. Bertara aldatu zuen okindegia. Baina gizona 1935ean hil zen, seme-alabek ez zuten lantegiarekin jarraitzeko borondaterik agertu eta, azkenean, Morazak hartu zuen negozioaren gidaritza.

1940eko hamarkadan "Santanderinoen etxe" bihurtu zen Araotzenetxiki. 1942an-edo, Santanderko Nueva Montaña Quijano auzotik, Manuel Ruiz Lapeira eta emazte Matilde Diez iritsi ziren, bi alaba zituztela, Mariluz eta Manoli, zazpi eta bost urtekoak. Gizon hura, pentsaeraz, "oso gorria" zen, ondorengoek adierazi digutenez. Legazpira etorri eta, lehenbizi, igeltsero aritu zen, eta gero Papeleran hasi. Etxe hau botatzeko zegoela, familia Bikuña aldera joan zen.

Baita ere, Santander aldeko Lázarotar anaiak bizi izan ziren etxe honetan, gero Mirasol ondoko Laxaronera bizialdatu zirelarik.

Esan bezala, bai Araotzenetxiki bai Araotzeneaundi 1953. urte aldera bota zituzten. Araotzenetxikiko orube hau eta aldameneko Kantokikoa etxearena bat eginda, Patriziok etxe berria altxatu zuen bere lantegiko erdi-mailako arduradunentzat; Kale Berriko zortzigarren ataria, alegia. ❖

[es] La panadería de Juan José Mujika fue un negocio próspero. El horno se hallaba en la parte trasera de la planta baja del edificio, y en la primera planta se hallaban las habitaciones. Iciar Yarza nos comentó que su madre, María, la hija mayor de Juan José, iba mucho a Udana, Telleriarte y Brinkola a llevar el pan. El reparto se hacía con un carro tirado por un caballo.

Juan José, en los años 30, hizo casa nueva en la Calle Nueva, que era un vial recién construido. Estaba situada entre la Casa de la República y el actual Eroski y allí mismo trasladó su panadería. Pero murió en 1935, cuando tenía 42 años, los hijos no mostraron interés en seguir con el negocio y, según parece, ese mismo año la panadería pasó a ser regentada por Moraza.

En los años 40 Araotzenetxiki se convirtió en la 'casa de los santanderinos". Hacia 1942, llegaron del barrio Nueva Montaña Quijano, de Santander, Manuel Ruiz y su esposa Matilde Diez, con sus hijas de siete y cinco años, Mariluz y Manoli. El hombre, en cuanto a ideología, era "muy rojo". Aquí trabajó primero como albañil, y luego en la Papelera. Al ser demolida esta casa, la familia se trasladó a la zona de Bikuña.

Según parece, este edificio albergó también a otros santanderinos, los hermanos Lázaro, que luego se trasladaron a Laxaronea, al lado de Mirasol.

Como se ha dicho, esta casa y la adyacente (Araotzeneaundi) se demolieron hacia el año 1953. Ocupando este solar y el de la siguiente casa, la que decían "de la Paca" o "de los Agirre", Patricio Etxeberria edificó una casa para sus mandos intermedios, la número 8 de la Calle Nueva. ❖



KANTOIKOA (Pakanea) 4 KANTOIKOA (Casa Paca)



Kantoikoa edo Pakanea, gezi batez adierazita.

[eu]

Urzelai aldeko kanposantura joateko bide ondoan zegoen eraikin hau. 1950eko hamarkadan bota zuten, eta bertan Kale Nagusiko 8garren atariko etxea altxatu.

1832an, nagusia Juan Miguel Galarza zen. Antonio aitarengandik jasoa zuen herentzian. 1894ko udal erroldan hiru lagun ageri dira; Juan Ignacio Galarza Zabaleta (abadea, organista erretiratua, 70 urtekoa eta aipatutako Juan Miguel haren semea); Mª Juana Ugarte Agirre (54 urte, alarguna, Juan Ignacio abadearen anaia Jose Miguelen emazte izandakoa); eta Justo Galarza Ugarte (27 urte, organo-jotzailea, alargun horren semea). Denak Legazpin jaioak ziren. Juan Ignacio hark 1851n irabazi zuen organista izateko oposizioa, beste lau laguni irabazita, parrokiako erretore Ignacio Antonio Zabaleta zegoela.

1910ean, berriz, lagunok bizi ziren: lehen aipatutako Justo Galarza, artean 43 urtekoa, eta anaia Jose Cirilo, hau ere abadea, "koadjutore kantaria", 45 urtekoa. Beraiekin neskame bat bizi zen, Antonia Kortaberria Zabaleta, hamar bat urte gazteagoa.

Baina gero Igeralde baserriko Teresa Aseginolaza jardun zen neskame, eta, itxura denez, apaizok, testamentuan, emakume gazte horri utzi zioten etxe osoa. Ondo emakume ezaguna Teresa, gero Patrizio Etxeberriarekin ezkondu baitzen.

Hurrengo etapa batean, 1930eko hamarkadatik aurrera, Teresaren anaia bat bizi izan zen hemen, Sebastian Agirre, eta jendeak 'Pacanea' esaten zion eraikin honi, izan ere Sebastianen emaztea, Paca Urdingio Elorza, oso-oso pertsona ezaguna izan zen. Denda zeukan, bezero asko erakartzen zuena. Eta etxe guztia zeukan hartuta familia honek: lehenbiziko solairuan sukaldea zegoen, besteak beste, eta bigarrengoan logela gehiago.

Paca oso emakume entzutetsua izan zen. Saturnino Telleria 'mediku zaharrak' 'Historia de Legazpia' idatzi zuen eta, 75. orrialdean, 1560ko akordio bati buruz ari dela (Urtatza aldera zihoan bidearen inguru-

[es]

Este edificio se hallaba al lado del camino que conducía hacia el cementerio de la zona de Urzelai, junto a lo que luego se llamó 'el pasadizo de Sarasola'. Se derribó en los años 50 para levantar en ese solar la casa del portal número 8 de la Kale Nagusia.

En 1832, el dueño de este edificio era Juan Miguel Galarza Mantxola. Lo había recibido en herencia de su padre, Miguel Antonio Galarza Urmeneta. Según el padrón de 1894, vivían aquí Juan Ignacio Galarza Zabaleta (sacerdote coadjutor y organista jubilado, de 70 años); Mª Juana Ugarte Aguirre (de 54 años, viuda de José Miguel, era hermano del mentado Juan Ignacio); y Justo Galarza Ugarte (de 27 años, organista de la parroquia, hijo de aquella viuda). Todos eran nacidos en Legazpi. El veterano Juan Ignacio había ganado por oposición la plaza de organista en 1851, superando a otros cuatro, cuando el párroco era Ignacio Antonio Zabaleta.

En 1910, los residentes eran el mencionado organista Justo, entonces de 43 años, y su hermano José Cirilo, también sacerdote, "coadjutor cantor". Con ellos vivía la sirvienta Antonia Kortaberria Zabaleta, unos diez años menor.

Luego, fue Teresa Agirre Aseginolaza, del caserío Igeralde, la que cuidó a los Galarza, y según parece, finalmente los sacerdotes, en su testamento, entregaron el edificio entero a esta joven. Teresa fue luego la esposa del empresario Patricio Etxeberria.

A partir de los años 30 el edificio fue conocido como Casa Paca, porque allí vivía y tenía su tienda de alimentación Paca Urdingio Elorza (final de la década de 1880-1993). El establecimiento comercial se hallaba en la planta baja y tenía abundante clientela.

Era una mujer muy conocida, un referente. Saurnino Tellería, "el médico viejo", escribió 'Historia de Legazpia' y en la página 75, al referirse a un acuerdo de 1560 en torno al camino que subía hacia Urtatza, dice: "empezando el camino desde Cantoicoa (casa



Ignacio Agirre (esk.), iloba Ignacio Bereziartu eta honen biloba Ignacio (Milagros Agirrek emana).



Mari Sol eta Milagros Agirre ahizpak (Milagros Agirrek emana).



Paca Urdingio (Milagros Agirrek emana).



Pacaneko Ignacio Agirre.



Pacaneko Sebastian Agirre (Lucio Vergara).

[eu] koa), honela dio: "… empezando el camino desde Cantoicoa (casa de Paca) y siguiendo por el camino de Lazaronea y Laubide".

Paca Urdingio Elorza Araiatik etorri zen Legazpira, eta Igeraldeko Sebastian Agirre Aseginolazarekin ezkondu, hau berriz, esanda bezala, Patrizio Etxeberriaren emazte Teresaren anaia. Senarra 1952an hil zen, urte asko erdi-itsu eman eta gero. Emakume hau Araian jaio zen 1900ean eta haurtzaro zaila bizi izan zuen: ama alargunduta zegoen, haren bi seme Ameriketara joanda zeuden, eta alabak, amarekin batera, apretak egiten zituen etxean.

de Paca) y siguiendo por el camino de Lazaronea y [es] Laubide".

Paca nació en Araia en 1900, en una familia en situación difícil. La madre era viuda, dos hijos se habían ido a América, y las hijas, junto con la madre, se dedicaban a hacer alpargatas en su casa. Apareció por Legazpi para trabajar como criada en la casa del empresario de la Papelera Patricio Elorza, que realmente era su tío. Se casó con Sebastián Agirre Aseginolaza, del caserío Igeralde de Brinkola, hermano de la esposa de Patricio Etxeberria, un hombre que trabajaría más bien como carpintero en la fábrica de

[eu] Pacaren ama Papelerako nagusi Patrizio Elorzaren arreba zen, eta emakume gaztea Legazpira azaldu zen enpresa-gizon haren etxean neskame jarduteko.

1920ko udal erroldaren arabera, bizilagun hauek genituen etxean: batetik, Sebastian eta Paca (32 eta 31 urtekoak), eta lehenbiziko alaba, Teresa (zortzi hilabetekoa); bestetik, Pacaren ama (Joaquina Elorza Olaberria, 65 urteko alarguna, esanda bezala paper fabrikako nagusiaren arreba), Pacaren ahizpa gazte bat (Agapita) eta Sebastianen anaia ezkongabe bat (Ignacio Agirre Aseginolaza), Patrizio Etxeberriaren fabrikan ari zena.

Jose Luis Arrietak esan diguna: "Paca, Patrizioren koinata ez ezik, haren lehengusina ere bazen. Pacak bazituen parienteak Igeralden, eta behin, festak zirela-eta, etxe hartatik pasatu eta bertako Sebastianekin hasi zen. Oso emakume atsegina zen. Gure amak, hiltzera zihoala, esan zigun Paca ondo tratatzeko".

Denetik saltzen zuen Pacak bere dendan, janaria eta sukaldeko ontziak, besteak beste. Barru-barruan ikatza saltzen zuen, eta ontzi handi batean oliba-olioa edukitzen, eskuz ponpatuz ateratzen zuena. 1948-1949an, bertan lanean hasi zen Maria ('Maruja') Salgado Silva (1930), Ourensetik Legazpira ('la casa de los gallegos'-era) etorritako familia ugari bateko kidea. Neska hau Pacaren etxean bizi zen, gainera. Gogoan du nola bazkaltzen ari zirela batzuek atea jotzen zuten, arrantzarako amuak ('garrangak') eskatzeko. Hala ere, garai hartan, Pacak, adina zela-eta, lan gutxi egiten zuen dendan, horretarako alaba Teresa zeukan.

Goizean goiz, Maruja Salgado Patrizio Etxeberria eta Teresaren etxera joaten zen, eta handik, Pacarendako, esnea eta ogia ekartzen.

Goi-goiko solairuan bi bizitza zeuden. Batean, aipatutako Ignacio Agirre bizi zen; bestean, Antonia Kortaberria ("Anttoni Txokolateroarena" esaten ziotena), galarzatar abadeen neskame izandakoa.

[es] su renombrado cuñado y tuvo graves problemas de visión.

Según el padrón de 1920, vivía en la casa el matrimonio formado por Sebastián y Paca (de 32 y 31 años), junto a la primera de las hijas, Teresa (de ocho meses), la madre de Paca, Joaquina Elorza Olaberria (viuda de 65 años, hermana del dueño de la Papelera, como se ha dicho) y una hermana joven de Paca (Agapita) y un hermano soltero de Sebastián, Ignacio Agirre Aseginolaza, operario de la fábrica de Patricio.

En un plano de 1930, aparecen como dueños de la casa el esposo de Paca, Sebastián Agirre, y el hermano de éste, Ignacio. Pero nuestra informante Milagros Agirre (hija de Paca y Sebastián), cree que la propiedad pasó luego a manos de Patricio Etxeberria. Lo que es seguro es que Patricio fue el promotor de la nueva casa que se hizo en este solar. Se destinó a viviendas para empleados de PESA de puestos de responsabilidad media-alta.

Los Agirre-Urdingio no pagaban renta a Patricio, quizá en compensación porque atendían a dos hermanos de la esposa del empresario: María (que estaba separada de un murciano y vivía junto con Paca y su marido) e Ignacio (que residía en la segunda planta, era soltero y falleció en 1940).

En 1920, Paca y Sebastián, que ocupaban la primera planta, tuvieron a la primera hija, Teresa. Luego nacieron los gemelos Ignacio y Jesús, y tres hijas más: Lucía, Mari Sol y Milagros; esta última en 1928.

La tienda era regentada por Paca y su hija mayor, Teresa. Nada más entrar, el cliente se encontraba con artículos de cerámica, como tiestos, traídos desde Agurain. Se vendían también perdigones y otros artículos de caza; y nuestra informante, la hija Milagros, recuerda que alguna vez los clientes llamaban a la puerta del domicilio a la hora de comer porque querían 'garrangak' (anzuelos). Al fondo, en una zona

[eu] 1930eko plano batean, etxe-nagusi moduan, Pacaren senar Sebastian Agirre eta honen anaia Ignacio agertzen dira. Baina gure berri-emaileak (alaba Milagrosek) uste du gero Patrizio Etxeberria jabetu zela eraikinaz. Nolanahi ere, Patriziok egin zuen etxe berria orube honetan, eta bere enpresako erdi-goi mailako enplegatuak hasi ziren horko pisuetan bizitzen.

Agirre-urdingiotarrok ez zioten Patriziori errentarik ordaintzen, beharbada enpresa-buru honen emaztearen bi senide zaintzen zituztelako: Maria (zeina murtziar batengandik bananduta baitzegoen eta Pacaren pisuan bizi zen) eta Ignacio (hau berriz ezkongabea, goiko pisuan bizi zena eta 1940an hildakoa).

Paca Urdingioren familia, etxe hau botatakoan, Kale Berrira aldatu zen, Lagun Artea Berri kasinoaren gaineko pisu batera. Haren hiru seme-alabak Legazpin jarraitu zuten: Jesus eta Ignacio bikiak (ez ziren ezkondu) eta Lucia (2011n hila), zeina Antonio Bereziarturekin ezkondu baitzen. Alaba zaharrena, Teresa (2017an hila), Jose Basterrika ataundarrarekin ezkondu zen eta Errenterian bizi; gizonak basoak erosi eta saltzen atera zuen bizimodua. Mari Sol izeneko alaba, berriz, Donostian bizi izan zen, Jose Iturriozekin ezkonduta, eta 2021ean hil. Egun bizi den alaba bakarra Milagros dugu, eta Oñatin bizi da, Adolf Reinstadler austriarrarekin ezkonduta; ibilgailu motordunak fabrikatzen dituen Stadler enpresaren sortzailea, alegia. ❖

[es] apartada, se vendía también carbón. Hacia 1948-49 comenzó a trabajar como dependienta María (Maruja) Salgado Silva (1930), quien había llegado desde la provincia de Ourense a una casa cercana, la que decían "la casa de los gallegos". Esta joven pasó a residir en la misma casa de Paca. Para aquella época, Paca estaba ya mayor y la tienda la gobernaba sobre todo su hija mayor, Teresa. Uno de los trabajos de esa ayudante era ir a diario, muy temprano, a casa de Patricio Etxeberria y Teresa para recoger allí el pan y la leche.

En el último piso había dos viviendas. En una vivía el ya mencionado Ignacio Elorza; en la otra, Antonia Kortaberria (a la que decían "Anttoni la del chocolatero"), que había trabajado anteriormente en la casa como sirvienta de los dos hermanos curas Galarza.

La familia abandonó esta casa para ir a vivir a la Calle Nueva, en el segundo piso encima del casino Lagun Artea Berri.

Nos comentó José Luis Arrieta: "Paca, además de cuñada de Patricio Etxeberria, era su prima. Tenía parientes en Igeralde y un día, en fiestas del pueblo, pasó por allí y empezó a salir con un hijo de la casa, Sebastián. Era una mujer muy agradable. Nuestra madre, cuando estaba ya para morirse, nos dijo que a Paca había que tratarle bien".

Tres hijos siguieron residiendo en Legazpi: los gemelos Jesús e Ignacio, solteros, y Lucía, quien se casó con Antonio Bereziartu y falleció en 2011. La primogénita, Teresa, fallecida en 2017, se casó con José Basterrika, ataundarra que se dedicó a la compra y venta de bosques, y vivieron en Errenteria. Otra hija, Mari Sol, fallecida en 2021, se casó con José Iturrioz y residieron en Donostia. A la hora de redactar este trabajo solo vivía Milagros, residente en Oñati, casada con el austríaco Adolf Reinstadler, fundador de la empresa Stadler, que fabrica vehículos motorizados. ❖



ZABALONEA (Aztirianea, Anamikalenea) 5 ZABALONEA (La de Aztiria, Anamikalenea)



Zutik, ezker-eskuin, Txomin Zubeldia (edari saltzailea), Santi Zurutuza, (tolosarra, Ilintxa futbol taldearen entrenatzailea), Jose Joaquin Sagastume (linterneroa), Jose Mari Gorrotxategi (udal musika bandako zuzendaria) eta Krux Telleria (Muruazpikoa). Makurtuta, Patxi Bengoetxea (garraiolaria), Segundo Biteri (barberoa), Sebastian Alustiza (1936ko gerran ertzain eta kronista izandakoa), Joxe Arzuaga (ezkongabea, Jose Luis Arzuaga eskultorearen osaba), Joxe Mendia (Gregorionean jaioa, parrokiako abesbatzako tenore ederra) eta Santi Larrea (Antonioren anaia, Venezuelara alde egindakoa lanera, eta bisitan etorria). Atzeko etxea Zabalonea edo Aztirianea da, eta beheko aldean edari-denda zeukan Zubeldiak (Sebastian Alustizaren familiak emana).

[eu]

1832ko etxe-zerrenda batean, Kantoikoa izeneko eraikinaren ondoren, kalebarrenera begira jartzen garelarik, bi etxe aipatzen dira: 'La Inmediata' y 'La de Aztiria'. Geroago, 1930eko mapa batean (Luis Astiazaran arkitektoak egina, Kale Berriaren proiektua zela-eta) bakarra agertzen da, eta beraren jabea ere aipatzen da: Juan Aztiria. Gure hipotesia da aspaldiko bi etxe haiek batu egin zirela eta 'La de Aztiria' deitura nagusitu zela, nolabait esateko.

Hasi gaitezen 'La Inmediata' harekin, Kantoikoaren segidan zegoenarekin. Uste dugu hemeretzigarren mendean Zabalonea deitzen ziotela. 1825ean, bertako nagusia Andres de Ordoñana zen. Urte horretantxe, Francisco Meliton de Zabalori saldu zion. Eta 1829an, Francisco Meliton honek, zeina Zumarragan bizi baitzen, anaia Martin Joseri saldu, hau berriz Legazpiko biztanlea (AHPG 1/4302, A:183 r - 184v).

1832an, berriz, jabea Martin Jose de Zabalok izaten jarraitzen zuen; eta bertako maizterra, Jose Martin de Aranburu. 1853an, nagusia Martin Joseren semea zen, Jose Tomas Zabalo Guridi, zeina Kusturrutzu baserriko nagusia ere bazen, kale horretan bazeukalarik beste etxe bat, 'Sanchonea mayor' esaten ziotena, zutik dagoena orain ere; Alberdi arropa-denda egondako etxea, alegia.

Gure susmoa da zabalotar guztiok Kusturrutzu baserrian zeukatela jatorria.

Etxe honetan (Anamikalenea, La inmediata) 1843 eta 1857. urteetan andueza-urmenetatarrak bizi ziren: Pedro Paulo Andueza Bergaretxe (1788), emazte Teresa Urmeneta Astiasaran eta seme-alabok: Esteban (1815), Josefa Agustina, Juan Francisco, Mª Juana (1824), Nicolas Maria, Juan Miguel eta Manuel Antonio (1834).

Mª Juana Andueza Urmeneta etxe honetara ezkondu zen Jose Mª Mujika Elorza zapatagilearekin eta hamaika seme-alaba izan zituzten: Vicente Fructuoso (1846-1847), Cosme Damian (1847, Urretxun ez-

[es]

En un listado de casas de 1832, a continuación de la casa Kantoikoa, en dirección a Urretxu-Zumarraga, se mencionan estas dos: 'La Inmediata' y 'La de Aztiria'. Luego, en un mapa de 1930, elaborado por el arquitecto Luis Astiazaran para ilustrar el proyecto de Calle Nueva, solamente aparece una, y perteneciente a Juan Aztiria. Nuestra hipótesis es que las dos casas acabaron fundiéndose de alguna manera, y prevaleció 'la de Aztiria'.

Empecemos por La Inmediata, la siguiente a Kantoikoa. Creemos que se trata de la que en el XIX se llamaba Zabalonea. En 1825, el dueño de la casa era Andrés de Ordoñana. Ese año, la vendió a Francisco Melitón de Zabalo. En 1829, Francisco Melitón, vecino de Zumarraga, vendió esta propiedad a su hermano Martín José de Zabalo, vecino de Legazpia (AHPG 1/4302, A:183 r - 184v). En 1832, el dueño seguía siendo Martín José, y el inquilino, José Martín de Aranburu. En 1853, la propiedad ya había pasado por herencia al hijo, José Tomás de Zabalo y Guridi. José Tomás era también propietario del caserío Kusturrutzu, y de una casa de la calle llamada Sanchonea Mayor, la que luego albergaría, en el siglo XXI, la tienda de ropa de Alberdi.

Sospechamos que todos estos Zabalo eran originarios de Kusturrutzu.

En 1868, Zabalo vendió esta casa a José Miguel de Galarza y Zabaleta. El vendedor era un hombre casado de 58 años; y el comprador, de 38 años y también casado. Galarza era propietario de la casa de al lado, Kantoikoa.

Esta casa de los Zabalo no era muy grande. José Tomás Zabalo salió fiador del tesorero de la provincia, Juan Francisco de Arrizabalaga, y para ello hipotecó sus inmuebles: el caserío Kusturrutzu se tasó en 40.000 reales, la casa Sanchonea Mayor con su huerta, en 16.000; y esta casa en cuestión, con su huerta, en 6.000.



Patxi Azpiazu (Lucio Vergara)
(Angel Muruak emana).



Urrexolako Garaikua baserria izan liteke. Behean, eskuin aldean eserita, Juan Aztiria Larrañaga (Urtatzola, 1872)
(Ignacio Agirre, Burdinola Elkartea, 9x12.33).



Aztirianeko Juan Aztiria eta Florentina Intxausti
(Gotzon Pereak emana).

[eu] kondua Mª Angela Aranburu Apaolazarekin, Pio (1850), Gabino Francisco (1852-1854), Mª Paula (1854-1860), Luisa Rosario (1856), Nicolasa (1858), Jose Damian (1861-1863), Mª Sabina (1863), Jose Luis (1867) eta Ignacio Mª (1872-1874).

1868an, Jose Tomas Zabalok Jose Miguel Galarza Zabaletari saldu zion etxea. Saltzailea 58 urteko gizona zen, eta ezkondua; eroslea, berriz, 38 urtekoa eta halaber ezkondua. Galarzak bazeukan etxerik; aldameneko Kantoikoa etxearen jabea ere bazen.

[es] Por otro lado, en esta misma zona tenemos la casa que en el listado de 1832 se le llama 'la de Aztiria'. Se trata de un inmueble ligado a los Aztiria del caserío Urtatzola. En ese listado 1832 aparece como propietario José Joaquín Aztiria (que vivía en el mismo Urtatzola), y como inquilino Celedonio de Ynurritegui. En cambio, la siguiente generación de los Aztiria sí vivió en esta casa de la calle Santa María: según el censo de 1894, residían Juan José Aztiria Balenzategi (hijo de José Joaquín), casado con

[eu] Zabalotarren etxe hau ez zen oso handia. Jose Tomas Zabalo fidatzaile moduan agertu zen Juan Francisco Arrizabalagarena, zeina probintziako diruzaina aukeratu baitzuten, eta horretarako Zabalok bere ondasunak hipotekatu zituen. Kusturrutzu baserriaren hipoteka 40.000 errealekoa izan zen; Sanchonea Mayor etxearena, bere baratzearekin, 16.000 errealekoa; eta ari garen etxe honena, bere baratzearekin, 6.000koa.

Bestalde, esan bezala, 1832an 'la de Aztiria' esaten zioten etxea zegoen leku honetan. Urtatzola baserriko aztiriatarrei lotutako etxea. 1832ko etxe-zerrenda horretan, Jose Joaquin Aztiria agertzen zaigu nagusi moduan, eta maizterra, berriz, Celedonio Inurritegui. Badakigu Aztiria hura Urtatzolan bizi zela artean. Baina aztiriatarron hurrengo belaunaldia, berriz, hura bai, hura Kale Zaharreko etxe honetantxe bizi izan zen. 1894ko udal erroldaren arabera, Juan Jose Aztiria Balenzategi (Jose Joaquinen semea) bizi zen, Paula Larrañaga Aztiria (1834) bergararrarekin ezkonduta, seme batekin (Juan) eta neskame batekin (Justa Kortaberria, hamasei urtekoa).

Juan Aztiria Larrañaga (1872) legazpiar sonatua izan zen. Ogibibez konpiteroa, erlezaina ere izan zen. Txokolateroa ere bazen. Egindako txokolatea eta boladua egunero hartzen zen, merienda bezala. Jaian erosten zen, astegunetan jateko.

1915eko argazki batean, hantxe ageri da udal agintariekin batera, artean sindikoa baitzen, udaleko dirusarrera eta gastuen kontrolatzailea, alegia. EAJren lehen Gipuzko Buru Batzarra eratu zenean, Zumarragan, bera joan zen Legazpiko ordezkaritzako buru. Geroago, 1934an, bake-epaile gisa agertzen zaigu.

1910eko udal erroldaren arabera, etxe honetan Juan Jose Aztiria Balanzategi bizi da, alargunduta eta adinean oso aurrera: 80 urte. Eta baita hurrengo bi belaunaldi ere: seme Juan Aztiria Larrañaga (38 urte, "confitero oficial") eta beronen emazte Florentina

[es] la bergaresa Paula Larrañaga Aztiria (1834) con su hijo Juan y una sirvienta de 16 años, llamada Justa Kortaberria. Este Juan Aztiria Larrañaga (1872) sería luego, una persona muy conocida en el pueblo, de oficio confitero, también apicultor, y que en una foto de las autoridades de la localidad, de 1915, aparece con el cargo de síndico (encargado de controlar los ingresos y gastos del consistorio) y luego fue el jefe de la delegación legazpiarra que acudió a Zumarraga para elegir el primer Gipuzko Buru Batzar del PNV. En 1934, figuraba como juez de paz.

El padrón de 1910 nos muestra que entonces vivía en este edificio Juan José Aztiria Balanzategi (viudo de 80 años), con miembros de otras dos generaciones: su hijo Juan Aztiria Larrañaga (de 38 años, "confitero oficial"), casado con la segurarra Florentina Insausti Ormazabal (32 años) y con dos hijos, Ildefonso (dos años) y Eusebia (un año). Pero, además de los Aztiria, residía allí la familia del carpintero Pío Etxeberria Elorza, hermano del empresario Patricio, carpintero de 38 años, con su esposa Casilda Izagirre Telleria (de 25 años, nacida en Leaburu) y con un hijo, Esteban Alberto, con solo un mes de edad.

En 1936, Juan Aztiria se fue a vivir a su caserío Urtatzola son su esposa, la segurarra Florentina Intxausti. Algo más tarde vivió, en el primer piso de esta casa de la Calle Vieja, una de sus hijas, Margarita (1911-2000), casada con Félix Perea, natural de Araia, perdedor en la guerra del 36 y regresado al pueblo tras una estancia no muy larga en la cárcel de Palencia. A fines de los 40 se fueron a Venezuela y regresaron con algo de dinero, que invirtieron en la creación de un bar, que luego se convirtió en el pub Izarra, el primero de la localidad.

Al abandonar Perea y su esposa Margarita el piso, entraron a vivir Claudia Aldasoro y su esposo Mateo Zabaleta, ella del caserío Ajuex, él de Brinkolazar. Vi-

[eu] Insausti Ormazabal segurarra (32 urte), eta berauen bi ume: Ildefonso (bi urte) eta Eusebia (urte bat). Baina, aztiriatarroz gain, beste familia bat ere bizi zen bertan: Pio Etxeberria Elorza arotza (Patrizioren anaia, 38 urte), emazte Casilda Izagirre Telleria leaburutarra (25 urte) eta berauen seme Esteban Alberto (jaio berria).

1936an, Urtatzola baserrira joan zen Juan Aztiria bizi izatera, berea zuen eta. Florentina Intxaustirekin zegoen ezkonduta. Geroago, Kale Zaharreko etxe honetan, lehenengo solairuan, hauen alaba bat bizi izan zen, Margarita (1911-2000), Felix Perea araiarrarekin ezkonduta. Gizona gerrako galtzaile izan zen eta, Palentzian kartzelaldi ez oso luze bat jasan ostean, Legazpira itzultzeko moduan geratu zen. 1940ko hamarkada bukaera aldera, senar-emazteok Venezuelara alde egin zuten eta, han dirua eginda, herrira itzuli eta taberna jarri zuten, gero Izarra pub-a bihurtu zena.

Felix Perea eta emazte Margaritak alde egin zutenean Venezuelara, etxebizitza hori Claudia Aldasoro eta Mateo Zabaletak hartu zuten, bata Ajuex baserrikoa, bestea Brinkolazargoa. Urte gutxi egin zuten, harik eta Kale Berriko etxea entregatu arte.

Bigarren solairuan, jada XX. mendean, Isidro Azpiazu errementaria bizi izan zen, Patrizio Etxeberriaren fabrikako lehenengo langileetako bat. Aramaion jaioa, Oñatiko sutegi batean ari zen lanean, Patriziok berarengana jo zuenean. Isidroren biloba batek, Jose Antonio Azpiazu historialariak, hau adierazi zigun: "Gure aitonak esan ohi zuen bera oinez joan zela Oñatitik Udanara, eta Patrizio Legazpitik gora azaldu zela. Hantxe, Udana gainean, lan-baldintzak erabaki eta elkarri bostekoa eman zioten".

Isidro ez zen izan zen 1908ko zazpi langileko talde hartako kideetakoa. Ez zen izan Patrizioren enpresako lehen-lehenengo faseko kidea, baina hantxe ageri da geroxeagoko argazki ezagunean, seguru asko 1913koa, non 30 bat langile dauden. Lankide gehie-

vieron aquí poco tiempo, hasta que se hizo su casa en la Calle Nueva. [es]

Pero en esta casa vivió también, a partir de comienzos del siglo XX, y en el segundo piso, uno de los primeros trabajadores de Patricio Etxeberria, el herrero Isidro Azpiazu. Nacido en Aramaio, Isidro trabajaba en una fragua de Oñati cuando fue contactado por Patricio. Uno de sus nietos, el historiador José Antonio Azpiazu, oyó en más de una ocasión la manera en que Isidro comenzó a trabajar en Legazpi: "Mi abuelo decía que subió andando de Oñati a Udana y que Patricio hizo otro tanto desde Legazpi. Allí, en el Alto de Udana, decidieron las condiciones para trabajar juntos y se dieron la mano".

Isidro no fue uno de los nombres del grupo inicial de siete obreros, de 1908, que acompañaron a Patricio en la primerísima fase de su andadura. Pero ya aparece en una foto de treinta obreros que, según parece, es de 1913. Ganaba un sueldo mejor que la mayoría de sus compañeros, dado que ya en Oñati era un oficial reconocido.

Isidro ya estaba casado, con la oñatiarra Margarita Mendizabal (nacida en 1875), cuando vino a Legazpi. Se instalaron en esta casa, en el segundo piso. Tuvieron tres hijos, Lorenzo, Patxi y Tomás, y fue Patxi quien siguió en el domicilio también después de casarse. Tuvo durante unos años una pequeña fábrica de peines, a base de asta de ganado vacuno.

Patxi, casado con Nieves Elorza, tuvo en 1943 a su primera hija, Mª Rosario. Al año siguiente nació el segundo hijo, José Antonio, renombrado historiador, autor también de estudios sobre las ferrerías de Legazpi. Luego nacerían otros cinco hijos.

Patxi y su familia vivían en esta casa, necesitada de profundas reformas, pero era dueño de todo un edificio situado en la Calle Nueva, al lado de la casa cu-

[eu] nen aldean soldata hobea omen zeukan, Oñatin ere ofizialaren kategoria zeukalako.

Isidro ezkonduta zegoen Legazpira etorri zenean; 1875ean jaiotako Margarita Mendizabal oñatiarrarekin, hain zuzen. Etorri eta etxe honetan jarri ziren bizi izaten. Hiru seme eduki zituzten, Lorenzo, Patxi eta Tomas, eta Patxi izan zen etxean segitu zuena ezkondu ostean. Zenbait urtez orrazi-fabrika txiki bat izan zuen, lehengaia idi- eta behi-adarrak zituelarik.

Nieves Elorzarekin ezkondu zen Patxi eta 1943an jaio zitzaien lehenengo haurra, Mª Rosario. Hurrengo urtean Jose Antonio eduki zuten, historialari sonatua eta, besteak beste, Legazpiko burdinolen ikerlaria. Gero beste bost seme-alaba jaio ziren.

Patxi-eta bizi ziren etxe hau ez zegoen oso egoera onean. Gizona beste etxe baten jabe zen, Kale Berrian egin berria, abade-etxearen ondoan eta Lore Toki zeritzaiona. Han, beheko solairuan, Sologaistoak bizikleta-alkilerra zeukan, eta Anttoni Bereziartuak ile-apaindegia.

1960ko hamarkada hasieran Lore Tokira aldatu zen Patxi Azpiazuren familia. Seme Jose Antoniok gogoan du Kale Zaharreko etxe haren egoera kaskarra: "Miradorea zeukan Kale Berrira ematen zuena, eta orain pentsatzen hasita, ostikoa jo eta kalera eroriko zen. Baina orduan ez zenien horrelako gauzei erreparatzen".

Kale Zaharreko etxe zahar honetan, beheko solairuan, 'La Canaria' esaten zioten emakumearen janaridenda egon zen. Gero, negozio hori Konpitteonekora aldatu zuen. Asun Arrieta zuen izena eta bizikletan etortzen zen Urretxu-Zumarragatik. Eta, baita ere, hementxe eduki zuen Txomin Zubeldiak bere denda, non ardoa eta beste edari batzuk saltzen baitzituen. Ardo erostera, jendea bere botila edo garrafoiarekin azaltzen zen, eta bete egiten zitzaion. ❖

[es] ral, y que se llamaba Lore Toki. En la planta baja tenía Sologaistoa su taller de reparación de bicicletas, y su peluquería Antonia Bereziartua, quien siendo niña fue una de las videntes de Ezkio.

A comienzos de los 60, la familia dejó la Calle Vieja para trasladarse a Lore Toki. José Antonio recordaba que la vieja casa estaba en malas condiciones: "Tenía un mirador que daba a la Calle Nueva, y que, ahora que pienso, se iría abajo solo con darle una patada. Pero entonces no pensabas en eso".

En uno de los locales de la planta baja tenía su tienda de alimentación una mujer apodada 'La Canaria', que luego trasladaría el negocio al edificio llamado Konpitteonekoa. Se llamaba Nieves Arrieta y venía en bicicleta desde Urretxu-Zumarraga. Y al lado, en otro local, Txomin Zubeldia vendía vino (a granel) y otras bebidas. Los clientes llevaban la botella o garrafón, y se les llenaba. ❖



FRANTZISKOGARRONEA (Medikukoa, Bittorzapatarinea) 6 FRANTZISKOGARRONEA (Medikukoa, Bittorzapatarinea)



1950eko hamarkadako irudia. Egile ezezaguna. Tamalez, ezkerreko aldean ez da Kantoikoa ikusten. Lehenengo etxea Zabalonea edo Aztirianea dugu. Erdizka ikusten den atari horretan, 'La Canaria'-ren denda; eta bigarren ate horretan, Txomin Zubeldiarena. Lehenengo solairuan Felix Perea bizi zen, eta horren familia Venezuelara joan zenean, Mateo Zabaleta (Brinkolazargoa) eta emazte Claudia Aldasoro (Ajuexkoa); eta bigarren solairuan, Patxi Azpiazuren familia.

Bigarrengo etxea, Frantziskogarronea. Behean, Carmen Madinabeitiaren denda, non lehenbizi zapatak saltzen baitzituen, eta gero prentsa. Lehenbiziko solairuan, Facundo Kortazar 'Barakaldo' eta emazte Germana bizi ziren, adoptatutako ilobekin (Eduardo Serna eta honen arreba). Bigarrengo solairuan, Hipolito Sarasola eta Maria Zubizarreta, eta Hipolitoren ama , Ramona Odria.

Hirugarren etxea, Arrolanea, Iturbetarren etxea, atarian Facundo Urzelai zapatariaren tailerra zegoelarik. Hurrengo etxea, Arabaolatzanea, eta bebarruan gorosabeldarren taberna. Hurrengoak, Santxoneaundi (Patxi Osinalderen burdindegia bebarruan), Santxoetxe edo Gaxparrenea (Basaberen janari-denda), Aberasturinea (Odriozolaren harategia eta Arcadioren bizartegia), Eskribaukoa (Garinen okindegia), Etxagorri (Paco Barandiaranen etxea) eta Urmenetanea.

(Fdez. Mantxolatarrek emana).

[eu]

1950. hamarkada erdi aldera desagertu zen etxe hau. Orduan, jabea Manuel Odriozola harakina zen. 1832an Medikukoa edo Medikunea zuen izena. Orduan, nagusia Martina Ugarte zuen, eta emakume hau bertan bizi zen gainera. 1857an, deitura Frantziskogarronea zen, eta Martina haren seme Jose Domingo Plazaola Ugarte bizi zen bertan, Dolores Muruarekin ezkonduta.

Ez gaude ziur, baina uste dugu 1910ean Avelino Ziaran bizi zela hemen, artean 26 urtekoa, Seguraren teileriako enplegatua eta gero zer esana emango zuena: Legazpiko lehenbiziko jeltzaleetako bat izan zen, dantzaria, dantza-maisu eta, hainbat urtez, parrokiako kantaria, zahartzaroan azken jarduera honengatik omenaldi egingo ziotelarik. Berarekin batera ama bizi zen (50 urteko Francisca Apaolaza, 'Txortxi' leinuko kidea) eta hiru anai-arreba gazteago: Maria, Tomas eta Feliciana. Baina familia honekin batera, Avelinoren iloba batzuk bizi ziren, Donostian jaioak, eta gurasoak Ameriketan zituztenak. Alegia, Vicenta, Jose, Luis, Felix eta Manuela, 9 eta 2 urte bitartekoak. Geroago, umeok 'botikaren etxera' bizialdatuko ziren, gurasoen diruarekin egindako etxe berrira, hain zuzen ere.

Hogeigarren mende hasieran, lehen aipatutako Jose Domingo Plazaola eta Dolores Muruaren seme Martin Plazaola Murua, genuen etxe honen jabea. 'Martin Bost' zeukan goitizena eta bertan jaioa zen. Ezkondutakoan, Oiarbidenera aldatu zen, "beste espaloira". Baina 1944rako saldua zuen bere lehengo etxe hori, seguru asko Manuel Odriozola harakinari. Behintzat, hauxe zen etxejabea eraikin hau eraitsi zenean 1955-56an.

Inguruko etxeetan ez bezala, balkoiak egurrezkoak ziren. 1940 eta 1950eko hamarkadetan, behean, Carmen Madinabeitiaren denda zegoen. Alonso Alustizaren koinata zen, Araian jaioa, eta lehenbizi zapatak saltzen zituen, eta gero egunkari eta aldizkariak. Hantxe aritzen zen Alonso Alustiza ere zapata konpontzen. Tertulia-toki ere izaten zen denda hori; Victor Elustondo organo-jotzaileaz gain, Jorge Ginto praktikantea ere hantxe egoten zen berriketan, eta negu partean estufa pizten zuten Urzelairen aroztegitik doan ekarritako zerrautsarekin.

[es]

Edificio que desapareció a mediados de los años 50. Su último propietario fue el carnicero Manuel Odriozola. En el año 1832, esta casa tenía la denominación de Medikukoa. Entonces, la dueña era Martina Ugarte, quien además vivía ahí mismo. En 1857, la denominación era Frantziskogarronea, y vivía José Domingo Plazaola Ugarte, hijo de aquella Martina, casado con Dolores Murua.

Creemos que en 1910 vivía Avelino Ziaran, un hombre de 26 años, empleado de la fábrica de tejas de Pedro Segura. Avelino fue luego uno de los primeros afiliados legazpiarras al PNV, dantzari e instructor de danza, y también miembro del coro parroquial, actividad por la que luego sería homenajeado. Junto con Avelino, vivía la madre (Francisca Apaolaza, de 50 años y miembra del linaje apodado 'Txortxi') y tres hermanos más jóvenes: María, Tomás y Feliciana. Y además, unos sobrinos de Avelino, nacidos en San Sebastián, y cuyos padres se habían ido a hacer las Américas: Vicenta, José, Luis, Félix y Manuela Mendiola Ziaran, de entre 9 y 2 años. Más tarde, estos niños vivieron en la llamada "casa de la botica", que se edificó con el dinero de los 'americanos'.

A comienzos del siglo XX, el dueño del inmueble era Martín Plazaola Murua, hijo de los mencionados José Domingo y Dolores. Tenía el sobrenombre de 'Martín Bost', y tras casarse se trasladó a una casa cercana, llamada Oiarbidenea. Antes de 1944 vendió su casa natal, Frantziskogarronea, seguramente al carnicero Manuel Odriozola; al menos, esta era la persona propietaria cuando se demolió la casa, en 1955-56.

Al contrario de las casas de al lado, tenía balcones de madera, y no de hierro. En las décadas de 1940 y 1950, en la planta baja estaba la tienda de Carmen Madinabitia. Nacida en Araia, vendía al comienzo zapatos, más tarde revistas y periódicos. Era cuñada de Alonso Alustiza, quien solía estar ahí mismo arreglando zapatos. El local era también sitio de tertulia, donde se reunían gentes como el cura y organista Víctor Elustondo y el practicante Jorge Ginto. En invierno se arrimaban a la estufa, que funcionaba con serrín traído de la carpintería de Urzelai.



Eskuinaldeko bigarrena, eskuak atzean, Facundo Kortazar 'Barakaldo'. Basarri bertsolariaren inguruan daude bilduta lagunak.





Maria Zubizarreta (Hipolito Sarasolaren emaztea), seme Iñaki eta alaba Txaro, Biteriren ile-apaindegi aurrean (Txaro Sarasolak emana).

Hipolito Sarasola, Maria Zubizarreta, seme Iñaki eta alaba Txaro beren bikotekideekin (Txaro Sarasolak emana).

[eu] Lehenbiziko pisuan, Facundo Kortazar 'Barakaldo' eta emazte Germana bizi ziren, Eduardo Sernaren osaba-izebak. Eurek hazi zuten mutil hau, zeina Laredon jaioa baitzen.

Bigarrengo pisuan, Hipolito Sarasola eta Maria Zubizarreta bizi ziren, Ramona Odriarekin (Hipolitoren ama) eta beren bi seme-alabekin, Iñaki eta Txaro. Hipolito, Aztiriko Baztarretxe baserrian jaioa zen eta umetxotan Landanera (Uztargillenera) etorritakoa. 1936ko gerra garaian, Eusko Gudarosterako lubakiak egiten jardun zen Bizkai aldean, sekula fusila hartu gabe. Maria, berriz, Azkoitiko Martitten jaioa zen. Honen gurasoak, Legazpira etorri eta Kale Nagusian Serapio Lizarazuren azpian jarri ziren bizi izaten. Ikatz-almazena ipini zuten etxe honen beheko solairuan, sarrera Kale Berritik zutelarik. Zalgurdi batekin egiten zuten banaketa etxez etxe. 'Karboneroak' esaten zitzaien zubizarretatarroi. ❖

[es] En el primer piso vivían Facundo Kortazar 'Barakaldo' y su esposa Germana, que habían acogido a su sobrino Eduardo Serna, quien era nacido en Laredo.

En la segunda planta residían Hipólito Sarasola y su esposa María Zubizarreta, con sus hijos Iñaki y Txaro, y la madre de Hipólito, Ramona Odria. Hipólito había nacido en el caserío Baztarretxe de Aztiri y venido siendo chaval a la casa Uztargillenea de Legazpi. Al llegar la guerra del 36 trabajó para las milicias vascas cavando trincheras en tierras de Bizkaia, sin empuñar nunca el fusil. María, por su parte, nació en el barrio de Martirieta (Martitte) de Azkoitia. Sus padres llegaron a Legazpi en los años 30 y se instalaron en la Calle Nueva, en la casa de Serapio Lizarazu. Montaron una carbonería en los bajos de esta casa de la Calle Vieja, con entrada desde la Calle Nueva. Hacían el reparto con un carro tirado por un caballo y en el pueblo a los miembros de esta familia Zubizarreta se les decía 'carboneros'. ❖



ARROLANEA (Gorosabelenea, Jaureginea, Karmenenea) 7

ARROLANEA (Gorosabelenea, Jaureginea, Karmenenea)



Arrolanea, ezkerreko lehena (Lucio Vergara).



Arrolaneko sarrera (Fdez. Mantxolatarrek emana).

[eu] 1832an 'Casa de Gorosabel' deitzen zen eraikin hau, eta orduko jabea, usufruktuan, Juliana de Jauregui genuen. 1788an hartu zuen, Juan de Gorosabelek emanda. Bizi, berriz, Pablo eta Esteban de Andueza bizi ziren etxe honetan.

Benetako nagusiak gorosabeldarrak ziren, jatorria Legazpin zutenak, baina gero Donostiara bizialdatuko zirenak. 1851n Juliana de Jauregi hil zen eta orduan Gorosabel Domingueztar anai-arrebek (Pablo historialari eta artxibozain sonatua eta Mª Rita, Eulalia y Mª Antonia) etxea saldu zioten Gabirian jaio eta Legazpira etorritako emakume bati, Martina Mayora Alzuetari (1806), zeinak alaba bat eduki baitzuen, Mª Cruz Jauregi Mayora (1828) (AGG-GAO PT 3242: 983r, 985r). Pablo Gorosabel Legazpiko Jose Joaquin Gorosabelen semea genuen eta Telleriarteko Sagastizabal (Esaizabal) baserria ere jabetzan izan zuen.

Hemeretzigarren mende erdialdetik aurrera, utzi zioten 'Casa de Gorosabel' deitzeari eta 'Jaureginea' deitura finkatu zen. 1857ko udal-erroldaren arabera, bertan Martina Mayora bizi zen, (50 urteko alarguna), alaba Mª Cruz eta suhi Nicolas Andueza Urmenetarekin, hauek berriz 29 urtekoak.

Baina laster aldatu zen jabetza. Nicolas Andueza Urmenetak, 1861ean, Juan Francisco Agirre Olabideri saldu zion etxea, zeina 35 urteko gizona baitzen, Goroetan (Aretxabaleta) jaioa eta ogibidez nekazaria. Eta handik zazpi urtera, Juan Franciscok Miguel Ignacio de Elorza Inzari saldu zion, hau ere nekazaria, 46 urtekoa eta lehendik Legazpin bizi zena (AHPG, 1/4921/7, A); hain zuzen ere, Patricio Elorza Olaberria, Papelerako nagusia izango zenaren aita izan zen etxe-nagusi berria.

1868ko notario-agirian esaten denez, etxe honek, iparraldetik, Etxaperro izeneko etxea (Patxi tabernarena) dauka mugante, hau berriz Ramon Lardizabalena; hegoaldetik, Francisco Garrokoa izeneko etxea, Domingo Plazaolarena; mendebaldetik, etxeko baratzea; eta ekialdetik, kale publikoa.

[es] En 1832, a este edificio se le denomina 'Casa de Gorosabel' y la propietaria, en usufructo, era Juliana de Jauregi, quien la había recibido en 1788 de manos de Juan de Gorosabel. Vivían aquí Pedro Pablo y Esteban de Andueza.

Los verdaderos propietarios eran los Gorosabel, originarios de Legazpi, pero que luego pasarían a residir mayormente en Donostia. En 1851 fallece Juliana de Jauregi, y entonces los hermanos Gorosabel Domínguez (el afamado historiador y abogado Pablo, y sus hermanas Mª Rita, Eulalia y Mª Antonia) venden la casa a una mujer nacida en Gabiria y afincada en Legazpi: Martina Mayora Alzueta (1806), quien tiene al menos una hija, llamada Mª Cruz Jauregi Mayora (1828) (AGG-GAO PT 3242: 983r, 985r). El tolosarra Pablo Gorosabel era hijo del legazpiarra Joaquín, y poseía también el caserío Esaizabal (Sagastizabal) de Telleriarte.

A partir de mediados del siglo XIX, a la casa se le dejó de llamar 'Casa de Gorosabel'. El nuevo nombre fue 'La de Jauregi' o 'Jaureginea'. Según el censo de 1857, Martina Mayora vivía allí (con 50 años y ya viuda) junto a su hija Mª Cruz y su yerno Nicolás Andueza Urmeneta, ambos de 29 años.

Pero pronto cambia la propiedad. Nicolás vende la casa en 1861 a Juan Francisco Agirre y Olabide, casado, 35 años, vecino de Goronaeta (Aretxabaleta) y de profesión labrador. Y solamente siete años más tarde, Juan Francisco la vendió a Miguel Ignacio Elorza Inza, casado, de 46 años, también labrador y vecino de Legazpi (AHPG, 1/4921/7, A), el padre de Patricio Elorza Olaverria, quien luego sería dueño de la Papelera.

En el documento notarial de 1868, se comenta que el inmueble linda por el norte con la casa Etxaperro (la del Bar Patxi), propiedad de Ramón Lardizabal; por el sur, con la casa llamada Francisco Garrokoa, perteneciente a Domingo de Plazaola; por el oeste, con la huerta de la casa; y por el este, con la calle pública.



Juan Iturberen familia (Begoña Arangurenek emana).





Leoncio Iturbe eta Celestina Iturbe (Lucio Vergara) (Begoña Arangurenek emana).



Benito Iturbe etxean (Begoña Arangurenek emana).



Arrolaneko Urbano Iturbe, Sebastian Alustizarekin (Begoña Arangurenek emana).



Juan Iturberen bi alabak, Parisen, haren hobi ondoan 1948an (Begoña Arangurenek emana).

[eu] Gero, XX. mendeko lehen hamarkadetan, Arrolanea esan ohi zioten etxe honi, bertan bizi izan zirelako Arrola baserritik jaitsitako Iturbetar batzuk. 1910ean, adibidez, Juan Francisco Iturbe Urzelai (69 urte), emazte Joaquina Sagastizabal Telleria (68 urte), Juan Franciscoren arreba Juliana (61), eta senar-emazte gazteago batzuk: Benito Iturbe Sagastizabal (30) eta

[es] En las primeras décadas del siglo, la casa comenzó a ser llamada Arrolanea, porque la habitaron gentes que habían descendido del caserío Arrola. En el año 1910, los habitantes eran Juan Francisco Iturbe Urzelai (69 años), su esposa Joaquina Sagastizabal Telleria (68 años), la hermana Juliana Iturbe Urzelai (61), y un matrimonio joven: Benito Iturbe Sagasti-

[eu] Petra Apaolaza Plazaola, (34), eta bi seme, Leoncio (4) eta Juan (2).

Benito Iturbe Agirrezabal 1881ean jaioa zen, ogibidez igeltseroa, eta 1905ean erosi egin zuen etxe hau, nori eta Patrizio Etxeberriari. Orduan eraikinaren deitura Jaureginea zen.

Benito zinegotzi izan zen eta zinegotzi-janzkeraz ageri da 1915eko argazki ezagun batean. Berak egin zituen Peineteriako sarreran zeuden adreiluzko zutabe salomonikoak. Bazuen arreba bat, Rafaela, zortzi urte zaharragoa, Arrolan jaio eta Urtatzazar baserrira ezkondutakoa.

Masukariola (Masokola) baserriko Petra Apaolaza Plazaolarekin (1875) ezkondu zen Benito. Emakume hau jostuna zen eta soinekoak eginez atera zuen bizimodua. Oihal-denda ere eduki zuen, bere senarraren izenean zegoena, eta gure ustez eraikin honen beheko solairuan egongo zena. Lau seme-alaba izan zituzten: Leoncio (1907-1970), Juan (1909-1947), Urbano (1911-1979) eta Celestina (1913-1964).

1936ko gerra ostean, Benito Iturbe eta bi seme, Leoncio eta Urbano, bizi izan ziren bertan. Gero, 40ko hamarkada bukaera aldera, hirurak Urretxura joan ziren bizitzera, Benitoren alaba Celestinarenera, eta hantxe hil ziren. Arangurendar batekin zegoen ezkonduta Celestina, eta Bar Isabel egon zen eraikin osoaren jabeak ziren arangurendarrok. Gero estankoa eduki zuten bertan. Errepublika garaian Legazpiko EAJren militante nabarmena izan zen emakume hau.

Urbano Iturbek oso gaizki pasa zuen 36ko gerran eta ondorengo urteetan. Nazionalista izanik, Legazpitik alde egin zuen Francoren soldaduak sartzera zihoazela, eta Iparraldean hartu zuen aterpe. 1940an muga zeharkatu Irundik eta segituan hartu zuten preso. Miranda de Ebroko kontzentrazio esparru batean eduki zuten eta, esaten zuenez, "denetik jan behar izan zuen, harriak izan ezik". Handik, 'zorri berdea' esan

[es] zabal (30) y Petra Apaolaza Plazaola, (34), con dos hijos, Leoncio (4) y Juan (2).

Benito Iturbe Agirrezabal, nacido en 1881 y de profesión albañil, en 1905 compró esta casa al industrial Patricio Etxeberria. Entonces se llamaba Jaureginea.

Benito fue también concejal y aparece vestido de esta guisa en una célebre foto de 1915. Uno de sus trabajos fueron las columnas de ladrillo 'retorcidas' (salomónicas) de la entrada de la Peinetería. Era hermano de Rafaela, ocho años mayor, quien se casó al caserío Urtatzazarra.

Benito se casó con una hija del caserío Masukariola, Petra Apaolaza Plazaola (1875), quien era modista y se ganaba la vida haciendo vestidos. Regentó una tienda de telas, a nombre de su marido, que suponemos estaría en la planta baja del edificio. Tuvieron tres hijos varones y una hija: Leoncio (1907-1970), Juan (1909-1947), Urbano (1911-1979) y Celestina (1913-1964).

Tras la guerra del 36, la casa fue habitada por Benito Iturbe y sus hijos Leoncio y Urbano. Luego, a finales de los años 40, los tres fueron vivir a Urretxu, y allí murieron, en casa de la hija de Benito, Celestina, casada con un hombre de apellido Aranguren, y propietarios de la casa en la que estaba el Bar Isabel, a la entrada de Urretxu. Allí regentaron un estanco. Celestina, en los años de la República, fue simpatizante destacada del PNV.

Urbano lo pasó muy mal en la guerra del 36 y años posteriores. De ideas nacionalistas, huyó de Legazpi al entrar los nacionales y se exilió a Iparralde. Regresó en 1940 por Irun y enseguida fue detenido. Recluido en el campo de trabajo de Miranda de Ebro, decía que se vio "obligado a comer de todo, excepto piedras". Trajo de allí el llamado "piojo verde". No se casó y acabó trabajando como taxista en Urretxu-Zumarraga.



Rafa Ibañez, emazte Carmen Polo, eta Carmen eta Rafael seme-alabak (Mari Carmen Ibañezek emana).



Eusebio Alzelai eta Kattalin Mendia ezkonbidaian Zaragozan. (Juanita Alzelaiek emana).

[eu] ohi zioten gaitza ekarri zuen. Ez zen ezkondu eta Urretxu-Zumarragan taxista-lana eginez atera zuen bizimodua.

Leonciok, berriz, Olaetxeko teilerian egin zuen lan, bertara bizikletaz joanda. 1946an sortutako fabrika hartako ugazabetako bat zen, akzioen laurdena zeukalarik. Hori baino lehenago, Pedro Seguraren teilerian jarduna zen, mekanikari.

Urretxura bizitzera joan aurretik, 1940ko hamarkadan, zenbait urtez, Leoncio eta beronen aita Benito beste familia batekin bizi izan ziren Arrolanean; Burgostik etorritako Ibañez-Polo familia, alegia. Leoncio ez baitzen bera bakarrik bizitzeko gai. Rafael Ibañez Burgosko Zael herrikoa zen, non Patrizio Etxeberriak etxaldea baitzeukan. Hona Mari Carmen Ibáñez, haren alabaren testigantza (margolari eta irakaslea, lan handia egindakoa): "Gure aita Patrizioren etxaldean ari zen lanean, eta aitona Manuel ere bai, hau artzain moduan. Patrizio hara agertzen

[es] Leoncio, por su parte, iba a trabajar en bicicleta a la tejería de Olaetxe, fundada en 1946, y de la que era copropietario con un 25% de sus acciones. Anteriormente había sido mecánico de la tejería de Pedro Segura.

Antes de marchar a vivir a Urretxu, en la década de los 40, durante unos años, Leoncio y su padre Benito vivieron en esta casa de la Calle Vieja, junto con una familia llegada de Burgos, los Ibáñez-Polo. Leoncio lo hizo porque no valía para vivir solo. Rafael Ibáñez era de Zael, un pueblo que limitaba con la finca burgalesa de Patricio Etxeberria. Testimonio de Mari Carmen Ibáñez, pintora y profesora, hija de Rafael y toda una institución en Legazpi: "Mi padre trabajaba en esa finca, al igual que el abuelo Manuel, que era pastor. Cuando Patricio iba a la finca, mi padre hacía de cicerone. En una ocasión, ambos hicieron una conducción para el agua. Pero al padre aquello se le estaba quedando pequeño y le pidió trabajo aquí

[eu] zenean, gure aitak ciceronearena egiten zuen. Behin, hantxe aritu ziren biak ur-hodia ipintzen. Baina aitari txiki gelditzen ari zitzaion Burgosko lana eta Patriziori esan zion Legazpin hasi nahi zuela. Patriziok erantzun omen zion: hurrengo kamioiak oharra ekarriko du zuretzat. Esan eta egin. Etorri zen kamioia eta kamioiarekin batera albiste ona". Rafael herrena zen eta Laminazioan egin zuen lan, eserita, bolantearekin makina bat gidatzen.

Rafael Ibañez, artean ezkondu gabe etorri zen Legazpira. Aurrena, pentsio batean bizi izan zen, fabrikarena, Ekonomatoa zegoen eraikinean zegoena, eta gero Olazabal baserriko bizitzetako batean, sologaistoatarren etxean apopilo. Han zegoela, andregaia egin zuen, Carmen Polo, Lasarte-Hernanikoa. Ezkondu eta Kale Zaharreko etxe honetan jarri ziren, Leoncio Iturberenean. Semea eta alaba eduki zituzten: Mari Carmen (1949, margolari sonatua) eta Rafael (1951). 1954. urte aldera utzi zuten etxe hau, Arantzazu auzora aldatu zirelarik.

1950. hamarkada hasieran zenbait lantegi zeuden beheko solairuan. Kale Zaharreko atetik sartu eta, ezker aldean, Patxi izeneko Gabiriako baserritar baten esne-saltokia; eta eskuinaldean, hasieran janari-denda bat, Kattalin Mendiarena (Oñatitik etorritako alzelaitar batekin ezkondua, Lolo eta Deiñe Alzelairen ama); eta haren segidan, Facundo Urzelai zapatariaren lantokia, hor aspalditik ari zena. Basabetarrek eta gorosabeldarrek almazen bana zeukaten, gainera. Eta beheko solairu honen beste muturrean (sarrera Kale Berritik) Pedro Mari Oria 'Donosti'-ren galdara-lantegia zegoen, eta Marcelino Zubizarreta garraiolariaren kamioiarendako garajea. Bestalde, batzuek esan digute beste tailertxo bat ere egon zela, Angel Muruarena, zeinak hegaztiak harrapatzeko zepoak egiten baitzituen. Gizon hau (Maria Gorosabelekin ezkondua) Patrizioren fabrikan ari zen.

en Legazpi. Patricio le respondió: el próximo camión que venga a la finca tendrá una nota para ti. Y así fue. Llegó el camión con la noticia de que tenía trabajo". Era cojo y acabó trabajando en la Laminación, sentado, dirigiendo una máquina con un volante. [es]

Rafael Ibáñez vino siendo soltero. Se instaló primero en una pensión que tenía la empresa en el edificio del Economato, y luego en una de las viviendas del caserío Olazabal, como pupilo en el hogar de los Sologaistoa. Se hizo novio de Carmen Polo, de Lasarte-Hernani, y acabaron casándose para instalarse enseguida en esta casa de Arrolanea, junto a Leoncio Iturbe. Tuvieron dos hijos: Mari Carmen (1949, pintora renombrada) y Rafael (1951). Dejaron la casa hacia 1954, para ir a una casa del barrio Aranzazu.

A comienzos de los 50 existían varios negocios en la planta baja. Entrando desde la Calle Vieja, a la izquierda el despacho de leche de un baserritarra de Gabiria llamado Patxi; y a la derecha, primeramente una tienda de ultramarinos regentada por Kattalin Mendia, casada con un Alzelai llegado de Oñati (madre de Lolo y Deiñe Alzelai, entre otros); y a continuación la tienda-taller del zapatero Facundo Urzelai, quien trabajaba ahí desde bastantes años atrás. Los Basabe (que cerca tenían tienda de alimentación) y los Gorosabel (que regentaban el Bar Patxi) también tenían sendos almacenes. Y en otra zona de la planta baja, a la que se accedía desde la Calle Nueva, había otro negocio, el de calderería de Oria 'Donosti', y un garaje para el camión del transportista Marcelino Zubizarreta. Algunos testimonios nos hablan de que en la planta baja, entrando desde la Calle Vieja, hubo también un taller de fabricación de cepos, regentado por Ángel Murua, que trabajaba en la fábrica de Patricio y vivía cerca, casado con María Gorosabel y era hijo de miquelete. Además, Esteban Zubiria tenía un escritorio; y Enrique Aguirregabiria, trabajador de la tejería de Olaetxe, una habitación arrendada.

[eu]

Juan Iturbe iheslaria

Juan Iturbe Apaolazak, Benito eta Petraren semeak, mundualdi latza izan zuen. Hogeigarren mende hasieran jaioa, Ubaldo Seguraren Peineteriako sozioetako bat izan zen. Mutikotan alemaniera ikasitakoa zen, Ubaldok berak bidali baitzuen Koloniara, hizkuntza ikas zezan, ugazabak nahi baitzuen horrelako laguntzaileren bat eduki, enpresaren harreman komertzialak errazteko.

Ubaldo, jakina denez, Errepublika garaian alkate izan zen, EAJren izenean. Juan Iturbe ere alderdi horretako buruzagi izan zen Legazpin, eta nekazarien sindikaturako ere egin zuen lan. Nazionalak herrian sartzean, 36ko irailean, Bilbora egin zuen alde. Emazteak, Carmen Arzak itsasondoarrak, Santillana del Mar-era egin zuen Arantza alabatxoarekin batera, eta Kale Zaharreko iriondotar batzuek babestu zituzten beren etxean.

Carmen Santillana del Mar-en zegoela, 1937ko ekainean jaio zen bigarren alaba, Garbiñe. Eta handik hilabetera, emakume hau itsasoratu egin zen Iparraldera alde egiteko. Ez dakite Laredo edo Santoñan hartu zuen ontzia. Beste alaba, Arantxa, bi urteko umea zen. Haurron aita, Juan Iturbe, Baionan hasia zen lanean, Euzkadiko Gobernuaren informazio eta propagandaren bulegoan. Villa Mimosasen zegoen eta Jose Maria Lasarte zen bertako arduraduna. Familia, osorik, Baionan bizi izan zen hiru urtez, eta naziak hiri honetan sartzean Gurseko kontzentrazio-esparrura bidali zuten Juan zenbait hilabeterako.

Juanek ez zeukan Espainiara etortzerik. Ubaldo Segurarekin hitzarmena zeukan egina: berak hartuko zuen bere gain Peineteriari ezarritako isun handia; "erantzukizun politikoak" zirela-eta jarritako zigorra, alegia. Izan ere, Juanek deserrian segitzea pentsatuta baitzeukan. "Inoiz, Joxe Etxeberriak, Patrizioren semeak, esan zion gure aitari Legazpira bueltatzeko, be-

[es]

El exiliado Juan Iturbe

Juan Iturbe Apaolaza, el hijo de Benito y Petra, llevó una vida muy azarosa. Nacido a comienzos del siglo XX, fue uno de los socios de la Peinetería de Ubaldo Segura. Había aprendido alemán durante una estancia en Colonia, siendo un chaval, enviado por el propio Ubaldo, a quien le interesaba alguien que dominara ese idioma para las relaciones comerciales de su empresa.

Ubaldo, como se sabe, fue alcalde por el PNV en la República. Juan fue también un estacado dirigente del PNV en la localidad. Entre otros asuntos, trabajó para el sindicato de baserritarras. Al entrar los nacionales en Legazpi, en septiembre del 36, se marchó con la familia a Bilbao. Su esposa, Carmen Arzak (natural de Itsasondo) se fue con su hija, Arantza, a una casa de Santillana del Mar, junto a unos miembros de la familia Iriondo de la Calle Vieja, de la casa donde estuvo el Bar Txiki.

En junio de 1937 nació en Santillana del Mar la otra hija de Juan y Carmen, Garbiñe. Carmen Arzak se embarcó desde Laredo o Santoña (no se sabe con certeza) a Iparralde al mes de nacer Garbiñe. La otra niña, Arantza, tenía dos años. Juan Iturbe había comenzado a trabajar en Bayona, en la Oficina de Información y Propaganda del Gobierno de Euzkadi, que tenía su sede en Villa Mimosas, y estaba dirigida por José Mª Lasarte. La familia entera vivió en Baiona durante tres años. Pero luego, al entrar las tropas alemanas en esa ciudad, Juan fue internado durante unos meses en el campo de concentración de Gurs.

Juan no podía volver a España. Había convenido con Ubaldo que la fuerte sanción impuesta por los franquistas a los dirigentes de la Peinetería, "por responsabilidades políticas", sería asumida por él mismo, dado que pensaba seguir en el exilio. "Alguna vez Joxe Etxeberria, el hijo de Patricio, le dijo a

[eu] rak lagunduko ziola, baina aitak erantzun zion ez zuela horrelakorik egingo Franco bizi zen bitartean", adierazi zigun alaba Garbiñek.

Gero, 1940ko hamarkada hasiera aldera, euskal ordezkaritza Londresera aldatu zuten, eta Juan Iturbe bera ere hantxe jardun. Jaurlaritzaren ordezkaritza Parisa bueltatu zen bigarren mundu gerra bukatutakoan, eta Juanek ere halaxe egin zuen. Hiri horretan hil zen 1947ko ekainaren 5ean. Ospitalera eraman zuten eta, emazteak bazuenez Parisen ahizpa moja bat, honetxen bitartez hil aurreko azken orduak Villabonako emakume baten etxean eman zituen. Juan hil zenean, alaba Arantzak 12 urte zituen, eta Garbiñek 10.

Emaztea, Carmen Arzak, Legazpira itzuli zen 1940an, Baionako hiru urteko deserriratzearen ostean, naziak sartu baitziren hiri hartan. Legazpin ez zuen bizimodu errazik izan, frankistek oztopoak ipintzen zizkioten eta. Peineteriara joan zenean lan eske, esan zioten han, lana ematekotan, zakuak josten emango ziotela. 1947an, erabaki zuen atzera Parisa bueltatzea bere alabekin. Lau urtez, Uruguaiko kontsularen etxean egin zuen lan, zeinak ez baitzion Segurantza Sozialean kotizatu. Gero beste urte bat egin zuen "Prenataleko juduaren" etxean eta honek bai, kotizatu zion.

Alabetako batek, Garbiñek, esan zigun 10 eta 15 urte-bitartean (1947-1952) Paris ondoko umezurtzetxe batean bizi izan zela. Mojek gobernatutako etxea zen eta gustura bizi izan omen zen bertan, baina bazuen gabezia mingarri bat: ezin izan zuen inoiz amarekin batera lo egin. Uzten zioten harekin egoten, baina hilean behin bakarrik, eta egunez, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.

Carmen Arzak 1952an bueltatu zen Legazpira. Handik gutxira, berriz ezkondu zen, Isidro Ibarniarekin, zeina Araian jaioa baitzen eta Patrizioren fabrikan lan egitera etorria.

nuestro padre que volviera, que él respondería, pero el padre le respondió que mientras viviera Franco no pensaba hacerlo", nos comentó Garbiñe. [es]

Luego, a comienzos de los años 40, la delegación vasca fue trasladada a Londres, y Juan Iturbe trabajó también allí. La delegación del Gobierno Vasco regresó a París al acabar la segunda guerra mundial. Así, Juan volvió a la capital francesa y murió en esa ciudad el 5 de junio de 1947. Fue hospitalizado, y por mediación de una hermana de su esposa, que era monja en París, fue llevado a morir al domicilio de una mujer natural de Villabona. Juan falleció cuando su hija Arantza tenía 12 años, y Garbiñe 10.

La esposa, Carmen Arzak, había vuelto a Legazpi en 1940, tras los tres años de exilio en Bayona, y al entrar los alemanes en esa ciudad. Aquí no tuvo una vida fácil, dado que los franquistas no le ponían más que obstáculos. En la Peinetería solamente le ofrecieron trabajar cosiendo sacos. En 1947 decidió regresar a Francia con sus hijas. Trabajó durante cuatro años en el domicilio de un cónsul de Uruguay en París, quien no le cotizó a la Seguridad Social. Luego hizo otro año en la casa del "judío de Prenatal", quien sí le cotizó.

Una de las hijas, Garbiñe, nos comentó que entre los 10 y 15 años (1947-1952) residió en un orfanato cercano a París, regentado por unas monjas. Fue una estancia agradable, pero con una carencia: nunca pudo dormir con la madre, solo le permitían verla una vez al mes, de día, entre las diez de la mañana y las seis de la tarde.

Carmen Arzak volvió con sus hijas a Legazpi en 1952. Al poco tiempo se casó nuevamente, con Isidro Ibarnia, natural de Araia y que había llegado a Legazpi para trabajar en la fábrica de Patricio.

Luego, en 1958, el Ayuntamiento expropió el edificio, y otros colindantes en dirección a la parroquia,

[eu] Gero, 1958an, Udalak etxearen jabetza kendu zien bai Arrolanekoei bai aldameneko etxe batzuetakoei, apirilaren 25eko Ministroen Kontseiluak hartutako erabakiaren ondorioz. "Errenta mugatuko etxeak" egitea zen Madrilgo erabakiaren helburua, baina Garbiñe Iturbe beste iritzi batekoa da, iritzi kritikoa: "Hor beste gauza bat egin zuten, etxe berriak eraiki, gero Udaleko idazkariaren ingurukoentzat izan zirenak gehienbat".

Garbiñeren testigantza, berriz ere: "1952an Legazpira bueltatu eta gero, ahizpa Arantzari, frantsesa zekienez, deitu egin zioten zenbait fabrikatatik, hala nola Electromagnética eta Peineteriatik, itzultzaile lana egin zezan. Frantseseko eskola partikularrak eman zizkien Crucito Etxeberriaren semeei eta Larrañaga ingeniariarenei ere bai. Ni Donostiara joan nintzen, Casa Moro-n lan egitera. Behin, Loren pasa zen handik, Patrizioren alaba. Handik hilabetera deitu zidaten, fabrikako bulegoetan lan egiteko. Orduan, Joxe Aldabaldetrekurekin ezkondu nintzen". Ahizpa, Arantza, Victoriano Arrazolarekin ezkondu zen, herriko elkarte askorendako lan egin zuen pertsona, eta 2005ean Olaria sariarekin eskertu ziotena.

Pedro Mari Oria txapista

Pedro Mari Oria 'Donosti'-k ere merezi du aipamen berezia. 1910eko hamarkadan Itsasoko baserri batean jaioa, Beña izenekoa, familia umil bateko hamargarren umea zen. Bederatzi urte zituela, morroi bidali zuten Donostiako Aieteko Diuna baserrira. Bazituen senide batzuk Donostian, haietako bat suhiltzailea. Txapista hasi zen Amara Zaharrean. Arreba bat Casa Nicolasan ari zen eta, beronen bitartez, 1937an Patrizioren fabrikatik deitu zioten. Militarizatuta zegoen eta, halaxe, soldaduskara (eta gerrako frontera) joatetik libratu zen.

[es] como consecuencia del decreto del Consejo de Ministros de 25 de abril de ese año, "para la construcción de viviendas de renta limitada". Garbiñe era muy crítica: "Lo que realmente se hizo fue construir viviendas que posteriormente quedaron, en su mayoría, en manos de los allegados del secretario y alguno más".

Nuevamente el testimonio de Garbiñe: "Ya instalados en Legazpi a partir de 1952, a mi hermana Arantza, dado que sabía francés, le llamaban desde empresas como la Electromagnética y la Peinetería, para que hiciera de intérprete. Dio clases particulares de francés a los hijos de Crucito Etxeberria y a los del ingeniero Larrañaga. Yo fui a San Sebastián a trabajar en la tienda de telas Casa Moro. Un día pasó por la tienda Loren, la hija de Patricio. Al mes me llamaron de la fábrica para trabajar en la oficina. Entonces me casé con Joxe Aldabaldetreku". La hermana, Arantza, se había casado con Victoriano Arrazola, un hombre comprometido con varias asociaciones del pueblo y que sería reconocido en 2005 con el premio Olaria.

El chapista Pedro Mari Oria

El caso de Pedro Mari Oria 'Donosti' también merece mención. Nacido en la década de 1910 en el caserío Beña de Itsaso, era el décimo hijo de una familia humilde. Con nueve años fue enviado de 'morroi' (sirviente) al caserío Diuna del barrio de Aiete de la capital donostiarra. Tenía varios hermanos en la ciudad, uno de ellos bombero. Comenzó de chapista en Amara Viejo. Una hermana trabajaba en Casa Nicolasa y por mediación suya el año 1937 fue llamado por la fábrica de Patricio, que estaba militarizada, y así se libró de ir al frente de batalla en la guerra civil.



Pedro Mari Oriaren tailerra Murun (Jose Mari Oriak emana).



Basili Telleria eta Pedro Mari Oria (Jose Mari Oriak emana).

[eu] Legazpin zegoela, 'Donosti' ipini zioten gaitzizena. Patrizioren fabrikatik alde egin zuen 1945ean bere kasa hasteko txapista. Lehenbizi, tailerra Kale Berrian jarri zuen, Lagun Artea Berri kasinoa eta gero Aurrera taberna izango zenaren artean. Eta 1940ko hamarkada bukaera aldera, Arrolanera aldatu zen, iturbetarren etxe honetara. 'Txapuzak' egiten zituen baserritarrentzat eta beste partikular batzuendako, taladrinarendako erretiluak Urretxuko Pedro Rodriguezen enpresarentzat, gaztainak erretzeko danbolinak… Geroago, 1950eko hamarkadan, lantegi handiagoa muntatu zuen Murun, bere emazte Basili Telleriaren Muruazpi baserriaren ondoan. 2000. urtean hil zen.

Facundo Urzelai txistulari eta sakristaua

Facundo Urzelai zapataria (1895-1970) pertsonaia garantzitsua izan zen Legazpin. Kontseju-etxean jaioa, bi anaia izan zituen: Pedro (besteak beste, bi za-

[es] En Legazpi se le puso el sobrenombre de 'Donosti'. Dejó la fábrica de Patricio en 1945 para empezar por su cuenta como chapista o calderero. Su primer taller fue entre el casino Lagun Artea Berri y la casa que luego alojaría el bar Aurrera. Y luego, a fines de los 40, se trasladó a esta casa de la familia Iturbe. Hacía 'chapuzas' para los baserritarras y otros particulares, bandejas para taladrina para el empresario de Urretxu Pedro Rodríguez, tamboriles para asar castañas... Más tarde, todavía en la década de 1950, montó otro taller en Muru, al lado del caserío Muruazpikoa de su esposa Basili Telleria. Falleció en el año 2000.

Facundo Urzelai, txistulari y sacristán

El zapatero Facundo Urzelai (1895-1970) fue una persona relevante en el pueblo. Nacido en la casa del concejo, tuvo dos hermanos Pedro (padre de, entre otros, dos hijos zapateros, Rafael y David) y Eusta-



Ezker-eskuin, Facundo Urzelai txistu eta danbolinarekin, 'Manolo el cartero' txirula jotzen eta Juan Jose Cantero 'Tamborrerico' atabalarekin.



Erdian Facundo Urzelai. Ezkerreko aldean, Jose Ignazio Elorza (Lucio Vergara).

[eu] patariren aita: Rafael eta David) eta Eustaquio, hau berriz ezkondu ez zena eta beti Pedrorenean bizi izan zena. Facundok zapatari lanetik atera zuen bizimodua, oinetakoak eginez eta konponduz, eta gainera udal-txistulari eta sakristaua ere izan zen. Urtero, sanmigeletako festetan, Olaztin txistua jotzeko ohitura zeukan, eta baita Iruñeko sanferminetan ere. Hain zuzen ere, Olaztiko joaldien ondorioz, hango emakume batekin ezkondu zen: Maria Imaz.

Facundo EAJko kide izan zen eta, emaztearekin batera, batzokiaren arduradun Errepublikako urteetan. Nazionalak herrian sartzean 1936ko irailean, preso sartu zuten Puerto de Santa Mariako kartzelan. Handik lau urtera itzuli zen herrira.

Gerra ostean, sakristau hasi zen, sekula sosik kobratu gabe. Eta emazte Mariak ostiak egin ohi zituen. Halaber, udal-txistularia izan zen. 'Legazpi 1936' liburuak dioenez, enplegu hau kendu zioten gerra ostean, zigor gisa. Baina gero atzera lan horretan hasi zen, urte zehatza ez dakigularik. ❖

[es] quio, que no se casó y vivió junto con Pedro. Se ganó la vida como zapatero, fabricando y reparando zapatos, pero además fue txistulari municipal y sacristán. Acostumbraba tocar todos los años en Olazti, por las fiestas de San Miguel, y en los sanfermines de Pamplona, y a resultas de sus visitas a Olazti acabó casado con un mujer de esa localidad, María Imaz.

Facundo fue miembro del PNV y encargado, junto con su esposa, del batzoki en los años de la república. Al entrar los nacionales en el pueblo, en 1936, Facundo fue apresado y acabó en el penal de Puerto de Santa María. No pudo volver a casa en cuatro años.

Tras la guerra, trabajó como sacristán, sin cobrar ni una peseta. Su mujer María se encargaba de hacer las hostias.

También fue txistulari y tamborilero municipal. Según el libro 'Legazpi 1936', fue depurado y perdió ese empleo. No se sabe cuándo, pero luego lo recuperó. ❖



ARABAOLATZANEA (Atxaparro, Xamoranea, Patxi taberna)

8 ARABAOLATZANEA (Atxaparro, Xamoranea, Patxi taberna)



Ezker-eskuin, Santxoetxe, Santxoneaundi eta Arabaolatzanea (J.L.U.).

[eu] Jose Luis Ugartek bildutako datuen arabera, 1775ean "Pedro Martinez de Vicuñarena" esaten zioten etxe honi. 1832ko etxe-zerrenda batean ageri da, eta urte horretan jabea Juan Antonio Lardizabal (Segura, 1779) dugu, benetako handiki bat, garai horretan Bikuñako burdinolako eta Bikuñaandiko jauregiko nagusia baita. Baditu beste etxe batzuk ere, hala nola Kale Zaharreko Azkaratekoa (gero Oiarbidene izenez ezaguna) eta Elbarrenako Zabalotegi baserria.

1910ean, etxe honek 'Atxaparro', 'Atxaparrokoa' eta 'Zamoranea' zituen herri-deiturak. Bertan jaio zen, 1864an, Patricio Elorza, paper-fabrikako nagusia, eta 1832an bertan bizi zen gizon honen aitona, Santiago Elorza Ucelay. Miguel Ignacio Elorza Olaberria, Patrizioren aita, aldiz, aldameneko Arrolanea etxean bizi izan zen.

Hogeigarren mendeko hiru hamarkadatan, oraindik ere, Lardizabaldarrena izan zen, Bikuñaaundiko nagusiena. 1930ean Maria Teresa Lardizabal zen jabea.

1910ean, hiru lagun baino ez ziren bizi, eta horrek pentsarazten digu etxe txapala izango zela: Jose Ignacio Gorosabel Lasa 'Xamora' (55 urtekoa, Ormaiztegiko Zamora baserrian jaioa eta "jornalero agrícola"), emazte Maria Izagirre Arrizabalaga (Gabiria, 60 urte) eta seme Juan Bautista, 24 urtekoa. Gazte honek urteak zeramatzan lanean Patrizioren fabrikan; gainera, lehenengo langileetako bat izan zen.

Zalantzan gaude Juan Bautista Gorosabel Izagirrek (Gabiria, 1868) eraikina erosi zuenean, 1932an, nolako eraikina zen; alegia, Juan Bautistak ez ote zuen solairuren bat altxatu. Kontu segurua da 1933an egin zirela Kale Berriko fatxadak, bai hemengoa, bai aldameneko Alberdi burdindegi eta arropa-dendarena.

Erosi eta gero, Juan Bautistak obra handia egin zuen, integrala. Etxe hau eraitsi zenean, 2021. urtean, Jose

[es] Según el investigador José Luis Ugarte, en 1775 se conocía con el nombre de "la de Pedro Martínez de Vicuña". Este edificio aparecía en una lista de casas de 1832, y en esa época el dueño era Juan Antonio Lardizabal (Segura, 1779), un hombre muy bien posicionado, dado que era el señor del palacio de Bikuña y dueño de ferrería de igual nombre. También poseía en 1832 la casa Azkaratekoa de la Calle Vieja (conocida luego como Oiarbidenea) y el caserío Zabalotegi, del barrio de Elbarrena.

A comienzos del siglo XX, esta casa era conocida como 'Atxaparro', 'Atxaparrokoa' y 'Xamoranea'. Aquí nació Patricio Elorza, el dueño de la Papelera, y en 1832 era el lugar de residencia su abuelo, Santiago Elorza Ucelay. El padre de Patricio, no obstante, vivió en la casa cercana de Arrolanea.

Todavía a lo largo de tres décadas del siglo XX perteneció a la familia Lardizabal. En 1930, la dueña era María Teresa Lardizabal.

En 1910, en este edificio vivían solamente tres personas, lo que hace pensar que era una construcción baja: José Ignacio Gorosabel Lasa (de sobrenombre 'Zamora' o 'Xamora', por proceder de un caserío llamado así) de 55 años, nacido en Ormaiztegi y "jornalero agrícola"), su esposa María Izagirre Arrizabalaga (Gabiria, 60 años) y el hijo Juan Bautista, de 24, que ya llevaba años trabajando en la fábrica de Patricio Etxeberria. De hecho, fue uno de los primeros operarios.

Tenemos la duda de si Juan Bautista Gorosabel Izagirre (Gabiria, 1868), cuando compró el edificio, en 1932, levantó un piso más en el edificio. Lo que sí es seguro es que en 1933 se hicieron las fachadas nuevas que daban a la Calle Nueva, tanto en este edificio como en el colindante, el que albergó la ferretería y luego la tienda de ropas de Alberdi.

Tras comprar el edificio, Juan Bautista llevó cabo una obra integral. Al derribarse la casa, en 2021, el investigador José Luis Ugarte se percató de que la es-

[eu] Luis Ugarte ikerlaria konturatu zen porlanezko egitura zuela eta, hortaz, 1930eko hamarkada ezkerozko eraikina behar zuela. Aldameneko etxeek, aldiz, zurezko egitura daukate.

Juan Bautista Gorosabelen gurasoak 1887an azaldu ziren Legazpira eta Kale Zaharrean bizitzen jarri, zehatz ez dakigularik non. Aurretik, Gabiriako baserri batean eman zuten urte batzuk.

Orain ari garen etxeari dagokionez, beheko solairuan, 1931-36ko Errepublika garaian, 'Cooperativa Santa Cruz' izeneko denda zegoen, Solidaridad de Trabajadores Vascos (ELA) sindikatuak eragindako kooperatiba, alegia; eta lehenengo lehendakaria Pablo Lopez de Gereñu izan zuen. Gero Kale Nagusira pasa zen, orain Eroski dagoen tokira, alegia. Kale Nagusiko etxe hau 1935ean egin zen, sindikatu horrek eraginda.

1930eko udal-agiri batean esaten denez, Juan Bautista Gorosabelek bazuen janari-dendaren bat. Pentsatzekoa da etxean bertan izango zuela, beheko solairuan. Emazte Joaquinak gobernatzen zuen hura, alaben laguntzarekin.

Baina Juan Bautistak, batik bat, Patrizionean atera zuen bizimodua. Nagusiak 1904an eman zion hasiera bere errementari-jardunari, eta 1908rako hantxe zen Juan Bautista, laguntzaile.

1930eko hamarkada hasieran, bigarrengo solairuan Dolores Areizaga eta Martin Alustiza senar-emazteak jarri ziren. Martin eta anaia Araiatik etorriak ziren, Patrizioren fabrikan lan egiteko. Hantxe jaio ziren lehenbiziko bi seme-alabak, Ana Mari (1934) eta Prudencio. Gero familia Kale Berriko etxe batera joan zen, eta han beste bi seme jaio, Jose Ramon eta Pedro Mari. Azkeneko hau Ilintxa futbol taldearen lehendakari izan zen.

1936ko gerraren ostean, etxeko nagusiek, Juan Bautista Gorosabel Izagirre eta emazte Joaquina Mujika Berasategik (Segura, 1889), taberna jarri zuten, Bar

[es] tructura era de cemento, señal de que la casa se había reformado en los años 30. En cambio, las casas vecinas tienen estructura de madera.

Los padres de Juan Bautista llegaron a Legazpi en 1887 y se instalaron en la Calle Vieja, pero no sabemos en qué casa. Anteriormente, pasaron unos años en un caserío de Gabiria.

En el periodo republicano de 1931-1936, en la planta baja de este edificio, existió la tienda llamada 'Cooperativa', creada por el sindicato Solidaridad de Trabajadores Vascos (ELA). Su primer presidente fue Pablo López de Gereñu, y con la denominación de 'Cooperativa Santa Cruz', luego pasó a la Calle Nueva, al edificio construido en 1935 a instancias de ese sindicato. Era el edificio que luego albergaría el supermercado Eroski.

Según un documento del Ayuntamiento de 1930, Juan Bautista Gorosabel ya contaba entonces con una tienda de alimentación. Es de suponer que estaría en la planta baja de este edificio. Lo regentaba la esposa, Joaquina, con la ayuda de las hijas.

Pero Juan Bautista se ganó la vida sobre todo en la fábrica de Patricio. El patrono comenzó su actividad como herrero y fabricante de herramientas en 1904, y ya para 1908 aparece Juan Bautista como uno de sus ayudantes.

A comienzos de la década de 1930, en el segundo piso se instaló el matrimonio formado por Dolores Areizaga y Martín Alustiza. Tanto este hombre como su hermano Paco llegaron desde Araia para trabajar en la fábrica de Patricio. Allí nacieron los dos primeros hijos, Ana Mari (1934) y Prudencio. Luego la familia se trasladó a un piso de la Calle Nueva, donde nacieron otros dos hijos, José Ramón y Pedro Mari, que fue presidente del club de fútbol Ilintxa.

Tras la guerra de 1936, los propietarios de la casa, Juan Bautista Gorosabel Izagirre y su esposa Joaquina Mujika Berasategi (Segura, 1889), pusieron



Gorosabeldarrak. Juanita, Placida, Eulogia, Antonio, Carmen, Anita, Maria. Eta aita Juan Bautista eta ama Joaquina Mujika (Ixiar Ganzarainek emana).



Gorosabeldarrak, Felix Elorza eta Patxi Bengoetxea



Gorosabeldar zahar eta gazteak (Juan Carlos Anduezak emana).



Lehen planoan, eskuinaldean, Juan Bautista Gorosabel (Julian Apaolazak emana).

[eu] Gorosabel zeritzana. Juan Bautista 1972an hil; emazte Joaquina, 1977an. 1913an ezkondu ziren eta familia ugaria izan: Maria Gorosabel (Angel Muruarekin ezkondua), Juanita (ez zen ezkondu), Placida (Roman Ganzarain praktikantearekin ezkondua), Anita (ez zen ezkondu), Antonio (Hilaria Arostegirekin ezkondu zen Tolosara), Eulogia (Alejo Anduezarekin ezkondua) eta Carmen (egunkariko berriemaile izan zen Wenceslao Azpilikuetarekin ezkondua).

Tabernan, gehienbat bi alaba ibiltzen ziren serbitzen, Juanita eta Anita. Beheko solairu hartan, Kale Zahar aldetik, Placida eta Eulogiak ile-apaindegia eduki zuten.

[es] aquí taberna, con el nombre de Bar Gorosabel. Juan Bautista falleció en 1972; Joaquina murió cinco años más tarde. Se habían casado en 1913 y tuvieron familia numerosa: María Gorosabel Mujika (que se casó con Ángel Murua), Juanita (no se casó), Plácida (casada con el practicante Román Ganzarain), Anita (tampoco se casó), Antonio (casado con Hilaria Arostegi, residió en Tolosa), Eulogia (esposa de Alejo Andueza) y Carmen (se casó con el corresponsal de periódico Wenceslao Azpilikueta).

En la taberna familiar trabajaron sobre todo las hijas Juanita y Anita. Y al lado, también en la planta baja, tuvieron peluquería otras dos hijas, Plácida y Eulogia.



Patxi Plazaola, Guadalupe Plazaola, Angel Lonbide, Iñaki Aiastui, Mª Lorenza Plazaola, Joaquin Plazaola, Maria Lizarazu eta Tomas Lonbide (Angel Lonbidek emana).



Patxi tabernan jardundako Guadalupe Plazaola Lizarazu eta seme Angel Lonbide (Angel Lonbidek emana).



Miren Arsuagaren ahizpa Marisabel, Patxi tabernako barran (Miren Arsuagak emana).

[eu] Geroago, 1961-65 epean, Patxi (Francisco Javier) Plazaola Lizarazuk hartu zuen errentan taberna. Eta hain zuzen ere, orduantxe hartu zuen tabernak Patxiren izena. Lau urte egin zituen lantegi horretan Patxik, bere bi arrebek lagunduta (Guadalupe eta Mª Lorenza). Gero pinu-landarea saltzetik atera zuen bizimodua. Bere mintegi propioak zituen zenbait menditan.

Patxi Kale Berrian jaioa zen, 1932an, hain zuzen ere tabernaren parean, gero Txairo arropa-denda egongo zen eraikinean. Lau senide izan ziren: Guadalupe (1925, Tomas Lonbiderekin ezkondua), Angel (26 urterekin hildakoa), Francisco Javier 'Patxi' (1932) eta Mª Lorenza. Patxiri bi arrebek laguntzen zioten tabernan, batez ere sukaldean, izan ere toki

[es] Más tarde, en el periodo 1961-65, Patxi (Francisco Javier) Plazaola Lizarazu tuvo a renta la taberna. Y entonces se comenzó a llamar Bar Patxi. El hombre trabajó ayudado por dos hermanas, Guadalupe y Mª Lorenza. Posteriormente se dedicó a producir planta de pino, con viveros propios en varios montes.

Patxi nació en la Calle Nueva en 1932, en la acera de enfrente; exactamente, en el edificio que albergó la tienda de ropas Txairo. Eran cuatro hermanos: Guadalupe (1925, casada con Tomás Lonbide), Ángel (muerto a los 26 años), Francisco Javier 'Patxi' (1932) y Mª Lorenza. Las dos hermanas ayudaban a Patxi en la cocina, ya que, aunque el local no era un restaurante al uso, daba también de comer, sobre todo pintxos. El cuñado Tomás también ayudaba. "Tener



Patxi tabernako Miren Arsuaga, Eladio Lonbide senarra eta alaba Amaia (Miren Arsuagak emana).



Patxi tabernako Miren Arsuaga, alaba Ines eta 'Txato' (Miren Arsuagak emana).



Patxi tabernako sukaldean Miren Arsuaga lanean (Miren Arsuagak emana).

[eu] hura ez zen jatetxe, baina jatekoa ere ematen zuen, pintxoak-eta. Koinatu Tomasek ere laguntzen zion. "Taberna edukitzea Legazpin, ez pentsa negozio handia zenik. Orduan jendeak gastatzeko diru gutxi edukitzen zuen", esan zigun Patxik.

1965ean, Patxik Eladio Lonbide eta Miren Arsuaga senar-emazteei traspasatu zion negozioa; bere koinatuaren anaia bati, alegia. Gizon hau laster hil zen, 1971n, Aztirira zizatara joanda, bihotzekoak jota. 40 urte zituen. Patrizioren fabrikan ari zen lanean, segategian. Hasiera hartan, Miren Arsuagak gidatzen zuen taberna, anaia Joxeren laguntzarekin, baina honek bi urte egin zituen bakarrik, negozio berria zabaldu zuelako Kale Berrian, Aurrera taberna.

[es] entonces restaurante en Legazpi no era un gran negocio, ya que la gente apenas tenía dinero para gastar", nos comentó Patxi.

En 1965, Patxi Plazaola traspasó el negocio a Eladio Lonbide y su esposa Miren Arsuaga; es decir, a un hermano de su cuñado Tomás. Eladio falleció tempranamente, en 1971, a los 40 años, de un infarto cuando había ido a Aztiri a buscar zizas. Trabajaba en la sección de guadañas de Patricio. En aquellos comienzos, Miren Arsuaga era la que gobernaba la taberna, con ayuda de su hermano Joxe, pero este hombre solo hizo dos años, dado que abrió negocio propio en la Calle Nueva, el bar Aurrera.

[eu] Miren eta Eladio taberna gainean bizi ziren, bigarren solairuan, errentan, gorosabeldarren pisu batean. Miren gehienbat sukaldean jarduten zen, eta barran ahizpa bat, Marisabel Arsuaga; hala ere, beste neska batzuk ere aritzen ziren orduka. Sukalde hartan lan handia zegoen, era askotako pintxoak egiten zirelako: muturrak, tripakiak, gibela… eta patata frijituak. "Arratsaldean, tutua jotzen zuenerako, edalontzi-ilara ipintzen genuen barran, eta patata frijituak gatzarekin, langileak segituan azaltzen ziren eta", esan zigun Mirenek. Igandeetan ere, arratsaldeko futbol partida bukatu eta segituan izaten omen zen bezero uholdea.

1969-70 aldera Jesus Arregi 'Txato', Oñatiko Arantzazuko gizona hasi zen tabernan laguntzen, barran. Hogeita hamar urte eman zituen bertan, 2001era arte. Orduantxe itxi zen taberna. "Txatok asko-asko lagundu zigun. Eskerrak hari!", esan zigun Mirenek.

1970. hamarkada hasieran erabat aldatu zen sukaldeko lana. "Horrenbeste kazuela desberdin, horrenbeste pintxo-klase, sekulako lana zen, ez genuen burutzen. Hitz egin nuen Odriozola harakinarekin, behar nuen haragi mota merke eta on bat gisatzeko, eta erabaki genuen petxoarekin hastea. Oso goxoa geratzen zen, arrakasta handia izan genuen".

Arratsaldeetan, lehenengo orduan, hango mahaiak kartazaleekin betetzen ziren. "Kafe konpletoa" zen orduan ohitura. Makina bat faria (puru merke) saldu ohi ziren. Ke-arteko urteak izan ziren haiek.

Gorosabeldarrekin, alokairu-kontratua hamar urterako egiten zen. Esan bezala, 2001ean itxi zen taberna, azkeneko hiru urteetan, Txatorekin batera, Mirenen alaba Ines eta beronen senar Asier Ezama jardun zirelarik. Baina iritsi zitzaion Txatori erretiratzeko adina, Inesek eta Asierrek lan finkoa lortu zuten eta ixtea erabaki. Azkeneko egunean derbia zegoen, Reala eta Athleticen artekoa. Sekulako giroa. Eta Txatorena jakina zen: hura beti Athleticen alde.

[es] Miren y Eladio vivían en el segundo piso, a renta, en una vivienda que también pertenecía a los Gorosabel. Miren trabajaba sobre todo en la cocina del bar, y en la barra atendía su hermana Marisabel Arsuaga. No obstante, había otras chicas que ejercían por horas. En esa cocina se trabajaba duro, dado que se hacían varias clases de pintxos: morros, callos, hígado… y patatas fritas. "A las tardes, para cuando sonaba el 'tutu', ya teníamos en la barra una hilera de vasos y patatas fritas con sal", nos comentó Miren. Los domingos, al acabar el partido de fútbol, era otro momento en el que los clientes entraban en masa.

Hacia 1969-70, Jesús Arregi 'Txato', natural del barrio oñatiarra de Arantzazu y empleado de Patricio, comenzó a servir en la barra. Pasó ahí treinta años, hasta 2001, año en el que se cerró la taberna. "Txato nos ayudó mucho, realmente mucho. Gracias a él", nos dijo Miren.

A comienzos de la década de 1970 cambió radicalmente el trabajo de la cocina. "Era muy difícil gestionar tantas cazuelas, tanta clase de pintxos. No llegábamos. Hablé con el carnicero Odriozola y le dije que necesitaba una carne que no fuera cara y valiera para guisar. Empezamos a trabajar carne de pecho. Quedaba muy rica, tuvimos un gran éxito".

A las tardes, a primera hora, las mesas se llenaban para las partidas de cartas. Entonces la costumbre era tomar "café completo". Vendían una gran cantidad de farias (puros baratos). Eran tiempos con mucho humo de tabaco.

Miren Arsuaga renovaba el contrato de alquiler con los Gorosabel cada diez años. Como se ha dicho, la taberna se cerró en 2001, y en los últimos tres años en la barra trabajaron, además de Txato, una de las hijas de Miren, Inés, y el marido de ésta, Asier Ezama. Ocurrió que Txato llegó a la edad de jubilación y los dos jóvenes lograron sendos empleos fijos fuera del bar. El último día hubo derbi entre la

[eu] Taberna-kontuak alde batera utzita, esan dezagun Juan Bautista Gorosabel eta Joaquina Mujika eraikin honetan bizi izan zirela, lehenbiziko solairuan. Hor bizitza bat bakarra zegoen, handia. Alaba Maria bigarrengo solairuan bizi izan zen hamabost bat urtez, Angel Murua senarrarekin, eta hantxe jaio ziren beren seme-alaba denak. Eulogia eta senar Alejo ere han bizi izan ziren, zortzi bat urtez, hirugarrengo solairuan, eta bi seme jaio bertan. Alaba Placida eta Roman ere bizi izan ziren urte eta erdiz, eta hantxe jaio lehenengo semea; eta Antonio eta Hilaria ere bai.

Juan Bautista eta Joaquinaren bi alaba, Anita eta Juanita, ez ziren ezkondu eta taberna gainean bizi izan ziren. Gurasoen zaintzaile izan ziren azken etapan. Juanita 2008an hil zen, Anita 2015ean. Goi-goiko atikoan, lau hamarkadatan zehar, hogeita batgarren mende hasiera arte, Adolfo Dominguez eta Emiliana Perez bizi izan ziren, hasieran beren hiru seme-alabekin, gero seme Danielekin soilik.

2005ean, gorosabeldarrek saldu egin zioten eraikina Promotora Latxartegiri, eta honek gero Kutxari. Azkenean, eraikin osoa eraitsi egin zuten 2021ean.❖

[es] Real y el Athletic, con un gran ambiente y con Txato a favor del equipo de Bizkaia, como toda su vida.

Al margen de la taberna, digamos que Juan Bautista Gorosabel y su esposa Joaquina vivieron en este edificio, en la primera planta, que contaba con solo una vivienda, muy amplia. En la segunda planta residieron, durante unos quince años, la hija María y su esposo Ángel Murua, y allí nacieron todos sus hijos. La hija Eulogia y su esposo Alejo también vivieron allí, en la tercera planta, durante unos ocho años, y nacieron los dos primeros hijos. También residieron en el edificio la hija Plácida y su esposo Román, durante año y medio; y el hijo Antonio y su esposa Hilaria.

Dos hijas de Juan Bautista, Anita y Juanita, no se casaron y vivieron en la primera planta, encima del bar, y fueron quienes cuidaron de los padres en la última etapa. Juanita murió en 2008, Anita en 2015. En la buhardilla, a lo largo de cuatro décadas, hasta comienzos del siglo XXI, vivieron Adolfo Domínguez y su esposa Emiliana Pérez, primero con sus tres hijos, luego solo con el hijo Daniel.

En 2005, los Gorosabel vendieron todo el edificio a Promotora Latxartegi, y luego esta lo traspasó a la Kutxa. Se derruyó completamente en el año 2021.❖






Etxea 2021ean eraitsi zuten (Mikel Untzillak emanak).



SANTXONEAUNDI (Txaboliñenea, (Alberdi jantzidenda, 9 SANTXONEAUNDI (Txaboliñenea, Casa Alberdi)



Etxea Kale Berritik ikusita (Itziar Alberdik emana).



Nafarroa kaletik.

[eu]

Alberdi arropa-denda egondako etxea da. Etxearen zurajearen ikerketa dendrokronologikoa egin zen orain urte gutxi eta, halaxe, jakin da hura egiteko zuhaitzak 1727. urtean bota zirela. Legazpiko udal artxiboko aipamen aspaldikoena 1787koa da.

1843. urtean bi familia bizi ziren hemen. Horietako bat, Martin Etxeberria Zabaletarena. 1831n Josefa Agirre Makibarrekin ezkondu eta semeok eduki zituzten: Jose Ignacio Etxeberria Agirre (1827, "hijo natural"), Ignacio Fernando (1831) eta Joaquin Mª (1837)

1894. urtean, berriz, Victor Etxeberria Oruezabal bizi zen "Bittor zapatarie", guraso hauen seme: Jose Ignacio Etxeberria Zabaleta (1822, Legazpi) eta Dominica Oruezabal Zufiria (Oñati).

Ez du ematen 1843. urtean bizi zirenekin ahaidetasunik zeukatenik.

Hogeigarren mende hasieran, etxe honek herri-deitura Txanboliñenea zuen. Roque Azpeitia danbolinjotzailea bizi baitzen bertan.

1940an, Francisco (Patxi) Osinalde Muruak (1910ean jaioa), artean ezkongabea, Faustino Urzelairi erosi zion eraikin osoa. Beheko solairuaz gain, baziren beste bi pisu eta ganbara ere. Bebarruan burdindegia zabaldu zuen Osinaldek eta bertan egin zuen lan 1956ra arte. Denda ez zen burdindegi hutsa; altzariak ere saltzen zituzten Patxik eta emazteak (kanpotik jende asko ailegatzen ari baitzen herrira), eta baserriko tresnak. Alaba Arantxak gogoan zuen nola etortzen zitzaien Burgostik gizon bat txintxarriak eta dunbak eskainiz. "Asko gustatzen zitzaidan txintxarriak probatzea, soinu oso polita egiten zuten eta", esan zigun. Dendak bi sarrera zituen; Kale Zaharretik sartuta, aurrena altzariak zeuden; Kale Berritik sartuz gero, lehenbizi burdindegia ikusten zuen bezeroak.

Legazpiko Mendiarasgoiko baserrian jaioa zen Patxi. Anaia zaharrenak, Ferminek, gozotegia jarri zuen Zumarragan, eta beste anaia bat, Joxe, Mutrikura

[es]

Es la casa en cuya planta baja estuvo la tienda de ropa de Alberdi. No hace mucho se hizo un análisis dendrocronológico, y la concusión es que las vigas de madera procedían de un árbol talado en 1727. La mención más antigua encontrada en los archivos municipales es de 1787.

En 1843 vivía aquí Martín Etxeberria Zabaleta, casado en 1831 con Josefa Agirre Makibar. Tenían tres hijos: José Ignacio Etxeberria Agirre (1827, "hijo natural"), Ignacio Fernando (1831) y Joaquin Mª (1837).

En 1894 residía Víctor Etxeberria Oruezabal, "Bittor zapatarie", hijo de José Ignacio Etxeberria Zabaleta (1822, Legazpi) y Dominica Oruezabal Zufiria (Oñati). No parece que tuvieran parentesco con los anteriores Etxeberria.

A comienzos del siglo XX, la gente se refería a esta casa con el nombre de Txanboliñenea, porque ahí vivía Roque Azpeitia, que tocaba el tamboril.

En 1940, Francisco (Patxi) Osinalde Murua (nacido en 1910) compró todo el edificio a Faustino Urzelai. Constaba de planta baja, dos pisos y desván. Abajo, Osinalde abrió una ferretería, en la que trabajó hasta 1956. No era una simple ferrería, Patxi y su esposa Amparo también vendían herramientas para los baserritarras y muebles, necesarios para los contingentes de gente que llegaban a trabajar al pueblo. La hija Arantxa recordaba a un viajante que llegaba de Burgos ofreciendo cencerros de diferentes tamaños. "Me gustaba probarlos, porque tenían un sonido precioso", nos comentó. La tienda tenía dos entradas; si se accedía de la Calle Vieja, primero se veían los muebles, y si se hacía desde la Calle Nueva, los artículos de ferretería.

Patxi Osinalde Murua había nacido en el caserío Mendiarasgoiko de Legazpi. El hermano mayor, Fermín, tuvo pastelería en Zumarraga. Otro hermano, Joxe, fue a Mutriku y abrió carnicería. Patxi hizo un cursillo mientras realizaba el servicio militar y accedió al puesto de miquelete. Se le destinó a Az-



Amparo Larrañaga, Patxi Osinalde eta alaba Arantxa (Arantxa Osinaldek emana).



Patxi Osinalderen askapen agiria.

[eu] joan eta harategia zabaldu. Patxi, soldadutza garaian ikastaroa egin eta Errepublika garaian mikelete izan zen, eta Azkoitira destinatu, han ezagutu zuelarik gero emazte izango zuena, Amparo Larrañaga Uria. 1936ko gerra piztean Errepublikaren alde borrokatu zuen eta azkenean Duesoko kartzelan bukatu zuen preso.

Kartzelaldia ez zen oso luzea izan, eta gero Ourensera bidali zuten, "trabajadoreetara". 1939an askatu zuten, berriz ere mikelete-lana eskatu zuen, baina Diputazioak ukatu egin zion. Patxiren amak, Clotildek, Patrizio Etxeberriarengana jo zuen, semearentzako lan eske, baina hark esan zion debekatua zeukala 'gorriei' lana ematea. Handik gutxira, Patxi eta Amparo ezkondu eta Legazpiko etxe honetan jarri ziren bizi izaten. 1942an alaba Arantxa jaio zitzaien.

Dendan andre-gizonak egoten ziren. Familia honek 1956an alde egin zuen, Azkoitira. Amparok bere jaioterrira itzuli nahi zuen eta. Ikusten zuten Legazpi hazten ari zela, bezeroak ugaltzen ari zirela eta laguntzaileren bat kontratatu beharko zutela, baina horretarako gogorik ez. Azkoitian, kontratista hasi zen Patxi Osinalde, arrakasta handiz.

1956an, Felipe Alberdi Antiak (Azkoitia, 1922) hartu zuen Patxi eta Amparoren negozioa, errentan. Elektrikaria zen eta, aurrena Legazpira etorri zen argindarkoitia y allí conoció a la que sería su esposa, Amparo Larrañaga Uria. Al estallar la guerra de 1936 combatió en el bando republicano y acabó preso en el penal de Dueso. [es]

La estancia en la cárcel no fue larga y le destinaron a un batallón de trabajadores en Ourense. Liberado en 1939, pidió el reingreso en los miqueletes, pero la Diputación se lo negó. La madre de Patxi, Clotilde, acudió adonde Patricio Etxeberria, y el patrono le dijo que tenía prohibido contratar a 'rojos'. Al poco tiempo, Patxi y Amparo se casaron y se instalaron en esta casa. En 1942 nació su hija Arantxa.

En la tienda trabajaba el matrimonio. Como se ha dicho, esta familia se marchó a Azkoitia en 1956, porque Amparo prefería vivir en su pueblo natal. Veían que Legazpi estaba creciendo, que los clientes aumentaban y deberían contratar un ayudante para la tienda, y eso no les apetecía. Una vez en Azkoitia, Patxi Osinalde comenzó a trabajar de contratista, con gran éxito.

En 1956, Felipe Alberdi Antia (Azkoitia, 1922) cogió a renta el negocio de la planta baja de esta casa. Era electricista y previamente había venido a Legazpi para trabajar en postes para la luz. Sus padres cuidaban una central eléctrica en Aizpurutxo, de nombre Alberdi, pero los dueños no eran de la familia.



Osinaldetarrak (Arantxa Osinaldek emana).



Felipe Alberdi eta Maritxu Jauregi emaztea 2005ean (Itziar Alberdik emana).

[eu] posteak ipintzeko. Feliperen gurasoek Aizpurutxo aldeko argindar-zentral bat zaintzen zuten, Alberdi izenekoa, baina nagusiak beste familia batekoak ziren.

1965ean, Felipe Alberdik eta emazteak (Maritxu Jauregi Elgarresta, Urretxu, 1929) erosi egin zioten eraikin osoa Osinalderi. Handik aurrera, hor jarraitu zuen burdindegiak, baina jenero aukera zabalagoz, eta elektro-gailu handiak ere hasi zen saltzen Alberdi, hala nola hozkailu eta garbigailuak; eta Gabonak iristen hasten ziren garaian, baita jostailuak ere. 1970eko hamarkadan, guztiz aldatu zen negozioaren norabidea, soilik arropa eta jantziak saltzen hasi ziren.

Itziar Alberdi Jauregi (Urretxu, 1956), azken dendariaren testigantza: "Gure aitaren arreba bat, Manoli Alberdi, Azkoitian oihal-denda zeukan. Ikusita jenero hori saldu egiten zela, gure gurasoak ere hasi ziren oihalak, izarak eta mantelak saltzen, eta gero, 1970eko hamarkada hasieran-edo, baita jantziak ere". 2019ko irailaren 27an itxi zen denda betiko.

Eta denda gaineko etxebizitzei dagokienez, 1940ko hamarkadan, lehen solairuan, Patxi Osinalderen familia bizi izan zen. Bigarrengoan, Julian Errasti bere gurasoekin, Fausto eta Sara; eta aldamenean basabetarrak; familia honi buruzko informazioa, aldameneko etxearen atalean osatu dugu, hor eduki baitzuten janari-denda.❖

[es] En 1965, Felipe Alberdi y su esposa Maritxu Jauregi Elgarresta (Urretxu, 1929) compraron a Osinalde todo el edificio. A partir de entonces, una parte del bajo siguió siendo ferretería y además se amplió la oferta a los electrodomésticos grandes, como lavadoras y frigoríficos; y cuando llegaban las Navidades se ofrecían también juguetes. En la década de los 70 optaron por vender solamente ropa.

Testimonio de Itziar Alberdi Jauregi (Urretxu, 1956), hija de Felipe y Maritxu, y última encargada de la tienda: "Una hermana de nuestro padre, Manoli Alberdi, tenía tienda de telas en Azkoitia. Viendo que ese género tenía salida, los padres comenzaron aquí en la tienda de Legazpi a vender telas, sábanas y manteles, y más tarde ropa y vestidos". La tienda cerró definitivamente el 27 de septiembre de 2019.

Por lo que respecta a las viviendas de los pisos superiores, en el primero, en los años 40, vivieron los Osinalde; en el segundo, Julián Errasti con sus padres, Fausto y Sara, y en la otra mano los Basabe.❖



SANTXOETXE (Santxonetxiki, Gasparrenea Basaberen denda)

10 SANTXOETXE (Santxonetxiki, Gasparrenea Basaberen denda)



Etxea Kale Berritik ikusita (F.I.O.).



Arabaolatzanea, Santxoneaundi eta Santxoetxe (J.L.U.).

[eu]

Oso aspaldiko etxea, 1609an Sanchoeche izenez aitatzen dena (Legazpi Seguratik askatu eta hurrengo urtean). Uste dugu etxe hauxe dela 1787ko agiri batean azaltzen dena 'Canchorena (sic) menor' izenez. Jabea Juan Antonio de Jauregui y Gorosabel zen, Joseph de Jauregi eta Francisca de Gorosabelen seme legitimoa. Etxea berea zuen, dohaintzan jasota, Domingo de Jauregi, herri honetako presbitero eta benefiziodunarengandik (AHPG-GPAH 1/4276, A:297r-301r).

1798ko beste agiri batean adierazten da 'Chanchorena menor'-eko jabea Juan Antonio de Jauregi Gorosabel (Legazpi, 1759) dela, zeina Zumarragan bizi baita (AHPG-GPAH 1/4287, A:283r-285v), hango Maria Manuela Mendia Arabaolazarekin ezkonduta.

Etxe hau, azkenaldian, Gaspar Alustiza Egañaren (Legazpi, 1879-1961) zenbait ondorengorena izan da. 1936ko gerra ostean eta beranduago ere bai, jendeak Gasparrenea esan ohi zion etxeari, baina, dirudienez, egiazko jabea Gaspar haren emaztea zen, Felipa Mujika (Gabiria, 1873).

Hasieran, bizi, Elizondoko etxean (Arrolategin) bizi ziren senar-emazteok. Gero Gasparrek, jakina denez, hotela eraiki zuen kale berri buruan, bere izenarekin bataiatua, eta bertan bizitzen jarri. 1920. urtetsuan izan zen, eta eraikina hor dago orain ere zutik. Jatetxea ere bazen, eta sukaldari emazte Felipa jarduten zen. Serbitzen, 'dontzeila' batzuk aritzen ziren, hala nola Lakiolako Paula Romaratezabala eta Zurrantegiko Bittori Arruebarrena. Biloba Gasparrek esan digunez, bazen Burgostik etorritako neska bat, zerbitzen jarri eta, argindarraren berri ez zekienez, saiatu zena sabaiko bonbilla itzaltzen zapatila botata.

Garraiolari ere aritu zen Gaspar, eta postari. Hegaztiak harrapatzeko zepoak ere egiten zituen, zientoka, etxekoek lagunduta. Gainera, egunkariak saltzen zituen. Azkeneko jarduera horretan ariko zen gero Gaspar biloba 1960ko hamarkadatik aurrera.

Errepublika garaian, 1936ko otsailean, hauteskundeen bezperetan, kontserbadoreen aldeko manifestua

[es]

Casa muy antigua, que ya aparece citada, con la forma de Sanchoeche, en 1609, al año siguiente de que Legazpi se independizara de Segura.

Creemos que es la casa que en 1787 aparece citada como 'Canchorena (sic) menor'. Su dueño era Juan Antonio de Jauregui Gorosavel, hijo legítimo de Joseph de Jauregui y Francisca de Gorosavel. La había recibido en donación de manos de Domingo de Jauregui, presbítero y beneficiado de la parroquia de esta villa (AHPG-GPAH 1/4276,A:297r-301r).

En otro documento de 1798, se expresa que el dueño de esta casa (denominada 'Chanchorena menor'), Juan Antonio Jauregi Gorosabel (Legazpi, 1759), residente en Zumarraga (AHPG-GPAH 1/4287, A:283r-285v), casado con una mujer de esta localidad, María Manuela Mendia Arabaolaza.

El edificio, en las últimas décadas, ha sido propiedad de descendientes de Gaspar Alustiza Egaña (Legazpi, 1879-1961). Tras la guerra de 1936 y también después, la gente se refería a la casa como Gasparrenea, pero al parecer la verdadera propietaria era la mujer de Gaspar, Felipa Mujika (Gabiria, 1873).

Este matrimonio vivía antes en Arrolategi, la casa del Bar Elizondo. Más tarde, hacia 1920, Gaspar edificó un hotel en el extremo de lo que luego sería la Calle Nueva, y lo bautizó con su nombre. El edificio sigue en pie. También era restaurante, y Felipa ejercía de cocinera. Varias 'doncellas' trabajaban en las habitaciones y el comedor, como por ejemplo Paula Romaratezabala, de Lakiola, y Bittori Arruebarrena, de Zurrantegi. Según nos comentó Gaspar Alustiza, el nieto del fundador, había una criada llegada de Burgos, que apenas sabía lo que era la electricidad, e intentó apagar una bombilla lanzándole la zapatilla.

Gaspar ejerció también de transportista y de cartero. Hacía centenares de cepos para atrapar aves, ayudado por los miembros de la familia. Además, vendía la prensa, y su nieto Gaspar ejerció ese mismo oficio a partir de la década de 1960.



Felipa Mujika eta Gaspar Alustiza hotel aurrean, seme-alabekin (Gaspar Alustizak emana).



Alonso Alustiza eta Conchita Madinabeitiaren ezkontza (Gaspar Alustizak emana).

[eu] sinatu zuen Gasparrek. "Iraultzaile" eta "separatistei" botorik ez emateko eskatu zuten legazpiar ezagunok agiri horretan: Pedro Segura, Patricio Etxeberria, Lucio Sarasola, Joaquin Bereziartu, Francisco Mantxola, Zoilo Aldasoro, Felix Etxeberria eta Gaspar Alustizak. Horren berri gehiago, Jose Mª Urcelayren liburu honetan: 'Legazpi siglo XX: hitos en el camino hacia la modernidad'.

Gaspar eta Felipak lau alaba eta mutil bat izan zuten: Alonso (1906-1974), Pepita (1908), Marcelina (1910), Elisa (1912) eta Julia (1914).

Alonso, Araiako Conchita Madinabeitiarekin ezkondu zen 1936an. Kale Nagusian, Telleria-Enean bizi izan ziren. Umetan hanketako paralisia izan zuen eta bizi guztian herren egin zuen nabarmen. Hanka bat motzagoa zeukan eta berak egokitzen zuen oinetakoa, takoi luzeagoa ipinita. Patrizionean egin zuen lan, uhalgile, eta horrez gain zapatari-tailertxoa eduki zuen, non, hala ere, gehienbat koinata Carmen Madinabeitiak egin baitzuen lan. 1940ko hamarkadan, etxeko zapatillak ('salto de cama') egiteko tailerra muntatu zuen Kalebarrenean, non sei-zortzi

[es] En la República, antes de las elecciones de febrero de 1936, Gaspar fue uno de los firmantes de un manifiesto a favor de los candidatos conservadores. Varios legazpiarras distinguidos pidieron no votar a "revolucionarios y separatistas": Pedro Segura, Patricio Etxeberria, Lucio Sarasola, Joaquín Bereziartu, Francisco Mantxola, Zoilo Aldasoro, Félix Etxeberria y Gaspar Alustiza. José Mari Urcelay aportó más información en su libro 'Legazpi siglo XX: hitos en el camino hacia la modernidad'.

Gaspar y Felipa tuvieron cuatro hijas y un hijo: Alonso (1906-1974), Pepita (1908), Marcelina (1910), Elisa (1912) y Julia (1914).

Alonso se casó en 1936 con Conchita Madinabeitia, que era natural de Araia. Se instalaron en la Calle Nueva, en la casa Telleria-Enea. Tuvo parálisis infantil y siempre cojeó ostentosamente. Tenía un pie bastante más corto y él mismo se encargaba de preparar un calzado con tacón más alto. Trabajó en la fábrica de Patricio como guarnicionero. Además, tuvo un taller de zapatería propio, en el que trabajaba sobre todo su cuñada Carmen Madinabeitia. En la dé-

[eu] emakume jarduten baitziren. Kontabilitatearen arduradun, berriz, Brinkolazarren jaio eta kalean bizi zen Mateo Zabaleta. Zehazkiago esanda, lehenbizi, Errepublika garaian, 'Txiki' taberna egondako tokian, eta gero Joxe Martin traperoaren almazena izandakoan izan zen tailertxo hura.

Osasun eskaseko gizona izan zen Alonso Alustiza. Tuberkulosia izan zuen eta Andazarrateko ospitalean eduki zuten, seme-alabak beste etxe batzuetara eraman zituztelarik, kutsa ez zitezen. Bi alaba nagusiak, esaterako, Araiara eraman zituzten, eta seme Gaspar, berriz, aitapontearen etxean utzi zuten, Jose Mari Bereziarturenean. Gero, 1956an, berriro eraso zion tuberkulosiak eta birika zatia kendu zioten. Orduan, Donostiako 'Hospital del Tórax' delakoa estreinatu zuen; eta gero 'Hospital Anticanceroso', izan ere erretzaile porrokatua zenez masailezurrean minbizia sortu zitzaion.

Oso-oso zezenzale izan zen eta, galdetzen ziotenean, esan ohi zuen zezenak harrapatuta gelditu zela herren egiten zuela. Seme Gaspar ezkondu zen, 1972an, eta ezkonbidaiatik itzultzen ari zela, Lloret de Mar-en zezenketa-kartela ikusi zuen. Bi toreroren izenak ageri ziren, Antonio Bienvenida eta Julio Aparicio, eta bien artean zuriunea. Gasparrek eskatu zion dendariari tarte horretan hauxe idazteko: 'Alonso, cojo de Legazpia'. Legazpira iritsi, aitari eman eta ikaragarri poztu zen. Segituan joan zen Toki Alai tabernara eta bertako paretan eskegi.

Basaberen denda

Beheko solairuan, 1940an denda zabaldu zuten basabetarrek, Felix Basabek eta emazte Blasa Saenz de Buruagak. "Blasaren dendara noa", esaten zuen jendeak, batez ere emakume hau egoten zen eta. Gerratik ihesi azaldu ziren Legazpira 1936an bertan. Legution bizi ziren eta lehergailu batek etxea txikituta

[es] cada de 1940 fundó un taller de fabricación de zapatillas ('salto de cama') en una de las casas de Kalebarren, en el que trabajaban seis u ocho mujeres, con Mateo Zabaleta (nacido en el caserío Brinkolazar) como jefe de contabilidad. Más concretamente, el taller estuvo en el bajo en el que en la República estuvo el Bar Txiki y luego sirvió de almacén para el 'trapero' Joxe Martin.

Alonso Alustiza fue un hombre de poca salud. Contrajo la tuberculosis y estuvo recluido en el sanatorio de Andazarrate. Llevaron a sus hijos a otras casas para que no se contagiaran. Por ejemplo, las dos hijas mayores acabaron en Araia, y el hijo Gaspar en casa de su padrino, José Mari Bereziartu. Más tarde, en 1956, recayó en esa enfermedad, y le extirparon parte de un pulmón. Estrenó el Hospital del Tórax de San Sebastián, y más tarde el Hospital Anticanceroso, ya que era fumador empedernido y sufrió cáncer de mandíbula.

Fue muy aficionado a los toros y, cuando le preguntaban, respondía que era cojo a resultas de una cogida. El hijo Gaspar se casó en 1972, y al volver, en Lloret de Mar vio un cartel taurino, en el que aparecían los nombres de dos toreros, Antonio Bienvenida y Julio Aparicio, con un espacio en blanco entre ambos. Gaspar pidió al tendero que imprimiera ahí 'Alonso, cojo de Legazpia'. Al llegar a Legazpi, le dio el cartel al padre, que se puso muy contento y enseguida lo colgó en la pared del Bar Toki Alai.

La tienda de Basabe

Los Basabe, Félix Basabe y su esposa Blasa Saenz de Buruaga, abrieron tienda en el bajo de este edificio en 1940. La gente decía "voy a la tienda de la Blasa", dado que era ella la que estaba allí. Llegaron a Legazpi en 1936, huyendo de la guerra. Vivían en Legutio, donde tenían taberna-restaurante, y una



Jose Luis bere biloba Gillen eta Libekin (Itziar Basabek emana).





Felix Basabe eta Blasa Saenz de Buruaga dendaria (Maite Basabek emana)





Ezkerretik hasita, Mari Carmen, Fermin, Jose Luis, Jose Antonio eta Maite (Itziar Basabek emana).

[eu] utzi zien. Gainera, taberna-jatetxea zeukaten, eta akabo lanbidea ere. Blasa Gasteizen sukaldaritza ikasitakoa zen.

Felix Basabe Legution jaioa zen, emazte Blasa, berriz, Lukon. Legazpira iritsi eta, aurrena, Etxe-Alain jarri ziren bizi izaten, Blasaren osaba baten etxean. Handik, Telleriarteko kale-etxe batera aldatu ziren, eta 1943. urtetsuan denda ondoko etxera, beheko solairuan Casa Alberdi arropa-denda zegoen etxera; bigarren solairura, hain zuzen ere. Etxe osoaren jabeak, osinaldetarrak ziren, gero Alberdi arropa-denda egondako tokian burdindegia edukitako familia, alegia.

Felix Basabe segituan hasi zen lanean Patrizionean. Han hamar urte egin zituen. Gero garraio lanean. Le-

bomba dejó destrozada la casa. Blasa había estudiado cocina en Vitoria-Gasteiz. [es]

Félix era nacido en Legutio, Blasa en Luko. Llegaron a Legazpi y primeramente residieron en Etxe-Alai, junto a un tío de Blasa. De allí pasaron a una casa del casco urbano de Telleriarte, y hacia 1943, se instalaron en la casa de al lado de la tienda, en el piso de encima de lo que fue la ferretería de los Osinalde y luego la tienda de ropa de Alberdi. Todo ese edificio pertenecía a los Osinalde.

Félix Basabe comenzó enseguida a trabajar en la fábrica de Patricio. Pasó diez años allí. Luego se dedicó al transporte, primero como socio de Boni Quintana, con un carro tirado por un caballo que acarreaba pa-

[eu] henbizi, Boni Quintanarekin sozio eginda, Zumarraga-Legazpi pakete-garraioa egiten zuen, zaldiak tiratutako gurdiarekin. Ondoren, Felixek garraio-enpresa sortu zuen, Transportes Basabe, eta kamioia gidatzeari ekin. Gero seme Felixek jardun zuen kamioiarekin, eta geroago seme Jose Antoniok.

Blasaren janari-dendari dagokionez, hasieran denda txikia zen, aldamenean etxebizitza baitzegoen, non Manolo Etxebeste bizi baitzen. Gero, 1960ko hamarkadan, obra egin eta beheko solairu dena hartu zuen dendak. Bi sarrera zituen, Kale Zaharretik eta Kale Berritik. Jatekoez eta edatekoez gain, drogeriako jeneroa eta lurrezko ontziak (loreontziak-eta) saltzen zituen; eta baita oilo eta untxientzako pentsua ere, orduan jende askok edukitzen baitzituen halako animaliak.

2004an itxi zen denda betiko, 64 urteko ibilbidearen ostean. Azken dendaria, Felix eta Blasaren seme Jose Luis (1938-2018) izan zen. Aita hil zenean, 1985ean, hartu zuen Jose Luisek negozioaren gidaritza.

Goñitarrak, areizagatarrak, Paulina Ogeta…

Janari-dendaren gaineko pisuetan hainbat familia bizi izan ziren. Aurreko mende erdialdean, lehenengo solairuan, adibidez, goñitarrak bizi ziren (David Goñi Abartzuzatik etorria zen Patrizionera, 24 bat urte zituela) eta Lopez de Sabandotarrak (Lorenzo Lopez de Sabando-eta). Bigarrengoan, areizagatarrak (pisu batean Jose Areizaga bere familiarekin, aldamenekoan anaia Antonio) eta Antonio Areizagak alde egindakoan, Concha eta Patrito Gimeno ahizpak, bata modista (beste batzuek diotenez Patrizioneko enplegatua), bestea piano-eskolak ematen zituena, eta egun batean ezkutatu egin zena herritik; gero inork ez zuen gehiago jakin haren berri. Bi ahizpok ezkongabeak

quetería entre Zumarraga y Legazpi. Más tarde, Félix creó la empresa Transportes Basabe y condujo su camión. Luego se dedicó a ese negocio el hijo Félix y más tarde otro hijo, José Antonio. [es]

La tienda de alimentación fue pequeña en un comienzo, porque compartía la planta baja con una vivienda, la de Manolo Etxebeste. En los años 60 hicieron obra y la tienda ocupó la planta entera. Tenía dos entradas, por la Calle Vieja y la Calle Nueva. Además de artículos de alimentación, ofrecía género de droguería, tiestos y pienso para gallinas y conejos, dado que entonces mucha gente tenía gallinero.

La tienda se clausuró en 2004, tras 64 años de existencia. El último tendero fue el hijo José Luis (1938-2018), que tomó el timón al morir el padre en 1985.

Los Goñi, los Areizaga, Paulina Ogeta…

En los pisos superiores vivieron muchas familias. Por ejemplo, a mediados del siglo XX, en el primer piso, los Goñi-Areizaga y la familia de Lorenzo López de Sabando. David Goñi había llegado de Abárzuza a los 24 años, para trabajar en la fábrica de Patricio. En el segundo piso, más Areizaga; en una vivienda José Areizaga y en la otra su hermano Antonio. Al dejar éste la vivienda, residieron ahí las hermanas Concha y Patrito Gimeno. La primera era, según unos, modista, y otros creen que empleada de la fábrica de Patricio, y Patrito daba clases de piano, si bien un día desapareció y ya no se supo más. Eran solteras y sobrinas de Sole Langarika, que residía en Gerranea. En 1970 falleció Concha Gimeno y entonces ocuparon esa vivienda Ángel Orellana y su esposa Mª Engracia Tena, originarios de Extremadura, con sus hijos Ana María y Tomás, quien falleció en acci-



Tomas Orellana (Lucia Areizagak emana)



Maritxu Aranburu eta Joxe Areizaga (Lucia Areizagak emana).



Mari Carmen Ozaeta, Paulina Ogeta, Antonio Merinero (Rosa Fernandez Casalesek emana).

[eu] ziren eta Gerranean bizi zen Sole Langarikaren ilobak. 1970ean, Concha Gimeno hil eta etxebizitza horretan Extremaduratik etorritako Angel Orellana eta Mª Engracia Tena sartu ziren beren seme-alabekin, Tomas eta Ana Maria. Mutila, lanean ari zela, elektrokuzioz hil zen 1971ean, 21 urte zituela.

Hirugarrengoan, pisuetako batean Paulina Ogeta eta Alejandro Casales senar-emazteak bizi ziren. Gizona maisu izana zen Trebiñu eta Bizkaiko zenbait herritan, eta Legazpira edadetua eta osasun eskasarekin etorri. Laster hil zen. Paulina, berriz, Trebiñuko San Martin de Galbarin herrixkakoa zen, berriz. Beraiekin batera, alaba Emilia eta suhi Desiderio Alvarez bizitu ziren, baina Urtatzako auzoa egin zenean hara aldatu ziren, eta Paulinak ere hor eman zituen azken

dente laboral, electrocutado, en 1971 a los 21 años. [es]

En el tercero, vivían, por un lado, la familia de Alejandro Casales y Paulina Ogeta. Él había sido maestro en varios pueblos de Treviño y en Bizkaia, y llegó a Legazpi muy delicado de salud. La esposa, Paulina, era del Condado de Trebiño, de San Martín de Galbarín. Vinieron con los hijos mayores: Teodoro, Esther, Avelino, Emilia y José Mari. La hija pequeña, Celsa, se quedó en Vitoria-Gasteiz, donde trabajaba. Paulina vivió en esta casa, al principio, con su hija Emilia, que estaba casada con Desiderio Álvarez, nacido en Villahoz (Burgos). Estos se trasladaron a las casas nuevas del barrio de Urtatza cuando se hizo el barrio, y Paulina vivió con ellos en su última etapa; falleció en 1976.

[eu] egunak, 1976an hil zelarik. Eta aldameneko pisuan, Soriako familia bat, Jacinto Gonzalez eta emazte Isabel.

Atikoan, berriz, Florencio Ozaeta eta Eugenia Ruiz de Gaunaren familia. Arabako mendialdetik etorriak ziren, Bernedo ondoko Villaverde herritik, 1948. urte aldera, eta gizonak Patrizioneko fundizioan jardun zuen. 1951n jaio zitzaien lehen haurra, Mari Carmen, eta 1956an bigarrena, Jose Antonio. Eta hauek baino lehenago, Ourenseko Baños de Molgas herritik etorritako Fariñas-Silva familia bizi izan zen goi-goiko pisuan. Eliza alderago bizi ziren Salgado-Silva familia baino pixka bat beranduago azaldu ziren herrira, eta bi emakumeak, silvatarrak (Badajozen jaioak) ahizpak ziren. Gizona, Rogelio Fariñas igeltseroa, Kale Nagusiko Alejo Albisuren botika-etxea birmoldatzen jardun zen, eta lasalletarren ikastetxea egiten ere bai.

Areizagatarrei dagokienez, esan dezagun arbasoak azkoitiarrak zirela. Juan Pedro Areizaga (Azkoitia, 1886), Josefa Antonia Azurmendirekin (Zumarraga, 1886) ezkondu eta Legazpiko Etxetorren jarri ziren bizi izaten. 1936ko gerrakoan, gizona, nazionalista izaki, Frantzian egon zen hiru urtez, ihes eginda, eta Legazpira itzulitakoan, Patrizionean aritzeko aukerarik ez (debekua) eta trenbidean egin behar izan zuen lan. Gerra baino lehenago, Urzelaiko kale-baserrira aldatu zen familia, eta 1934an Santa Maria kaleko etxe honetara, lehen solairura. Lau seme-alaba izan zituzten, eta horietako hiru, ezkondu eta etxe honetantxe bizi: Carmen (1925-2022) senide gazteena izan zen, David Goñirekin ezkondu eta lehen solairuan bizi izan ziren; Antonio, berriz, Papeleran aritu zen eta gazterik hil, 47 urterekin, bigarren solairuan bizi zelarik; ezkonduta zegoen, baina ez zuen familiarik izan eta haren alarguna Alegiara joan zen; seme Joxe bigarren solairuan bizi izan zen hainbat urtez (Olaberriko Maritxu Aranburu Garmendiarekin ezkondua), 1975ean familia Itxaropen auzora aldatu zen arte. Alaba zaharrena, Lola, Martin Alustiza araiarrarekin ezkondu zen, eta Patxi taberna zegoen etxean bizi izan ziren.❖

[es] Y en la otra vivienda del tercero residieron los sorianos Jacinto González y su esposa Isabel.

En el ático residieron Florencio Ozaeta y Eugenia Ruiz de Gauna. Habían llegado hacia 1948 de la Montaña Alavesa, del pueblo de Villaverde, cercano a Bernedo. Florencio trabajó en la fundición de Patricio y en 1951 nació la primera hija, Mari Carmen, y en 1956, el segundo, José Antonio.

Antes que los Ozaeta, vivió en este ático la familia Fariñas-Silva, llegada de Baños de Molgas (Ourense). La mujer era nacida en Badajoz, y hermana de la esposa de Victorino Salgado. Este otro matrimonio vivió en la llamada 'casa de los gallegos', cerca de la parroquia. Rogelio Fariñas era albañil y trabajó en las obras del colegio de los Hermanos de La Salle y en la remodelación de la farmacia de Alejo Albisu.

Por lo que respecta a los Areizaga, los antepasados eran de Azkoitia. Juan Pedro Areizaga (Azkoitia, 1886) se casó con Josefa Antonia Azurmendi (Zumarraga, 1886) y pasaron a vivir en Etxetorre. Al estallar la guerra de 1936, Juan Pedro, que era nacionalista, pasó a Francia y regresó tres años después. La fábrica de Patricio tenía prohibido emplear a los no afectos al nuevo régimen y empezó a trabajar en la vía férrea. Antes de la guerra, la familia vivió en el caserío urbano de Urzelai, y en 1934 pasaron a vivir en esta casa de la Calle Vieja, en el primer piso. Tuvieron cuatro hijos, y tres de ellos se casaron y residieron en esta misma casa: Carmen (1925-2022), la menor de los hermanos, se casó con David Goñi y vivieron en el primer piso; Antonio trabajó en la Papelera, vivió en el segundo, falleció joven, a los 47 años y la viuda, sin hijos, se fue a Alegia. El otro hermano, Joxe, vivió también en el segundo, casado con Maritxu (Mª Vicenta) Aranburu Garmendia (natural de Olaberria) y trabajó en Patricio; en 1975 la familia se trasladó a Itxaropen.

La hija mayor de Juan Pedro y Josefa Antonia, Lola, se casó con Martín Alustiza, de Araia, y vivieron en la casa del Bar Patxi.❖



ABERASTURINEA (Lizarazunea, Karreteronea Arcadioren barberia, Odriozolaren harategia)

11

ABERASTURINEA (Lizarazunea, Karreteronea la barbería de Arcadio, la carnicería de Odriozola)



Lizarazuren etxea (Rosa Mari Pinedok emana).



Ciclos Múgica (Jaione Mujikak emana).

[eu]

1832ko etxeen zerrendan 'Aberasturirena' zuen izena. Orduan, jabea Martin Jose Zabalo Murua (1778) zen. Bereak zituen baita ere Kusturrutzu baserria eta Zabalonea izeneko etxea kalean. Baserri hark, orduan, 40.000 errealeko balioa zeukan; Santxoneaundik, bere baratzearekin, 16.000koa; eta Zabaloneak, baratzearekin, 6.000koa.

1832an, bertako maizterrak Juan Bautista (Ximenez de) Aberasturi Martinez de Arrieta eta Mª Dominica Urmeneta Guerra senar-emazteak ziren. Juan Bautista hau ola-maizterra izan zen, alegia, errentan hartu zizkion San Millango markesari Mirandaolako eta Olaberriko burdinolak, bertan lan egiteko. Mirandaolako burdinolan, 1796-1813 epean izan zen maizterra; eta Olaberrian, 1801-1813 urte-bitartean.

Gero Felipe Lizarazu (1869) bihurtu zen etxeko jabe. Zatui baserrian bizi zen 1894an. Gurasoak Jose Mª Lizarazu eta Micaela Apaolaza zituen, bata Telleriarteko Bastaingoa (Pastain) baserrikoa, bestea Agirrezabalgoa. Kataberako meatzerako jardun zen, meazuloetarako egurrezko zutikoak eginez. Meategi hau 1872an jarri zen abian.

1930ean, Luis Astiazaranek mapa egin zuenean Udalerako, Kale Berriari ekiteko proiektua zela eta, etxe hau deitura honekin agertzen da: 'Casa de Felipe Lizarazu'. 1932an, etxe berria egin zuen Felipek Kale Berrian, Damian Lizaur arkitektoaren gidaritzapean, eta hantxe, beheko solairuaren atzeko aldean, aroztegia ipini. Mª Cruz Iñurritegi Iturberekin ezkondu eta 1897an semea eduki zuten, Serapio izenekoa, gero Patrizioren fabrikako lehenengo enkargatuetako bat izan zena. Familia hau Kale Berrian bizi izan zen, bere etxe propioan.

Odriozolaren harategia

Adinekoek gogoan dute nola hemen Odriozolak harategia eduki zuen. 1940. urte aldera hasi zen bertan lanean Manuel Odriozola Uranga, Azpeitiko Urres-

[es]

En una lista de casas de 1832 aparece con la denominación de "La de Aberasturi". Entonces, el dueño era Martín José Zabalo Murua (1778). Igualmente, era propietario del caserío Kusturrutzu y la casa llamada Zabalonea. En esa época, el caserío estaba valorado en 40.000 reales; Santxoneaundi, con su huerta, en 16.000; y Zabalonea y su huerta, en 6.000.

En 1832, los inquilinos del inmueble eran Juan Bautista (Ximénez de) Aberasturi Martínez de Arrieta y su esposa Mª Dominica Urmeneta Guerra. Juan Bautista había tomado en alquiler las ferrerías de Mirandaola y de Olaberria, pertenecientes al marqués de San Millán. Concretamente, alquiló Mirandaola en el periodo 1796-1813, y Olaberria en los años 1801-1813.

Luego la propiedad pasó a manos del carpintero Felipe Lizarazu (1869), quien residía en el caserío Zatui en 1894. Era hijo de José Mª Lizarazu, del caserío Bastaingoa (Pastain) de Telleriarte, y de Micaela Apaolaza, de Agirrezabal. Trabajó como carpintero para las minas de Katabera. Hacía los postes de las galerías. Estas minas echaron a andar en 1872.

En 1930, cuando el arquitecto Luis Astiazaran elabora para el Ayuntamiento un mapa de lo que a los pocos años sería la Calle Nueva, este inmueble aparece como 'Casa de Felipe Lizarazu'. En 1932, Lizarazu hizo casa nueva en la Calle Nueva, bajo la dirección del arquitecto Damián Lizaur, y allí mismo, en la trasera de la planta baja, puso su taller de carpintería.


Felipe se casó con Mª Cruz Iñurritegi Iturbe y en 1897 tuvieron un hijo llamado Serapio, que luego sería uno de los primeros encargados de la fábrica de Patricio. Esta familia residió en su casa propia de la Calle Nueva.

El carnicero Manuel Odriozola

La gente de edad recuerda la carnicería que tuvo Odriozola en el bajo de este edificio. Manuel Odriozola Uranga comenzó con esta actividad hacia el año



Goian, ezkerretik hasita, Doroteo Zabaleta, Cecilio Goitia, Serapio Lizarazu, Saturnino Urzelai, Jose Etxeberria. Behean, Gregorio Apaolaza 'Damata', Patrizio Etxeberria eta Baldomero Urmeneta (Julian Apaolazak emana).



Felipe Lizarazuren aroztegia Udanan (Mercedes Föll-ek emana).

[eu] tillan, Alzagasaletxe baserrian jaiotako gizona. Telleriarteko Egizear baserriko Pilar Galdosekin zegoen ezkonduta. Baina, aurretik, anaia zaharrago bat, Juan Jose, jardun zen bertan. Harategia, azkenean, 1980. urtetsuan itxi zen, eta gero, urte eta erdiz, Manuelen seme Manuelek arrandegia eduki zuen.

Manuel Odriozolaren asmoa Patrizio Etxeberriaren lantegian hastea zen. Etorri zen Legazpira eta anaia Juan Joseren etxean hartu zuen aterpe, Alustizaren drogeriaren gainean. Joan zen Zoilo Aldasororengana eta lana eskatu. Hark galdetu zion zein sekziotan gustatuko litzaiokeen, eta Manuelek erantzun nonahi izan zitekeela, gizon indartsua zelako. Baina fabrikako pertsonal-buruak sekula ez zion deitu. Makina bat lagun kontratatu zuen orduan Bellotak, baina Manuelek ez zuen desio zuena lortu. Hala ere, harakin-ogibidean gustura jardun zuen.

1940. Era nacido en Urrestilla (Azpeitia), en el caserío Alzagasaletxe, y se casó con Pilar Galdos, del caserío Egizear de Telleriarte. [es]

Anteriormente trabajó en ese local un hermano de Manuel, Juan José, algunos años mayor. Finalmente, la carnicería se cerró hacia el año 1980, y luego, durante un año y medio, Manuel, hijo de Manuel, tuvo allí una pescadería.

El propósito inicial de Manuel Odriozola había sido trabajar en la fábrica de Patricio. Llegó a Legazpi y se instaló en la casa de su hermano Juan José, encima de la droguería de Alustiza. Fue al despacho de Zoilo Aldasoro y solicitó trabajo. Éste le preguntó qué sección prefería y Manuel le contestó que le daba igual, dado que era una persona físicamente fuerte. Pero el jefe de personal de la empresa nunca le llamó. Mu-



Odriozolatarrak, familia osoa (Joaquin Odriozolak emana).





Manuel Odriozola eta Pilar Galdos, adinean aurrera (Joaquin Odriozolak emana).

Manuel Odriozola (Manuel Odriozolak emana).



Manuel eta Nikasio (Manuel Odriozolak emana).



Manuel seme Manuelekin. Atzean Irubide. (Manuel Odriozolak emana).



Odriozolatarren kotxe eta astoa (Joaquin Odriozolak emana).

[eu] Juan Jose Odriozolak Donostiara alde egin zuen, han beste harategi bat zabaltzeko, eta orduan, 1940. urte aldera, anaia Manuelek hartu zuen Legazpiko negozioa. Nikasio Lasak asko lagundu zion hasiera hartan, eta Odriozolatarrek ederki estimatzen dute harakin hura.

[es] cha gente fue contratada en esa época, pero Manuel no consiguió su propósito. No obstante, trabajó a gusto como carnicero.

El hermano Juan José se trasladó a Donostia para abrir allí otra carnicería. Entonces, hacia 1940. Manuel

[eu] Seme Joaquinek adierazi digunez, goizeko 3rak aldera joaten ziren mataderiara. Hura ere Kale Zaharrean zegoen, parroki elizatik oso gertu.

Manuel erabateko harakina izan zen. Berak bisitatzen zituen baserriak ganaduaren jabearekin tratua egiteko. Gero, berak garbitzen zituen tripakiak, berak egiten txorizo eta odolkiak. Buzkantzak eta mondejuak ere egiten zituen. Baina lantegi horietan denetan emazte Pilarren laguntza izaten zuen.

Joaquin Bereziartuk 1942an Elbarrenan egin zuen fabrika berria eta familiarentzako etxea. Ordu-arte, Andresene eta ibaiaren artean, Ugalde izeneko kalebaserrian eduki zuen errementari-tailer eta etxebizitza. Eta handik alde egitean, Manueli esan zion hura hartzeko, bestela ijitoak sartuko zirela-eta. Odriozolak txerriak ipini zituen bertan. Seme Joaquinek dozena bat txerrama eta apoa ezagutu zituen han.

Manuel eta Pilarren alaba, Felisa, Kale Berriko etxean jaio zen, 1942an. Bi semeak, Manuel (1945) eta Joaquin (1950), Ugalden. 1964an utzi zuten etxe hura, Kale Berriko etxera aldatzeko, Caribe taberna gainera, hain zuzen ere.

Arcadioren barberia

Egun Gazi-Gozo denda dagoen tokian Arcadioren barberia zegoen. Gizon bitxia izan zen Arcadio García Iciar, itxura bohemioa zeukana eta asko irakurtzen zuena. Egunero erosten zuen egunkaria eta lantegian ale zaharrak edukitzen zituen, pila eginda. Jose Luis Arrietak esan diguna: "Aspaldi-aspaldi, esan zidan bera agnostikoa zela. Sekula entzun gabea nintzen hitz hori". Ordizian jaioa 1910eko hamarkadan, aitona arabarra zuen, García de Jauregi abizenekoa eta Kontrastan jaioa.

Mutikotan ikasi zuen ofizioa, lehengusina batzuek ileapaindegia baitzeukaten Ordizian. Haren alaba Txarok kontatu digunez, egun batean, Ordizian janari-

[es] Odriozola dio continuidad a la carnicería de la Calle Vieja de Legazpi. Nicasio Lasa le ayudó a dominar los secretos del oficio y los Odriozola siempre han recordado esa ayuda.

Según nos ha comentado Joaquín, el hijo de Manuel, acudían al matadero hacia las 3 de la mañana. Estaba también en la Calle Vieja, cerca de la iglesia.

Manuel Odriozola era un carnicero total. Se encargaba primeramente de visitar los caseríos para ver el ganado y hacer el trato. Luego llegaba hasta el punto de limpiar los callos y hacer chorizos y morcillas. También elaboraba buzkantzas y mondejus. Pero en todas esas tareas contaba con la ayuda de su esposa Pilar.

Joaquín Bereziartu edificó su fábrica nueva de Elbarrena en 1942 y allí mismo construyó la nueva casa para su familia. Hasta entonces, esa familia numerosa había vivido en la casa Ugalde, situada entre Andresenea y el río, y allí mismo había tenido la herrería y la fragua. Al salir de Ugalde, Bereziartu le dijo a Manuel que la ocupara enseguida, porque de lo contrario podían entrar los gitanos. Odriozola puso allí cerdos, y su hijo Joaquín recuerda que había una docena de hembras y un semental.

La hija de Manuel y Pilar, Felisa, nació en la casa de la Calle Nueva, en 1942. Los hijos, Manuel (1945) y Joaquín (1950), en Ugalde. La familia abandonó Ugalde en 1964, para trasladarse a una casa de la Calle Nueva, situada encima del Bar Caribe.

La barbería de Arcadio

En el sitio que hoy ocupa la tienda de golosinas Gazi-Gozo estuvo la peluquería de Arcadio García Iciar. Fue un hombre peculiar, de aspecto bohemio y gran lector. Compraba el periódico a diario y los almacenaba en una pila en la misma barbería. Testimonio de José Luis Arrieta (1941): "Me dijo hace



Balbino Arrieta eta Carmen Garate alaba Lolirekin, 1960. urte aldera (Loli Arrietak emana).



Arcadio Garcia bere biloba Jesus Morenorekin (Maria Angeles Garciak emana).

[eu] denda zeukan Genaro Usabiagak proposatuta, hasi zen esanez inguruko herriak bisitatu nahi zituela, ezagutzeko. Halaxe, Legazpira azaldu zen eta ikusi barberi bat salgai zegoela. Segituan erabaki omen zuen erosi egin behar zuela. Bai erosi ere. Bertan lanean hasi zen eta, ezkondu aurretik, hor ibili egunero trenez Ordiziatik joan-etorriak eginez. Hasiera ez omen zen erraza izan, inork ez zuen ezagutzen eta.

Gero, Idiazabalgo Sagastiaundi baserriko Maria Goibururekin ezkondu eta barberiaren gainean jarri ziren bizi izaten, errentan, Lizarazuri etxebizitza eskatuta. Lantoki gainean jarri ziren bizi izaten. Hain zuzen ere, Arcadio izan zen eraikineko azken biztanlea. Etxea oso hondatua zegoen, itoginez josia, baina ez zuen alde egin nahi. Alargunduta zegoen aspalditik, emaztea azken erditzean hil zen, hirugarren haurra, Mª Rosario, jaiotzean.

Txaro Sarasolak adierazi digunez, tarteka umeak erakartzen zituen ile-apaindegi ondoko gela batera, eta han pelikula proiektatzen zien. Sarasolak uste du aldameneko Ibai-Ondo aretoan eskaini beharreko pelikula bera izango zela, baina ez da kontu segurua.

[es] mucho que era agnóstico. Nunca había oído esa palabra". Nacido en Ordizia en la década de 1910, su abuelo era alavés, de Kontrasta, y de apellido García de Jauregi.

Aprendió el oficio de barbero siendo un chaval, junto a sus primas, que tenían peluquería en Ordizia. Según nos contó su hija Txaro, estando en la tienda de comestibles de Genaro Usabiaga, y a propuesta de esta persona, Arcadio dijo que iba a visitar todos los pueblos de los alrededores, para conocerlos. Así, vino a Legazpi y vio que había una barbería en venta. Enseguida se propuso comprarla y lo hizo. Comenzó a trabajar en el local, viniendo desde Ordizia todos los días en el tren. No tuvo un comienzo fácil, dado que era un desconocido.

Más tarde se casó con María Goiburu, del caserío Sagastiaundi de Idiazabal y ocuparon la vivienda de encima de la peluquería, pagando la renta a sus dueños, los Lizarazu. Y precisamente fue Arcadio la última persona en abandonar el inmueble, que estaba muy deteriorado y con goteras; pero Arcadio se resistía a de-

[eu] Barberi hartan tertuliak izan ohi ziren batzuetan. Jose Luis Arrietaren akorduan, Fermin Garin okina, Felix Elorza (Papelerako nagusiaren semea) eta Lorentxo delakoa (Imazen material-biltegiko bulegaria) ziren tertuliakideetako batzuk.

Arrietatarrak, pinedotarrak…

Ileapaindegi eta harategi haien gainean familia asko bizi izan ziren gerra zibilaren ostean. Adibidez, goigoian, buhardillan, Soriako senar-emazte batzuk, 1937an Bilboko setioan gorriak ikusitakoak, sustraiak jan beharra ere izan zutelarik. Gizonak Serafin zuen izena eta emazteari 'Serafina' ipini zioten ezizena. Emakumea ez zen inoiz elizara joaten, eta gizonak Oiarbideneko igeltsu-almazenean egin zuen lan. Bigarrengo solairuan, pinedotarrak eta arrieta-garatetarrak. Julian Pinedo Martínez de la Pera arabarra zen (Gesaltza Añana, 1920). 1940ko hamarkadan etorri zen Legazpira, Patrizioren fabrikan lan egitera, eta lehenbizi arreba Victoriarekin bizi izan zen (hura hogei urte zaharragoa zen), Nikasio Lasaren harategia egon zen etxean (Beatakoa). 1951n Anixeta Gereñu Odriarekin (Brinkolako Kaxeta, 1922) ezkondu eta etxe honetan jarri ziren bizitzen, bertan 1970era arte egon zirelarik. 1952an bikiak jaio zitzaizkien, Arantxa eta Rosa Mari, eta 1956an beste alaba bat, Marivi. Julianen gurasoak ere (Jose eta Melitona) etorri ziren Legazpira eta lehenbizi Etxetorren bizi, eta gero etxe honetan, semearekin batera.

Arrieta-Garatetarrei dagokienez, Balbino Arrieta (1909-1991) Zegamatik etorri zen gaztetan Papeleran lan egitera. Ezertxo gabe etorri ere, baserria erre baitzitzaien, eta artaldea beste anaia zaharrago batentzako izan. Aurrena Etxe-Alain bizi izan zen, apopilo, gero Mª Carmen Garaterekin ezkondu zen, hau berriz Araiatik etorritako familia bateko kide. Mijar el piso. Era viudo, su mujer había fallecido muchos años antes, en el parto de la tercera hija, Mª Rosario. [es]

Según nos comentó Txaro Sarasola (1945), de vez en cuando convocaba a los niños a una habitación contigua a la peluquería, y allí les proyectaba una película. Nuestra informante pensaba que se trataría de la película que en esas fechas iban a ofrecer en el salón Ibai-Ondo.

La peluquería era a veces escenario de tertulias. José Luis Arrieta recuerda que acudían gentes como el panadero Fermín Garin, Félix Elorza (hijo del propietario de la Papelera) y un hombre llamado Lorenzo, que trabajaba de oficinista para el almacén de materiales de Imaz.

Los Arrieta, los Pinedo…

Tras la guerra de 1936 fueron muchas las familias que vivieron en los pisos del inmueble. En la buhardilla, lo hicieron Serafín y su esposa, a la que llamaban 'Serafina', unos sorianos que las habían pasado canutas en 1937 en Bilbao, en la época en que la ciudad estuvo sitiada y tuvieron que comer raíces. La mujer no pisaba la iglesia el marido trabajó en el almacén de materiales de construcción situado en la casa Oiarbidenea. En el segundo piso residieron largo tiempo los Pinedo y los Arrieta-Garate. Julián Pinedo Martínez de la Pera era alavés (Salinas de Añana, 1920), en la década de 1940 llegó a Legazpi para trabajar en la fábrica de Patricio y primeramente vivió con su hermana Victoria (que era veinte años mayor) en la casa Beatategi, en la que estuvo la carnicería de Nicasio Lasa. En 1951 se casó con Aniceta Gereñu Odria (la caseta de la Renfe de Brinkola, 1922), y vivieron en esta casa hasta 1970. En 1952 nacieron las mellizas Arantxa y Rosa Mari, y en 1956 otra hija, Marivi. Los padres de Julián (José y Melitona) también vinieron a Legazpi, y tras vivir un tiempo en Etxetorre pasaron a hacerlo junto con el hijo y la nuera.



Jose Pinedo eta Melitona Martinez de la Pera seme-alabekin. Victoria, Julian (20 urte gazteagoa) eta Dionisia moja (Rosa Mari Pinedok emana).



Julian Pinedo eta Anizeta Gereñu 2001ean, urrezko ezteiak ospatzean (Rosa Mari Pinedok emana).





Benito Irastorza eta Norberta Elizburu (Mari Carmen Etxezarretak emana).

[eu] guel Garate eta Ildefonsa Albizu Araiatik azaldu ziren hogeigarren mende hasiera aldera, lehenbizi Txintxoetxen bizi izan ziren, gero Araotzenean ('la casa de los gallegos') eta ondoren Buenaventuran ('Blasen etxean' edo 'Martxeliren etxean'). Bere azken egunetan, Balbino Arrietak behin eta berriz ekartzen zuen gogora eta hizpidera mutikotan ardi-zaintzen Urbian emandako egunak.

Lehenbiziko solairuan, berriz, sudupetarrak (bi anaia) eta Arcadio Garcíaren familia bizi izan ziren. Sudupetarroi dagokienez, bi anaia ziren, Azkoitiko Martitte auzoko Montte baserritik etorriak Patrizioren fabrikan lan egiteko, bata Santi Sudupe Ibarmia, bestea Jose Mari, eta biak ala biak dultzaina-jotzaileak. Jose Manuel anaia ere etorri zen, eta apopilo egon zen anaien etxeetan, txandaka, 1947an ezkondu eta egin berria zen San Ignazio auzora aldatu zelarik. Azkenean hiru anaiak bizi izan ziren San Ignazion.

Monttetarrek alde egindakoan, lehen solairuko bizitza hartan Benito Irastorzaren familia jarri zen. Benito Irastorza Etxaleku (Ezkio, 1912), Juan Jose eta Mariaren semea zen, bata Ezkion jaioa, bestea Gabirian. Norberta Elizburu Elorzarekin (Oñati, 1906)

[es] Por lo que respecta a los Arrieta-Garate, Balbino Arrieta (1909-1991) llegó desde Zegama con lo puesto, con unos veinte años de edad, para empezar a trabajar en la Papelera, donde pasó toda su vida. El caserío se había quemado y el hermano mayor había heredado el rebaño de ovejas. Primero vivió de patrona en una casa de Etxe-Alai. Se casó con Mª Carmen Garate, hija de una familia de Araia, la de Miguel Garate e Ildefonsa Albizu, que habían llegado a Legazpi a comienzos del siglo XX y residieron primero en Txintxoetxe, luego en Araotzenea ('la casa de los gallegos') y a continuación en 'la casa de Blas' o 'la casa de la Martxeli'. Ya en su última etapa de la vida, Balbino Arrieta rememoraba constantemente sus años mozos cuidando las ovejas en Urbia.

En el piso primero vivieron los Sudupe (dos hermanos) y la familia del peluquero Arcadio García. Los hermanos Sudupe habían llegado de Azkoitia, del caserío Montte del barrio de Marttitte, para trabajar en Patricio. Tanto Santi Sudupe Ibarmia como su hermano José Mari, tocaban la dulzaina. Otro hermano, José Manuel, también pasó por la casa, y vivió como pupilo en las casas de los dos hermanos, hasta que en 1947 se casó y pasó a un piso nuevo de

[eu] ezkondu eta Galdots baserrian jarri ziren bizi izaten, hango nagusi ugaldetarren zaldi-garraio enpresarentzat egiten zutelarik lan. Hantxe jaio zitzaien, 1942an, lehenbiziko haurra, Magdalena. Handik gutxira, Kale Zaharrera etorri eta gizona Patrizioneko fundizioan hasi zen. 1944an beste ume bat jaio zitzaien, Lazaro.

Benito nahiko gazterik hil zen, 1956an. Eta garaitsu hartan, Magdalena eta Lazaro amarik gabe geratu ziren baita ere, Norberta Arrasateko Santa Agedako ospitalean sartu baitzuten, buruko gaixotasuna zela eta. Magdalena Ezkiora ezkondu zen eta Lazaro, ezkondu eta gero ere etxe honetantxe bizi izan zen; gurasoekin bizi izandako etxean, alegia.

Patrizio Etxeberriak lagundu egiten zien umezurtzei. Halaxe, Magdalenak hiru urte egin zituen Ategorrietako Adoratrices-en egoitza batean. Lazarok, berriz, Zumarragako Buztintza baserrian eman zituen urte batzuk, osaba-izeba batzuekin, eta bitartean herri hartako lasalletarrekin ikasi. Garai hartan ohikoa izaten zen zenbait kongregaziotako fraideek ikastetxeak bisitatzea, bokazio bila, eta bisita haietako baten ondorioz, Lazarok baiezkoa eman eta Tolosako sakramentinoetara joan zen. Gero, ikastetxe hura utzi eta Patrizionean hasi zen lanean eta 1969an Mari Carmen Etxezarretarekin ezkondu.

Lazaro eta Mari Carmenek, ezkondu eta lehenbiziko hiru urteak, Ezkioko Sagastizabal errotan eman zituzten, Mari Carmenen jaiotetxean. 1972an Kale Zaharreko etxe honetara aldatu ziren, Lazaro umetan bizi izandako etxera. 1970eko hamarkada hartan, Ilintxa futbol elkarteko lehendakari izan zen Lazaro. Hantxe jaio zitzaien seme Aitor (1970) eta alaba Arantxa (1976). 1980an alde egin zuten etxe honetatik.

Bestalde, Anastasio Mujikak bizikleta-tailerra eduki zuen 1950eko eta 1960ko hamarkadetan etxe honen beheko solairuan, baina sarrera Kale Berritik zeukalarik. Errotuluak honela zioen: 'Ciclos Múgica'. Gizona sereno eta aguazila izan zen.❖

San Ignacio. Finalmente, los tres hermanos residieron [es] en casas de ese barrio de reciente edificación.

Cuando los 'Montte' abandonaron el inmueble entró la familia de Benito Irastorza Etxaleku (Ezkio, 1912). Sus padres eran Juan José y María, de Ezkio y Gabiria. Benito se casó con Norberta Elizburu Elorza (Oñati, 1906), para residir primeramente en el caserío Galdots y trabajar para los dueños de esa casona, los Ugalde, que tenían una empresa de transporte con caballos. Allí nació la primera hija, Magdalena (1942) y al poco tiempo Benito empezó en la fundición de la fábrica de Patricio y la familia se instaló en esta casa de la Calle Vieja. En 1944 nació otro hijo, Lázaro.

Benito Irastorza falleció bastante joven, en 1956. Y por aquella época los niños Magdalena y Lázaro se quedaron también sin madre, pues Norberta fue ingresada en el hospital siquiátrico de Santa Águeda. Magdalena se casó a Ezkio y Lázaro vivió en esta misma casa también después de casarse.

Patricio Etxeberria solía ayudar a los niños huérfanos. Así, Magdalena pudo pasar tres años en una residencia de las Adoratrices en San Sebastián. Lázaro vivió junto a unos tíos en el caserío Buztintza de Zumarraga y en esa época estudió con los Hermanos de La Salle de la localidad. Era costumbre que representantes de diferentes congregaciones religiosas visitaran los colegios para captar chavales, y en una de esas visitas, Lázaro accedió a ir donde los sacramentinos de Tolosa. Pero luego abandonó ese colegio y en 1969 se casó con Mari Carmen Etxezarreta.

Una vez casados, Lázaro y Mari Carmen pasaron los tres primeros años en el molino Sagastizabal de Ezkio, la casa natal de la esposa. En 1972 se mudaron a esta casa de la Calle Vieja en la que Lázaro había pasado su niñez. En los 70, fue presidente del equipo de fútbol Ilintxa. Aquí nacieron sus hijos Aitor (1970) y Arantxa (1976). Marcharon de esta casa en 1980.

Por otra parte, en los bajos de este edificio, entrando desde la Calle Nueva, Anastasio Mujika, que había sido sereno y alguacil, tuvo un taller de bicicletas en los años 50 y 60. El rótulo ponía 'Ciclos Múgica'. ❖



ESKRIBAUKOA (Arrizabalaganea, Gariñenea) 12 ESKRIBAUKOA (Arrizabalaganea, La de Garin)



Garinen etxea ezkerraldean eta Etxagorri eskuinaldean.



Garinen etxeko terrazan, Patricia Garinen gurasoak: Juan Jose eta Eugenia Alberdi (Juan Jose Mendinuetak emana).



Fermin Garinen etxeko ate ondoan 1951n-edo. Fermin, Maritere, Blanqui, Itziar, eta behean Juan Fermin.



Fermin Garinen okindegiko atea.

[eu] 1832an, Arrizabalaganea esaten zioten etxe honi. Bertako jabea Juan Bautista Arrizabalaga Olalde (Legazpi, 1773) zen, zeina Legazpiko eskribaua ("escribano de número") izan baitzen 1800-1842 urtetartean gutxienez. 1853an Tolosako biztanle moduan ageri zaigu. Orduan etxe hau hipotekatu zuen eta, beronekin batera, Gabiriako beste ondasun batzuk, hala nola Armandegi etxea eta Errota baserria; eta baita Ormaiztegiko beste errota bat, eta beste baserri bat Auntz Chincharreta (sic) izenekoa. (AGG-GAO PT3246/327:953)

1832an, Juan Bautista Legazpiko etxe honetantxe bizi zen, Francisca de las Cuebas Quebedo Setién-ekin ezkondua. Gizon sonatua izan zen. Batzar Nagusietako idazkari ere izan zen, eta Probintziako diruzaina.

1930ean, Benigno Arrizabalaga ageri da etxe honetako jabe moduan. Jose Mª Arrizabalaga Cuevasen seme zen, eta aipatutako Juan Bautista haren biloba. Arrizabalagatarrok hiru belaunaldi tan zehar izan ziren eskribau.

[es] En 1832 ya se conocía este inmueble como Arrizabalaganea. Entonces el dueño era Juan Bautista Arrizabalaga, quien fue escribano de número de la localidad al menos entre 1800 y 1842. En 1853 aparece como residente en Tolosa y ese año hipoteca no solo esta casa, sino otras propiedades de Gabiria, como la casa Armandegi y el caserío-molino Errota, y además otro molino de Ormaiztegi, de nombre Auntz Chincharreta (sic). (AGG-GAO PT3246/327:953)

En aquel año de 1832 Juan Bautista vivía aquí mismo, casado con Francisca de las Cuebas Quebedo Setién. Fue una persona relevante; llegó a ser secretario de juntas y diputaciones y tesorero de la Provincia. Los Arrizabala fueron escribanos a lo largo de tres generaciones.

En 1930, aparece como dueño Benigno Arrizabalaga, hijo de José Mª Arrizabalaga Cuevas y nieto del mencionado escribano Juan Bautista.

Tras la guerra de 1936, la gente llamaba así a esta casa: "la de Garin". En la planta baja, el panadero Fermín



Juan Fermin Garin, Ilintxaren jantziarekin.



Fermin Garinen familia mendian (Juan Jose Mendinuetak emana).



Fermin Garinen alabak.

[eu] 1936ko gerra ostean, jendeak 'Gariñenea' esaten zion etxe honi. Beheko solairuan, Fermin Garin Ugarte (1901-1982) okinak eta emazte Patricia Garin Alberdik okindegi eta janari-denda zeukaten. Eta bizi, gainean bizi ziren, lehenbiziko solairuan.

Eraikin txapala zen, altuera gutxikoa. 1950. hamarkada erdi aldera bota zuten, bertan (eta aldameneko etxearen orubea ere hartuz) eraikin berria egiteko. Promotorea Fermin bera izan zen, eta berarekin batera Quintin Atin medikua.

Fermin Garin Zumarragan jaioa zen 1910ean. Aurrena, CAFen egin zuen lan, tornulari. Patricia ezagutu zuen Ordizian, eta honen aitak, hantxe okindegia zeukanez, ogia egiten erakutsi zion. Ezkondu ziren eta 1927-1928an Legazpira etortzea erabaki, ikusten zutelako herri honetan okindegi berri batek izango lukeela harrera onik.

Fermin oso pertsona aktiboa izan zen arlo sozialetan. Ilintxa futbol-taldeak Latxartegin bere lehen partida jokatu zuenean, 1946an, artean bera zegoen entre-

[es] Garin Ugarte (1901-1982) y su esposa Patricia Garin Alberdi, que procedían de Ordizia, tenían una tienda de alimentación en la que también vendían sus panes. Y en el primer piso vivía el matrimonio.

Era un edificio bajo. Se derruyó a mediados de los años 50, para hacer una casa grande de viviendas que ocupaba también el solar contiguo en dirección hacia la Papelera, una obra impulsada por el propio Fermín y el médico Quintín Atin.

Fermín Garin era nacido en Zumarraga en 1901. Primeramente trabajó como tornero en la CAF. Conoció a su mujer Patricia, de Ordizia, y el padre de ésta, Juan José, que tenía panadería, en ese pueblo, le enseñó a elaborar pan. El matrimonio decidió asentarse en Legazpi hacia 1927-1928, porque veían que en este pueblo un panadero nuevo tendría clientela.

Fermín fue una persona muy activa socialmente, ejerció de entrenador del equipo de fútbol Ilintxa cuando en 1946 jugó su primer partido en el campo de Latxartegi. Luego ostentaría además la presidencia del

[eu] natzaile. Eta gero bera aukeratu zuten lehendakari. Jendeak gogoan zeukan nola Ferminek jokalariak eramaten zituen batetik bestera bere furgonetan. Jakinekoa zen ez zela batere Elizaren zale, eta alde horretatik inguruan baziren antzeko beste bi lagun: kale bereko Arcadio barberoa eta Toki-Alaiko Valentin Izagirre. Ez zen mezatara joaten eta, Aste Santuko prozesioak egiten zirenean, ez zuen guztiz jaisten okindegiko pertsiana. Hala ere guztiz ere, seme-alabak ohiko giro erlijiosoan murgilduta hazi ziren.

Gerra ostean, hilabete batzuk pasa zituen Ondarretako kartzelan. Guardia Zibilen kaboak salaketa jarri baitzion mezatara ez joateagatik. Eta hantxe zegoen amaginarreba ere, hau berriz preso errezoen kontu batengatik, emakume hura oso-oso elizkoia zen eta. Ferminen biloba Juan Jose Mendinueta Garinek kontatu zigunez, aitona Ferminek esan zuen "Francori esker" karrera egin zuela gerra garaian. Uztailaren 18an korrika ("a la carrera") atera zela herritik, Deustuan egonaldia egin zuela eta "unibertsitate" epea bukatutakoan Legazpira itzuli zela.

1940ko hamarkada bukaera aldera, Ferminek bi mutiko zituen laguntzaile okindegian: Pello Alzelai eta Jose Mari Lopez de Sabando. Jose Luis Arrietak gogoan du gizon honek bi zakur zituela, euskal izenekin bataiatuak, Eguzki eta Jagi, zakur izanda ere ez zirenak gai basabetarren katua mendean hartzeko.

Seme Ferminen (1946) testigantzaren arabera, aitak, lehenbizi, Brinkolara eraman ohi zuen ogia, trenez oso goiz. Gero, furgonetarekin, auzoetara joan ohi zen banatzera. Okinaren emaztea, Patricia, 1950ean hil zen. Fermin alarguna Madrilera joan zen 1960ko hamarkada hasieran, eta Collado Villalban gasolindegi bat gobernatu zuen, zeina Guatemalan bizi zen anaia Danielena baitzen. Ferminekin batera, alaba zaharrenak joan ziren, Mari Carmen eta Iciar. Beste bi alaba Legazpin gelditu ziren; Blanca, Ramon Mazkiaran zumarragatarrarekin ezkondu zen eta 2016an hil, 83 urte zituela; eta Teresa, Agustin Agirre legazpiarrarekin ezkondu eta 2017an hil, 80 urterekin. Seme-alabetan gazteena, Juan Fermin, 1973an ezkondu eta Loiura joan zen bizi izatera. ❖

[es] club. Es recordada la estampa del panadero transportando a jugadores en su furgoneta. También dejó huella por su distanciamiento de la Iglesia, al igual que el peluquero y vecino de calle Arcadio García y Valentín Izagirre, del Bar Toki Alai. No iba a misa y, cuando llegaban las multitudinarias procesiones de Semana Santa, no bajaba del todo la persiana de la panadería. No obstante, sus hijos crecieron integrados en el ambiente religioso de su época.

Fermín llegó a pasar una temporada corta en la cárcel de Ondarreta en los primeros años de posguerra, denunciado por el cabo de la guardia civil por no ir a misa. Allí coincidió con su suegra, quien estaba presa por un asunto relacionado con los rezos. Aquella mujer era extremadamente religiosa. Según el testimonio del nieto Juan José Mendinueta Garin, en una ocasión, Fermín comentó que, "gracias a Franco", durante la guerra él "hizo carrera". El 18 de julio salió "corriendo" de Legazpi, y tras mucha carrera, acabó pasando una temporada en Deusto. Al finalizar el período "universitario", volvió a Legazpi.

A fines de los 40, Fermín tenía como ayudantes a dos chavales: Pello Alzelai y José Mari López de Sabando. José Luis Arrieta recordaba que el panadero tenía dos perros, con nombres en euskera, Eguzki y Jagi, que no lograban imponerse al gato de los Basabe.

Según el testimonio de su hijo Fermín (1946), el padre primeramente llevaba el cesto de pan a Brinkola, en tren, muy temprano. Luego, con la furgoneta, pasaba por los barrios. Patricia falleció en 1950. A principios de la decada de 1960 el viudo Fermín se fue a vivir a Madrid. Gestionó en Collado Villalba una gasolinera propiedad de su hermano Daniel, que vivía en Guatemala. También se marcharon a vivir allí sus dos hijas mayores, Mari Carmen e Iciar. Otras dos hijas vivieron en Legazpi: Blanca se casó con Ramón Mazkiaran, de Zumarraga, y murió en 2016 a los 83 años; Mª Teresa se casó con Agustín Agirre y falleció en 2017 a los 80 años. El hijo menor, Juan Fermín, ha vivido en Loiu desde que se casó en 1973. ❖



ETXAGORRI (Paco Barandiaranen etxea) 13 ETXAGORRI (Casa de Paco Barandiaran)



Etxagorri etxe altua zen besteen aldean
(Enrique Guinea, Gasteizko Udal Artxiboa, GUI-IV 100.09)

[eu] 1832ko etxe-zerrenda batean, 'Echagorri' zuen izena eraikin honek, eta bertako azken biztanleak Paco Barandiaranen familiako kideak izan ziren. Aipatutako urte hartan, jabea Francisco de Raizabal zen, eta bertako biztanlea Manuel Antonio de Egaña. Etxe txiki baina altua zen, solairu bakoitzean bizitza bakarra, eta beheko solairuan sutegia. Atzean baratzea zeukan. 1957. urte aldera desagertu zen.

1857. urtean, Lazaro Inurritegi Arza (1823, Oñati) eta Francisca Gorospe Zabaleta (1824, Zegama) bizi ziren, familiarekin. Itxura denez, gero Egialdeko Zubiandia etxera aldatu ziren eta, handik aurrera, Laxaronea izenez ezagutu izan zen eraikin hura.

1876an, (AHPH 1/4921/7,A), nagusia Jose Ramon de Raizabal (1833) genuen, lehengo Juan Francisco haren seme eta, ogibidez, "dentista", eta urte horretantxe Acisclo Olalde y Lazcano Yturburu (Oñati, 1817) izeneko abadeari saldu zion, zeina orduan 58 urteko gizona baitzen eta Legazpin bizi zen. "Dentistak", berriz, amarengandik (Francisca Antonia Aguirre Guridi) jasoa zuen eraikina, herentzian.

1894ko udal erroldaren arabera, etxe honetan Acisclo Olalde koadjutorea bizi zen, artean 77 urtekoa. Eta harekin batera neskamea, Magdalena Olalde Kortaberria, 31 urtekoa.

Markastegikoak ziren jabe

1930ean, etxe-nagusia Jose Miguel Olabide Plazaola genuen. Telleriarteko Markastegi baserrian jaioa zen, eta 1896an aldameneko Markastegierrotako Dolores Zangitu Iñurritegirekin ezkondua.

Ez dakigu nagusi hauen arbasoak etxe honetan bizi izan ziren. Badakigu ezkondu eta gero Jose Migel eta Doloresek Markastegierrotan jarri zirela. Jose Migelek hargin jardun zuen (besteak beste Donostiako

[es] El edificio en el que en su última etapa vivió Paco Barandiaran se corresponde con el llamado 'Echagorri' de la lista de casas de 1832. En aquel año, el dueño era Juan Francisco de Raizabal, y el inquilino Manuel Antonio de Egaña. Era una casa pequeña pero alta, de una vivienda por planta, con una fragua y huerta a espaldas de la casa. Desapareció hacia 1957.

En 1857 vivían Lázaro Inurritegi Arza (1823, Oñati) y Francisca Gorospe Zabaleta (1824, Zegama) con sus hijos. Según parece, luego se trasladaron a Zubiandia, de Egialde, y a partir de entonces ese edificio comenzó a ser llamado Laxaronea.

En 1876 (AHPH 1/4921/7, A) José Ramón de Raizabal y Aguirre (1833), de 42 años e hijo de aquel Juan Francisco, y de profesión "dentista", que había recibido la casa en herencia de su madre (Francisca Antonia Aguirre y Guridi), la vende al presbítero Acisclo Olalde y Lazcano Yturburu, de 58 años (Oñati, 1817), vecino entonces de la misma Legazpi.

Según el padrón municipal de 1894, vive en esta casa el "coadjutor" Acisclo Olalde, entonces con 77 años (y 21 años de residencia en la localidad), y acompañado por la sirvienta Magdalena Olalde Cortaberria, de 31 años.

Los dueños eran de Markastegi

En 1930, su dueño era José Miguel Olabide Plazaola, nacido en el caserío Markastegi de Telleriarte, y casado en 1896 con Dolores Zangitu Iñurritegi (1872), del vecino caserío Markastegierrota, que desapareció a comienzos de la década de 1950 y estaba situado justo en el sitio en el que Patricio Etxeberria edificó la ferrería de Mirandaola. Tuvieron dos hijos: Dionisio e Isidro.



Dolores Zangitu, senar Jose Miguel Olabide eta seme Isidro Olabiderekin (Elvira Olabidek emana).

[eu] Artzain Onaren katedralaren eraikuntzan) eta Dolores errotari segitu zuen, etxeko gazteek lagunduta. Bera zen ahizpetan zaharrena.

1950. hamarkada hasieran, eta baita aurreko hamarkadan ere, bi ahizpa ezkongabe bizi izan ziren etxe honetan, Dolores Zangituren ahizpak: Maria ('Maria koja', 1883) eta Paulina (1880). Lehenengoa oso herrena zen, txikitako poliomielitisaren ondorioz, jostuna izan zen eta zahartutakoan ordu asko ematen zuen etxeko terrazan. Zangitutarrok senide asko ziren eta, Elvira Olabide (1928) gure berri-emaileak adierazi zigunez, baziren gutxienez beste bi ahizpa, Salome eta Petra, biak ala biak gaztetxotan Bilbora joandakoak neskame. Petra Durangora ezkondu zen eta Salome Bilbora, baina hau gazterik hil zen eta umeak Paulinak zaindu zituen. Haurrok koskortu eta gero, Legazpira itzuli zen.

Jose Luis Arrietak (1941) komentatu digunez, bera ume zela Maria eta Paulinak errespetua eragiten zien, eta inoiz beldurra ere bai: "Baina ez dakit ba, baliteke

[es] No sabemos si los antepasados de estos dueños residieron en esta casa de la Calle Vieja. Se sabe que, nada más casarse, José Miguel y Dolores siguieron viviendo en Markastegierrota. José Miguel trabajó como cantero (por ejemplo, en las obras de edificación del Buen Pastor de Donostia), mientras Dolores ejercía de molinera, ayudada por sus hijos. Era la mayor de las hermanas.

Luego, en la década de 1940 y a comienzos de los 50, vivieron en esta casa dos hermanas solteras, hermanas de Dolores Zangitu, la esposa de José Miguel Olabide: María ('Maria koja', 1883) y Paulina (1880). La primera era muy coja a consecuencia de la poliomielitis, se ganó la vida como modista, trabajando desde casa, y en la vejez pasaba muchas horas en la amplia terraza de la casa. Los Zangitu eran bastantes hermanos y hermanas, y nuestra informante, Elvira Olabide (1928), comentó que había al menos otras dos hermanas, Salomé y Petra, que siendo unas chavalas salieron a Bilbao a servir como criadas. Petra se casó a Durango y Salomé a Bilbao, pero murió joven, y sus niños fue-

[eu] emakume haiek ibiltzea beldurtuta, orduko mutiko kuadrilla bat oso-oso bihurria zen eta. Deitzen zuten botikara eta esaten zuten: ¿tiene corriente?, pues cierre la puerta".

Paulinak, Bilbotik bueltatuta, Ignacio Agirre Montegiren (1861-1942) etxean jardun zuen neskame. Gizon aberats hau Madril eta Legazpi artean bizi izan zen.

Nagusiek hala erabakita, bi ahizpok ez zuten etxearengatik errentarik ordaintzen.

Paulina hil zen eta Maria, berriz, toki horretantxe egin zen etxe berrira pasa zen, 1950. hamarkada bukaera aldera. Azken urteak zaintzailearekin eman zituen, Telleriarteko Elorza baserriko Anastasi Ormazabalekin. Baina etxe berria egiten ari ziren bitartean Mirandaola baserrian bizitu zen.

Barandiaran barbero ere bazen

Bigarren solairuan Paco Barandiaran eta Carmen Intxausti bizi izan ziren. Zumarragan jaio eta umetan etorria zen Paco, lehenbizi Papeleran lan egin zuen eta gero Patrizionean. Dionisio zuen aita, Ataungo Etxebeltzekoa eta Zumarragara lanera etorritakoa. Carmen, berriz, Gabiriako Igeribarazpikoan jaioa zen.

Pacok, 16 urte zituela, Itxarkundia batailoiko gudariekin bat egin zuen, Francoren altxamenduaren aurka. Haren argazki aski ezaguna badago, granada jaurtitzen ageri delarik, 'Legazpi 1936' liburuan ikus daitekeena.

1939an, gerra bukatutakoan, Paco ez zuten Patrizioren fabrikan onartu, eta Papeleran hasi zen. Geroago bai, urte asko egin zuen Patrizioneko Ajustajen. Fabrikako lana bukatuta, barbero aritzen zen berekasa, eta bezero ugarirekin. Ofizio hori Estanis Andueza azkoitiarrarekin ikasi zuen. Kale Berrian zeukan lantegia, Moraza okinaren lokal batean, eta

ron cuidados por su hermana Paulina, quien regresó a Legazpi una vez los niños tuvieron una edad. [es]

Según nos comentó José Luis Arrieta, que en los años 40 era un chaval, María y Paulina les imponían respeto, incluso miedo: "Pero ojo, quizá eran las hermanas las que estaban atemorizadas, porque entonces había una cuadrilla de chavales que eran muy-muy traviesos. Llamaban a la farmacia y decían: ¿tiene corriente?, pues cierre la puerta".

Paulina, después de regresar de Bilbao, trabajó como criada en la casa de Ignacio Agirre Montegi (1861-1942), un hombre adinerado que vivió entre Madrid y Legazpi, y que retrató como fotógrafo aficionado tipos y paisajes de media Europa.

Por cortesía de los dueños, María y Paulina no pagaban renta por la vivienda.

Paulina murió y María vivió hasta el punto de que pasó a vivir en la casa nueva que se edificó en ese mismo lugar a fines de los años 50. En sus últimos años vivió junto con su cuidadora, Anastasi Ormazabal, del caserío Elorza de Telleriarte. Mientras se hacía la casa nueva residió en el caserío Mirandaola.

Barandiaran era también peluquero

En el segundo piso estaba la vivienda de Paco Barandiaran y Carmen Intxausti. Paco vino de Zumarraga, siendo niño, trabajó primero en la Papelera y a partir de 1952 en la fábrica de Patricio. Era hijo de Dionisio, ataundarra de la casa Etxebeltz, quien fue a trabajar a Zumarraga.

En 1936, cuando contaba con solo 16 años se marchó de casa para alistarse con los gudaris en el batallón Itxarkundia. Existe una foto suya bastante conocida, en la que aparece lanzando una granada, que se publicó en el libro 'Legazpi 1936'.

En 1939, al acabar la guerra, no le admitieron en la fábrica de Patricio, y comenzó a trabajar en la Pape-



Paco Barandiaran eta Carmen Intxausti (Jose Luis Barandiaranek emana).



Carmen Intxausti eta Paco Barandiaran, behean eskuinaldean (Eloi Yarzak emana).



Paco Barandiaran eta behean Carmen Intxausti, futbol partidu batean (Jose Luis Barandiaranek emana).



Juanito Zabaleta Idigoras eta ama Tomasa (Maite Zabaletak emana).

[eu] anaia batek laguntzen zion, Joxe Barandiaranek. Honek behatz batzuk galdu zituen fabrikako istripu batean, eta orduan beste laguntzaile bat hartu zuen.

Oihuka meza erdian

Behin, 1944. urte aldera, halako 'performance' harrigarri bat egin zuen eliza barruan, 'misa del gallo'-ren erdian, jaunartze garaian, bere adiskide Juanito (Juan Jose) Zabaleta Idigorasekin batera. Oihuka hasi ziren. Batak: 'Menos sermón, más gratificación; besteak: 'Menos pamplinas, más propinas'. Kontua da bi lagunok Papeleran ari zirela, eta Patrizioren fabrikan Gabonetako gratifikazioa jasotzen hasiak zirela, baina Papeleran horrelakorik ez. "Elizako ger-

[es] lera. A partir de 1952 trabajó en el Ajustaje de la empresa de Patricio, y al acabar la jornada (a relevo) ejercía de peluquero, ayudado por su hermano Joxe, con abundante clientela. Aprendió el oficio al lado del azkoitiarra Estanis Andueza. La barbería se hallaba en un local de la Calle Nueva, propiedad del panadero Moraza. Cuando Joxe perdió varios dedos en un accidente laboral en la fábrica de Patricio, Paco tuvo que buscarse otro ayudante.

Protesta en mitad de la misa

En una ocasión, hacia 1944, Paco llevó a cabo una acción arriesgada. Estando dentro de la iglesia, en el transcurso de la 'misa de gallo', concretamente a la hora de

[eu] taera horrekin Papelerako nagusiak sekulako disgustua hartu zuen. Baina abenduaren 27an (hiru egun geroago) lehenengo gratifikazioa eman zuen enpresak", esan digu Maite Zabaletak, Juanitoren alabak. Badirudi Francoren gobernuak behartu zituela enpresa denak sari hori ematera. 1936an, miliziano moduan Ordiziako udaletxea zaintzen ari zela, Juanito Zabaletak tiroa jaso zuen, zauria gaiztotu eta azkenean hanka galdu zuen. Suedian egindako hankaordea zeukan, bizimodu nahiko normala ahalbidetzen ziona.

Paco eta Carmenek hiru seme-alaba eduki zituzten etxe honetan: Amparo (1941), Jose Luis (1944) eta Esther. Etxea bota zutenean, 1950eko hamarkada bukaera aldera, familia honek egoera zaila bizi izan zuen. Pacok auzitara eraman zituen promotoreak, ez zegoelako ados pisu berriarengatik eskatzen zioten prezioarekin. Promotoreek 180.000 pezeta eskatzen zioten, eta Pacok zioen 130.000 zela prezio bidezkoa.

Lehenbizi Bergarako auzitegian, gero Iruñekoraino ailegatu zen auzia. Azkenean, promotoreek (Fermin Garin okinak eta Quintin Atin medikuak) eskatzen zuten prezioa ordaindu behar izan zuen Barandiaranek. Pacoren familiak hiru urte eman zituen udaletxeko pisu batean eta etxe berrira atea botata sartu ziren, lagun batzuen laguntzarekin.

Eraikin berria zabala zen, bi etxe zeuden lekua hartu zuelako. Sarrera Kale Nagusitik zeukan, baina Kale Zahar aldera bazituen lokal komertzialak. Eraikitzaileak Barea zeukan abizena, eta horregatik 'Barearen etxea' esan ohi zioten.

Paco Barandiaran 1991n hil zen, 71 urte zituela. Carmen, 1997an. ❖

[es] la comunión, Paco y su amigo Juanito (Juan José) Zabaleta Idigoras se pusieron de acuerdo para uno gritar 'menos sermón, más gratificación' y el otro 'menos pamplinas, más propinas'. Resulta que ambos eran operarios de la Papelera, y protestaban porque, al contrario que en la fábrica de Patricio, en su empresa no había gratificación navideña. "El dueño de la Papelera cogió un disgusto terrible, pero el 27 de diciembre, a los tres días, los obreros de la Papelera recibieron esa paga", nos ha comentado Maite Zabaleta, la hija de Juanito. Según parece, el gobierno de Franco obligó a las empresas a pagar la gratificación.

Paco se casó con Carmen Intxausti, que había llegado desde el caserío Igeribarazpikoa de Gabiria. Tuvieron tres hijos en Etxagorri: Amparo (1941), José Luis (1944) y Esther. Cuando se derribó la casa, esta familia vivió una situación difícil. Paco llevó a los promotores del nuevo edificio a los tribunales, por no estar de acuerdo con el precio (180.000 pesetas) que le pedían por la nueva casa. Paco respondía que el precio debía ser de 130.000 pesetas.

Barandiaran litigó primero en Bergara, luego en Pamplona. Finalmente, tras pasar tres años en una vivienda de la casa consistorial, tuvo que pagar lo que pedían los promotores, que eran el panadero Fermín Garin (quien había vivido y trabajado en la casa contigua) y el médico Quintín Atin. Barandiaran, con la ayuda de unos amigos, derribó la puerta para acceder al nuevo domicilio.

El nuevo edificio, que ocupaba el espacio de dos casas contiguas de la Calle Vieja y por lo tanto era amplio, tenía la entrada por la Calle Nueva. Pero contaba con bajos comerciales con puerta por la Calle Vieja. Fue construido a fines de los 50 por Barea, por lo que en esa época le denominaban "la casa de Barea".

Paco Barandiaran falleció en 1991, a los 71 años. Su mujer Carmen, en 1997. ❖



URMENETANEA (Baldomeronea, Tranpatxikinea) 14 URMENETANEA (Baldomeronea, Tranpatxikinea)



Urmenetanea, kale goieneko etxe-ilaran azkena
(Enrique Guinea, Gasteizko Udal Artxiboa, GUI-IV 100.09).

[eu]

Gaur egun ikusten dugun etxea Baldomero Urmeneta Jauregik egin zuen 1932an. Proiektua Luis Astiazaran arkitekto famatuarena izan zen, zeinak etxeberria eta elorzatar zenbaiten txaletak proiektatu baitzituen herrian. Bertako etxe zaharrean jaio zen Baldomero 1886an, eta hura bota zuen berri hau altxatzeko. Bera zen etxe-nagusia. Eraikitze-lanek iraun zuten bitartean, familia hau ondoko etxe batean bizi izan zen, Etxagorrin.

Lehengo etxe zaharrak, aldamenekoak ez bezala, atzeko aldean ez zeukan terrazarik. Eskailera txiki bat zegoen baratzera joateko. Etxatze hartan txerraska zegoen, eta halako batean, inguruan zebiltzan ijito batzuek han gatzetan zegoen urdaiazpikoa harrapatu zuten. Baina baten bat konturatu eta amona Rafaela (1874) atzetik atera zen sukaldetik labana handiena hartuta. Azkenean lortu zuen ijitoek amore eman eta urdaiazpikoa bueltatzea.

1832an, Jose Mª Urmeneta Irizar (Legazpi, 1798) zen etxeko nagusia eta bertan bizi zen, Josefa Ugarte Jauregirekin ezkonduta. Lau alaba eta seme bat izan zituzten: Josefa Joaquina (1832), Micaela Manuela (1834-1835), Miguel Antonio (1837), Eugenia Manuela (1842) eta Claudia (1846-1863).

Seme hura (Miguel Antonio) izan zen etxera ezkondu zena; Rafaela Jauregi Murua legazpiarrarekin 1867an. Seme-alabok eduki zituzten: Jose Cornelio (1868-1868), Rafael (1870), Fabian Joaquin (1873-1893), Gumersinda (1876), Jose Sinforiano (1878-1897), Urbano (1881-1900), Juana (1884), Baldomero (1886), Anselmo (1889-1893) eta Mª Concepción Catalina (1891-1893).

Seme Baldomerok segitu zuen etxean. Makatza baserrian jaiotako Joaquina Gabiriarekin ezkondu zen. Joaquinak bi urte zituela, jaiotetxea erre egin zen, eta Bikuñaaundin hazi zen. Han lehengusu batzuk bizi ziren, gabiriatarrak, Altagracia, Justa, Jose Mari, Maria Luisa eta Saturnino.

[es]

La casa de hoy en día fue construida por Baldomero Urmeneta Jauregi en 1932, con proyecto a cargo del afamado arquitecto Luis Astiazaran, que realizó en el pueblo las mansiones de varios miembros de las familias Etxeberria y Elorza. Baldomero era nacido en 1886 en la casa que ocupaba el solar anteriormente, y derribó aquella para hacer esta otra. Era el propietario del inmueble. Mientras duraron los trabajos de edificación, la familia residió en una casa de al lado, Etxagorri.

La casa vieja, al contrario de Etxagorri, no tenía terraza en la parte trasera. Había una escalera pequeña para pasar a la huerta. En esa zona de atrás existía un pesebre, y un día unos gitanos se llevaron un jamón guardado allí en sal. Pero alguien se percató y la abuela Rafaela salió detrás de los ladrones con el cuchillo más grande de la cocina. Finalmente consiguió que devolvieran el jamón.

En 1832, el dueño del edificio era José Mª de Urmeneta. Vivía allí mismo, casado con Josefa Jauregi Ugarte. Tuvieron cuatro hijas y un hijo, (Miguel) Antonio, que fue quien siguió viviendo en la casa. Aquellas hijas fueron Josefa Joaquina (1832), Micaela Manuela (1834-1835), Eugenia Manuela (1842) y Claudia (1846-1863).

Según el censo de 1894, vivían aquí el carpintero Antonio Urmeneta Ugarte (1839) y su esposa Rafaela Jauregi Murua (1847), ambos nacidos en Legazpi, junto con sus hijos: Gumersinda (1876), José (1878), Urbano (1881), Juana (1884) y Baldomero (1886). Asimismo, era la residencia de Ignacio Plazaola Mantxola (1814), un señor de edad avanzada. Luego nacieron más hijos: Anselmo (1889-1893) y Mª Concepción Catalina (1891-1893).

Fue el hijo Baldomero quien siguió en la casa. Se casó con Joaquina Gabiria Balerdi (1893), del caserío Makatza. Cuando esta mujer tenía dos años se quemó el caserío y creció en el palacio de Bikuñaaundi, donde vivían unos primos, Altagracia, Justa, José Mari, María Luisa y Saturnino Gabiria Makibar.



Joaquina Gabiria eta Baldomero Urmeneta, ezkon berritan (1915) (Encarna Urmenetak emana).



Baldomero Urmeneta eta Pedro Alzelai 'Fleta' (Lucio Vergara).



Nicolas Urmeneta (Bernardita Galfarsorok emana).



Baldomero Urmeneta, emazte Joaquina Gabiria, eta Encarna alaba eta Jose Luis Martin suhia (Encarna Urmenetak emana).



Baldomero Urmeneta, Joaquina Gabiria eta seme-alabak. Bitor, Conchita, Juanito 'Potolo', Bitoriano, Encarna, Nicolas (Lucio Vergara) (Encarna Urmenetak emana).

[eu] Joaquina, neskatila zela, Oñatira joan zen serbitzera. Hamalau urte zituela herrira itzuli eta geroago Baldomero ezagutu. 1915ean ezkondu ziren, eztei-bidaian Logroñora joan eta han zeudela, ezkonberrien argazki 'ofiziala' egin.

[es] Joaquina, siendo una chavala, fue a Oñati a trabajar de criada. Regresó con catorce años y luego conoció a Baldomero y se casaron en 1915, se marcharon de viaje de novios a Logroño y allí se sacaron la foto 'oficial'.

[eu]

Astean arotza, asteburuetan barbero

Arotza zen Baldomero, eta Patrizioneko enplegatua. Baina barberoa izan zen baita ere, batik bat larunbat eta igandeetan lan egiten zuelarik. Bere etxean, Kale Zaharreko aldean, zeukan barberia. Igandeetan, meza ostean, urrutiko zenbait baserritara joan ohi zen, bertan gizon adinduei ilea eta bizarra egiteko. Alaba Encarnak (1933-2024) gogoan du nola umetan lagundu izan zion Lakiolara eta Urtatzazarrera. Encarnaren testigantza: "Hor, Urtatzazarren, sukaldea iluna zen eta eulia besterik ez. Hango euli-hotsa! Gizona, Roque, itsua zen. Gogoan daukat salda eskaini zidatela katilu batean. Baina katiluak koska batzuk zituen belztuak eta nazka eman zidan. 'Hartu, hartu!' esaten zidan aitak, baina nik ez nuen inola ere nahi".

Alaba honek beste eszena hau dauka gogoan iltzatuta: "1936ko gerra garaian ospitalea egon zen (gaur egungo Santa Cruz zahar-egoitzan). Aita hara joaten zen bertakoei ilea moztera eta nik inoiz lagundu nion. Behin, han bazegoen soldadu bat beso bat moztuta zeukana, eta burukoaren azpian gailetak zeuzkan. Altxa zuen burukoa eta gaileta eskaini zidan. Sekulako zirrara eragin zidan; ez nion hartu".

Ilintxa elkartea hemen egon zen

Egun ikusten dugun etxea egin eta handik denbora gutxira, Ilintxa elkartea jarri zen bertan, lehen solairuan. 1934an inauguratu zen, lehenengo lehendakaria Jose Etxeberria izan zelarik, Patrizioren semea. Zoilo Aldasoro idazkari lanetan jardun zen eta kirolen sustapenean lan handia egin. Ekitaldi aretoa ere bazeukan elkarteak eta era askotako ikuskizunak

[es]

En la fábrica carpintero, los fines de semana barbero

Baldomero Urmeneta era carpintero y empleado de la fábrica de Patricio. Pero también trabajó como barbero, sobre todo los sábados y domingos. Tenía su barbería en los bajos de la casa, con entrada desde la Calle Vieja. Los domingos, tras la misa, se dirigía a ciertos caseríos lejanos, para arreglar el pelo y la barba a hombres de edad. Su hija Encarna (1933-2024) recordaba cómo le acompañó a Lakiola y Urtatzazar: "En Urtatzazar la cocina era oscura y no había más que moscas. ¡Menudo zumbido! El hombre de la casa, Roque, estaba ciego. Recuerdo que me ofrecieron caldo en un tazón, que tenía los bordes con koskas ennegrecidas. Me daba asco, y el padre me dijo: toma, toma. Pero yo no quería".

Esta hija recordaba otra escena vivida junto a Baldomero: "Cuando la guerra del 36 hubo hospital (en la actual residencia Santa Cruz). El padre iba a cortar el pelo a los ingresados y yo le acompañé alguna vez. En una ocasión, un soldado, que tenía un brazo cortado, levantó la almohada y me ofreció una galleta de un paquete que guardaba allí. Me hizo una impresión terrible. No se la cogí".

Aquí arrancó la sociedad Ilintxa

En 1934, al poco de edificarse esta casa, en la primera planta tuvo su sede la sociedad recreativa Ilintxa. Su primer presidente fue José Etxeberria, hijo de Patricio, y desde su puesto de secretario Zoilo Aldasoro impulsó muchas actividades deportivas. Había salón de actos y se ofrecían espectáculos de teatro y bailables. A mediados de los años 50, Baldomero Urme-

[eu] egin ohi ziren, hala nola antzezlanak; eta dantzaldiak ere izaten ziren. 1950. hamarkada erdi aldera Baldomero Urmenetak bertan behera utzi zuen alokairu-kontratua, familiako kideentzat beste etxebizitza bat behar zuela-eta. Halaxe, 1958an, Ilintxa elkartea egungo tokira aldatu zen, Santikutz kaleko 4garrenera, 'serenaren aldapa' ondora.

Hona Baldomero eta Joaquinaren seme-alabak: Bittor (Olaberriko Cristina Zabaletarekin ezkondu zen), Conchita (ez zen ezkondu), Juanito 'Potolo' (ez zen ezkondu), Victoriano (Mª Asun Perezekin ezkondua), Nicolas (Bernardita Galfarsororekin ezkondua) eta Encarna (Jose Luis Martinekin ezkondua). ❖


neta hizo saber que necesitaba el local para edificar otra vivienda para sus hijos, y finalmente en 1958 la sociedad se trasladó al lugar que ocupa en la actualidad, cerca de la 'cuesta de la serena'. [es]

Los hijos de Baldomero y Joaquina fueron Víctor (casado con Cristina Zabaleta, de Olaberria), Conchita (no se casó), Juanito 'Potolo' (tampoco se casó), Victoriano (marido de Mª Asun Pérez), Nicolás (casado con Bernardita Galfarsoro) y Encarna (casada con José Luis Martín). ❖




Urmenetanea (Santiago Fz. de Quincoces).





07
[kalegoena]
plazaola

1. Landaneaundi
2. Landanetxiki
3. Ugalde
4. Etxaluze
5. Oiarbidenea
6. Medikuzarranea
7. Elorzanea
8. Bizkaiñonea
9. Plazaola eta Plazaolaerrota



07 __ kalegoena
plazaola

LANDANEAUNDI (Konpitteonekoa, Abarkeronekoa) 1 LANDANEAUNDI (Konpitteonekoa, Abarkeronekoa)



Konpitteonekoa, 1972 (Jesus Anduezaren argazkia) (Agustin Zubeldiak emana).



Konpitteonekoa errondailako kideen atzean.

[eu]

1609an Legazpiko plazan edo kalean bazen 'La de Miguel de Landa' izenez ezagutzen zen etxea.

Jose Luis Ugarteren ikerketaren arabera, udal artxiboan, 1787ko agiri batean, 'Landanea nueba' izenez agertzen da etxe hau. 1832an, nagusia Martin de Argaia zen, eta bertako maizter eta bizilaguna, Juan Bautista de Andueza. 1843an, Sebastian de Aguirre delakoa agertzen da bizilagun gisa.

Hemeretzigarren mendean Landanea Mayor zuen izena. Andresenetik gertu zegoen, eliza alderago. 1976an eraitsi zuten.

Hemeretzigarren mende erdi aldera, Zabalo-Telleria familia bizi zen bertan (Jose Mª eta Josefa Ignacia, zenbait seme-alabarekin). 1894ko udal erroldan, haien alaba bat agertzen da, Josefa Ramona Zabalo Telleria, eta baita Arrasate eta Zumarragatik etorritako beste lagun batzuk ere.

1867an, Seguran bizi zen Luis Mª de Argaya y Aguirre zen jabea. Abokatua genuen, eta bazituen beste etxe eta lursail batzuk ere, Seguran, Zerainen, Zumarragan eta baita Donosti aldean ere. Urte hartan, alokairuan utzi zion etxea Jose Mª Zabalo Mendia konpitteo (gozogile) eta txokolategileari, sei urterako. Lehenagotik bizi ziren bertan zabalotarrak, eta geroago ere biziko ziren.

1871n hil zen Luis Mª de Argaya, ondorengorik gabe. Landanetxikiko (Landanea Menor) jabe ere berau izana zen. Bi urte geroago, Landaneaundi Juana Francisca Urretabizkaia Argaiari eman zion Azpeitiko epaitegiak. Emakume hau ere hil zen eta 1881ean alargunak (Juan Jose Balda Korta) eta seme-alabek, denak donostiarrak, Felipe Errazti Amutxastegiri saldu zioten, zeina Bergaran jaioa baitzen eta aipatutako Josefa Ramona Zabalorekin zegoen ezkonduta.

1881eko salerosketa agirian esaten denez, eraikin honek 204 metro koadro ditu. Aldameneko Urola ibaiari 'Kaleibaya' deitzen diote.

1894ko udal erroldan Josefa Ramona Zabalo ageri da, 1830ean jaioa eta alarguna; aipatutako Felipe Errazti Amutxastegiren alarguna.

[es]

En 1609 existía en la calle o la plaza de Legazpi una casa conocida como 'La de Miguel de Landa'.

En 1607 existía en Legazpi una 'casa de Miguel de Landa'. Según la investigación de José Luis Ugarte, en 1787 aparece en el archivo municipal con el nombre de 'Landanea nueba'. En 1832, su propietario era Martín de Argaia, y el inquilino, Juan Bautista de Andueza. En 1843, la casa se conoce con el nombre de Landanea Mayor. Estaba situada cerca de la casa Andresenea, en dirección a la iglesia parroquial. Fue derruida en 1976.

En 1867, su dueño era Luis Mª de Argaya y Aguirre, que vivía en Segura. Falleció en 1871. Era abogado. Tenía otras casas y terrenos, en localidades como Segura, Zerain, Ataun, Zumarraga y San Sebastián. Ese año dejó esta casa a renta a José Mª Zabalo Mendia, de profesión confitero y chocolatero, para un plazo de seis años. Pero ese linaje ya llevaba viviendo ahí desde varias décadas antes, y seguiría vinculado a la casa bastantes años más.

A mediados del siglo XIX vivía la familia Zabalo-Telleria (José Mª y Josefa Ygnacia con varios hijos). En el censo de 1894 aparece como residente una hija de aquellos, Josefa Ramona Zabalo Telleria, además de otras personas procedentes de Arrasate y Zumarraga.

Según se expresa en el contrato de arrendamiento de 1867, esta casa linda, por el sur, con la casa de Valentín Arrieta, llamada también Etxetxikia y Etxaestu, y que luego albergaría el matadero; por el este, con Landanea Menor o Txortxikonea; y por el norte, con el puente de Plazaola.

A mediados del siglo XIX, el dueño era Luis María Argaya, un abogado que vivía en Segura, era hijo de Martín (Martín Antonio) y falleció en 1871, sin dejar descendientes directos. Esta persona era dueña también de Landanea Menor. Dos años más tarde, fue declarada heredera de este inmueble Juana Francisca Urretabizkaia Argaia. Esta persona también falleció, y en 1881 su viudo (Juan José Balda Korta) e hijos, todos residentes en Donostia, vendieron el edificio al labrador Felipe



Maria Aparicio eta Nicolas Larrea (Maritxu Alberdik emana).



Goian, Jesus Larrea, Pepe Aparicio, Jose Antonio Larrañaga, Maritxu Alberdi, Antonio Alberdi, Nicolas Larrea. Behean, Pilar Aparicio, Maribel Larrañaga, Iñaki Larrañaga, Milagros Larrañaga, Maria Aparicio (Maritxu Alberdik emana).

[eu] Oso litekeena da hemeretzigarren mendean hemen abarkagileren bat bizi izatea, hogeigarren mende hasieran 'Abarkeronekoa' esaten baitzitzaion eraikinari.

Hemeretzigarren mendeko agirien arabera, etxea mugante egiten da beste hauekin: hegoaldetik, Valentin de Arrietaren etxea (Etxaestu eta Etxetxikia izenez ere ezaguna, gero udal mataderia izango zena); sortaldetik, Landanetxiki edo Txortxikonea; eta iparraldetik, Plazaolako zubiarekin.

Errazti Amutxastegi, nacido en Bergara, de 56 años y casado con la mencionada Josefa Ramona Zabalo. [es]

En el documento de compraventa de 1881 se dice que el inmueble tiene 204 metros cuadrados. Al río que pasa a pocos metros (río Urola) se le denomina 'Kaleibaya'.

En el censo de 1894 aparece como residente Josefa Ramona Zabalo, nacida en 1830 y ya viuda del mencionado Felipe Errazti Amutxastegi.

[eu]

Madrilgo Amado Aparicio azaldu

1911n, Amado Aparicio Calvera eta emazte Leoncia Errasti Zabalo (Legazpi, 1874, aipatutako Josefa Ramonaren alaba) bihurtu ziren etxeko jabe. Aurretik, Leonciaren anaia Vicente (Legazpi, 1866), Mexikon bizi zena, genuen jabea, Francisco Zangroniz herriko erretoreari erosia ziolarik. Baina gertatu zen Vicente 1909an hil zela, artean ezkongabe, Tolucatik A Coruñara itsasontzian zetorrela.

Leoncia Errasti Madrilera joan zen neskame eta, han zegoela, Amado Aparicio madrildarra ezagutu zuen. Ofizioz, okina eta gozogilea zen. Ezkondu eta han jaio zitzaizkien lehenengo bi umeak, Pilar eta Pepe. Bigarren hau 1900ean jaio zen, eta handik gutxira etorri ziren Legazpira bizi izatera; hemen beste haur bat izan zuten, Maria.

Hain zuzen ere, Vicente, hemengo iloba Pepe hartu eta atzera Mexikora eramatera zetorren heriotza gertatu zitzaionean.

Beraz, hogeigarren mende hasiera aldera, Amado Aparicio Legazpira azaldu zen, eta ez dakigu hemen gozogile jardun zuen, 'konpitteo', alegia. Kontuak kontu, 1910eko udal erroldaren arabera, Amado "kartoi fabrikan" ari da lanean, Papeleran. Nolanahi ere, handik aurrera, Konpitteonekoa izan zen etxearen deitura. Baina beharbada deitura lehenagotik zetorren; esanda bezala, 1870eko hamarkadan ere konpitteo bat bizi izan zen hemen, Jose Mª Zabalo.

Amado eta Leonciaren seme-alabak etxe honetan bizi izan ziren. Bi solairukoa zen eta, lehenengoan, Pilar Aparicio bizi zen, bergarar batekin ezkonduta: Antonio Alberdi; eta beraiekin, Pilarren anaia Pepe bizi izan zen, hau berriz ezkongabea. Alberdi Patrizionera lan egitera etorria zen, mekanikari; eta Pepek paper-fabrikan egin zuen lan. Bigarren pisuan Maria Aparicio bizi zen,

[es]

Es muy posible que en el siglo XIX viviera aquí alguien que hacía abarkas, dado que todavía a comienzos del XX al edificio se le decía 'Abarkeronekoa'. Pero no sabemos la identidad de esta persona.

En 1911 se convirtieron en propietarios Amado Aparicio Calvera y su esposa Leoncia Errasti Zabalo (Legazpi, 1874, hija de la mencionada Josefa Ramona). Anteriormente, el dueño era Vicente Errasti (Legazpi, 1866), hermano de Leoncia, que vivía en México, y que había comprado el inmueble entero al párroco Francisco Zangroniz. Ocurrió que Vicente falleció en alta mar, mientras hacía el recorrido Toluca-A Coruña.

Leoncia Errasti fue a trabajar de sirvienta a Madrid y estando allí conoció a Amado Aparicio (nacido en Zaragoza), de oficio panadero y confitero. Se casaron y allí nacieron los primeros hijos, Pilar y Pepe, este último en 1900. Al poco decidieron instalarse en Legazpi, y aquí tuvieron otra hija, María.

Precisamente, Vicente Errasti murió en esa travesía cuando venía hacia el País Vasco para recoger a su sobrino Pepe, con la intención de llevarlo consigo a México.

Llega de Madrid Amado Aparicio

Así pues, a comienzos del siglo XX llegó a Legazpi el confitero o pastelero Amado Aparicio. A partir de entonces, a la casa se le conoció con el nombre de Konpitteonekoa. Pero quizá la denominación venía de antes, pues ya se ha dicho que en la década de 1870 vivió aquí el confitero José Mª Zabalo. Además, en el censo municipal de 1910, Amado Aparicio figura, no como confitero, sino como operario de la fábrica de cartón (la Papelera).

Amado y Leoncia vivieron con sus hijos en esta casa, que era de varias alturas. En el primer piso residía la hija Pilar Aparicio, casada con el bergarés Antonio Alberdi, y junto con ellos Pepe, el hermano soltero de



Konpitteoneko denda aurrean, Luxio Elorzaren alabak, Rosa Mari eta Maite. 60ko hamarkada hasieran (Rosa Mari Elorzak emana).



Luxio Elorza, Alejandra Salazar, bi alabak, Rosa Mari eta Maite, eta Alejandraren ahizpa Narcisa (Rosa Mari Elorzak emana).

[eu] Araiatik Patrizionera etorritako Nicolas Larrearekin ezkonduta.

Pilar eta Antoniok alaba bat izan zuten, Maritxu; Maria eta Nicolasek, bost seme-alaba: Milagros, Jose Antonio, Jesus, Maribel eta Iñaki.

'La canaria' eta Luxio Elorza

Etxe honetan, beheko solairuan, bi denda egon ziren hogeigarren mendean. Parrokia aldera, 'La Canaria' esaten zioten emakumearen janari-denda, 1956an hasita. Hortxe bizi zen. Asun Arrieta zituen izen-abizenak eta ez dago garbi ezizenaren nondik norakoa; batzuek diote ilea horiz tindatzen zuelako, beste batzuek behin niki edo jertse oso hori batekin azaldu zelako herrira. Jendeak barre egiten zion eta marjinatuta bizi zen, azken aldera Juan Cruz izeneko nafar batekin ezkondu zelarik. 1950eko hamarkadan etorkin asko azaldu ziren Legazpira eta jende horri ogitartekoak saltzen zizkion; hori omen zen bere negozioaren zutabea.

[es] Pilar. Alberdi había llegado al pueblo para trabajar en la fábrica de Patricio como mecánico, y Pepe trabajó en la Papelera. En el segundo piso vivió la otra hija, María Aparicio, casada con Nicolás Larrea, venido de Araia para trabajar en la factoría de Patricio.

Pilar y Antonio fueron padres de una niña, Maritxu; María y Nicolás Larrea tuvieron cinco hijos: Milagros, José Antonio, Jesús, Maribel e Iñaki.

'La canaria' y Luxio Elorza

En los bajos de este edificio hubo varios negocios en la segunda mitad del siglo XX. En el lado más cercano a la parroquia, a partir de 1956, tuvo tienda de alimentación y vivienda una persona que apodaban 'La Canaria'. Unos dicen que el mote se debía a que se teñía el pelo de rubio; otros, que un día apareció con un niki o un jersey muy amarillo. Se llamaba Asun Arrieta y era natural de Urretxu o Zumarraga. La gente se le reía y vivía marginada. En los años 50 llegaron muchos inmigrantes y esta mujer se especializó en venderles bo-

[eu] Gainera, apopiloak zeuzkan etxean. Lehenago, denda Kale Zaharreko beste toki batean eduki zuen, Andresene parean, beste espaloian, eta han gehiago saltzen omen zuen, beharbada orduan konpetentzia gutxiago zeukalako. Azken urteak zahar-etxean eman zituen.

Eta beheko solairuko beste aldean, Andresenetik gertu, Plazaola baserrian jaiotako Luxio Elorza elektrikariak denda eduki zuen 1963-64tik aurrera. Patrizionean ari zen lanean, eta dendan bere ofizioari lotutako gaiak saltzen zituen, hala nola kableak, lanparak eta bonbillak; eta baita transistoreak, bizarra kentzeko makinak… Luxio, Alejandra Salazarrekin zegoen ezkonduta eta familia Etxetorren bizi zen, baina Konpitteonekoa bota eta bertan egin zen etxe berrira aldatu zen gero, 1977an.

‘Singer’ eta Ertzillaren negozioak

‘Singer’ esaten zioten eta Nicolas Sola zituen izen-abizenak. Ordiziatik etorria omen zen. 1930ean bizikleten alokairu-negozioa zeukan. 1939an taxilari ari zen, Hanomag markako kotxea zeukalarik. Singer josteko makinen saltzaile ere izan zen, eta hortik goitizena. Halaber, limonada eta sifoia egiteko tailertxoa eduki zuen, Konpitteoneko beheko solairuan, non batik bat emazteak jarduten baitzuen. Gero, 1940ko hamarkada bukaera aldera, Nicolas Solak negozio hori Pedro Ertzillari saldu zion. Dendan, irratia ozen jarrita, Gabonetako loteriaren eguneko saioa eskaintzen omen zuen.

Pedro Ertzilla nafarra zen, Lekunberri ondoko Alli herrixkakoa. Etorri zen Legazpira eta Patrizioren fabrikan lanean hasi. 1965ean omenaldia egin zioten, 55 urte zeramatzalako udal musika bandan jotzen. Juanita Etxeberriarekin ezkondu zen, hau berriz zegamarra, baina artean Legazpin bizi zena. Hartu zuten traspasoan Singerren negozioa eta, toki gehiago izateko, Konpitteoneko etxearen kontra, eliza alderago, lehe-


[es] cadillos; era la principal parte de su negocio. Pero tuvo anteriormente otra tienda de alimentación en la Calle Vieja, en la acera de enfrente del Andresenea, y hay quien dice que allí vendía bastante más, quizá porque había menos competencia. En aquella época anterior venía a Legazpi en bicicleta desde Urretxu-Zumarraga. Ya con una edad avanzada se casó con un navarro llamado Juan Cruz y acabaron en el asilo de ancianos.

En el otro extremo, en los bajos de esta casa lindantes con la casa Andresenea, a partir de 1964, el electricista Luxio Elorza (nacido en el caserío Plazaola y trabajador de la fábrica de Patricio) tuvo tienda relacionada con su oficio. Vendía cables, enchufes, lámparas y pequeños electrodomésticos, como transistores y máquinas de afeitar. Luxio estaba casado con Alejandra Salazar y vivían en Etxetorre, pero cuando se derribó Konpitteonekoa, esta familia se trasladó a la casa que se hizo en ese solar. Fue en 1977.

Los negocios de ‘Singer’ y Ercilla

‘Singer’ era el sobrenombre de Nicolás Sola. Decían que había venido de Ordizia. En 1930 tenía un negocio de alquiler de bicicletas. En 1939 ejercía de taxista, con un coche de marca Hanomag. También vendía máquinas de coser de la marca Singer, y de ahí el apodo. Asimismo, tuvo un pequeño taller para la elaboración de sifón y limonada en los bajos de la casa Konpitteonekoa, en el que trabajaba sobre todo la esposa. Luego, hacia finales de la década de 1940, Nicolás vendió ese negocio a Pedro Ercilla. Cuentan que en su tienda se podía escuchar la retransimisión del sorteo de lotería de Navidad,

Pedro Ercilla era navarro, de Alli, un pueblito cercano a Lekunberri. Vino a Legazpi y comenzó a trabajar en la fábrica de Patricio. En 1965 se le homenajeó, porque llevaba 55 años como miembro de la banda municipal de música. Se casó con Juanita Etxeberria, zegamarra



Nicolas Sola 'Singer', 1932 (Jose Luis Gonzalez de Langarikak emana).

[eu] nago baratzea egindako tokian, estalpea eraiki zuten bertan sifoi-tailerra martxan jartzeko. Presiozko botiletan izaten zen gasarekiko ur hori, eta gasa Donostiatik ekartzen zion Patxi Bengoetxeak kamioian, Kutz-tarren garagardo-fabrikatik ('El León').

Hor aritu ziren Pedro eta Juanita sifoiak egiten, batez ere Juanita, izan ere senarra Patrizioren fabrikan ari baitzen, Tenplean. Baina 1953an seme zaharrena, Jose, hil zitzaien, eta orduan erabat aldatu zen familiaren martxa. Gizona Patrizioren fabrikan lanean ari zela hil zen, garabi batetik zama bat erori eta azpian harrapatuta. Orduan, Pedro eta Juanitak erabaki zuten onena zela seme gazteago batek, Abelek, hartzea sifoien negozioa; halaxe jardun zen, eta gero Plásticos Mel-en lanean hasi.

Pedrok sifoien garraioa esku-karro batekin egiten zuen. Abelek, berriz, motor berezi bat ibili zuen, 'isocarro' zeritzana. Jenero guztia Legazpin saltzen zuen, Zumarragan bertan bazegoen-eta beste sifoigile bat.

Abel 1960. hamarkada erdi aldera ezkondu zen, Blanca Lezearekin, eta orduan traspasatu egin zuen negozioa, Ricardo Erostarbek hartu zuelarik. Zehatzago esanda, Erostarbek 1967an ekin zion gaseosak egin eta saltzeari, tailerra Saturnino Telleria kalean zeukalarik; eta 1968an Kale Berri aldera (Ilintxa elkartearen ondora) eraman zuen negozioaren egoitza. ❖

[es] de nacimiento pero residente ya aquí. Adquirió el negocio de bebidas de Singer y, para disponer de más espacio, construyó un cobertizo adosado a la casa Konpitteonekoa, en el lado de hacia la parroquia. Allí se dedicó a elaborar solamente sifones. Necesitaba gas, y las bombonas se las traía Patxi Bengoetxea en su camión, desde la fábrica de cervezas de la familia Kutz ('El León').

Allí, junto a Konpitteonekoa, trabajó sobre todo la esposa, Juanita Echeverria, dado que Pedro Ercilla trabajaba en la fábrica de Patricio, en el Temple. Pero en 1953 falleció el hijo mayor, José, y entonces cambió el rumbo de la familia. Ese hijo murió cuando trabajaba en la misma fábrica, por el impacto de una carga pesada caída de una grúa. Entonces, Pedro y Juanita decidieron que otro hijo menor, Abel, cogiera las riendas del negocio de sifones. Posteriormente empezó a trabajar en Plásticos Mel.

Pedro, hasta entonces, había transportado los sifones mediante un carro de mano. Abel, por su parte, usó una moto espacial llamaba 'isocarro'. Vendía toda la producción en Legazpi, dado que en el mismo Zumarraga ya tenía la competencia de otro productor.

Abel Ercilla se casó a mediados de la década de 1960 con Blanca Lecea, y entonces traspasó el negocio a Ricardo Erostarbe. El nuevo sifonero comenzó en ese trabajo en 1967, pero se centró en la fabricación y venta de gaseosas, con un taller situado en la calle Saturnino Telleria. Pronto, en 1968, trasladó el taller a un local cercano a la Calle Nueva, junto a la sociedad recreativa Ilintxa. ❖



07 __ kalegoena
plazaola

LANDANETXIKI (Txortxikonea, Mantxolaren etxea) 2 LANDANETXIKI (Txortxikonea, Casa de Mantxola)



Konpitterokoa, ezkerraldean; Patxi Mantxolaren etxea, eskuinaldean (Fernandez Mantxolatarrek emana).



Landanetxiki edo Txortxikonea, Patxi Mantxolak berreraiki aurretik (E. Guinearen GUI VII-145.22 argazkiaren xehetasuna).

[eu] 1832ko etxe-zerrenda batean 'Landanea la bieja' izenez agertzen zen. Hogeigarren mende hasieran, etxe zahar hari jendeak Txortxikone deitzen zion baita ere, Txortxi edo Txortxiko ezizeneko lagunen bat bizi izana zelako.

1832an, bertako biztanlea Sebastian de Aguirre zen. Eta nagusia, Martin (Antonio) de Argaia Irimo (Legorreta, 1785). Hemeretzigarren mende erdi aldera, Gabriel Telleria Galfarsoro (1807) eta Josefa Agustina Aguirre Lasa (1814) senar-emazteak bizi ziren bertan zenbait seme-alabarekin; horietako bat, Sebastian (1837), gaztetan burdinolan jardundakoa, eta gero nekazaria. Jose Luis Ugartek uste du berau izan zitekeela 'Txortxiko' esaten ziotena. Baina goitizen hori etxeko beste bizilagun bati omen dagokio beharbada: Juan Jose Gurrutxaga Zabaleta 'Bildotsola'-ri.

Jose Luis Ugarte ikerlariak Eugenio Elorzari entzun zion etxe honetan 'Bildotsola' hura bizi izan zela, Matxinbentako baserri horretatik etorria, eta zareak egiten ateratzen zuela bizimodua. Bi seme izan zituen, Demetrio (1896) eta Felix (1903), gero Elizondoko etxean bizi izan zirenak.

Hemeretzigarren mende erdi aldera, jabea Luis Mª Argaia zen, Martinen semea. Abokatua zen eta Seguran bizi, 1871n hil zelarik. Etxe askoren jabe genuen: Legazpin, Landaneaundi ere berea zuen, Zerainen hiru baserri zituen, horietako bat Oiharte, Ataunen Uresandi, Zumarragan Salsamendi, zeina 1861ean erre egin baitzen.

1910ean, lagun bat bakarra bizi zen hemen, Dominga Agirre Etxeberria, 69 urteko alarguna, "labradora propietaria". Eta pentsatzen dugu etxe honetxen jabe izango zela. 1920an ere lagun hauxe bizi da bakarrik, eta orduko erroldan Dominica izenez agertzen da.

[es] Antiguamente existía aquí una casa llamada Landanea Menor. Y en una lista de casas y caseríos de 1832 aparece como 'Landanea la bieja'. A comienzos del siglo XX la gente la llamaba con el apelativo de Txortxikone, porque había vivido allí alguna persona de sobrenombre 'Txortxi' o 'Txortxiko'.

En 1832, aparece como inquilino Sebastián de Aguirre; y el propietario era entonces Martín (Antonio) de Argaia Irimo, natural de Legorreta, casado con Valentina Agirre Salsamendi, y que era el mismo que poseía Landanea Mayor o Landaneaundi.

A mediados del XIX, el propietario era Luis Mª Argaia, hijo de Martín. De profesión abogado, vivía en Segura y falleció en 1871. En Legazpi poseía también Landaneaundi (Konpitteonekoa), en Zerain tres caseríos, uno de ellos Oiharte, en Ataun Uresandi y en Zumarraga Salsamendi, que se quemó en 1861.

Por esa época de mediados del siglo XIX vivía en esta casa el matrimonio compuesto por Gabriel Telleria Galfarsoro (1807) y Josefa Agustina Aguirre Lasa (1814), con varios hijos, uno de ellos Sebastián (1837), que en su juventud trabajó en la ferrería y más tarde fue agricultor. El investigador José Luis Ugarte cree que esta persona podría ser la que apodaban 'Txortxi' o 'Txortxiko'; pero el sobrenombre podría corresponder también a otro habitante de la casa, Juan José Zabaleta Gurrutxaga 'Bildotsola'.

José Luis Ugarte recogió de boca de Eugenio Elorza que aquí vivía ese Zabaleta, procedente del caserío Bildotsola de Matxinbenta y hacía cestos. Tuvo dos hijos, Demetrio y Félix Zabaleta Apaolaza, que luego vivieron al lado de la iglesia, en la casa del Elizondo.

En 1910, solamente vive aquí una viuda, Dominga Agirre Etxeberria, de 69 años, y "labradora propietaria". Se supone que dueña de la edificación. En el padrón de 1920 aparece también como única residente del inmueble, esta vez con el nombre de Dominica.



Maria Mantxola (esk) eta ama, Vicenta Arregi (Lucio Vergara)
(Nati Bolinagak emana).



Vicenta Arregi, Leocadia (Pedro Mantxolaren amaginarreba) eta Maria Mantxola.
Umeak, Mª Carmen eta Iñaki Fdez Mantxola (Fdez. Mantxolatarrek emana).



Carmen Mantxola antzezten, Pedro Maiztegi eta Ibarniarekin (Fdez. Mantxolatarrek emana).

[eu]

Urtatzako Patxi Mantxolak etxe berria egin

1929an, Urtatzaazpikoan jaio eta bizi izandako Francisco (Patxi) Mantxolak erosi egin zuen etxe hau, eta bota, ondoren bertan beste etxe bat egiteko. 1868an jaiotakoa zen Patxi, eta igeltserotzatik atera zuen bizimodua. Aita, Jose Anton, esan bezala Urtatzaazpikoa zuen.

Lehengo Landanea Menor edo Landanetxiki hura, berriz, Patxi Mantxolak erosi zuenean, Mantxolaaundiko lagun hauena zen: Mª Ignacia, Francisco, Maria, Micaela eta Felipe Agirre Villarrena, eta Claudia, Juliana, Felipe Tomas, Ignacia eta Cecilia Agirre Aldasororena.

Landanetxiki berriaren ezaugarriak: 137 metro koadroko beheko solairuaz gain, beste bi solairu eta ganbara; baita ogi-labea ere.

Beraz, pentsatzekoa da 1929-30ean egingo zuela Patxi Mantxolak bere etxea. Gero, 1952an, seme-alabei eman zien dohaintzan. Beheko solairua, alaba Mariarentzat; lehenengoa, Caracasen bizi zen Pedrorentzat; eta bigarrena,

[es]

Patxi Mantxola, de Urtatza, hace una casa nueva

El año 1929, compró esta casa Francisco (Patxi) Mantxola, quien era nacido (1868) y vivido en Urtatzaazpikoa. La derribó para edificar otra ahí mismo. Se ganó la vida como albañil y falleció bastante joven. Su padre, José Anton, también era de Urtatzaazpikoa.

Cuando Mantxola compró la vieja Landanea Menor, pertenecía a esta serie de personas originarias de Mantxolaaundi: Mª Ignacia, Francisco, María, Micaela y Felipe Agirre Villar, y Claudia, Juliana, Felipe Tomás, Ignacia y Cecilia Agirre Aldasoro.

La nueva casa tenía una superficie de 137 metros cuadrados, planta baja, dos pisos más y desván; y además, horno de pan.

Por lo tanto, es de suponer que la nueva edificación data de 1929-1930. Luego, en 1952, la donó a sus hijos: la planta baja, para su hija María; la primera planta, para Pedro, que entonces vivía en Caracas; y el segundo



Ignacio Fernandez de Agirre (Fdez. Mantxolatarrek emana).



Pedro Mantxola eta emazte Cristina Iruretagoiena (Fdez. Mantxolatarrek emana).



Maria Mantxola eta ahizpa Carmen. Gaztetxoak, Patricia eta Gustavo. Baita ere Carmen Fdez Mantxola eta Nere Barandiaran (Carmen Fdez. Mantxolak emana).

[eu] Carmenentzat. Handik aurrera, Patxi eta Vicenta Arregi Rementeria emaztea (Zarautz, 1889) usufruktuan bizi izan ziren bertan.

Hala ere, beheko solairuan Antonio Zalduendo 'Pilis' (Philips markaren ordezkaria) bizi izan zen zenbait urtetan.

Etxea Andresene ondoan zegoen, eliza alderago. Patxi eta Vicentak hiru alaba eta seme bat izan zituzten. Lehenbizi Maria (1922-2013) jaio zen; ondoren, Carmen, Mª Paz eta Pedro. Ignacio Fernandez de Agirrerekin ezkondu zen, hau berriz Ziordian jaioa. Carmen ez zen ezkondu eta herriko paper fabrikan egin zuen lan. Mª Paz, hamabi bat urte zituela hil zen. Eta Pedro gaztetan Venezuelara joan zen lanera, 1949-50ean, Caracasen mekanikari jardun zuelarik. Han seme-alabak izan zituen. 1967an itzuli zen familia. Eta gero, 1973an, Mallorcara joan ziren bizi izatera.


1972an bota zuten etxe hau. Azkeneko urteetan, adibidez, beheko solairuan, Maria Mantxolaren familia bizi zen. Gorago, Venezuelatik etorritako Pedro Mantxolaren familia. Eta azken pisuan, amona Vicenta. ❖

[es] piso, para Carmen. A partir de entonces, Patxi y su esposa Vicenta Arregi Rementeria (Zarautz, 1889) siguieron viviendo allí en usufructo.

En la planta baja, durante una época que no hemos podido determinar, vivió Antonio Zalduendo 'Pilis' (representante de la marca Philips).

Esta casa se encontraba al lado de Andresenea, en dirección a la parroquia. Patxi y Vicenta tuvieron tres hijas y un hijo. Primeramente nació María (1922-2013); luego Carmen, Mª Paz y Pedro. Se casó con Ignacio Fernández de Agirre, de Ziordia. Carmen permaneció soltera y trabajó en la Papelera. Mª Paz murió muy joven, aproximadamente con doce años. Y Pedro, en su juventud, hacia 1949-1950, se marchó a trabajar en Venezuela. Fue mecánico en Caracas, regresó a Legazpi en 1967 con sus hijos y en 1973 la familia se fue a vivir a Mallorca.

Derribaron la casa en 1972. En su última época, en la planta baja vivió la familia de María Mantxola; en el primer piso, la de Pedro Mantxola, llegado de Venezuela; y en el piso superior, la abuela Vicenta. ❖



07 __ kalegoena
plazaola

UGALDE 3 UGALDE



Ugalde etxea, bi begiko zubiaren ondoan (Gure Gipuzkoa, Indalecio Ojangurenen bilduma).

[eu]

Oso aspaldiko etxea. Eugenio Elorzak esan ohi zuen berau izan zitekeela kale aldeko etxerik zaharrena.

Oñatiko protokolo artxiboan bada 1628ko agiri bat, honela deskribatua: "Escritura de arrendamiento otorgada por la legazpiarra Milia de Aguirre y Guebara a favor del menor en días y convecino Joan de Echeverria de Yçaguirre la casa llamada Ugalde, que estaba junto al puente de Plaçaola, junto con sus heredades y pertenecidos, salvo el molino, por el tiempo de ocho años, que comenzarán a correr el día de san Miguel de 1628, no debiendo pagar dinero el primer año, sino que deberá poner la casa habitable; el resto de año le deberá pagar por alquiler ocho fanegas de trigo limpio y enjuto y dos capones, el trigo por agosto y los capones por Navidad, debiendo de plantar a su costa, además, cuatro robles o castaños en cada año, reservándose ella el fruto de un cerezo y del terreno de un castañal que tenía hacia la parte de Manchola; para el día de san Miguel le entregará al arrendatario dos vacas con sus crías primeras o segundas, a media ganancia y pérdida, al precio de la tierra". AHPG-GPAH 1/4027, A:41r-41v

1832an, jabeak Joaquin Mendia eta Francisco Oraa ziren.

Bereziartu errementariak erosten du

1918an, Lazkaotik azaldu zen hona, etxea erosita, Joaquin Bereziartu errementari gaztea, 25 urtekoa. Eta hurrengo urtean, Manuela Altolagirre, emazte izango zuena. Joaquinek bertan jarri zituen sutegi, ferratoki eta tailerra. Hantxe jaio ziren beren seme-alaba denak: Antonio (1920), Juan, Josefa (Pepita), Angel, Jose eta Maribel.

[es]

Eugenio Elorza solía decir que esta podría ser la casa más antigua del casco urbano.

En el archivo de protocolos de Oñati existe este documento de 1628: Escritura de arrendamiento otorgada por la legazpiarra Milia de Aguirre y Guebara a favor del menor en días y convecino Joan de Echeverria de Yçaguirre la casa llamada Ugalde, que estaba junto al puente de Plaçaola, junto con sus heredades y pertenecidos, salvo el molino, por el tiempo de ocho años, que comenzarán a correr el día de san Miguel de 1628, no debiendo pagar dinero el primer año, sino que deberá poner la casa habitable; el resto de año le deberá pagar por alquiler ocho fanegas de trigo limpio y enjuto y dos capones, el trigo por agosto y los capones por Navidad, debiendo de plantar a su costa, además, cuatro robles o castaños en cada año, reservándose ella el fruto de un cerezo y del terreno de un castañal que tenía hacia la parte de Manchola; para el día de san Miguel le entregará al arrendatario dos vacas con sus crías primeras o segundas, a media ganancia y pérdida, al precio de la tierra. (AHPG-GPAH 1/4027, A:41r-41v)

En 1832 los dueños eran Joaquín Mendia y Francisco Oraa.

Lo compra el herrero Bereziartu

En 1918 compró el edificio y se instaló aquí, llegado desde Lazkao, el herrero Joaquín Bereziartu. Tenía 25 años. Al año siguiente vino Manuela Altolagirre, la que sería su esposa. Y en esta misma casa instalaron la herrería y el sitio para herrar el ganado. Además, aquí nacieron todos sus hijos: Antonio (1920), Juan, Josefa (Pepita), Ángel, José y Maribel.

Hacia 1930 Joaquín Bereziartu comenzó a ejercer de concejal. Ocupó el lugar de Patricio Elorza, empresario de la Papelera, que acababa de fallecer. Algo más tarde,





Ugalde, eta aurrean Joaquin Odriozola, 1964 aldera (Joaquin Odriozolak emana).

Ugalden jaiotako Bereziartutarrak.

[eu] 1930ean zinegotzi hasi zen Udalean, hil berri zen Patricio Elorzaren tokia hartu zuelarik. Gero, Errepublika garaian, politikoki tradizionalismoaren alde agertu zen; eta ezkerraren eta Euzko Alderdi Jeltzalearen kontra.

Joaquinek arrakasta profesionala izan zuen eta 1942-43an familiak alde egin zuen, etxe berria egin baitzuten Elbarrenan. Lehenbizi tailer handia egin zuen, eta segituan, aldamenean, etxe berria.

Bereziartuk berea zuen Ugalde. Alde egin berritan, Manuel Odriozola harakin gazteari proposatu zion bertan jartzea bizi izaten. Honek Kale Zaharrean zeukan harategia, Saturnino Telleria 'mediku zaharraren' etxe parean. "Zu ganaduzale zara eta hor animaliak edukitzeko modua izango duzu. Gainera, etxea hutsik geratzen bada ijitoak sartuko dira igual", esan omen zion. Manuel, artean, Kale Berrian bizi zen, Fausto Alustizaren drogeria zegoen etxean. Telleriarteko Egizear baserriko Pilar Galdosekin zegoen ezkonduta eta alaba bat zeukaten, Felisa, 1942an jaioa.

Halaxe, 1943an-edo, Odriozolatarrak jarri ziren Ugalden. Manuel eta Pilarrek beste bi seme izan zituzten bertan, Manuel (1945) eta Joaquin (1950). 1964an alde egin zuten, Kale Berrian hartu zutelarik etxea, Caribe tabernaren gainean.

Ugalden txerriak edukitzen zituzten. Pilar oso zen txorizalea eta kanario sail handia gobernatzen zuen bertan. ❖


[es] en los años de la segunda República, se mostró a favor del tradicionalismo, opuesto a las izquierdas y al nacionalismo del PNV.

Joaquín tuvo éxito en su taller y lo trasladó, en versión muy aumentada, al barrio de Elbarrena, para fabricar maquinaria agrícola. Hacia 1942-43 la familia comenzó a vivir en la casa adosada a la nueva fábrica.

Bereziartu era propietario de la vieja casa de Ugalde. Y cuando la dejó, propuso al joven carnicero Manuel Odriozola instalar allí su vivienda. Manuel tenía la carnicería en la Calle Vieja, enfrente de la casa del 'médico viejo' Saturnino Telleria. Le dijo: "Tú eres aficionado al ganado y en esta casa podrás tener animales. Además, si se queda vacía igual la ocupan los gitanos". Hasta entonces, Manuel había residido en la Calle Nueva, en la casa en la que estaba la droguería de Fausto Alustiza. Estaba casado con Pilar Galdos, del caserío Egizear de Telleriarte y ya había nacido, en 1942, la primera hija, Felisa.

Así pues, hacia 1943 los Odriozola-Galdos se pusieron a vivir en Ugalde, a renta. Manuel y Pilar tuvieron allí otros dos hijos: Manuel (1945) y Joaquín (1950). Salieron de la casa en 1964, para instalarse en una casa de la Calle Nueva, encima del Bar Caribe.

Solían criar cerdos en la vieja casa de Ugalde. Pilar Galdos era muy aficionada a las aves y allí mismo tenía una amplia colección de canarios. ❖



07 __ kalegoena
plazaola

ETXALUZE (Andresenea) 4 ETXALUZE (Andresenea)



Eraikin zaharra (Agustin Etxeberriak emana).



Etxaluze atzetik (Gure Gipuzkoa, GipuzkoaKultura).

[eu]

Antzina Etxaluze zuen izena. 1739an, kalea zabalago utzi nahi zutela eta, eraikina eraitsi eta berriz ere altxa zuten. Urte hartan, Andres de Elorza zen jabea, Oñatin jaio eta Gasteizen bizi zen gizona (AHPG 1/2331, A: 14r – 20r).

Etxaluze izenaz ageri da 1832ko herriko etxe eta baserri-zerrenda batean ere. Orduan, jabeak Joaquin Mendia eta Francisco Oraa ziren, zeinek beste bi etxe ere bazituzten herrian: Ugalde eta Agirre Jauregi (azkeneko hau, gero Oiarbidene izenez ezaguna).

Etxaluzeko maizterrak, 1832an, Jose Mª Zabalo eta Pedro Zabaleta ziren.

1856an, berriz, nagusia Jose Mª Arrizabalaga genuen, eta 1888an Hermenegildo Plazaola Arrizabalaga (Josefa Antonia Oiarzabal Etxeberriarekin ezkondua).

Gero, hogeigarren mendean, Andresenea deiturarekin ezagutu zen eraikin hau. Nolatan? Bertan Andres Etxeberria bizi izan zelako. Eskoriatzan jaioa zen 1838an, eta Legazpira amarekin batera etorri zen, hau berriz María Etxeberria zeritzana, eta ama bakarra, aldamenean gizonik ez zeukana. Rakel Etxeberriak (1941) adierazi digunez, bere arbaso Andres itzaina izan zen, eta zaldiz eta gurdiz askotariko generoak garraiatzen zituen, batez ere Zumaia-Legazpi bidea eginez. Zaldiok etxean bertan gordetzen ziren. Halaber, Andres postaria izan zen Oñati eta Legazpi bitartean, eta bai bizar-kentzaile ere. Gizon honen beste ondorengo batek, Agustin Etxeberriak, uste du zapataria ere izan zela. 1910eko udal erroldan, "comerciante en quincalla" gisa ageri da.

1867an, gure Andres hori Bergarako Santa Marinako elizan ezkondu zen, bertako Josefa Etxezarreta Larrañagarekin. Legazpiko 1894ko erroldan, etxe honetan ageri dira senar-emazteok, zenbait seme-alabarekin: Saturnino (1873), Genoveva (1877) eta Doroteo (1880). Izan ziren beste batzuk ere: Jose Agustin (1868), Nicolas (1870) eta Mª Isabel (1874). Doroteok segitu zuen etxean. Genoveva, berriz, "organistaren etxera" joan zen; eta Vicenta, Gereta jostunarekin ezkondu zen.

[es]

Antiguamente se denominaba Etxaluze. En 1739 fue derribada y reconstruida, con el fin de ensanchar la calle. Aquel año, el propietario era el oñatiarra Andrés de Elorza, quien residía en Vitoria-Gasteiz. AHPG-GPAH 1/2331, A:14r-20r

Con esa denominación de Etxaluze aparece, por ejemplo, en un listado de casas y caseríos de Legazpi de 1832. Entonces, los propietarios eran Joaquín Mendia y Francisco Oraa, quienes poseían también dos casas de la zona: Ugalde y Aguirre Jauregui (que luego llamarían Oiarbidenea). Y los inquilinos, ese año, eran José Mª Zabalo y Pedro Zabaleta.

En 1856, el propietario era José Mª Arrizabalaga, y en 1888 Hermenegildo Plazaola Arrizabalaga, casado con Josefa Antonia Oyarzabal Echeverria.

Luego, en el siglo XX, a este edificio se le conoció con el nombre de Andresenea. La denominación se debe a Andrés Etxeberria, nacido en Eskoriatza en 1838, que llegó a Legazpi junto con su madre, María Etxeberria, que era madre soltera. Según su descendiente Rakel Etxeberria (1941), Andrés fue carretero, transportaba diferentes géneros con caballerías, sobre todo desde la zona de Zumaia, y la planta baja de este edificio albergaba esos animales. También fue cartero entre Oñati y Legazpi, y barbero. Otro descendiente, Agustín Etxeberria, cree que Andrés fue también zapatero. En el padrón municipal de 1910 aparece como "comerciante en quincalla".

Andrés se casó en 1867, en Bergara, con la bergaresa Josefa Etxezarreta Larrañaga. En el padrón de 1894, aparece viviendo en esta casa el matrimonio junto con varios hijos: Saturnino (1873), Genoveva (1877) y Doroteo (1880). Hubo otros hijos, como José Agustín (1868), Nicolás (1870), y Mª Isabel (1874). Fue Doroteo quien siguió en esta casa. Genoveva pasó a vivir en "la casa del organista"; Vicenta, por su parte, se casó con el sastre Gereta.

Así pues, Doroteo se quedó como propietario y siguió viviendo en Andresenea. Se casó con una mujer lla-



Andres Etxeberria, Josefa Antonia Etxezarreta, seme Doroteo eta Josefa Aranburu (Motxorrokoa) eta azken hauen lau seme-alabak 1912an (Agustin Etxeberriak emana).



Doroteo Etxeberria eta Maria Galfarsoro, eta Bernardo eta Francisca umeak (Agustin Etxeberriak emana).



Joxe Etxeberria eta Sabina Salazar (Rakel Etxeberriak emana).



Sabina Salazar eta alaba Rakel Etxeberria (Rakel Etxeberriak emana).

[eu] Beraz, Doroteo Etxeberria izan zen Andreseneko nagusi berri eta bertako bizilaguna. Motxorroko emakume batekin ezkondu zen, Joxepa Aranburu. Lau seme-alaba eduki zituzten, Vicenta, Joxe, Crescencia eta Simona, azkeneko hau 1910ean jaioa.

Doroteo Etxeberriaren garaian, hogeigarren mende hasieran, taberna, denda eta bizartegia izan zen Andresenea. "Eta badakigu dantzak ere egiten zirela, organillo baten laguntzarekin", esan zigun Rakel Etxeberriak, Doroteoren bilobak.

[es] mada Josefa Aranburu, que era del caserío Motxorro. Tuvieron cuatro hijos: Vicenta, José, Crescencia y Simona, esta última nacida en 1910.

En la época de Doroteo Etxeberria, a comienzos del siglo XX, Andres-Enea fue bar, tienda y barbería. «Y sabemos que había también bailes con un organillo», nos comentó Rakel Etxeberria, su nieta. Doroteo tuvo cuatro hijos con la primera esposa, pero Josefa se murió y entonces se casó con María Galfarsoro (natural de Zegama y criada en Murugarakoa), con quien

[eu] Alaba Crescencia jaio eta handik gutxira hil zen Joxepa Aranburu. Doroteo bigarrenez ezkondu zen, Maria Galfarsoro Guridirekin, Zegaman jaio eta Murugarakoan hazitakoa. Bi seme-alaba eduki zituzten, Bernardo (zeinak Aurora Garaterekin ezkondu eta etxe honetantxe bizitzen jarraitu baitzuen) eta Francisca (1939an Juan Manuel Ibarguren, 'Muruko amerikanoarekin' ezkondu zena, gero Argentinan bizi izan zelarik).

1931n, eraikinaren erdia, gutxi gorabehera, Doroteo Etxeberriarena zen. 'Groso modo' esanda, parrokiari begira dagoen aldea Doroteorena zen, eta kalebarrenera begira dagoena, Urretxu-Zumarragan bizi ziren makibartar ahizpa batzuena.

Doroteo eta Motxorroko andre haren semeetako bat Joxe zen, gero bi alaba izan zituena: Rakel (1941) eta Maria Jesus (1947). Bi emakumeok, kalitate handiko pintxoak eginda, sonaren gailurreraino eraman zuten taberna. Joxek hiru arreba izan zituen: Crescencia (Santanderrera joan zen), Vicenta (Mundakan bizi izan zen) eta Simona (etxe honetantxe bizi izan zen eta Jose Miguel Leunda, ELAko lehendakariaren ama izan zen),

Joxe Etxeberria Aranburu 1906an jaio zen eta 1940an ezkondu Sabina Salazarrekin, hau berriz Arrigorriagan jaioa. Pertsonaia bitxia izan zen Joxe: Patrizionean Ajustajean egin zuen lan, moldatzen zen laguntzeko tabernan emazteari eta ehizan eta arrantzan ere jardun ohi zuen; gaztetan dantzari eta futbolari izan zen, artean Ilintxa taldea sortu gabe zegoelarik. Santikutzetako festetako txirrindulari-lasterketako bultzatzaileetako bat izan zen baita ere.

Joxeren emaztea, Sabina Salazar Larizgoitia, Arrigorriagako Martiartu auzoko Lupardozabaleta baserrian jaioa zen. Bilboko taberna batean ari zen serbitzen eta han ezagutu Joxe. Ezkondu eta 1941ean eduki zuten lehenbiziko haurra, Rakel. Orduan, Sabinaren ahizpa, Alejandra, umetxoa zaintzera etorri eta, halaxe, azkenean hau ere Legazpiko batekin ezkondu, Plazaola baserriko Luxio Elorzarekin.

[es] tuvo otros dos hijos: Bernardo, que se casó con Aurora Garate y siguió viviendo en este inmueble; y Francisca, que se casó en 1939 con Juan Manuel Ibarguren, el "americano de Lakiola" o "americano de Muru" y se fueron a vivir a Argentina. Aquel Ibarguren había sido líder de Izquierda Republicana en el pueblo.

En 1931, Doroteo Etxeberria era dueño de la mitad del edificio, hablando 'groso modo' la que mira a la parroquia, y la otra mitad, la orientada hacia Zumarraga, pertenecía a unas hermanas Makibar afincadas en Urretxu-Zumarraga.

Uno de los hijos de Doroteo y la señora de Motxorro era Joxe, el padre de Rakel (1941) y María Jesús (1947), dos mujeres que elevaron el bar Andres-Enea a la cima, por la calidad de sus pintxos. Las hermanas de Joxe fueron Crescencia (que se fue a Santander), Vicenta (vivió en Mundaka) y Simona (quien vivió en esta misma casa y fue madre de José Miguel Leunda, presidente del sindicato ELA),

Joxe Etxeberria Aranburu nació en el año 1906 y se casó en 1940 con Sabina Salazar, vizcaína de Arrigorriaga. Fue un personaje curioso: trabajó como tornero en el Ajustaje, en la fábrica de Patricio, y aparte de ayudar de vez en cuando en el bar a su esposa Sabina, sacó tiempo para ejercer de cazador y pescador. De joven, fue también dantzari y futbolista, antes de que se fundara el equipo Ilintxa. Fue también uno de los impulsores de la carrera ciclista de las fiestas patronales de Santikutzak.

La esposa, Sabina Salazar Larizgoitia, había nacido en el caserío Lupardozabaleta, del barrio Martiartu de Arrigorriaga. Trabajaba como camarera en un bar de Bilbao y allí conoció al legazpiarra Joxe. Se casaron y en 1941 tuvieron a la primera hija, Rakel. Entonces, la hermana de Sabina, Alejandra, vino a cuidar a la criatura y acabaría casándose con el legazpiarra Luxio Elorza, del caserío Plazaola.

[eu]

1960ko hamarkadan goraldia

1960ko hamarkada hasieratik aurrera, Andres-Enea tabernak goraldi nabarmena izan zuen, esanda bezala, Joxeren bi alaben (Rakel eta Mª Jesus) lanari esker. "1962an, langileak zapatu arratsaldea jai izaten hasi ziren, eta gero goizak ere libratzen hasi ziren", esan zigun Rakelek. Hamarkada hartan indartzen eta indartzen joan ziren tabernako frijituak, eta frijitutako pintxo haietan tigreak nabarmendu ziren gehien; muskuilu eta bexamelez egindakoak, oskolaren barruan eskainiak. Taberna honek 2014ko martxoaren 30ean izan zuen bukaera, etxeberriatar ahizpok erretiroa hartu zutenean. Ez zioten inori traspasatu eta taberna hortxe dago, itxi zen egunean bezalaxe.

1939an, eraikinaren itxura guztiz aldatu zen, ibai aldera ematen zuen paretan miradoreak erantsi zitzaizkion eta.

Baina, taberna-jatetxea aparte utzita, eraikin hau familia askoren bizileku izan da. 1940ko hamarkadatik aurrera, lehen solairuan Joxe Etxeberria eta Sabina Salazar bizi izan ziren, alabekin batera. Eta geroxeago, etxebizitza horretantxe, Pedro Zubia kontratistak bere bulegoa eduki zuen.

'Kabo xaharraren' etxea

Bigarren solairuan, alderik alde makibartarren jabetzakoa, besteak beste muruatarren familia bizi izan zen, alegia, Angel Murua Alkorta mikeletearen familia. 'Kabo xaharra' esan ohi zioten. 1887an jaio zen Urretxuko Dornaldegi baserrian. Lehenbizi Orioko Mª Angeles Manterolarekin ezkondu zen eta Angel izeneko umea eduki zuten, zeina gero Maria Gorosabelekin ezkondu baitzen. Alargundu eta handik gutxira, mikeletea berriro ezkondu zen, Maria Sasieta urretxuarrarekin; hau, berriz, Galizian zegoen neskame, eta hots egin zioten, etorri eta Angel ezagutu zezan. Urretxun, Etzegaraten eta Or-

[es]

El bar despega en los 60

A comienzos de los 60, el bar Andres-Enea despegó, gracias como se ha dicho al trabajo de las hijas de Joxe. «En 1962 se dejó de trabajar los sábados a la tarde, luego se libró también los sábados a la mañana», nos manifestó Rakel. En aquellos años 60 comenzaron a afianzarse los fritos del Andres-Enea. Aunque todas las variedades de croquetas y fritos eran muy estimadas, adquirió especial fama el "tigre", mejillón en su cáscara con una capa de bechamel. El establecimiento cerró sus puertas el 30 de marzo de 2014, por jubilación de las hermanas Etxeberria. Decidieron no traspasarlo y el local permanece tal como el día en que cerró las puertas.

En 1939 el edificio cambió sustancialmente de aspecto, pues se le agregaron los miradores o galerías del lado del río.

Pero al margen del bar-restaurante, esta casa cobijó a muchas familias. Si nos ceñimos a la época de a partir de los años 40, se puede decir que en el primer piso vivieron Joxe Etxeberria y Sabina Salazar con sus hijas; y un poco más tarde, en los 50, en ese piso estuvo también la oficina del constructor Pedro Zubia. En la segunda planta, propiedad por entero de la familia Makibar, vivieron a renta familias como los Murua.

El cabo de miqueletes Murua

El miquelete Ángel Murua Alkorta (1887-1965), natural del caserío Dornaldegi de Urretxu, se casó con una mujer oriotarra, Mª Ángeles Manterola, y vivieron en Urretxu, el alto de Etzegarate y Ordizia. Tuvieron un hijo, Ángel (que luego se casó con María Gorosabel) y al poco la esposa falleció. Le llamaban 'Kabo Xaharra'.

Al poco de quedar viudo, el miquelete se casó con la urretxuarra María Sasieta, que estaba trabajando como

Aurora Garate eta Bernardo Etxeberria (Agustin Etxeberriak emana).





Zacarias Cantero bere emazte Begoña Garitano eta Rufino semearekin. Caribetik gertu ateratako argazkia (M. Paz Canterok emana).



Carmen Madinabeitia



Begoña Garitano eta Afri Gomez Cariben. (M. Paz Canterok emana).



Nati Yarza, Joxe Garitanoren emaztea, Mari Jose Cantero bilobarekin.

[eu] dizian bizi izan ziren aurrena. Gero, Legazpin bizi zela, mikeleteen kabo gisa egin zuen lan, eta 1936ko gerra piztean milizianoak entrenatzen jardun zuen eta, etsaiak ailegatzen ari zirela, ebakuazioa antolatu. Matxinatuek preso hartu eta Lermako presondegian eduki zuten. Hara, bisitan, behin baino gehiagotan joan zitzaion alaba Satur, artean 18 bat urtekoa, eskuan anaia txikia zuela, Elias, 8 urtekoa-edo. Umea berekin zuela babestuago sentitzen omen zen Satur.

Lehenbiziko semea, aipatutako Angel, 1936ko gerrakoan, ertzain hasi zen. Preso hartu zuten eta, gerrakontseiluaren ostean, bizirik segitzeko, Afrikako

[es] criada en Galicia y fue llamada para que viniera y conociera al que luego sería su esposo. Al estallar la guerra de 1936 estaba en Legazpi como cabo de miqueletes y entrenó a milicianos. Antes de la llegada de los sublevados organizó la evacuación. Fue detenido y trasladado a la cárcel de Lerma, en el palacio ducal. Su hija Satur, le visitó en más de una ocasión, acompañado del menor de los hermanos, Elías, que le valía para pasar los controles con más facilidad.

El hijo mayor del miquelete, Ángel, en la guerra del 36 fue ertzaina, y tras un consejo de guerra, para poder seguir vivo, se alistó en la Legión, y volvió a reengan-

[eu] Legiorako eman zuen izena, eta erreengantxatu ere egin zen, anaia Sebastian gerrara eraman ez zezaten.

Bigarren emaztearekin seme-alabok eduki zituen mikeleteak: Sebastian (Coel-eko fundatzailea), Juan (Udaleko bulegaria), Saturnina ('Satur', modista sonatua), Tomas (1936ko gerran hila), Alberto eta Elias.

Halaber, bigarren solairuan Josefa Telleria alarguna bizi izan zen, Bakaikutik etorria, Zacarias Cantero semearekin. Gero, Zacariasek bertan segitu zuen bizitzen, Begoña Garitanorekin ezkonduta eta 'Caribe' kafetegian lan eginez.

Hirugarren solairuko ezkerreko bizitzan, Felipe Izagirre arotza bizi izan zen, emazte Agustina Sologaistoarekin, eta Pedro Mª Oria txapista bere familiarekin. Geroago, bertan beste familia batzuk bizi izan ziren, batetik Valentin Murua eta emazte Valentina, Arabatik etorritakoak; bestetik, Victoriano Arroyo eta emazte Paca, Errioxatik etorriak. Eta hirugarren solairuko eskuineko bizitzan, 'etxeko' familia bat, Doroteo Etxeberria aitona eta beronen bigarren emaztea, Maria Galfarsoro, seme Bernardorekin, hau berriz Aurora Garaterekin ezkondua. Hauen seme Agustinek etxe honetantxe jarraitu du XXI. mendean ere.

Bi zapatariren lantokiak

Beheko solairuan, tabernaz gain, dendak eta eskulangile-tokiak egon izan dira. 1950eko hamarkada hasieran, bi zapatari-tailertxo zeuden, bata Facundo Urzelairena, bestea Alonso Alustizarena. Bigarren honetan apretak saltzen ziren baita ere, eta gero egunkariak. Hala ere, Alonsok baino gehiago koinatak jarduten zuen, Carmen Madinabeitiak. Bi lokaltxo hauek egondako tokian, 1940ko hamarkadan, Papelerak langileentzako ekonomatoa eduki zuen.

Hori baino lehenago, bi zapatari horiek Kale Zaharreko beste etxe batzuetan eduki zuten lantegia. ❖

[es] charse para que el ejército no llevara al frente a su hermano Sebastián.

El miquelete y su segunda esposa tuvieron estos hijos: Sebastián (que fundaría COEL), Juanito (oficinista funcionario del ayuntamiento), Satur (renombrada modista, muerta en 2011), Tomás (muerto en la guerra del 36), Alberto y Elías.


También en el segundo piso, residió la viuda Josefa Telleria, llegada de Bakaiku con su hijo Zacarías Cantero, quien siguió allí una vez casado con Begoña Garitano, y trabajando en la cafetería 'Caribe'.

En el piso tercero izquierda vivió el carpintero Felipe Izaguirre con su mujer Agustina Sologaistoa, y el chapista Pedro Mª Oria con su familia. Más tarde, ahí vivieron otros dos matrimonios, uno que vino de Álava, Valentin Murua y Valentina, y el otro procedente de La Rioja, Victoriano Arroyo y Paca.Y en el tercero derecha, una familia "de la casa", los abuelos Doroteo Etxeberria y su segunda esposa María Galfarsoro, con su hijo Bernardo, casado con Aurora Garate, y los nietos, uno de ellos Agustín, quien ha seguido viviendo en el edificio en el siglo XXI.

Dos zapateros con sendos talleres

En los bajos del edificio, además del bar, ha habido numerosos bajos comerciales o talleres artesanales. A comienzos de los 50, Facundo Urzelai tuvo allí su taller de zapatero remendón, y Alonso Alustiza también el suyo, primero para arreglar zapatos y vender alpargatas, y luego para vender periódicos, si bien la mayor parte del tiempo la tienda estaba al cargo de su cuñada, Carmen Madinabeitia. En el espacio ocupado por esos dos locales había existido un economato de la Papelera en los años 40.

Anteriormente, estos dos zapateros habían ocupado el bajo de otra casa de la Calle Vieja. ❖



07 __ kalegoena
plazaola

OIARBIDENEA (Agirrejauregi, Azkaratekoa) 5 OIARBIDENEA (Agirrejauregi, Azkaratekoa)



Oiarbidenea. Aldamenean, eraikin txiki horretan, Patrizio Etxeberriaren lehen lantokia ikusten delarik. (Gure Gipuzkoa, Indalecio Ojangurenen bilduma).



Oiarbidenea. Atzeko aldea.

[eu]

Hogeigarren mendean 'Oiarbidenea' zen herrideitura. Baina 1832ko etxe-zerrenda batean 'Azkaratekoa' agertzen da, eta orduko nagusia Juan Antonio Lardizabal dugu (Segura 1779, Bikuña jauregiko eta burdinolako jabea, eta baita Zabalotegi baserrikoa ere). Eta, maizterra, berriz, Pedro de Oyarvide; hortik gerora finkatutako 'Oiarbidenea' deitura.

Hala ere, 1944ko agiri ofizial batean, 'Azkaratenea' ikusi dugu, oraindik ere.

Baina, kontuz, etxe honek aspaldian bazeukan beste deitura bat, Agirre Jauregi, eta garai batean handiki batzuen bizitoki izan behar zuen, fatxadan ezkutu dotorea baitzeukan, azpian bi hitz horiek zizelkaturik. 1649an, jabea Gabiriako jauntxo bat zen, Juan de Agirre.

Etxe handia zen, 124 metro koadrokoa. 1971. urte aldera bota zuten.

Patrizio Etxeberria eta 'Martin Bost'

Etxe honetan, zehatzago esanda eraikinaren kontra zegoen etxe-orde batean, eduki zuen Patrizio Etxeberriak bere lehenbiziko tailerra, 1904an. Errentan hartu zuen lehendik zegoen sutegi bat, Martin Plazaolarena. Errementariak lehenbiziko laguntzailea Pedro Nazabal 'Ormaxarreta' izan zuen. Lurra maneatzeko lanabesak egiten zituzten, besteak beste aitzurrak. Lehenbiziko alokairu-kontratua lau urterako izan zen eta Patriziok urtean 50 pezeta ordaindu behar zion Plazaolari.

Martin Plazaola (1857-1944), Jose Domingo Plazaola eta Maria Dolores Muruaren lehenengo semea izan zen, eta maiorazkoa. Gaitzizenez, 'Martin Bost'. Etxea aitarena zen, eta seme Martinek heredatu zuen. Bertan bazegoen sutegia, baina ez dugu uste Martinek gaztetan errementari lanik egin zuenik. Kontu segurua da gero, bertan zeukan tabernatik atera zuela bizimodua gehienbat. Ardo-saltzaile gisa ageri da udaleko zenbait

[es]

En el siglo XX la gente conocía este edificio con el nombre de Oiarbidenea. Pero una lista de casas y caseríos de 1832 la menciona como 'Azkaratekoa', con Juan Antonio Lardizabal como propietario, un hombre nacido en Segura en 1779 y dueño tanto del palacio de Bikuña como de la ferrería de igual nombre y el caserío Zabalotegi. Y en aquel año de 1832 el inquilino era Pedro de Oyarbide, y por ello luego se le llamaría a la casa con su apellido.

No obstante, en un documento oficial de 1944 aparece todavía la denominación de Azkaratenea.

Aún y todo, hay todavía una denominación más antigua, la de Agirre Jauregi, y a tenor del elegante escudo que lucía en la fachada, con estas dos palabras en su zona inferior, parece que en esta casa vivió gente relevante. En 1649 pertenecía al 'jauntxo' Juan de Agirre, de Gabiria.

Era un edificio amplio, de 124 metros cuadrados. Fue derribado hacia 1971.

Patricio Etxeberria y 'Martin Bost'

En esta casa, y más exactamente en un cobertizo adosado, tuvo Patricio Etxeberria su primera herrería, a partir de 1904. Tomó en alquiler un taller existente anteriormente, propiedad de Martín Plazaola. El primer ayudante de Patricio fue Pedro Nazabal 'Ormaxarreta'. Se dedicaban a hacer herramientas para trabajar la tierra, como por ejemplo azadas. El primer contrato de alquiler era para cuatro años, y Patricio debía entregar a Plazaola 50 pesetas al año.

Martín Plazaola (1857-1944) fue el hijo mayor, y mayorazgo, de José Domingo Plazaola y María Dolores Murua. La casa era del padre, y la heredó Martín. Había taller de herrería, pero creemos que Martín nunca ejerció ese oficio. Lo que sí está claro es que en



Agirre jauregi edo Oiarbideneko armarria (Gure Gipuzkoa, Indalecio Ojangurenen bilduma).



Martin Plazaola 'Martin Bost' (Lucio Vergara) (Conchi Otegik emana).



Francisca Guridi Campos, Martinen emaztea, Mirandaolan jaioa (Conchi Otegik emana).

[eu] dokumentutan. Gainera, bertan otorduak ematen zituzten Martin eta emazte Franciscak, eta bazituzten apopiloak ere.

Badago argazki oso ezagun bat, 1910. urte ingurukoa, non hainbat legazpiar azaltzen diren, etxe honen atzeko aldean egindakoa. 'Amerikano' batekin despedidako otordua egin zuten, jatetxe honetantxe, eta argazkia, seguru asko, bazkalostekoa da. Hortxe ageri da, Martin Plazaola ez ezik, emazte Francisca Guridi ere, amantalarekin.

Gizon 'publikoa' izan zen Martin. Udalerako diruzain edo diru-sarreren arduradun ('depositario') aritu zen bai hemeretzigarren mende bukaeran bai XX.aren hasieran. Ideologiaz, karlista.

Gainera, Garroenea edo Frantziskogarronea izeneko etxearen jabe zen Martin Plazaola, baina 1944rako saldua zuen. Hura ere Kale Zaharrean zegoen.

Martin Plazaola, Francisca Guridi Camposekin (1856-1924) ezkondu eta seme-alabok izan zituzten: Euse-


[es] su época adulta se ganó la vida como tabernero, en el bar situado en este mismo edificio. En varios documentos del Ayuntamiento aparece como vendedor de vinos. Además, Martín y su esposa Francisca ofrecían comidas y tenían inquilinos.

Existe una foto muy conocida, de hacia 1910, realizada en la parte trasera del edificio, en la que aparecen muchos legazpiarras, que posaron en el transcurso de la comida de despedida a un 'americano'. Seguramente se haría al acabar el ágape. Aparecen también Martín y su esposa Francisca Guridi, ataviada con delantal.

Martín fue un hombre de relevancia pública. Ejerció de depositario en el Ayuntamiento, controlando los ingresos y gastos del municipio, tanto a fines del XIX como a comienzos del XX. Era de ideología carlista.

Además, Martín Plazaola fue el dueño de la casa Garronea o Frantziskogarronea, situada también en la Calle Vieja, en la otra acera y más hacia la parroquia. Pero para 1944 ya la había vendido.





Oiarbidenean bildutakoak.
1 Roque Azpeitia, "Roke Txanbolin", 2 Bitor Etxeberria "Bittor Zapatarie", 3 Braulio Zabaleta, Olaberrikoa, 4 Doroteo Etxeberria, 5 Pedro Mari Etxeberria, Ariztikoa, 6 Pio Lasa, 7 Demetrio Zabaleta, "Bildotsola", 8. Akilino, Galarretako karrileroa, 9 Martin Plazaolaren andrea, 10 Francisca Apaozala, Abelino Ziaranen ama, 11 Romualdo Etxeberria, 12 Jose Ramon Iturbe Mendizabalgoa, 13 Martin Plazaola, "Martin Bost", 14 Patrizio Etxeberria, 15 Trifon Mujika, hiru haurrak Remedios, Filomena eta Asuncion Mujika, 16 Lorenza Mujika, 17 Antonio Mujika, 18 Saturnino Telleria "Mediku zaharra", 19 Marcos Iñurritegui, 20 Silvestre Elorza, 21 Joakin Zabaleta, Bikuñaerrotakoa, 22 Baldomero Urmenetaren aita-amak, 23 Patrizio Elorza, 24 Pedro Aiastui, 25 Urkiola, Zumarragako amerikanoa, 26 Enrique Bengoetxea, 27 Enriqueta Bengoetxea, 28 Pio Etxeberria, 29 Benito Iturbe, 30 Isidro Urzelai, "Etsaie", 31 Buenaventura Oria, Bikuñanekoa (Felix Pinillosek emana).

[eu] bio, Justa, Genoveva, Paz eta Joaquin. Hauetatik, alaba Genovevak jarraitu zuen etxe-nagusi, Hermogenes Arrizabalagarekin ezkonduta, eta hain zuzen ere gizon hau izan zen Patrizio Etxeberriaren lehenengo enplegatuetako bat, 'tailerreko maisu' mailara iritsi zelarik. Eusebiok igeltsero jardun zuen eta ez zen ezkondu; Justa ere ez zen ezkondu, serora lana egin zuen Nuarben; Paz, berriz, neskame aritu zen Donostiako etxe aberats batean eta gero Zumaian bizi; eta Joaquin, berriz, Patrizioneko enplegatua izan zen eta Maria Lizarazurekin ezkondu.

Hermogenes gizon ezaguna zen. Txorronean jaioa genuen. 1904an hasi zen Patrizioren aldamenean errementari-lanean, eta 1908an, zortzi izeneko laguntzaile-zerrendan, hantxe agertzen da haren izena. 1935ean zinegotzi zegoen eta Udalak Patrizio Etxeberria omentzea proposatu zuen, herriarentzako zaharetxea egin berria zuelako. Aho batez onartu zuten proposamena, baina laster gerra zibila hasi eta 1943ra arte ez zen gauzatu omenaldia. 1936an, Francoren soldaduek Legazpi mendean hartutakoan, Jose Etxeberria (Patrizioren seme zaharrena) izendatu zuten alkate, eta Hermogenes sindiko (ekonomiaren arduradun).

1940. hamarkadatik aurrera, etxeak itxura hau izan zuen: beheko solairuan, ataritik sartuta 'Erbie' esaten zioten janari-denda, Vicente Agirre eta hiru alabena; kanpoaldean baziren beste bi ate, bata Miguel Zubizarreta iturginaren denda-tailertxora sartzeko, bestea Rufino Imaz ordiziarraren eraikitze-materialen almazenera.

Lehenengo solairuan, berriz, Genoveva Plazaola bizi zen, Hermogenes senarrarekin, eta hor bizi zen alaba Eugenia ere, Mario Otegirekin ezkondua, hau berriz arabarra, Arriolakoa eta Patrizioren fabrikara lan egitera etorria. Solairu horretan, beste bizitza batean, Genoveva eta Hermogenesen seme Jesus bizi izan zen, Estefania Garziandiarekin ezkondua. Gorago, bigarren solairuan, hiru bizitza zeuden: batean, seme Ernesto bizi zen, Milagros Azpeitiarekin ezkondua, beste ba-

[es] Martín se casó con Francisca Guridi Campos (1856-1924) y tuvieron estos hijos: Eusebio, Justa, Genoveva, Paz y Joaquín. Fue Genoveva quien siguió como propietaria de la casa, casada con Hermógenes Arrizabalaga, quien fue uno de los primeros obreros de la fábrica de Patricio y llegó a la categoría de 'maestro de taller'. Eusebio, por su parte, ejerció de albañil y no se casó; Justa tampoco se casó y trabajó como serora para la iglesia de Nuarbe; Paz trabajó como empleada de hogar en una casa de Donostia y luego se retiró a Zumaia; y Joaquín fue empleado de la fábrica de Patricio y se casó con María Lizarazu.

Hermógenes fue una persona muy conocida en el pueblo. Nacido en Txorronea, comenzó a trabajar junto a Patricio en 1904. Aparece en la lista de ocho empleados de 1908. En 1935 era concejal y propuso que el Ayuntamiento homenajeara al empresario, por haber edificado una residencia de ancianos. Se aprobó la propuesta por unanimidad, pero enseguida llegó la guerra y el homenaje no se llevó a cabo hasta 1943. En 1936, al conquistar los nacionales la villa de Legazpi, nombraron alcalde a José Etxeberria (el hijo mayor de Patricio) y síndico (encargado de asuntos económicos) a Hermógenes.

A partir de los años 40, el edificio tenía este aspecto: en la planta baja, entrando por el portal, una tienda de alimentación, regentada por Vicente Agirre y sus hijas Edurne, Arantxa y Mª Inés; y en la parte exterior existían otras dos puertas, una de ellas para entrar en el taller-tienda del fontanero Miguel Zubizarreta, la otra para acceder al almacén de materiales de construcción del ordiziarra Rufino Imaz.

En la primera planta vivía la dueña Genoveva Plazaola con su marido Hermógenes Arrizabalaga. Ahí mismo residía una hija, Eugenia, casada con Mario Otegi, que había llegado del pueblo alavés de Arriola. En otro piso de esta misma planta, vivió otro hijo, Jesús, casado con Estefanía Garciandia. Más arriba, en la segunda planta, vivían otros dos hijos de la propietaria:



Hermogenes Arrizabalaga eta Genoveva Plazaolaren umeak, zaintzailearekin (Conchi Otegik emana).



Genoveva Plazaola eta Hermogenes Arrizabalaga seme-alabekin. Ezker-eskuin, Jesus, Roman, Lucio, Eugenia, Ernesto, Luis eta Rufino (Conchi Otegik emana).

[eu] tean seme Roman, Burgosko Villahoz herriko Petra Rojorekin ezkondua, eta bestea seme Luisena zen, baina hau Elizondoko etxean jarri zen bizi izaten eta hor errentero-familiak bizi izan ziren, hala nola Arantxa Azkoitiarena, urkiatarrak eta bengoetxeatarrak. Seme Lucio, berriz, Rosario Azurmendirekin ezkondu zen eta kale Nagusian bizi, 'telefonoen etxean'.

Gizonok Patrizionean egin zuten lan. Baina Lucio handik irten egin zen, Urgain tailerrean eta Urola plastiko-fabrikan aritzeko; eta Rufinok ere alde egin zuen, banku batean hasi zelarik. ❖

[es] Ernesto (casado con Milagros Azpeitia) y Román (que se esposó con Petra Rojo, una mujer venida del pueblo burgalés de Villahoz). Otra de las viviendas era del hijo Luis, quien se trasladó a vivir a Arrolategi (la casa del Bar Elizondo), casado con Mª Teresa Urkia. Esta última vivienda fue ocupada por inquilinos como Arantxa Azkoitia y las familias Urkia y Bengoetxea. Otro de los hijos de Genoveva y Hermógenes, Lucio, vivió en la Calle Nueva, en "la casa de los teléfonos", casado con Rosario Azurmendi.

Estos hombres trabajaron en la fábrica de Patricio. Lucio también lo hizo, pero la abandonó para trabajar en el taller Urgain y en Plásticos Urola. Rufino también se fue de PESA para entrar de empleado en un banco. ❖



07 __ kalegoena
plazaola

MEDIKUZARRANEA (Casa nueva de Gorosabel) 6 CASA DEL MÉDICO VIEJO (Casa nueva de Gorosabel)



Medikuzarrenea etxea gaur egun (Santiago Fz. de Quincoces)

[eu]

Hala esan ohi zaio, bertan bizi izan baitzen Saturnino Telleria medikua (Legazpi, 1880), herrian arrasto sakona utzitakoa; gainera, herriaren historia idatzitakoa. 1980ko hamarkada ezkero udal euskaltegia dago bertan.

XIX. mendeko zenbait agiritan, 'Casa nueva de Gorosabel' izenez agertzen da. Pablo Gorosabel (1803-1868) tolosar historialari handiaren aita, Jose Joaquin, Legazpin jaioa zen, pentsatzekoa denez etxe honetantxe, baina bazuen beste bat Kale Zaharrean bertan, Agirre Jauregiaren (Oiarbidenea) parean; eta Telleriarteko Sagastizabal (Esaizabal) baserria ere berea zuen.

Jose Joaquin Gorosabel zen etxe dotore honen jabea. Zuzenbidea ikasitakoa Oñatiko unibertsitatean, laster jarri zen bizi izaten Tolosan, eta Mª Isidra Dominguez Gazkue madrildarrarekin ezkondu. Gizon hura hildakoan, 1830ean, seme-alabentzat izan zen etxea: Pablo, Natalia, Mª Rita eta Mª Antonia. Laster, 1831n, Pablok eta arrebek Isidoro Urmeneta Irizarri saldu zioten etxea; hain zuzen ere, Saturnino Telleria 'mediku zaharraren' birraitonari). Ameriketan dirua egindako familia baten ondorengoa zen.

1832ko etxe zerrenda batean agertzen denez, orduan etxe honetantxe bizi zen Isidoro Urmeneta, eta baita Tomas Guridi apaiza ("presbítero") ere.

Isidoro Urmenetak Gorosabeli erosi

Etxe hau erosi zuen Isidoro Urmeneta hura diruduna zen. Ignacio Arbidek 'Txinpartak' aldizkariaren 22. alean 'Los Tellería' artikuluan dioenez, Ameriketan dirua egindako familia bateko kidea zen. 1787an jaioa, ari garen etxe honen aurretik, 1827an, Isidorok Garrotxiki baserria erosi zion Jose Joaquin Gorosabeli. Lehenago, San Millango markesena izana zen baserri hori, alegia, Joaquin de Agirre y Porcel eta Joaquina de

[es]

Fue la casa natal y habitual del 'médico viejo' Saturnino Telleria (1880), un hombre que dejó profunda huella en la localidad y además escribió una historia local. Desde la década de 1980 es la sede del euskaltegi municipal.

En algunos documentos del siglo XIX se le identifica con el nombre de 'Casa nueva de Gorosabel'. José Joaquín, el padre del gran historiador tolosano Pablo Gorosabel (1803-1868), había nacido en Legazpi, pensamos que en esta casa, y era dueño también de otro edificio, situado enfrente de la casa conocida como Agirre Jauregi u Oiarbidenea; y también del caserío Sagastizabal (Esaizabal) de Telleriarte.

Aquel José Joaquín era el dueño de esta elegante casa. Había estudiado Derecho en la Universidad de Oñati y pronto se instaló en una casa de Tolosa, casado con la madrileña Mª Isidra Domínguez Gazcue. Al morir José Joaquín en 1830, la casa de Legazpi fue para los hijos Pablo, Natalia, Mª Rita y Mª Antonia. Al poco, en 1831, Pablo y sus hermanas la vendieron a Isidoro Urmeneta Irizar, bisabuelo del 'médico viejo' Saturnino.

En una lista de casas y caseríos de 1832, se aprecia que entonces todavía vivía en esta casa Isidoro Urmeneta, y que también lo hacía el sacerdote (presbítero) Tomás Guridi.

Isidoro Urmeneta compra la casa a Gorosabel

Aquel Isidoro Urmeneta que adquirió la casa era una persona adinerada. Según dice Ignacio Arbide en su artículo 'Los Tellería' del número 22 de la revista 'Txinpartak', era descendiente de una familia que se enriqueció en América. Nacido en 1787, Isidoro, antes de comprar la casa que nos ocupa, adquirió a José Joaquín Gorosabel el caserío Garrotxiki, de Brinkola. An-

[eu] Vicuñarena. Bestalde, 1837an teileria erosi zion Antonio de Sasoner delakoari; Legazpiko teileria, toki zehatza ez dakigularik.

1894ko udal erroldaren arabera, orduan lagun hauek bizi ziren bertan: Isidro Telleria Nazabal (Gabiria, 1850, medikua) eta beronen emazte Ildefonsa Zabaleta Urmeneta (Legazpi, 1853), hiru seme-alabarekin: Saturnino (1880-1947), Narcisa (1883) eta Dorotea (1889). Isidrok mediku gisa jardun zuen Legazpin, 1888az geroztik, aurreko mediku titularra (Manuel Fuentes Burgos) hil eta gero. Gainera, Ildefonsaren ama alarguna eta anaia bat (artean ezkongabea) bizi ziren etxe honetan: Josefa Antonia Urmeneta Etxeberria (Legazpi, 1828-1897) eta Cayetano Zabaleta Urmeneta (Legazpi, 1848). Bazuten etxean neskamea, 31 urtekoa, Engracia Zabaleta Betoño (Lazkanotegi, Bikuñanea). Geroago, 1896an, beste seme bat jaio zen etxe honetan: Tomas; hau ere mediku izan zena, baina Donostian eta pediatra, eta berau ere umerik izan gabe gelditutakoa. Hantxe bukatu zen telleria-zabaletatarren leinua.

Etxean bazegoen dirurik eta Isidro eta Ildefonsak heziketa ona eman zieten seme-alabei. Bi semeek medikuntza ikasi zuten, Valladoliden; alabek, berriz, orduan ohitura zen bezala, Zumaiako moja-ikastetxe batean ikasi zuten.

Saturninok aitaren lanpostua hartu

Saturnino Telleria ez zen nornahi izan Legazpin. Urteak eta urteak egin zituen bertan sendagile. 1905ean hasi zen herriko sendagile, Isidro aitaren lekukoa hartu zuelarik. Hura mediku finkoa zen eta Saturnino, lehen etapa batean, behin-behineko mediku gisa aritu zen. 'Historia de Legazpia' idatzi zuen, eta baita beste lan bat ere, herriko abizen ohikoen heraldikari buruzkoa. Jakin-mina zeukan eta hainbat arlo landu zuen. Adibi-

[es] teriormente, el caserío había sido propiedad del marqués de San Millán, es decir, de Joaquín de Aguirre y Porcel y su esposa Joaquina de Vicuña. Y en 1837, Isidoro había adquirido la tejería que Antonio de Sasoner tenía en Legazpi, en un lugar que desconocemos.

El censo municipal de 1894 nos muestra que entonces vivían aquí estas personas: Isidro Telleria Nazabal (Gabiria, 1850, médico), su esposa Ildefonsa Zabaleta Urmeneta (Legazpi, 1853) y tres hijos: Saturnino (1880-1947), Narcisa (1883) y Dorotea (1889). Isidro ejerció de médico interino a partir de la muerte en 1888 del anterior titular, Manuel Fuentes Burgos, y luego logró la titularidad. Además, residían en la casa la madre viuda de Ildefonsa y un hermano soltero de ésta: Josefa Antonia Urmeneta Echeverria (Legazpi, 1828-1897) y Cayetano Zabaleta Urmeneta (Legazpi, 1848). También vivía allí una criada, de 31 años, Engracia Zabaleta Betoño, de la casa Lazkanotegi de Bikuñanea. Más tarde, en 1896, nació otro niño en la casa, Tomás, que también sería médico, pediatra y afincado en San Sebastián. Tampoco tuvo hijos, como su hermano y hermanas, y así se acabó el linaje de los y las Telleria-Zabaleta.

Eran gente adinerada, e Isidro e Ildefonsa dieron estudios superiores a sus hijos varones, que estudiaron Medicina en Valladolid; las hijas, tal como se estilaba en la época, realizaron estudios en un colegio de monjas en Zumaia.

Saturnino hereda el puesto de su padre

Saturnino Telleria no fue un hombre cualquiera. Trabajó durante décadas como médico titular en Legazpi, comenzando como médico interino en 1905, al morir su padre Isidro, que era titular. También escribió una historia de la localidad ('Historia de Legazpia'), y un trabajo sobre la heráldica de los apellidos de la locali-



1934ko omenaldia Saturnino Telleriari. Atzean, Martin Plazaola 'Martin Bost', Ignacio Agirre Montegi eta Andreseneko Doroteo Etxeberria (Lucio Vergara)
(Mertxe Etxeberriak emana).



Saturnino Telleria.

[eu] dez, bere kabuz Arrolamendiko tumulu prehistorikoak induskatu zituen.

Ideologiaz kontserbadorea izan zen, karlista sutsua. Bere etxe honetan zegoen, 1906az gero, Círculo Carlista Tradicionalista delakoa, eta bera izan zen lehenbiziko presidentea. Aitor Ibañez de Garatxanaren arabera ('Urola Garaiko Elkarteak', Zum Edizioak, 2011), 1916tik aurrera bilerak Oiarbidenean egin ohi ziren, hango Martin Plazaola ('Martin Bost') puntaneko karlista baitzen. 1936ko gerrakoan, herrian nazionalak sartu aurretik, izan zen Saturnino giltzapean sartu nahi izan zuenik, baina azkenean onik atera zen. Bere ofizioari erabat emana bizi izan zen eta inguruko herrietako medikuek berarengana jotzen zuten kasu zailen bat zeukatenean. 1918ko tuberkulosi-izurritekoan oso ondo egin zion aurre eta Udalak eskerrak eman zizkion ofizialki.

Ignacio Arbidek 'Txinpartak' aldizkarian kontatu zuenez, Bähr-tarrek beren umeentzako Alemaniatik ekarri

[es] dad. Era de ideología carlista, profundamente conservador. Precisamente en esta casa se puso en marcha, en 1906, el Círculo Carlista Tradicionalista, con Saturnino como primer presidente. Según el historiador Aitor Ibánez de Garatxana, ('Urola Garaiko Elkarteak', Zum Edizioak, 2011), a partir de 1916, las reuniones se hicieron en la trastienda del bar de la casa Oiarbidenea, dado que su propietario, Martín Plazaola ('Martin Bost') era también líder de los carlistas.

Saturnino se interesaba por temas muy diversos y excavó por su cuenta los túmulos prehistóricos de Arrolamendi. El año 1936, antes de que los nacionales se adueñaran de Legazpi, hubo quien quiso encarcelarlo, pero finalmente salió indemne. Vivió entregado a su profesión, en la que alcanzó un gran nivel, de manera que médicos de otros pueblos le consultaban cuando se topaban con un caso difícil. Cuando la epidemia de tuberculosis de 1918 logró grandes resultados, hasta el punto de que el Ayuntamiento le agradeció públicamente el empeño.

[eu] zuten maistrarekin maitemindu egin zen Saturnino. Familiak ez zuen harreman hori ontzat hartu, emakume protestantea baitzen. Eugenio Agirrek bere 'Historias, mitos y leyendas'-en idatzi zuenez, "haserre eta denei kontra egin nahian", Saturninok kartujo sartu nahi izan zuen Burgosko Mirafloresen. Laster etorri zen atzera, eta mediku titular jardun zuen, harik eta 1947an hil zen arte. 1932an, Kale Berrian, oraindik ere zutik dagoen Telleria Enea etxe handia eraiki zuen, hainbat familia bizi izan den etxea.

Tomas, berriz, anaia Saturninoren aldean nahiko desberdina izan zen, ideologia liberalekoa; beharbada, hamasei urte gazteago zelako. Valladolideko ikasketak bukatu ostean Berlinen ikasi zuen pediatria. Aleman eta frantsesez hitz egiteko gai zen. Donostian bizi izan zen, Carmen Sasiainekin ezkonduta, hain zuzen ere bigarren Errepublika garaiko lehen alkate Fernando Sasiainen arrebarekin. Bidaia-zaleak ziren eta Errioxan sarri egiten zuten egonaldia Ezcaray edota Santo Domingo de la Calzadan ostatu hartuta.

Errepublikazale sutsua izan zen Tomas eta hiriburuko Unión Republicana-ko lehendakaria. 1936an, nazionalak Donostian sartutakoan, heriotzako zigorra ezarri zioten, baina azkenean barkatu; hala ere, zenbait hilabetez Legazpin bizi izatera behartu zuten. Ignacio Arbidek bere artikuluan dioenez, badirudi anaia Saturnino eta beste karlista ahaltsu batzuk, hala nola Benigno Oreja medikua, mugituko zirela Tomasen alde.

Azken bizilagunak, Narcisa eta Dorotea

Narcisa eta Dorotea, berriz, etxe inguruan bizi izan ziren beti. Arbidek dioenez, parroki elizarako neskatila-abesbatza prestatu ohi zuten, eta egiteko horretan bazuten konpetentzia nabarmenik: Pedro Segura handikiaren bi alaba ere (adin bertsukoak) horretantxe aritzen baitziren.

[es] Según contó Ignacio Arbide en la revista 'Txinpartak', se enamoró de la institutriz alemana de los niños de la familia Bähr de Udana. En su obra 'Historias, mitos y leyendas', Eugenio Agirre comentó que la familia de Saturnino no recibió con buenos ojos esa relación, dado que la mujer era protestante. Entonces, Saturnino, "contrariado y rebelado contra todos, decidió ingresar como cartujo en Miraflores de Burgos", escribió Agirre. Pero según parece regresó pronto a Legazpi. Ejerció de médico titular hasta su muerte en 1947. En 1932 levantó en la recién construida Calle Nueva la casa Telleria Enea, que tantas familias ha albergado y que aún sigue en pie.

Tomás fue un hombre bastante diferente, para empezar de ideología liberal, quizá porque era dieciséis años más joven. Tras acabar la carrera en Valladolid, estudió Pediatría en Berlín. Sabía alemán y francés. Vivió en San Sebastián, casado con Carmen Sasiain, hermana de Fernando, el primer alcalde de la ciudad de la segunda República. Fue presidente de Unión Republicana en la capital donostiarra. Era un matrimonio aficionado a los viajes, que frecuentemente pasaba temporadas en La Rioja, alojándose en Santo Domingo de la Calzada o Ezcaray.

En 1936, tras la toma de Donostia por parte de las tropas nacionales, Tomás en un principio fue condenado a muerte, pero luego le conmutaron la pena y fue obligado a residir varios meses en Legazpi. Ignacio Arbide manifiesta en su artículo que es de suponer que el hermano Saturnino y otros carlistas poderosos intercedieran por Tomás, por ejemplo el médico Benigno Oreja.

Las últimas habitantes, Narcisa y Dorotea

Narcisa y Dorotea, por su parte, siempre vivieron a pie de casa. Según cuenta Arbide, se dedicaban a preparar a grupos de niñas para que cantaran en la parroquia. Tenían la competencia de otras dos mujeres, de pare-





Narcisa Telleria
(Mertxe Etxeberriak emana).



Dorotea Telleria
(Mertxe Etxeberriak emana).

Dorotea (ezk) eta Narcisa Telleria (esk) (Mertxe Etxeberriak emana).

[eu] Bi ahizpok bazuten laguntzaile kuttun bat, Manolita Mendiola, zeina gertu bizi baitzen, botikako etxean. Haren alaba Mertxe Etxeberriak zera esan digu: "Narcisa eta Dorotea gure amarekin hil ziren. Oso jatorrak ziren. Dorotea 'campechanagoa' zen, eta baratzean ere jarduten zuen. Ziotenez, Narcisak gustukoa zuen Segurako mediku bat, baina etxean ez zioten utzi harremanean aurrera egiten. Halaber, emakumeok ez omen zuten anaia Tomas ezkon zedin. Narcisa Donostiara joan zen bolada baterako, anaia Tomasenera, eta hantxe hil zen. Getaria kalean bizi zen Tomas, alargunduta, eta bat-batean hil zen, artean testamentua egin gabe zeukala; gero ez zen gauza erraza izan telleriatarren ondasunekin zer egin behar zen erabakitzea".

Saturnino gazte zela berarekin batera bizi zen osaba Cayetano Zabaleta Urmeneta ere kontuan hartzekoa da. 1848an jaioa, bi Lakiola bereak zituen (Lakiolaerdikoa eta Lakiolaetxeberri). Adinean aurrera zihoala, 1897an, Pablo Gorosabel historialari eta artxibozain probintzial entzutetsuaren alaba Ramonarekin ezkondu zen; hau berriz, hiru urte zaharragoa; eta handik aurrera Seguran bizi izan ziren. Cayetano hildakoan, aipatutako bi baserri horiek iloba telleriatarrentzat izan ziren. ❖

[es] cida edad, que se dedicaban a lo mismo: dos hijas del industrial Pedro Segura.

Estas dos mujeres tenían una ayudanta de confianza, Manolita Mendiola, que vivía cerca, en la casa de la farmacia. Según la hija de ésta, Mertxe Etxeberria, "las dos murieron con mi madre. Eran muy buenas. Dorotea, más campechana y trabajaba en la huerta. Narcisa se gustaba de un médico de Segura, pero al parecer la familia no le dejó avanzar en la relación. Tampoco querían que Tomás se casara. Narcisa se fue a casa de Tomás en San Sebastián una temporada y murió allí. Mi madre también fue allá, llamada por Tomás. Este hermano vivía en la calle Guetaria, viudo, y un día murió de repente sin hacer testamento, de manera que luego fue un asunto complicado decidir el destino del patrimonio de los Telleria".

También merece mención Cayetano Zabaleta Urmeneta, el tío de Saturnino que vivía en la casa cuando éste era joven. Nacido en 1848, era dueño de dos de los caseríos Lakiola, Erdikoa y Etxeberri. Cuando ya estaba entrado en años, en 1897, se casó con Ramona, hija del afamado historiador y archivero provincial Pablo Gorosabel, una mujer tres años mayor. Después vivieron en Segura. Al morir Cayetano, los caseríos Lakiola pasaron a ser propiedad de los sobrinos Telleria. ❖



07 __ kalegoena
plazaola

ELORZANEA 7 ELORZANEA



Elorzanea gaur egun (F.I.O.).

[eu]

Etxe hau, erregionalista estilokoa, 1927an eraiki zen. Hain zuzen, Luis Astiazaran Galarzak (1898-1969) Legazpin egin zuen lehena dugu. Arkitekto hau, Madrilen jaioa baina arbaso giputzak zituena, ikasketak burutu berri eta Antzuolan zegoen, tarteko batzuen etxean. Gero Legazpiko udal arkitekto bihurtu eta, gainera, herri honetako dirudun batzuen etxeak proiektatu zituen: Isidranea (1932), Anastasio Arbide eta Placida Elorzarena (1932), Julian Lasarena (1933), Tomas Etxeberriarena (1939), Jose Etxeberriarena (1940), Antonio Elorzarena (1947), Cruz Etxeberriarena (1951), Felix eta Damian Elorza anaiena (1952) eta Roman Etxeberriarena (1953), adibidez. Baita urmenetatarrena ere (1934).

Patrizio Elorza Olaberriak (1864-1930) enpresa-gizonak eginarazi zuen. Papelerako nagusiak, alegia. Gizona Patrizio Etxeberriaren osaba genuen, Agapita Elorzaren (1848-1904) anaia baitzen. Eta gero, senitartekotasuna sendoagotzeko, Patrizio Etxeberriaren arreba batekin ezkondu zen Patrizio Elorza: Lucia Etxeberria Elorza (1876-1900). Hau da, iloba batekin ezkondu zen. Elorzatarrak Kale Zaharrean bizitutakoak ziren, Arabaolatzanea edo Atxaparron (gero Patxi taberna egon zena), gutxienez 1832az geroztik. Bai Patrizioren aitona, Santiago Elorza (Oñatitik etorria), bai aita, Juan Ignacio (dirudienez teila fabrikan lanean jardundakoa), biak bizitu ziren hor. Eta Patrizio bertan jaioa genuen.

Iñaki Beldarrainek 'Patricio Echeverría Elorza. Su tiempo, su obra y su trayectoria vital' biografi liburuan dioenez, Patrizio Elorza Madrilera joan zen hamalauhamabost urte zituela, han lan-aukera hobeak izango zituelakoan. Lehenbizi Chinchóngo txokolategi batean egin zuen lan, gero hiriburuan bertan Callao kaleko burdindegi sonatu batean, non enkargatuen buru egin baitzuten eta diru pixka bat aurreratu ahal izan zuen.

1895ean Lucia Etxeberriarekin ezkondu eta Madrilen bizi izan ziren, ez urte asko. Euskal Herrira itzuli eta

[es]

Esta casa, del llamado estilo regionalista y de 1927, fue la primera que edificó en Legazpi el arquitecto Luis Astiazaran Galarza (1898-1969), un hombre nacido en Madrid y de ascendencia guipuzcoana, y que en ese momento, recién acabada la carrera de arquitectura, residía en Antzuola, donde tenía parientes. Luego se convertiría en arquitecto municipal de Legazpi y proyectó otras residencias de gente importante: viuda de Elorza, 'Casa Isidra' (1932), Anastasio Arbide y Plácida Elorza (1932), Julián Lasa (1933), Baldomero Urmeneta (1934), Tomás Etxeberria (1939), José Etxeberria (1940), Antonio Elorza (1947), Cruz Etxeberria (1951), hermanos Félix y Damián Elorza (1952) y Román Etxeberria (1953), por ejemplo.

Esta casa la encargó el empresario papelero Patricio Elorza Olaberria (1864-1930). Era hermano de la madre de Patricio Etxeberria, Agapita Elorza (1848-1904). Y se casó con una hermana de Patricio Etxeberria: Lucía Etxeberria Elorza (1876-1900). Es decir, Patricio Elorza se casó con una sobrina.

Los Elorza habían vivido en la casa Arabaolatzanea o Atxaparro de la Calle Vieja (la que luego albergó el Bar Patxi) desde al menos 1832. El abuelo de Patricio, Santiago Elorza (llegado de Oñati) y el padre, Juan Ignacio (según parece operario de la fábrica de tejas), ambos residieron ahí. Y Patricio nació en esa misma casa.

Según cuenta Iñaki Beldarrain en su biografía 'Patricio Echeverría Elorza. Su tiempo, su obra y su trayectoria vital', Patricio Elorza "con 14 o 15 años, en busca de oportunidades que no encuentra en Legazpi, marcha a Madrid, donde trabaja primero en una chocolatería de Chinchón y más tarde en una importante ferretería de la calle Callao, donde asciende a jefe de los encargados de las distintas secciones y hace algún dinero".

Tras casarse en 1895 con Lucía Etxeberria, vivieron durante unos pocos años en Madrid. Volvieron y Pa-



Patricio Elorza eta Lorenza Mujika (Ignacio Arbidek emana).



Patricio Elorza bere etxeko terrazan (Ignacio Arbidek emana).

[eu] Ezkioko ganadu-tratante batekin (Juan Jose Etxezarreta) elkartu zen Patrizio, bien artean Legorretan paper-fabrika muntatu zutelarik, Etxezarreta izenekoa. Urte pare bat bakarrik iraun zuen bikoteak; Patrizio Legazpira bueltatu zen.

Patrizio Elorzaren aitaginarreba, Miguel Ignacio Etxeberria Apaolaza, Legazpiko paper-fabrikako nagusi bihurtua zen 1892an. Handik zazpi urtera hil zen, tuberkulosiak jota, eta enpresa Agapita alargunaren esku gelditu zen. Ez berak ez seme-alabek agertu zuten fabrikarekin jarraitzeko borondaterik. Gainera, zorrak zeuden, eta hartzekodun printzipaletako bat Patrizio Elorza bera zen. Miguel Ignacio hil zenean, Papelerak 14.039 pezeta zor zizkion Patrizio Elorzari. Azkenean, 1906an Patrizio bera bihurtu zen enpresako nagusi.

Antonio Elorzak Donostiara alde egin

1913an berriro ezkondu zen Patricio Elorza Olaberria, eta emaztea lehengusina zuen, eta Zerainen jaioa: Lorenza Mujika Olaberria (1881-1964). Lehenbizi Anto-

[es] tricio se asoció con un tratante de ganado de Ezkio, Juan José Etxezarreta, y ambos fundaron en Legorreta un negocio papelero, con el nombre de Etxezarreta. Pero esa asociación duró poco: alrededor de dos años. Y entonces Patricio y Lucía regresan a Legazpi.

El suegro de Patricio Elorza, Miguel Ignacio Etxeberria Apaolaza (padre de Patricio Etxeberria), se había convertido en propietario de la fábrica de papel de Legazpi en 1892. Murió de tuberculosis en 1899 y la factoría quedó en manos de la viuda Agapita y sus hijos, que según parece no mostraron interés en seguir con el negocio. La empresa tenía deudas y precisamente uno de los mayores acreedores era Patricio Elorza. En el momento de la muerte de Miguel Ignacio, la Papelera debe a Elorza 14.039 pesetas. Finalmente, la empresa pasará a manos de Patricio en 1906.

Antonio destacó en el mundo ciclista

En 1913, Patricio Elorza Olaberria contrajo nuevamente matrimonio, esta vez con Lorenza Múgica Ola-

[eu] nio izeneko haurra izan zuten, gero Papelerako gerente izango zena. 1947an txalet dotorea egin zuen enpresaren aldamenean eta bertan bizi Maria Bergaretxe eibartar emaztearekin. Herrian txirrindulari-lasterketak antolatu zituen, eta gero, etxetzarra Patrizio Etxeberria gazteari salduta, Donostiara bizialdatu zen.

Antonio Donostian hil zen, 65 urte zituela. Orduan Espainiako Txirrindulari Federazioko lehendakariorde ari zen. Baita ere, Unión Ciclista Internacional delakoan zuzendaritzako kide izana zen. 2005ean Donostiako belodromoari Antonio Elorza izena ipini zioten; horrela eskertu zuten Antoniok 1965eko Txirrindularitzako Munduko Txapelketa Donostian egin zedin eman zuen laguntza.

Marinel jendea: Paco eta koinatu Jose Luis

Patrizio eta Lorenzaren hurrengo semea Paco izan zen. Gerrako marinel egin zen eta Mallorca uharteko Soller herrian zegoen itsaspeko ontzien gune handian egin zuen lan. Gero ere Armadan jarraitu zuen. Lehenbizi almirante baten alabarekin ezkondu zen, eta hau hildakoan, Maritxu Arzuaga azkoitiarrarekin, Donostian bizi izan zirelarik.

Alaba Conchita, berriz, Pacoren laguna zen marinel batekin ezkondu zen: José Luis Ferrando. Gizon honek goi-mailako lanpostua izan zuen Papeleran: feltroaren produkzioaren arduraduna. Hurrengo alaba, Carmen, Ramón Herrán López de la Fuenterekin ezkondu zen, zeina Bartzelonan Pegaso kamioi-fabrikako ingeniaria izan baitzen. Haren aita, Mario Herrán, SKF errodamendu enpresaren Espainiako zuzendari izan zen.

Hurrengo semeak, Felix eta Damian, familiaren enpresan aritu ziren, eta Latxartegiko futbol-zelai ondoko bi bizitzako txaletean bizi; hura ere Luis Astiazaranek egina. Felix Elorzak Papelerako bulegoan jardun zuen

[es] verria (1881-1964), nacida en Zerain. Eran primos. Primero tuvieron un hijo llamado Antonio, que luego sería gerente de la empresa familiar, y que en 1947 edificó un chalet al lado de la empresa y residió allí junto a su esposa, la eibarresa María Bergaretxe. En el pueblo destacó como organizador de pruebas ciclistas y luego vendió su casona a Patricio Etxeberria hijo y se trasladó a San Sebastián. Antonio falleció en Donostia en 1976, a los 65 años, cuando era vicepresidente de la Federación Española de Ciclismo. Fue también miembro del comité directivo de la Unión Ciclista Internacional. En 2005, al velódromo de San Sebastián (que se edificó en 1965 para unos Mundiales de Ciclismo) se le impuso su nombre, a modo de homenaje, dado que Antonio había ayudado para que la competición fuera en Donostia.

Dos marinos, Paco y el cuñado José Luis

El siguiente hijo fue Paco. Se hizo marino de guerra y sirvió en la base de submarinos de Soller, en la isla de Mallorca. Luego sigió siendo miembro de la Armada. Primeramente se casó con la hija de un almirante, y al fallecer ésta, con una azkoitiarra, Maritxu Arzuaga. Vivieron en Donostia.

Una hija, Conchita, se casó con un marino amigo de Paco: José Luis Ferrando. Luego este hombre se convirtió en alto cargo de la Papelera: coordinaba la producción de fieltro. La siguiente hija, Carmen, se casó con Ramón Herrán López de la Fuente, que fue ingeniero de la fábrica se camiones Pegaso en Barcelona. Su padre, Mario Herrán, fue director de la empresa de rodamientos SKF en España.

Los dos siguientes hijos, Félix y Damián, trabajaron en la empresa de la familia, y residieron en un chalet familiar edificado junto al campo de fútbol de Latxartegi, con la firma del arquitecto Luis Astiazaran. Félix



Goian, Felix Elorza, Carlos Arbide, senargaiaren anaia bat, Maria Linazasoro, Placida Elorza, Txaro Elorza, Damian Elorza. Behean, Lorenza Mujika, Antonio Elorza, Conchita Elorza andregaia, Isaac Agirre (Patrizioren koinatua), Jose Luis Ferrando senargaia, Maritxu Bergaretxe eta Carmen Elorza
(Ignacio Arbidek emana)



Maria Linazasoro, Jose Etxeberria, Plaxi Elorza
(Ignacio Arbidek emana).



Damian Elorza eta Maribel Bereziartu emaztea
(Tere Murgiondok emana).


[eu] eta Lolita Trueba bilbotarrarekin ezkondu. Damianek, aldiz, laborategian egin zuen lan eta Maribel Bereziarturekin ezkondu, hau berriz Joaquin Bereziartu fundizio enpresa-gizonaren alaba.

Patrizio Elorza eta Lorenza Mujikak beste seme bat ere izan zuten, Lorenzo, gazterik hil zena. Patrizio 1930ean hil zen. Lorenza (Doña Lorenza, orduan esan ohi zioten bezala) etxe honetan bizi izan zen, harik eta 1964an hil zen arte. Gero, Eusko Alderdi Jeltzaleak eraikina erosi eta batzokia muntatu zuen bertan, eta geroago Mauleon Hotela egon da. ❖

[es] trabajó en la oficina de la Papelera y se casó con la bilbaína Lolita Trueba. Damián lo hizo en el laboratorio y se esposó con la legazpiarra Maribel Bereziartu, hija del empesario del metal.

Patricio Elorza y Lorenza Mujika tuvieron también un hijo, Lorenzo, que falleció joven. El marido murió en 1930 y Lorenza (Doña Lorenza, en el lenguaje de la época) vivió en esta casona hasta su muerte en 1964. Luego la casa fue adquirida por el PNV para instalar ahí el batzoki, y más tarde se convirtió en Hotel Mauleon. ❖

07 __ kalegoena
plazaola



BIZKAIÑONEA (Fragua vieja, Etxetxiki, Karbonerie)

8

BIZKAIÑONEA (Fragua vieja, Etxetxiki, Carbonería)



Karbonerie
(Enrique Guinea Makibar, Gasteizko Udal Artxiboa, GUI VII-145.22 argazkiaren zati bat).

[eu]

Saturnino Telleria "mediku zaharraren" etxe ondoan zegoen. 1920ko hamarkadan desagertu egin zen eta orube horretan Elorzanea etxea eraiki zuen Papelerako nagusiak, Patricio Elorzak. Azken urteetan ikaztegi bihurtuta zegoen eta jendeak Karbonerie esaten zion. Ez zen etxe handia izango, Etxetxiki izan baitzen beste herri-deitura bat.

Jose Luis Ugarte ikerlariaren arabera, 1787 eta 1832an aipatua dago udal artxiboan. 1843an, udaletxeko agiri batean Fragua vieja izenez agertzen da, eta urte horretan, dirudienez, bi familia bizi ziren bertan: bateko, Ignacio Zabaleta, Ignacia Antonia Mantxola eta Juana Bautista Zabaleta; besteko, Ignacio Plazaola, Josefa Antonia Apaolaza, Juan Cruz Plazaola eta Jose Joaquin Plazaola.

1857an beste deitura batekin agertzen zaigu udaletxeko agirietan: Viscaiñonea. Ez dakigu nondik nora izen hori. Eta orduko bizilagunak, berriz: Ignacio Plazaola Mantxola (43 urte, ehulea) eta emazte Josefa Antonia Plazaola Iza (48). Haiekin, Jose Joaquin Plazaola Apaolaza semea (16 urte) eta emaztearen ahizpa bat, Maria Cruz Apaolaza Iza, 30 urtekoa eta ofizialki pobrea.

1894an beste jende bat bizi da etxe honetan: Francisco Azarola Oiarbide (1836) eta emazte Josefa Antonia Olaran (1848), biak gabiriarrak eta gizona jornaleroa; beraiekin, alaba bat (Juana Josefa) eta gizonaren arreba bat (Leandra). Eta baita ere, Francisco Uria gabiriarra (1867, jornaleroa), Josefa Maria Goia mutiloarra (1862) eta berauen seme izan zitekeen Ramon Uria Goia (1893). ❖

[es]

Este edificio estaba situado al lado de la casa del "médico viejo" Saturnino Telleria. Desapareció en la década de 1920 y en el solar construyó su casona Patricio Elorza, el dueño de la Papelera, conocida luego como Elorzanea. En su última etapa, esta casa llamada Bizkaiñonea se convirtió en carbonería y la gente la llamaba Karbonerie. Pensamos que sería un edificio pequeño, dado que era conocido también como Etxetxiki.

Según el investigador José Luis Ugarte, ya aparece citada en el archivo municipal tanto en 1787 como en 1832. En 1843, en un documento del Ayuntamiento, se la menciona con el nombre de Fragua vieja. En esa época vivían, según parece, dos familias; por un lado, Ignacio Zabaleta, Ignacia Antonia Mantxola y Juana Bautista Zabaleta; por el otro, Ignacio Plazaola, Josefa Antonia Apaolaza, Juan Cruz Plazaola y José Joaquín Plazaola.

En 1857 aparece mencionada en el Ayuntamiento con la denominación de Viscaiñonea, y no sabemos el motivo. La habitaba el matrimonio formado por Ignacio Plazaola Mantxola (43 años, tejedor) y Josefa Antonia Plazaola Iza (48). Junto con ellos, el hijo de 16 años José Joaquín Plazaola Apaolaza y una hermana de la esposa, María Cruz Apaolaza Iza, de 30 años y considerada oficialmente como pobre.

En 1894 habitan la casa otras familias: el jornalero Francisco Azarola Oiarbide (1836), su esposa Josefa Antonia Olaran (1848), ambos nacidos en Gabiria, y también una hija, Juana Josefa, y una hermana de Francisco, de nombre Leandra. Además, residía allí otro jornalero, Francisco Uria, nacido en Gabiria en 1867, Josefa María Goia (nacida en Mutiloa en 1862) y un niño pequeño, de nombre Ramón Uria Goia, nacido el año anterior, que podría ser hijo de estas dos personas. ❖



07 __ kalegoena
plazaola

PLAZAOLA eta PLAZAOLAERROTA 9 PLAZAOLA y PLAZAOLAERROTA



Plazaola baserria (Joaquin Odriozolak emana).



Plazaola 1958an. Ingurua desjabetu eta obrak hasi berritan.



Plazaola (Fernando Mz. de Albeniz, 2013).



Plazaolaerrota (Fernando Mz. de Albeniz, 2013).

[eu]

Orain bi etxe dira, Plazaola eta Plazaolaerrota, guztiz bereiziak baina elkarri itsatsiak, batean elorzatarrak bizi izan direlarik, eta bestean agirrezabaldarrak.

Etxe garrantzitsua izan zen aspaldiko garaietan. Burdinola ere izan zen, eta erdigunean zegoelako, hortik izena: Plazaola. Segurako udal artxiboko agiri batean, 1426ko otsailaren 8koa, aipatzen da. Baina oso aspaldi desagertu zen burdinola hura, eta, adibidez, Lenburrek 2007an plazaratutako 'Zeharrolak Urola Garaian' liburuan ez da hari buruzko daturik eskaintzen. Urez mugitutako burdinola izan zen, eta gero errota bihurtu, hogeigarren menderarte ailegatu zena.

Plazaolatarrak munta handiko jendea izan ziren. Kide batzuk Mirandaolako burdinolari lotuak ageri zaizkigu, eta baita Ubitarteko etxeari ere. Baina badira lau mende Plazaolako etxea eta Plazaola abizena bereizita doazela; hau da, laurehun urte badira Plazaolako etxean ez dela plazaolatarrik bizi, baina hemeretzigarren mendean baziren Elorza Plazaolatarrak.

Angel Cruz Jakak dioenez, 1549an Gabiriako Agirre jauregiko nagusiak, Lope Ochoa de Aguirre e Iburretak, erosi egin zuen Plazaolako Errota. Laurgaingo dorreko artxiboan bada Plazaolako errotako eta Bikuñako burdinola eta errotako nagusien arteko liskar baten berrri. Miguel Martinez de Vicuña ez zegoen konforme Plazaolako errotako presak zeukan altuerarekin eta hemengo nagusiak, aipatutako Lope Ochoa de Aguirrek, azkenean hango paretak zertxobait jaitsi.

1649an, adibidez, Plazaolako errotako maizterra Ascencio Etxeberria zen. Eta 1691n, artean ere, Gabiriako agirretarren jauregiko lagun bat zen errota honetako nagusia: Juan Ladron Aguirre-Guevara.

Antxon Agirre Sorondok lan benetan mardula plazaratu zuen 1988an, Eusko Ikaskuntzaren bidez: 'Tratado de molinología. (Los molinos de Guipúzcoa'). Han dioenez, 1893 eta 1895. urteetan, bertako errotaria Martin Antonio Agirre genuen. Eta badakigu bertan bizi zela. Agirre Sorondok beste datu oso

[es]

Desde hace bastante tiempo son dos edificios adosados, Plazaola y el molino. En uno han vivido los Elorza, en el otro los Agirrezabal.

Plazaola fue muy importante. Hace siglos fue ferrería, y debía su nombre a que se encontraba en el casco urbano. Aparece mencionada en un documento de 1426, guardado en el archivo municipal de Segura. Pero la ferrería desapareció muy tempranamente, y de hecho, en la publicación de Lenbur de 2007 'Zeharrolak Urola Garaian' no se ofrecen datos. Era una instalación movida por agua, que luego derivó en molino, y en cambio éste llegó hasta el siglo XX.

Los Plazaola fueron gente poderosa. Algunos de sus miembros aparecen relacionados con la ferrería de Mirandaola y otros con la casa de Ubitarte. Pero el apellido Plazaola lleva desvinculado del caserío desde hace cuatro siglos, si bien en el siglo XIX vivió una familia Elorza Plazaola.

Según el historiador Ángel Cruz Jaka Legorburu, en 1549 el señor del palacio Agirre de Gabiria, Lope Ochoa de Aguirre e Iburreta compró el molino de Plazaola. Y en el archivo de la torre de Laurgain se ha recogido documentación de un pleito surgido entre Miguel Martínez de Vicuña, propietario de la ferrería y molinos de Vicuña, y Lope Ochoa de Aguirre, dueño del molino de Plazaola. El señor de Vicuña consideraba que la presa de este molino tenía una altura excesiva y finalmente consiguió rebajarla.

En 1649, el inquilino del molino de Plazaola era Ascencio Etxeberria. Y en 1691 el propietario seguía siendo un miembro del palacio de los Agirre de Gabiria: Juan Ladrón Aguirre-Guevara.

Antxon Agirre Sorondo publicó un trabajo muy concienzudo en 1988, por medio de Eusko Ikaskuntza: 'Tratado de molinología. (Los molinos de Guipúzcoa'). En esta obra comenta que en los años 1893 y 1895 el molinero de Plazaola era Martín Antonio Agirre. Se sabe que vivía ahí mismo. Agirre Sorondo ofrece otro dato interesante: la última molienda se produjo en

[eu] interesgarri bat eskaintzen digu: errota, azkeneko aldiz, 1905ean ibili zen, eta azken errotaria Ana Agirre Guridi izan genuen, Martin Antonio haren alaba (alaba bakarra), zeina 1937an hil baitzen, 72 urte zituela. Garia, artoa eta garagarra ehotzen omen zen bertan.

Agirre Sorondok dioenez, 1929an, Pedro Regalado Segura argindarra ekoizten hasi zen errota honen azpiegitura erabilita. Urola ibaitik segundoko 165 litro ur hartzeko baimena eskuratu zuen Segurak.

1956an, Instituto Nacional de la Vivienda delakoak desjabetu egin zuen Plazaola, osorik, baita Plazaolaerrota ere, inguru horretan kamioa eta etxeak egin behar zirela-eta. Ez elorzatarrek ez agirrezabaldarrek onartu zuten erabakia, eta handik aurrera protestari ekin. Oso prozesu mingarria izan zen bi familiontzat, benetako drama bat, egun batetik bestera etxe-inguru guztia desitxuratuta gelditu zitzaien-eta.

Plazaolako elorzatarrak

Hogeigarren mendearen bigarren erdian hemen bizi izan zen Gabino Elorzak esan ohi zuen hemeretzigarren mendean etxejauna Sevillako lur-jabe handiki bat zela, eta elorzatarrek Plazaola erosi zutenean, aurretik, dirua izateko, Ajuex saldu zutela.

Manuel Antonio Elorza Plazaola pertsona garrantzitsua izan zen. 1862an jaioa zen eta 1911n etxeentzako ur-zerbitzua jarri zuen abian, teilazko hodiak erabilita. Ura, Kamiñu Real ondoko Arlabaingo iturritik hartzen zuen. Hori baino lehenago, herritarrak iturriez baliatzen ziren, eta kale aldean hiru iturri publiko zeuden, Udalak gobernatuak: Iturraundi (Correoseko etxean), Seroraetxekoa edo Beatakoa (Nikasioren etxekoa) eta Kalebarrenekoa (Arbideren txaleta egindakoan, 1930. hamarkada hasieran, desagertu egin zena). Iturriotara, Astisakona izeneko iturburuko ura bideratzen zen. Manuel Antonio Elorza aitarekin batera, seme Cayetano ere jardun zen etxeak urez hornitzen. 1923an, elorza-

1905, y la última molinera fue Ana Agirre Guridi, que falleció en 1937 a los 72 años. Era hija de aquel Martín Antonio. En el molino se hacía harina de trigo, maíz y cebada. [es]

Por otra parte, Agirre Sorondo comenta que en 1929 el empresario Pedro Regalado Segura comenzó a producir electricidad empleando las canalizaciones del molino. Obtuvo permiso para extraer del río 165 litros por segundo.

En 1956, el Instituto Nacional de la Vivienda dictó que los terrenos cercanos a estas dos edificaciones debían ser destinados a una nueva carretera y casas. Ni la familia Elorza ni los Agirrezabal aceptaron la propuesta y acabaron viendo cómo se expropiaban las tierras de los alrededores de los caseríos y las máquinas destrozaban todo el paisaje anterior. Protestaron, pero las instituciones no les apoyaron. Fue un drama muy doloroso para estas dos familias.

Los Elorza

Gabino Elorza, que vivió aquí en la segunda mitad del siglo XX, solía decir que en el siglo XIX el propietario de Plazaola era un terrateniente de Sevilla, y que cuando los Elorza compraron este caserío, previamente vendieron Ajuex para poder hacer frente al gasto.

Manuel Antonio Elorza Plazaola fue una persona importante. Nacido en 1862, comenzó a llevar agua a los hogares de Legazpi, empleando canalización de cerámica. Se valía del agua de la fuente de Arlabain, junto al Camino Real. Hasta entonces, los legazpiarras se servían del agua de las fuentes públicas. En el casco urbano había tres, gestionadas por el ayuntamiento: Iturraundi (en la casa de Correos), la de Seroraetxekoa o Beatakoa (en la casa del carnicero Nicasio) y la de Kalebarren (que desapareció al hacerse la casa de Arbide, a comienzos de los años 30). Se surtían del ma-



Ezkerretik, Placido Elorza, Juana Josefa Agirre (Barrendiolakoa), Ignacio Elorza, Pia Elorza, Tecla Elorza (moja), Cayetano Elorza eta Manuel Antonio Elorza (eserita). (Mari Carmen Elorzak emana).



Rosario Agirrezabal, Maria Zabaleta eta Benita Urzelai (Arantxa Berasategik emana).



Cayetano Elorza, Benita Urzelai eta seme-alabak. Ezkerretik, Gregorio Santa Ageda (ekarritakoa), Julian, Maxima, Luxio eta Leontxi. Gabino, artean, jaio gabe (Arantxa Berasategik emana).

[eu] tarrok eta Udala akordio batera iritsi ziren: Udalak Plazaolakoen hodi-sarea erosi zuen eta, handik aurrera, bera hasi zen bizilagunei ur-zerbitzua ematen. 1887an, Manuel Antoniok saldu egin zion Ajuex (oso hondatuta zegoen) Julian Aldasorori, eta horko diruarekin Plazaola erosi ahal izan zuen.

nantial de Astisakona. En estas tareas de suministro de agua, junto con Manuel Antonio Elorza trabajaba su hijo Cayetano. En 1887, Manuel Antonio vendió el caserío Ajuex (que estaba casi en ruinas) a Julián Aldasoro, para con ese dinero poder comprar Plazaola. [es]

[eu] Bestalde, 1905etik aurrera, Manuel Antoniok Plazaolako ur-azpiegitura eskaini zion Pedro Segurari, honek argindarra sor zezan herriarentzat.

Manuel Antonio Elorza Plazaola Juana Josefa Agirrerekin ezkondu zen. Bada argazki oso erakargarri bat, hogeigarren mende hasierakoa, non senar-emazteok azaltzen diren, alaba Teclaren ondoan, hau berriz janzkera bereziarekin, botoak egitera baitoa Azpeitiko klausurako komentu batean sartzeko, frantziskotarren komentuan, alegia. Handik aurrera sor Guadalupe izan zen.

Teclarekin batera, ezker-eskuin, anai-arrebok agertzen dira: Plaxido (Patrizio Etxeberriaren txofer partikularra izan zen eta honi buruzko informazioa Etxetorreko atalean irakur daiteke), Ignazio (ez zen ezkondu, taxista jardun zen, Donostiako Orfeoiko kide ere izan zen eta errepide-istripuz hil, 1952an, 53 urte zituela), Pia (Santiago Iturberekin ezkondu eta Etxetorren bizitu ziren) eta Cayetano.

Cayetano, gizon ekintzailea

Cayetano Elorza Agirrek (1889-1939) ere arrasto sakona utzi zuen. 1908an, Zumarragan Euzko Alderdi Jeltzalearen lehen Gipuzko Buru Batzarra osatu zenean, bileran bertan zen Cayetano, beste legazpiar batzuekin (buru, Juan Aztiria, Urtatzolakoa, eta baita ere, Avelino Ziaran eta Bittor Etxeberria zapataria ere). Artean hemeretzi urteko mutil gaztea zen Cayetano, eta kamioi-gidari ari zen Pedro Seguraren teila-fabrikan. Gero zinegotzi jardun zuen, batik bat kulturako zinegotzi. 1931n, hauteskunde demokratikoen ostean, Erraizabalgo Daniel Aranguren hasi zen alkate, eta Cayetano alkateorde. Bere azken urteetan EAJtik ANVra pasatu zen. Bestalde, dultzaina jotzen zekien.

[es] Manuel Antonio, además, aportó las instalaciones de Plazaola para que Pedro Segura dotara de alumbrado público a partir de 1905.

Se casó con Juana Josefa Agirre. Tenemos una foto muy sugestiva de comienzos del siglo XX, en la que aparece este matrimonio con motivo del ingreso en el convento de clausura de las franciscanas de Azpeitia de la hija Tecla, quien aparece con una vestimenta llamativa. A partir de entonces fue sor Guadalupe.

Junto a Tecla, de izquierda a derecha, aparecen varios hermanos: Plácido (que fue chófer privado de Patricio Etxeberria, cuyos datos se ofrecen en el apartado de Etxetorre), Ignacio (soltero, fue miembro del Orfeón Donostiarra, trabajó de taxista y murió en 1952 a los 53 años), Pía (se casó con Santiago Iturbe y vivieron en Etxetorre) y Cayetano.

Cayetano, hombre emprendedor

Cayetano Elorza Agirre (1889-1939) dejó huella profunda. En 1908, al constituirse el primer Gipuzko Buru Batzarra del PNV, uno de los asistentes de Legazpi fue Cayetano, entonces joven de 19 años y chófer de camión en la empresa de Pedro Segura. En esa reunión de Zumarraga, la representación de Legazpi estaba presidida por Juan Aztiria, de Urtatzola (antiguo juez de paz), y otros miembros fueron Avelino Ziaran y el zapatero Bittor Etxeberria.

Cayetano ejerció de concejal, encargándose de temas de cultura. Tras las elecciones democráticas de 1931 quedó elegido como alcalde Daniel Aranguren, del caserío Erraizabal, y para el cargo de teniente de alcalde Cayetano. En sus últimos años se pasó del PNV a ANV. Por otra parte, sabía tocar la dulzaina. Se casó con Benita Urzelai Guridi, de Errotaritxonea y tuvie-



Gabino Elorza zakurrarekin (Julian Auzmendiren argazkia) (Arantxa Berasategik emana).



Gabino Elorza eta ama Benita Urzelai (Rakel Etxeberriak emana).



Julian Elorza danborradako musikariak zuzentzen (Arantxa Berasategik emana).

[eu] Errotaritxoneko Benita Urzelai Guridirekin ezkondu zen Cayetano eta seme-alabok eduki zituzten: Maxima (ezkongabea), Leontxi (Patxi Berasategirekin ezkondu eta Etxetorren bizitu ziren), Gregorio Santa Agueda (adoptatua, gero San Ignazio auzoan bizi izan zen), Julian (ezkongabea), Luxio (Alejandra Salazarrekin ezkonduta, Etxetorren jarri ziren bizitzen) eta Gabino (ezkongabea).

Hiru seme-alaba ezkongabeok Plazaolan bertan bizi izan ziren. Julianek Patrizioren fabrikan egin zuen lan eta udal musika bandako kide ere izan zen, batik bat klarinetea jotzen zuelarik; gainera, erloju- eta idazmakina-konpontzaile ere bazen, eta, adibidez, astero joan ohi zen Zumarragako Etxeberri jatetxera, hango erlojuei soka ematera. Gabino, bere arreba Maxima bezala, ilegorri eta azalzuri hutsa izan zen. Baserriari eutsi zioten, soro- eta ganadu-lanak eginez. Gabino oso pertsona herrikoia zen eta sarri hartu zuen parte, zaldia eramanez, haur-danborradan. Azkeneko urteetan Zorrotz enpresan ere egin zuen lan.

[es] ron esta descendencia: Máxima (soltera), Leontxi (se casó con Patxi Berasategi y vivieron en Etxetorre) Gregorio Santa Agueda (hijo adoptado, vivió luego en el barrio San Ignacio), Julián (soltero), Luxio (se casó con Alejandra Salazar y vivieron en Etxetorre) y Gabino (soltero).

Estos tres hijos solteros residieron en Plazaola. Julián trabajó en la empresa de Patricio, fue miembro de la banda municipal tocando sobre todo el clarinete y además sabía arreglar relojes y máquinas de escribir, y solía ir todas las semanas al restaurante Etxeberri para dar cuerda a los relojes de pared. Gabino, al igual que Máxima, era pelirrojo y de piel muy clara. Mantuvieron activo el caserío, con sus campos de labranza y ganado. Gabino era muy popular y participaba con su caballo en la tamborrada infantil. En sus últimos años trabajó también en Zorrotz.

Leontxi Elorza, como se ha dicho, se casó con Patxi Berasategi, un hombre nacido en el caserío Beastegi

[eu] Leontxi Elorza, esan bezala, Patxi Berasategirekin ezkondu zen. Gizon hau Zegamako Olaran auzoko Beastegi (Berasategi) baserrian jaioa zen eta mutikotan Lazkaoko beneditarren komentuan hasi zen ikasten, gero Belokekoan ere aritu zelarik. Hura utzi eta Leontxi ezagutu ostean, ezkondu eta Etxetorren jarri ziren bizitzen, hain zuzen ere osaba Plaxido Elorzak utzitako pisuan (hau Etxe Alaira joan baitzen). Zurgina zen Berasategi, eta lehenbizi aroztegia eduki zuen Plazaola ondoan. Gero, 1950eko hamarkadan, Zorrotz enpresa sortu zuen Sebastian Zubizarreta eta Agapito Etxeberriarekin batera.

Patrizio Etxeberriaren txofer moduan ari zen Plaxido eta, gizon hau Etxe Alaira bizialdatutakoan, ugazaba saiatu omen zen Etxetorreko pisu hura beretzat hartzen, gero bere langileren bati uzteko, baina Leontxik kontra egin zion eta azkenean Patriziok amore eman.

Errotako agirrezabaldarrak

1860ko hamarkadan jaio zen Ana Agirre Guridi. Alaba bakarra zen eta etxera ezkondu zen, 1889an, Lino Agirrezabal Zabaletarekin, hau ere legazpiarra. Eta, hain zuzen ere, Ana izan zen azken errotaria.

Lino eta Anak sei seme-alaba izan zituzten. Zaharrena, Toribia, moja joan zen; Modesto, Agapito eta Rosario ez ziren ezkondu eta etxe honetantxe eman zuten bizi guztia; Josefa ere ez zen ezkondu eta, buruko gaixotasunak jota, ingresatuta bizi izan zen; Francisco ('Patxi') izan zen ezkondu eta ondorengoak izan zituen bakarra.

Ana Agirre Guridi 1937an hil zen, 74 urte zituela; senarra, Lino Agirrezabal Zabaleta, 1940an zendu zen, 76 urterekin. Batik bat baserritik bizi izan ziren, baina gizonak Renferako ere jardun zuen. Pentsatzen dugu trenbide-zaintzaile izango zela, beste baserritar asko bezala, eta lanpostu hori konpentsazio modura emango ziotela, trenbiderako lur-sailen bat kendua ziotelako. Senar-emazteok izan ziren baserria erosi zute-

[es] (Berasategi) del barrio de Olaran de Zegama, y que siendo chaval marchó a estudiar a los benedictinos de Lazkao y más tarde a Belloc, con la misma congregación. Conoció a Leontxi, se casaron y vivieron en Etxetorre, en el piso que había dejado Plaxido Elorza al marchar a Etxe Alai. Berasategi fue ebanista y tuvo carpintería propia al lado de Plazaola. En los 50 fundó la empresa Zorrotz junto con Sebastián Zubizarreta y Agapito Etxeberria.

El tío Plaxido era chófer personal de Patrizio Etxeberria, y este empresario intentó hacerse con ese piso de Etxetorre, pero Leontxi se opuso y finalmente Patricio desistió.

Los Agirrezabal

En la década de 1860, en la vivienda del molino, nació Ana Agirre Guridi. Era hija única y se casó a esa misma casa con el legazpiarra Lino Agirrezabal Zabaleta. Y esta mujer fue precisamente la última molinera de Plazaola.

Lino y Ana tuvieron seis hijos. La mayor, Toribia, se hizo monja; Modesto, Agapito y Rosario no se casaron y pasaron aquí toda su existencia; Josefa tampoco se casó, tuvo problemas siquiátricos y acabó ingresada; Francisco ('Patxi') fue el único que tuvo descendencia.

Ana Agirre Guridi murió en 1937 a los 74 años; el marido, Lino, en 1940 a los 76. Principalmente vivieron del caserío y el molino, si bien el esposo también trabajó para la Renfe, pensamos que vigilando la vía férrea, al igual que otros muchos baserritarras. Creemos que le ofrecerían el empleo como compensación por haber sido privado de algún terreno para la construcción de la vía férrea. Fueron ellos, Ana y Lino, quienes compraron el caserío. Los padres de Ana habían vivido ahí pagando renta.



Plazaolaerrotako Lino Agirrezabal, etxe aurrean (Karmele eta Antxon Agirrezabalek emana).



Plazaolaerrotako Lino Agirrezabalen Norte ferrokarrilaren agiria.



Modesto Agirrezabal Plazaolaerrota ondoan.



Plazaolaerrotako Agapito eta Patxi Agirrezabal, honen emazte Bitxori Zaldua, eta Rosario eta Modesto Agirrezabal (Karmele eta Antxon Agirrezabalek emana).

[eu] nak, Anaren gurasoak (Martin Antonio eta Francisca) errenteroak izan ziren-eta.

Esan bezala, Modesto, Agapito eta Rosario baserrian bizi izan ziren eta eutsi egin zioten, baina bi gizonezkook Papelerako langile ziren baita ere. Rosario izan zen hiltzen azkena, eta 86 urte zituela zendu.

Como se ha dicho, Modesto, Agapito y Rosario siguieron en el caserío, con ganado y labranza, si bien los hombres trabajaban también en la Papelera. Rosario fue la última en fallecer, a los 86 años. [es]



Plazaolaerrotakoak. Behean, Antxon Agirrezabal Zaldua, Karmele Agirrezabal Campo, Ana Ugarte Agirrezabal, Bitxori Zaldua (Patxiren emaztea). Goian, Agapito Agirrezabal, Beni Campo, Maritxu Agirrezabal Zaldua, Txaro Agirrezabal Zaldua, Modesto Agirrezabal, Rosario Agirrezabal, Antonio Ugarte (Maritxu Agirrezabalen senarra), Iñaki Zaldua, Maria Zabaleta, Patxi Agirrezazabal.



Plazaolaerrotako Antxon Agirrezabal Zaldua, etxe aurreko txabola ondoan. (Karmele eta Antxon Agirrezabalek emana).



Plazaolaerrotako Rosario Agirrezabal sutondoan (egutegi batean argitaratua).

[eu] Donostiara bizialdatu

Patxi, berriz, Renfeko arotza genuen eta gaztetan Donostiara bizialdatu zen. Zumarragako Iburretako Bitxori Zalduarekin ezkondu zen. Lehen esan bezala, bera izan zen ezkondu eta umeak edukitako bakarra, eta hain zuzen ere Rosariok anaia Patxiren seme bati eman zion baserria herentzian, Antxon Agirrezabal Zalduari, zeina 1929an jaioa baitzen.

Patxi eta Bitxori 1920ko hamarkadan joan ziren Donostiara. 1929an, Egiako auzoan bizi zirelarik, seme Antxon jaio zen, gero baserria heredatuko zuena. Beni Camporekin ezkondu eta arte grafikoetara dedikatu zen gizon hau, lehenbizi Llobet izeneko enpresan. Gero, 1984an, Gráficas Ipar enpresaren sortzaileetako bat izan zen. Fotokonposizioaren aloerrekoa da eta orain ere hor dago, Egia auzoan, semealaben ardurapean. ❖

Se mudan a Donostia [es]

Patxi trabajó como carpintero para Renfe y vivió gran parte de su vida en Donostia. Se casó con Bitxori Zaldua, del caserío Iburretagoikoa de Zumarraga. Luego Rosario dejó el caserío en herencia a uno de los hijos de Patxi, Antxon Agirrezabal Zaldua, que era nacido en 1929 en San Sebastián. Patxi tuvo otras dos hijas, Maritxu y Txaro.

Antxon Agirrezabal nació en el barrio de Egia, se casó con Beni Campo y se dedicó a las artes gráficas, primero en la empresa Llobet. En 1984 fue uno de los fundadores de Gráficas Ipar, especializada en fotocomposición, con sede en Egia. Hoy la dirigen sus hijos Karmele y Antxon. ❖



07 __ kalegoena
plazaola

ETXETORRE 10 ETXETORRE



Etxetorre 1956an.
(Maite Beristainek emana).



Etxetorre Plazaola aldetik
(Arantxa Berasategik emana).

[eu] 1910eko hamarkadan egindako etxea. Plazaolako Cayetano Elorza eta Pedro Segura enpresa-buruarena zen. 1993an bota egin zuten.

Lehenengo boladan, 1920. urtean hain zuzen ere, batetik, Frantzisko Mari Agirre Villar eta Bernarda Odria Gabiriaren familia bizi zen. Gizona 37 urtekoa zen, emaztea 29koa, bata Mantxolaaundin jaioa, bestea Aztirian, Baztarretxen. Patrizio Etxeberria, mutikotan, Azpikoetxen bizi zen eta Frantzisko Mariren lagun mina egin zen, hau bertatik bertara bizi baitzen, Mantxolaaundin. Gero, handik urte gutxira, enpresaburuak esan zion aspaldiko adiskideari jartzeko bizitzen Olaberrian, beldur baitzen hor norbaitek fabrikaren bat muntatuko ote zuen. 1920ko urte hartan, lehenbiziko hiru umeekin bizi ziren Bernardak-eta: Victoria, Esteban eta Pilar; eta baita zazpi urteko Juana Sarasola Odria ilobarekin ere.

1920an beste familiok bizi ziren baita ere: Pablo Murua Bergara (Oñati, 47 urte) eta emazte Timotea Uribeetxeberria Zubizarreta (Aretxabaleta, 46 urte), bi alabarekin, Maria eta Josefa. Halaber, hiru anaia, Braulio, Tomas eta Alfonso Noguera Gonzalez, 21 eta 14 urte bitartekoak, Zamorako Morales de Torotik etorriak Patrizioren fabrikan lan egiteko. Baita ere, Jose Agirreurreta (Bergara, 29 urte) eta emazte Andresa Ugarte Mendizabal (Legazpi, 31 urte), Martin umetxoarekin, eta handik urte gutxira Patrizio Etxeberriaren fabrikako sarrera nagusian egin zen etxera bizialdatuko zirenak. Hauez gain, Nafarroa, Burgos eta Arabatik etorriko familia batzuk.

1924-25ean Jose Garmendia Egiguren eta emazte Maria Oregi Muñoa jarri ziren. Gizona, Azkoitiko Epelde baserrikoa, andrea Bergarako Mekolaldekoa. Bergaratik azaldu ziren 1923an jaiotako ume batekin, Jose izenekoa. Berrogei urte eman zituzten Etxetorren, 1963-64an Saturnino Telleria kalera aldatu zirelarik. Etxe honetan beste bederatzi seme-alaba jaio ziren: Lucas (1925), Maritxu (1927), Patxi (1928), Juan (1932an), Juana (1934), Imanol (1936), Jesus Mari

[es] Edificada en la década de 1910. Los dueños eran Cayetano Elorza, del caserío Plazaola, y el empresario Pedro Segura. Fue derribada en 1993.

En una primera etapa, concretamente en 1920, vivía aquí la familia de Francisco Agirre Villar (37 años) y Bernarda Odria Gabiria (ocho años menor). Francisco había nacido en Mantxolaaundi y su esposa en Baztarretxe, en Aztiri. Patricio Etxeberria, en su infancia, vivió en Azpikoetxe y fue muy amigo de Francisco, dado que este vivía muy cerca, en Mantxolaaundi. Luego, ya convertido en empresario, Patricio le pidió a su amigo que se instalara en la casa de Olaberria, pues temía que alguien pusiera en marcha la vieja instalación de la ferrería y le hiciera competencia. Ese año de 1920, Francisco y Bernarda vivían en Etxetorre con tres hijos (Victoria, Esteban y Pilar) y la sobrina Juana Sarasola Odria.

Otras familias que vivían aquí en 1920: Pablo Murua Bergara (Oñati, 47 años), su esposa Timotea Uribeetxeberria Zubizarreta (Aretxabaleta, 46 años), con sus hijas María y Josefa; asimismo, hermanos, Braulio, Tomás y Alfonso Noguera González, de entre 21 y 14 años, venidos desde Morales de Toro (Zamora) para trabajar en la fábrica de Patricio; y José Agirreurreta (Bergara, 29 años) y su esposa Andresa Ugarte Mendizabal (Legazpi, 31 años), con su hijo Martín, una familia que poco después se trasladaría a una vivienda anexa a la portería principal de la factoría de Patricio. También residían entonces otras familias llegadas desde Navarra, Burgos y Álava.

Hacia 1924-25 se instalaron José Garmendia Egiguren (del caserío Epelde de Azkoitia) y su esposa María Oregi (del barrio Mekolalde de Bergara), con un hijo nacido en 1923, de nombre José. Vivieron en Etxetorre casi cuarenta años, hasta que en 1963-64 se trasladaron a la calle Saturnino Telleria. En Etxetorre nacieron otros nueve hijoa: Lucas (1925), Maritxu (1927), Patxi (1928), Juan (1932), Juana (1934), Imanol (1936), Jesús Mari (1938), Víctor (1940) y José Mari



Jose Garmendia eta Maria Oregi, biloba Ascen Garmendia Calderonekin (Ruben Garmendiak emana).



Etxetorren, Kaxiano Ibarguren itsua eta Victor Garmendia, gero Bergaran bizi izandakoa (Ruben Garmendiak emana).



Garmendiatarrak. Zutik, Lucas eta Milagros Martinez, Maritxu eta Miguel Gonzalez eta Imanol. Behean, Juan, Jesus Mari, Maria Oregi (ama), Jose Mari eta Victor (Ruben Garmendiak emana).

[eu] (1938), Victor (1940) eta Jose Mari (1943). Lucas eta Jesus Mari Legazpin bizi izan ziren, beste denak mugitu egin ziren. Aita, Jose, 1965ean hil zen, Maria Oregi 1980an. Gure informatzailea, Ruben Garmendia (Jesus Mariren semea), hor jaio zen 1962an.

(1943). Lucas y Jesús Mari vivieron luego en Legazpi, el resto en otras poblaciones. El padre, José, falleció en 1965, y María en 1980. Nuestro informante, Rubén Garmendia (hijo de Jesús Mari), nació en esta casa en 1962. [es]



Gabiriatarrak. Zutik, Primi, Victorio, Miren. Behean, Periko, Feli, Santi (Amaia Enrique Gabiriak emana).



Gabiriatarrak. Primi, Periko, Miren, Santi eta Feli (Amaia Enrique Gabiriak emana).



Joaquina Lubiano, Isidro Gabiriaren emaztea (Amaia Enrique Gabiriak emana).



Isidro Gabiria (Amaia Enrique Gabiriak emana).

[eu] 1939an hortxe jaio zen Mari Carmen Elorza gure berriemailea. 1940ko hamarkadan, bera ume zela, jende hau bizi bertan: beheko solairuan, garmendiatarrak (arestian aipatutakoak) eta etxeberriatar batzuk (gizona Mendiaraspeko Jose Miguel Etxeberriaren anaia); lehenbiziko solairuan, Placido Elorza eta Joaquina Oiarzabalen familia, bi haur zutelarik (Jose Ignacio, Franco hil eta gero alkate izandakoa, EAJren izenean, eta Mari

Aquí en Etxetorre nació en 1939 nuestra informante Mari Carmen Elorza. En los años 40 vivía en este amplio edificio con sus padres Plácido Elorza (del caserío Plazaola) y Joaquina Oiarzabal, y su hermano José Ignacio, que sería alcalde por el PNV tras la muerte de Franco. Otras familias de la época: la de José Garmendia y María Oregi (ya mencionada; los Etxeberria, con el padre de familia hermano de José Miguel Etxe- [es]

[eu] Carmen, gure berri-emailea), gainera aldameneko atean beste familia bat bizi zelarik, emakumea Patrizioren fabrikako telefonista izandakoa. Bigarrengo solairuan, Pia Elorza (Plazaolako alaba) eta senar Santiago Iturbe antzuolarra (hantxe hil ziren) eta gabiriatarrak. Hirugarrengoan, agirretarrak (zine-aretoan karameloak saltzen zituztenak, hala nola Pepita, Ricardo, Agustin eta Luis) eta Izaskun Mujika ("la viuda alegre" esaten ziotena). Ganbarotean Adela izeneko emakumea bizi zen, bera bakarrik.

Cayetano Elorzaren seme-alabak bizi izan ziren

1946an, alde egin zuten Etxe-Alaira Placido Elorza eta Joaquina Oiarzabalek. Placido, 1936ko gerran, gudari joan zen, Patrizio Etxeberriari kamioia harrapatuta. Gerra amaitutakoan, ugazaba galdezka hasi zen: "Plaxido ez da azaltzen lan-eske". Hori aditu zuen etxe horretan neskame zebilen Bibiana Larreak eta esan egin zion Plaxidori. Halaxe, gizona joan Patriziorengana, beldurrez, eta nagusiak, lehengo lanpostura bueltatzeko esan; alegia, Patrizioren txofer pertsonal gisa hasi zen berriz ere. Etxe-Alaira aldatu baziren, izan zen lanpostuaren beharrei azkarrago erantzun ahal izateko.

Plaxido Elorza gerrara joatean, ume txiki bat zeukan, 1935ean jaiotakoa. Emazte Joaquina Ormaiztegira joan zen orduan, bere jaiotetxe zen Sagastiberri baserrira.

Etxetorren, Plaxidoren etxebizitzan, Plazaolako beste alaba bat sartu zen, Leontxi Elorza. Haren senarra Patxi Berasategi zen, zeina Zorrotz enpresako sortzaile eta nagusietako bat izan baitzen. Eta aldamenean, Patrizioren fabrikako telefonista bizi izandako etxean, geroago, Plazaolako beste seme bat sartu zen, Luxio Elorza, Alejandra Salazarrekin ezkondutakoa.

berria del caserío Mendiaraspe; la familia de una señora que era telefonista en la fábrica de Patricio; en el segundo piso, Pía Elorza (también del caserío Plazaola) y su esposo el antzuolarra Santiago Iturbe, que fallecieron en esta casa, y en la puerta de enfrente los Gabiria; y en la tercera planta, los Agirre (entre otros Pepita, Ricardo, Agustín y Luis), una familia que vendía caramelos en el cine, e Izaskun Mujika (a quien decían "la viuda alegre"). En el desván estaba la vivienda de una mujer, llamada Adela, que vivía sola. [es]

Vivieron varios hijos de Cayetano Elorza

En 1946, Plácido Elorza y Joaquina Oiarzabal se mudaron a Etxe-Alai. Plácido, en la guerra del 36, se alistó con los gudaris, llevándose consigo un camión de la fábrica de Patricio. Al acabar la guerra el empresario comentó: "Plaxido ez da azaltzen lan-eske" (Plácido no viene a pedir trabajo). Esas palabras fueron escuchadas por Bibiana Larrea, que entonces trabajaba en casa de Patricio como criada y se lo comentó a Plácido, quien entonces se presentó en la fábrica muerto de miedo, pero Patricio le dijo que volviera a trabajar en su puesto anterior, el de chófer personal del patrón. La familia se trasladó a Etxe-Alai para poder responder con más celeridad a las necesidades de Patricio.

Al marchar a la guerra, Plácido Elorza tenía un hijo pequeño, nacido en 1935. Entonces, su esposa Joaquina volvió a su casa natal, el caserío Sagastiberri de Ormaiztegi.

En la vivienda de los Elorza-Oiarzabal entró otra hija del caserío Plazaola, Leontxi Elorza, casada con Patxi Berasategi, quien fue uno de los fundadores de la empresa Zorrotz. Y en la puerta de al lado, en la que fue la vivienda de la telefonista de Patricio, se instaló otro hijo de Plazaola, Luxio Elorza, casado con Alejandra Salazar.



Leontxi Elorza eta Patxi Berasategi (Arantxa Berasategik emana).



Luxio Elorza eta Alejandra Salazar, bi alabekin. Erdian, Arrate Berasategi (Rosa Mari Elorzak emana).

[eu] Bigarren solairuan bizi ziren Gabiria-lubianotarrek arrastoa utzi zuten. Semeetako bat Santi izan zen, argazkilaria; eta beste bat, Periko, mendizale sonatua. Alabak hiru izan ziren: Primi, Miren eta Feli.

Hona hemen etxearen egoera azken etapan, 1960-70ko hamarkadetan, askorik aldatu gabea, Luxioren alaba Rosa Mari Elorzak azaldua:

Beheko solairuan, Lorenzo Mujika eta emazte Pilar Mujika (Arrola baserrikoa) eta Jose Garmendia eta emazte Maria Oregi, seme Jesus Marirekin (Egizabalgo Pilar Zabaletarekin ezkondua).

Lehenengo solairuan, Patxi Berasategi eta emazte Leontxi Elorza (Plazaolakoa), seme-alabekin (Arantxa, Mertxe, Manu eta Arrate). Eta Luxio Elorza (Plazaolakoa) eta emazte Alejandra Salazar beren bi alabekin, Rosa Mari eta Maite.

Bigarrengo solairuan, Pia Elorza (Plazaolakoa) eta senar Santiago Iturbe. Eta gabiriatar batzuk.

Hirugarrenean, agirretar batzuk eta mujikatarrak (Kike eta Bittor).

Buhardillan, 60ko hamarkadan, Rogelio Botanzen familia bizi izan zen, besteak beste. Gero Arantzazu auzora aldatu zen. ❖

[es] Los Gabiria-Lubiano, que vivían en el segundo piso, dejaron huella: uno de los hijos, Santiago, fue fotógrafo profesional; otro, Periko, montañero renombrado. Las tres hijas fueron Miren, Primi y Feli.

He aquí la situación de la casa en su última etapa, la de los años 60 y 70, descrita por Rosa Mari Elorza, hija de Luxio:

En la planta baja, Lorenzo Mujika y su esposa Pilar Mujika (del caserío Arrola), y José Garmendia y su esposa María, con el hijo Jesús Mari, casado con Pilar Zabaleta, del caserío Egizabal.

En la primera planta, Patxi Berasategi y Leontxi Elorza (de Plazaola), con sus hijos Arantxa, Mertxe, Manu y Arrate. Y Luxio Elorza (de Plazaola) y Alejandra Salazar con sus hijas Rosa Mari y Maite.

En la segunda planta, Pía Elorza (de Plazaola) y Santiago Iturbe. Y una familia de Gabiria.

En la tercera, los Agirre y los Mujika (Kike y Bittor).

En la buhardilla, en los años 60, vivió la familia de Rogelio Botanz, que luego se trasladó a un piso del barrio Arantzazu. ❖



Etxetorreko neska-mutikoak 1956an. Floren eta Margari Etxeberria Iturbe, Blanqui Sevilla, Mª Cruz Iturbe Elorza, Arantxa Berasategi Elorza, Ana Mª Moreno, Mertxe eta Manu Berasategi Elorza (Arantxa Berasategik emana).



Miguel Mendinueta, Etxetorren jaiotakoa (Maite Beristainek emana).



Etxetorreko Bitor Mujika eta Amelia Katxo semeekin. Ezkerretik hasita, Elias eta Juan Ramon (Maite Beristainek emana).



Etxetorren bizi izandakoak Andresenean bildu ziren 80ko hamarkadan (Ruben Garmendiak emana).



08 [kalebarren]



1. Botika etxea
2. Mantxolanea
3. Ermentariaundi
4. Ermenteritxiki
5. Zulokoa
6. Txokoko etxea
7. Damata
8. Karlosenea
9. Anduezanea
10. Domingonea
11. Iribarren eta Errotaritxonea
12. Xesterokoa
13. Azpikoetxe Berria
14. Gregorionetxiki
15. Gregorioneaundi
16. Azpikoetxeerrota
17. Azpikoetxea eta Papelera
18. Papelerako teknikarien etxea
19. Papelerako txoferraren eta mekanikariaren etxea
20. Txintxoetxe



08 _ kalebarren

BOTIKA ETXEA 1 BOTIKA ETXEA



Botika etxea gaur egun (Santiago Fz. de Quincoces).

[eu]

1908-09 urteetan Jose Angel Mendiola Mendiola (1879) eta Feliciana Ziaran Apaolaza (1881) senaremazteek egindako etxea dugu. Ordura arte baratze-lekua izana zen; Santa Maria kale zaharreko bi etxeren arteko baratze-lekua, alegia. Gizona Donostian jaioa zen, baina Astigarragako jatorrikoa; Feliciana, berriz, legazpiarra, kale aldekoa, Donostiara joan neskame eta han elkar ezagutu. Ezkondu eta hamabi haur izan zituzten, batzuk Legazpin jaioak, beste batzuk Argentinan.

Jose Angel eta Felicianak Argentinan eman zituzten urte gehienak, Azul izeneko hirian, eta hantxe hil, negozio desberdinetan jardun eta gero. Gizona kasinoko crupier izan zen, besteak beste.

Zenbait seme-alaba, hala nola Feliciano, Luis, Vicenta eta Manolita, Legazpin jaio ziren, eta bi mutiko horiek Donostiako Marianistetan ikasi zuten, baina gero Argentinara bizialdatu. America izeneko neska, berriz, Argentinan jaio zen, eta bi urte zituela Legazpin bataiatu zuten. Zera esaten zuen: "Ni neu azkarrena, bataiatzera oinez joan nintzen eta".

Hiru neskatila, osaba Avelinok zainduta

Hiru alaba (America, Vicenta eta Manolita) etxe honetantxe bizi izan ziren azkenean, gaztaroan osaba batek zaindu zituelarik, Avelino Ziaranek, alegia. Gizon hau 1884an jaioa zen, Kale Zaharreko Frantziskogarronean, Amalia Gallastegi bergararrarekin ezkondua eta Patrizioren fabrikako langilea. Berauek ere izan zuten beren haurrak eta hasieran etxe honetantxe bizi izan ziren, eta gero Kale Berrian, Aurrera taberna egon zen eraikinean.

Avelino Ziaranek bost seme-alaba izan zituen (Seberen, Ramonita, Jose, Asun eta Francisco Javier) eta horietako bi etxe honetantxe jaio ziren. Jose abade izan zen eta Antzuola, Urretxu eta Legazpiko parrokietan aritu, 2016an hil zelarik, 92 urte zituela.

[es]

Casa edificada en los años 1908-1909 por José Ángel Mendiola Mendiola (1879) y su esposa Feliciana Ziaran Apaolaza (1881), en una zona que había sido huerta, entre dos casas de la Calle Santa María. Él era nacido en San Sebastián, pero de ascendencia de Astigarraga; ella, natural de Legazpi, del casco urbano. Se conocieron en la capital, adonde ella había ido a servir como criada. Se casaron y tuvieron doce hijos, algunos de ellos nacidos en Legazpi, otros en Argentina.

José Angel y Feliciana vivieron mayormente en Argentina, en la ciudad de Azul, dedicados a diferentes negocios, y murieron allí. El hombre fue durante una época crupier de un casino. Varios hijos, como Feliciano, Luis, Vicenta y Manolita, nacieron en Legazpi, y los dos chavales estudiaron en los Maristas de San Sebastián para luego acabar viviendo en Argentina. Otra hija, América, nació en tierras argentinas y fue bautizada en Legazpi cuando tenía dos años; solía decir: "La más lista yo, que fui andando a bautizarme".

Tres hijas, al cuidado del Tío Avelino

Tres hijas (América, Vicenta y Manolita) acabaron viviendo en esta casa, criadas cuando eran jóvenes por un tío, Avelino Ziaran (nacido en 1884 y casado con la bergaresa Amalia Gallastegi), quien luego viviría con su descendencia propia en una casa de la Calle Nueva, la del Bar Aurrera. Este hombre fue operario de la fábrica de Patricio.

Avelino tuvo cinco hijos (Seberen, Ramonita, José, Asun y Francisco Javier) y dos de ellos nacieron en esta casa que nos ocupa. Uno de ellos, José, fue sacerdote en pueblos como Antzuola, Urretxu y Legazpi, y falleció en 2016 a los 92 años.

Avelino fue un miembro destacado del PNV local en los años de la República, y al entrar los nacionales en



America, Manolita eta Vicenta Mendiola ahizpak (Mertxe Etxeberriak emana).



Felix Etxeberria (Turbinakoa) eta Manolita Mendiola Ziaran (Mertxe Etxeberriak emana).



Avelino Ziaran eta alaba Asun (Txaro Ziaranek emana).

[eu] Errepublikako urteetan, EAJko kide nabarmena izan zen Avelino eta, nazionalak herrira sartzean, Derioraino egin zuen ihes. Hantxe bizi izan zen sei hilabetez, aldamenean emaztea eta haur txikiena, Francisco Javier, zituela. Dantzari moduan ere nabarmendu zen. Anaia bat, Tomas (1892), Uruguarira joan eta Paso de los Toros hirian Ford automobilen saltokia eduki zuen. Iloba batekin ezkondu zen, Ramonita (Avelinoren alaba), zeina Legazpin lan egindakoa baitzen, Patrizio Etxeberriak gonbidatuentzat zeukan erresidentzian.

1930eko hamarkadatik aurrera, etxe honetan hiru mendiolatar ahizpa bizi izan ziren, lehen esan bezala. Beheko solairuan, America, Alejo Albisu botikarioarekin ezkonduta, eta gainera bertan zeukan botika. Alejo, bestalde, Zumarragan jaioa zen, eta bazeukan anaia bat, Jose, sona handiko medikua. Goiko solairuan bi bizitza zeuden, batean Manolita bizi zelarik, bestean Vicenta. Azkeneko hau ez zen ezkondu eta Manolitak, berriz, Brinkolako Turbinako Felix Etxeberria hartu zuen senartzat. Hauen alaba Mertxe bizi izan da bertan azken hamarkadotan.

Manolita eta Turbinako Felix Saturnino Telleria mediku zaharraren bi arreben laguntzaile eta zaintzaile izan ziren haien azken urteetan.

[es] el pueblo en septiembre de 1936 escapó hasta Derio, donde vivió seis meses, acompañado de su esposa y el menor de los hijos, Francisco Javier. Destacó como dantzari. Un hermano suyo, Tomás (1892), emigró a Uruguay y en la ciudad de Paso de los Toros tuvo una delegación de vehículos Ford. Se casó con una sobrina, Ramonita, hija de Avelino, y que hasta entonces había trabajado en la residencia de invitados de Patricio Etxeberria.

Luego, a partir de la década de 1930, vivieron en esta casa las tres hermanas Mendiola antes mencionadas. En la planta inferior, América, casada con el farmacéutico Alejo Albisu, quien tenía la botica ahí mismo y era de Zumarraga, hermano de José, un médico renombrado. En el piso superior, Manolita y Vicenta, cada una con su vivienda. La primera de ellas se casó con Félix Etxeberria, de la casa Turbina de Brinkola, y luego esa zona de la vivienda siguió ocupada por su hija Mertxe. Y en otra parte del piso superior vivió la tercera hermana, Vicenta, que no se casó.

Manolita y Félix Etxeberria fueron ayudantes y cuidadores de las hermanas de Saturnino Telleria en sus últimos años de vida.



Feliciana Ziaran Apaolaza (Mertxe Etxeberriak emana).



Alejo Albisu 1934an (Lucio Vergara).



Amalia Gallastegi, Asun Juaristi, Asun Ziaran, Javier Ziaran, Joxe Ziaran, Avelino Ziaran, Ramonita Ziaran (atz), America Mendiola (aurr), Manolita Mendiola. Gazteak, Txaro Etxeberria eta Txaro Albisu (Txaro Ziaranek emana).



Ikurriñarekin San Migelen. Aurrean, Emilia Etxeberria, Celestina Iturbe, Pablo Lizarazu, America Mendiola eta Amparo Agirrezabal. Atzean, Maria Aranguren eta mutiko bat (Lucio Vergara).

[eu] 1936an, nazionalak herriaren jabe egindakoan, Alejo Albisu ikertu zuten. Onartu zuen Euzko Batzokiko kide izana zela eta EAJ alderdiaren zale. José Mari Urcelay bere 'Legazpi siglo XX. Hitos…' liburuan esan zuenez, herriko udal farmazi-inspektoretza kendu zioten aldi baterako, zigor moduan.

Felix Etxeberriak ere Mendiola zeukan bigarren abizena. Patrizioren fabrikan jardun zen. Haren aitak, Joxe Etxeberria Oruetak (Elorregin jaioa), etxean bertan egin ohi zuen lan, turbinako instalazioa zainduz. Segura, Ugalde y Cía enpresarako egiten zen han argindarra. Telleriarteko Ubitarte baserriko Vicenta Mendiola Berasategirekin ezkondu zen. Seme Felix ere, gaztaroan jardun zen etxeko turbinan, eta horrez gain aitzurrentzako kirtenak egiten. ❖

[es] En 1936, al adueñarse las tropas nacionales del pueblo, investigaron a Alejo Albisu, quien admitió que había sido socio de Euzko Batzokia y simpatizante del PNV. Fue sancionado con la pérdida temporal de su cargo de inspector farmacéutico municipal, según contó José Mari Urcelay en su libro 'Legazpi siglo XX. Hitos…'

Félix Etxeberria (que, curiosamente, tenía como segundo apellido Mendiola) fue operario de la fábrica de Patricio. Su padre, Joxe Etxeberria Orueta (nacido en Elorregi) trabajó en la instalación de electricidad situada en la misma vivienda, que producía energía para la empresa Segura, Ugalde y Cía; y se casó con Vicenta Mendiola Berasategi, del caserío Ubitarte de Telleriarte. Félix, en su juventud, trabajó también en la turbina de su casa, y también, allí mismo, hacía mangos para azadas. ❖



08 _ kalebarren

MANTXOLANEA (Bikario zaharraren etxea, Patrizioaundinea, Drogerikoa) 2 MANTXOLANEA (casa del vicario viejo, Patrizioaundinea, Drogerikoa)



Mantxolanea (Gure Gipuzkoa, GipuzkoaKultura).

[eu]

Jose Joaquin Mantxola abadeak egin zuen, zeina Legazpiko bikarioa izan baitzen 1818-1842 tartean. Ateburuan, harrian zizelkatua ikus daiteke eraikitze-urtea: 1830. 1853an, Mantxolak handiki bati saldu zion: Juan Francisco Arrizabalaga tolosarrari, zeina abokatua baitzen, eta urte horretan, Arrasateko Batzar Nagusietan, Gipuzkoako probintziako diruzain orokor izendatutakoa. (AGG PT 3246/479, 1365)

Salerosketaren agirian esaten denez, etxearen mugak honako hauek ziren: sortaldetik, kalea; hegoalde eta mendebaldetik, Domingo Guridi zegamarraren sailak; eta iparraldetik, kanposantu aldera doan estrata.

Etxe honetan 1832an, maizter moduan, Jose Francisco Arteaga eta Maria Joaquina Ursularre senar-emazteak bizi ziren, bata Zerainen jaioa, bestea Legorretan. 1838an Matias izeneko semea jaio zitzaien, gizon esanguratsua izango zena. Valladoliden obra-maisutza ikasi zuen eta 1864an Donostiara joan bizi izatera, non etxe-eraikitzaile gisa egin baitzuen lan berrogei urtez. Aurreneko etxea, Elkano kaleko 3, 5 eta 7 zenbakietakoa egin zuen. Ezkondu gabe hil zen, aberastuta, eta Arteaga Fundazioa sortu zuen, baserrietako mutilei prestakuntza emateko.

1843an, Manuel Mendizabal Beresiarte eta Ana Joaquina Liziaga Agirrebarrena bizi ziren beren zenbait alabarekin (Mª Martina, Micaela Antonia, Bautista Ignacia eta Francisca Ignacia). Eta gero Micaela Antonia pertsona esanguratsua izan zen, Ibarrategi etxearen atalean ikus daitekeenez.

Mª Martina (1820), Mª Juana (1822) eta Micaela Antonia (1824) Amezketan jaio ziren. Rita (1826-1834), Bautista Ignacia (1828) eta Francisca Ignacia (1831), Legazpin.

Gero, 1857an, bizilagunetako batzuk Agustin Iturbe Legorburu eta Micaela Ribero Ruiz dira, eta beren seme Saturnino jaio berria.

Iñaki Beldarrainen arabera, ('Patricio Echeverria Elorza. Su tiempo, su obra y trayectoria vital' liburua) Patrizio Etxeberria eta Teresa Agirre ezkondu zire-

[es]

Edificio que mandó construir José Joaquín Mantxola, que fue párroco de Legazpi en el periodo 1818-1842. Tal como se ve en el dintel de la puerta, se edificó en 1830. Y en 1853, Mantxola la vendió a un potentado, Juan Francisco Arrizabalaga, abogado y vecino de Tolosa, y en esas fechas tesorero de las Juntas Generales. (AGG PT 3246/479, 1365)

Según aparece en el documento de compraventa, los límites de la casa eran: por el este, la vía urbana; por el sur y el oeste, los terrenos del zegamarra Domingo de Guridi; y por el norte, el camino que conduce al cementerio.

En el siglo XIX pasó mucha gente por esta casa. En 1832, residía, a renta, la familia de José Francisco Arteaga y María Joaquina Ursularre, nacidos en Zerain y Legorreta, respectivamente. En 1838 les nació un hijo llamado Matías, que sería renombrado. Completó estudios de maestro de obra en Valladolid y en 1864 se instaló en San Sebastián, donde se dedicó a construir casas a lo largo de cuarenta años. Su primera casa fue la de los portales 3, 5 y 7 de la calle Elcano. Murió soltero y rico, tras fundar la Fundación Arteaga, destinada a preparar a los jóvenes en las tareas de los caseríos.

En 1843 vivían aquí Manuel Mendizabal Beresiarte y Ana Joaquina Liziaga Agirrebarrena con varias hijas (Mª Martina, Micaela Antonia, Bautista Ignacia y Francisca Ignacia). Micaela Antonia fue una persona relevante, como se puede ver en el apartado de la casa Ibarrategi.

Mª Martina (1820), Mª Juana (1822) y Micaela Antonia (1824) habían nacido en Amezketa; Rita (1826-1834), Bautista Ignacia (1828) y Francisca Ignacia (1831), en Legazpi.

Luego, en 1857, residían Agustín Iturbe Legorburu y Micaela Ribero Ruiz con su hijo de meses Saturnino.

Dice Iñaki Beldarrain en su libro 'Patricio Echeverria Elorza. Su tiempo, su obra y trayectoria vital') que cuando Patricio Etxeberria y Teresa Agirre se casaron, en 1906, primero residieron en esta casa. Eran jóve-

[eu] nean, 1906an, etxe honetan jarri ziren bizi izaten. Gazteak ziren, 24 eta 23 urtekoak. Hementxe jaio omen ziren lehenengo seme-alabak: Lorenza (1907), Jose (1909) eta Donato (1910). 1911n, Pio-enea esan izan zaion etxera aldatu ziren; izan ere, bertan biziko zen gero Patrizioren anaia Pio. Orduan, Pio-enea solairu bakarreko etxea zen, 1933an eman zitzaion bigarren solairua altxatzeko udal baimena. Eraikina hor dago orain ere, kamio bazterrean.

Patrizio Elorza hemen bizi zen 1910ean

Bestalde, 1910eko biztanleen zerrendan, Patricio Elorza Olaberria (Papelerako nagusia) ageri da, 46 urtekoa eta bigarren emaztearekin ezkonduta (Lorenza Mujika Olaberria zeraindarra) eta aurreko emaztearekin izandako bi seme-alabekin: Ignacio (hamahiru urtekoa) eta Placida (hamabikoa). Halaber, 1910ean, Jose Antonio Alustiza Egaña bizi da (teileriako langilea) eta emazte Francisca Agirre Telleria, hau berriz Ibarrola baserrikoa. Senar-emazteok drogeria zabaldu zuten gero etxe honetan bertan. Baita ere, apopilo moduan, bi abade gazte bizi ziren: Miguel Mujika Olano (Hondarribia, 27 urte) eta Francisco Elustondo Sagastune (Amezketa, 26 urte)

1920an, hortxe segitzen zuten Papelerako ugazabak eta emazte Lorenzak; eta beraiekin, lehengo ezkontzako seme Ignacio eta elkarrekin edukitako lehenengo bost umeak, horietan handiena Antonio, bederatzi urtekoa. Halaber, garai hartan hor jarraitzen zuten Alustiza-Agirretarrak, zazpi seme-alabarekin: Justina (hamasei urtekoa), Juan, Nicolas, Sebastian, Fausto, Damian eta Ines. Hurrengo hamarkadan 36ko gerra piztu zen eta Francoren kontra borrokatu senideok, bi hil egin zirelarik (Juan eta Damian) eta hiruk kartzelaldia nozitu (Nicolas, Fausto eta Sebastianek). Halaber, garai honetan Victor Elustondo Sagastume

nes, de 24 y 23 años, y aquí mismo nacieron los tres primeros hijos: Lorenza (1907), José (1909) y Donato (1910). En 1911 se trasladaron a la casa que luego llamarían Pio-enea o De Pío, porque allí vivió Pío, el hermano de Patricio. Entonces solo tenía una planta, y en 1933 consiguió el permiso municipal para levantar otro piso. El edificio ahí sigue, al borde de la carretera. [es]

Patricio Elorza vivía aquí en 1910

En el censo municipal de habitantes de 1910 aparece Patricio Elorza Olaberria (el dueño de la Papelera, entonces de 46 años) con su segunda esposa, Lorenza Mujika Olaberria (de 28), y los dos hijos tenidos con la primera mujer: Ignacio (de trece años) y Plácida (de doce); y también José Antonio Alustiza Egaña (empleado de la tejería) y su esposa Francisa Agirre Telleria (del caserío Ibarrola), quienes más tarde abrirían una droguería en los bajos de este mismo edificio. Además, residían dos sacerdotes: Miguel Mujika Olano (hondarribitarra de 27 años) y Francisco Elustondo Sagastume (amezketarra de 26)

El 1920, el empresario papelero y su esposa Lorenza seguían siendo vecinos de este inmueble y con ellos vivían el hijo Ignacio y las otras cinco criaturas nacidas para entonces de este segundo matrimonio, el mayor de ellos Antonio, de nueve años, que luego ostentaría la gerencia de la empresa. Asimismo, en 1920 seguían ahí los Alustiza-Agirre, con siete hijos: Justina (de 16 años), Juan, Nicolás, Sebastián, Fausto, Damián e Inés. En 1936 estalló la guerra y esta familia se alineó contra Franco, con dramáticas consecuencias; murieron Juan y Damián, y otros tres hermanos, Nicolás, Fausto y Sebastián, fueron encarcelados. Además, en estas fechas aparece alojado el capellán Víctor Elustondo Sagastume, nacido en Amezketa y entonces de 26 años, quien luego pasaría a vivir durante décadas en Ibarra-



Jose Antonio Alustiza (Ana Alustizak emana).



Francisca Agirre (Ana Alustizak emana).



Cesareo Iturbe (Mantxolaneko jabea) eta Maixepa Aranburu, Eguzkitza baserrian bizi izan ziren (Rakel Iturbek emana).

[eu] kapilaua bizi zen, Amezketan jaiotako abadea, artean 26 urtekoa eta gero, urte luzez, Ibarrategin biziko zena; hain zuzen, lehen aipatutako Francisco abadearen anaia gazteagoa.

1930ean, Cesareo Iturbe Mantxola (1878-1960) zen etxe osoaren jabea. Hala agertzen da urte horretan Luis Astiazaran arkitektoak Udalerako egindako mapa batean (Kale Berriaren proiektua zela eta). Gizon hau Egialdeko Eguzkitza baserrian bizi zen, errentero, eta Kale Zaharreko etxe hau egindako apaizaren tartekoa zen amaren aldetik.

Amilibia-Donnaytarrak ere bai

1934-1936 urte-bitartean, bigarren solairuan, Carlos Amilibia Martinez de Osaba eta emazte Hilaria Donnay Aboitiz bizitu ziren; aurretik, urte pare batean-edo Andresene ondoko Mantxolatarren etxean bizi izan ziren. 1932an CAF enpresan lagun asko izan ziren kantegi; se trataba del hermano menor de otro cura, Francisco, citado pocas líneas atrás. [es]

En 1930, el propietario de todo el edificio era Cesáreo Iturbe Mantxola (1878-1960). Así aparece en el mapa que el arquitecto Luis Astiazaran realizó para el Ayuntamiento, con motivo del proyecto de Calle Nueva. Este hombre vivía en el caserío Eguzkitza, a renta, y por parte materna era descendiente del sacerdote que hizo el edificio.

Familia numerosa Amilibia-Donnay

En el periodo 1934-1936, en el segundo piso, vivían Carlos Amilibia Martínez de Osaba y su esposa Hilaria Donnay Aboitiz, que anteriormente, durante un par de años, habían residido en la casa de los Mantxola de al lado de Andresenea. En 1932, en la CAF se produjeron numerosos despidos, sobre todo debido a motivos políticos, y uno los que perdieron el trabajo fue



Carlos Amilibia (Garbiñe Amilibiak emana).



Hilaria Donnay, Carlos Amilibiaren emaztea (Garbiñe Amilibiak emana).



Ciriaco Amilibia (Garbiñe Amilibiak emana).



Benito Iturbe, emazte Filomena Galarza eta seme Iñaki (Iñaki Iturbek emana).

[eu] poratuak, batik bat arrazoi politikoengatik, eta tartean Carlos Amilibia. Carlosekin batera, bi anaia etorri ziren Legazpira, Ciriaco eta Juan.

Ciriaco gudari joan zen 1936ko gerrakoan eta Urkiolako frontean zaurituta gertatu ostean, Santurtziko ospitalean hil zen, 1937ko maiatzean. Carlos ere Francoren kontra borrokatu zen, Loiola batailoiko sarjentu, Agirre lehendakariaren guardia pertsonalean. Hiru urte eman zituen preso, eta 1939-1940 aldera aske geratu, Patrizio Etxeberriak eskatuta, izan ere Forja Berria jarri zuen martxan, forjariak behar eta Carlos horretan trebe izan.

Ikustekoa izango zen etxe honen bigarren solairua 1934-36 epean, izan ere hamalau lagun bizi izan ziren, amilibiatarrak nahiz donnaytarrak. Gero, gerratik buelta, Carlos eta Hilaria Kale Nagusian bizi izan ziren, 'Aurrera' taberna gainean. Bost seme-alaba eduki zituzten: Carlos (1927), Edurne, Garbiñe (1930), Jon eta Endika (1936). Jon elbarria zen umetatik eta Endika USO sindikatuko buruetako bat izan zen.

[es] Carlos Amilibia. Otros dos hermanos también recalaron en Legazpi: Ciriaco y Juan.

Ciriaco se alistó como gudari en la guerra del 36, y tras caer herido en el frente de Urkiola, murió en el hospital de Santurtzi en mayo del 37. También Carlos peleó contra Franco, en el puesto de sargento del batallón Loyola, en la guardia personal del lehendakari Aguirre. Pasó tres años preso y regresó en 1939-40, tras quedar libre a petición de Patricio Etxeberria, dado que necesitaba forjadores con experiencia para la Nueva Forja que acababa de poner en marcha.

El segundo piso de esta casa llamaría la atención del vecindario en los años 34-36, dado que vivían catorce personas, tanto Amilibias como Donnays. Tras la guerra, Carlos e Hilaria vivieron en la Calle Nueva, en el edificio que luego albergaría el bar Aurrera. Tuvieron cinco hijos: Carlos (1927), Edurne, Garbiñe (1930), Jon y Endika (1936). Jon era minusválido físico de nacimiento y Endika fue líder en el sindicato USO.

[eu]

Jose Antonio Alustizaren drogeria

1936ko gerra aurretik, Jose Antonio Alustizak (Gasparren anaiak) drogeria ipini zuen etxe honetan. Alaba Justina egoten zen batik bat. Jose Antonio Ibarrolako Francisca Agirrerekin zegoen ezkonduta eta 1932an etxea egin zuen Kale Berrian, han ere drogeria zabaldu zuelarik, non Fausto semearen andreak jarduten baitzuen batik bat.

1950. urte aldera, aipatutako Cesareo Iturbe Mantxola (etxearen jabea) jarri zen hemen bizi izaten, bere emazte Mª Josefa (Maixepa) Aranbururekin. Ordu arte, esan bezala, Eguzkitza baserrian bizi izandakoak ziren, maizter. Cesareo, Jose Claudio Iturbe Mantxola eta Paula Mantxola Uzelairen semea zen, eta Eguzkitzan jaiotakoa; emaztea, berriz, Urtatzazargoa zen jaiotzez.

Cesareok eta Maixepak bi seme-alaba izan zituzten, Tomas eta Paula, eta bigarren hau oso gazterik hil zen, 17-18 urte zituela. Tomasi 'Tomas kojoa' esaten zioten, herrena baitzen poliomielitisaren ondorioz. 1991n hil zen

Beraz, etxean, 1950eko hamarkadan, goi-goiko solairuan, Cesareo eta Maixepa bizi izan ziren, lehenbizi seme Tomasekin, eta berau Juanita Madinarekin ezkondu zen ezkeroztik, laurak batera. Juanita Urtatzagarakoan jaioa zen eta 2014an hil zen. Alaba bat izan zuten, Rakel, gero etxe osoa heredatu zuena.

Tomasek herriko paper fabrikan egin zuen lan eta Eguzkitzan baratzea zeukan. Herrena izanagatik haraino bizikletan joaten zen. Bizikleta ona zeukan, kanbioduna.

Kalearen kontra, behe-beheko solairuan, errentan, Cesareo Iturbe etxeko nagusiaren arreba Bitoriana bizi izan zen 1930 eta 1940ko hamarkadetan. Bengoleako Marcos Aztiriarekin (1883) ezkonduta, hiru seme-alaba izan zituzten: Carmen, Ramon eta Isabel Aztiria Iturbe. Le-

[es]

Alustiza tenía droguería

Antes de la guerra del 36, José Antonio Alustiza (hermano de Gaspar) abrió una droguería en este edificio, en la que servía sobre todo su hija Justina. José Antonio estaba casado con Francisca Aguirre, del caserío Ibarrola, y en 1932 levantaron una casa nueva en la Calle Nueva, y allí abrieron otra droguería, en la que trabajaba sobre todo la mujer de uno de los hijos, Fausto.

Hacia el año 1950 se instaló en el piso superior el dueño del edificio, Cesáreo Iturbe Mantxola, con su esposa Mª Josefa (Maixepa) Aranburu. Cesáreo era hijo de José Claudio Iturbe Mantxola y de Paula Mantxola Uzelai, y nacido en Eguzkitza. Hasta entonces, tal como se ha mencionado antes, Cesáreo y Maixepa vivieron como renteros en ese caserío de Egialde. La esposa había nacido en Urtatzazar. Tuvieron dos hijos, Tomás y Paula, y esta última falleció a los 17-18 años. A Tomás le llamaban 'Tomas kojoa', pues cojeaba debido a la poliomielitis que sufrió en la infancia. Murió en 1991.

Así pues, en la década de 1950, en el piso superior vivieron Cesáreo y Maixepa, primero con su hijo Tomás y luego también con la mujer de éste, Juanita Madina, que era nacida en Urtatzagarakoa y falleció en 2004. Tomás y Juanita tuvieron una hija, Rakel, que luego heredaría todo el edificio.

Tomás trabajó en la Papelera y tenía huerta en Eguzkitza. Hasta allí subía en bicicleta, pese a su cojera. El vehículo era bueno, con cambios.

En el bajo, en el lado que da a la calle, vivía una hermana del dueño, Victoriana Iturbe, durante los años 30 y 40. Casada con Marcos Aztiria, del caserío Bengolea, tuvieron tres hijos: Carmen, Ramón e Isabel Aztiria Iturbe. Los dos primeros nacieron en Hondarribia, dado que Marcos trabajaba en la vía fé-

[eu] henengo biak Hondarribian jaio ziren, gurasoak han bizi baitziren; Marcos trenbidean ari baitzen lanean. Gizona hil zenean, Isabel amaren sabelean zen artean.

Bitoriana jaioterrira itzuli zen, etxe honetan aterpea hartu eta Papeleran lanean hasi. Hasieran familia beheko solairuan bizi izan zen, eta gero lehenengora pasa. Seme Ramon Urtatzolako Lorenza Aztiriarekin (1924-2001) ezkondu zen. Carmen eta Isabel ez ziren ezkondu eta etxe honetan bizi izan ziren, hil arte. Bata Papeleran aritu zen lanean, bulegoan, eta besteari, Isabeli, "la pantalonera" esaten zioten, jostuna baitzen, eta sonatua gainera.

Gaudencio Perez, Reinosatik etorria

Lehenengo solairuan, 1920ko hamarkada bukaeratik aurrera, Gaudencio Perez Barandallaren familia bizi izan zen. Reinosatik azaldu zen herrira Gaudencio, emazte Eustaquia Careagarekin, baina Sestaon bizitakoak ziren baita ere, eta han jaio zitzaizkien lehenbiziko bi semeak, Julian eta Pascual. Beste biak, Gaudencio eta Asun, Reinosan. Gaudencioren gurasoak Zaragozakoak ziren, Épila herrikoak; Eustaquia emaztea sestaotarra zen.

Julian Perez Careaga semea gerra hartan hil zen, 1936ko irailaren 20an, nazionalak Legazpiko herriaz jabetu eta hurrengo egunean. Udalak argitaratutako 'Legazpi 1936' liburuak dioenez, gertatu zen Oñatitik gora abiatu zela kamioi bat, eta barruan lagun batzuk Francoren aldekoei aurre egin nahi zietena. Baina Udanan zain zituzten nazionalak. Kamioi haren gidaria tiroz zauritu zuten, Paciano Ituarte, alegia. Julian Perez joan zen zauritua laguntzera, eta nazionalek zauritu, preso hartu eta bertan fusilatu zuten. Ez dago garbi Julian EAJko kidea zen edota miliziano ezkertiarra.

Nolanahi ere, frankistak herriaren jabe egitean, Gaudencio Perez Barandalla Falangeko buru bihurtu zen.

rrea. Al morir el marido, Victoriana estaba embarazada de la tercera hija, Isabel. [es]

Victoriana regresó a su pueblo, consiguió vivienda en esta casa y comenzó a trabajar en la Papelera. La familia vivió primero en la planta baja y luego pasó al primer piso. El hijo, Ramón, se casó con una hija de Urtatzola, Lorenza Aztiria (1924-2001). Las hijas, Carmen e Isabel, permanecieron solteras y residieron en esta casa hasta su fallecimiento. Carmen trabajó en la Papelera, y a Isabel, que era una modista con prestigio, le decían "la pantalonera".

Gaudencio Pérez llega de Reinosa

En el primer piso, a partir de fines de los años 20, vivió la familia de Gaudencio Pérez Barandalla, que había llegado de Reinosa con su esposa Eustaquia Careaga, tras vivir unos años en Sestao, donde nacieron sus dos primeros hijos, Julián y Pascual; los otros dos, Gaudencio y Asun, vinieron al mundo en Reinosa. Los padres de Gaudencio eran de Épila, pueblo de Zaragoza; y la esposa, Eustaquia, había nacido en Sestao.

El hijo Julián (Pérez Careaga) murió en la guerra, el 20 de septiembre de 1936, al día siguiente de que los franquistas tomaran el pueblo de Legazpi. Según el libro 'Legazpi 1936', publicado por el Ayuntamiento, desde Oñati llegó a Udana un camión con milicianos que querían hacer frente a los franquistas. Pero los nacionales les estaban esperando, abrieron fuego e hirieron al chófer, Paciano Ituarte. Julián Pérez fue a auxiliarle y también resultó herido. Los nacionales lo fusilaron allí mismo. Según la mencionada publicación, no está claro si el joven legazpiarra era miembro del PNV o miliciano de izquierdas.

De todas formas, al hacerse los franquistas con el control de Legazpi, Gaudencio Pérez Barandalla se con-



Ezkerrean, Ramon Aztiria Gernikan.
Besteak, Jose Gonzalez eta Sebastian Alustiza.



Tomas Iturbe eta Juanita Madinaren ezkontza (Rakel Iturbek emana).



Ramon Aztiria eta Lorenza Aztiriaren ezkontza. Ezkerrean Bitoriana Iturbe (Rakel Iturbek emana).

[eu] Patrizioren fabrikan egin zuen lan eta bazuen taberna txiki bat, Kupela, egungo Eroski eta hurrengo etxearen (Urzelaitarrena) bitartean. Gaudencio eta emaztearekin batera, batik bat bat alaba Asun eta suhi Victoriano Urmeneta egoten ziren han. 1963an itxi zen.

Seme Pascual Patrizioren fabrikan jardun zen, bulego batean; Navarreteko Ricarda Azofrarekin ezkondu zen. Seme Gaudencio, berriz, Mirasolgo alaba batekin

virtió en jefe local de la Falange. Trabajó en la fábrica de Patricio y tenía una taberna, Kupela, situada en la Calle Nueva, entre el Eroski actual y la casa de los Urzelai. Se cerró en 1963. Trabajaron allí Gaudencio y su mujer, y de entre los hijos, sobre todo Asun con su marido Victoriano Urmeneta. [es]

Otro hijo, Pascual, trabajó en las oficinas de Patricio y se casó con Ricarda Azofra, riojana del pueblo de Na-

[eu] ezkondu zen, Felisa Etxeberria Garmendiarekin, eta bera ere bulegari aritu zen, Papeleran. Eta alaba Asun, berriz, Victoriano Urmenetarekin ezkondu eta etxeko lanez gain Kupela tabernan ere jardun zen.

Gaudencio Perez Barandalla 1954-55ean hil zen, etxe honetan. Handik laster, 1956an, seme Gaudencio eta Felisa Etxeberria Mirasol etxera aldatu ziren (Felisaren jaiotetxera), 1949an jaiotako Jose Julian mutikoarekin.

Behe-behean, Tomas Urkizu eta Dominica Villarreal bizi izan ziren geroago. Gizonak 'Unidad' arratsaldeko egunkaria saldu ohi zuen. Bi seme (Jose Luis eta Angel) eta alaba bat (Mari Carmen) izan zituzten. Jose Luis taxista izan zen Legazpin. Eta beheko solairu horretan, kaletik sarrera zeukala, Elias Elorzak bizikleta-denda (alkilerra eta konponketak) eduki zuen 1941-42tik aurrera, eta geroago (1963an hasita) tailertxoa telebistak konpontzeko, horretan seme Carlos aritu zelarik. Honek Bilbon ikasi zuen ofizioa, eta geroago liburuen bitartez jakite maila handiagotu. Baina beste nonbaitetik atera zuen bizimodua: Aurrezki Kutxa Probintzialeko enplegatua izan zen.

Elias Elortzak arrasto sakona utzi zuen herrian. Oñatiko Auntzerreka baserrian jaioa eta herri hartako Carlota Maiztegirekin ezkondua (hau udaletxean jaioa zen, aguazilaren alaba izanik), Patrizioren fabrikan hasi zen, baina 1956-57an handik alde egin eta merkataritzatik hasi zen bizitzen. Baldomero Urmenetaren etxe azpian denda handia zabaldu zuen, non denetik saltzen baitzuen, adibidez bitxiak, arropak eta telebistak. Telebisten hasiera garaia zen hura eta Iberia eta General Electric markakoak saltzen zituen, baina Alberdik Phillips marka uztean hura ere bereganatu zuen Eliasek. Gainera, altzariak ere saltzen zituen Kale Nagusiko beste toki batean, Txairo arropa-denda egon zen tokiaren aldamenean. ❖

[es] varrete. Otro de los hijos, Gaudencio, trabajó en la Papelera, también como oficinista, y se casó con una hija de la casa Mirasol, Felisa Etxeberria Garmendia. La hija menor, Asun, tal como se ha dicho, se esposó con Victoriano Urmeneta, y trabajó en el bar Kupela.

Gaudencio Pérez Barandalla murió en 1954-55 en esta misma casa. Poco después, en 1956, el hijo Gaudencio y su esposa Felisa se mudaron a la casa de ésta, Mirasol, junto con el hijo José Julián, nacido en 1949.


En la planta baja, más tarde, vivieron Tomás Urkizu (que vendía el periódico de la tarde 'Unidad') y Dominica Villarreal, quienes tuvieron dos hijos (José Luis y Ángel) y una hija (Mari Carmen). José Luis ejerció de taxista en Legazpi. Y en esa misma planta baja, con entrada propia desde la calle, Elías Elorza tuvo un establecimiento de alquiler y reparación de bicicletas a partir de 1941-42; y allí mismo en 1963 puso un taller de arreglo de televisores, en el que trabajaba su hijo Carlos, que había aprendido ese oficio en Bilbao, perfeccionándolo luego mediante libros. De todas formas, se ganó la vida en otro ámbito, como empleado de la Caja de Ahorros Provincial.

Elías Elorza dejó huella profunda en Legazpi. Nacido en el caserío Auntzerreka de Oñati y casado con Carlota Maiztegi, que vino al mundo en la casa consistorial de ese pueblo, dado que era hija del aguacil, empezó a trabajar en la fábrica de Patricio, pero hacia 1956-57 dejó esa empresa para hacerse tendero. Abrió una tienda en los bajos de la casa de Baldomero Urmeneta en la que vendía de todo, desde joyas a ropa y televisores. Eran los comienzos de la televisión y comercializaba las marcas Iberia y General Electric. Y cuando Alberdi dejó de vender la marca Phillips, Elías también se hizo con ella. Además, vendía muebles en un establecimiento de la Calle Nueva, al lado de lo que luego sería la tienda de ropa Txairo. ❖



08 _ kalebarren

ERMENTARIAUNDI 3 ERMENTARIA MAYOR



Ermentariaundi eta txiki etxeak teilatupe batean zeuden eta oraingo etxea baino baxuagoa.



Ermentariaundi eta txiki izenez ezagutzen ziren etxeak XX. mendearen lehen erdian eraitsi ziren eta, haien lekuan, hiru solairuko etxea eraiki zen (F.I.O.).

[eu]

Kale zaharreko 19 eta 21. atariak dauden lekuan Ermentaria edo Ermentarikoa izeneko bi bizitzako baserri bat zegoen XX. mendearen hasieran, Ermentaria de la calle, Ermentaria de yuso eta Ermentaria de abajo izenez ere ezagutzen zena, Brinkola auzoan izen bereko beste baserri bat zegoelako. XVIII. mendetik aurrera, eliza aldeko bizitza Ermentaria mayor izenez azaltzen da agirietan eta Mantxola aldekoa, berriz, Ermentaria menor izenez.

Mantxolanea eta etxe honen bitartean estrada bat zegoen, Laubide eta kanposantu aldera zihoan bide nagusiarekin bat egiten zuena..

Gaur egun ere, bi eraikin ditugu, bata bestearen kontra.

1932an guztiz aldatu zen egitura eta itxura, egin berria zen Kale Berri aldera fatxada eraiki zelako. Eta kale honetan ere bi atari, bi sarrera egin ziren; parroki elizatik gertuen dagoenean telleriatarrak jarri ziren bizi izaten; eta bestean, 1950eko hamarkadatik aurrera, idigorastarrak.

Ermentariaundiko nagusia, 1832an, Julian Telleria zen. Hogeigarren mende hasieran, berriz, jabeak Antonio Telleria Igarzabal (1879) eta emazte Josefa Igarzabal Zabaleta genituen, biak ala biak Mutiloan jaioak. Ezin izan dugu egiaztatu Julian haren ondorengoak diren. 1910ean, etxe honetan bizi ziren Antonio eta Josefa bi seme-alabarekin: Claudia (bost urtekoa) eta Nicolas (urte batekoa).

Bebarruan, ikuilua

1950eko hamarkadan, artean ikuilua zegoen beheko solairuan, eta bi behi, telleriatarrek gobernatzen zituztenak. Gainean, Antonio eta Josefaren bi seme gazte bizi ziren, Patxi eta Bixente Telleria. Claudia, Idiazabalera ezkonduta zegoen, eta beste bi seme-alaba, Nicolas eta Crucita, gazterik hilda zeuden. Nicolas, 18

[es]

El solar de los portales 19 y 21 de la calle vieja estaba ocupado a principios del siglo XX por el caserío Ermentaria o Ermentarikoa de dos viviendas, conocido igualmente como Ermentaria de la calle, Ermentaria de yuso y Ermentaria de abajo, para diferenciarse de su homónimo en Brinkola. A partir del siglo XVIII la vivienda que daba hacia la iglesia empezó a llamarse Ermentaria mayor y la que daba hacia Mantxola, Ermentaria menor.

Entre este edificio y la casa anterior, Mantxolanea, existía un camino que más adelante enlazaba con la vía principal que conducía hacia Laubide y el cementerio.

Hoy en día persiste la estructura de dos edificios adosados, cada uno con su entrada.

En 1932 la fisonomía cambió totalmente, pues se hizo una fachada nueva que daba a la recién conformada Kale Nagusia. Al igual que en la Calle Vieja había dos portales, en la Calle Nueva se hicieron dos entradas, que perviven hoy en día. En el primer portal, el más cercano a la iglesia, se pusieron a vivir los Telleria; en el siguiente, a partir de los 50, los Idigoras.

Empezando por Ermentaria Mayor, digamos que en 1832 aparece como propietario Julián Telleria. A comienzos del siglo XX, los propietarios son Antonio Telleria Igarzabal (Mutiloa, 1879) y su esposa Josefa Igarzabal Zabaleta, también nacida en Mutiloa. No hemos podido comprobar si son descendientes de aquel Julián. En 1910, vivían aquí los Antonio y Josefa con dos hijos, Claudia (5 años) y Nicolás (1 año).

Cuadra con vacas

Todavía en los años 50, en la planta baja había una cuadra con dos vacas, a cargo de los Telleria. En la casa residían dos hijos menores de Antonio y Josefa: Patxi y Bixente. Claudia ya se había casado a Idiazabal



Satur Kerejeta eta Patxi Telleria
(Conchi Kerejetak emana).



Goian, Iñaki Azpeitia, Garbiñe Azpeitia, Rosario Villarreal, Mari Cruz Azpeitia, Juanita Azpeitia, Justi Azpeitia, Milagros Azpeitia, Ernesto Arrizabalaga.
Behean, Iñaki Ibarreta, Maribel Ibarreta, Lorenzo Azpeitia, Jose Angel Arrizabalaga, Maria Areizaga
(Milagros Azpeitiak emana).

[eu] urte zituela hil zen, 1927an, eta Bide Zaharrean (Camino Real), Atagoititik gertu, hantxe dago oroitarria.

Patxik Patrizioren fabrikan jardun zuen eta Goitegi baserriko Saturnina Kerejetarekin ezkondu. Bixente ere ezkondu zen, baina adinean aurrera zihoala, Villabonako emakume batekin. Ez batak ez besteak izan zuten seme-alabarik.

Eraikin honetan, Iñaki Alustizaren familia bizi izan zen 36ko gerra ostean. Gurasoak Nicolas eta Francisca ziren. Iñakik ezbehar latza izan zuen 80ko hamarkada hasieran: aurrezki kutxa bateko Legazpiko sukurtsaleko zuzendaria zen eta ETAko kide batzuek preso

y otros dos hijos, Nicolás y Crucita, habían fallecido jóvenes. Nicolás falleció a los 18 años, en 1927, en el Camino Real cerca de Atagoiti, y todavía se puede ver un monolito en su memoria. [es]

Patxi, que trabajó el la fábrica de Patricio, se casó con una hija del caserío Goitegi, Saturnina Kerejeta. Bixente, ya añoso, lo hizo con una mujer de Villabona. Ninguna de las dos parejas tuvo descendencia.

En el último piso de este lado izquierdo del edificio, tras la guerra del 36, vivió la familia de Iñaki Alustiza, hijo de Nicolás y Francisca. Este hombre, a comienzos

[eu] eduki zuten etxean, lehergailua itsatsita bularrari, dirua lapurtu ahal izateko.

Gero, 80. hamarkada hasiera aldera, ikastolako bi irakaslek, Xabier Aierbek eta Jose Mari Auzmendik, bizitza bana erosi zioten Bixente Telleriari, eta bertan jarri.

Beheko solairuan, ikuilua egondako tokian, Superlimpieza Laga jarri zen 1962an. Hiru kidek sortu zuten: Bittor Gabiriak (Makatzaga baserrikoa), Jose Luis Maiztegik eta Javier Lasak. Hasieran, enpresak beste izen bat eduki zuen, Maiztegirena, izan ere gizon oso ezaguna baitzen, Real Sociedadean jardundako futbolaria izan zen eta. Gero desadostasunak egon ziren bazkideen artean eta Gabiriak bakarrik jarraitu zuen.

1932an, Kale Berria egindakoan, bai Ermentariaundik bai Ermentaritxikik etxebizitza berria egin zuten atzeko alde horretan. Atea Kale Berritik zegoen eta dago, eta beheko solairuaz gain bi solairu. Lehenbiziko urteetan, beheko solairuan Toki Alai tabernako almazena egon zen; lehenbiziko solairuan, Lorenzo Azpeitia eta emazte Maria Areizaga bizi izan ziren, bata gabiriarra bestea urretxuarra. Lorenzo, Patrizioren fabrikan lan egiteko etorria zen, eta lehenbizi Etxe-Alain bizi izan ziren senar-emazteok. Bigarrengo solairuan, berriz, Tomas Urkizu eta Dominica Villarreal (besteak beste, Jose Luis Urkizu taxilariaren gurasoak eta lehenago aldameneko Mantxolanean bizitutakoak). ❖

[es] de los años 80, sufriría una experiencia dramática: era director de la sucursal en Legazpi de una caja de ahorros, y ETA lo secuestró en su domicilio para luego robar el dinero en la sucursal. Además, lo retuvo con un artefacto explosivo atado a su pecho.

A comienzos de los años 80, dos profesores de la ikastola local, Xabier Aierbe y José Mari Auzmendi, compraron sendos pisos de este edificio a Bixente Telleria y se instalaron.

En la planta baja del edificio de la Calle Vieja, la misma que acogió la cuadra, en 1962 se puso en marcha Superlimpieza Laga. El negocio tenía tres socios: Víctor Gabiria (hijo del caserío Makatzaga), José Luis Maiztegi y Javier Lasa. En un comienzo, el establecimiento de limpieza de tejidos llevó el nombre de Maiztegi, que recientemente había comenzado en el primer equipo de la Real Sociedad de fútbol y era conocido. Al poco tiempo hubo desavenencias y solamente siguió en el negocio Gabiria.

En 1932, al hacerse la Calle Nueva, tanto Ermentaria Mayor como Ermentaria Menor hicieron sendas viviendas en la parte trasera, con acceso desde la nueva vía urbana y que constaban de bajo y dos alturas. En una primera etapa, el bajo fue ocupado por el bar Toki Alai como almacén. En el piso primero vivieron Lorenzo Azpeitia, de Gabiria, y su esposa María Areizaga, de Urretxu. Lorenzo había llegado para trabajar en la fábrica de Patricio y primeramente el matrimonio se instaló en Etxe-Alai.

En el segundo piso vivieron Tomás Urkizu y su esposa Dominica Villarreal, padres de, entre otros, el taxista José Luis Urkizu. La familia había vivido antes en la cercana casa de Mantxolanea. ❖



08 _ kalebarren

ERMENTARITXIKI (Arttonea, Kojunea) 4 ERMENTERI MENOR (Arttonea, Kojunea)



Ermentaritxiki etxearen atzeko aldea (1931) (Lucio Vergara).

[eu] 1832an, jabea Julian de Telleria zen eta gizon honek bereak zituen Motxorro eta Brinkolako Eguzkitzagoikoa ere. Uste dugu Ermentariaundiko jabea eta berau pertsona bera zirela. Ez dakigu legazpiarra zen. Hemeretzigarren mendearen lehen erdian, Jose Andres Etxeberria (nekazaria) eta Mª Paula Telleria Guridi senar-emazteak bizi ziren bertan; eta mende horren bukaera aldera, haien seme Jose Antonio Etxeberria Telleria (1836-1896), ogibidez arotza eta ondorengorik gabe hildakoa.

1910eko udal-erroldaren arabera, familia berri bat bizi zen hemen: Angel Expósito Villarreal 'Arttoa' (Urretxu, 39 urte, teileriako langilea) eta emazte Martina Rezusta Apaolaza (Gabiria, 45 urte). 1896. urtean ezkondu ziren.

Sua sukaldearen erdian zeukan etxe honek. Alegia, berandutxo arte ez zuen tximiniarik izan.

1930ean, berriz, jabea Jose (Miguel) Idigoras Enparantza zen. Hala adierazten du Luis Astiazaran arkitektoak Udalarentzat egindako planoak, Kale Berrirako proiektua zela-eta. Idigorastar hau Zerainen jaioa zen eta gaztetan Brinkolako iraulika-fabrikan lan egindakoa, Gracian Alberdirenean. Brinkolako Garrotxikin bizi zen, Bonifacia Agirrerekin ezkonduta, hau berriz etxeko alaba, eta bi seme-alaba eduki zituzten: Patricio eta Juliana. Aurrena maizter moduan bizi izan ziren eta gero baserria erosi Donostian bizi ziren arrizabalagatar batzuei.

Ermentaritxiki Patricio Idigoras Agirrek (Garrotxiki, 1910-1970) heredatu zuen. Emaztea Maria Ormazabal (1918) zuen, Telleriarteko Astaola (Astaburuaga) baserrikoa. Hantxe bizi izan ziren, Garrotxikin, harik eta 1950eko hamarkadan kanpoko pareta bat pitzatu eta beldurtu ziren arte.

Idigoras-ormazabaldarrok 1957-58an sartu ziren Ermentaritxikin, Kale Berriko aldean. Seme-alabok eduki zituzten: Mari Jose, Gemma, Jesus Mari (gazterik hila), Arantxa, Rufino (urte bat zeukala hila) eta Jose Anto-

[es] En 1832, el propietario era Julián de Telleria, pensamos que la misma persona que poseía Ermentaria Mayor. Está claro que era dueño también las caserías de Motxorro y Eguzkitzagoikoa en Brinkola. Desconocemos si era legazpiarra. En la primera mitad del siglo XIX vivió el matrimonio compuesto por José Andrés Etxeberria Agirre (labrador) y Mª Paula Telleria Guridi. A finales de ese siglo residía el hijo, José Antonio Etxeberria Telleria (1836-1896), de oficio carpintero, quien murió sin descendencia.

El censo de 1910 muestra que la casa está ocupada por una nueva familia, la de Ángel Expósito Villarreal 'Arttoa' (Urretxu, 39 años, operario de la tejería) y su esposa Martina Rezusta Apaolaza (Gabiria, 45 años), que se habían casado en 1896.

Este edificio tenía el fuego en la mitad de la cocina y careció de chimenea hasta bastante tarde.

En 1930, el dueño era José (Miguel) Idigoras, según aparece en un mapa elaborado por el arquitecto Luis Astiazaran, destinado al Ayuntamiento, y con motivo del proyecto de Calle Nueva, que pronto sería realidad. Idigoras, de segundo apellido Enparantza, era nacido en Zerain y en su juventud trabajó en la fábrica de cemento hidráulico de Gracián Alberdi, en Brinkola. Vivía en el caserío Garrotxiki de Brinkola, casado con Bonifacia Agirre, hija de la casa; tuvieron dos hijos, Patricio y Juliana. Primeramentea, la familia estaba como inquilina en Garrotxiki, y la propiedad era de una familia residente en San Sebastián, los Arrizabalaga; luego los Idigoras compraron el caserío.

Esta casa Ermentaria Menor fue heredada por Patricio Idigoras Agirre (Garrotxiki, 1910-1970). Casado con María Ormazabal (1918), del caserío Astaola (Astaburuaga), vivieron en Garrotxiki, hasta que en los años 50 una pared de este caserío se resquebrajó y amenazaba ruina.

Los Idigoras-Ormazabal llegaron a Ermentaria Menor en 1957-58. Habitaron la zona de la Calle Nueva. Tu-



Maria Ormazabal eta Patricio Idigoras (Josean Idigorasek emana).



Bautista Salinas eta Eulalia Zabaleta (Begoña Diaz de Cerio Salinasek emana).



Vicente Agirre eta Justina Alustiza urrezko ezteietan (Agirre ahizpek emana).

[eu] nio. Azkeneko hau udaletxean jaio zen, gurasoek presaka Garrotxikitik alde egin eta gero.

Agirretar ahizpen denda

Kale Zaharreko aldean, 1940eko hamarkadan, eta 1950eko zati batean, hiru familia bizi ziren, errenta Patricio Idigorasi ordaintzen ziotelarik: lehenbiziko solairuan, Bautista Salinas bergararra eta emazte Eulalia Zabaleta gabiriarra, Jauregi etxekoa (hiru seme-alaba eduki zituzten, Mª Pilar, Juanito, kirol munduan asko nabarmendutakoa, eta Begoña); bigarrengoan, Antonio Soraluzeren familia, hau berriz Azkoititik etorria eta Papeleran ari zena; eta hirugarrengoan, Vicente Agirre Zabaleta urretxuarra (1988an hila 84 urte zituela) eta emazte Justina Alustiza Agirre legazpiarra (1998an hila 93 urterekin). Hiru alaba zituzten: Edurne (1932), Arantxa (1934) eta Mª Ines (1941). Familia hau oso ezaguna zen herrian, denda baitzeukaten Oiarbidenean.

[es] vieron estos hijos: Mari Jose, Gemma, Jesús Mari (fallecido joven), Arantxa, Rufino (muerto cuando tenía un año) y José Antonio. Este último nació en la casa consistorial en 1957, con sus padres instalados allí tras abandonar a toda prisa Garrotxiki.

Tienda de las hermanas Agirre

En la parte de la Calle Vieja, en los 40 y parte de los 50, vivían tres familias, que pagaban la renta a Patricio Idigoras. En el primer piso, Bautista Salinas, nacido en Bergara, con su esposa Eulalia Zabaleta, nacida en Gabiria, donde tuvieron tres hijos, Mª Pilar, Juanito, que destacó por su implicación en las actividades deportivas, y Begoña. En el segundo, la familia de Antonio Soraluze, llegado de Azkoitia y que trabajaba en la Papelera. Y en el tercero, el matrimonio compuesto por Vicente Agirre Zabaleta, de Urretxu, fallecido en 1988 a los 84 años, y Justina Alustiza Agirre, de Legazpi, que



Edurne, Arantxa eta Maria Ines Agirre ahizpak, beren dendan (Agirre ahizpek emana).

[eu] Oiarbideneko denda hartan, batez ere jatekoak saltzen zituzten, baina baita ere garbiketarako generoa eta drogeriakoa. Hasieran, 1940ko hamarkadako lehen urteetan, Vicentek zerra txiki bat jarri zuen, non egurra mozten baitzuen etxeetako sukaldeetarako. Gero pentsu-saltzen hasi zen, animaliendako. Urretxu-Zumarragatik inguratzen zuen pentsua, Usandizagak eta Dorronsorok ekarrita beren zaldi-karroekin. Iluntzean zabaltzen zuen denda, Papelerako lana bukatu eta gero. 1940ko hamarkada bukaera aldera zabaldu zuen janaridenda, eta gero alabak arduratu ziren. Oiarbidenea bota eta bertan egindako etxe berrian ere (1970eko hamarkadan) segitu zuten dendarekin.

Kale Zaharreko atari hau eta Txoko Zar elkartea egon zen etxearen bitartean, pasabide estu horretan, Gaudencio Perez Barandallak ardo-almazena eduki zuen. Ardo hori, 'Kupela' izena zeukan bere tabernarako zen, zeina Kale Berrian baitzegoen, Santa Cruz kooperatiba (gero Eroski) eta Rafael Urzelairen zapatadenda artean. ❖

[es] murió en 1998 a los 93. Tenían tres hijas: Edurne (1932), Arantxa (1934) y Mª Inés (1941). Se harían conocidas por regentar una tienda de alimentación en la casa Oiarbidenea.

En aquella tienda de la casa Oiarbidenea se vendía sobre todo género de alimentación, pero también de limpieza y de droguería. Al comienzo (primeros años 40), Vicente instaló una pequeña sierra para partir leña para las cocinas de las casas. Luego empezó a vender piensos para animales. Le surtían desde Urretxu-Zumarraga, tanto Usandizaga como Dorronsoro, quienes realizaban el transporte de los grandes sacos en carros tirados por caballos. Vicente abría el local al atardecer, tras su jornada laboral en la Papelera. A fines de los 40 comenzó la tienda de ultramarinos, con las hijas llevando el día a día del negocio, que también perduró en la casa nueva que se hizo en los 70, tras demoler Oiarbidenea.

Entre este portal y el edificio que luego albergaría la sociedad Txoko Zar, Gaudencio Pérez Barandalla tuvo un almacén de vinos, que luego eran transportados a su bar 'Kupela', situado entre la Cooperativa Santa Cruz (luego Eroski) y la zapatería de Rafael Urzelai. ❖



08 _ kalebarren

ZULOKOA (Monikanea, Ormaxarreta, Txoko Zarreko etxea)

5

ZULOKOA (Monikanea, Ormaxarreta, casa del Txoko Zar)



Zulokoa 1978an. Legazpiko batzokiaren hirugarren kokagunea izan zen. Lehenengoa, frontoi atzeko etxean; bigarrena, Irubideko etxean (Arantxa Berasategik emana).

[eu]

Hogeigarren mende bukaera aldera eraitsi zuten. Azkenaldian, nagusia Jose Aztiria izan zen, Bengolea baserrikoa eta bertako zerrategiko jabea. 1930ean, berriz, etxe-nagusia Antonio Aztiria zen, Joseren aita. Aztiriatarrak ez ziren hemen bizi, baizik eta Bengolean, eta gero Urretxun. Enpresaren zorrak zirela eta, Legazpiko etxe hau saldu egin zuten eta gero etxe berria egin zen bertan.

1832an, udaletxeko agirietan, 'Casita de Aztiria' deiturarekin agertzen da, eta orduko jabea Jose Agustin de Aztiria zen, Urtatzagarakoa, Bengoleako aztiriatar haien aitona eta birraitona. Eta orduko maizterra, Miguel de Andueza. 1843an, 'Zulocoa' edo 'Zulacoa' esaten zioten, eta Josefa Murgiondo bizi zen bertan.

1894ko udal erroldak azaltzen digunez, Nazabal-Etxeberria familia bizi zen bertan. Pedro Nazabal Tolosaren (1848) gurasoak Gaintzatik etorriak ziren Legazpira, XIX. mende erdialdera, eta lehenbizi Ormazarreta baserrian jarri ziren bizi izaten. Paraje bakarti batean zegoen baserri hori, Kusturrutzutik gora Lakiolaetxeberri aldera. 1894ko erroldaren arabera, Pedro hura Joaquina Etxeberria Telleriarekin (1852) dago ezkonduta eta nekazaria dugu, lau seme-alaba dituztelarik: Jose Mari (1875), Isabel (1878), Martina (1881) eta Antonia Narcisa (1885).

Geroago, Pedro Nazabal historiara pasako da Patrizio Etxeberriaren lehenbiziko laguntzailea, lehenbiziko langilea, izateagatik. Badirudi 1904rako ere ari zela lanean Patrizioren aldamenean, honek Kale Zaharrean (Oiarbidene ondoan) zeukan sutegian. Famatua zen bere indarragatik eta lortu zuelako (nagusiari hala eskatuta) soldata urrezko txanponetan kobratzea; hala publikatu zuen Angel Cruz Jaka historialariak.

Adinean oso aurrera zihoala, Pedro Nazabal Ziordiara joan zen bizi izatera, alabaren etxera. Gizon honen anaia bat etxe honetako balkoitik erorita hil zen, prozesioa ikusten ari zela. Lehenbiziko pisuko balkoia zen, ez zegoen oso altu, baina hala ere hil.

[es]

Se demolió a finales del siglo XX. En la última etapa su dueño fue José Aztiria, del caserío Bengolea, empresario maderero. En 1930, pertenecía al padre, Antonio, que se dedicó también al sector de la madera. Eran propietarios, pero no vivían en esta casa, sino en Bengolea y luego en Urretxu. Los Aztiria vendieron este inmueble para hacer frente a unas deudas de su empresa maderera, y poco después la casa fue derribada para hacer otra nueva en el lugar.

En 1832, en los documentos del Ayuntamiento aparece con el nombre de 'Casita de Aztiria', y su dueño era José Agustín de Aztiria, del caserío Urtatzagarakoa, y antepasado de los citados Aztirias de Bengolea. El inquilino era Miguel de Andueza. En 1843 se le denomina 'Zulocoa' y 'Zulacoa'; y la inquilina era Josefa de Murguiondo.

En 1894, según el padrón municipal, vivía la familia Nazabal-Etxeberria. Los padres de Pedro Nazabal Tolosa (1848) habían llegado a Legazpi desde Gaintza a mediados del siglo XIX y se instalaron en el caserio Ormazarreta, situado en lugar apartado, entre Lakiolaetxeberri y Kusturrutzu. Pedro aparece ese año como casado con Joaquina Etxeberria Telleria (1852) y de profesión agricultor. Tuvieron cuatro hijos: José Mari (1875), Isabel (1878), Martina (1881) y Antonia Narcisa (1885).

Luego, Pedro Nazabal Tolosa pasaría a la historia por ser el primer obrero, el primer ayudante de Patricio Etxeberria. Se calcula que para 1904 ya era operario de esa herrería, situada en un pequeño edificio anexo a la casa Oiarbidenea de la Calle Vieja. Era famoso por su fortaleza física y porque pidió a Patricio, y lo consiguió, recibir su salario en monedas de oro, detalle recogido por el historiador Angel Cruz Jaka.

Más tarde, ya muy entrado en años, Pedro Nazabal vivió en Ziordia en casa de una hija. Un hermano suyo, al presenciar una procesión, se cayó del balcón del primer piso de esta casa, y pese a que no era un balcón muy alto, acabó muerto.

[eu]

Martina Zalduaren gurasoen jatetxea

Etxe honetan jatetxea egon zen 1920ko hamarkadatik aurrera. Zumarragako Iburreta baserriko Antonio Zaldua eta eta emazte Juana Zufiaurrek zabaldu zuten. Bizi ere bertan bizi izan ziren, jatetxe gainean. Alabetako bat Martina zen, gero aldameneko Txokoko etxea eraikiko zuena, oso emakume esanguratsua Legazpiko ostalaritzaren historian. Hemengo taberna-jatetxeari Choco ipini zioten izena. Batik bat fabriketako langileei otorduak emateko zegoen pentsatua.

Martinarekin batera senide batzuk etorri ziren. Haietako bat, Vicente, gero lasalletar egin zena eta Irun eta Mauleko ikastetxeetan jardun zuena irakasle. Eta Vicentez gain, Ignacio, Blas, Consuelo eta bi anaia Ameriketara joan zirenak. Consuelok, gero, 'Korosti' taberna eduki zuen, 'serenaren aldapan'.

1940 eta 1950eko hamarkadetan, Txoko Zar elkartea sortu aurretik, eraikin honen beheko solairuan lau tokitxo zeuden, horietako bi (Kale Zaharraren kontra) zapatakonpontzaile batzuek hartuak; batean Iñaki Aseginolaza aritzen zen, bestean Ignacio Intxausti. Bigarren hau Gabirian jaioa zen, baina oso txikitatik bizi izandakoa etxe honetantxe. Hirugarren lokaltxo batean bertako beste bizilagun batek zeukan tailertxoa, Benito Iturbek, eta Patrizioren fabrikarako lantxoak egiten zituen.

Beheko solairuan sortu zen Txoko Zar elkartea, bertan ziren lau lokal haietatik hiru hartuta.

Urtatzolatik iturbetarrak jaitsi

Lehenbiziko solairuan Iturbetarrak bizi ziren: Juan Jose Iturbe eta emazte Monica Iturbe. 1936 aldera azaldu ziren etxe honetara, Urtatzola baserria utzita. Izan ere, or-

[es]

Restaurante de los padres de Martina Zaldua

En la década de 1920, llegaron a esta casa los padres de Martina Zaldua Zufiaurre (Antonio y Juana), procedentes del caserío Iburreta de Zumarraga. Regentaron un bar-restaurante en la planta baja, y vivieron en uno de los pisos de encima. Martina fue luego una persona importante en el pueblo, pues cerca de allí hizo la llamada 'casa del Choco".

En las décadas de 1940 y 1950, antes de que existiera aquí la sociedad recreativa Txoko Zar, en la planta baja del edificio había cuatro pequeños locales: dos de ellos, que daban hacia la Calle Vieja, ocupados por sendos zapateros, Iñaki Aseginolaza e Ignacio Intxausti. Este último era nacido en Gabiria, pero con pocos años llegó a esta casa.

La sociedad Txoko Zar nació en 1957, en la planta baja. Ocupó tres de los cuatro locales que existían ahí.

Los Iturbe dejan Urtatzola

En la planta primera vivía la familia Iturbe. Juan José Iturbe y su esposa Mónica Iturbe se instalaron allí hacia 1936, tras dejar el caserío Urtatzola, que entonces sería ocupado por sus dueños, la familia de Juan Aztiria, quien hasta entonces había vivido en el casco urbano. Juan José Iturbe, que murió en ese año de 1936, y Mónica tenían dos hijos: Benito (1892-1967) y Fidel (1890-1957), este último soltero. Ambos siguieron viviendo en esta casa, Benito casado con Filomena Galarza Uriarte, de Aramaio. Tuvieron un hijo, Iñaki (1942).

[eu] duan nagusiak, aztiriatarrak, jarri ziren han bizi izaten; Juan Aztiria, ordurarte, Kale Zaharrean bizi izana zen. Juan Jose Iturbek oso denbora gutxi egin zuen etxe honetan, 1936an hil baitzen. Monica alargunak bere bi semeekin jarraitu zuen etxe honetantxe: Benito (1892-1967) eta Fidel (1890-1957), azkeneko hau ezkongabea. Benito eta emazte Filomena Galarza Uriartek (Aramaion jaioa) seme bat eduki zuten: Iñaki (1942).

Fidel Iturbek, lehenbizi, Pedro Seguraren teilerian egin zuen lan, eta gero Patrizionean. Benito Iturbek, berriz, Patrizioneko Atxurtegian. Aldakako desgaste handiarekin bukatu zuen eta bi makulurekin ibiltzen zen azkenerako, etxetik irten ezinda. 1967an hil zen Benito, eta hurrengo urtean seme Iñaki ezkondu egin zen. Orduan Iturbetarrek betiko utzi zuten etxea.

Gero, Franco diktadorea hil berritan, 1970eko hamarkadan, Eusko Alderdi Jeltzaleak pisu honetantxe eduki zuen egoitza.

Pedro Intxausti, Gabiriatik etorria

Bigarren solairuan Intxausti-Muruatarrak bizi izan ziren. Pedro Intxaustik Patrizionean egin zuen lan. Gabiriako Igeribarazpikoan jaioa zen eta hango Izarraundi baserriko Ana Muruarekin ezkondu. Aurrena Gabirian bertan bizi izan ziren eta hantxe jaio lehenbiziko seme-alabak. 1930eko hamarkadan etxe honetara aldatu ziren eta bi seme, Periko eta Ignazio, Legazpiko herrian bizi izan ziren gero ere, eta Ignazio etxe honetantxe gainera.

Ignazio, Bikuñaneko Illagorrikoa baserriko Isabel Galarzarekin ezkondu zen eta Papeleran jardun. Esanda bezala, etxepean zapatak konpontzeko tailertxoa ere bazeukan. Beste ofizio hau soldaduskan ikasi omen zuen. Ezkonberrietan Aiztonaga aldeko mataderia berrian bizi izan omen ziren eta gero etxe honetantxe, Ignazioren gurasoekin batera. Aurretik, Pedro eta Anak apopiloak eduki zituzten, familia aurrera atera ahai izateko. Ig-

Fidel Iturbe trabajó primero en la tejería de Segura y más tarde en Bellota. Benito Iturbe trabajó en la sección de Azadas de la fábrica de Patricio. Acabó con un gran desgaste de cadera que le condenó a andar con dos bastones, sin poder casi salir de casa. Murió en 1967 y al año siguiente se casó su hijo Iñaki. Entonces los Iturbe dejaron de habitar la vivienda. [es]

Luego, en los años 70, tras la muerte del dictador Franco, en este primer piso tuvo su sede el Partido Nacionalista Vasco.

Pedro Intxausti llega desde Gabiria

En la segunda planta vivieron los Intxausti-Murua. Pedro Intxausti, que fue empleado de la fábrica de Patricio, era nacido en el caserío Igeribarazpikoa, de Gabiria, y se casó con Ana Murua, del caserío Izarraundi del mismo pueblo. Vivieron primeramente en Gabiria y allí nacieron sus primeros hijos. En la década de 1930 se instalaron en esta casa. Dos de los hijos, Periko e Ignacio, siguieron viviendo en Legazpi tras casarse, el segundo de ellos en esta misma casa.

Ignacio se casó con Isabel Galarza, del caserío Illagorrikoa de Bikuñanea, y trabajó en la Papelera, si bien en un bajo de esta casa tuvo también un pequeño taller de arreglo de calzado, oficio que aprendió cuando realizaba el servicio militar. Primero vivieron en la casa del matadero nuevo en Aiztonaga, y luego en esta casa que nos ocupa, junto a los padres del marido, que en los años anteriores habían tenido pupilos, con el fin de conseguir unos ingresos extra. Ignacio e Isabel tuvieron un hijo, Pedro Mari, y una hija, Anabel. El hijo, de sobrenombre 'Arrantzale', era camionero y falleció trágicamente en 1996, atropellado al salir de la cabina. Entonces, Ignacio, pese a que era presidente del Hogar del Jubilado, decidió trasladarse junto con la esposa a Lasarte-Oria, donde residía la hija Anabel.



Pedro Intxausti eta Ana Muria, Zulokoa etxe aurrean (Anabel Intxaustik emana).



Zulokoa etxe ondoan, Ignacio Intxausti eta emazte Isabel Galarza (Anabel Intxaustik emana).



Tomás Lonbide eta Periko Intxausti (Angel Lonbidek emana).



Luis Alustiza eta Carmen Agirre.

[eu] nazio eta Isabelek seme bat eduki zuten, Pedro Mari, eta alaba bat, Anabel. Seme horri 'Arrantzale' esaten zioten herrian, garraiolari zebilen eta, 1996an, berrogeitaka urte zituela, ezbeharrez hil zen: kamioitik atera eta orduan beste ibilgailu batek harrapatu. Orduan Ignaziok, jubilatuen elkarteko buru bazebilen ere, Lasarte-Oriara alde egitea erabaki zuen, alaba Anabelen ondora.

Periko Intxausti, berriz, Patrizionean ibili zen tornero. Florita Laskurain bergararrarekin ezkondu eta San Jose auzoan bizi izan ziren, semea eta alaba eduki zituztelarik, Begoña eta Cruz Mari.

Beste senide bat, Sabin, 1950eko hamarkadan Caracasera joan zen. Han, Legazpitik joandako Antonio Goñirentzat egin zuen lan, zeinak supermerkatu batzuk eta elikagai batzuen ordezkaritzak baitzituen. Han zegoela, Algortako emakume batekin ezkondu zen, eta Ameriketatik bueltan Bizkaiko herri horretan bizi izan

[es] Periko, por su parte, fue tornero en la fábrica de Patricio, se casó con la bergaresa Florita Laskurain, residieron en el barrio San José y tuvieron dos hijos, Begoña y Cruz Mari.

Otro hermano, Sabin, en los años 50 fue a Caracas y trabajó para el también legazpiarra Antonio Goñi, que tenía un negocio de supermercados y representación de productos de alimentación. Allí se casó con una mujer de Algorta y acabaron viviendo en esta localidad de Bizkaia. Una vez en Caracas, Sabin se llevó allí a un hermano más joven, Eugenio, que se casó con una mujer de Zumarraga, Maite Ormazabal, y acabó trabajando en Legazpi en la sucursal del Banco de Vizcaya.

Los hijos de Pedro y Ana fueron, por orden de edad: Trini (casada con el usurbildarra Tomás Iradi vivió en Altza); Miren (casada con un irunés residió en Madrid); Sabin, Periko, Ignacio, Eugenio y Conchita. Esta, la



Txoko Zarreko ezkutua (Bittor Anduezak emana).



Txoko Zar, inaugurazioa, 1957-11-10. Don Jesus apaiza (Santi Gabiria) (Arantxa Alustizak emana).



Txoko Zar elkarteko inaugurazioa, 1957-11-10. Zenbakien ordenean: Ubaldo Segura Lopez de Sagredo (presidentea), Cruz Etxeberria, Jose Labaka, Jaime Gil, Juanito Lasa, Andres Martin, Victor Urmeneta, Jose Luis Martin, Francisco Igartua, Juan Mª Zaitegi, Carlos Arbide, Jose Gonzalez Azpiazu (Santi Gabiria) (Arantxa Alustizak emana).

[eu] ziren. Caracasen zegoela, anaia gazteago bat joan zitzaion, Eugenio, eta hau ere han zegoela ezkondu zen, Zumarragako Maite Ormazabalekin. Gero Legazpin egin zuen lan, Banco de Vizcaya-ren ordezkaritzan.

Pedro eta Anaren seme-alabak, zaharrenaz aurrera: Trini (Tomas Iradi usurbildarrarekin ezkondu eta Altzan bizi izan zen); Miren (irundar batekin ezkonduta Madrilen bizitu zen); Sabin, Periko, Ignazio, Eugenio eta Conchita. Hau, gazteena, herrian zegoela jostun jardun zen, eta gero Altsasura ezkondu Juan Cruz Bengoetxea Goikoetxearekin. Gainera, Pedro eta Anak beste bi ume izan zituzten: alaba bat, urte eta erdirekin hildakoa, eta seme bat, hemezortzi bat urte zituela hila.

Hirugarren solairuan Alustiza-Etxeberriatarrak bizitu ziren. 1933an iritsi ziren Legazpira. Celestino Alustiza Yurrita (1888-1975) Zegaman jaioa zen eta lehenbizi Ajuriaren fabrikan egin zuen lan, Araian. Gero, Legazpira etorrita, Patrizionean jardun zen. Etxe honetantxe hil zen. Emaztea, Salvadora Etxeberria Fernandez de Landa (1886-1952), Araian jaioa zen. Bost seme-alaba

más joven, en su juventud fue costurera y luego se casó a Altsasu con Juan Cruz Bengoetxea Goikoetxea. Además, hubo otros dos hijos, una niña muerta al año y medio, y un chaval que falleció con aproximadamente 18 años. [es]

La tercera planta fue habitada por la familia Alustiza-Etxeberria, que había llegado a Legazpi en 1933. Celestino Alustiza Yurrita (1888-1975) era nacido en Zegama, trabajó primero en la metalurgia de Ajuria en Araia y luego, ya en Legazpi, en la de Patricio. Falleció en esta misma casa. La esposa, Salvadora Etxeberria Fernández de Landa (1886-1952), era nacida en Araia. Tuvieron cinco hijos, todos nacidos en Araia, antes de llegar a Legazpi: Julio (1914-1969), que fue director de la Banda Municipal y se casó con Elisa Alustiza; Luis (1915), que se casó con Carmen Agirre, del caserío Ermentaria de Brinkola), y fueron los últimos en marchar de la casa; Pilar (1918-1957), casada con Víctor Andueza, que fue corresponsal de El Diario Vasco durante tres décadas; Laura (1920-1967) y Felicia (1922-1969). Esta úl-



Txoko Zarreko inaugurazioa 1957ko azaroak 10. Zenbakien ordenean, Jose Labaka, Jaime Gil, Juanito Lasa, Francisco Igartua, Luis Ugarte, Jose Luis Martin (Arantxa Alustizak emana).



Goian, Ignacio, Periko eta emazte Florita Laskurain, Eugenioren emazte Maite Ormazabal, Tomas Iradi (Trinirena), Trini eta Conchita.



Luis Ugarte eta Juan Mari Zaitegi Txoko Zar elkartean.

[eu] eduki zituzten, bostak Araian jaioak, Legazpira etorri aurretik: Julio (1914-1969), udal musika bandako zuzendari izandakoa eta Elisa Alustizarekin ezkondua); Luis (1915), Brinkolako Ermentaria baserriko Carmen Agirrerekin ezkondua; Pilar (1918-1957), Victor Anduezarekin ezkondua, hau berriz El Diario Vasco-ko berriemaile izana hiru hamarkadatan zehar; Laura (1920-1967) eta Felicia (1922-1969). Azkekenko hau jostuna zen eta bere etxean hainbat lagunentzako egin zuen arropa, neska gazteei irakasten ere jarduten zelarik.

Hain zuzen ere, Luis Alustiza eta Carmen Agirre izan ziren etxe honetako azkeneko bizilagunak.

Txoko Zar elkartea 1957an inauguratu zuten

Elkarte hau Zulokoa etxearen bebarruan egon zen. Denbora-pasarako eta bertan otorduak egiteko zen. 1957ko azaroaren 10ean inauguratu zuten, Choco-Zar

[es] tima fue modista y cosía ropa en casa, además de enseñar el oficio a bastantes chicas jóvenes.

La sociedad Txoko Zar nació en 1957

Esta sociedad recreativa y gastronómica emplazada en la planta baja de la casa Zulokoa se inauguró el 10 de noviembre de 1957, bajo la denominación Choco-Zar. En sus estatutos fundacionales se mencionaba que tenía por finalidad fomentar el montañismo. Se cerró 46 años después, en el 2003, y a continuación el edificio fue derruido para construir un edificio de viviendas nuevo. En esa última fase el presidente fue José Mari Gorrotxategi, y en el acto de despedida se homenajeó a tres socios fundadores vivos: Luis Etxeberria, Luis Ugarte y José Luis Martín; no pudo acudir un cuarto fundador, Juan Bautista Irigoien.

Los propulsores que figuran en la solicitud presentada ante el Ayuntamiento y el Gobierno Civil fueron José

[eu] deituraren pean. Hasierako estatutuetan esaten zen mendizaletasuna bultzatzea zuela helburu. 46 urtez iraun zuen eta 2003an atea betiko itxi, izan ere eraikina bota egin behar baitzuten, bertan beste bat berria egiteko. Itxiera-garai hartako lehendakaria Jose Mari Gorrotxategi zen, eta despedidako ekitaldian, artean bizirik zeuden hiru bazkide fundatzaile omendu zituzten: Luis Etxeberria, Luis Ugarte y Jose Luis Martin; bazen laugarren bat ere, Juan Bautista Irigoien, baina ez zuen azaltzerik izan.

Lagun hauek aurkeztu zuten eskabidea Udalaren eta Gobernu Zibilaren aurrean 1957an: Jose Mari Gorrotxategi (udal musika-bandaren zuzendaria), Joxe Gonzalez, Jose Luis Martin, Juan Bautista Irigoien eta Ubaldo Segura Lopez de Sagredo. Hona hemen lehen urteetako bazkide-zerrenda: Carlos Arbide, Victor Urmeneta, Jesus Agirre, Ignacio Agirre, Ramon Aztiria, Jose Gonzalez, Bittor Andueza, Alejo Andueza, Roman Ganzarain, Luis Ugarte, Damian Elorza, Felix Elorza, Luis Biteri, Patricio Lasa, Sebastian Murua, Cruz Etxeberria, Florencio Aztiria, Juan Bautista Irigoien, Ubaldo Segura Lopez de Sagredo, Pedro Galfarsoro, Jose Aztiria eta Jose Antonio Aztiria. Azkeneko bi lagunok, Bengoleako aztiriatarrak, eraikinaren jabe ziren. Elkarteak bazeukan ohorezko bazkide bat, Luis Aldasoro alkatea.

Bazkideen artean, ikusi denez, herriko bi enpresa handienen jabeen ordezkariak zeuden, etxeberriatar bat eta bi elorzatar. Elkartea finantzatzeko, obligazioak atera ziren, Joxe Gonzalezek koordinatuta. Estatutuetan, orduan ohitura zen bezala, esaten zen elkarteak FET eta JONSeko arauen arabera funtzionatuko zuela eta Espainiako Mendi Federazioaren aginduak ere aintzat hartuko zituela.

Elkarteak bi egun seinalatu bazituen, bata Korosti mendira egin ohi zen irteera, iraileko Santikutz Txiki festen barruan, eta Liernian ekainean egiten zen bilkura, bazkideek otordua plantatzen zutelarik ermita ondoko zelaian. ❖

[es] Mari Gorrotxategi (director de la banda de música), José González, José Luis Martín, Juan Bautista Irigoien y Ubaldo Segura López de Sagredo. He aquí una relación de socios de la primera época: Carlos Arbide, Víctor Urmeneta, Jesús Agirre, Ignacio Agirre, Ramón Aztiria, José Gonzalez, Bittor Andueza, Alejo Andueza, Román Ganzarain, Luis Ugarte, Damián Elorza, Félix Elorza, Luis Biteri, Patricio Lasa, Sebastián Murua, Cruz Etxeberria, Florencio Aztiria, Juan Bautista Irigoien, Ubaldo Segura López de Sagredo, Pedro Galfarsoro, José Aztiria y José Antonio Aztiria. Estas dos últimas personas eran miembros de la familia propietaria del edificio, los Aztiria del caserío Bengolea. Había un socio de honor, el alcalde Luis Aldasoro.

Entre los socios había un Etxeberria y dos Elorza, miembros de las familias propietarias de las dos principales empresas del pueblo. Para la financiación de la iniciativa se emitieron unas obligaciones, coordinadas por José Gonzalez. En los estatutos, como no podía ser de otra manera, se decía que la sociedad funcionaría "de acuerdo con las normas generales establecidas por la Delegación Nacional de Deportes de FET y de las JONS y las específicas de la Federación Española de Montañismo".

Esta sociedad tenía dos fechas señaladas, la subida al monte Korosti en septiembre en el marco de las fiestas de Santikutz Txiki, y la excursión y comida campestre en Liernia en el mes de junio. ❖



Txoko Zar elkarteko bazkideak 1968an
(Jose Mari Gorrotxategik emana).



Pedro Mari Intxausti 'Arrantzale', aulkian,
Onto Beltzeko bere lagunekin
(Marivi Arostegik emana).





Txoko Zarreko bazkideak 80ko hamarkadan.

1. Jesus Intxausti; 2. Sebastián Murua; 3. Pako "Araia"; 4. Romualdo Zabaleta; 5. Luis Etxeberria; 6. Patxi Berasategi; 7. Jose Mari Gorrotxategi; 8. Maiztegi; 9. Antonio Lizarralde; 10. Aitor Agirrezabala; 11. Txaleko; 12. Otegi; 13. Garmendia; 14. Sebastian Alustiza; 15. ¿?; 16. Garmendia aita; 17. Zabalo; 18. Jose Luis Martin; 19. Angel Bereziartu; 20. Jose Ramon Iriondo; 21. Jose Mari Mendizabal; 22. San Sebastian; 23. Luis Ugarte; 24. Javier Urzelai; 25. Urzelai; 26. Joxe Gonzalez; 27. Gabino Elorza; 28. ¿?; 29. Bittor Gabiria; 30. Muñoz; 31. Jorge; 32. Iñaki Alustiza; 33. Jose Mari Gorrotxategi; 34. Pedro Aleson (Romualdoren koinatua)
(Arantxa Alustizak emana).



08 _ kalebarren

TXOKOko etxea 6 La casa del TXOKO



Txokoko etxea, eraiki berritan



Txoko tabernako publizitate argazkia



Martina Zalduaren gurasoak, Antonio eta Juana Zufiaurre (Marivi Arostegik emana).



Antonio Arostegi eta Martina Zaldua.

[eu]

Kasu honetan, izen giltzarria Martina Zaldua Zufiaurre dugu, XX. mende hasieran jaioa Zumarragako Iburretagarakoa baserrian. Etxean hamaika senide ziren. Eta hamaika urte zituela, umezaintzera joan zen Bergarako etxe batera. 1920ko hamarkadan iritsi zen Legazpira bere gurasoekin (Antonio eta Juana) eta anai-arrebekin. Kale Zaharrean jarri ziren bizi izaten, Zulokoa esaten zioten etxean. Hango jabeak Bengolea baserriko aztiriatarrak ziren, eta bertan Txoko Zar elkartea sortuko zen.

Martinaren gurasoek taberna-jatetxea zabaldu zuten Zulokoan, Choco zeritzana, batik bat fabriketako langileei otorduak emateko.

Martina Legazpin zegoela, bere senarra izango zena ezagutu zuen: Antonio Arostegi Imaz. Zerainen jaioa, Patrizioneko fabrikan lan egitera etorri eta Forjan jardun zuen.

Baina gero, gurasoak baino are ekintzaileagoa izan zen Martina. 1939an eraikin berria, eta handia, egin zuen etxe hartatik metro batzuetara. Beheko solairuan Choco jatetxe-taberna berria zabaldu zuen, lehenengo solairuan familiako bizitzak zeuden eta bigarrengoan maizter eta apopiloak jarri ziren bizi izaten. Gero, 1950eko hamarkadan, beste bi solairu erantsi zitzaizkion etxeari.

Martina oso ekintzaile izan zen, senarrak ez zuen horrenbeste arrisku hartzerik nahi izaten, baina ekimen guztietan emaztearekin bat egin zuen. ❖

[es]

En este caso, el nombre clave es el de Martina Zaldua Zufiaurre, quien nació a comienzos del siglo XX en el caserío Iburretagarakoa de Zumarraga. Eran once hijos en la casa. Martina fue con once años a cuidar los niños de una casa de Bergara, y llegó a Legazpi en los años 20 con sus padres, Antonio y Juana, y varios hermanos. La familia se instaló en la casa de los Aztiria de Bengolea, la que le decían Zulokoa y que a partir de 1957 albergaría la sociedad Txoko Zar. Allí abrieron un bar-restaurante, llamado Choco, pensado sobre todo para dar comidas a los obreros de las fábricas.

Viviendo ya en Legazpi, Martina Zaldua conoció a quien luego sería su marido, Antonio Arostegui Imaz, que había nacido en Zerain y llegado a Legazpi para trabajar en la fábrica de Patricio; lo hizo en la Forja.

Pero enseguida Martina mostró ser una persona muy emprendedora, más todavía que sus padres, hasta el punto de, a fines de los años 30, decidir construir un edificio con planta baja (que alojó el nuevo bar Choco) y otras dos alturas. El edificio se inauguró en 1939 y enseguida entró en funcionamiento el bar-restaurante Choco en la planta baja. El primer piso acogía las viviendas de la familia y el segundo estaba destinado a tener inquilinos. Luego, en la década de 1950, se construyeron otras dos alturas.

Así como Martina fue muy emprendedora, su esposo Antonio fue menos partidario de tomar riesgos. Pero luego siempre apoyó a su esposa. ❖



Martina Zaldua
(Susana Enparanzak emana).



08 _ kalebarren

DAMATA (Guridinea, Medikukoa) 7 DAMATA (Guridinea, Medikukoa)



Damata (Javier Anduezak emana).

[eu]

Antzina, Zalduko Guridi-Zaldua leinukoen etxea izan zen. 1832an Medicucoa esaten zioten eta Martina de Ugarte zen jabe eta bertako biztanlea.

1843. urtean bi familia bizi ziren Damatan eta horietako batean Alfonsa Apaolaza Arrieta (1806-1866). 1857. urtean, Alfonsaren anaia, Jose Agustin Apaolaza Arrieta (1804-1878) eta emazte Josefa Martina Zabaleta Oria, hiru seme-alabarekin (Juan Miguel, 1848; Mª Josefa, 1851; Leona, 1853; gero jaio ziren Ceferina, 1857, eta Felipe, 1861).

1894. urtean, Juana Azkue Jauregi eta bi semeak bizi ziren, Ramon eta Gregorio Apaolaza Azkue. Ez dirudi aurretik zeuden apaolazatarrekin zerikusirik zutenik. Izan ere, Juana Azkue Jauregiren senarra Jose Agustin Apaolaza Oiarbide zen, eta honen gurasoak, Ignacio Apaolaza Urreta eta Mª Miguel Oiarbide Etxaleku, Gabirian ezkondutakoak.

1898an mediku bat bizi zen bertan

Izen bitxia zeukan etxe honek. Bertan jaiotako Julian Apaolazak esan diguna: "Etxea gure gurasoek erosi zuten. Guk adituta daukaguna etxean: bertan mediku bat bizi zen eta bi edo hiru alaba zeuzkan. Dama batzuk bizi zirelako, hortik izena: Damata". Egia da 1898. urtean bertan bizi zirela Jose Mª Salome Arzelus Aierbe medikua eta emazte Susana Leona Larrañaga Guridi, Oñatin ezkondutakoak 1900. urtean. Jose Luis Ugarte ikerlariak entzunda dauka Arzelusek Udana-Kataberako meatzariak artatu zituela eta argazkiak ateratzen zituela.

1949an ere, artean Medicunea deitzen zaio eraikin honi; alegia, aldameneko Karlosenean solairu gehiago eraikitzeko Damatako Gregorio Apaolazak emandako baimenaren dokumentuan honela ageri da.

[es]

Antiguamente fue casa del linaje Guridi-Zaldua de Zaldu. En 1832 a la casa se le llamaba Medicucoa y su dueña y habitante era Martina de Ugarte.

En 1843 vivían dos familias. Una de ellas, la de Alfonsa Apaolaza Arrieta (1806-1866). En 1857, era la residencia de un hermano de Alfonsa, José Agustín Apaolaza Arrieta (1804-1878) y su esposa Josefa Martina Zabaleta Oria, con tres hijos (Juan Miguel, 1848; Mª Josefa, 1851; Leona, 1853; más tarde nacieron Ceferina, 1857 y Felipe, 1861).

En 1894 vivían Juana Azkue Jauregi y sus dos hijos, Ramón y Gregorio Apaolaza Azkue. No parece que fueran parientes de los Apaolaza de la anterior etapa, dado que el marido de Juana fue José Agustín Apaolaza Oiarbide, hijo de Ignacio Apaolaza Urreta y Mª Miguel Oiarbide Etxaleku, quienes se habían casado en Gabiria.

En 1898 vivía aquí un médico

Esta casa tenía un nombre peculiar. Nos declaró Julián Apaolaza, nacido ahí mismo: "La casa la compraron nuestros padres. Nosotros les oímos que en cierta época vivía aquí un médico con dos o tres hijas. Vivían unas damas, y esa era la razón del nombre: Damata". Eso era cierto. En 1898 residió aquí el médico José Mª Salomé Arzelus Aierbe, casado en Oñati en 1900 con Susana Leona Larrañaga Guridi. El investigador José Luis Ugarte oyó que este médico atendió a los mineros de Udana-Katabera y que hacía fotografías.

Todavía en un documento de 1949 (el permiso concedido por Gregorio Apaolaza para levantar nuevas alturas en la casa anexa de Karlosenea), a este edificio se le llama Medicunea.



Gregorio Apaolaza Azkue, 1891n Damatan jaioa, aita Jose Agustin eta ama Juana, biak Gabirian jaioak (Julian Apaolazak emana).



Damatako ataria (Otilia Odriozolak emana).



Dominica Alberdi eta Gregorio Apaolaza (Julian Apaolazak emana).



Gregorio Apaolaza, Jose Etxeberria,Patricio Etxeberria eta Serapio Lizarazu (Julian Apaolazak emana).

[eu] 1970. hamarkada bukaera aldera eraitsi zen etxea, alkate Prontxio Larrañaga zegoela. Etxe atzean lur-sail handia zegoen, ibairaino iristen zena, eta bertan sagastia. Bueltan-bueltan, harrizko hesia, bi metrokoa.

El edificio se demolió a fines de los años 70, en la etapa del alcalde Prontxio Larrañaga. En la parte trasera había una finca que llegaba hasta el río, con numerosos manzanos. En todo el perímetro existía un muro de piedra de dos metros de alto. [es]

[eu]

Azkenaldian, apaolazatarrak

Azkeneko familia Gregorio Apaolaza eta emazte Dominica Alberdirena izan zen. Gizona bertan jaioa zen, 1891n; emaztea, berriz, Atagoitikoa. Zera gertatu zen, neskatila zela neskame hasi zela etxe honetan, eta azkenean etxeko semearekin ezkondu.

Gregorioren aita Jose Agustin Apaolaza Oiarbide izan zen, Gabirian 1840an jaioa eta gaztetan Ameriketan ibilia; eta ama, Juana Azkue Jauregi, hura ere Gabirian jaioa, 1867an. Gurasook beste seme bat izan zuten, Ramon (1886), eta beste seme bat eta alaba bat umetan hildakoak.

Esan bezala, 1891n jaiotako Gregorio Apaolazak erosi zuen Damata. Oso gizon ezaguna izan zen herrian. Gazte-gaztetan errementari-lanean hasi zen. Patrizioren fabrikako lehenengo langileetako bat izan zen. Ajustajen ari zela, burdina zatitxo batek salto egin eta zauri larria egin zion begian. Kristalezko begia ipini zioten. Oso buru oneko gizona izaki, fabrikan ardura handiko lanak eman zizkioten. Adibidez, nabarmendu zen Jose Etxeberriarekin batera fabrika asko bisitatu zituelako munduan zehar eta haietatik informazio oso baliotsua ekarri. Gregorio gai zen beste fabriketan ikusitako makinen ezaugarriak gogoan ondo gordetzeko (inork antz eman gabe) eta segituan planoak egiteko. Bidaiak, normalean, trenez edo itsasoz egiten zituzten, Patrizio ez baitzen hegazkinez fio. ❖

[es]

Los últimos habitantes, los Apaolaza

La última familia que habitó en este lugar fue la de Gregorio Apaolaza y su esposa Dominica Alberdi. El hombre era nacido ahí mismo, en 1891; la mujer se había criado en el caserío Atagoiti, y siendo una chavala comenzó a trabajar en ese domicilio y acabó casándose con el hijo de la casa.

El padre de Gregorio era José Agustín Apaolaza Oiarbide, nacido en Gabiria en 1840 y que en su juventud había trabajado en tierras americanas. La madre era Juana Azkue Jauregi, nacida también en Gabiria, en 1867. José Agustín y Juana tuvieron otro hijo, Ramón (1886), y otro hijo y una hija murieron siendo criaturas.

Tal como se ha dicho, fue Gregorio Apaolaza, nacido en 1891, quien compró la casa. Fue un hombre renombrado en el pueblo. En su juventud comenzó a trabajar de herrero y fue uno de los primeros ayudantes de Patricio Etxeberria. Estando en la sección del Ajustaje, una viruta metálica le impactó en el ojo y acabó perdiéndolo. Le implantaron un ojo de cristal. Al tratarse de una persona muy inteligente, en la fábrica le encomendaron tareas importantes. Por ejemplo, destacó como ayudante de José Etxeberria, el hijo mayor de Patricio. Visitaron conjuntamente fábricas de medio mundo y en esas ocasiones Gregorio memorizaba (sin generar sospechas) las características de las máquinas que consideraban interesantes, para luego dibujar los correspondientes planos. Los viajes se llevaban a cabo en barco o por tren, dado que Patricio desconfiaba de los aviones. ❖



08 _ kalebarren

KARLOSENEA (Bar Txiki, Traperoaren almazena Amabiñea, Amabizarranea, Kamiñeronea)

8 KARLOSENEA (Bar Txiki, almacén del Trapero Amabiñea, Amabizarranea, Kamiñeronea)



Eskuinetik hasita, Karlosenea, Anduezanea, Domingonea, Errotaritxonea eta Xesterokoa (Javier Anduezak emana).

[eu]

1775ean “la de Carlos de Egaña” zuen izena. 1832an, “Carlosenea”, eta orduan Joaquin Mª de Egaña Zabaleta zen bertako bizilagun eta jabea. 1843an, Joaquin hura eta emazte Joaquina Agirre Iturbe bizi ziren. Eta 1857ko agiri batean esaten denez, gizona aguazila izana zen. Aguazilari beste hainbat lekutan ere “amabia” esaten zitzaion. Hortik, Amabiñea eta Amabizaarranea deiturak.

1858an, Jose Manuel Zabaleta Ugarte agertzen zaigu bertan bizitzen. Bi aldiz ezkondu zen: 1848an, Paula Azkue Galfarsororekin, eta 1864an Mª Cruz Plazaola Mantxolarekin.

1894an, etxe honetan Maria Cruz Plazaola Mantxola (1841) alarguna bizi zen bere seme Ambrosio Zabaleta Plazaolarekin (1869). Biak ala biak Legazpin jaioak. 1898an, Ambrosio, Maria Josefa Arizmendi Aldanondo ormaiztegiarrarekin ezkondu zen eta, besteak beste, Leona izeneko alaba izan zuten, etxean gelditu zena.

Rufino eta Leonaren ‘Txiki’ taberna

Leona Zabaleta Arizmendik (1903) berea zuen etxe hau, eta pentsatzen dugu gurasoek ere jabetzan izango zutela. Antzuolako Rufino Iriondorekin (1901) ezkondu eta beheko solairuan ‘Txiki’ izeneko taberna eduki zuten Errepublika garaian, 1930eko hamarkadako lehen urteetan. Gainean, lehen solairuan, senaremazteok bizi ziren beren umeekin; eta baita Patxiko ere, Leona Zabaletaren anaia.

Rufino eta Leonak seme-alabok eduki zituzten: Kontxita Iriondo Zabaleta (1932?), Inaxi (1935), Jose Ramon (1937), Jesus (1938), Andres (1940), Miguel (1943) eta Paco (1945). Azkeneko hau 1952an hil zen, ataritik irten baloiaren atzetik eta kamioiak harrapatuta. Anduezaneko Bittor Andueza Alustizarekin ari zen jolasean, eta hura ere harrapatu zuen kamioiak eta

[es]

En 1775 se conocía a esta casa como “la de Carlos de Egaña”. En 1832, su nombre era Carlosenea, y su dueño y residente, Joaquín Mª de Egaña Zabaleta. En 1843, estaba habitada por el mismo Joaquín y su esposa Joaquina Aguirre Iturbe. Según un documento de 1857, este hombre había sido alguacil.

A los alguaciles en muchos pueblos se des decía ‘amabia’, y de ahí que la casa tuviera las denominaciones de Amabiñea y Amabizaarrenea.

No era un inmueble grande. Tenía 85 metros cuadrados de planta.

En 1858 aparece como residente Jose Manuel Zabaleta Ugarte, quien se casó dos veces, en 1848 con Paula Azkue Galfarsoro y en 1864 con Mª Cruz Plazaola Mantxola.

En 1894 vivían en esta casa la viuda Mª Cruz Plazaola Mantxola (1841) junto con su hijo Ambrosio Zabaleta Plazaola (1869), ambos nacidos en Legazpi. Y en 1898, Ambrosio se casó con María Josefa Arizmendi Aldanondo, natural de Ormaiztegi y tuvieron al menos una hija, Leona, que fue la que heredó y siguió viviendo en la casa.

El bar de Rufino y Leona

Leona Zabaleta Arizmendi (1903) era propietaria de esta casa. Pensamos que sus padres también lo serían. Se casó con Rufino Iriondo (1901), de Antzuola, y en la planta baja tuvieron a comienzos de los años 30, durante la República, un bar llamado Txiki. Encima, en la primera planta, vivía la familia y también Patxiko, el hermano de Leona. Tuvieron estos hijos: Conchita Iriondo Zabaleta (1932?), Ignacia (1935), José Ramón (1937), Jesús (1938), Andrés (1940), Miguel (1943) y Paco (1945). Este último murió en 1952, atropellado



Rufino Iriondo umetan Antzuolan gurasoekin (Axier Iriondok emana).




Jose Ramon Iriondo, emazte Mª Luisa Eguren eta ama Leona Zabaleta (Axier Iriondok emana).



Iriondotarrak (Axier Iriondok emana).





Leona Zabaleta eta Rufino Iriondo (Axier Iriondok emana).

Josu Iriondo, New Yorkeko gotzain laguntzailea (Axier Iriondok emana).

[eu] hil; gero Anduezanean beste ume bat jaio eta hari ere Bittor izena ipini zioten.

Kontxi umetan Santillana del Mar-era joan zen eta Jesus eta Andres seminariora mutikotan. Jesus (Josu) agustindarra da. 1968an Estatu Batuetara joan zen eta

por un camión al salir del portal a la calle, persiguiendo un balón. Estaba jugando con Víctor Andueza Alustiza, de la casa de al lado, quien también falleció por el impacto. Luego en esa casa de los Andueza nació otro niño que también recibió el nombre de Víctor. [es]

[eu] hango zenbait parrokiatan lan egin. 2001ean, Juan Pablo II.ak New Yorkeko gotzain laguntzailea izendatu zuen eta 2014an utzi zuen egiteko hori, adina zela-eta. Andres, berriz, 'cura obrero' izan zen, eta nahiko gazterik utzi zuen apaizgoa.

1936ko gerra osteko lehen urteetan 'comedor social' delakoa egon zen beheko solairuan, taberna egondako tokian. Gerrako irabazleek jarri zuten abian.

Baita ere, etxe honetako bebarruan bere biltegia muntatu zuen Jose Martin Gorrotxategi traperoak. Batez ere papera eta metalak batzen zituen, eta bertan gordetzen. Zegaman jaioa zen, Intxaurrondo baserrian, etxekoekin haserretuta alde egin zuen Legazpira eta edanarekin arazo latza eduki zuen. Dirua egin zuen, 1956an Bikuña aldean etxe berria eraikitzeko adina; baina uste zabaldua zen gau batzuk almazen horretan ematen zituela. Felisa Anduezak esan diguna: "Gure etxearen kontra zeukan almazena. Arratoi pilak ibiltzen ziren han. Bolada batean, ez genuen Jose Martin sentitzen eta aguazilari esan genion. Beldur ginen ez ote zen hor egongo hilda. Baina aguazilak esan zigun Bikuña aldean etxea egiten hasia zela eta han zebilela. Gero Jose Martin eskerrak ematera etorri zitzaigun, kezka agertzeagatik". Baina, aurretik, Kale Zaharreko beste toki batean eduki zuen almazena Jose Martinek. Parroki elizatik gertu, Nikasio Lasaren harategiaren atearen parean, beste espaloian.

Hiru solairu gehiago eta bizilagun berriak

1950. urte aldera hiru solairu (azkena atikoa) erantsi zioten etxeari, non kanpotik etorritako hainbat familia bizi izan baitzen. Hiru solairu berri horien eraikitzaile eta jabeak arotz batzuk izan ziren: Agapito Etxeberria Iñurritegi, Sebastian Zubizarreta eta Patxi Berasategi, azkeneko bi hauek Zorrotz enpresaren fundatzaile

Conchi, en su infancia, acabó en Santillana del Mar, y los hermanos Jesús y Andrés fueron al seminario. Jesús se hizo agustino y en 1968 llegó a Estados Unidos para trabajar luego en diferentes parroquias. En 2001, el Papa Juan Pablo II le nombró obispo auxiliar de Nueva York y abandonó ese cometido en 2014, por razones de edad. Andrés fue 'cura obrero' y luego dejó el sacerdocio. [es]

En los primeros años posteriores a la guerra del 36 hubo en los bajos de este edificio, donde antes estuvo el bar, lo que se llamaba 'comedor social', gestionado por los vencedores de la contienda.

Además, en la planta baja montó su almacén el trapero José Martín Gorrotxategi. Sobre todo recogía papel y metales, que almacenaba en este lugar. Era nacido en Zegama, en el caserío Intxaurrondo, se enfadó con sus familiares y marchó a Legazpi. Tenía problemas con el alcohol, pero hizo dinero y se construyó casa propia junto al campo de fútbol de Bikuña. Se decía que pasaba noches en el almacén. Nos comentó Felisa Andueza: "Tenía el almacén al lado de nuestra casa. Aquello estaba lleno de ratas. Durante varios días no le vimos ni le sentimos y dimos parte al alguacil. Temíamos que estuviera muerto en el almacén. Pero el alguacil nos dijo que se estaba construyendo una casa en Bikuña y andaba por allá. Más tarde, José Martín nos dio las gracias por habernos preocupado". No obstante, este hombre tuvo anteriormente otro almacén, también en la Calle Vieja, al par de la carnicería de Nicasio, en la acera de enfrente.

Entran los Orozco, los Caballero…

Hacia el año 1950 se le añadieron a este edificio otras dos plantas y un desván-ático. Los impulsores de estas tres nuevas plantas fueron tres carpinteros legazpiarras: Agapito Etxeberria Iñurritegi, Sebastián Zubiza-

[eu] baita ere. 1950eko hamarkadan, adibidez, lehenengo solairuan nagusiak bizi izan ziren, iriondo-zabaletatarrak; bigarrengoan, arruiztarrak; hirugarrengoan ostoagatarrak; eta laugarrengoan orozcotarrak.

José Orozco Ballesteros (1923-2022) Burgosko Villahoz herrian jaioa zen eta 1955ean iritsi Legazpira, Patrizioren fabrikan lan egitera. Lehenbizi baskarandarren etxean egon zen apopilo, San Ignazion. Iritsi berritan, harrobi batean lanean ari zela, tximista batek alderik alde zeharkatu zion, eta larri zaurituta utzi. Laster, 1956an, Josék Kale Zaharreko etxebizitza erosi eta familia ekarri zuen: Pilar Quevedo emaztea eta hiru seme-alaba, Fabiana (1948), Natividad (1950) eta Jesús (1954). Eta Legazpin zeudela, bikiak jaio ziren 1958an, Fe eta Caridad.

Etxe hau eta Kale Zaharreko beste batzuk desjabetu eta bota beharrekotzat jo zituen Udalak 1950. hamarkada bukaeran. Inguru horretako biztanleak Saturnino Telleria kaleko etxe egin berri batera joan ziren. Baina herrian etxebizitza gabezia handia zegoen eta Udalak utzi egin zuen desjabetutako etxe horietan familia berriak bizitzen hastea.

Hala, etxe honetan, iriondotarrek alde egindakoan, lehen solairuan areizagatar batzuk bizi izan ziren: Agustin Areizaga eta Germana Yabar beren seme-alabekin. Gero Gasteiza joan ziren eta 1970eko hamarkadan caballero-hurtadotarrak jarri ziren lehen solairu horretan.

Francisco Caballero García eta Consuelo Hurtado Caballero Badajozko Valle de la Serenatik azaldu ziren herrira 1957an, hiru urteko mutikotxo batekin, Paco, eta urtebeteko neskatila batekin, Esperanza; hauen aurretik beste bi haur jaio ziren, eta biak oso txiki zirela meningitisak jota hil. Trenetik Brinkolan jaitsi eta Kurutza atzeko Kortaberriko Damian Kortabarriak gurdiarekin lagundu zien Imittola baserriraino joateko. Hura izan zuten lehenbiziko bizilekua. Hiru baserri daude alderdi hartan: Imittola, Kortabarri eta Sustiabe. Oñatiko partea da, baina hango kalea oso urruti gerarreta y Patxi Berasategi, estos dos últimos fundadores también de la empresa Zorrotz. En los nuevos pisos vivieron muchas familias llegadas de fuera. En esos años 50, por ejemplo, en el primer piso vivían los dueños, la familia Iriondo; en el segundo, ya de reciente construcción, los Arruiz; en el tercero, los Ostoaga; y en el cuarto, los Orozco. [es]

José Orozco Ballesteros (1923-2022) era nacido en Villahoz (Burgos) y llegó a Legazpi en 1955, a trabajar en la fábrica de Patricio, instalándose como pupilo en casa de los Baskaran, en el barrio San Ignacio. Al poco de llegar, cuando trabajaba en una cantera, un rayo lo atravesó, dejándolo malherido. Pronto, en 1956, compró el último piso de este edificio y se trajo a la familia: su esposa Pilar Quevedo y tres hijos: Fabiana (1948), Natividad (1950) y Jesús (1954). Ya una vez en Legazpi, en 1958 nacieron las mellizas Fe y Caridad.

Esta casa y otras de la Calle Vieja fueron expropiadas por el Ayuntamiento. Tanto los vecinos de este inmueble como los de otros de los alrededores fueron realojados en la casa nueva que se hizo en la calle Saturnino Telleria. Pero, dado que Legazpi tenía un gran déficit de vivienda, las autoridades locales permitieron que las familias llegadas de fuera siguieran viviendo en los pisos expropiados.

Así, en el piso de los Iriondo se instalaron Agustín Areizaga y Germana Yabar con sus hijos. Luego se marcharon a Vitoria-Gasteiz y en la década de los 70 el lugar fue aprovechado por los Caballero-Hurtado. Francisco Caballero García y su esposa Consuelo Hurtado Caballero llegaron a Legazpi en 1957 desde Valle de la Serena (Badajoz), con un niño de tres años, Paco, y otra de un año, Esperanza; anteriormente habían nacido otras dos criaturas, ambas muertas por meningitis. Bajaron del tren en Brinkola y primero se instalaron en el caserío Imittola (Oñati), situado tras la cruz de Korosti. En el traslado de los enseres les ayudó con su carro de bueyes Damián Kortabarria, del caserío llamado también Kortabarria. En esa zona existían tres caseríos, los dos mencionados y Sustiabe. Junto a esta familia llegaron dos hermanos de la mujer, Consuelo Hurtado.



Jose Orozco eta Pilar Quevedo beren seme-alaba guztiekin 1958an (Jesus Orozcok emana).



Francisco Caballero eta Consuelo Hurtado 1966an. Umeak, Francisco, Esperanza, Antonia, Josefa (Patxi Caballerok emana).

[eu] tzen da, eta Legazpi alderako irteera erosoagoa da, Zelanda baserritik pasatuta.

Imittolan ez zegoen kanillako urik, ezta argindarrik ere. Egun erorita dago. Francisco artzain jarduna zen jaioterrian, eta Legazpin obretan hasi zen segituan. Enkofradoretzan espezializatu zen. Imittolan, Consuelo emaztearen anaia baten familiarekin batera bizi izan ziren. Hipolito Hurtado zuen izena.

Imittolatik Zatui baserrira pasatu ziren. Baserri hori dezente gertuago zegoen Legazpiko kaletik. Eta gero, Zatuitik Olaberriko jauregi zaharrera. Orain berrituta dago, baina artean eraikin desegokia zen bizitzeko. Eta, azkenean, kaleraino jaisteko modua egin zuten: Kale Zaharrean, Gerranetxiki izeneko etxean jarri ziren lehenbizi, eta gero Kalebarreneko etxe honetantxe.

Francisco eta Consuelok beste bi alaba eduki zituzten: Antonia (1974an auto batek harrapatuta hildakoa, 15 urte zituela) eta Josefa.

Franciscok zenbait kontratistarentzat jardun zuen, hala nola Esteban Zufiria, Pedro Zubia eta Agroman. 1964an lan-istripu larria izan zuen eta ezin izan zuen enkofradore jarraitu. Handik aurrera, obretako zaintzaile jardun zuen, eta bolada batean pinudietan, obrentzako zutikoak egiten. ❖

[es] Esa zona está lejos de los cascos urbanos de Oñati y de Legazpi. Queda más cerca la calle de Legazpi, a la que se llega desde el caserío Zelanda.

En el caserío Imittola no había agua corriente ni electricidad. Hoy en día está derruido. Francisco Caballero había sido pastor en su pueblo natal y una vez en Legazpi empezó a trabajar en la construcción, hasta especializarse como encofrador.

En Imittola, Francisco y Consuelo vivieron con Hipólito Hurtado, hermano de aquella. De allí pasaron al caserío Zatui, que estaba bastante más cercano al casco urbano de Legazpi; y de allí al palacio de Olaberria, que ahora es una edificación elegante, pero entonces no era muy apropiada. Y finalmente, pudieron instalarse en el casco urbano en la casa Gerranea Menor de la Calle Vieja, al lado de los pórticos de la parroquia. De ahí pasaron a la casa que nos ocupa.

Francisco y Consuelo tuvieron otras dos hijas, Antonia (muerta a los quince años en 1974, atropellada por un coche) y Josefa.

Francisco trabajó para varios contratistas, como Esteban Zufiria, Pedro Zubia y Agroman. En 1964 tuvo un accidente laboral grave y no pudo continuar como encofrador. Siguió como vigilante de obras y durante una época también trabajó en pinares haciendo puntales para las obras. ❖



08 _ kalebarren

ANDUEZANEA (Lasanea, Etxeberri, Antoninea) 9 ANDUEZANEA (Lasanea, Etxeberri, Antoninea)



Anduezanea (J.L.U.).



Kalebarreneko etxeen atzeko aldea (Felisa Anduezak emana).

[eu]

Etxe hau 1989an eraitsi zuten. Handik aurrera, alderdi honetan Errotaritxo eta Xesterokoa baino ez ziren zutik gelditu.

Hemeretzigarren mende bukaera aldera Lasanea esaten zioten etxeari, lasatarrak bizi ziren-eta. Eta horren aurretik, gure informatzaile Felisa Anduezak (1929) uste du "Etxeberria" zuela izena; halaxe azaltzen da askoz geroago ere, 1949ko agiri batean; alegia, aldamenean, Leona Zabaletaren etxean hiru solairu gehiago egiteko, baimena emateko agirian.

Hango alabetako bat, Manuela Antonia Lasa Iturbe (ama legazpiarra zeukana eta aita Ezkiokoa), bertara ezkondu zen 1879an Brinkolako Agirrezabal baserriko Jose Francisco Andueza Agirrerekin. Anduezatar hura arotza zen. Besteak beste altzariak egiten zituen.

Ez dakigu noiztik, baina hogeigarren mende hasieran behintzat, beheko solairuan upelak zeuden, sagardoa saltzen zutelarik; orduan ez zegoen txotxik, bezeroari pitxarrean ematen zitzaion edaria. Dolarea, hala ere, aldameneko etxean zegoen, Domingoenean, gero Udaberri taberna egongo zen tokian. Barrutik ate bat zegoen etxe batetik bestera pasatzeko.

Felisa Anduezak gogoan du bere ume eta gaztaroan ardoa ere saltzen zela bere etxeko bebarruan, "baina Patriziok Ekonomatoa zabaldu zuenean utzi egin genion".

Manuela Antonia Lasak eta Jose Francisco Anduezak hiru seme eta alaba bat izan zituzten: (Trinidad) Santiago (1880), Florentina (1882), Pedro (1884) eta Luis (1887); eta lehenbizikoa, Santiago, gelditu zen etxean, Zestoako emakume batekin ezkonduta.

Luis sukaldaria izan zen. Badago 1912ko argazki bat, non azaltzen baita Donostiako jatetxe batean lanean, Restaurant Monte Ygueldo delakoan.

Santiago oso gizon ezaguna izan zen. Delineatzaile jardun zuen, Patrizio Etxeberriarentzat asko, baina herritik kanpora ere bai, esaterako Xabierko jesuiten frontoia egin zuelarik. Legazpin, adibidez, Crispinen etxea (Laubide ondoan) eta Juan Azurmendirena (Ola-

[es]

Este edificio se demolió en 1989. A partir de entonces, en esta zona de la Calle Vieja solo quedaron en pie Errotaritxo y Xesterokoa.

A fines del siglo XIX se le denominaba Lasanea o Casa de los Lasa, ya que vivía una familia de este apellido. Y anteriormente, nuestra informante (Felisa Andueza, 1929) cree que a la casa la llamaban Etxeberria; y también aparece esa denominación en un documento bastante posterior, de 1949, en el que Francisco Andueza da permiso para que en la casa contigua, de Leona Zabaleta, se levanten varias alturas.

Una hija de la casa, Manuela Antonia Lasa Iturbe (de madre legazpiarra y padre ezkiotarra), se casó en 1879 con Francisco Andueza Aguirre, del caserío Agirrezabal de Brinkola y se pusieron a vivir en esta casa de la novia. Francisco era carpintero, y entre otras cosas, se dedicaba a fabricar muebles.

Se sabe que al menos desde comienzos del siglo XX, en la planta baja, había barricas de sidra para la venta al público. Entonces se vendía la sidra en jarras, no existía la costumbre del txotx. La prensa, no obstante estaba en la casa de al lado, Domingonea, la que luego albergaría el bar Udaberri. En la zona interior había una puerta para pasar de una casa a otra.

Felisa Andueza recuerda que en su infancia y juventud también se vendía vino en la planta baja, "pero cuando Patricio abrió el Economato lo dejamos".

Manuela Antonia Lasa y Francisco Andueza tuvieron tres hijos y una hija: (Trinidad) Santiago (1880), Florentina (1882), Pedro (1884) y Luis (1887); y el primogénito, Santiago, es quien siguió en la casa, casado con una mujer de Zestoa.

Luis fue cocinero. Aparece en una fotografía de 1912 como integrante del plantel del Restaurant Monte Ygueldo, que estaba situado en Donostia.

Santiago Andueza fue un hombre muy conocido en el pueblo. Trabajó como delineante, tanto para Patricio



Luis Andueza Lasa sukaldaria, 1912an Monte Ygueldo jatetxean. Eserita, ezkerreko lehena (Felisa Anduezak emana).



Francisco Andueza (Felisa Anduezak emana).



Anduezanea etxearen terrazan: Francisco Andueza Agirre (Agirrezabal, Legazpi, 1853), Manuela Lasa Iturbe (Kalebarren, Legazpi, 1843), Santiago Andueza Lasa (Kalebarren, Legazpi, 1880) eta Eulalia Ugarte Unanue (Zestoa, 1885) (Ignacio Agirre, Burdinola Elkartea, 9x12.20).

[eu] berri aldean) diseinatu zituen. Obra-zuzendari ere aritu zen. 1934an, Eusko Alderdi Jeltzaleak erabaki zuenean Gipuzkoako udaletxe guztietan dimisioak aurkeztu eta udal-taldeak bertan behera uztea, gobernadore zibilak gestorak izendatu zituen eta, Legazpin, adibidez, Santiago Andueza ipini zuen alkate. 1936. urte hasierako hauteskundeak arte egon zen. Aizkorri aldeko iturburuetatik ura herrira ekartzeko lanei hasiera ematea izan zen gizon honen lorpenetako bat.

Eulalia Ugarte Unanuerekin (Zestoa, 1888-1974) ezkondu zen Santiago Andueza (1880-1958). Hura, Eulalia, Lasaoko etxe batekoa zen, trenbidea egitean

como para otros clientes de dentro y fuera de Legazpi. [es] Por ejemplo, diseñó las casas de Crispín Irizar (junto a Laubide) y de Juan Azurmendi (en la zona de Olaberria) y el frontón del colegio de los jesusitas de Javier. También fue director de obra. En 1934, cuando el PNV decidió presentar dimisiones en todas las corporaciones de Gipuzkoa, el gobernador civil nombró gestoras y en Legazpi puso como alcalde a Santiago. Permaneció en el cargo hasta las elecciones locales de comienzos del 36. Uno de sus logros fue dar comienzo a las obras de traída de aguas desde los manantiales de Aizkorri.

[eu] desagertu egin zena. Neskame etorri zen Urretxuko etxe batera, Gracian Alberdi enpresa-buruarenera, eta han zegoela Santiago ezagutu eta gazterik ezkondu zen, hogei urte zituela. Hamaika seme-alaba izan zituzten: Justo Andueza Ugarte (1909), Isabel (1910), Damian (1912), Luis (1914), Bittor (1916), Maria (1917), Angeles (1920), Juan (1921), Alejo (1924), Natividad (1927) eta Felisa (1929). Lehenbiziko bi semealabak gazterik hil ziren; aurrena, Isabel, gaixotasun baten ondorioz, 10-12 urte zituela; eta Justo, 1936ko gerrakoan, Gijonen, Infiestoko borrokaren ondoren eta ospitale batetik pasa ostean, ez dakite gerra-zaurien ondorioz edo fusilatuta. Eusko Alderdi Jeltzaleko kide zen eta gudariekin joan zen frontera. Luis eta Natividad ere nahiko gazterik hil ziren, lehenengoa Parisen, dirudienez sukaldari zebilela.

Damian, berriz, Patrizioren fabrikan Ajustajen jardun zen, eta 1960ko hamarkadan hil. Bittor ere Patrizioren aritu zen, salmenten atalean, El Diario Vascoko herri-kronista ere izan zen, eta 1981ean hil, 65 urte zituela. Zulokoa (Txoko Zar) etxeko Pilar Alustizarekin ezkondu zen aurrena, eta 1957an alargundu. 1969an berriz ezkondu zen, Teresa Enparanzarekin.

Alejok ere Patrizionean jardun zuen, delineatzaile, eta Eulogia Gorosabelekin ezkondu. Juan ere nahiko gazterik hil zen, seme Juan Mari urtebeteko umea zela. Natividad Apaolazarekin ezkonduta zegoen, hau berriz Teodora Etxaniz, Patrizioren Ospederiako arduradunaren alaba.

Sandaliak egiten ziren hemen

1940ko hamarkadan Talleres Urola delakoa egon zen etxe honen bebarruan eta aldamenekoan (Domingonean). Anduezaneko Bitor Anduezak, Rufino Etxeberriak eta Alonso Alustizak (Gasparren semeak) jarri

[es] Se casó con Eulalia Ugarte Unanue (Zestoa, 1888-1974), natural de una casa de Lasao que se demolió al construirse la línea férrea. Vino a trabajar a Urretxu como criada, a casa del empresario Gracián Alberdi, y entonces conoció al que sería su marido. Se casó a los veinte años. Tuvieron once hijos: Justo Andueza Ugarte (1909), Isabel (1910), Damián (1912), Luis (1914), Bittor (1916), María (1917), Ángeles (1920), Juan (1921), Alejo (1924), Natividad (1927) y Felisa (1929). Los dos primeros hijos fallecieron muy jóvenes; Isabel, a los 10-12 años, por enfermedad; y Justo, en la guerra del 36, en Gijón, tras la batalla de Infiesto, y no se sabe si en el hospital o fusilado. Era miembro del PNV y fue al frente en un batallón de gudaris. Luis y Natividad también murieron jóvenes, el primero en París, donde trabajaba según parece como cocinero.

Damián, por su parte, trabajó en la fábrica de Patricio, en el Ajustaje, y murió en los años 60. Bittor también fue empleado de esa fábrica, en la sección de Ventas, además fue cronista local de El Diario Vasco y falleció a los 65 años en 1981. Primero se casó con Pilar Alustiza, de la vecina casa de Zulokoa (Txoko Zar), y enviudó en 1957. En 1969 se volvió a casar, con Teresa Enparanza.

Alejo también trabajó en la fábrica de Patricio, y se casó con Eulogia Gorosabel. Juan murió bastante joven, casado con Natividad Apaolaza, que a su vez era hija de la encargada de la Hospedería de Patricio, Teodora Etxaniz.

Taller de sandalias

En los años 40, en los bajos de esta casa y en los de la de al lado (Domingonea) estuvieron situados los llamados Talleres Urola, para la fabricación de zapatillas para casa y sandalias para mujeres. Crearon la empresa Bitor Anduezak (de la misma Casa Andueza), Rufino Etxeberria y Alonso Alustiza (hijo de Gaspar, de profesión zapatero).

[eu] zuten abian. Etxean egoteko zapatilak eta emakume-sandaliak egiten ziren.

Gutapertxa izeneko materiala erabili ohi zuten, goma modukoa, larrua baino merkeagoa. Langileak emakumeak ziren, adibidez Bikuñaneko Margarita Etxabe. Urretxutik bi andre gazte etorri ohi ziren trenez, Anttoni Gabilondo (Saenz de Buruagarekin ezkondu zen) eta Conchita Gabilondo (lehengusinak), baina hilabete batzuk baino ez zuten egin. Bitor Anduezaren arrebek ere (Maria, Angeles eta Felisak) jarduten zuten gutapertxa josten. Kontabilitatearen arduraduna, berriz, Brinkolazargo Mateo Zabaleta.

Bitor Anduezak Patrizioneko lana utzi eta horretan aritu zen bolada batean. Hilabete batzuen ondoren utzi eta Patrizionera bueltatu zen. Rufino Etxeberriak, Bitorrekin bateratsu, negozioa utzi eta MEL sortu zuen. Alonso Alustiza geratu zen enpresaren aurrean, baina denbora gutxiz. Lanbidez zapataria zen.

1950eko hamarkadatik aurrera, gurasoak eta hiru alaba ezkongabe bizi izan ziren Anduezanean; Maria, Angeles eta Felisa, alegia. Ahizpok haurrentzako arropadenda jarri zuten abian, 1990ean itxi zena, non hamalau urte arteko umeendako jantziak saltzen zituzten. 'Casa Andueza' esan ohi zioten eta bertan Felisa egoten zen, beste bi ahizpak etxean josten aritzen zirelarik. Jostun sonatuak izan ziren Maria eta Angeles, eta Mariak ondo egiten zuen pilotan, frontoira nahiko sarri joaten zelarik. Felisa trebea zen brodatzen. Ilintxa futbol-taldearen ikurra anaia Bittorrek diseinatu zuen, eta ondoren Felisak brodatu hasierako kamiseta haiek banan-bana.

1952ko abenduaren 29an ezbehar latza gertatu zen. Bittor Anduezaren seme Bittor, bost urtekoa, ari zen jolasten bebarruan aldeko Paco Iriondorekin. Biak lagun minak. Ihes egin zien baloiak, atera ziren kalera eta orduantxe Zepelin garraio-enpresako kamioia pasatu. Biak hil ziren. Handik urte gutxira, Bittorrek eta Pilar Alustizak beste ume bat izan zuten, eta hura ere Bittor izenez bataiatu.

[es] Usaban un material llamado gutapercha, parecido a la goma y más barato que la piel. Las operarias eran mujeres, por ejemplo Margarita Etxabe, de Bikuñanea y las hermanas de Bitor Andueza (María, Ángeles y Felisa). Durante unos meses vinieron en tren, desde Urretxu, Anttoni y Conchita Gabilondo, y la primera se casaría luego con el legazpiarra Sáenz de Buruaga. De la contabilidad se encargaba Mateo Zabaleta, nacido en Brinkolazar.

Bitor Andueza dejó la fábrica de Patricio para embarcarse en este negocio, pero a los meses lo dejó para volver a la gran factoría. Rufino Etxeberria abandonó el taller en la misma época y fundó MEL. Alonso Alustiza fue el único que siguió con el negocio, pero no por mucho tiempo.

A partir de los años 50 vivieron los padres y tres hijas solteras en Anduezanea: María, Ángeles y Felisa. Pusieron en marcha una tienda de ropa infantil (hasta los catorce años), que cerró en 1994. Le decían 'Casa Andueza' y solía atender a la clientela Felisa Andueza, mientras las dos hermanas diseñaban y cosían en casa. María y Ángeles fueron modistas renombradas, y la primera también destacaba como pelotari y acudía con frecuencia al frontón. Felisa fue muy buena bordadora. Bittor diseñó el escudo del equipo de fútbol del Ilintxa, y Felisa bordó las primeras camisetas una a una.

El 29 de diciembre de 1952 ocurrió una gran desgracia. El pequeño Bittor, de cinco años, hijo de Bittor, se hallaba jugando en la planta baja de la casa junto con Paco Iriondo, vecino de al lado. Eran muy amigos. Salieron a la calle corriendo detrás de un balón y en ese momento les atropelló un camión de la empresa Zepelin. Ambos perdieron la vida. Algo más tarde nació otra criatura, que también recibió el nombre de Bittor.

En los últimos años, la casa tenía abundantes elementos antiguos: en la planta baja, las herramientas del



Javier Andueza etxeko sukalde zaharrean (J.L.U.).



Santiago Andueza (Felisa Anduezak emana).



Felisa, Angeles, Mariatxo, Pilar eta Justo (Felisa Anduezak emana).

[eu] Etxearen azkeneko etapan nabarmenak ziren antigoaleko aztarnak: bebarruan, aitonaren arotz-tresnak eta zenbait upel; sukaldean, beheko sua; eta gelaren batean aitonak egindako ohea.

1960ko hamarkada hasieran alde egin zuten etxetik azkeneko hiru senideak, aipatutako hiru ahizpak, Saturnino Telleria kaleko pisu batean jarri zirelarik bizi izaten. Lehenengo Maria hil zen, gero Angeles (2013an) eta egun Felisa da bizi den bakarra. ❖

[es] abuelo y varios toneles; en la cocina, fuego bajo; y en alguna habitación, cama hecha por el abuelo.

A comienzos de la década de 1960 se trasladaron al piso nuevo de la calle Saturnino Telleria las tres hermanas que vivían en este edificio. Primero murió María, luego Ángeles (2013) y hoy solo vive Felisa. ❖



08 _ kalebarren

DOMINGONEA (Etxeberri, Botoneria) 10 DOMINGONEA (Etxeberri, Botoneria)



Domingonea eta, ezkerreko atean, Udaberri taberna.

[eu]

1832an Echeverri izenez agertzen da. Jabea, orduan, Ygnacio de Aztiria zen (eta handik aurrera ere aztiriatarrak izango ziren). Bizilagunak, berriz, Juana de Guridi eta Francisco de Goya.

1843an, Joan Francisco Goya Oria (arotza) eta Maria Ygnacia Vergaraeche Guridi senar-emazteak bizi ziren, bi alabarekin: Maria Joaquina eta Manuela, biak jostunak.

Gero, familia hau bertatik ezkutatu eta aspaldiko nagusi haren ondorengo bat agertzen zaigu bertan bizitzen; alegia, Domingo Aztiria Arrazola (1860), Ygnacio de Aztiriaren biloba. Domingoren aita, Juan Maria, Urzelaikoa zen, eta Oñatiko Leona Arrazolarekin ezkondua.

Domingo Aztiriak, 1910ean, 50 urte zituen, arotza zen eta hirugarrenez zegoen ezkonduta. Lehenbiziko aldiz, Zegamako Maria Isabel Larrea Irizarrekin uztartu zen; bigarrenez, Mantxolaaundiko Josefa Francisca Agirre Villarrekin, eta hirugarrenez, honen ahizpa Maria Pilarrekin. Baina gertatu zen Maria Pilar etxe honetara ezkondu zenean alarguna zela, eta Iruñean ezkonduta egon zenean bi seme-alaba eduki zituela Huartetar batekin: Florencio Huarte Aguirre eta Benita Huarte Aguirre.

Baina etxea, gero, Domingo Aztiria Arrazolaren iloba batentzat izan zen; alegia, Urzelaiko Francisco Mari Aztiria Arrazolaren (1856), seme Jose Leon Aztiria Zalduarentzat (1891). Gizon honek Urzelain jarraitu zuen bizitzen, gero etxea egin zuen Urtatzako urtegira bidean eta azkeneko urteak Kantabrian eman zituen, iloba batekin.

Patrizio Etxeberriak pentsio modukoa muntatu ote zuen hemen, bere bulegoetan lanean hasten ziren gazteentzat… Besteak beste, Inozentzio Olearen anaia bat bizi izan omen zen hor.

1936ko gerra ostean, Bitor Anduezak (Anduezanekoa), Rufino Etxeberriak eta Alonso Alustizak (Gasparren semeak) Talleres Urola ipini zuten abian hemen, aldameneko Anduezaneko bebarrua ere hartuta, etxean egoteko zapatilak eta sandaliak egiten zituztelarik. Langileak emakumezkoak ziren eta, kontable, Mateo Zaba-

[es]

En 1832 aparece con el nombre de Echeverri. Entonces, el propietario era Ygnacio de Aztiria, y a partir de entonces la casa siguió perteneciendo a gente de este apellido. Los inquilinos de entonces eran Juana de Guridi eta Francisco de Goya.

En 1843, vivían aquí los esposos Joan Francisco Goya Oria (carpintero) y Maria Ygnacia Vergaraeche, junto con sus hijas María Joaquina y Manuela, ambas costureras.

Posteriormente, esta familia dejó de habitar la casa y nos aparece como vecino un nieto del antiguo propietario: Domingo Aztiria Arrazola (1860). Su padre, Juan María, era del caserío Urzelai; y la madre, Leona Arrazola, natural de Oñati.

En 1910 Domingo Aztiria contaba con 50 años, trabajaba como carpintero y estaba casado por tercera vez. Primero se casó con la zegamarra Maria Isabel Larrea Irizar; luego, con Josefa Francisca Agirre Villar, de Mantxolaaundi; y más tarde, con una hermana de esta última, Mª Pilar.

Mª Pilar Agirre Villar, al llegar a esta casa, era viuda y en su anterior etapa en Pamplona, casada con una persona de apellido Huarte, había tenido dos hijos: Florencio y Benita Huarte Agirre.

Esta casa, luego, perteneció a un sobrino de Domingo Aztiria Arrazola: José León Aztiria Zaldua (1891), hijo de Francisco Mari Aztiria Arrazola (1856), del caserío Urzelai. José León siguió viviendo en Urzelai, luego se hizo una casa al lado del camino de subida al pantano de Urtatza, siempre soltero, y acabó en casa de una sobrina (hija de su hermana) en Cantabria.

Nos comentaron que Patricio Etxeberria montó aquí una pensión, destinada a los jóvenes que llegaban a trabajar en sus oficinas. Uno de los alojados fue un hermano del bertsolari Inozentzio Olea.

Tras la guerra de 1936, Bitor Andueza (de Casa Andueza), Rufino Etxeberria y Alonso Alustiza (hijo de Gaspar) montaron aquí y en la planta inferior de Casa Andueza la empresa Talleres Urola, para la fabricación de zapatillas de estar en casa y sandalias para mujer. Todas las empleadas eran mujeres, y tenían de contable a Mateo



Botoneria, eskuinaldean (Javier Anduezak emana).



Mª Dolores Gerriko eta Botoneriako Txomin Alzelai, eskuinaldean (Tere Murgiondok emana.)

[eu] leta (Brinkolazargoa) jarduten zen. Anduezaneko atalean gehiago sakondu dugu.

Maria Etxeberriaren botoi-fabrika

Gero 'Botoneria' esan zitzaion etxe honi. Maria Etxeberriak, Joaquin Gerrikoren alargunak, sortu zuen botoi-fabrika hau. Lehendik bazegoen familia loturarik eraikin honekin. Izan ere, lehen aipatutako Benita Huarte hori Pedro Alzelai Txintxurretarekin ezkondu baitzen, hau berriz Oñatitik etorritakoa Legazpira; eta hauen seme Txomin, Maria Dolores Gerriko Etxeberriarekin ezkonduta zegoen, alegia, enpresaren sortzailearen alabarekin.

Maria 1946an gelditu zen alargun eta hurrengo urtean ekin zion enpresari, besteak beste Zoilo Aldasoro koinatuak (PESAko pertsonal buruak) animatuta. Berak ez zuen arlo hori ezagutzen eta Iruñetik gizon bat ekarri zuen, Antonio Yunca, gero herrian 'El botonero' esaten ziotena. Geroago, enpresa hazi egin zen, Plásticos MEL (Maria Etxeberria Legazpia) izena hartu zuen eta Mantxola aldeko eraikin berri eta handi batera aldatu. Handik aurrera, Mariaren seme zaharrenak, Nicolasek, hartu zuen fabrikaren gidaritza.

Zabaleta (nacido en Brinkolazar). Hemos desarrollado este asunto algo más en el apartado relativo a Casa Andueza. [es]

María Etxeberria monta un taller de botones

Más tarde, a esta casa se le llamó 'La Botonería'. María Etxeberria, viuda de Joaquín Gerriko, fue la fundadora de esta empresa. Ya anteriormente tenía conexión con el edificio: la mencionada Benita Huarte se había casado con Pedro Alzelai Txintxurreta, un hombre llegado desde Oñati; y precisamente un hijo de éstos, Txomin, estaba casado con María Dolores Gerriko Etxeberria, hija de la fundadora de la empresa.

María Etxeberria enviudó en 1946 y al año siguiente fundó la empresa de botones, en parte animada por su cuñado Zoilo Aldasoro, el jefe de personal de la empresa de Patricio Etxeberria. No conocía este sector y por ello trajo a Legazpi a un especialista de Pamplona, Antonio Yunca, al que luego llamaron 'El botonero'. Más tarde la empresa creció y se convirtió en Plásticos MEL (María Etxeberria Legazpia), con nuevas y grandes instalaciones en la zona de Mantxola. A partir de entonces, la dirección corrió a cargo de Nicolás Gerriko, el hijo mayor de María.



Ezkerretik hasita, Maria Etxeberria (Botoneriako nagusia), bi ahizpa, Juana eta Martxeli eta, azken honen senarra, Zoilo Aldasoro (Juli Ertzillak emana).



Udaberri taberna



Nicolas Gerriko eta Mª Dolores Aseginolaza moja, Venezuelan (Socorro eta Mª Cruz Aseginolazak emana)

[eu] Mariaren gurasoak Zegamatik etorriak ziren 1936ko gerrakoan. Ordu arte Kontzejuko taberna-jatetxea kudeatzen arituak ziren, hogeita bost urtez, baina nazionalistak izan eta zigorra etorri zitzaien: Francoren altxamenduarekin bat egin zutenek negozio hori kendu egin zieten. Mariaren aita Ondarretako kartzelan eduki zuten preso bederatzi hilabetez. Aurretik, zortzi urtez gobernatu zuen Urbiako fonda (1928-36 epean) eta Zegaman falangista eta karlistak nagusitu zirenean salatu egin zuten, espioi-lanean aritua zela-eta astoarekin Urbiako joan-etorriak egiten zituenean.

Joaquin Gerrikori dagokionez, familiak denda-taberna zeukan Zegaman. Legazpira etorri eta garraio-enpresa jarri zuen abian. Kamioi bakarra zeukan "baina oso handia, Gipuzkoako handiena, esaten zutenez", haren iloba Juli Ertzillak adierazi digunez.

Legazpira etorri eta, lehenengo, eliza ondoko Irubide taberna-jatetxean egin zuen lan Maria Etxeberriak, ahizpa Martxelirekin batera. Bigarren hau Zoilo Aldasoro, PESAko personal-buruarekin ezkondu zen, biak ala biak adinean aurrera zihoazenean.

Botoiak egiten ziren Kale Zaharreko toki honetan. Lehengaia, galalith izenekoa, Peineteriari erosten zioten.

[es] Los padres de María Etxeberria habían llegado desde Zegama en el contexto de la guerra de 1936. Hasta entonces, y a lo largo de 25 años, habían regentado la taberna-restaurante del Concejo. Al ser de ideología nacionalista sufrieron castigo; las nuevas autoridades les apartaron del negocio.

Además, el padre de María pasó nueve meses preso en la cárcel de Ondarreta. Durante el periodo 1928-36 había regentado la fonda de Urbia, y los carlistas y falangistas de Zegama le acusaron de ejercer de espía en los trayectos que hacía con su burro a Urbia.

La familia de Joaquín Gerriko tuvo tienda-taberna de Zegama. Al llegar a Legazpi, montó una empresa de transporte, con un solo camión, "pero muy grande, según decían el mayor de Gipuzkoa", nos comentó su sobrina Juli Ercilla.

Tras llegar a Legazpi, María Etxeberria comenzó a trabajar en la taberna-restaurante Irubide, establecimiento abierto poco antes en la Calle Nueva, al lado de la iglesia. Le acompañaba su hermana Martxeli, quien, ya entrada en años, se casó con Zoilo Aldasoro, jefe de personal de PESA, de edad similar.

Lo dicho: en esta casa de la Calle Vieja se fabricaban botones. La materia prima, de nombre galalith, la com-

[eu] Botoiak kartoi batzuetan josita merkaturatzen ziren eta. Baita ere, nakarina eta 'pusiglassezko' botoiak fabrikatzen ziren, azkeneko hauek gardenak zirelarik. Botoien fabrikazio-prozesuaren berri jakin nahi dutenek, Olatz Conderen azterlan hau irakur dezakete: 'La otra historia de la industrialización de Legazpi', 'Urola Garaia: mende bat iruditan' bildumako 9. alea, Zum Edizioak.

Maria eta Joaquinek lau seme-alaba izan zituzten: Nicolas (Encarnacion Otsoa de Retana gasteiztarrarekin ezkondua, gero plastikoen arloko enpresa-gizona izana, Kolonbian ere bizitutakoa), Maria Dolores (Txomin Alzelairekin ezkondua), Maria Luisa (Eugenio Altunarekin ezkondua) eta Elias (gazterik hila, 1961ean).

Txomin Alzelai botoi-fabrikan jardun zen, Patrizioren fabrikatik alde eginda, eta anaia Jose Marik laguntzen zion pixka bat kontabilitate-kontuetan. Honek, berriz, Patrizioneko Erosketak atalean egiten zuen lan, bulegari.

Geroago, 1970eko hamarkadan, Maria Etxeberriaren MEL plastiko-enpresa Mantxola aldeko pabiloi berri batean zegoela, Txomin Alzelaik (Maria Etxeberriaren suhia) Kale Zaharreko lantegi hartan jarraitu zuen lanean, orduan ere kontabilitatean anaia Jose Marik laguntzen ziolarik. Baina etapa hartan ez zen botoirik egiten, baizik eta komuneko altzairuetarako plastikozko osagaiak.

'Udaberri' taberna egon zen 80ko hamarkadan

1980ko hamarkada hasieran, Txomin Alzelai hil egin zen. Alargunak (Maria Dolores Gerriko) taberna jarri zuen etxeko beheko solairuan, 'Udaberri' izenekoa. Seme-alabek (Miren, Gema, Amaia, Elias, Nekane) laguntzen zioten, Gurutz txikia zen oraindik.

Gutxi gorabehera 1983-1988 epean funtzionatu zuen eta behartuta itxi zuten, etxea bota behar zutelako. Sukaldean Maria Doloresek era askotako pintxoak egiten zituen eta famatua egin zen hango txorizo errea, bezeroak berak erretzen zuena zeramikazko ontzi batean, txerritxo itxurakoa. ❖

[es] praban a la Peinetería. Parte de las empleadas se dedicaban a coserlos en unos cartones, porque se comercializaban de esta manera. También se hacían botones de nacarina y pusiglass, estos últimos transparentes. Los interesados en el sistema de fabricación pueden el leer el artículo de Olatz Conde en 'La otra historia de la industrialización de Legazpi', publicado en el noveno tomo de la colección 'Urola Garaia: mende bat iruditan', de Zum Edizioak.

María y Joaquín tuvieron cuatro hijos: Nicolás Gerriko Etxeberria (casado con la vitoriana Encarnación Otsoa de Retana, se dedicó al sector de los plásticos y residió también en Colombia), María Dolores (casada con Txomin Alzelai), María Luisa (casada con Eugenio Altuna) y Elías (muerto joven, en 1961).

Txomin Alzelai trabajó en esta fáctoría de botones, tras abandonar la fábrica de Patricio Etxeberria. Le ayudaba en la contabilidad su hermano José Mari, quien siguió en la fábrica de herramientas, en la sección de Compras.

Más tarde, en la década de 1970, cuando la empresa Plásticos MEL se hallaba en un pabellón nuevo de la zona de Mantxola, Txomin Alzelai (yerno de María Etxeberria) siguió trabajando en el viejo taller de esta casa de la Calle Vieja, pero en esa nueva etapa no se fabricaban botones, sino componentes de plástico para muebles de baño. En esos años también le ayudó en la contabiliad su hermano José Mari.

En los 80 estuvo el bar 'Udaberri'

A comienzos de los años 80 falleció Txomin Alzelai. Su viuda, María Dolores Gerriko, montó un bar en la planta baja de esta casa, de nombre 'Udaberri'. Le ayudaban sus hijos Miren, Gema, Amaia, Elías y Nekane; Gurutz era aún menor de edad. Funcionó aproximadamente en el periodo 1983-1988, y se cerró porque la casa iba a ser derruida.

En la cocina trabajaba María Dolores, elaborando pintxos variados. Se hizo famoso el chorizo, que era asado por el mismo cliente en un recipiente de cerámica con forma de cerdito. ❖



08 _ kalebarren

IRIBARREN eta ERROTARITXONEA (Bekoetxea, kalebarren, Bazterrikanea)

11

IRIBARREN y ERROTARITXONEA (Bekoetxea, kalebarren, Bazterrikanea)



Ezkerreko geziarekin, Errotaritxonea; eskuinekoarekin, Iribarren (Paquita Lizarraldek emana).

[eu]

Hogeigarren mende ia osoan zehar, hemen eraikin bat bakarra egon zen, baina bi aterekin, bi sarrerarekin. Lehenago, ordea, bi etxe zeuden, independenteak, bata bestearen segidan. Parrokiatik gertuen, Iribarren edo Erribarren zegoen, eta aldamenean Bekoetxea. Geroago, ezkontza bidez, familia bakar bat egin zen bi etxeen jabe. Iribarren deitura desagertu egin zen eta jende artean Errotaritxonea (edo Errotatxo) etxe-izena nagusitu. Harrigarria ere bada, izan ere ez dirudi hor sekula errotarik egon zenik.

Aurrena Iriberri izeneko eraikinari helduko diogu. Urretxuko udal artxiboan bada 1609ko agiri bat honela mintzo dena: "Joan martinez de Vicuna como dueño de la cassa de Varrenolea y su herreria y molino y Caserias de eguiçaval, murua, masucariola e yribarren".

Oñatiko protokolo artxiboan aurkitu dugun lehen aipamena (AHPG 1/4022, A 149r-150v) 1617koa da. Bertan adierazten denez, Iribarreneko nagusiak Barrenolako (Bengolea) jabeak ziren baita ere; alegia, Juan Martínez de Vicuña y Barrenolea eta emaztea, María López de Aguirre. Eurenak ziren, baita ere, Egizabal, Murua de Suso (Murugarakoa) eta Masukariola. 1622ko beste agiri batean "la casilla de Yribarren" aipatzen da. Hori baino lehenago, etxe-nagusiak Diego Martínez de Vicuña kapitaina eta emazte María de Arriaran izan ziren.

1649an, Catalina de Vicuña egin zen Iribarreneko jabe. Aipatutako Juan haren alaba, hain zuzen ere. Cristobal de Sorreguieta hernaniarrarekin zegoen ezkonduta.

1775ean, jabea Joaquín de Vicuña genuen; eta 1832an, Domingo Etxeberria. Hemeretzigarren mende erdialdera, lagunok bizi ziren bertan: Jose Antonio Arrieta Berasategi (Alegia, 1806) eta emazte Joaquina Prudencia Mantxola (Legazpi, 1805), 1830an ezkonduak eta seme-alabok: Jose Francisco (1931), Miguel Joaquin (1835), Jose Domingo (1838), Jose Martin (1841) eta Josefa Agustina (1844). 1857an, aurreneko hiru semeak papergintzan ari ziren, Legazpin bertan uste dugu, eta Joaquina Prudenciak urte dezente zeraman alargun, senarra 1846an hil baitzitzaion.

[es]

A lo largo de casi todo el siglo XX este ha sido un inmueble con dos partes y dos puertas de entrada, pero antiguamente se trataba de dos edificios independientes situados en línea, uno llamado Iribarren o Erribarren (el más cercano a la parroquia), el otro Becoechea. Luego, mediante matrimonio, a fines del siglo XIX, las dos casas pasaron a pertenecer a un solo linaje, el nombre de Iribarren desapareció y tomó fuerza la denominación de Errotaritxonea o Errotatxo. Lo curioso es que no existe constancia de que estos dos edificios fueran molino.

Empezaremos por el edifico que se llamaba Iribarren. En el archivo municipal de Urretxu tenemos un documento del 1609 que indica lo siguiente: "Joan martinez de Vicuna como dueño de la cassa de Varrenolea y su herreria y molino y Caserias de eguiçaval, murua, masucariola e yribarren".

La primera mención de Iribarren que hemos hallado en el archivo de protocolos de Oñati es de 1617 (AHPG 1/4022, A 149r-150v). Entonces, los dueños eran los señores de la ferrería y molino de Barrenolea (Bengolea): Juan Martínez de Vicuña y Barrenolea y su esposa María López de Aguirre, quienes poseían también los caseríos Egizabal, Murua de Suso (Murugarakoa) y Masukariola. En otro documento de 1622 se habla de la "casilla" de Yribarren. Anteriormente, la casa había pertenecido al capitán Diego Martinez de Vicuña y su esposa María de Arriaran.

En 1649, Iribarren pasó a manos de Catalina de Vicuña, hija del mencionado, Juan. Esta mujer se había casado con Cristóbal de Sorreguieta, de Hernani.

En 1775, el propietario de Iribarren era Joaquín de Vicuña; y en 1832, Domingo Etxeberria. A mediados del siglo XIX, vivían en este inmueble José Antonio Arrieta Berasategi (Alegia, 1806) y su esposa Joaquina Prudencia Mantxola (Legazpi, 1805), que se habían casado en 1830. Tuvieron estos hijos: José Francisco (1931), Miguel Joaquín (1835), José Domingo (1838), José Martín (1841) y Josefa Agustina (1844). En el año



Errotaritxoko bost senide. Eugenio, Saturnino, Juan, Silvestra (Goenagara ezkondua) eta Benita (Plazaolako Cayetano Elorzarekin ezkondua) (Araceli Urzelaik emana).



Saturnino eta Eugenio Urzelai anaiak.



Bonifacio Urzelai (1895) (Gorka Urzelaik emana).



Saturnino Urzelai (Araceli Urzelaik emana).

[eu] 1868ko irailean, Valentin Arrieta Mendizabal delakoak (Zumarragan jaioa, 35 urtekoa eta ogibidez igeltseroa) etxe hau saldu zion Miguel Ignacio Salsamendiri, hau berriz legazpiarra, 36 urtekoa, ezkondua eta saskigilea. 61 metro koadroko eraikina genuen. Arrietak, urte horretan bertan, Jose Mª Urrestarazu Egaña oñatiarrari erosia zion.

Eta handik bi hilabetera, 1868ko azaroan, Salsamendik Juan Jose Iñurritegi Aztiriari saldu zion, hau ere legazpiarra, 52 urtekoa, ezkondua eta ogibidez hargina (AHPG 1/4708/238). Salerosketako agirian esaten de-

[es] de 1857, los tres primeros hijos trabajaban en el sector papelero, se supone que en el mismo Legazpi, y Joaquina Prudencia llevaba viuda bastantes años; su marido había muerto en 1846.

En el año 1868, en septiembre, un hombre llamado Valentín Arrieta Mendizabal (natural de Zumarraga, de 35 años y albañil) vendió esta casa, de 61 metros cuadrados de planta, a Miguel Ignacio de Salsamendi, casado, de 36 años, vecino de Legazpi y cestero. A su vez, Arrieta la había comprado al oñatiarra José Mª Urrestarazu Egaña, ese mismo año.



Roberto Aseginolaza, Eugenio Urzelai, Eugenio Arbide, Saturnino Urzelai eta Ignacio edo Jesus Agirre (Araceli Urzelaik emana).



Iribarrenen bizitutako eta alkate izandako Romualdo Etxeberria (Patrizioren biografia liburua, Iñaki Beldarrainena).



Eskuinaldean Bonifacio Urzelai. Besteak, emaztea (Laura de los Santos) eta honen gurasoak. Baita ere, seme-alabak, Oscar eta Mª Laura (Gorka Urzelaik emana).

[eu] nez, etxeak beste eraikinok zituen mugante: hegoaldetik, Ignacio Aztiriaren etxea (Domingonea); eta iparraldetik, Pedro Manuel Guridirena (orduan Bekoetxea esaten ziotena, eta geroago Errotaritxonea edo Errotatxo).

1894an, Felipe Urzelai Agirre bizi zen Iribarrenen. 1859an jaioa zen, Zabalotegin, Kusturrutxu ondoan, eta

Y dos meses después, en noviembre de 1868, Salsamendi la revendió a Juan José Iñurritegi Aztiria, de 52 años, casado y también vecino de Legazpi, y de profesión cantero (AHPG 1/4708/238). Según se dice en el documento de compraventa, la casa lindaba por el sur con la casa de Ignacio Aztiria (Domingonea, Botoneria); y [es]

[eu] 1888an Francisca Guridi Agirrerekin ezkondutakoa. Orduan alaba eta semea zeukaten, Benita (1891), gero Plazaolara ezkonduko zena Cayetano Elorzarekin; eta Isidro (1893). Geroago beste seme-alabok jaio zitzaizkien: Saturnino (1894), Patrizioneko enplegatua eta gero etxe hau heredatu zuena; Bonifacio (1895), zeina Uruguaira joan baitzen artzain, sekula itzuli ez zelarik; Juan (1898), hau ere Patrizioneko langilea, Maximiana Pascual errioxarrarekin ezkondu zena; Silbestra (1900), Gerardo Arizmendirekin ezkondu eta lehenbizi Joanaztegin bizitutakoa, gero Goenaga erosi eta hara aldatua); eta Eugenio, hau ere Patrizioren fabrikan jardun zuena.

Felipe Urzelaik, hemeretzigarren mende bukaera aldera erosi egin zion Iribarren Juan Jose Iñurritegi Aztiriari.

1894 eta 1910 urte-bitartean aldaketa gogorra gertatu zen inguru honetan. Felipe Urzelai Francisca Guridi Agirrerekin (1863) ezkonduta zegoenez, eta andre honen gurasoak (Pedro Manuel Guridi eta Mª Jesus Agirre Agirre) Bekoetxeko jabe zirenez, azkenean Felipe aldameneko etxe horren jabe bihurtu zen, eta bere familia horra aldatu zen (Errotaritxonera).

Felipe arotza zen eta parrokiarako lan asko egin zituen, adibidez San Migelgo ermitako erreteila. Defuntuentzako kaxak ere egiten zituen. Esaten zutenez, Burgosko katedralean ere egin zuen lan.

Bai 1910ean bai 1920an, Iribarrenen Romualdo Etxeberria Orueta bizi zen, Elorregin jaiotakoa 1860an eta Patrizio Etxeberriaren lehengusua. 1910erako alargunduta zegoen. Gizon inportantea izan zen. Patrizioren erraminta-fabrikaren hasieran, sozio izan zen (akzioen %20 zeukan) eta hainbat urtez alkate jardun zuen: 1904-06an, 1920-22an eta 1924-30ean.

Romualdorekin batera batera amaginarreba bizi zen (zendutako Agustina Elorza Legorbururen ama) eta seme Tomas. Gizon hau, Tomas Etxeberria Elorza, 1936ko gerra ostean Patrizioren fabrikako gerente izan zen.

[es] por el norte con la de Pedro Manuel Guridi (la denominada entonces Bekoetxea y luego Errotatxo o Errotaritxonea).

En 1894, aparece viviendo aquí Felipe Urzelai Agirre, un hombre nacido en 1859 en Zabalotegi, al lado de Kusturrutxu, y casado en 1888 con Francisca Guridi Agirre. Tenían entonces estos hijos: Benita (1891, casada luego al caserío Plazaola con Cayetano Elorza) e Isidro (1893). Luego les nacerían Saturnino (1894, empleado de Patricio Etxeberria, y que luego heredó esta casa); Bonifacio (1895, que se marchó de pastor a Uruguay y ya no volvió); Juan (1898, obrero de Patricio Echeverria, vivió en Legazpi casado con la riojana Maximiana Pascual); Silbestra (1900, que se casó con Gerardo Arizmendi a Joanaztegi, para luego comprar el caserío Goenaga y pasar a vivir allí); y Eugenio (que también trabajó en la fábrica de Patricio).

Felipe Urcelay acabó comprando Iribarren a Juan José Iñurritegi Aztiria a fines del XIX.

Entre esa fecha de 1894 y 1910 se produce un cambio drástico en la zona. Dado que la esposa de Felipe Urzelai, Francisca Guridi Agirre (1863), era hija de Pedro Manuel Guridi y Mª Jesús Agirre Agirre, y que Pedro Manuel era dueño de la casa Bekoetxea o Errotaritxonea, finalmente Felipe se convirtió en propietario de estas dos casas adosadas, y su familia, entre 1894 y 1910, se instaló en la casa "de abajo", Errotaritxonea.

Felipe fue carpintero y realizó bastantes trabajos de mantenimiento para la parroquia; por ejemplo, el retejado de la ermita de San Miguel. También hacía féretros y decían que también trabajó en la catedral de Burgos

Tanto en 1910 como en 1920, en Iribarren vivía el viudo Romualdo Etxeberria Orueta, quien era nacido en Elorregi en 1869 y fue alcalde. Residía con su suegra (madre de Agustina Elorza Legorburu) y su hijo Tomás Etxeberria Elorza, que luego en los años posteriores a la guerra del 36 sería gerente de la fábrica de Patricio Etxeberria.

[eu]

Bekoetxea edo Errotaritxonea

Etxe honetan, hemeretzigarren mende erdialdera, Bazterrikatarrak bizi ziren. 1832an, jabea Juaquín de Bazterrica Martinicorena genuen, legazpiarra eta Mª Isabel Elorza Guridirekin ezkondua. Hementxe bizi izan zen hamar seme-alabako familia zabala: Juan Andres (1809-1810), Jose Antonio (1811-1820), Jose Mª (1812-1836), Pedro Ignacio, (1815), Mª Joaquina (1817), Mª Josefa, (1819-1831), Juan Enrique (1820) eta Juan Jose (1821).

Hain zuzen ere, azken seme honek, Juan Jose Bazterrika Elorzak, eman zion segimena etxeari. 1849an, Paulina Agirre Etxeberriarekin ezkondu zen. Baina Juan Jose hil zen eta, 1859an, Paulina berriz ezkondu zen, oraingoan Pedro Manuel Guridi Aranbururekin. Ezkondu eta handik hilabete gutxira, Paulina hil egin zen eta orduan, 1860an, Pedro Manuel Guridik (1826) Mª Jesus Agirre Agirre hartu zuen emaztetzat.

Halaxe, ezkontza bidez, etxearen jabe bihurtu zen Pedro Manuel. 1868an, eraikin hau erre egin zen eta inguruko etxeek diruz lagundu zuten, ohitura zen bezala.

1894an, errentero batzuk bizi izan ziren hemen, Domingo Aztiria Arrazola (1862) fabrika-langilea eta bere ama, Leona Arrazola oñatiar alarguna; eta, baita ere, Bergaretxe-Izagirre familia, Gabiriatik etorria: Francisco eta Isabel, beren lau ume txikiekin (Benito, Vicente, Victoriano eta Dominica).

Bi etxeek bat egin

Ez dakigu Pedro Manuel noiz hil zen. Bai, ordea, haren alaba bat, Francisca Guridi Agirre (Mª Jesus Agirrerekin izandakoa) aldameneko Felipe Urzelairekin ezkondu zela. Felipe hau, Iribarreneko bizilagun ez ezik,

[es]

Bekoetxea o Errotaritxonea

En esta casa, a mediados del siglo XIX, vivían los Bazterrika . En 1832, pertenecía al legazpiarra Juaquín de Bazterrica Martinicorena, quien se había casado con Mª Isabel Elorza Guridi. Residieron en este mismo inmueble y tuvieron diez hijos: Juan Andrés (1809-1810), José Antonio (1811-1820), José Mª (1812-1836), Pedro Ignacio, (1815), Mª Joaquina (1817), Mª Josefa, (1819-1831), Juan Enrique (1820) y Juan José (1821).

Este último hijo Juan José Bazterrika Elorza dio continuidad a la casa. En 1849 se casó con Paulina Agirre Etxeberria. Pero Juan José murió y en 1859 Paulina se esposó con Pedro Manuel Guridi Aranburu. A los meses del casamiento, Paulina falleció, y en 1860 Pedro Manuel Guridi (1826) se enlazó en segundas nupcias con Mª Jesús Agirre Agirre.

Pedro Manuel se convirtió, vía enlace matrimonial, en propietario de la casa. En 1868 el inmueble se quemó, y como era costumbre, todos los caseríos de la zona aportaron cantidades de dinero para su reconstrucción.

En 1894 vivieron aquí, a renta, el jornalero Domingo Aztiria Arrazola (1862), junto con su madre, la viuda oñatiarra Leona Arrazola; y la familia Bergaretxe-Izagirre, llegada de Gabiria (Francisco e Isabel, con sus hijos pequeños Benito, Vicente, Victoriano y Dominica).

Unificación de las dos casas

No sabemos cuando falleció Pedro Manuel. Lo que sí conocemos es que una hija suya y de su segunda esposa Mª Jesús Agirre, Francisca Guridi Agirre, se casó con Felipe Urzelai, el vecino y propietario de la casa de al



Txerri hiltzea Errotaritxon. Gregoria Mauleon eta Araceli, Teresa eta Ignazio Urzelai (Araceli Urzelaik emana).



Errotaritxon txerri hiltzea Jose Mari Intxausti harakinarekin (Araceli Urzelaik emana).

[eu] jabe ere bazen, eta halaxe Urzelai-Guriditarrak bi etxeen jabe bihurtu ziren, eta azkenean bietan bizi.

1894an, Iribarrenen bizi ziren Felipe Urzelai eta emazte Francisca Guridi. 1910ean, berriz, Errotaritxonean edo Bekoetxean bizitzen ageri zaizkigu. Lehen esanda bezala, Iribarrenen, 1910ean, Romualdo Etxeberria bizi zen.

Gero, hogeigarren mende erdialdera, seme Saurnino Urzelai Guridi izan zen bi etxeon jabea. Errotaritxonean bizi izan zen; eta Iribarren izandako horretan anaia Eugenio bizitu zen.

Patrizioren lehenengo langileetako bat izan zen Saturnino. Fabrikan berrogeita hamar bat urte egin zituen. Seme-alabek gogoan zuten nola erredura txikiekin azaltzen zen etxera; burdina-saldak eragindako erredurak, alegia. 73 urte zituela hil zen. Emaztea, Joaquina Alberdi, Atagoitikoa zen, eta Damatara ezkondutakoaren ahizpa. Kontsejuko tabernan lan egindakoa zen eta Saturnino baino hamahiru bat urte lehenago zendu zen.

Zazpi seme-alaba izan zituzten: Juanita (Venezuelan zegoen Eizear baserriko Rufino Galdosekin ezkondu zen eta zahartzaroan hona itzuli); Ignacio, Jose Mari (ezkongabea), Teresa (Jose Cruz Gereñurekin ezkondua); Juliana (ezkongabea), Ana Mari (hamabost urte zituela hildakoa) eta Araxeli (Luciano Ruiz Azpilikueta amezkoarrarekin ezkondua).

[es] lado, Iribarren, y entonces los Urzelai Guridi poblaron ambos inmuebles, además como propietarios.

En 1894, Felipe Urzelai y su esposa Francisca Guridi vivían en Iribarren. En 1910, ya aparecen residiendo en Errotaritxonea o Bekoetxea. Como se ha dicho antes, en Iribarren a principios del siglo XX vivió Romualdo Etxeberria.

Luego, a mediados del siglo XX, el hijo Saturnino Urzelai Guridi fue el propietario de las dos casas contiguas, y residió en Errotaritxonea; la otra, Iribarren, fue el hogar de su hermano Eugenio.

Saturnino fue uno de los primeros obreros de la fábrica de Patricio. Hizo allí alrededor de cincuenta años. Sus hijos recordaban que volvía a casa muchas veces con pequeñas quemaduras de las coladas. Falleció a los 73 años. Su esposa, Joaquina Alberdi, del caserío Atagoiti y hermana de la etxekoandre de Damata, había trabajado en la taberna del concejo y murió unos trece años antes.

Tuvieron siete hijos: Juanita (que residió en Venezuela, tras casarse aquí por poderes con Rufino Galdos de Eizear, y regresó al envejecer); Ignacio, José Mari (soltero), Teresa (casada con José Cruz Gereñu), Juliana (soltera), Ana Mari (que murió a los 15 años) y Araceli (casada con el amescoano Luciano Ruiz Azpilikueta).



Errotaritxoko anai-arrebak 1991n. Ignacio, Araceli, Juanita, Jose Mari, Juli eta Tere (Marian Gereñuk emana).

[eu] Ignacio, seme zaharrena izanik, Errotaritxonean geldi-tu zen bizitzen, Gregoria Mauleonekin ezkonduta. Ganaduzalea zen eta kale-baserri izaerari eutsi zion. Urtero hiltzen zuen txerria etxean eta ingurukoentzat benetako ikuskizuna izan ohi zen. Etxea bota baino urte bat lehenago hil zen; beraz, une latz horretatik libratu zen. Urzelaitarrok atsekabe handiz bizitu zuten etxearen desjabetze eta desagerpena.

Gure berri-emailea, Araxeli, gogoratzen da bera gazte zela bi behi zeudela etxean. Tren-geltoki azpiko zelai batean larratzen ziren. Esnea Del Canto familiari saltzen zitzaion. Araxelik ondo gogoan dauka etxe bakoitzak non zeukan arropa garbitzeko gunea, Urola ibaiko ura erabilita.

Ignaciorekin batera, anai-arreba ezkongabe batzuk bizi izan ziren, Jose Mari eta Juliana.

Iribarren izandako etxean, hain zuzen Romualdo Etxeberria bizi izandako tokian, Serapia eta Nicasio Lasa anai-arrebak bizi izan ziren 1920ko hamarkadan hauek ere errentan, eta Ordiziatik etorrita. Serapia, 1930eko hamarkada hasieran, Eugenio Urzelairekin ezkondu zen (etxeko maiorazkoaren anaiarekin), eta bi seme eduki, Paco eta Nicasio. Serapiaren anaia Nicasio, berriz, sona handiko harakina izan zen. ❖

[es] Fue Ignacio, como hijo mayor, quien luego siguió viviendo en este caserío urbano, casado con Gregoria Mauleon. Era muy aficionado al ganado y las labores del caserío. Todos los años mataba el cerdo en casa y era un acontecimiento para toda la gente de la zona. Falleció un año antes de que se produjera el derribo del edificio, con lo que se libró de ese acontecimiento traumático. Los Urzelai vivieron el proceso de expropiación del inmueble con un gran disgusto.

Nuestra informante, Araceli, recordaba que en su juventud tenían dos vacas, que pastaban en unos terrenos cercanos, de debajo del apeadero de la Renfe. Y también, que se vendía leche a la familia Del Canto. Araceli también remarcó el punto para lavar la ropa que cada casa tenía en zona correspondiente, junto al río Urola.

Pero también vivieron en el caserío dos hermanos solteros, José Mari y Juliana.

En la antigua casa Iribarren, tras la etapa de Romualdo Etxeberria, vivieron, también en alquiler, los hermanos Serapia y Nicasio Lasa, llegados desde Ordizia en los años 20. Serapia se casó a comienzos de la década de 1930 con Eugenio Urzelai, hermano del mayorazgo propietario de las dos viviendas, y tuvieron dos hijos, Paco y Nicasio. El hermano de Serapia, Nicasio Lasa, fue un carnicero renombrado. ❖



08 _ kalebarren

XESTEROKOA (Ermentaritxonea, Herreronea) 12 XESTEROKOA (Ermentaritxonea, Herreronea)



Xesterokoa, ezkerraldean (Paquita Lizarraldek emana).



Xesterokoa, atzeko aldea (Paquita Lizarraldek emana).

[eu]

Etxe hau 1998an bota zuten. Berau eta Errotaritxonea izan ziren Kale Zaharreko azkenak eraitsi zirenak. Hogeigarren mendean Xesterokoa deitu ohi zitzaion, baina azkeneko bizilagunek ez dakite deituraren nondik norakoa. Hogeigarren mende hasierako eskritura batzuek honela diote: "Casa Sesterokoa, también llamada Herreronea".

1843ko agiri batean 'Casa de Aramburu' da deitura, eta orduan agirretar batzuk bizi ziren: Juan Jose Agirre (famili burua) eta Isabel, Francisco, Jose Cruz, Jose Miguel, Cecilia eta Juana Agirre. Baina urte bereko beste agiri batean 'Ermentarichonea' gisa agertzen zaigu.

1857ko dokumentu batean 'La del herrero' izenaz agertzen zaigu. Orduan bi familia bizi ziren bertan: batetik, Jose Plazaola eta Antonia Galarza Guridirena (orduan 85 urtekoak biak ala biak); bestetik, Esteban Andueza Urmeneta eta Manuela Iriondo Egurenena. Estebanen bigarren emaztea zen hori, aurrekoa (Catalina Arrizabalaga) hil egin zen eta.

1894an, berriz, Cipriano Zubia Olaran (1843, Araotz) hargina eta emazte Joaquina Apaolaza Oiarbide (1840, Gabiria) bizi ziren, seme Juan Bautistarekin, hau ere hargina.

Oñatiko madinatarren aroa

Oñatiko kastakoak izan dira etxe honetan hogeigarren mendean bizi izandakoak. Juan Cruz Madina Barrena (Oñati, 1863) jaioterritik alde egin eta, lehenbizi, Urtatzan bizi izan zen, Urtatzaazpikoan zehazki. Hasieran Kataberako meategian egin zuen lan, gero paper-fabrikan. 1889an, Josefa Micaela Andueza Uriarterekin (Legazpiko Ajuex baserria, 1867) ezkondu zen. Damatan jarri ziren bizi izaten, goi-goiko pisuan, baina han urte gutxi egin zuten. Laster Xesterokoa erosi zuten.

[es]

Esta casa fue derruida en 1998. Fue, junto con Errotaritxonea, la última en desaparecer de esa zona de la Calle Vieja. A lo largo del siglo XX se le denominaba Xesterokoa, pero el último linaje que ocupó el edificio desconocía el porqué. Unas escrituras de comienzos del siglo XX rezan así: "Casa Sesterokoa, también llamada Herreronea".

En un documento de 1843 aparece como 'Casa de Aramburu', y entonces la habitaban unos Agirre: el cabeza de familia Juan José Agirre e Isabel, Francisco, José Cruz, José Miguel, Cecilia y Juana Agirre. Pero ese mismo año, en otro documento se la cita como 'Ermentarichonea'.

En 1857 aparece como 'La del herrero'. Entonces era la vivienda de dos familias. Por un lado, José Plazaola y Antonia Galarza Guridi, ambos de 85 años; por otro, Esteban Andueza Urmeneta y Manuela Iriondo Eguren, que era la segunda esposa de Esteban, dado que la anterior, Catalina Arrizabalaga, había fallecido.

En 1894 la situación ha cambiado. Entonces residen el cantero Cipriano Zubia Olaran (1843, Araotz) y su mujer Joaquina Apaolaza Oiarbide (1840, Gabiria) , con el hijo Juan Bautista, también cantero.

Entran los Madina de Oñati

Los habitantes de esta casa en el siglo XX fueron originarios de Oñati. Juan Cruz Madina Barrena (Oñati, 1863) dejó su pueblo natal para instalarse en el caserío Urtatzaazpikoa. Primero trabajó en las minas de Katabera, luego en la Papelera. En 1889 se casó con Josefa Micaela Andueza Uriarte, nacida en 1867 en el caserío legazpiarra de Ajuex. Entonces se pusieron a vivir en el piso superior de la casa Damata, pero no duraron mucho allí, ya que pronto adquirieron la casa Xesterokoa.



Josefa Micaela Andueza Uriarte eta Juan Cruz Madina Barrena, alaba Hermenegildarekin (Paquita Lizarraldek emana).



Hermenegilda Madina 1924an, ezkontzakoan (Paquita Lizarraldek emana).



Joxe Lizarralde 1924an, ezkontzakoan (Paquita Lizarraldek emana).

[eu] Juan Cruz eta Josefa Micaelak sei seme-alaba izan zituzten: Vicente (1890), Cayetano (1893, Argentinara joandakoa), Jose Ignacio (1896), Hermenegilda (1899), Julia eta Cornelio. Ia denak gazterik hil ziren, eta 37 urte zituela Hermenegilda seniderik gabe gelditu zen.

1894an, udal erroldaren arabera, Juan Cruz Madina eta Micaela Andueza Xesterokoan bizi ziren, Juan Cruzen amarekin batera (Manuela Uriarte Anduaga, artean 69 urtekoa) eta lehenbiziko umearekin (Vicente, lau urtekoa).

Hermenegilda Madina Anduezak (1899) eman zion jarraipena etxeari. Oñatiko Albarritza baserriko Joxe Lizarralde Elorzarekin (1888) ezkondu zen 1924an.

[es] Juan Cruz y Josefa Micaela tuvieron seis hijos: Vicente (1890), Cayetano (1893, que marchó a Argentina), José Ignacio (1896), Hermenegilda (1899), Julia y Cornelio. Casi todos fallecieron jóvenes y Hermenegilda se encontró con que a los 37 años ya no tenía hermanos.

Según el censo de 1894, Juan Cruz Madina y su esposa Micaela Andueza vivían en Xesterokoa junto con la madre de Juan Cruz (Manuela Uriarte Anduaga, de 69 años) y el primero de los hijos, Vicente, de cuatro años.

Hermenegilda Madina Andueza (1899) dio continuidad a la casa. En 1924 se casó con Joxe Lizarralde Elorza (1888), del caserío Albarritza de Oñati. El hom-



Jose Mari Lizarralde futbolaria.



Xesteroko lizarraldetarrak 1963an. Goian, Paquita, Tomas, Miren Zubeldia, Antonio, Flora, Santiago Sarasola. Behean, Joxe, Angel Uranga, Mª Luisa, Hermenegilda, Jose Mari (Paquita Lizarraldek emana).



Xesterokoen famili bazkaria (Paquita Lizarraldek emana).

[eu] Gizonak bazituen diru batzuk hargin jardundakoa zenez (besteak beste Arantzazuko santutegian eta Huescako urtegi batean), eta handik lau-bost urtera obra handia egin zuten etxean: atzeko partean beste solairu bat altxa zuten.

bre tenía algunos ahorros porque había trabajado como cantero en el santuario de Arantzazu y en algún pantano de Huesca, y así, a los cuatro o cinco años acometieron una reforma amplia de la casa, y en la parte posterior levantaron un piso más. [es]

[eu] Azkeneko bizilagunek, Hermenegilda Madina Anduezak eta alaba Paquita Lizarralde Madinak, 1968an alde egin zuten, Saturnino Telleria kaleko laugarren zenbakiko etxe berrian bizitzen jartzeko. Etxe-aldaketa hori baino lehenago, 1964an hil zen Hermenegildaren senarra, Joxe Lizarralde Elorza.

Ia azken unera arte ganadua eduki zuten

Hogeigarren mende erdialdera arte Xesterokoa kalebaserria izan zen. Bazegoen ganadua: pare bat behi, ardiak, astoa (belarra-eta garraiatzeko), zerria, oiloak… Joxe Lizarraldek batik bat paper fabrikan egiten zuen lan, baina emazte eta seme-alaben laguntzari esker aurrera ateratzen zituen baserri-lanak ere.

Bestalde, esan behar da Joxe Lizarralderen aita Oñatiko bere baserritik gertu hil zela, karobian istripu larria izanda.

Hona hemen Hermenegilda eta Joseren seme-alabak: Emilio (1925, urte bat zuela hildakoa), Antonio (1927, Miren Zubeldiarekin ezkondu zena), Flora (Santiago Sarasolarekin ezkondua), Florencio (urte bat zuela hila), Paquita (1933, Jesus Arruabarrena gabiriarrarekin ezkondua), Tomas (Isabel Soduperekin ezkondua), Maria Luisa (Angel Urangarekin ezkondua) eta Jose Mari (1941-1993, Mª Carmen Ruizekin ezkondua). Azkekeneko hau futbolari sonatua izan zen. Erdilaria zen eta, Indautxun jokatu ostean (1963-65), puntaneko bi ekipotan jardun zen: Sevillan (1965-67) eta Valladoliden (1967-76).

Kale aldean, Xesterokoak Renfeko apeadero azpian zituen lur-sailak. Bazuten galsoroa Mantxolatik gora ere, gero kirtendegia egin zen tokitik gora. Eta baso-sailak ere bai, Aizaleku aldean. Esnea eramaten zioten "señorita Juanitari", baina haren aitak (Patriziok) Urtatzazargo behitegia egin zuenean utzi egin zioten. Etxezuriko Jesus Segurari ere saltzen zioten esnea. ❖

[es] Sus últimos habitantes, Hermenegilda Madina Andueza y su hija Paquita Lizarralde Madina, abandonaron la casa en 1968 para instalarse en una vivienda nueva, en el número 4 de la calle Saturnino Telleria. Antes, en 1964, había muerto el marido de Hermenegilda, Joxe Lizarralde Elorza.

Con ganado casi hasta los últimos años

Xesterokoa fue un caserío urbano hasta mediados del siglo XX. Tenían ganado: un par de vacas, ovejas, burro (para acarrear hierba), cerdo, gallinas… Joxe Lizarralde, sobre todo, trabajaba en la Papelera, pero con la ayuda de la esposa y los hijos el caserío salía adelante.

Por otra parte, hay que señalar que el padre de Joxe Lizarralde falleció cerca de su caserío de Oñati, debido a un accidente en el horno de cal.

Los hijos de Hermenegilda y Joxe fueron: Emilio (1925, muerto a la edad de un año), Antonio (1927, casado con Miren Zubeldia), Flora (casado con Santiago Sarasola), Florencio (fallecido también con un año de edad), Paquita (1933, casada con el gabiriarra Jesús Arruabarrena), Tomás (casado con Isabel Sodupe), María Luisa (casada con Ángel Uranga) y José Mari (casado con Mª Carmen Ruiz). Este último (1941-1993) fue un reconocido futbolista profesional. Jugaba como centrocampista y tras unos años exitosos en el Indautxu (1963-65), jugó en dos equipos punteros: Sevilla (1965-67) y Valladolid (1967-76).

Xesterokoa tenía terrenos en la zona de debajo del apeadero de la Renfe. Asimismo, un trigal en la zona de Mantxola, más arriba de la fábrica de mangos; y algún monte en Aizaleku. Llevaban leche a la "señorita Juanita", pero al montar su padre (Patricio Etxeberria) la vaquería de Urtatzazar tuvieron que dejar de hacerlo. También surtían de leche a otro potentado, Jesús Segura, de la casa Etxezuri. ❖



08 _ kalebarren

AZPIKOETXE BERRIA (Azpikoetxe taberna) 13 AZPIKOETXE BERRIA (Bar Azpikoetxe)



Azpikoetxeko taberna gaurko egunean (F.I.O.).

[eu]

Uste dugu etxe hau 1920ko hamarkada bukaeran edo geroxeago eraiki zuela Papelerak. Hasiera hartan, lehen solairuan Intxaustitarrak bizi izan ziren. Eta goian, Adrian Otadui eta emazte Bruna, Donostiatik ekarritako Carmen Ataun Espilla ilobarekin.

Ignazio Intxausti Gabiriako Igeribarazpikoan jaioa zen 1903an. Aita Belauntzakoa zuen, ama Urrestillakoa, eta maizter bizi ziren. Ignaziok arotza ikasi zuen eta, Legazpira etorrita, Papeleran hasi zen lanean. Gabiriako jaiotetxean, Ignazioren arreba Juliana gelditu zen, eta beste senideak Legazpira etorri. Pedro, adibidez, Zulokoan bizi izan zen (Txoko Zar soziedadea egon zen etxean); Anastasia, Latxartegiko futbol-zelai aldean; eta Carmen, Kale Zaharrean, Paco Barandiaranekin ezkonduta. Beste anaia bat ere izan zen, Jose Mari, 1936ko gerran hila; gudari joan zen, Urduñan zaurituta gelditu eta Gernikan hil.

Ignazio, 1920ko hamarkada bukaera aldera Lekuonako Candida Zalduarekin ezkondu eta Papelerako nagusiena zen etxe honetan jarri ziren bizi izaten. 1931n jaio zitzaien lehen haurra, Jesus, zeina etxe honetan bizi izan baitzen bizi guztian. Gero etxe osoa erosi zion Papelerari eta handik laster, 1970eko hamarkadan, guztiz berritu zuen eraikina.

Jesus Gregori Igoarekin ezkondu zen. Hauen seme Juanjok eta alaba Edurnek, beheko solairuan, 'Azpikoetxe' taberna-jatetxea gobernatu zuten hainbat urtez, 1988an hasita. Amak ere egiten zuen sukaldean. 2018an Edurne hil zen, 55 urte zituela, eta harrezkero Juanjo jardun da tabernari eta sukaldari. Bada Jesus eta Gregoriren beste seme gazteago bat ere, Ramon.

Gurasoak Mantxolatxikira aldatu ziren

Ignazio eta Candidak beste seme-alaba batzuk eduki zituzten etxe honetan. 1933an bigarren umea jaio zen,

[es]

Esta casa, en la década de 1920, pertenecía a los Elorza de la Papelera. En la primera planta, a partir de los años 20, vivieron los Intxausti. Y en el piso superior, Adrián Otadui y su esposa Bruna, con una sobrina, Carmen Ataun Espilla, a la que habían acogido, traída desde San Sebastián.

Ignacio Intxausti había nacido en 1903 en el caserío Igeribarazpikoa de Gabiria. Su padre era de Belauntza, la madre de Urrestilla, y vivían como inquilinos a renta. Ignacio se formó como carpintero, y una vez venido a Legazpi, empezó en la Papelera. En el caserío se quedó la hermana Juliana, y el resto de hermanos se instaló en Legazpi. Pedro, por ejemplo, vivió en la casa Zulokoa, la de la sociedad Txoko Zar; Anastasia, en la casa de enfrente del campo de fúbol de Latxartegi; y Carmen, en la Calle Vieja, casada con Paco Barandiaran. Hubo otro hermano, José Mari, que murió en la guerra del 36; se había alistado con los gudaris, fue herido en Orduña y murió en Gernika.

Ignacio, a fines de los años 20 se casó con Cándida Zaldua, del caserío Lekuona, y se instalaron en esta casa, que era propiedad de la Papelera. En 1931 les nació Jesús, que luego residiría toda su vida en este inmueble, porque acabó comprándolo y en los años 70 hizo un nuevo edificio, el que se ve hoy en día.

Jesús Intxausti se casó con Gregoria Igoa. Sus hijos Juanjo y Edurne regentaron a partir de 1988, el bar-restaurante Azpikoetxe, situado en los bajos del edificio, con Gregoria en la cocina. Edurne murió en 2018 a los 55 años y desde entonces las riendas las ha llevado Juanjo. Jesús y Gregoria también tuvieron otro hijo, Ramón.

Los padres se fueron a vivir a Mantxolatxiki

Ignacio y Cándida tuvieron otros hijos en esta casa. En 1933 nació una hija, Manuela, que es la única de los hermanos que vive; en San Sebastián.



Azpikoetxeko taberna-etxeko lehengo aurreko aldea (Juanjo Intxaustik emana).



Azpikoetxe tabernaren atzeko aldea (Juanjo Intxaustik emana).

[eu] Manuela, senideetan bizi den bakarra; Donostian, hain zuzen ere.

Geroago, 1936an, Ana Mari jaio zen, zeina Irunen bizi izan zen. Eta 1939an, Jose Mari, harakin oso ezaguna, harategia eduki zuena Legazpin eta 2023an hil zena.

Ignazio eta Candida, 1940. hamarkada hasieran, Mantxolatxikira joan ziren bizi izatera. Hitzarmena egin zuten bertan bizi zen Pedro Jose Galfarsoro Guridirekin: baserria erosi zioten eta Pedro Jose bertan gelditu, Intxaustitarrek zaintzen zutelarik. Baina azkenean haren arreba Angela ere bizi izan zen Mantxolatxikin, Intxaustitarren babesean. 1947an beste haur bat eduki zuten Inazio eta Candidak, Iñaki, gero Oiartzunen bizi izan zena. ❖

[es] Más tarde, en 1936, vino al mundo Ana Mari, que vivió en Irun. Y en 1939 José Mari, muy conocido en el pueblo, pues tuvo carnicería; falleció en 2023.

A comienzos de los años 40, Ignacio y Cándida se instalaron en el caserío Mantxolatxiki, tras firmar un acuerdo con Pedro José Galfarsoro. Compraron Mantxolatxiki a esta persona, con el compromiso de que Pedro José seguiría allí, cuidado por la familia Intxausti. Finalmente, también vivió allí una hermana de Pedro José, Ángela. En 1948 nació el último hijo, Iñaki Intxausti Lekuona, que residió en Oiartzun. ❖



08 _ kalebarren

GREGORINETXIKI (Trapunea) 14 GREGORIONETXIKI (Trapunea)



Gregorioneaundi eta txiki 1912. urtean. Parean, Azpikoetxeerrota eta, Arraseta aldera, Azpikoetxe baserri eta lantegia.

[eu]

Eraikin hau, egungo Azpikoetxe tabernaren aldamenean zegoen, Papelera aldera. 1787rako bazegoen eta 1950. urte inguruan desagertu zen, aldameneko Gregorioneaundi bezala. Bi etxeok elkarren kontra zeuden, teilape bakar batean, baina jendeak bereizi egiten zituen.

1832an, jabea Juan Miguel Raizabal Agirre genuen, zeina 1820az geroztik Isidra Vicenta Irazabal Iturbe antzuolarrarekin baitzegoen ezkonduta. 1832an, Ignacio Zabaleta izeneko gizona bizi zen bertan maizter, eta 1843an hor jarraitzen zuen.

Gero, Juan Antonio Raizabal Irazabal bihurtu zen etxeko-jaun. Aipatutako Juan Miguel eta Vicentaren semea zen, eta Erraizabal baserrian bizi zen, Mª Luisa Guridirekin ezkonduta. Ez zuten seme-alabarik izan eta, 1870eko testamentuan, Gregorioneko etxe hau Micaela Mantxola Raizabali eman zion, alegia, arreba Dominicaren alabari. Micaela, berriz, Urtatzaazpiko Juan Agustin Mantxola Jauregirekin zegoen ezkonduta 1841az geroztik.

1894an, Pio Mantxola Raizabal (1863) bizi zen etxe honetan, berau ere Dominicaren seme, eta arreba Micaela baino hogei urte gazteagoa. Urtatzaazpikoan jaioa zen Pio, eta honen aita ere, Juan Agustin, baserri horretakoa genuen.

Pio 1891n ezkondu zen, Telleriarteko San Migelgo Brigida Guridi Etxeberriarekin, eta 1894rako bazuten seme eta alaba bana, Salustiano eta Angeles. Handik gutxira, familia hau Muruazpira bizialdatu zen, eta han beste bost seme-alaba jaio zitzaizkien. Salustianok heredatu zuen Muruazpi eta Papeleran ari zen lanean. 1932-33an, hango pabilioi bateko teilatuan ari zela, zoruraino erori eta haustura larriak izan zituen bizkarrezurrean, handik gutxira hil zelarik.

[es]


Casa situada cerca de la Papelera, al lado mismo de la casa que luego sería el Bar Azpikoetxe. Ya existía antes de 1787 y desapareció hacia 1950, junto con el caserío de al lado, Gregorioneaundi. Estas dos casas se encontraban adosadas, bajo un mismo tejado, pero la gente las diferenciaba.

En 1832 el propietario era Juan Miguel Raizabal Agirre, que en 1820 se había casado con Isidra Vicenta Irazabal Iturbe, de Antzuola. Residían en la casa principal de los Raizabal, el caserío Erraizabal. Quien sí vivía en 1832, era un inquilino llamado Ignacio Zabaleta, y en 1843 lo seguía haciendo.

Luego, Gregorionetxiki pasó a manos de Juan Antonio Raizabal Irazabal, hijo de los mencionados Juan Miguel y Vicenta. Este hombre, casado con Mª Luisa Guridi, y que seguía viviendo en Erraizabal, no tuvo descendencia y en su testamento de 1870 legó la casa que nos ocupa a Micaela Mantxola Raizabal, hija de su hermana Dominica. Esta Dominica se había casado en 1841 con Juan Agustín Mantxola Jauregi, del caserío Urtatzaazpikoa.

En 1894 aparece, como residente en Gregorionetxiki, Pío Mantxola Raizabal (1863), hijo también de Dominica, y veinte años más joven que su hermana Micaela. Así pues, a fines del XIX vivía en esta casa un hijo y nieto de sus antiguos propietarios. El padre de Pío, Juan Agustín Mantxola, era de Urtatzaazpikoa, y Pío nació allí.

Pío se casó en 1891 con Brígida Guridi Etxeberria, del caserío San Miguel de Telleriarte, y para ese año de 1894 ya tenían un hijo (Salustiano) y una hija (Ángeles). Algo más tarde este matrimonio se trasladó al caserío Muruazpi, y allí nacieron otros cinco hijos. Salustiano heredó Muruazpi y trabajaba en la Papelera. En 1932-33 se encontraba trabajando en el techo de uno de los pabellones de esta factoría y cayó al suelo. Sufrió graves lesiones en la columna vertebral y murió a los pocos meses.



Gregorionetxikiko Brigida Guridiren rekordatorioa (Pepita Ugartek emana).

[eu]

Fermin Beristain ‘Trapu’ ormaiztegiarra

1910ko udal erroldaren arabera, lagun hauek bizi ziren Gregorionetxikin: Fermin Beristain Mendizabal (ormaiztegiarra, 45 urtekoa eta Papelerako enplegatua), emazte Gregoria Andueza Zabala (legazpiarra, 47 urtekoa) eta hiru seme-alaba (Manuel, Vicenta y Eulalia), 20, 15 eta 10 urtekoak. Hor baino lehenago, 1894an hain zuzen, Fermin eta Gregoria Gerranean bizi ziren, eta gizona apretak egiten ateratzen zuen bizimodua.

Gero, bai Fermini bai seme Manueli, ‘Trapu’ goitizena erantsi zieten, eta etxea ‘Trapune’ bihurtu. Izan ere, kartoia fabrikatzeko trapu zaharrak erabiltzen ziren. Seme Manuelek, hala ere, Patrizionean egin zuen lan.

1950eko hamarkadan, Beristain-Anduezatarrok San Martin auzoan bizitu ziren. Hantxe, aldameneko atean Gregorioneaundiko Alzelai-Mendiatarrak izan zituzten bizilagun. ❖

[es]

El ormaiztegiarra Fermín Beristain ‘Trapu’

En 1910 aparecen como inquilinos de Gregorionetxiki Fermín Beristain Mendizabal (de Ormaiztegi, 45 años y operario de la Papelera) y su esposa Gregoria Andueza Zabala (legazpiarra de 47 años), con tres hijos (Manuel, Vicenta y Eulalia), de 20, 15 y 10 años respectivamente. En algún documento, el apellido aparece como Begiristain. Anteriormente, en 1894, Fermín y Gregoria vivían en Gerranea, y el hombre era alpargatero. Seguramente por el posterior oficio de Fermín, la gente llamaba a esta casa Trapunea, y tanto Fermín como su hijo Manuel tenían el mote de ‘Trapu’. Hay que recordar que el cartón se fabricaba en parte a base de trapos viejos, y Fermín trabajó en la Papelera; no así su hijo Manuel, que fue empleado de Patricio.

En los años 50, los Beristain-Andueza vivieron en el barrio de San Martín, y allí coincidieron puerta con puerta con los Alzelai-Mendia de la vecina casa de Gregorioneaundi. ❖



08 _ kalebarren

GREGORIONEAUNDI (Karreteronea, Joakiñanea) 15 GREGORIONEAUNDI (Karreteronea, Joakiñanea)



Gregorionea, Legazpiko kale barrenean.

[eu]

Gregorionetxiki ondoan zegoen, Papelera alderago. 1787an, artean existitzen zen. 1950. urte aldera desagertu zen, Gregorionetxiki bezala. Bi eraikinok elkarren kontra zeuden, teilape batean, baina jendeak bereizi egiten zituen bata eta bestea. Hementxe bere etxetzar berriaren jardina jarri zuen Antonio Elorzak, Papelerako zuzendariak. Txaleta 1947an eraiki zuen.

1832an Francisco Oiarzabal bizi zen Gregorioneaundin, eta etxea berea zuen. Baina handik hiru urtera erabat aldatu zen egoera: Oiarzabal hil eta emaztea, Josefa Umerez oñatiarra, etxea saldu beharrean geratzen da, eta herriko handiki bati saltzen dio, Isidoro Urmenetari, izan ere mailegu baten dirua zor dio gizon honi.

Handik aurrera, baserri hau Saturnino Telleria 'mediku zaharraren' leinuaren jabetzakoa izan zen. Saturnino Isidoro haren birbiloba genuen-eta.

Isidoro Urmeneta nagusi zelarik, familia bat baino gehiago pasatu ziren bertatik. 1857ko erroldan, Manuel Andueza Balerdi ageri zaigu, nekazari eta Josefa Agustina Agirre Mantxolarekin ezkondua, bi semealaba dituztelarik, Dionisio (sei urte) eta Dolores (urte bat). 1910ean, berriz, Joaquina Apaolaza Oiarbide gabiriarra bizi zen, alargun eta baserritarra.

Francisco Mendia 'karreteroa' sartzen da

Handik laster, 1920ko hamarkadan, etxe honi 'karreteronea' hasi zioten esaten. Francisco Mendia Leunda itsasoarra eta emazte Juana Zufiria Intxausti, Matxinbentakoa, etxe honetara bizialdatu ziren, Serapio Lizarazuren etxean (Kale Zaharrean) egonaldia egin eta gero. Mendia Patrizionean hasi zen lanean, baina laster utzi zion, garraiolari hasteko, bai pertsonen bai merkantzien garraiolari, lehenbizi zalgurdia erabilita, gero motordun ibilgailua. Furgonetari, jendeak 'Pájaro azul' esan ohi zion, kolore hori zeukalako. Legazpi eta Zu-

[es]

Este caserío estaba situado a continuación de Gregorionetxiki, en dirección a la Papelera. En 1787 ya existía. Gregorionetxiki y Gregorioneaundi eran dos casas que estaban adosadas y bajo un mismo tejado, pero la gente las diferenciaba, y desaparecieron hacia 1950. El solar ocupado por los dos edificios pasó a ser el jardín trasero de la mansión de Antonio Elorza, el gerente de la Papelera, edificada en 1947, y que luego fue adquirida por Patricio Etxeberria hijo.

En 1832 residía aquí Francisco Oiarzabal, que además era el propietario. Pero tres años más tarde la situación cambia radicalmente. Muere Oiarzabal, y su viuda, la oñatiarra María Josefa Umerez, se ve obligada a vender la casa en que vive a un potentado legazpiarra, Isidoro Urmeneta, por no poder frente a un préstamo que esta persona hacía concedido al matrimonio.

A partir de entonces, este caserío pasó a pertenecer al linaje de la "casa del médico viejo". Saturnino Telleria, el médico e historiador que dejó huella profunda en Legazpi, y que era bisnieto de Isidoro Urmeneta.

Ya con Isidoro Urmeneta como dueño de la casa, vivieron inquilinos de familisa diversas. En 1857, figuran el labrador Manuel Andueza Balerdi, casado con Josefa Agustina Agirre Mantxola, con sus hijos Dionisio (seis años) y Dolores (un año). En 1910, vive una viuda, también baserritarra, la gabiriarra Joaquina Apaolaza Oiarbide.

Llega el 'carretero' Francisco Mendia

Pronto, en los años 20 del siglo XX, el caserío se convierte en "la casa del carretero" o "karreteronea". Francisco Mendia Leunda, nacido en Itsaso y su esposa Juana Zufiria Intxausti, de Matxinbenta, se instalan en este caserío, tras una estancia breve en la llamada casa de Serapio Lizarazu, enfrente de la 'casa del mé-



Kattalin Mendia eta gizona, Eusebio Alzelai (Juanita Alzelaik emana).



Eusebio Alzelai eta Kattalin Mendia 1993an (Juanita Alzelaik emana).





Francisco Mendia eta Juana Zufiria umeekin. Goian, Encarnacion, Leon (ekarria), Justina, Catalina. Behean, Jose, Carmen eta Felisa bikiak (Deiñe Alzelaik emana).

Gregorioneaundiko Encarnacion Mendia eta Segundo Biteri (Deiñe Alzelaik emana).

[eu] marragako tren-geltokien arteko bidaia sarri egiten zuen, eta Tolosara ere askotan joaten zen.

1931n Ezkion amabirjinaren ustezko agerpenak izan zirenean, askotan eraman zuen jendea Anduagako zelai hartaraino. Eta ganadu-tratanteekin harreman estua izan zuen.

dico viejo'. Mendia comienza a trabajar en la factoría de Patricio Etxeberria, pero pronto lo deja para dedicarse al transporte de mercancías y personas, primero con un un carro de caballos, luego con vehículos a motor. A su furgoneta-autobús la gente le puso el sobrenombre de 'Pájaro azul'. Realizaba muchos viajes entre Legazpi y las estaciones del tren en Zumarraga, pero también llegaba con frecuencia a Tolosa. [es]

[eu]

Azken familia, Catalina Mendia eta Eusebio Alzelairena

La Oñatiarrak garraio-zerbitzua ipini zuenean Franciscok lanari utzi egin behar izan zion. 1947an hil zen, eta emaztea 1940an. Zazpi seme-alaba izan zituzten eta gainera Leon izeneko mutikoa adoptatu. Seme-alabetan lehena Catalina izan zen, 1911n jaioa, baina ez etxe honetan, baizik eta aipatutako Lizarazunean. Eusebio Alzelai Txintxurretarekin ezkondu zen, hau berriz Oñatitik etorria Legazpira, beste senide batzuekin. Hain zuzen ere, Catalinak jarraitu zuen gero Gregorioneaundin bizitzen, gurasoekin eta ezkondu ez ziren bi ahizpa bikiekin, Carmen eta Felisa.

Catalinak, 1930eko hamarkada hasieran, Arabaolazanean zegoen Solidaridad de Trabajadores Vascos sindikatuaren ekonomatoan egin zuen lan.

Jose Mendia, seme nagusia, Josefa Urkiolarekin ezkondu zen, zeina Beasaingo Dolarea jauregiko alaba baitzen, eta Txokoko etxean bizi. Encarnaciónek, berriz, Segundo Biteri hartu zuen senartzat, eta Justinak Nicolas Alustiza. Gizon hau gazterik hil zen eta "drogeriko" Fausto eta Sebastianen anaia genuen.

Etxe honen azken etapan, 1940ko hamarkadan, aitona Francisco bizi izan zen, alaba Catalina eta suhi Eusebio Alzelairekin. Senar-emazteok hemen izan zituzten seme-alaba gehienak: Deiñe (1936), Dolores 'Lolo' (1938), Juanita (1940), Javier (1944) eta Josetxo (1948). Aitor (1953), berriz, San Martin auzoan etorri zen mundura, ordurako harutza aldatuta baitzeuden Catalina eta Eusebio. Josetxo gazterik hil zen, hogei urte zituela, Eginon eskalatzen ari zelarik. ❖

[es]

Cuando las apariciones de la Virgen María en Ezkio, en 1931, hizo muchos servicios de pasajeros hasta aquella campa de Anduaga. Tuvo mucha relación con los tratantes de ganado.

En la última etapa, la familia Alzelai-Mendia

Al comenzar La Oñatiarra con su servicio de autobús en la zona, Francisco tuvo que retirarse. Falleció en 1947. Su esposa Juana había muerto en 1940. Tuvieron siete hijos y además adoptaron a un chico, León. La mayor de los hijos e hijas fue Catalina, nacida en 1911, pero no en este caserío, sino en la casa ya mencionada de Serapio Lizarazu. Catalina se casó con Eusebio Alzelai Txintxurreta, uno de los varios hermanos Alzelai llegados a Legazpi desde Oñati. Fue esta hija quien siguió residiendo en Gregorioneaundi, junto con los padres y dos hermanas mellizas que quedaron solteras, Carmen y Felisa. Catalina, en los comienzos de los años 30, trabajó en la tienda de alimentación del sindicato Solidaridad de Trabajadores Vascos, situada en la casa Arabaolazanea, la que luego albergaría el Bar Patxi.

José, el mayor de los varones, se casó con Josefa Urkiola, de la casa-palacio Dolarea de Beasain, y vivieron en la casa del Txoko. Encarnación se casó con Segundo Biteri; Justina, con Nicolás Alustiza, que falleció joven y era hermano de Sebastián y Fausto, "de la droguería".

En la última etapa de este caserío, en la década de 1940, vivió el abuelo Francisco con sus dos hijas mellizas solteras y con su hija Catalina, casada con Eusebio Alzelai. Este matrimonio tuvo allí a casi todos sus hijos: Deiñe (1936), Dolores 'Lolo' (1938), Juanita (1940), Javier (1944) y Josetxo (1948). Aitor (1953), en cambio, nació en el barrio San Martín, la zona a la que se mudó la familia. Josetxo murió a los veinte años, cuando escalaba en una pared de Egino. ❖



08 _ kalebarren

AZPIKOETXEERROTA 16 AZPIKOETXEERROTA



Ugartetarrak. Norberto Ugarte, Benigna Sagastizabal, Vicenta, Joxe Ugalde, Lucio, Juana Elkorobarrutia, Josefa Agirre, Victoriano Agirre, Pilar, Isabel, Felix Agirre (Luis Mari Muruak emana).

[eu]

Azpikoetxe izeneko baserriaren ondoan zegoen. Jose Luis Ugarte ikerlariak uste du paper fabrikaren sarrera ondoan dagoen hogeigarren mendeko eraikina (non bi goi-karguren familiak bizi izan baitziren) errota honen orubean eraiki zela, hangoxe harriak aprobetxatuz.

Oñatiko protokolo artxiboan hamazazpigarren mende hasieran azaltzen zaigu lehen aldiz. 1608an, jabea Juan Martinez de Vicuña zen, Barrenolea ere (Bengolea-Olaetxe) berea zuelarik. 1685ean, jabeak (Francisco de Vicuña y Gauna, Calatravako Ordenako kidea) sei urterako utzi zion errentan errota Legazpin bizi zen Juan de Galarza delakoari. 1764an, nagusiak (Azpeitian bizi zen Joaquin Aguirre Porcel, San Millango markesak) bederatzi urterako eman zien errentan legazpiar batzuei, Domingo Etxeberria eta Sebastiana Olaso senar-emazteei.

XIX. mendean Etxeberriatarrak bizi izan ziren etxe honetan. Domingo Etxeberria Zabaletak eta Fernanda Agirre Iturbek seme-alabok eduki zituzten: Martin Antonio Luis Etxeberria Agirre (1828), Antonia Joana (1830), Joana Josefa (1832), Agustin Demetrio (1835), Jose Antonio (1839) eta Luisa (1843).

Hurrengo etapa batean, alaba bat, Antonia Joana Etxeberria Agirre ikusten dugu bertan bizitzen, 1855az geroztik Prudencio Uzelai Mantxolarekin ezkonduta. Seme-alabok eduki zituzten: Juan Bernardo Uzelai Etxeberria (1855), Benito (1857), Josefa Ignacia (1858), Jose Felipe (1861) eta Josefa Manuela (1863).

XIX. mendearen azkenaldira, berriz, Antonia eta Prudencioren iloba Agustin Eleuterio Etxeberria Iparragire (1870) jarri zen bizitzen hemen Gabiriako Josefa Iparragirre Arrondorekin ezkonduta. XX. mendearen hasieran 'Austintxo' eta 'Joxepa Hermoxa' esaten zieten.

Azkeneko bizilagunak Nicolas Ugarte Arzuaga (1885-1949) eta Juana Elkorobarrutia Zugasti (1886-1973) izan genituen, beren ume txikiekin. Oñatin jaioak ziren eta hango kale-baserri batetik azaldu ziren, 1927. urte aldera. Gizona hargina zen, baina herri hartan lan gutxi, eta lehengusu batek gomendatuta Legazpira etorri ziren.

[es]

Esta casa-molino estaba situada al lado del caserío de nombre Azpikoetxe. El investigador José Luis Ugarte cree que se encontraría enfrente de la entrada principal de la factoría, donde en el siglo XX se hizo la casa de los técnicos, y que para ello se aprovecharon las piedras de este viejo edificio.

En el archivo de protocolos de Oñati hay constancia de este molino desde comienzos del siglo XVII. En 1608, el propietario era Juan Martínez de Vicuña, que también era dueño de la casa y solar de Barrenolea (Bengolea-Olaetxe). En 1685, el propietario, Francisco de Vicuña y Gauna, caballero de la Orden de Calatrava, entregó en arrendamiento el molino al vecino de la villa Juan de Galarza, por un periodo de seis años. En 1764, el propietario, Joaquín de Aguirre y Porcel, marqués de San Millán, residente en Azpeitia, lo entregó a renta a los esposos legazpiarras Domingo de Echeverria y Sebastiana de Olaso, por un periodo de nueve años.

En el siglo XIX vivía aquí la familia Etxeberria: los padres Domingo Etxeberria Zabaleta y Fernanda Agirre Iturbe con sus hijos Martín Antonio Luis (1828), Antonia Joana (1830), Juana Josefa (1832), Agustín Demetrio (1835), José Antonio (1839) y Luisa (1843). Luego, en la segunda mitad del XIX, aparece como residente la hija Antonia, casada en 1855 con Prudencio Uzelai Mantxola, quienes tuvieron esta descendencia: Juan Bernardo Uzelai Etxeberria (1855), Benito (1857), Josefa Ignacia (1858), José Felipe (1861) y Josefa Manuela (1863).

A fines del XIX, se instaló un sobrino de Antonia y Prudencio, de nombre Agustín Eleuterio Etxeberria Iparragire (1870). Estaba casado con la gabiriarra Josefa Iparragirre Arrondo, y a comienzos del siglo XX se les conocía como 'Austintxo' y 'Joxepa Hermoxa'.

Los últimos habitanes de la casa molino fueron Nicolás Ugarte Arzuaga (1885-1949) y Juana Elkorobarrutia Zugasti (1886-1973), junto con sus hijos pequeños. Habían nacido en Oñati, en un caserío urbano, y llegaron a Legazpi hacia 1927. Nicolás era cantero, pero



Juana Elkorobarrutia (Luis Mari Muruak emana).

[eu] Nicolas kale aldeko bi etxeren eraikuntza lanetan jardun zen: Gapar Alustizaren hotelean eta Jose Antonio Alustizarenean (drogeria eta Toki Alai taberna egon ziren etxea).

Etxe honetan errentan zeuden. Nicolas eta Juanak zortzi seme-alaba izan zituzten; zaharrena, Norberto (1916), bigarrena Isabel (1918). Hirugarrena, Luis, 1920an jaioa, 1937an hil zen. Azaroaren 24an, Udanatik behera Francoren armadako zaurituak zekartzan kamioi batek mutikoa harrapatu zuen San Migelgo bihurgune aldean, eta bertan utzi, laguntza eman gabe, handik gutxira hil zelarik, odolustuta. Beste seme-alabak: Bixenta (1921), Pilar (1924), Juan (1927) eta Luxio (1931). Isabel oso ezaguna egin zen: Pastain baserrira ezkonduta Felix Agirrerekin, ehun urte beteta hil zen, 2018an.

Azpikoetxeerrotan urte gutxi egin zuten, lau-bost. 1932. urtetsuan, eta seguru asko errota eraitsi zutelako, ugarte-elkorobarrutiatarrok Brinkolara joan ziren, Bergaretxe baserrira, eta han urte asko egin. ❖

[es] en Oñati no había mucho trabajo y vino aconsejado por un primo. Trabajó en la construcción de dos edificios del casco urbano, la casa de los Alustiza (la de la droguería y el bar Toki Alai) y el hotel de Gaspar.

Los Ugarte-Elkorobarrutia vivieron en esta casa de Azpikoetxea a renta. Tuvieron ocho hijos. Los primeros, Norberto (1916), Isabel (1918) y Luis (1920), que murió en 1937. El 24 de noviembre un camión que bajaba de Udana con heridos de las tropas franquistas lo atropelló a la altura del caserío San Miguel, y lo dejaron allí mismo malherido. Murió en el lugar, desangrado. Los otros hijos: Bixenta (1921), Pilar (1924), Juan (1927) y Luxio (1931). Isabel fue una mujer muy conocida en el pueblo; se casó con Félix Agirre al caserío Pastain y murió a los 100 años en 2018.

Esta familia no vivió muchos años en el molino de Azpikoetxe, solo unos cuatro o cinco. Hacia 1932, y seguramente porque el edificio se derruyó, se trasladaron a Brinkola, al caserío Bergaretxe, y allí en cambio residieron bastantes años. ❖



08 _ kalebarren

AZPIKOETXEA eta PAPELERA

17

AZPIKOETXEA y la PAPELERA



Azpikoetxe zaharra.



Azpikoetxe. Hemen egon zen hasierako paper fabrika (F.I.O.).

[eu] Paper-fabrika zegoen etxe honen barruan, eta bizilekua ere bazen. Beatriz Herreras Moratinos eta Josune Zaldua Goenagaren 'Patrimonio industrial en Legazpi' liburuak dakarrenez, 1805ean sortu zuen enpresa Trinidad Antonio Porcelek (Villalegre eta San Millango markesak) eta Antonio Cassou frantsesari errentan utzi. Papergintzan aditua zen. Lehengo errota, baratzea eta etxea eman zizkion errentan. Kontratua bederatzi urterako zen. Errotan trapu zaharrak xehetuz egiten zen orduan papera, eta Urola ibaiko uraren indarraz baliatuta. Garai hartako bi ofizial frantsesen berri ere badakigu, Nogues eta Lassale abizenekoak

Baina Cassouk denbora gutxi egin zuen bertan. 1806an, fabrika Ignacio Arzelus eta Miguel Antonio Galarzari eman zitzaien errentan; eta 1809an, Manuel Ignacio Agirreri. Ondoren, bolada batean geldirik egon zen, eta egokitzapen batzuk egin ostean, Alejandro Aldekoa hasi zen paper eta kartoigile. 1832ko etxe-zerrenda batean, hortxe ageri da gizon hau Azpikoetxeko biztanle gisa. Hurrengo maizterra Aldekoaren suhia izan zen; Antzuolan jaiotako Juan Bautista Unanuek 1852an ekin zion; hau, berriz, herriko zurrategi bateko jabea zen, eta 1841ean ezkondu Tolosan jaiotako Josefa Bernarda Aldekoa Ezkietarekin. Eta 1865ean Miguel Ignacio Etxeberria Apaolaza arotzak hartu zuen fabrika errentan. Unanue-Aldekoa familiak alde egin zuen Legazpitik.

Miguel Ignacio Etxeberria Apaolazak (Elorregi baserria, 1841) arrasto sakona utzi zuen herrian. Eta gainera Patricio Etxeberria Elorza, Bellota enpresaren sortzailearen aita izan zen. Agapita Josefa Elorza Olaberriarekin ezkondu 1870ean eta familia Azpikoetxean bertan bizitu zen. Orduan, eraikinaren jabea Luciano Porcel zen, berau ere San Millango markesa. Fabrika, lehengo aldean, askoz aurreratuago zegoen teknologia aldetik.

Miguel Ignacio, gaztetan, arotz ibili zen. 1870ean ezkondu eta handik bi urtera, 1872an, gerrate karlista

[es] Esta casa, aún en pie, albergó una fábrica de papel. Según el libro 'Patrimonio industrial en Legazpi', de Beatriz Herreras Moratinos y Josune Zaldua Goenaga, la empresa fue fundada por Trinidad Antonio Porcel, marqués de San Millán y Villalegre, en 1805, y en esa fecha la dejó a renta a un francés, Antonio Cassou, que era entendido en la materia. Entregó al francés el viejo molino, la huerta y la casa, con un contrato de nueve años de duración. En aquella época se elaboraba el papel a base de trapos viejos, que eran machacados empleando la fuerza del agua del río Urola. También son conocidos los apellidos de otros dos oficiales franceses de esa época: Nogues y Lassale.

Pero Cassou hizo poco tiempo en Azpikoetxea. En 1806, la fábrica fue dejada a renta a Ignacio Arzelus y Miguel Antonio Galarza; y en 1809, a Manuel Ignacio Aguirre. A continuación, estuvo inactiva, hasta que, tras unas obras de acondicionamiento, reinició la actividad con Alejandro Aldecoa, quien figura como residente en este edificio en una relación de casas de 1832. Y el siguiente inquilino (y fabricante papelero) fue el yerno de Aldecoa, Juan Bautista Unanue, un hombre nacido en Antzuola y que comenzó a trabajar en la instalación en 1852. Era dueño de una curtiduría de Legazpi y se había casado con Josefa Bernarda Aldekoa Ezkieta.

Luego, en 1865, la fábrica de papel pasó a ser gobernada, con un contrato a renta, por el carpintero legazpiarra Miguel Ignacio Etxeberria Apaolaza. En esa época, el propietario era Luciano Porcel, descendiente de Trinidad Antonio, y también marqués. La familia Unanue-Aldekoa dejó Legazpi.

Miguel Ignacio Etxeberria Apaolaza (nacido en el caserío Elorregi en 1841) dejó huella profunda en Legazpi. Además, fue el padre de Patricio Etxeberria Elorza, el fundador de la fábrica de herramientas Bellota. En 1870 se casó con Agapita Josefa Elorza Olaverria y la familia se instaló en Azpikoetxea. La fábrica era más avanzada en cuanto a tecnología.





Lucia Etxeberria, Patricio Elorzaren lehenbiziko emaztea (Ignacio Arbidek emana).

Miguel Ignacio Etxeberria eta emazte Agapita Elorza (Ignacio Arbidek emana).

[eu] piztu zen. Orduan zinegotzi zegoen, eta 1873an alkate; eta alkate zegoelarik, Oñatin kuartela zeukaten karlisten mehatxu eta erasoei egin behar izan zizkien aurre. Gero, 1885ean, berriro izendatu zuten alkate, eta atzera 1890 eta 1895ean.

1892an Miguel Ignacio Etxeberriak erosi egin zuen fabrika, 12.500 pezetan. Orduan, jabea Blanca Porcel Guirior zen, Lucianoren alaba eta Villalegreko eta San Millango markesa, zeina Zestoan, Lasao auzoko bere jauregian bizi baitzen. Baina salerosketa ez zen markesaren aurrean egin, baizik eta haren ordezkari batekin, Matias Arteaga Ursularre, zeina Legazpin jaioa baitzen, 1838an, eta urte asko zeraman lanean Donostian, kontratista gisa. Markesa, berriz, bananduta eta dibortziatuta zegoen (zibilez nahiz elizaz) Ramon Altarribarengadik.

Berrogeita hamar urte zituela erosi zuen Azpikoetxea Miguel Ignacio Etxeberriak. Handik urte gutxira hil zen, 1899an, tuberkulosiak erasanda. Garai hartan, batik bat kartoia fabrikatzen zuen.

[es] Miguel Ignacio, en su juventud, trabajó como carpintero. Se casó y dos años más tarde, en 1872, estalló la guerra carlista. Entonces era concejal, y en 1873 alcalde. Y siendo alcalde, hubo de hacer frente a los ataques de los carlistas, que tenían su cuartel en Oñati. En 1885 fue nombrado alcalde otra vez, y nuevamente en 1890 y 1895.

En 1892 Miguel Ignacio compró la fábrica de papel, al precio de 12.500 pesetas. Entonces tenía 50 años. Falleció en 1899, enfermo de tuberculosis. En esa época, la factoría producía sobre todo cartón.

Hasta entonces la casa-factoría había sido propiedad de Blanca Porcel Guirior, marquesa de Villalegre y San Millán, quien residía en el palacio familiar de Lasao, un barrio de Zestoa. Había estado casada con Ramón Altarriba, barón de Sangarren, y obtenido el divorcio, tanto de los tribunales civiles como eclesiásticos de Madrid. En esta compraventa actuó como apoderado de la marquesa Matías Arteaga Ursularre, un hombre nacido en Legazpi en 1838 pero que ya

[eu] Hil baino pixka bat lehenago, Miguel Ignaciok istripu larria izan zuen fabrikan. Iñaki Beldarrainen liburuak dioenez, turtukoia (errotako gurpila, turbina) konpontzen ari zen langile baten laguntzarekin, mugimenduren bat egiterakoan ez ziren bat etorri eta gurpil handi hark harrapatu egin zuen Miguel Ignacio pareta baten kontra, bularrean odol-jarioa gertatu zitzaiola. Ezbehar hark ere izan zezakeen zerikusia heriotzarekin, batzuek diotenez.

Agapita eta Miguel Ignacioren seme-alabak: Ildefonso (1871-1876), Pio (1872), Maria Pilar (1874-1876), Lucia (1876-1900), Ildefonso Francisco (1878-1907), Josefa Pilar (1879), Patricio Cirilo (1882-1972), Placida (1888-1893). Miguel Ignacioren ostean, Azpikoetxeko beste hiru lagun tuberkulosiak jota hil ziren: Lucia (1900an), Agapita (1904an) eta Ildefonso Francisco (1907an). Gauzak horrela, Saturnino Telleria medikuak (1880-1947) erabaki latza hartu zuen: etxeko altzari, arropa, paper eta dokumentu guztiak erretzea, gaitza gehiago zabal ez zedin.

1894an, adibidez, lagunok bizi ziren etxe honetan: Miguel Ignacio Etxeberria (1841), Agapita Elorza Olaberria (1848) emaztearekin eta seme-alabokin: Pio (1872), Lucia (1876), Ildefonso (1872), Pilar (1879) eta Patricio (1882). Azken honek berebiziko garrantzia izango zuen gerora: errementari hasi zen eta ondoren Bellota erreminta-enpresa sortu.

Pilarrek (Josefa Pilar, 1879) maistra-ikasketak egitea lortu zuen familiak. Bizkaiko Ea herrian egon zen lanean. Ermuko gizon bat ezagutu zuen, Izarra abizenekoa, mekanikaria bera, eta Boiseko hirira joan ziren bizi izatera. Hantxe hil ziren, Estatu Batuetan.

Lucia Etxeberria, berriz, bere ama Agapitaren anaia batekin ezkondu zen, Patricio Elorza Olaberriarekin. 1895ean izan zen. Lucia 1876koa zen, Patricio 1864koa. Gerora, Patricio hauxe izango zen paper fabrikako nagusia. Elorza San Patrizio egunean jaioa zen eta 'Patrizio Haundi' esaten zioten; Patrizio Etxeberria ilobari, berriz, 'Patrizio Txiki'. Hauexek ziren herriko Patrizio bakarrak.

[es] llevaba décadas trabajando en San Sebastián como contratista.

Un poco antes de su fallecimiento, Miguel Ignació sufrió un grave accidente en la fábrica. Según el libro de Iñaki Beldarrain, el patrón se hallaba reparando la rueda molinar llamada 'turtukoia', con la ayuda de un operario, y por una descoordinación ente ambos Miguel Ignacio quedó atrapado entre la rueda y la pared y sufrió una hemorragia. Es posible que ese percance tuviera algo que ver con la tuberculosis posterior.

Agapita Josefa y Miguel Ignacio tuvieron estos hijos: Ildefonso (1871-1876), Pío (1872), María Pilar (1874-1876), Lucía (1876-1900), Ildefonso Francisco (1878-1907), Josefa Pilar (1879), Patricio Cirilo (1882-1972) y Plácida (1888-1893). Tras el padre Miguel Ignacio la tuberculosis se llevó consigo a otras tres personas en Azpikoetxea: Lucía (en 1900), Agapita (1904) e Ildefonso Francisco (1907). Así las cosas, el médico Saturnino Telleria (1880-1947) tomó una drástica decisión: quemar todos los muebles, ropas, papeles y documentos de la casa.

En el año de 1894 residían en esta casa las siguientes personas: Miguel Ignacio Etxeberria (1841), su esposa Agapita Elorza Olaberria (1848) y los hijos Pío (1872), Lucía (1876), Ildefonso (1872), Pilar (1879) y Patricio (1882). Este último sería clave en el pueblo de Legazpi, dado que fundó la empresa de herramientas Bellota.

La familia consiguió que la hija Pilar (1879), realizara estudios de Magisterio. Ejerció en el pueblo vizcaíno de Ea. Conoció a un hombre de Ermua, de apellido Izarra, y se fueron a vivir a la ciudad americana de Boise. Pilar falleció allí.

Lucía Etxeberria, por su parte, se casó con un hermano de su madre Agapita: Patricio Elorza Olaberria. La boda se celebró en 1895. Lucía era nacida en 1876, Patricio en 1864. Más tarde, Patricio Elorza se convertiría en propietario de la factoría papelera. Era nacido en el día de San Patricio y le decían 'Patrizio

[eu]

Patricio Elorza gaztea, lan bila Madrilera

Patrizio Elorza Kale Zaharrean jaioa zen, 1864an, Atxaparro esaten zioten etxean, gero Patxi taberna egon zen tokian. Aita, Miguel Ignacio, teila-fabrikan jarduna zen eta aitona Santiago Oñatin jaioa genuen. Patrizio, hamabost bat urte zituela, aurrera egin nahi eta Madrilera joan zen. Aurrena Chinchóngo txokolatetegi batean jardun zuen. Biloba Ignacio Arbidek esan ziguna: "Hasieran, txokolatea gustatzen eta behin eta berriz probatzen zuen. Egun batean, asko jan nonbait eta gaizkitu egin zen. Ez zen lanera azaldu. Hurrengo egunean, nagusiari azaldu zion sabeleko minez egona zela. Eta nagusiak: bai, zuk izan duzuna, betekada galanta. Zer uste duzu, ez nuela ikusten nola hartzen zenuen txokolatea?".

Gero Pereda Burdindegian aritu zen, Madrilgo Callao kalean. Dendako zerbitzarien buru izatera iritsi zen eta diru dezente egin. Madrilgo egonaldi horri dagokionez, urte batzuk ezkondu aurretik eman zituen, beste batzuk ezkondu ostean. Ezkontza, esan bezala, 1895ean izan zen. Baina handik laster Gipuzkoara itzuli ziren. 1902an, Legorretan paper fabrika fundatu zuen, Juan Jose Etxezarreta ezkiotarrarekin batera, baina honekin haserretu eta alde egin zuen. Gero ibilbide luzea izango zuen enpresa hark.

1899an, Miguel Ignacio Etxeberria hil zenean, Legazpiko paper fabrika egoera zailean geratu zen. Zorrak zeuden eta zor handiena Patrizio Elorzarekin. 1901ean, Patriziorekiko zorra 14.039 pezetakoa zen, Iñaki Beldarrainen liburuak dioenez. Miguel Ignacioren alargunak, Agapita Elorzak, seme nagusiari, Piori, utzi zion enpresa. Baina, dirudienez, gizon honek ez zuen buruhausterik nahi, arotz izaten segi nahi zuen, eta halaxe gertatu: paper fabrikako arotzerian jardun zuen. 1906an, Piok osabari, Patrizio Elorzari, eman zion fabrika.

Haundi', en contraposición a su sobrino Etxeberria, a quien denominaban 'Patrizio Txiki'. Eran las dos únicas personas en el pueblo con ese nombre.

[es]

Patricio Elorza marcha a Madrid con quince años

Patrizio Elorza era nacido en la Calle Vieja, en la casa que tenía el nombre de Arabaolazanea y el sobrenombre de Atxaparro; el edificio que luego albergó el Bar Patxi. Era nieto de Santiago (que había llegado de Oñati) e hijo de Miguel Ignacio (que según parece trabajó en la tejería). Cuando Patricio contaba con unos quince años, queriendo prosperar, se trasladó a Madrid. Trabajó primero en una chocolatería del pueblo de Chinchón. Nos ha comentado su nieto Ignacio Arbide: "En los comienzos, dado que le gustaba el chocolate aprovechaba para probarlo. Un día, por lo visto abusó y sintió dolores de vientre. No acudió a trabajar. Al día siguiente, le dijo al dueño que había tenido molestias. Y le contestó: ¿qué creías, que no me daba cuenta? Lo que has tenido es un buen empacho de chocolate".

Luego trabajó en la Ferretería Pereda, en la calle Callao de Madrid. Llegó a convertirse en jefe de dependientes y se hizo con un pequeño capital. Parte de la estancia en Madrid fue como persona soltera, y otros pocos años ya casado con Lucía. Se casaron en 1895 y pocos años después regresaron a Gipuzkoa. En 1902 se asoció con el ezkiotarra Juan José Etxezarreta y fundaron una fábrica papelera en Legorreta. Pero la asociación duró poco, por desavenencias. Patricio regresó a Legazpi y aquella otra fábrica de papel pervivió durante mucho tiempo.

En 1899, al morir Miguel Ignacio Etxeberria, la empresa papelera quedó en una difícil situación. Tenía



Patricio Elorza, lehen ezkontzako seme-alabekin, Placida eta Ignacio (Ignacio Arbidek emana).



Ignacio Elorza (Ignacio Arbidek emana).



Patricio Elorza Bilboko zezenketan (Ignacio Arbidek emana).

[eu] Patricio Elorza eta Lucia Etxeberriak bi seme-alaba izan zituzten: Ignacio (1897) eta Placida (1898). Eta Lucia emaztea 1900ean hil zen. Amandre Agapitarekin hazi ziren ume horiek. Oso persona atsegina omen zen. Placidaren seme Ignacioren testigantza: "Aitona Patriciok nahi zuen Ignacio izatea enpresako kudeatzailea, baina seme hura mekanikaren zale amorratua zen. Ez zuen ardura hura hartu nahi. Uste dut aita-semeek izan zituztela beren tirabirak, kontu hori zela eta".

Motorrean zihoala hil zen Ignacio Elorza, 1930ean. Abeslari ona zen, tenorea, Donostiako Orfeoiko kidea. 1928an, Bartzelonako Erakusketa Unibertsalean kan-

[es] deudas y el mayor acreedor era precisamente Patricio Elorza, que había invertido ahí. En 1901, la deuda con Elorza era de 14.039 pesetas, según dice el libro de Iñaki Beldarrain. La viuda del empresario, Agapita Elorza, entregó la propiedad y gestión de la factoría a su hijo mayor, Pío. Pero, según parece, este hombre prefería su oficio de carpintero, sin quebraderos de cabeza, y así ocurrió: siguió como simple carpintero de la fábrica papelera. En 1906, Pío dejó la fábrica a su tío Patricio Elorza.

Patricio Elorza y Lucía Etxeberria tuvieron dos hijos: Ignacio (1897) y Plácida (1898). Y enseguida, en 1900,

[eu] tatu zuen. Zumarragako Maria Linazasororekin ezkondu zen, 'Altzeta' politikari EAJkoaren arreba. 1930ean, gonbidatu zuten Zumarragan abuztuaren 15ean Ama Birijinaren omenezko elizkizunean kantatzera bakarlari gisa, eta egun hartan hara zihoala, motoan, Esteban Zufiria kontratistaren autoaren kontra jo zuen, eta hil.

Enpresaburuaren alabarekin ezkondu zen Arbide

Patricio Elorzaren alaba Placida (1898), berriz, Anastasio Arbide Larrearekin (1892) ezkondu zen 1920an. Gizon honen gurasoak (aita oiartzuarra, ama zegamarra) Norteko Ferrokarrilerako lan egindakoak ziren, Zalduko kasetan ere bizi izan ziren, eta gero Eskribaukoan. Anastasio, lehenbizi, Pedro Seguraren teilafabrikan aritu zen, gero Uruguaira joan, baina han denbora gutxi egin zuen, dirurik apenas egiten zelako, Legazpira itzuli eta, Lehen Mundu Gerra hastean, 1914an, lana ugaritu eta Patricio Elorzaren paper fabrikan hartu zuten. Han lanean ari zela, nagusiaren alaba Placida ezagutu eta ezkondu egin ziren, segituan, 1932an, etxea eraiki zutelarik fabrika ondoan. Gainera, 1930eko hamarkadan, Patricio hil eta gero, kudeatzaile lana egin zuen Arbidek, harik eta 1937an hil zen arte. Gizon honen agintaldian guztiz indartu zen feltroaren ekoizpena. Material berri honekin lanean hasteko, Alacanteko Alcoy herritik gizon bat ekarri zuten, eskarmentua zeukana, Ramon Vila. Batik bat hiru eginkizunetarako izaten zen feltroa: berokietarako, leuntzeko (besteak beste bitxiak eta metal baliotsuak) eta zoruetarako.


Anastasio Arbiderengan iltzatuta geratu zen Eibarko milizianoak fabrika gelditzera azaldu ziren eguna. Errepublikako urteak ziren. Haietako batzuek dardarka zituzten besoak eta armak. Anastasio behartu zuten

murió Lucía. Los niños se criaron con la abuela Agapita, que según dicen era una persona muy agradable. Testimonio de Ignacio Arbide, el hijo de Plácida: "El abuelo Patricio quería que su hijo Ignacio fuera el gerente de la papelera, pero aquel hombre era un apasionado de la mecánica y no quería asumir ese quebradero de cabeza. Creo que padre e hijo tuvieron sus discusiones por ese tema". [es]

Ignacio Elorza falleció en accidente de moto en 1930. Cantaba muy bien, era tenor y miembro del Orfeón Donostiarra. Cantó en la Exposición Universal de Barcelona en 1928. Se casó con María Linazasoro, de Zumarraga, hermana de Carlos Linazasoro 'Altzeta' el famoso orador del PNV. Invitaron a Ignacio a que cantara en la misa de celebración de la Virgen el 15 de agosto, y cuando se dirigía a ese cometido, su moto chocó contra el coche del contratista Esteban Zufiria.

La hija del empresario se casa con Arbide

La hija de Patricio Elorza, Plácida (1898), se casó en 1920 con Anastasio Arbide Larrea (1892). Los padres de este hombre (de Oiartzun y de Zegama) habían sido trabajadores del Ferrocarril del Norte, 'caseteros', y una de sus viviendas fue la caseta de Zaldu en Legazpi. Anastasio nació en 1892 y primeramente trabajó en la tejería de Pedro Segura. Luego marchó a Uruguay, pero regresó pronto, tras comprobar que allí no prosperaría. En 1914, al estallar la Primera Guerra Mundial, aumentó el trabajo y la fábrica papelera contrató a Anastasio, quien siendo operario se hizo novio de Plácida, la hija del empresario, y se casaron. Enseguida, en 1932, construyeron una casa al lado de la empresa. En la década de 1930, tras el fallecimiento de Patricio Elorza, Arbide se convirtió en gerente, puesto que ocupó hasta su muerte en 1937. Durante su gerencia, la empresa comenzó a producir también fieltro, y para ello contrató a un especialista de Alcoy, Ramón Vila.



Bartzelonan 1928ko Nazioarteko Erakusketan, Ignacio eta Placida Elorza anai-arrebak, eta Anastasio Arbide (Ignacio Arbidek emana).



Placida Elorza (Ignacio Arbidek emana).



Anastasio Arbide.



Anastasio Arbide eta Placida Elorzaren etxea (Ignacio Arbidek emana).

[eu] fabrikan zehar ibiltzera, makinak gelditzeko esatera. Haren kezka nagusia, hala ere, milizianoak trankiltzea izan zen.

Placida eta Anastasioren seme-alabak: Carlos (1921), Blanca (1924), Eugenio (1927), Ignacio (1930-2023) eta Maribel (1932). Ignaciok ingeniaritza ikasketak egin zituen, Patrizionean jardun eta 'Ferrerías en Legazpi', 1980ko liburuaren egileetako bat izan zen.

1940ko hamarkadatik aurrera, enpresako kudeatzaile, Patricioren eta bigarren emaztearen seme Antonio jar-

Este material se destinaba a suelos, abrigos y discos para pulimento de metales y piedras preciosas. [es]

En la mente de Anastasio Arbide quedó marcado para siempre el momento en el que unos milicianos llegados de Eibar, armados con fusiles, entraron en la Papelera y le obligaron a que fuera de máquina en máquina diciendo a los operarios que dejaran de trabajar. Algunos de los milicianos estaban tan nerviosos que les temblaban las manos, y Anastasio se dedicó a tranquilizarles. Eran los años de la República.





Paper fabrikako Eugenio Elorzaren despedida. Erdian, Gaudencio Perez eta Mari Tere Guridirekin ageri da (Mari Tere Guridik emana).

Paper fabrika. Bulegoetako langileen bilkura (Mari Tere Guridik emana).

[eu] dun zen. Honen koinatu José Luis Ferrando (Conchita Elorzarekin ezkondua) feltroaren atalaz arduratzen zen. Patricioren beste bi seme ere jardun ziren enpresan: Felix (bulegoan) eta Damian (laborategi kimikoan). Bi senideok Latxartegi ondoko txalet batean bizi izan ziren, bi bizitzakoa, eta gero Donostiara aldatu.

1974an, zoruentzako moketak ekoizten hasi ziren. Atal hori sekula ez zen guztiz errentagarri izan. 1982an kapital-gehikuntza egin zuten, lehendik zetorren krisi ekonomiko handiari aurre egin nahian. Orduan famili enpresa izateari utzi zion, eta 1999an betiko itxi zen. ❖

[es] Plácida Elorza y Anastasio Arbide tuvieron estos hijos: Carlos (1921), Blanca (1924), Eugenio (1927), Ignacio (1930-2023) y Maribel (1932). Ignacio realizó estudios de ingeniería, trabajó en la fábrica de Patricio y fue uno de los autores del libro 'Ferrerías en Legazpi', de 1980.

En la década de 1940 y años posteriores la gerencia fue asumida por el hijo mayor del segundo matrimonio de Patricio, Antonio Elorza. La línea de producción de fieltro fue coordinada por su cuñado, José Luis Ferrando, que se había casado con Conchita Elorza. Otros dos hijos de Patricio también trabajaron en la empresa: Félix, en las oficinas, y Damián, en el laboratorio químico; vivieron en un chalet familiar situado al lado del campo de fútbol de Latxartegi, para trasladarse luego a San Sebastián.

En 1974 comenzaron a fabricar moquetas para suelos. Esa actividad nunca fue rentable. En 1982, con el fin de salir a flote, se hizo una ampliación de capital. Entonces la papelera dejó de ser una empresa familiar. ❖



08 _ kalebarren

PAPELERAKO TEKNIKARIEN ETXEA 18 CASA de los TECNICOS de la PAPELERA



Papelerako etxea, non Ramon Vila eta lasatarrak bizi izan baitziren (F.I.O.).

[eu]

1932an eraiki zen. Jose Luis Ugarte ikerlariaren arabera, Azpikoetxeko errota zegoen orubean altxatu zen, zeina Villalegre eta San Millango markesarena baitzen, Porceldarren familiarena, alegia.

Ramon Vilaren familia bigarren solairuan bizi izan zen. Gizon hau Alacanteko Alcoy hirian jaioa zen eta 1930ean iritsi zen Legazpira, ondoan emazte Rosa Santonja zuela, eta baita Rosa izeneko bederatzi urteko alaba ere. Papelerak deituta etorri zen, izan ere enpresa honek feltroa egiten hasi nahi zuen, eta Vilak ederki ezagutzen zuen teknika hori. Familia, bi urtez, Gasparren hotelean egon zen, harik eta eraikin hau egin zen arte.

Ramon Vila gizon alai bat zen eta musikazalea, Alaitasuna errondailako kide bihurtu zelarik. Legazpiko errege-kabalgataren sortzaile ere izan zen, bere jaioterrian ohikoa baitzen eta Legazpin txertatu nahi. Ekimen horren lehen urteetan, kideak Olaberriko burdinola izandako sototik abiatzen ziren, beharbada han bizitua zelako Vilaren suhia, Esteban Agirre.

Ramon Vila hil zenean, Papelerako beste enplegatu baten, Ramon Urkizuren familia bizi izan zen.

Eraikin honetako lehen solairua, berriz, Jose Lasaren familiaren bizilekua izan zen, hau ere Papelerako teknikaria. Gizon hau Alegian jaioa zen eta Maria Urkizurekin ezkondutakoa, hau berriz Tolosako Arzabalzako trenbide-kaxetan jaioa. Hain zuzen ere, Lasaren lehenbiziko lantokia Arzabalzako paper-fabrika izan zen. Gero Legorretara joan zen, Etxezarretaren paper-fabrikara, eta handik Legazpira, 1926an. Hemengo fabrikan papergintzaren zuzendari tekniko hasi zen. Izaera gogorreko pertsona zen, zorrotza bere buruarekin eta bere langileekin. Biloba batek, Jose Mari Etxeberria Lasak, adierazi digunez, lehenengo egitekoa ordena ipintzea izan zuen, beharra zegoen eta.

Lehenbiziko haurra, Juanito, Tolosan jaio zen 1918an. Gero, Legorretan, Anita eta Ramon jaio ziren, azkeneko hau ehun urterekin hil zelarik 2023an, ia bizitza osoa Legazpin pasa eta gero.

1945etik aurrera, Jose eta bi seme-alaba, Anita eta Ramon, Tolosan bizi izan ziren, eraikuntzarako materialak

[es]

Se edificó en 1932, en el solar que, según el investigador José Luis Ugarte, ocupaba el antiguo molino de Azpikoetxea, perteneciente a la familia Porcel, los marqueses de Villalegre y San Millán.

La familia de Ramón Vila vivió en el segundo piso de la casa. Este hombre llegó desde Alcoy (Alicante) en 1930, con su mujer Rosa Santonja y su hija Rosa de nueve años. Lo trajo desde allí la Papelera porque conocía la técnica de elaboración del fieltro, y esta empresa quería comenzar a fabricarlo. La familia pasó dos años alojada en el Hotel Gaspar hasta que se terminó de construir este edificio.

Ramón Vila era un hombre alegre, aficionado a la música y miembro de la rondalla Alaitasuna. Fue el impulsor de la Cabalgata de Reyes, algo que conoció en su pueblo natal y quería implantar también en Legazpi. La comitiva, en aquella primera época, partía desde la antigua ferrería de Olaberria. Quizá utilizaran ese sótano porque su yerno, Esteban Agirre, había nacido en esa casa.

Al fallecer Ramón Vila, en este piso vivió la familia de otro empleado de la Papelera, Ramón Urkizu.

En el primer piso de este edificio residió la familia de José Lasa, también empleado de la Papelera. Esta persona, natural de Alegia y casado con María Urkizu, de la caseta ferroviaria de la zona de Arzabalza en Tolosa, empezó a trabajar precisamente en la fábrica de papel de Arzabalza. Luego pasó a la papelera Etxezarreta de Legorreta y de allí se trasladó a Legazpi en 1926. Aceptó el cargo de director técnico. Era un hombre de fuerte carácter, exigente para consigo mismo y para con los obreros. Según José Mari Etxeberria Lasa, uno de sus nietos, su primer cometido fue poner orden, algo que allí debía faltar.

El primer hijo, Juanito, nació en Tolosa en 1918. Luego Anita y Ramón, en Legorreta, y este último ha fallecido a los 100 años en 2023, tras casi toda una vida residiendo en Legazpi.

José y sus hijos Anita y Ramón, a partir de 1945 vivieron en Tolosa, donde montaron un almacén de materiales de construcción. José pactó con la Papelera un des-



Juanito Lasa semeekin (Idoia Lasak emana).



Joxe Lasaren emaztea, Maria Urkizu (Idoia Lasak emana).



Ramon Lasa eta emaztea (Idoia Lasak emana).



Joxe Lasa (eskuinaldean) eta Maria Urkizu emaztea (Idoia Lasak emana).

[eu] saltzen atera zutelarik bizimodua. Josek kanporaketa adostu baitzuen Papelerako nagusiekin, bolada gatazkatsu baten ondoren. Seme nagusia, berriz, Juanito, Legazpin gelditu zen eta baita ere Papelerako teknikari izan zen.

Juanito bizirik atera zen 36ko gerratik. 1918an jaioa, 1936an CNTko Dragoien batailoian sartu zen eta Gijóngo zezen-plazan bukatu zuen preso. Legazpiko paper-fabrikan, aurrena bulegoan hasi zen lanean, administrari. Soledad Manero burgostarrarekin ezkondu eta lehenbiziko umea, Javier, 1945ean jaio zitzaien (eta gero Anton). Urte hartantxe papergintzaren koordinatzaile bihurtu zen, alegia, aitak izandako lanpostu bera. Guztiz berria zen egiteko horretan, baina urteen poderioz enpresako zutabeetako bat bilakatu.

Juanito, gero, Tolosatik bueltatutako bere gurasoekin bizi izan zen etxe honetan, eta baita arreba Anitarekin ere. ❖

[es] pido, tras una fase conflictiva. El hijo mayor, Juanito, se quedó en Legazpi, tras salir vivo de la guerra del 36. Nacido como se ha dicho en 1918, con 18 años se alistó en un batallón de Dragones de la CNT y acabó preso en la plaza de toros de Gijón.

Juanito comenzó como administrativo en la Papelera de los Elorza. Se casó con la burgalesa Soledad Manero y el primero de los hijos, Javier, nació en 1945. Ese año se convirtió en jefe de la línea de producción de papel, el mismo cargo que había ostentado su padre. Acometió la nueva tarea desde cero, pero luego fue uno de los pilares de la factoría.

Juanito y Soledad vivieron en esta casa con sus padres, llegados desde Tolosa, y la hermana Anita. Tuvieron dos hijos, Javier y Antón. ❖



08 _ kalebarren

PAPELERAKO TXOFERRAREN eta MEKANIKARIAREN ETXEA

19 CASA del CHÓFER y del MECÁNICO de la PAPELERA



Papelera. Txofer eta mekanikariaren etxea, 1946an egina (F.I.O.).

[eu]

1946ko etxea da. Bi familia bizi izan ziren bertan, Papelerako txoferrarena eta mekanikarien buruarena.

Andres Guridik bi hamarkada egin zituen Elorzaneko familiaren txofer gisa, 1939an hasita. Era askotako bidaiak egiten zituen, hasi etxekoandrearen enkargu txikiekin eta baita bidaia luzeak ere, Papelerako asuntoak zirela-eta. 1906an jaioa Oñatin, familia Zumeltzegiko dorrean bizi zen, gainera bertako parte baten jabe zelarik. Gaitzizena, hori dela-eta, 'Ttorre' zeukan Andresek. Gaztaroan garraiolari moduan egin zuen lan eta, beste bazkide batzuekin, autobusa eduki zuen, zeinarekin 1931n hainbat bidaia egin zuen Ezkiora, amabirjinaren agerpenak zirela-eta. 1935ean ezkondu zen, Micaela Bernardorekin. 1936ko gerrakoan, Eusko Jaurlaritzarentzat egin zuen lan. 1937an Gernikan zen bonbardaketa gertatu zen egunean.

Legazpira 1939an azaldu zen, Elorzatarren txofer gisa jarduteko. Familia horrentzat, aurretik, Juan Alustiza Agirre aritu zen kotxe-gidari, baina 1936an gudariekin egin zuen bat eta transmisio eta loturen arloan lan egin, harik eta 1937an hil zuten arte. Alustizatarren familia oso zen abertzale eta 36ko gerratean bi senide hil ziren eta beste hiru preso bukatu.

Andres Guridi, emazte Micaelarekin eta hilabeteko umearekin (Luis) azaldu zen Legazpira. Gaixorik etorri ere, eta emaztea bidali aurrezki kutxara dirua ateratzera, behar zuen gain-elikadura ordaindu ahal izateko. Baina ez zioten bere dirua etxeratzen utzi, gerran beste bandoan ibilia zelako; geroago bai, utzi zioten.

Bigarren umea, Mari Tere, 1940an jaio zen, eta hamalau urterekin hasi zen Elorzatarren paper fabrikan. Lehenengo lana izan zuen egunero gutunak eramatea Elorzatarren etxera, Doña Lorenzak irakur zitzan. Paper-fabrikarako ziren eskutitzak Antonio Elorza kudeatzaileari eramaten zizkion, zeinak bere bulegoan animalia disekatu asko zituen; ehizazalea izan, nonbait. Mari Terek dio Doña Lorenza oso pertsona "gertu-

[es]

El edificio data de 1946. Vivieron aquí las familias del chófer y del jefe de mecánicos de la Papelera.

Andrés Guridi trabajó como chófer de la familia Elorza durante dos décadas, a partir de 1939. Hacía trayectos muy variados, desde sencillos encargos de la señora de la casa y sus hijos hasta viajes más largos, relacionados con las actividades de la Papelera. Nació en 1906 y su familia vivía en la torre Zumeltzegi y era dueña de una parte del edificio. De hecho, Andrés en Legazpi tenía el sobrenombre de Ttorre. En su juventud trabajó como transportista y con el autobús del que era socio transportó por ejemplo, a numerosa gente al lugar de las apariciones de Ezkio en 1931. Se casó en 1935 con Micaela Bernardo, oñatiarra de familia alavesa. Al estallar la guerra del 36 trabajó para el Gobierno Vasco. En 1937, el día del bombardeo de Gernika, se hallaba allí.

Vino a Legazpi en 1939, para trabajar como chófer particular de los Elorza. Esta familia había contado con los servicios de Juan Alustiza Agirre, que al estallar la guerra se fue con los gudaris, trabajó en la sección de enlaces y transmisiones, y murió en 1937. Los Alustiza eran de una familia muy abertzale, que en la guerra del 36 perdió a dos hijos y tuvo presos a otros tres.

Andrés apareció por Legazpi con su esposa Micaela y un hijo, Luis, de un mes. Vino enfermo y envió a su esposa a la caja de ahorros para sacar dinero y poder costearse la sobrealimentación que necesitaba. Se lo negaron, por su pasado en el conflicto bélico; más tarde sí que le permitieron disponer de ese dinero incautado.

La segunda hija, Mari Tere, nació en 1940 y con 14 años comenzó a trabajar para la empresa papelera de los Elorza. Su primer cometido fue llevar la correspondencia diaria al palacio, para que Doña Lorenza la revisara. Las cartas destinadas a la Papelera se las llevaba al gerente, Antonio Elorza, un hombre por lo visto aficionado a la caza, ya que tenía animales disecados en el despacho. Mari Tere recuerda a Doña Lorenza como una perso-



Andres Guridi 1958an etxe aurrean (Mari Tere Guridik emana).



Andres Guridi eta Placida Elorza Sevillan. (Mari Tere Guridik emana).



Ramon Vila eta 'txiki' Iriondo (Rosa Agirrek emana).

[eu] koa" zela, eta bai hark bai Antonio Elorzak euskaraz egiten omen zioten.

Mari Tere Guridik paper fabrikan jarraitu zuen, gero eta egiteko teknifikatuagoekin, harik eta enpresa 1999an itxi zen arte.

Guridi-Bernardotarrak, hasieran, Alustizatarren etxean bizitu ziren, Kale Berrian (Toki Alai taberna gainean), eta 1946an Papelerako etxe egin berri hau estreinatu zuten.

Eraikin honetan, goiko bizitzan, 1948az geroztik, Papelerako mekanikarien buru egiten zuen Marcos Zabaleta Enatarriaga bizi izan zen. 1910ean jaioa zen, Aztiriko Bentalegorren, umezurtz gelditu eta aitonaamonek hazi zuten, Gabiriako Izargoena baserrian.

[es] na "muy cercana". Tanto ella como Antonio acostumbraban hablarle en euskera.

Mari Tere siguió trabajando en la oficina de la Papelera, cada vez con cometidos más tecnificados, hasta que se cerró la factoría en 1999.

Los Guridi-Bernardo vivieron en el último piso de la casa de los Alustiza (en la Calle Nueva, la que en su planta baja albergó el bar Toki-Alai) hasta que en 1948 se trasladaron a esta casa recién construida por la Papelera.

En este edificio, en el piso superior, vivió a partir de 1948 la familia del jefe de mecánicos de la Papelera, Marcos Zabaleta Enatarriaga. Nacido en 1910 en Bentalegor, de Aztiri, quedó huérfano siendo niño y fue criado por los abuelos en el caserío Izargoena de Gabiria. En los años



Markos Zabaleta eta arreba Illari (Juani Zabaletak emana).



Andres Guridi txoferra, gabardinaz, eta emaztea. Euskadi Plazaren inauguraziokoan. (Mari Tere Guridik emana).

[eu] 1930eko hamarkadan Urzelaiko etxera joan zen, arreba Hilariaren ondora, eta han bizi zela Maria Lazkano Oionekin ezkondu zen, hau berriz Nafarroako Unanu herrikoa, eta Txoko tabernan lan egitera etorritakoa. Bi alaba izan zituzten, biak Urzelain jaioak: Mila (1942) eta Juani (1947).

Etxe honetara 1948an bizialdatu ziren. Fabrikari interesatzen zitzaion mekanikarien burua gertu bizitzea. Marcosek trebezia erakutsi zuen beste arlo batean ere: Papelerako txoko guztien planoak egin zituen.

1950 eta 60ko hamarkadetan enpresaren zutabeetako bat izan zen Marcos, Juanito Lasa eta Vicente Gibelalderekin batera. Azkeneko hau feltroaren produkzioa koordinatzen zuen, eta Lasak paperarena. Beste pertsona giltzarri bat Eugenio Elorza izan zen, bulegoko burua.

Marcos, 1936ko gerrakoan, Amaiur batailoiarekin borrokatu zen, Gabiriako beste lagun batzuekin batera. 1989an hil zen. Familiak 1993. urte aldera utzi zuen etxe hau, eta 1998an saldu. ❖

[es] 30 pasó a vivir en la casa de Urzelai con su hermana Hilaria, y residiendo allí se casó con María Lazkano Oyon, navarra del pueblo de Unanu, quien llegó a Legazpi para trabajar en el Bar Txoko. Tuvieron dos hijas, Mila (1942) y Juani (1947), ambas nacidas en Urzelai.

La familia comenzó a residir en esta casa en 1948. Había sido construida por la Papelera y a la empresa le interesaba que Marcos, el jefe de mantenimiento, viviera cerca de la factoría. Este hombre destacó también por realizar planos de todas las dependencias de la Papelera.

En las décadas de los 50 y los 60 Marcos fue uno de los pilares de la Papelera, junto con Juanito Lasa (jefe de la producción de papel), Vicente Gibelalde (jefe de la sección de fieltros) y Eugenio Elorza (jede de la Administración).

Marcos, en la guerra del 36, combatió encuadrado en el batallón Amaiur junto con otros amigos de Gabiria. Falleció en 1989. La familia dejó esta casa hacia 1993 y la vendió en 1998. ❖



08 _ kalebarren

TXINTXOETXE 20 TXINTXOETXE



*Txintxoetxe (*F.I.O.*).*



*Txintxoetxe, labaderoa (*F.I.O.*).*

[eu]

Atagoitin jaio (1885ean) eta bizitutako Martin Mari Zufiria Agirreburualdek egin zuen etxea, seguru asko 1920ko hamarkadan. Patrizioren fabrikan ari zen, baina Atagoitin bazeukan ganadua ere. Haren biloba Andres Zufiria artzainak esan zigun hasieran Etxegarai ipini nahi ziola izena, baina azkenean Txintxoetxe deitura nagusitu zela jendartean; diotenez, Martin Mari oso gizon txintxoa zelako.

Gero, poliki-poliki, bertako bizitzak saltzen joan ziren Atagoitikoak, bi pisu izan ezik, lehen solairuko biak. Nagusiak, Zufiriatarrak, sekula ez dira bizi izan etxe honetan.

Olaetxekoak, Araiakoak

Horko lehenengo bizilagunetako bat Doroteo Zabaleta Aranburu (1897) izan zen, Olaetxen jaioa. Lehenengo solairuan bizi izan zen, eskuinaldean. Doroteo, Antzuolako Ibarre baserriko Felipa Gabilondorekin ezkondu eta, lehenbizi, Kale Zaharrean bizi izan ziren, oraindik zutik dagoen Basaberen dendako etxean. Hantxe jaio zen lehenengo umea, Rufino, 1924an. Segituan Txintxoetxera aldatu zen familia eta hantxe jaio gainerako seme-alabak: Carlos, Anastasio, Paco, Arantxa, Jose Luis, Encarna, Ana Mari eta Corpus.

Patrizioren fabrikako lehenengo langileetako bat izan zen Doroteo. Forjan jardun zuen. Alaba Corpusek gogoan du 1940ko hamarkadan gizona nola ibili zen estraperloan: “Joaten zen trenez Sakana aldera eta trukea egiten zuen: olioa eta azukrea eraman eta garia ekarri. Zaku lodia (edo bikoitza, agian) eraman ohi zuen, geltokia baino lehenago leihotik botatzen zuenean, hartara puskatu ez zedin”. Etxe ondoko txabola batean bi zerri hazten zituzten, horietako bat saltzeko. Joan ziren seme-alabak ezkontzen eta ama, Felipa Gabilondo, izan zen azkena etxea utzi zuena. 1970. urte aldera egin zuen alde. Osasunez pattal zebilen eta alaba baten etxera joan zen.

[es]

Casa edificada por una persona del caserío Atagoiti, Martín Mari Zufiria Agirreburualde (1885), seguramente en la década de 1920. Trabajaba en la fábrica de Patricio, pero también en el caserío, con ganado incluido. Su nieto el pastor Andrés Zufiria nos contó que en un comienzo el abuelo quiso bautizar a la casa con el nombre de Etxegarai, por su altura, pero que finalmente entre la gente se impuso la denominación de Txintxoetxe, según parece porque Martín era una persona muy recta y bondadosa.

Zufiria fue vendiendo las viviendas del inmueble, a excepción de dos, las del primer piso. Esta familia del caserío Atagoiti nunca ha residido aquí.

De Olaetxe, de Araia

Uno de los primeros inquilinos fue Doroteo Zabaleta Aranburu (1897), nacido en el caserío Olaetxe. Vivió en el primer piso, puerta derecha. Doroteo estaba casado con Felipa Gabilondo, del caserío Ibarre de Antzuola, y primeramente vivieron en la casa de la Calle Vieja en la que estuvo enclavada la tienda de Basabe. Allí nació el primer hijo, Rufino, en 1924. Enseguida los Zabaleta-Gabilondo se mudaron a Txintxoetxe y aquí nacieron los demás hijos: Carlos, Anastasio, Paco, Arantxa, José Luis, Encarna, Ana Mari y Corpus.

Doroteo fue uno de los primeros operarios de la fábrica de Patricio. Trabajó en la Forja. Su hija Corpus recordaba como realizaba el estraperlo en los años 40: “El padre iba en tren hacia la Barranca y hacía trueque: llevaba aceite y azúcar y traía trigo. Usaba un saco grueso, o a veces saco doble, para que no se rompiera cuando lo echaba de la ventana algo antes de llegar al apeadero de Legazpi”.

En una chabola cercana la familia criaba dos cerdos, uno de ellos destinado a la venta.

Los hijos se fueron casando y la madre, Felipa Gabilondo, fue la última en abandonar la casa. Lo hizo hacia



Atagoitiko Paco Zufiria eta seme Andres, Urbiako txabolan.



Martin Mari Zufiria eta emazte Joxepa Goiburu (Andres Zufiriak emana)



Doroteo Zabaleta, emazte Felipa ezkerrean, koinata Rita Kortaberria eskubian eta hiru arreba mojak (Corpus Zabaletak emana).



Zabaletatarrak. Encarna, Paco, Corpus, Felipa, Doroteo, Arantxa, Anastasio, Ana Mari. Behean, Rufino, Jose Luis, Carlos (Corpus Zabaletak emana).



Miguel Garate eta Ildefonsa Albizu seme-alabekin. Atzean, Carmen, Rosa, Aurora eta Aurelio. Besteak, Agustin, Dolores, Mari eta Julian. Aurrean, Mª Jesus (Mila Arrietak emana).

[eu] Etxe honen lehen garaiko beste familia bat, Garate-Albizutarrena. Miguel Garate eta Ildefonsa Albizu Araiatik azaldu ziren; lehenbizi Urretxura etorri ziren, gero Txintxoetxen jarri ziren bizitzen. Eta geroago, Araotzenean ("galegoen etxean") eta Buenaventuran ("Blasenean", "Martxelinean").

[es] 1970. Se encontraba delicada de salud y se trasladó a casa de una hija.

Otra familia de la primera época de Txintxoetxe fue la de Miguel Garate e Ildefonsa Albizu. Este matrimonio procedía de Araia. Primero se instalaron en Urretxu, luego en Txintxoetxe, de ahí pasarona Araotzenea ("la casa de los gallegos") y más tarde recalaron en Buenaventura, "la de la Martxeli".



Maria Berasategi (ezk), Catalina Saez de Arzamendi (erd) eta ezezaguna (Aitor Gurrutxagak emana).



Sorkunde eta Rafael Zubia (Aitor Gurrutxagak emana).



Silvestre Gurrutxaga eta Rafael Zubia konsuegroak, txabolan (Aitor Gurrutxagak emana).



Enrique Mz eta emazte Pepita Makibar, bi alabak (Amaia eta Bakartxo) eta aitona Jose Martinez (Amaia Martinezek emana).

[eu]

Maria Berasategi eta bere enplastoak

Eta lehen solairuan ezkerreko atean, 1932tik aurrera, Silvestre Gurrutxaga Arregi eta Maria Berasategi Zabala bizi izan ziren, hau berriz enplastera sonatua, bisita asko izaten zituena. Silvestre Ilarduian jaioa zen, 1900ean, eta Araian, Ajurianean lan egindakoa.

[es]

La curandera María Berasategi

Y en la puerta izquierda del primer piso vivieron, a partir de 1932, Silvestre Gurrutxaga y su esposa María Berasategi, que era una emplastera de renombre y recibía numerosas visitas. Silvestre había nacido en Ilarduia, trabajado en la fábrica de Ajuria en Araia, y se casó con



Zumarragatarrak. Maria, Luxia, Antonio, Ambrosio eta Anita, Elorzanean (Aitor Gurrutxagak emana).



Ezkerretik bigarrena, Rafael Zubia (Sorkunde eta Rafael Zubiak emana).



Sorkunde Zubia eta Jose Mari Gurrutxagaren ezkontzak Txintxoetxeko bi familia elkartu zituen (Aitor Gurrutxagak emana).



Lucia Zumarraga Makibar (Sorkunde etra Rafa Zubiak emana).

[eu] 1921ean, soldaduska egiten hasi eta Donostiatik Afrikara joan zen, non 37 hilabete eman baitzituen, independentzia aldarrikatzen zuten bertako matxinoen kontra. Araia iritsi zenean ustekabekoa izan zen, denek hildakotzat jotzen zuten eta. Hango ibilera beldurgarrien kontakizuna Txinpartak aldizkariaren 50. alean eskaini zen.

[es] la zegamarra María en 1928. Silvestre era nacido en 1900 y en 1921 partió como recluta desde Donostia a África, donde estuvo 37 meses luchando como soldado en el Protectorado español contra los habitantes de la zona que reclamaban la independencia. Nunca gozó de un permiso y cuando volvió todos le daban por muerto. Sus peripecias fueron recogidas en el número 50 de la revista Txinpartak.

[eu] Maria, berriz, Zegamako Aizpuru baserrikoa zen, baina aitak Araian Basaiz baserria erosi eta familia hara aldatu zen. Silvestre eta Maria Araian ezkondu ziren 1928an eta hantxe munduratu zen lehen umea. Txintxoetxera joan aurretik, frontoi atzean bizi izan ziren. 1936ko irailean, Francoren aldekoak jaitsi zirenean Arrasetatik behera, Maria balkoian zen eta soldadu haietako batek oihu egin zion paretik pasatzean, esateko ozen 'viva España', bestela tiro egingo ziola eta.

Durrumako (San Román de San Millán) Catalina Saez de Arzamendirekin ikasi zuen herri-sendagintza Maria Berasategik. Emakume honek Mariaren etxean jarri zuen kontsulta eta jende asko inguratzen zitzaion. Trenez etortzen zen eta, hasiera batean, Zumarragan jaisten, artean egin gabe baitzegoen Legazpiko geltokia.

Larrea-Pinedo arabarrak

Beheko solairuko eskuineko atean, berriz, 1930eko hamarkadan, Alejandro Larrea eta Bittori Pinedo bizi ziren, bata Zalduondon jaioa, bestea Gesaltza Añanan, eta Beasainen elkar ezagutuak, lanean ari zirela. Alejandro Legazpira etorri zen, entzunda Patrizio Etxeberriak jendea behar zuela, eta fabrikari begira zegoela, Patrizio bera gerturatu eta lana eskaini. Adiskide izan ziren Alejandro eta ugazaba, harik eta 1936ko irailean Patriziok zapuztualdia izan zuen arte. Alejandroren biloba Josean Larrearen testigantza: "Nazionalak Arrasetatik behera sartu zirenean, aitona lanean ari zen eta nagusiarengana joan zen, esateko bera etxera zihoala, familia zaintzera. Patriziok erantzun zion hor fabrika barruan seguru zegoela. Baina aitonak alde egin zuen, familiaren ondoan egoteko une zail hartan, eta hori jakin zuenean Patrizio haserretu eta adiskide izateari utzi zion. Ordura arte, gure aita eta osaba bat ikastetxe frantsesean ibiliak ziren, Patriziok diruz lagunduta. Hantxe bukatu ziren eskolaldi haiek ere".

[es] María Berasategi era natural del caserío Aizpuru de Zegama, pero su padre compró el caserío Basaiz de Araia y allí se trasladó la familia. Se casaron en Araia y allí nació el primer hijo. Llegaron a Legazpi en 1931 y antes de pasar a Txintxoetxe residieron en una casa de detrás del frontón. En septiembre de 1936, cuando las tropas nacionales bajaban desde Arraseta, uno de los soldados le dijo a María, que estaba en el balcón, que gritara 'viva España', que de lo contrario le pegaría un tiro.

Catalina Sáez de Arzamendi, de San Román de San Millán, fue la que enseñó medicina popular a María Berasategi. Esa mujer puso además consulta en la casa de María y acudía mucha gente. Venía a Legazpi en tren y, al comienzo, se bajaba en Zumarraga, porque no existía aún el apeadero de Legazpi.

Los alaveses Larrea-Pinedo

En la planta baja, mano derecha, en los años 30 vivieron Alejandro Larrea y Bittori Pinedo, de Zalduondo y Salinas de Añana respectivamente, quienes se habían conocido en Beasain. Alejandró oyó que Patricio necesitaba obreros y se presentó en Legazpi. Ese mismo día, mientras observaba la fábrica, se le acercó el mismo Patricio y le ofreció empleo. Alejandro y el patrón fueron grandes amigos hasta que en septiembre el empresario le dio la espalda. Lo cuenta el nieto de Alejandro, Josean Larrea: "Cuando los nacionales entraron en el pueblo bajando desde Arraseta, el abuelo estaba en la fábrica y le dijo al patrón que se iba a casa, a proteger a la familia. Patricio le contestó que siguiera en la fábrica, que era lugar seguro. Pese a todo, Alejandro se fue a Txintxoetxe, para estar con los suyos en ese difícil momento, y al enterarse, Patricio se enfadó y dejó de considerarle amigo. Hasta entonces, mi padre y un hermano suyo habían estudiado en un colegio francés,

[eu] 1940ko hamarkadan utzi zuten Txintxoetxe Alejandro eta Bittorik, Beatakora (Nikasioren harategia zegoen etxera) joateko. Familia oso ugaria zen eta toki gehiago behar.

Larrea-Pinedotarrek utzitako etxe horretan, 1940ko hamarkadan, Martinez-Lopez de Heredia familia sartu zen. Aita Olaztin jaioa zen, ama Arabako Arriolan. Eta hauen seme Enrique gelditu zen gero bizi izaten bertan, 1958an Pepita Makibarrekin ezkonduta. Emakume honen aita, Roman, gertukoa zen, Irazola baserrikoa; ama, Juli, Amezketakoa. Eta egun Pepita bertan bizi da, alargunduta.

Beheko solairuan, ezkerreko atean, Agustin Biain eta Teresa Nogueraren familia bizi izan zen 1950eko hamarkadan, gero Arantzazu auzora aldatu zelarik.

Bertan bizi izandako beste familia bat, Rafael Zubia eta Lucia Zumarragarena; bigarren solairuan. Gizona Oñatitik etorria, emaztea Irazola baserrian jaioa. Gero alaba Sorkunde (1934) eta seme Rafael (1937) bizi izan dira eta dira; baina beste bi seme-alaba ere izan ziren, Joxe (1933) eta Ana Mari (1947). Sorkunde, berriz, Jose Mari Gurrutxaga Berasategiren alarguna da, eta gizon hau etxe honetantxe bizitu zen txikitatik, lehen aipatutako Silvestre eta Mariaren seme baitzen. Anaiarrebon gurasoak Rafael Zubia Kortaberria eta Lucia Zumarraga ziren, bata Oñatitik etorria, Papeleran lan egiteko, bestea Irazolakoa. Gizonak, Papelerako lanaz gain, baso-botatzen jarduten zuen, batik bat Korosti azpian eta Irimo aldean, batetik bestera bizikletan mugitzen zelarik.

Eta bigarren solairuan, baita ere, Donato Lucoren familia. Hirugarrengoan, Juanito Inza, trenak harrapatu eta hildako gizona, Casimira izeneko oñatiar batekin ezkonduta zegoena. Halaber, hirugarrengo solairuan Bixente Etxaleku eta Iñaxi Guridi bizi izan ziren. ❖

[es] con ayuda económica de Patricio, pero ahí se acabó también ese asunto".

Alejandro y Bittori dejaron Txintxoetxe en los años 40, para mudarse a Beatakoa, la casa de la carnicería de Nicasio. Eran familia muy numerosa y precisaban una vivienda más amplia. En esa vivienda de Txintxoetxe entró en los 40 la familia Martínez-López de Heredia. El hombre era nacido en Olazti y la esposa en el pueblo alavés de Arriola. Y fue el hijo Enrique quien siguió luego en esta vivienda, casado con Pepita Makibar, que era hija de Román, del cercano caserío de Irazola, y de Juli, y nacida en Amezketa. Hoy en día Pepita sigue residiendo aquí, ya viuda.


En la planta baja, mano izquierda, en los años 50 vivieron Agustín Biain y Teresa Noguera. Luego se mudaron al barrio Arantzazu.

Otra familia de Txintxoetxe es la de Rafael Zubia y Lucía Zumarraga, que vivieron en el segundo piso. Rafael era oñatiarra, la esposa del caserío Irazola. Más tarde, la vivienda ha sido el hogar de su hija Sorkunde (1934) y el hijo soltero Rafael (1937). Hubo otros dos hijos, Joxe (1933) y Ana Mari (1947). Sorkunde se casó con José Mari Gurrutxaga Berasategi, que vivió desde bastante pequeño en esta misma casa, dado que era hijo de los mencionados Silvestre y María.

Los padres de Sorkunde y Rafael fueron Rafael Zubia Kortaberria, que llegó de Oñati a la Papelera, y Lucía Zumarraga, del caserío Irazola. Rafael, además, trabajó como leñador, sobre todo en los bosques de los montes Korosti e Irimo, y se desplazaba en bicicleta.


Otras familias fueron la de Donato Luco y la de Juanito Inza (que murió atropellado por el tren), casado con una oñatiarra de nombre Casimira. En el tercer piso vivió también la familia de Bixente Etxaleku e Iñaxi Guridi. ❖





09
[mantxola]

1. Mantxolaaundi
2. Mantxola Berri
3. Mantxolatxiki
4. Mantxolatxikiberri
5. Ajuex



MANTXOLAAUNDI 1 MANTXOLAAUNDI



Mantxolaaundi (Fernando Mz. de Albeniz, 2013).

[eu] Historia luzeko etxea. Aspaldi honetan bi leinutako jendea bizi izan da hemen, eta bizitzak bi-hiru izan dira.

Agirretarrak, ehunka urtez hemen

Eva Aztiria Agirrek eta Miguel Angel Agirre Alvarezek ikerketa lana plazaratu zuten 'Txinpartak' aldizkariko 19. zenbakian, Legazpiko Diaz de Agirretarren leinuari buruzkoa. Joanaztegi baserrian sortu ondoren, leinua herriko beste etxe batzuetara zabaldu omen zen eta ikerlariok frogatu zuten 1582tik oraingo garaira arte, leinu honetako kideak bizi izan direla errentero Mantxolaaundin. 1582an, Juan Diaz de Agirrek sinatu zuen alokairu-kontratua.

Agirretarrak 400 urte baino gehiago errentero egon ondoren, XX. mende hasieran, Genaro Agirre Villar (1868) eta emazte Estefania Aldasorok baserria erosi egin zuten. Egun, haien bi biloba bizi dira etxe honetan: Estefania Agirre Garziandia (1953, Jose Ignacio Rebolé Olletarekin ezkondua) eta Jose Antonio Agirre Garziandia (1945, ezkongabea)

1584an, Pedro Anduezu izeneko gizonaren oinordekoak ziren baserri honen jabeak. 1597an, berriz, jabea Maria de Lazkano zen, Juan de Lasalde diruzain urretxuarraren alarguna. Lasalde hau, berriz, 1585ean Legazpiko Olaberriko jauregiaren jabe bihurtua zen, Lope de Zabalori erosita.

Baina etxebizitzak bat baino gehiago izan dira baserri honetan, eta agirretarrez gain beste familia batzuk bizi izan dira mendeetan zehar. 1617an, bertako maizterretako bat Juan Iturbe zen. Eta 1630ean, Francisco Etxeberria eta Maria Miguel Guridi. Orduko nagusia, berriz, Isabel de Mantxola, Urretxun bizi zen emakume alarguna (AHPG 1/4027, C:166r 167r)

1832an, nagusia Esteban Hurtado de Mendoza genuen, zeina Azkoitian bizi baitzen; eta bazituen beste

[es] Casa con larga historia. En los últimos tiempos, en este edificio han residido gentes de varios linajes, en dos o tres viviendas.

Los Agirre, inquilinos durante cientos de años

Eva Aztiria Agirre y Miguel Angel Agirre Álvarez publicaron un trabajo en el número 19 de la revista Txinpartak sobre el linaje Díaz de Agirre. Después de nacer en la casa Joanaztegi, se expandió a otras casas, y según mostraban estos investigadores en el artículo, los Díaz de Agirre vivían a renta en Mantxolaaundi. Ese año firmó un contrato de alquiler Juan Díaz de Agirre.

Después de que los Agirre vivieran aquí como inquilinos a lo largo de más de 400 años, a comienzos del siglo XX Genaro Agirre Villar (1868) y su esposa Mª Estefanía Aldasoro compraron el caserío, y hoy en día viven en la casa dos nietos: Estefanía Agirre Garziandia (1953, casada con José Ignacio Rebolé Olleta) y su hermano José Antonio (1945).

Echando la vista atrás, en 1584, los propietarios eran los herederos de una persona llamada Pedro Anduezu. En 1597, la propietaria era María de Lazkano, viuda del tesorero Juan de Lasalde, natural de Urretxu, un hombre que en 1585 había comprado a Lope Zabalo el palacio de Olaberria en Legazpi.

Pero las viviendas, dentro de Mantxolaaundi, han sido varias, y por ejemplo, en 1617 uno de los inquilinos a renta era Juan Iturbe. Y en 1630, Francisco Etxeberria y María Miguel Guridi. En esa época, la propietaria era Isabel de Mantxola, viuda que residía en Urretxu (AHPG 1/4027, C:166r 167r).

En 1832, el dueño del caserío era Esteban Hurtado de Mendoza Ponce de León, que residía en Azkoitia, donde fue alcalde, y falleció en 1873. Poseía otras casas, como Mantxolatxiki en Legazpi; Babilonia, Babilonia Txiki y Fernandotegi en Usurbil; y Teresategi en Her-



Estefania Aldasoro eta Genaro Agirre (Estefania Agirrek emana).



Juana Garziandia eta Felipe Agirre (Marcos Aldasorok emana).



Felipe eta Juana eta seme-alabak. Behean, Jose Antonio, Estefania, Manolo, Aitor, Genaro. Atzean, Miguel eta Jose Miguel Mauleon (Estefania Agirrek emana).

[eu] etxe batzuk, hala nola Legazpiko Mantxolatxiki; Usurbilgo Babilonia, Babiloniatxiki eta Fernandotegi; eta Hernaniko Teresategi (AGG PT 3277/349:771). Orduan Mantxolaaundi bi bizitzako etxea zen, batean Juan Ignacio Agirreren familia bizi zelarik, bestean Domingo Agirre.

Hemeretzigarren mendean zehar, hona hemen agirretar maizterrak: Juan Ignacio Agirre Agirre (1772), Jose Francisco Agirre Makibar (1802), Antonio Maria Agirre Galfarsoro (1831) eta Genaro Agirre Villar (1868-1918). 1894ko udal erroldan, adibidez, biztanleok ageri zaizkigu: Antonio Agirre Galfarsoro (1831), emazte Josefa Villar Idigoras (1840) eta seme-alabok: Francisca, Micaela, Genaro, Esteban, Felipe eta Francisco.

Genaro Agirre (1868-1918) izan zen baserritik bizi izandako azkena. Bazituen beste zazpi anai-arreba, eta ondasunak berarentzat izan ziren, Josefa Villar Idigoras ama alargunak hala erabakita. Ajuex baserriko Estefania Aldasoro Madinarekin ezkondu zen eta, esanda

[es] nani (AGG PT 3277/349:771). En ese año de 1832, Mantxolaaundi tenía dos viviendas, en una residía la familia de Juan Ignacio Agirre y en la otra Domingo Agirre.

He aquí los Agirre inquilinos del siglo XIX: Juan Ignacio Agirre Agirre (1772), José Francisco Agirre Makibar (1802), Antonio María Agirre Galfarsoro (1831) y Genaro Agirre Villar (1868-1918). En el padrón municipal de 1894, por ejemplo, figuran estos residentes: Antonio Agirre Galfarsoro (1831), su esposa Josefa Villar Idigoras (1840) y estos hijos: Francisca, Micaela, Genaro, Esteban, Felipe y Francisco.

Genaro Agirre (1868-1918) fue el último que vivió de las actividades del caserío. Tenía siete hermanos y fue quien heredó el derecho a seguir en casa, porque así lo decidió la madre Josefa Villar Idigoras, ya viuda. Se casó con Estefanía Aldasoro Madina, de Ajuex, y tal como se ha dicho, a comienzos del siglo XX consi-

[eu] bezala, hogeigarren mende hasieran lortu zuten baserria erostea; hobeto esanda, beren baserri zatia.

Genaro eta Estefania, 1903an ezkondu eta sei seme-alaba izan zituzten: Claudia, Juliana, Felipe, Tomas, Ignacia eta Cecilia. Genaro nahiko gazterik hil zen, 49 urte zituela. Estefania hamaika urte gazteagoa zen eta sasoia behar izan zuen sei seme-alaba gazteak aurrera ateratzeko.

1903ko ezkontza kontratuan Mantxolaaundiko lur-sail hauek aipatzen dira: Atagoiti izeneko zelaia; pagadi bat Atagoiti aldean; beste pagadi bat Lakiola aldean; gaztainadi bat Bikuñan; eta txara bat Aizalekun.

Seme Felipe gelditu zen baserrian. Hamabi urte zituela Papeleran hasi zen lanean, eta gero Patrizioren fabrikan jardun. Juana Garziandiarekin ezkondu zen, hau berriz Etxarri-Aranatzen jaio eta hamabi urte zituela Errotaritxo baserrira etorritakoa, serbitzera. Seme-alabok izan zituzten: Begoña (2020an hila), Tomas (aingerutan hila), Jose Antonio, Manolo, Genaro, Estefania, Koro (aingerutan hila) eta Aitor.

Bergaretxetarren etxebizitzak

Bi bizitza dira. Orain, batean Mª Ines Bergaretxe Gorrotxategiren familia bizi da; bestean, Mari Lourdes Martinez de Ilarduia Bergaretxe.

1877an, etxe zati honetan Jose Antonio Agirre Mantxola eta Mª Bautista Agirre Aranburu bizi ziren, errentero. Baserritik bizi ziren eta ez zuten seme-alabarik. Eurekin, hamabi urte lehenagotik gutxienez, Juliana Berasategi izeneko emakumea bizi zen, lanetan laguntzen ziena. Azkenean, 1877ko urte hartan, Jose Antonio eta Mª Bautistak erabaki zuten alabatzat hartzea Juliana.

Eta urte hartantxe, 1877an, Mantxolaaundira ezkondu zen Juliana, Bergarako gizon batekin: Domingo Bergaretxe Larrañaga. Zortzi seme-alaba izan zituzten, eta

guieron comprar Mantxolaaundi; mejor dicho, una parte del caserío. [es]

Genaro y Estefania se casaron en 1903 y tuvieron seis hijos: Claudia, Juliana, Felipe, Tomás, Ignacia y Cecilia. Genaro murió joven, a los 49 años. Estefanía era once años más joven y precisó de una gran fortaleza para sacar adelante a esa amplia descendencia.

En el contrato matrimonial de 1903 se mencionan estas fincas y terrenos: un prado de nombre Atagoiti; un hayedo en la zona de Atagoiti; otro hayedo en Lakiola; un castañal en Bikuña y un jaral en Aizaleku.

Luego se quedó en el caserío el hijo Felipe, que comenzó a trabajar en la Papelera a los doce años y se casó con Juana Garziandia, quien también con doce años llegó de su Etxarri Aranatz natal para servir en el caserío Errotaritxo. Tuvieron estos hijos: Begoña (fallecida en 2020), Tomás (muerto siendo muy niño), José Antonio, Manolo, Genaro, Estefanía, Koro (muerta también muy pequeña) y Aitor.

Las viviendas de los Bergaretxe

Son dos viviendas. En una, hoy en día vive la familia de Mª Inés Bergaretxe Gorrotxategi; en la otra, la de Mari Lourdes Martínez de Ilarduia Bergaretxe.

En 1877, en esta parte del caserío residían a renta José Antonio Agirre Mantxola y su esposa Mª Bautista Agirre Aranburu. Vivían del caserío y no tenían descendencia, si bien, desde al menos doce años antes, vivía con ellos, como ayudante, la legazpiarra Juliana Berasategi Apaolaza (1852). Finalmente, ese mismo año de 1877, decidieron adoptarla como hija.

Y también en 1877 se casó Juliana a esta vivienda, con un bergarés: Domingo Bergaretxe Larrañaga. Tuvieron ocho hijos, y el mayor, Gaspar Bergaretxe Berasategi (1878), en 1909 pudo comprar esa parte del caserío



Marcelino, Placida, Julio Bergaretxe Mantxola (Ines Bergaretxek emana).



Gaspar Bergaretxe (Lourdes Mz. de Ilarduiak emana).



Julia Gorrotxategi eta Julio Bergaretxe (Ines Bergaretxek emana).



Placida Bergaretxe eta Tomas Mz de Ilarduia (Lourdes Mz de Ilarduiak emana).

[eu] zaharrenak, Gaspar Bergaretxe Berasategik (1878), 1909an erosi egin zion baserriko partea Hurtado de Mendozatar bati; alegia, Luisa Agüero Hurtado de Mendozari (Azkoitia, 1867), zeina Zaragozan bizi baitzen. Salerosketan, Luisaren ordezkari, Luis Hurtado de Mendoza Otazu jardun zen.

1877an, toki-izen hauek agertzen zaizkigu (orduko grafian): Aristi-aundia (soroa, txabola eta guzti), Camela-soro hariztia, Eliz-baso gaztainadia, Corta-buru pagadia, Cantera-aldea pagadia eta Aisalecu txara.

1914an, Urtatzaazpiko emakume batekin ezkondu zen Gaspar Bergaretxe; Frantziska Mantxola Arabaolazarekin, alegia. Emakume honen aita Jose Anton Mantxolaren zen, Urtatzaazpitik alde eginda kalean (Landanetxiki zegoen orubean, Andresene ondoan) etxea egin zuen gizona.

Gaspar eta Frantziskak hiru seme-alaba izan zituzten: Marcelino (1915), Placida (1916) eta Julio (1918). Hirugarren haur hau jaio eta handik gutxira, ama burutik gaixotu zen eta Santa Agedako ospitalean sartu zuten. Bularra Bergarako emakume batek eman zion Julio txikiari. Aita, Gaspar, trenak harrapatuta hil zen.

[es] a una miembra del linaje de los Hurtado de Mendoza, Luisa Agüero Hurtado de Mendoza (Azkoitia, 1867), que vivía en Zaragoza. Como representante de Luisa, actuó Luis Hurtado de Mendoza Otazu.

En un documento de 1877 aparecen estos nombres de lugar: Aristi-aundia (campo de labranza con chabola), el robledal Camela-soro, el castañal Eliz-baso, el hayedo Corta-buru, el hayedo Cantera-aldea y el jaral Aisalecu.

En 1914 Gaspar Bergaretxe se casó con una descendiente de la casa Urtatzaazpikoa: Francisca Mantxola Arabaolaza. El padre de esta mujer, Jose Anton Mantxola, edificó una casa en el solar de la antigua casa Landanetxiki, al lado de Andresenea.

Gaspar y Francisca tuvieron tres hijos: Marcelino (1915), Plácida (1916) y Julio (1918). Al poco de nacer este tercer hijo, la madre enfermó y acabó ingresada en el sanatorio psiquiátrico de Santa Águeda. Una mujer de Bergara le dio pecho al pequeño Julio. Y el padre, Gaspar, falleció al ser arrollado por el tren.

Dado que esos tres niños se quedaron huérfanos, fueron criados por unos tíos del caserío Kortaazpikoa,



Tomas Mz de Ilarduia eta Placida Bergaretxe (Lourdes Martinez de Ilarduiak emana).



Mantxola eta ingurukoak. Zutik, ezkerretik eskuinera: Esther Agirre, Ines Bergaretxe, Teresa Uribetxeberria, Maria Uribetxeberria, Mari Coro Martinez eta Corpus Zabaleta. Eserita: Agurne Iturbe, Sorkunde Zubia, Mª Carmen Guridi, Pepita Makibar (Aitor Gurrutxagak emana).

[eu] Hiru haur txiki haiek gurasorik gabe geratu zirenez, Kortaazpiko osaba-izeba batzuek hazi zituzten, Frantziska Bergaretxe Berasategik eta Jose Mari Legorburuk.

Marcelino 1936ko abenduan hil zen, 21 urte zituela. CNTko milizianoa zen, Malatesta batailoikoa, eta Elosuko (Araba) borrokaldi batean hil zen, Udalak plazaratutako 'Legazpi 1936' liburuaren arabera.

Placida, berriz, Dulantzin jaiotako Tomas Martinez de Ilarduiarekin (1909) ezkondu zen 1942an eta Mantxolaaundin bertan jarri ziren bizi izaten, hiru seme-alaba izan zituztelarik: Jose Luis, Mari Paz eta Mari Lourdes; eta azkeneko honek jarraitzen du Mantxolaaundin.


Julio, senide gazteena, Elgetako Juliana Gorrotxategirekin ezkondu zen 1951n eta Mantxolaaundin bizitu. Emakume hau Kortaazpira etorria zen neskame, hamalau-hamabost urte zituela, eta hantxe elkar ezagutu Bi seme-alaba izan zituzten: Mª Ines eta Jose Migel. Egun Mª Ines bizi da jaiotetxean, Luis Comontesekin ezkonduta. ❖

[es] Francisca Bergaretxe Berasategi y José Mari Legorburu.

Marcelino Bergaretxe murió en diciembre de 1936, con 21 años. Era miliciano del batallón Malatesta de la CNT y fue abatido en el frente de Elosu (Araba), según el libro 'Legazpi 1936', publicado por el Ayuntamiento.

Plácida, por su parte, se casó en 1942 con Tomás Martínez de Ilarduia (Dulantzi, 1909) y se pusieron a vivir en el mismo Mantxolaaundi. Tuvieron tres hijos: José Luis, Mari Paz y Mari Lourdes; y esta última es la que sigue viviendo en la casa.

Julio, el hijo menor de Gaspar y Francisca, se casó en 1951 con Juliana Gorrotxategi, de Elgeta, y también se instalaron en Mantxolaaundi. Esta mujer había llegado con 14-15 años a Legazpi para trabajar de criada en Kortaazpikoa. Allí se conocieron. Tuvieron dos hijos, Mª Inés y José Miguel. Hoy es Mª Inés la que sigue en la casa natal, casada con Luis Comontes. ❖



MANTXOLA BERRI 2 MANTXOLA BERRI



Mantxola Berri etxea (J.L.U.)

[eu]

1946an Jose Mari Guridi azpeitiarrak eta emazte Micaela Agirrebengoa ormaiztegiarrak egindako etxea.

Jose Mari Guridi Kerejeta Aratzerrekako Bikola baserrian jaioa zen. Gaztetan, 1920ko hamarkadan, Patrizioren fabrikara azaldu zen arotz gisa lan egiteko, eta apopilo jarri Mantxolatxiki baserrian, galfarsorotarrekin. Legazpin zegoela Micaela ezagutu zuen eta ezkondu. Orduan Txintxoetxera lekualdatu ziren. Hantxe jaio ziren seme-alaba denak: 1930ean Juanito (Juan Bautista), 1933an Ignazio eta 1941ean Mari Carmen.

Gero, 1946an, Mantxola Berri eraiki zuten Jose Mari eta Micaelak, eta bertan bizitzen jarri hiru seme-alabekin. Aratzerrekako Bikola baserrian Jose Mariren anaia bat gelditu zen, baina hark gurasoen kargu egin nahi ez eta azkenean andre-gizon edadetu haiek ere (Juan Bautista Guridi eta Maria Kerejeta) Mantxola Berrin bizitu ziren, eta baita Jose Mariren arreba elbarri bat ere.

Hasiera batean etxeak bi solairu zituen: bebarrua (non ikuilua baitzegoen) eta lehen solairua. Baina 1950eko hamarkadan beste solairu bat altxa zuten, seme-alabak ezkondutakoan bertan bizi zitezen. Seme zaharrena, Juanito, ez zen ezkondu; Ignazio, berriz, Agurne Iturbe legazpiarrarekin uztartu zen, eta Mari Carmen, Iñaki Lauroba tolosarrarekin.

Legazpiko Papelerara etorri zen Iñaki Lauroba tolosarra, makina bat muntatzera, eta Mari Carmen Guridi hango langilea zenez, bertan ezagutu zuten elkar. Ezkondu eta Tolosan jarri ziren bizi izaten, baina ama Micaela hildakoan, Mantxola Berrira etorri ziren, aitaren ondoan egoteagatik.

1968an galdaragintza tailerra sortu zuten guriditarrok eta Iñaki Laurobak Telleriarten, gero Aizkorri izena izan zuena. Enpresak luzaroan iraun zuen, bost hamarkada, eta hamabost laguneko lantaldea ere eduki zuen.

[es]

Casa edificada en 1946 por el azpeitiarra José Mari Guridi y su esposa Micaela Agirrebengoa, que era natural de Ormaiztegi.

José Mari Guridi había nacido en el caserío Bikola del barrio de Aratzerreka. Siendo joven, en la década de 1920, llegó a Legazpi para trabajar como carpintero en la fábrica de Patricio, y se instaló como 'pupilo' en la casa Mantxolatxiki, con la familia Galfarsoro. Trabajando en Legazpi conoció a Micaela, se casaron y pasaron a vivir en la casa Txintxoetxe. Allí nacieron los tres hijos: Juanito (Juan Bautista) en 1930, Ignacio en 1933 y Mari Carmen en 1941.

Como se ha dicho, José Mari y Micaela hicieron su casa Mantxola Berri en 1946, y allí vivieron con sus hijos. En el caserío Bikola de Aratzerreka se quedó un hermano de Jose Mari, que no quiso hacerse cargo de los padres, y entonces estos (Juan Bautista Guridi y María Kerejeta), ya muy entrados en años, vinieron a vivir en Mantxola Berri, y también lo hizo una hermana de Jose Mari, que estaba inválida.

En un comienzo, el edificio constaba de dos plantas, con la cuadra en la zona inferior. En la década de 1950 se edificó una planta más, para que vivieran los hijos al casarse. El hijo mayor, Juanito, permaneció soltero; Ignacio se casó con la legazpiarra Agurne Iturbe, y Mari Carmen lo hizo con el tolosarra Iñaki Lauroba.

Iñaki Lauroba llegó a Legazpi para montar una máquina en la Papelera. Allí trabajaba Mari Carmen Guridi. Se conocieron y tras el matrimonio se instalaron en Tolosa. Pero de allí a unos años José Mari enviudó y la hija vino con su familia para estar más cerca del padre.

En 1968, Lauroba y sus dos cuñados crearon un taller de calderería en Telleriarte, que duró cinco décadas y llegó a tener quince operarios. No así al principio, pero luego tuvo el nombre de Calderería Aizkorri.



Jose Mari Guridi eta Micaela Agirrebengoa.



Juan Bautista Guridi eta Maria Kerejeta.



Ama Micaela eta hiru seme-alabak: Juanito, Ignazio eta Mª Carmen (Karmele eta Izaskun Laurobak emanak).

[eu] Iñaki Laurobak eduki zuen tailerra sortzeko ideia. Tolosan Gorostidi enpresan ari zen, eta Legazpira bizi izatera etorritakoan bi koinatuak konbentzitu zituen. Juan eta Ignazio Guridi, berriz, Patrizionean ari ziren, bata igitaiak egiten, bestea galdaragintzan. Ibilbide luze horretan, lantegiak hainbat enpresarentzat egin zituen lanak; Mirandaolako zubiak ere hortxe egin ziren.

Bestalde, Ignazio Guridi erlezale izan zen, aitaren ondoan ikasita. Mantxola aldean zituen erleak eta irabazi zuen saririk. ❖

[es] Iñaki Lauroba fue quien tuvo la idea de crear este taller. Había trabajado en Gorostidi de Tolosa y al llegar a Legazpi convenció a sus cuñados Juan e Ignacio Guridi, que hasta entonces habían sido empleados de la fábrica de Patricio. Juan, en la sección de hoces, e Ignacio dedicado a la calderería. En su larga trayectoria, este taller de Telleriarte trabajó para numerosas empresas. Y, por ejemplo, los puentes de Mirandaola se hicieron aquí.

Por otro lado, Ignacio Guridi heredó de su padre la afición por las abejas y tuvo colmenas en la zona de Mantxola. Sus mieles ganaron algunos premios. ❖



Txintxoetxe Plazaola aldetik, etxe berriak egin aurretik.



Micaela Agirrebengoa eta Jose Mari Guridi; eta honen gurasoak Mantxola Berriko balkoian.






Juanito eta Ignazio Guridi.



Iñaki Lauroba eta Mª Carmen Guridi.

09 _ mantxola



MANTXOLATXIKI 3 MANTXOLATXIKI



Mantxolatxiki, berritu aurretik (Itziar Intxaustik emana)



*Mantxolatxiki, gaur egun (*F.I.O.*)*

[eu]

1832an, bertako jabea Esteban Hurtado de Mendoza Ponce de León zen, zeina Azkoitian bizi baitzen, hango alkate ere izan zelarik. Mantxolaaundi ere harena zen, eta beste herri batzuetan ere bazeuzkan etxeak, hala nola Babilonia, Babilonia Txiki eta Fernandotegi Usurbilen, eta Teresategi Hernanin (AGG PT 3277/349:771). 1873an hil zen.

Gero, ez dakigu noiz, Mantxolatxikiko maizterrek, galfarsorotarrek, erosi egin zuten etxea.

1894ko udal erroldaren arabera, lagunok bizi ziren orduan: Jose Manuel Galfarsoro Guridi (1839), emazte Sinforiana Guridi Plazaola (1841) eta seme-alabok: Maria (1876), Segunda (1878), Pedro Jose (1880), Angela (1882) eta Domingo (1886). Azkeneko hau Martina Zabaleta Agirrerekin ezkondu eta Latxartegin bizitu ziren, bi alaba (Gregoria eta Brigida) eta seme bat (Jose Mari) izan zituztelarik.

Eta hain zuzen ere, Domingoren alargun Martina Zabaletak etxea egin zuen 1945ean, Mantxolatxikiberri, senarraren jaiotetxetik gertu, eta bertan bizi izan zen seme-alabekin. Orain eraikina hutsik dago.

Mantxolatxiki zaharrera itzuliz, 1940. hamarkada hasiera aldera, intxaustitarrak hasi ziren hemen bizitzen. Ignazio Intxausti (Gabiriako Igeribarazpikoa baserria, 1903) Legazpiko paper fabrikara etorri zen lanera. Arotza zen lanbidez, eta Jose eta Manuelaren semea. Intxaustitarrak maizter moduan bizi ziren Gabirian. Ignazio Elbarrenako Lekuona baserriko Candida Zalduarekin ezkondu zen eta Azpikoetxen, orain taberna dagoen tokian jarri ziren bizi izaten. Laster, 1931ko jaio zitzaien lehen haurra, Jesus. Gero, Manuela (1935), Ana Mari (1936), eta Jose Mari (1939).

Esan bezala, familia hau 1940ko hamarkada hasieran aldatu zen Azpikoetxetik Mantxolatxikira. Bertako Pedro Jose Galfarsororekin hitzarmena egin zuen Inazio Intxaustik: Pedro Josek baserria saltzen zion Ignaziori, baina bertan bizitzen segitzekotan, eta intxaustitarrek zainduta. Pedro Jose 60 bat urteko

[es]

En 1832, el dueño del caserío era Esteban Hurtado de Mendoza Ponce de León, que residía en Azkoitia, de donde fue alcalde y poseía otras casas, como Mantxolaaundi en Legazpi; Babilonia, Babilonia Txiki y Fernandotegi en Usurbil; y Teresategi en Hernani (AGG PT 3277/349:771). Falleció en 1873.

Más tarde, los inquilinos, los Galfarsoro, pudieron comprar el caserío.

Según el padrón de 1894, en Mantxolatxiki vivían José Manuel Galfarsoro Guridi (1839), su esposa Sinforiana Guridi Plazaola (1841) y varios hijos: María (1876), Segunda (1878), Pedro José (1880), Ángela (1882) y Domingo (1886). Este último se casó con Martina Zabaleta Agirre y vivieron en Latxartegi y tuvieron dos hijas (Gregoria y Brígida) y un hijo llamado José Mari, que luego vivieron en la casa Mantxolatxikiberri, edificada por su madre Martina, ya viuda, en 1945 en terreno de Mantxolatxiki, y que actualmente está deshabitada.

Volviendo al viejo Mantxolatxiki, digamos que a comienzos de la década de 1940 pasó a ser la vivienda de los Intxausti. Ignazio Intxausti (1903, caserío Igeribarazpikoa, Gabiria) vino a Legazpi a trabajar en la Papelera. Era hijo de José y Manuela, y de profesión carpintero. Los Intxausti vivían en Gabiria como colonos a renta, e Inazio se casó con una hija del caserío Lekuona de Legazpi, Cándida Zaldua. Se instalaron en la casa que hoy acoge el bar Azpikoetxe, y pronto, en 1931, les nació la primera criatura, Jesús. Luego llegaron Manuela (1935), Ana Mari (1936) y José Mari (1939).

Como se ha dicho, esta familia se mudó a Mantxolatxiki a comienzos de los años 40. Formalizaron un acuerdo con su anterior propietario, Pedro José Galfarsoro, por el cual este vendía el caserío a Ignazio, a cambio de ser cuidado como uno más de la familia. Pedro José era entonces un hombre soltero de unos 60 años. Luego, en 1951, Pedro José e Ignazio firmaron ante notario otro documento según el cual Ángela



Domingo Galfarsoro Guridi (1886), emazte Martina Zabaleta Agirre (Biurrain) eta bi alaba (Amaia Martinezek emana).



Jose Mari Intxausti eta aita, Ignazio (Itziar Intxaustik emana)



Intxaustitarrak. 1980ko hamarkadan.
Ana Mari, Manoli, Candida, Ignazio, Jesus, Jose Mari eta Iñaki.

[eu] gizon ezkongabea zen orduan. Gero, 1951n, bi gizonok beste agiri bat sinatu zuten notarioaren aurrean, non zehaztuta gelditzen baitzen Pedroren arreba Angela ere biziko zela etxean, bakoitza bere gela propio-

Galfarsoro (hermana de Pedro José) viviría también en este caserío, con su habitación propia, y ayudando en las tareas domésticas. Pero se especificaba también que los Intxausti no podrían obligar a trabajar a los hermanos Galfarsoro. [es]

[eu] arekin, eta etxean lagunduz. Baina intxaustitarrek ezingo zuten galfarsorotarrak lan egitera behartu.

Mantxolatxikin bizi zirela, Ignazio eta Candidak beste seme bat eduki zuten 1947an, Jose Ignazio (gero Iñaki).

Ignazio eta Candidak ganadua edukitzen zuten, hiru bat behi beren txekorrekin. Eta, bolada batean, baita idiak eta zaldia ere, soroa lantzeko. Seme Jose Marik, harakina izaki, hazi zituen zenbait txekor bertan. 1975. urte aldera, Inaziok, adinean aurrera zihoanez, utzi egin zion ganadu handia edukitzeari eta soroa lantzeari.

Bi seme, Jesus eta Jose Mari, Legazpin bizi izan ziren. Lehenengoak goitik behera berritu zuen Azpikoetxea, eta seme-alabek taberna-jatetxea muntatu zuten beheko solairuan, 'Azpikoetxea' izenekoa. Jose Marik, berriz, harategia eduki zuen. Biak hilda daude. Ana Mari Oiartzunen bizitu zen. Orain Manuela bizi da soilik, Donostian.

Seme-alabak joan ziren ezkontzen eta etxetik alde egiten. Ignazio eta Candida 1980ko hamarkada erdi aldera hil ziren, lehenbizi gizona, geroxeago emaztea. Geroztik inor ez da hor jarraian bizi izan, baina ez da hustutako etxea. Oporrak pasatzeko eta ospakizunetarako sarri azaldu izan dira intxaustitarrak. ❖

[es] Después de instalarse en Mantxolatxiki, en 1947 Ignazio y Cándida tuvieron otro hijo, José Ignacio (más tarde Iñaki).

Ignazio y Cándida tenían ganado, unas tres vacas con sus terneros. Y durante unos años trabajaron sus campos con bueyes propios y algún caballo. El hijo José Mari, que era carnicero, crió bastantes terneros en este caserío. Hacia 1975, y ya con una edad avanzada, Ignazio quitó el ganado de casa y dejó de labrar.

Dos hijos, Jesús y José Mari, vivieron en Legazpi. El primero reformó totalmente la casa natal de Azpikoetxea y sus hijos montaron un bar-restaurante en la planta baja, de nombre 'Azpikoetxea'. José Mari tuvo carnicería. Ana Mari residió en Oiartzun. Manuela es la única que vive, en Donostia.

Los hijos se fueron casando y en Mantxolatxiki solo quedaron Ignazio y Cándida, que fallecieron a mediados de los años 80, primero el hombre, luego la esposa. Desde entonces nadie vive de forma permanente en el caserío, pero los Intxausti siguen acudiendo por vacaciones o en días de celebración. ❖

09 _ mantxola



MANTXOLATXIKI BERRI 4 MANTXOLATXIKI BERRI



Mantxolatxiki Berri etxea 1945ean egin zen.

[eu]

Etxe hau 1945ekoa da. Orain hutsik dago eta salgai. Mantxolatxikin 1886an jaiotako Domingo Galfarsororen alargunak, Martina Zabaleta Agirrek (1889) egin zuen. Aurretik, Martina eta Domingo Latxartegi baserrian bizitu ziren, eta han hiru semealaba izan: Brigida, Gregoria eta Jose Mari, azken hau gazteena.

Martinaren bi alaba horiek Zumarragara ezkondu ziren. Seme Jose Mari etxe honetara ezkondu zen Txintxoetxeko Pilar Martinezekin eta lehenbiziko haurra, Mari Jose, 1958an jaio zitzaien, gero Jesus eta Maria Pilar munduratu zirelarik. Patrizionean jardun zen Jose Mari, 1993an hil zen eta alarguna, Pilar, bi urte geroago. Orduan hutsik gelditu zen etxea. Baina gero, Gasteizen bizi zen alaba Maria Pilarrek (1962-2020) egonaldiak egiten zituen bertan. ❖

[es]

Esta casa es de 1945. Ahora está deshabitada y en venta. Fue edificada por Martina Zabaleta Agirre (1889), la viuda de un hijo de Mantxolatxiki, Domingo Galfarsoro (1886). Este matrimonio vivió al comienzo en el caserío Latxartegi y allí nacieron sus dos hijas, Brígida y Gregoria, y luego el hijo José Mari.


Brígida y Gregoria se casaron a Zumarraga y José Mari se casó a esta misma casa con Pilar Martínez, de Txintxoetxe. La primera hija, Mari Jose, nació en 1958, y luego tuvieron a Jesús y Mª Pilar.

José Mari Galfarsoro murió en 1993. Su viuda Pilar, en 1995. Entonces la casa quedó deshabitada, si bien a partir de entonces solía pasar algunas temporadas la hija Mª Pilar (1962-2020), que residía en Gasteiz. ❖



Jose Mª Galfarsoro eta Pilar Martinez ezkontza egunean, eta Pilarren aita, Jose (Amaia Martinezek emana).

09 _ mantxola



AJUEX 5 AJUEX



Mantxola auzoko ikuspegia. Aurrean, Ajuex; barrenean, Mantxolatxiki, Txintxoetxe, Mantxolaaundi eta Mantxola Berri (Ander Yurritak emana).

[eu]

Aspaldiko deitura Aranjuez zen. Oraingo jabe eta bizilagunen arabera, baserri hau, hemeretzigarren mende bukaeran, "txoritegi bihurtuta zegoen"; hau da, inor ez zen bizi.

1832an, Plazaola baserrikoak ziren jabe; zehatzago esanda, Manuel de Plazaola. Eta maizterra, Paulo Agirreburualde.

1857an, Juan Bautista Andueza Lasa, 60 urteko alarguna bizi zen bertan, errentero; eta gizon honen seme Pedro Andueza Oraa, Manuela Uriarte Anduagarekin ezkondua. Bi ume zituzten. Gero leinu hau erabat ezkutatu zen bertatik eta etxea hutsik gelditu, lehen esan bezala.

1887an, Julian Aldasoro Insaustegik (Idiazabal, 1857) eta emazte Josefa Madina Barrenak (Oñati, 1859) erosi egin zuten etxe hau eta bertara aldatu. Saltzailea, berriz, Plazaolako Manuel Antonio Elorza. Honek, berriz, nahi zuen Ajuex saldu, bera bizi zen etxea erosi ahal izateko. Aurretik, Julian eta Josefa urte gutxi batzuk Oñatin bizituak ziren.

Julian, umetan, Oñatiko etxe batera bidali zuen morroi aitak. Eta gero Tolosako beste etxe batera. Etxe aberatsa izan behar zuen, baina mutikoa goseak edukitzen zuten eta azkenean ihes egin zuen, Oñatira atzera. Korosti mendi aldean egin zuen lo, arbola batera igota, piztien beldurrez. Han Oñatin zegoela, bere emaztea izango zena ezagutu zuen.

Julian eta Josefa 1881ean ezkondu ziren. Egun horretan (urtarrilak 29), gizona ikatz egitera joan zen basora, eta Josefa orbel biltzera. Oñatin bizi zirela jaio ziren lehenbiziko bi umeak: 1881ean, Maria Estefania (gero Mantxolaaundira ezkondu zena Genaro Agirrerekin); 1884an, bigarrena, Dominica (Argentinan biziko zena, Arantzako gizon batekin ezkonduta).

Gero, 1887an, familia Legazpira etorri zen, Aranjuez erosita. Josefa Madina, orduan, Siguenzara joan zen, inude moduan lan egiteko. Egitekoetako bat, umeari titia ematea zen. Baita ere, haur gehiago ez izateagatik joan omen zen.

[es]

Antiguamente se denominaba Aranjuez. Según los actuales propietarios y habitantes, este caserío, a fines del siglo XIX, no era más que unas paredes en las que anidaban los pájaros; y no vivía gente.

En 1832, los propietarios eran la familia del caserío Plazaola, concretamente Manuel de Plazaola. El inquilino, Paulo Agirreburualde.

En 1857, el habitante a renta era Juan Bautista Andueza Lasa, viudo de 60 años. También residía su hijo Pedro Andueza Oraa, casado con Manuela Uriarte Anduaga. Eran padres de dos hijos. Pero luego dejaron la casa y esta se vino abajo, como se ha dicho.

En 1887, Julián Aldasoro Insaustegi (Idiazabal, 1857) y su esposa Josefa Madina Barrena (Oñati, 1859) compraron el solar y se instalaron. El vendedor era Manuel Antonio Elorza, a quien le interesaba vender Ajuex para así poder comprar la casa en que vivía, Plazaola. Anteriormente, este matrimonio había residido unos pocos años en Oñati.

Julián, siendo niño, fue enviado por su madre a servir como 'morroi' en un caserío de Oñati. Y más tarde a otra casa de Tolosa. Aquella familia tenía dinero, pero no le daban de comer lo suficiente al muchacho y finalmente este se escapó, regresando a Oñati. En el trayecto, durmió en la zona del monte Korosti, subido a un árbol, temeroso del ataque de alguna alimaña. En esta segunda etapa en Oñati conoció a su futura esposa.

Julián y Josefa se casaron y los primeros años vivieron en Oñati. El día del casamiento, el 29 de enero de 1881, Julián fue a hacer carbón al monte, y la recién esposada a recoger hojarasca. Allí nacieron, en el mismo 1881, María Estefanía, que luego se casaría a Mantxolaaundi con Genaro Agirre; y en 1884, la segunda hija, Dominica, que vivió en Argentina, casada con un navarro del pueblo de Arantza.

En 1887 la familia se instaló en Ajuex y la esposa, Josefa Madina, se fue de nodriza a Sigüenza, para dar



Ajuex, 1931. Candida eta Marcos seme-alabekin, eta baita Marcosen ama Josefa ere (Lucio Vergara) (Marcos Aldasorok emana).



Ajuex baserriaren aurrean, Josefa Madina Barrena (Oñati, 1859) eta Julian Aldasoro Insausti (Idiazabal, 1857) bi haurrekin (Ignacio Agirre, Burdinola Elkartea, 9x12.45).



Ajuex baserriko familia: lehenengoa, Julian Aldasoro Insausti (Idiazabal 1857); laugarrena, Josefa Madina Barrena (Oñati, 1859) eta, bosgarrena, Marcos Aldasoro Madina (Legazpi, 1890) (Ignacio Agirre, Burdinola Elkartea, 9x12.14).

[eu] Baina Josefa Legazpira itzuli eta 1890ean hirugarren umea jaio zen, Marcos. Hain zuzen ere, honek segitu zuen Ajuexen. Lehengusina batekin ezkondu zen, Candida Madina Kortaberria (1889).

Patrizioren fabrikan jardun zuen Marcosek. Lehenengo langileetako bat izan zen. Segak probatzea izan zuen egitekoetako bat.

1920an, lagun hauek bizi ziren: Josefa Madina amandrea, Marcos eta Candida senar-emazteak, eta umeok: Julian (1912), Emeterio (1913), Victoria (1915), Narciso (1917) eta Felix (1919). Gero beste batzuk jaio ziren: Jesus (1923), Dolores (1926, hamahiru urte zituela hila), Claudia (1928) eta Benita (1930). Beste ume bat ere izan zen, Jose, Felixen ondoren jaio eta aingerutan hildakoa.

[es] pecho a una criatura, y también, para evitar quedarse de nuevo embarazada. Pero regresó al pueblo y en 1890 nació otro hijo, Marcos, que fue quien siguió en esta casa, casado con una prima, Cándida Madina Kortaberria (1889).

Marcos fue operario de la fábrica de Patricio, uno de los primeros. Se dedicó en buena parte a probar las guadañas.

En 1920 vivían estas personas en Ajuex: la abuela Josefa Madina, los padres Marcos y Cándida, y estos niños: Julián (1912), Emeterio (1913), Victoria (1915), Narciso (1917) y Félix (1919). Posteriormente nacieron Jesús (1923), Dolores (1926, muerta a los trece años), Claudia (1928) y Benita (1930). También hubo otro nacimiento, el de José, tras el de Félix, pero falleció al poco de nacer.



Ajuexko Claudia, Felix, Candida Madina ama, Bittori, Marcos Aldasoro aita, Jesus, Benita eta Narciso (Marcos Aldasorok emana).



Marcos Aldasoro eta Candida Madina urrezko ezteien egunean. Erdian, Inazio Mari Atxukarro kontalaria, ekitaldira gonbidatua (Marcos Aldasorok emana).

[eu] Seme-alaba hauetatik, Felix (1919-2006) izan zen etxean segitu zuena. Telleriarteko Elortza baserriko Petra Ormazabalekin ezkondu eta bi seme izan zituzten, Marcos eta Javier. Patrizioneko Flejeetan jardun zen Felix eta 1963an kendu egin zituen etxeko esnebehiak, emaztea osasun aldetik pattal zebilelako. Orduan, lehenbizi ahateekin egin zuen proba, baina segituan etsi, eta handik aurrera, 1987ra arte, oiloekin egin zuen lan, gero arrautzak saltzeko. Lehenbizi libre eduki zituen oiloak, gero kaiolatan. Urte onenetan, 1970eko hamarkadan, bi mila oilo edukitzera iritsi zen.

Ezkondu eta urte gutxira, 1957an, Felix eta Petrak handiagotu egin zuten baserria, obra handia eginda. Bi bizitza gehiago erantsi zioten, eta batean Candido Ormazabal bizi izan zen (Petraren anaia, Pilar Etxeberria Ariztigoikoarekin ezkondua), bestean Benita Aldasoro, Felix Zelaia araoztarrarekin ezkondua.

Hortik gertu aroztegia jarri zuen Candido Ormazabalek eta orain ere badago arotz-tailerra, haren seme Paulok daramana. ❖

[es] De entre estos hermanos, fue Félix (1919-2006) quien siguió viviendo en la casa con su esposa Petra Ormazabal, del caserío Elortza de Telleriarte. Tuvieron dos hijos, Marcos y Javier. Pocos años después del matrimonio, en 1957, la familia amplió el caserío.

Félix Aldasoro trabajó en la sección de Flejes de la fábrica de Patricio. Quitó las vacas en 1963, porque la esposa se hallaba delicada de salud. Entonces probó con los patos, pero en pocos meses desistió, y enseguida optó por las gallinas, con la intención de vender los huevos. Primero las aves andaban sueltas, luego en jaulas. La actividad en torno a los huevos, hasta mediados de los 70 muy intensa (con 2.000 gallinas), cesó hacia 1987.

En la década de 1950 el caserío se amplió con dos nuevas viviendas. En una vivió Cándido Ormazabal (cuñado de Félix Aldasoro), casado con Pilar Etxeberria, del caserío Ariztigoikoa. Y en la otra, Benita Aldasoro, casada con el araoztarra Félix Zelaia.

Cándido Ormazabal tuvo cerca de la casa un taller de carpintería, que sigue en activo, regentado por su hijo Paulo. ❖


Berriemaileetako batzuk



Aberasturinea.
Jose Luis Arrieta.



Aberasturinea.
Mila Arrieta.



Aiztonagabekoa.
Joxe Arrazola.



Aiztonagabekoa.
Mari Carmen Arrazola.



Aiztonagabekoa.
Mertxe Ulanga.



Aiztonaga.
Juan Luis Aseginolaza.



Ajuex.
Javier Aldasoro.



Ajuex.
Marcos Aldasoro.



Andresenea.
Agustin Etxeberria.



Anduezanea.
Felisa Andueza.



Arabaolatzanea.
Miren Arsuaga.



Arabaolatzanea.
Patxi Plazaola.



Araotzenetxiki.
Ixiar Yarza.



Araotzeneaundi.
Maruja Salgado.



Araotzenetxiki.
Juan Luis Mujika.



Arrolanea.
Garbiñe Iturbe.



Arrolanea.
Mari Carmen Ibañez.



Arrolategi.
Jose Mari Belaunzeta.



Arrolategi.
Maria Jesus Urkia.



Beatakoa.
Maricris Lasa.



Bikuña Berri.
Fermin Azpeitia.



Bikuñaerrota.
Antonio Etxeberria.



Bikuñaerrota.
Ibon Etxeberria.




Bikuñaerrota.
Mari Angeles Zubia.



Botika etxea.
Mertxe Etxeberria.



Buenaventura.
Elena Zaldua eta Arantza Renom.



Damata.
Julian Apaolaza.



Elorzanea.
Ignacio Arbide.



Ermentariaundi.
Maria Ines, Arantxa eta Edurne Agirre.



Ermentariaundi.
Milagros Azpeitia.



Eskribaukoa.
Juan Joxe Mendinueta.



Etxetorre.
Mari Carmen Elorza.



Frontoi atzeko etxeak.
Belen Villarreal.



Frontoi atzeko etxeak.
Rosario Villarreal.



Frontoi atzeko etxeak.
Jose Joakin Izagirre.



Frontoi atzeko etxeak.
Jose Luis Arzuaga.



Frontoi atzeko etxeak.
Julian Armendariz.



Gerraneaundi.
Agurne Iturbe.



Gerraneaundi.
Mari Carmen Iturbe.



Gerraneaundi.
Migel Joxe Garmendia.



Gerraneaundi.
Dolores Garmendia.



Gregorioneaundi.
Deiñe Alzelai.



Gregorioneaundi.
Juanita Alzelai.



Illagorrikoa.
Mari Jose Jimenez de Bikuña.



Iribarren eta Errotaritxonea.
Araxeli Urzelai.




Iribarren eta Errotaritxonea.
Marian Gereñu.



Karlosenea.
Pako Caballero.



Konpitteokoa.
Maritxu Alberdi.



Kontseju-etxea.
Pello Agirrezabal.



Lazkanotegi.
Maite Ugarte.



Lazkanotegiberri.
Maribel Zumarraga.



Mantxolaaundi.
Estefania Agirre.



Mantxolaaundi.
Ines Bergaretxe.



Olaberri.
Ariztitarrak gaur egun.



Mantxolaaundi.
Lourdes Martinez de Ilarduia.




Mantxolanea.
Garbiñe Amilibia.



Mantxolatxiki.
Iñaki Markotegi.



Oiarbidenea.
Conchi Otegi.



Olaberri. Fabrikaldea.
Manuel Salvador



Olaberri.
Juan Luis Peñagarikano



Olaberri.
Pedro Aleson.



Otsategi.
Mari Cruz Aseginolaza.



Papelerako txoferraren eta mekanikariaren etxea.
Juani Zabaleta.



Papelerako txoferraren eta mekanikariaren etxea.
Mari Tere Guridi.



Plazaola.
Arantxa Berasategi.



Plazaolaerrota.
Antxon Agirrezabal.



Plazaolaerrota.
Karmele Agirrezabal.



Santxoetxe.
Gaspar Alustiza.



Santxoetxe.
Lutxi Areizaga.



Santxoneaundi.
Itziar Alberdi.



Toki Eder.
Antonio Azurmendi.



Txintxoetxe.
Pepita Makibar.




Txipitzalle.
Sebas Aztiria.



Txoko-Zar elkartea.
Jose Mari Gorrotxategi.



Txorronea.
Fernando Mz. de Albeniz.



Txorronea.
Floren Gutierrez.



Urmenetanea.
Encarna Urmeneta.



Xesterokoa.
Pakita Lizarralde.



Zabalonea.
Txaro Sarasola.



Zulokoa.
Anabel Intxausti.

**Eskerrak ematen diegu berriemaileei, egin diguten harrera bikainagatik.
Argazkiotan, gehienak baino ez dira agertzen,
izan ere ezin izan dugu guztiekin argazki-lana burutu.**

*Queremos agradecer a nuestros informantes su gran acogida.
En las fotos de estas páginas no aparecen todos ellos,
pues nos ha resultado difícil llevar a cabo algunas de las imágenes.*



JUANITA PASTELERAREN
ERREZETAK

Juanitaren ikasle izandako
Mariatxo Anduezak (1917-2008)
sukaldaritza-eskolan jasotakoak.



Juanita Zabaleta

(1905–1986)

ANCHOAS EN SALSA VERDE.

Se limpian las anchoas quitándoles la cabeza y en una tartera ancha se pone aceite, se fríe allí un poco de ajo, perejil y un poco de harina. Cuando empiezan a tomar color se echan allí las anchoas, se tienen pil -pil, se les echa unas gotas de vino blanco y un poco de agua y se sirven.

BACALAO AL AJO ARRIERO

Se pone al horno a tostar un trozo de bacalao. Cuando está un poco hueco se hace migas a un pasador y se desala estrujando en la fuente. En una sartén en aceite, se fríen lentamente bastante cebolla, ajo y patata cortadas al mismo tamaño. Cuando estos están ya hechos se le añade el bacalao, se tiene un momento friendo y se le añade un poco de tomate, se tiene pil-pil. Después del tomate, fijarse en la sal, (lo mismo se hace con merluza pero sin tostar).

CABEZA DE CORDERO COCIDA.

Se limpia la cabeza quitándole los ojos etc. y se abre la cabeza, se vuelve a cerrar atándola con una liz, se cuece en un puchero con perejil, medio vaso de vino blanco, puerro, etc. Cocer una hora, luego se le separan todas las carnes, lengua, sesos, etc. Se dejan enfriar, se hacen tajadas, se pasan en harina y huevo y se fríen.

CABEZA DE CORDERO ASADA.

Se limpia y se abre como la anterior y se coloca en una tartera, se le da sal y ajo y se cubre con perejil picado y pan rallado, se le pone usa rajas de mantequilla y se pone al horno. Cuando está medio dorado se le echa unas gotas de vino blanco y se vuelve a asar hasta ponerse dorado.

CALLOS

Se limpian bien los callos y se cortan en pedazos pequeños, se colocan en una cazuela para limpiarlos mejor con unas gotas de vinagre, sal y un poco de agua. Se estrujan y se aclaran en agua limpia y se ponen a cocer sin mucha agua con zanahoria, puerros, laurel, etc., y un vasito de vino blanco, se dejan cocer unas cuatro o cinco horas. En una cazuela se doran un poco de cebolla bien menudita con un poco de jamón picado, se le añade los callos y tomate hecho, se dejan pil-pil hasta el momento de servir.

CALLOS

Se cuecen como los anteriores. En una sartén se dora abundante cebolla, se le añade choriceros, zanahorias, que se tendrán cocidas, y se pasa la salsa a los callos.

CARNE ENROSCADA

Se pica la carne cocida, se le añade un poco de cebolla frita, jamón y perejil, un poco de nata y leche y huevo batido. Si tiene demasiado zumo se le añade un poco de pan rallado o miga de pan, se fríe en la sartén formando la rosca, se adorna con rodajas de zanahorias cocidas, se saca a una tartera, se hace un poco de salsa con cebolla y ajo añadiendo un poco de tomate y caldo, se tiene una media hora haciendo.

CARNE FRIA

Se coge una tira o un trozo de ternera que sea de pierna, se mecha con tocino gordo, se le da sal de nitro y sal y se tiene en salmuera unos siete u ocho días, entonces se limpia un poco y se asa como los demás asados. Sirves para plato frío.

CARNE RELLENA

Se corta una tira de carne a lo largo ensanchando todo lo posible, se hacen tiras de jamón, tocino y pimiento, aceitunas rellenas con jamón y pimiento, y en una taza, se bate un huevo añadiéndole pan rallado, perejil, jamón y aceitunas bien picadas. Esta masa se coloca encima de las tiras, se cose la carne y se ata con una liz, se pasa en harina y se fríe en una sartén, se coloca en una cazuela añadiéndole un poco de agua o caldo. En la grasa que se ha frito, se fríe una cebolla y ajo bien picados añadiendo una cucharada de harina, cuando esta se tuesta se le añade caldo y tomate y esta salsa se le añade a la carne, cuando está ya hecha se saca a enfriar y se cortan en pedazos delgados.
Se coloca en una fuente y se le añade la salsa caliente.

CHIPIRONES RELLENOS

Se limpian los chipirones separando la tinta a una taza, se pican las zarpas, un poco de jamón, un poco de cebolla bien menudita y perejil. En una sartén, en un poco de grasa, se fríen la cebolla y el jamón, luego los demás. Si la fritura resulta demasiado caldosa, se le añade un poco de pan rallado y se rellenan los chipirones, se pasan en un poco de harina y se fríen. Se colocan en una cazuela. Se hace la salsa en una sartén, se fríe cebolla y se le añade un poco de harina, un poco de tomate y la tinta desleída en la taza con un poco de agua o caldo frío. Se deja cocer esta salsa, en media hora se pasa a los chipirones en un pico chino fino, se deja cocer y se sirven con tostones de pan.

CHURROS DE PATATA PARA ASADOS

Se hace el puré anterior (puré de patata a la casera) sólo añadiendo sal, mantequilla y huevo batido, se coge un poco de harina en las manos y se forman unas bolas, se ponen en la churrera y se fríen como los otros churros en aceite bien caliente.

COCOCHAS A LA DONOSTIARRA.

Después de bien limpias y secadas con un paño, se colocan en una cazuela. Para un kilo se echan dos cacillos de buen aceite con unos cuatro dientes de ajo que se hacen lentamente en una cazuela de barro.

Cuando estén fritos los ajos, se sacan y se colocan las cocochas en ella, se agrega la sal correspondiente, perejil picado y un cacillo de caldo.

Se pone a buen fuego y se remueve bien la cazuela.

Se tiene preparado de antemano, dos cacitos de su frito, y según se va poniendo la salsa espesa, se va añadiendo el aceite frito, sin dejar de remover la cazuela.

Se advierte que las cocochas se hacen en diez minutos sin dejar de remover.

COLA DE MERLUZA CON SALSA ALEMANA

Se limpia la merluza y se coloca en una tartera con mucha cebolla picada y rajas de limón. Se pone al horno hasta dorar un poco la cebolla.

A medio hacer se añade un poco de vino blanco. Una vez hecho se coloca en una tartera, la salsa se pasa por el colador, se le añade una yema de huevo mezclándola bien, se le echa cubriendo la merluza y se sirve.

CORDERO CON ALMENDRAS

Se hace pedazos el cordero, se pasa en harina y se dora en una cazuela en un poco de grasa. Una vez dorados se le añade un poco de agua y sal. En una sartén se fríe cebolla, ajo y zanahoria en pedazos un poco grandes, cuando estén dorados se les quita la grasa, se le añade un poco de harina tostada, caldo y un par de choriceros remojados y almendras tostadas, se cuecen todos una media hora, se pasan por un colador fino al cordero y se deja hasta sazonar.

CORDERO CON CHAMPIÑONES

En una cazuela se dora el cordero, se le añade un poco de cebolla picada. Cuando se dora un poco se añaden los champiñones, un poco de vino blanco, guisantes, sal y caldo de champiñones, se tiene media hora pil-pil. Los guisantes, si son cocidos, se echan a última hora.

CORDERO CON SALSA AMARILLA

Se hace en pedazos el cordero, se pasan en harina y se fríen en la sartén y se colocan en una cazuela con un poco de agua. En la grasa donde se han frito se fríe cebolla, puerro y ajo bien picados. Cuando se doran un poco se añade un poco de harina tostada. Una vez dorados se añade un poco de caldo o agua y se le añade al cordero, también unas cebolletas albardadas y patatas también albardadas. Media hora antes de servir se le añade una yema cocida y desleída en un poco de agua en una taza.

COSTILLA DE CERDO CON ARROZ

Se hace pedazos la costilla y se dora a la vez con un poco de cebolla bien picada y zanahoria en cuadritos. Una vez dorados se le añade un poco de caldo o agua, se deja un par de horas que se haga, se le añade media taza de arroz, según el caldo que tenga, un poco de tomate hecho y se deja media hora cociendo.

COSTILLA FALSA A LA PARRILLA

Se pone en la parrilla a fuego bastante vivo unos veinte minutos, se saca a una fuente, se le da sal fina, ajo, se unta de mantequilla y se sirve con patatas fritas.

COSTILLA TIERNA DE TERNERA A LA PARRILLA

Se toma la costilla y se pone a asar a la parrilla una media hora. Cuando esté asada se le da sal fina, ajo y un poco de mantequilla, se pone al horno unos dos minutos y se sirve.

CROQUETAS DE PATATA.

Pélense unas patatas, se cortan en trozos grandes y se ponen a cocer con agua y sal. Una vez cocidas se escurren y se dejan en la boca del horno para que se sequen, y se pasan por un colador haciendo un puré muy espeso que se sazona con pimienta. Se le agrega un trozo de mantequilla y unas yemas de huevo poniéndolo un ratito al fuego, removiendo constantemente hasta que dé un hervor. Se deja enfriar bien extendido y se hacen unas bolitas que se pasan por harina, huevo y pan rallado. Se estiran dándoles forma de croquetas y se fríen con aceite bien caliente. Se sirven acompañadas con salsa de tomate. También quedan muy sabrosas si a la pasta se le agrega unas cucharaditas de queso rallado.

EMPANADAS DE JAMON

Se desalan en leche unos filetes de jamón, y se remojan también en leche unos cuadraditos de pan, o sea, el mismo tamaño del jamón. Se pone en medio de dos panes uno de jamón, se escurren, se pasan en huevos, pan rallado y se fríen en aceite caliente.

EMPANADAS DE PATA DE CERDO

Se cuece y se preparan tajadas como en el anterior (pata de cerdo a la inglesa), se coloca un poco de la masa anterior (pata de cerdo), se cubre con una empanada de leche, se pasa en huevo y pan rallado y se fríen.

ENSALADA DE HUEVOS

Se cuecen lo huevos, se pelan y se cortan a lo largo en dos pedazos, se les quita la yema y se colocan en la fuente donde se han de servir. Se llenan con aceitunas deshuesadas y rellenas con jamón, pimiento etc. Luego se hacen unas tiras de pimiento, jamón etc., para adornar la fuente. Aparte se hace en una taza la salsa siguiente: aceite, vinagre, sal, aceitunas picadas, un poco de perejil también picado, batir bien todos juntos, añadirle a la fuente, y las yemas de antes se pasan por un colador y se ponen en la fuente para adornar.

ENSALADA DE PATATAS.

Se cuecen las patatas con su piel, se pelan y se hacen ronchas, se colocan en un plato o fuente donde se han de servir. En una taza se bate aceite y vinagre con un poco de sal, se le añaden aceitunas y perejil picados, se echa a las patatas y se sirve.

ENTREMÉS DE COLIFLOR

Se cuecen cabezas de coliflor (si son pequeñas en entero) con sal y zanahoria, una vez cocidas se sacan a enfriar con mucho cuidado para que no se rompan y luego se colocan en la fuente donde se han de servir. En una taza se baten aceite, vinagre, sal y perejil picado y se le echa por encima a la coliflor. Alrededor se adorna con huevos cocidos cortados en rajas, zanahorias también cocidas, aceitunas y la yema del huevo cocido.

FILETES EN SALSA VERDE

Se cortan filetes tiernos y se doran en una sartén con muy poca grasa y se colocan en una tartera. Se espolvorean con un poco de sal fina. En la sartén, con un poco de aceite, se fríen perejil ajo picados y un poco de harina. Cuando se doran echarle unas gotas de vino blanco y un poco de caldo o agua. Esta salsa se añade a los filetes y cuando empieza a hervir se sirve.

FILETES HUECOS

Se cortan filetes delgados, se les da ajo y sal, se pasan en harina, clara de huevo batido, pan rallado y se fríen en grasa caliente.

FLAN DE MERLUZA

Se fríe una tajada de merluza y se pica. Se añade un poco de cebolla frita y perejil. Se unta un molde en frío con manteca, perejil picado y pan rallado. Se llena el molde y se cuece al baño maría y se sirve lo mismo con tomate, salsa pil-pil o mayonesa.

FLAN DE PICADILLOS DE AVE

Se cuecen y se pican bien, se le añade perejil picado, sopa de leche, nata, huevo batido y jamón picado, se mezclan todos bien, y si resulta ligera, se añade un poco de pan rallado. Se prepara un molde untado de manteca y pasado con pan rallado y perejil picado, unas tiras de jamón y huevo cocido etc. Toda esta mezcla se pone en el molde y se pone al horno al baño Maria, cuando se cuaje se sirve con tomate.

FRITOS.

Freír un poco de aceite o manteca. Poner en un cazo medio vaso de agua, echarle el aceite frito, dos cucharadas, sal y se pone a hervir. Cuando empieza a hervir se le echa medio vaso de harina, se le remueve a fin de que no se hagan grumos. Se pasa a una fuente, y cuando se enfría, se le añade un huevo batido. Se trabaja de nuevo con harina, se extiende en la mesa, se pone bexamel en grupitos, se dobla, se corta y se fríe.

GALLINA TRUFADA

Se mata una gallina regular y se despluma. Se corta la piel desde el cuello hasta la cola por la espalda y se despelleja, primero de un lado y luego del otro con mucho cuidado para que no se rompa. Una vez despellejada se le separan todas las carnes y se hacen tiras. Se preparan media libra de cada uno de los siguientes ingredientes: tocino fresco, magro de cerdo, lomo de cerdo y jamón seco, todos estos en tiras menos el magro. Con este se hace un picadillo añadiendo un huevo batido, pimienta negra, unas gotas de vino blanco y el caldo que tienen las trufas. Se mezclan todos bien. Con todo esto se rellena el pellejo de la gallina, alternando los colores, también se ponen trufas. Cuando está bien rellenado, se cose con aguja e hilo, se recoge en un trapo limpio, se ata de las dos puntas (el trapo que no sea muy tupido), y se pone en una cazuela que quepa la gallina, mitad agua, y cuando hierve, se pone a cocer con zanahoria, puerro, etc, y el esqueleto de la gallina, magis, sal etc y vaso grande de vino blanco. Dejar cuatro o cinco horas cociendo, cuando está cocida se saca y se vuelve a recoger en el trapo. Se coloca encima de una madera cuadrada, con otra por encima y un peso de unos treinta kilos encima, así se tiene unas dos horas hasta que se prense bien. Se le quita el hilo que se ha cosido, se corta en rodajas delgadas y se sirve en frío.

HÍGADO CON MACARRONES

Los macarrones se cuecen en agua y sal. El hígado se corta en tajadas delgadas y se fríe, se coloca en una tartera una capa de hígado, otra de macarrones con pedazos de mantequilla, un poco de jamón frito y queso rallado, se sigue. Si se quiere, se pone un ratito al horno.

HÍGADO CON PURÉ DE PATATA

Se fríe como el anterior (hígado con macarrones) y se coloca en una fuente con un poco de puré de patata y se sirve.

HÍGADO CON TOMATE

Se corta en rodajas delgadas, se les da sal y ajo y se fríen todos juntos en grasa suficiente. Se añade tomate hecho y se sirve.

HÍGADO EMPANADO

Se hacen tajadas como filetes y se les da sal y ajo. Se pasan en huevo batido y pan rallado y se fríen en grasa caliente, y se sirve con patatas fritas.

HUEVOS AL MOLDE

Se preparan los moldes con manteca, pan rallado y perejil. Se rompe allí el huevo y se cuece al baño María al horno. Cuando la clara está ya hecha, se saca a la fuente donde se han de servir. Se hace aparte una salsa española tostada etc, se añade esta salsa a los huevos y se sirve.

HUEVOS AL NIDO

Se cuecen unas patatas con su pellejo y se pasan en el prensa puré a una tartera. Se le añade mantequilla, perejil picado, un huevo batido y sal, se mezclan con una cuchara bien. Se hacen unos aros en forma de nidos, se fríen en mucha grasa y caliente, se dejan en una fuente. Se preparan huevos al molde o fritos y se colocan uno en cada nido y se sirven.

HUEVOS CON LECHE.

En un cazo se pone mantequilla, un poco, y se dora una cucharilla de harina, una o dos jícaras de leche y un poco de sal. Cuando empieza a hervir y se pone un poco espesa, se la hecha a una tartera y se deja hervir. Se echan unos cuatro huevos. Cuando se cuaja un poco la clara, se sirven con unos pedacitos de pan.

HUEVOS FRITOS CON BECHAMEL

Se hace bessamel en un cazo, una cucharada de harina, una jícara de leche, un poco de sal y un poco de nuez moscada. Primero se pone en un cazo un poco de manteca o mantequilla, se fríe allí la harina mezclando con una cuchara de palo, se sigue echando poco a poco la leche hasta ponerse lisa, sin dejar de menear con la cuchara hasta hervir. Cuando está cocida y de buen gusto, se fríe un huevo en una sartén, se mete al cazo del bessamel, se cubre y se saca a una fuente a enfriar. Una vez frío se pasa en huevo y pan rallado y se fríe en aceite caliente.

LENGUA AL HORNO

Se cuece la lengua unas cinco horas en agua hasta cubrir, con un vaso de vino blanco, cebolla, perejil, zanahoria, etc. Se saca a enfriar y se le quita el pellejo. Se hace una salsa española fina, o sea, en una sartén con bastante grasa, se fríen cebolla abundante, ajo, puerro, zanahoria, etc, todas cortadas en tamaño regular y dorando suavemente. Cuando empieza a tomar el color, se le quita la grasa y se le echa media cucharada de harina. Cuando se dora, se le añade caldo del que se ha cocido la lengua, se le deja cocer un cuarto de hora, y si la salsa está un poco blanca, se quema un poco de azúcar y se le añade. Esta salsa se pasa por un colador fino, la lengua se corta por la mitad a lo largo, y sin perder la forma se hacen tajadas finas y se colocan en una tartera. En una taza se prepara un huevo batido y se le añade jamón y perejil picados y un poco de pan rallado. Esta masa se pone por encima a la lengua y se pone al horno unos cinco minutos, luego se añade la salsa alrededor y se sirve con cebolletas.

LITIRUELAS

Se cuece molleja de pescuezo, se hacen pedacitos del tamaño de una croqueta, se pasa en clara de huevo bien batido en pan rallado mezclado con perejil y se fríen en aceite bien caliente. Sirve para variar fritos.

LOMO DE CERDO CON LECHE

Se pone un trozo de lomo en un puchero a cocer con leche hasta cubrir añadiéndole un poco de ron y canela. Se deja cocer un par de horas, se saca el lomo y la leche se pasa por un colador. En una sartén se dora la parte gorda del lomo, se hacen tajadas delgadas y se coloca en la salsa.
Menearle antes de servir.

LOMO DE CERDO MECHADO Y ASADO

Se mecha con tocino gordo y se pone al horno en una tartera con trocitos de tocino, mantequilla y ajo. A medio asar, se le echa unas gotas de vino blanco. Una vez asado se cortan en rodajas finas, se sirve con puré o churros etc.

LOMO DE CERDO PARA FIAMBRE

Se abre un trozo de lomo y se rellena con tiras de jamón, tocino, aceitunas, etc. Se ata muy fuerte y se pone a cocer unas tres horas, con bastante vino blanco, zanahoria, sal, puerro, etc. Cuando está ya cocido y frío, se corta en tajadas finas y se sirve como entremés.

MACARRONES

Se cuecen macarrones con agua y sal. Aparte, en una sartén, se fríe un poco de cebolla y un poco de jamón. Se le añade un poco de harina tostada y tomate hecho, se tiene cociendo unos diez minutos. Los macarrones se colocan en una tartera alternando con un poco de salsa y pedazos de asado, sea de molleja etc. Encima cubrir con la salsa perejil picado y pan rallado y mantequilla poner al horno a tostar.

MASA DE CROQUETAS CON LOMO DE CERDO

En una sartén se pone aceite fino y un poco de mantequilla. Se dora cebolla, jamón y lomo de cerdo bien picados. Cuando están dorados, se añade cuatro cucharadas de harina, meneándole con una cuchara hasta tostar. Añadirle poco a poco la leche (cuatro tazas de las de café) y seguir meneando hasta cocer. Se saca a una tartera a enfriar, se hacen unas bolas o cuadros, se pasan en huevo batido, pan rallado y se fríen en aceite caliente.

MENESTRA DE VERDURAS

Se pican toda clase de verduras, o sea berzas, zanahorias, puerros, lechuga, etc. Se cuecen un par de horas con un poco de aceite y uno o dos cuadritos de magi. Se escurren en un pasador y se echan a una cazuela, se les echa por encima un poco de aceite frito, se tiene pil-pil unos cinco minutos y se sirve.
El caldo de estas verduras sirve para sopas.

MERLUZA AL PIL-PIL

En una tartera se pone aceite que cubra el fondo. Cuando está un poco caliente, se le añade cebolla y ajo picados y las tajadas de merluza pasadas en harina. Cuando se doran de un lado, se dan vuelta y se le añade perejil picado y agua fría, poco a poco meneándolo, sin cesar, hasta que la salsa se ponga espesa. Se cuece un huevo con la yema dura, y esta se deslíe en una taza con un poco de salsa o agua y se añade a la merluza, se le menea y se sirve pil-pil.

MERLUZA HUECA

Se preparan unas tajaditas de merluza, se le añade una gotas de limón, un poco de sal y perejil picado. Se prepara una masa como para sesos huecos, o sea se ponen en una taza un par de cucharadas de harina con un poco de sal añadiéndole con una cucharilla un poco de caldo frío o un poco de agua. Trabajar hasta ponerse fina, añadirle un poco de vinagre y aceite. Aparte se bate, a punto de nieve una o dos claras de huevo, se toma una de las tajaditas de la merluza, se pasa en la masa y en la clara y se fríe en aceite bien caliente.

MOLLEJAS DE CORAZÓN MECHADAS Y ASADAS.

Se limpian escaldando, en una sartén se mezcla con tocino gordo o jamón, se asa al horno con vino blanco y sal, aceite fino y ajo. Se sirven con puré o patatas fritas, ensalada, etc.

OREJAS DE CERDO.

Si son saladas se tienen desalando toda una noche. Se cuecen unas cinco horas, se les quita la vena ancha que tienen y se dejan enfriar, se hacen pedazos y se les pone una capa de picadura de jamón y carne y perejil y huevo batido, todo bien mezclado. Se pasan en harina y huevo batido y se fríen en aceite caliente.

PATA DE CERDO

Se desala en unas doce horas, se cuece en seis o siete horas con medio vaso de vino blanco, cebolla, laurel, puerro, zanahoria etc. Una vez cocido se saca a enfriar y se deshuesa, se rellenan los agujeros con la salsa siguiente: se pone en una taza huevo batido, jamón picado, perejil también picado y pan rallado. Se coloca en una tartera añadiéndole un poco de leche con un poco de canela y se pone al horno caliente unos cinco minutos y se sirve.

PATA DE CERDO A LA INGLESA

Se cuece a la forma anterior (pata de cerdo), se hacen tajadas delgadas y se rellenan con la masa anterior del pan en harina, huevos y pan rayado y se fríen.

PATATAS CON TOMATE

Se pone en una cazuela aceite y cebolla picada. Cuando esta empieza a dorar se le pican las patatas y se deja que se doren un poco y se echa un poco de tomate y agua hasta cubrir, la sal necesaria y dejar cocer.

PATATAS EN SALSA VERDE

En una cazuela se pone aceite, y cuando está caliente, se le pica bien un poco de ajo y perejil. Enseguida se le pican las patatas y la sal necesaria. Cuando se doran, se le añade agua hasta cubrir y se deja cocer unos veinte minutos.

PATATAS RELLENAS.

Se pelan unas patatas de tamaño regular, se parten de la mitad, se les saca la carne y se rellena con un picado de carne cocida, jamón, cebolla, perejil, huevo batido y un poco de leche. Luego se juntan y se cosen con un palillo, se pasan en harina y en huevo y se fríen. Se hace una salsa española, se le añade y se tiene media hora haciendo.

PELLEJO DE CORDERO RELLENO PARA FIAMBRE

Se coge la parte del brazo y se ensancha, se pica un poco de carne del mismo cordero, tiras de jamón y de tocino. Se prepara una masa con la picadura en un plato añadiendo pimienta negra o blanca y un poco de huevo batido y vino blanco. Se mezcla bien todo y se rellena el pellejo alternando picadura, con las tiras. Se cose con una aguja, se envuelve en un trapo limpio atándole las dos puntas. Se pone a cocer en un puchero un par de horas con agua, un vaso de vino blanco, puerro y zanahoria, se saca y se le quita el trapo y se envuelve otra vez muy fuerte. Se deja prensar unas doce horas y se sirve en frío.

PESCADILLA EN ROSCA

Se limpia bien la pescadilla, quitando las espinas, y se enrosca. Se coloca en una tartera, se le hecha aceite fino, mantequilla, perejil picado y rodajas finas de patata, se mete al horno hasta dorar. Se le echa unas gotas de vino blanco y pan rallado, se vuelve a meter en el horno, hasta hacer.

PIMIENTOS RELLENOS

Se pica la carne y se le añade un poco de cebolla picada frita con un poco de jamón y perejil picado, un poco de tomate hecho y huevo batido, unas gotas de vino blanco. Si tiene mucho zumo, se le añade un poco de pan rallado. Se toman los pimientos, se rellenan, se pasan en harina y huevo y se fríen. Se colocan en una cazuela, se les añade caldo o agua y se dejan haciendo. En la grasa donde se han frito, se fríe cebolla y ajo bien picados, y cuando se doran, si tiene mucha grasa, se le quita y se le añade un poco de harina tostada y vino blanco y un poco de tomate. Esta salsa se añade a los pimientos.

POLLO CON CHAMPIÑONES

Se asa al horno con bastante ajo y cebolla un pollo, vino blanco, ron etc, sal y mantequilla y aceite fino. Una vez asados, se saca el pollo a enfriar y la salsa, si tiene mucha, se le quita la mitad, se le añade un poco de harina, se deja tostar y se le añade un poco del caldo de champiñones o setas. Se deja crecer y esta salsa se pasa por un colador añadiéndole una yema batida. Esta salsa caliente se le añade al pollo y se sirve.

PUERROS A LA VINAGRETA

Se cuece la parte blanca de los puerros con la sal necesaria, se sacan a una fuente y se añade la vinagreta. Esta se hace de la siguiente manera: se baten en una taza vinagre y aceite, luego se añade un poco de sal, perejil picado, cebolla picada y huevo cocido también picado.

PUERROS CON ARROZ

Se pone un poco de aceite en una cazuela y se doran allí puerros de unos dos cms y un poco de jamón. Cuando se doran se añade agua y un poco de sal. Se tiene cociendo una media hora y luego se le añade arroz, un par de cucharadas para cada persona. Se deja cocer unos veinticinco minutos.

PURÉ DE PATATA A LA CASERA

Se cuecen patatas con su piel unos veinte minutos, se pelan y se pasan por el pasapuré. Se le añade sal y un poco de mantequilla, se pone al fuego y se añade un poco de leche, meneando con una cuchara hasta ponerse fina. Se toman chorizos (una ración para cada uno) y se doran un poco en una sartén. Colocar en una tartera las raciones, cubrir de puré encima, adornar con pedacitos delgados de chorizo, se pone al horno caliente cinco minutos.

RIÑONES SALTEADOS.

Se limpian los riñones quitándoles la telita que les cubre y la grasa. Se cortan en trocitos. En una sartén póngase aceite, y cuando esté bien caliente, a fuego muy vivo se echan los riñones. Cuando empiecen a dorarse se les añade cebolla picada muy fina, un diente de ajo, un poco de perejil, pimienta y sal, también se le agrega un vino de jerez o vino blanco. Se deja reducir y se le añade un poco de pan rallado y salsa española. Si no se tiene esta salsa, se sustituye con un poco de puré de tomate y caldo, se revuelven y sin que hiervan.
Se sirven acompañados de arroz blanco y unos costrones de pan fritos.

RIÑONES EN SALSA DE TOMATE.

Se escaldan en agua hirviendo. Después de quitarles el pellejito, se cortan rodajas delgadas, se pasan en harina y se fríen. En la grasa donde se han frito se doran ajo y cebolla bien picados, se añade tomate hecho, un poco de caldo limpio y vino blanco. Se les añade la salsa y se tienen una hora haciendo.

RIÑONES EN SALSA VERDE

Se cuecen los riñones un par de horas con sal, puerros, perejil, vino blanco, etc. Se sacan a enfriar, se cortan en rodajas finas, se pasan en harina y se fríen. En la grasa donde se han frito se hace una salsa verde con ajo bien picado, perejil, harina y un poco de caldo y vino blanco.
Esta salsa se agrega a los riñones y se tienen unos cinco minutos.

SESOS CON MAYONESA

Se limpian los sesos en agua salada y se cuecen unos quince minutos con bastante perejil, zanahoria y puerro, unas gotas de vinagre y bastante sal. Una vez cocidos se sacan a enfriar, se hacen tajadas y se colocan en una fuente y se cubre de mayonesa. Se sirve como entremés.

SESOS EN SALSA

Se cuecen unos quince minutos con bastante perejil, zanahoria, puerro y unas gotas de vinagre y bastante sal, se hacen rodajas y se pasan en harina y se fríen. En la salsa donde se han frito, se fríe un poco de perejil, se le echa unas gotas de vinagre o limón. Los sesos se adornan en la fuente con rodajas de zanahorias cocidas y se cubre con la salsa.

SESOS EMPANADOS

Se cuecen como los anteriores (sesos en salsa) y con el caldo que se han cocido se remojan unas rebanadas cuadradas de pan, se coge un pedacito de seso y se pone sobre el pan, se pasan en clara de huevo bien batido y pan rallado y se fríen en aceite caliente (sirve para variar fritos).

SESOS EN SALSA

Se cuecen unos quince minutos con bastante perejil, zanahoria, puerro y unas gotas de vinagre y bastante sal, se hacen rodajas y se pasan en harina y se fríen. En la grasa donde se han frito, se fríe un poco de perejil, se le echa unas gotas de vinagre o limón. Los sesos se adornan en la fuente con rodajas de zanahorias cocidas y se cubre con la salsa.

SOPA A LA REINA

En una cazuela se dora en aceite fino un poco de cebolla, puerro y perejil bien picados y un poco de carne de pierna también picada. Una vez dorada se añade caldo o agua. Se deja cocer y a la media hora de estar hirviendo se le añade una cucharada de arroz para una litro de caldo, un poco de patata cortada en cuadritos. Se deja cocer y se sirve.

SOPA DE GALLINA

Se cuece la gallina y se pican unas pechugas, carne y un huevo cocido.
Esta picadura se añade al caldo caliente y se sirve
(si se quiere en la cazuela se fríe una cucharada de harina en un poco de mantequilla para que el caldo quede más espeso).

SOPA DE MERLUZA

Se pone en una cazuela la cabeza de merluza bien limpia, con puerro, perejil, zanahoria y sal, se cuece una media hora. En otra cazuela se pone un poco de aceite fino, se doran un poco de cebolla, ajo y perejil bien picados. Se le añade una cucharada de arroz para un litro de agua y tener cociendo una media hora. La carne que se le separa a la cabeza, se pica, se añade al caldo y se sirve.

SOPA DE PATATAS.

Se pelan unas patatas (dos o tres para cuatro o cinco personas), se rallan con el rallador a un plato. Se prepara buen caldo y cuando este está hirviendo se le echa la patata, y tener cociendo diez o doce minutos. Servir con picatostes.

SOPA DE POTAJE

Se cuece buen potaje de alubia blanca o roja con cebolla, aceite fino, chorizo etc. Se pasa por un colador fino, se le añade caldo limpio cocido con puerro y un poco de tomate.
Se sirve con picatostes.

SOPA DE VERDURAS.

Se pican toda clase de verduras: puerro, zanahoria nabo etc. Se ponen en una cazuela con un poco de grasa o mantequilla, se doran suavemente, y una vez dorados, si tienen demasiada grasa, se le quita y se añade caldo limpio y se deja cocer unos ¾ de hora. Se le añade un poco de jamón picado y frito y picatostes al momento de servir.

SOPA DE YEMA

En una cazuela se fríe una cucharada de harina en un poco de mantequilla o grasa y una manada de jamón picado. Se le añade caldo limpio y se deja hervir unos cinco minutos. En la sopera donde se ha de servir se baten bien tres o cuatro huevos enteros o sólo yemas, y al tiempo de servir, se le echa poco a poco el caldo anterior que estará hirviendo.

TORTILLA DE PIMIENTOS A LA NACIONAL


Se fríe un pimiento picado en aceite templado, se fríen dos pimientos enteros. Cuando están bien fritos, si tienen mucha grasa se les quita. Con el pimiento picado hacer una tortilla sabrosa. Con un poco de esta tortilla rellenar los pimientos y colocar en los dos lados de la fuente
y el resto de la tortilla en la mitad.

VERDEL CON TOMATE

Se limpian los verdeles se sazonan y se fríen pasando en harina. En la grasa que se han frito se dora un poco de cebolla picada, añadiéndole un poco de vino blanco, unas gotas de limón y tomate hecho. Añadirle esta salsa a los verdeles y tener un rato pil-pil.




Sukaldaritza ikastaroko taldea 1938 inguruan.
Goian: Angeles Irastorza, Amparo Mujika, Francisca Goitia, Francisca Agirre, Juana Ugarte eta Lorenza Ugarte.
Erdian: Maria Ugalde, Mariatxo Andueza, Juanita Zabaleta, Pilar Alustiza, Ramona Oroz eta "Korkostegi".
Behean: Bittori Zabaleta, Isabel Ugarte eta Maria Zubizarreta
(Felisa Anduezaren artxiboa).



Bacalao al ajo-arriero

Se pone al horno a tostar un trozo de bacalao cuando está un poco hueco se hace migas a un pasador y se desala estrujando en la fuente, en una sartén un aceite de fuen bastante cantidad ajo y patata cortados al mismo tamaño cuando éstos están ya fritos se le añade al bacalao se tiene un momento fuendo y se le añade un poco de tomate se tiene pil-pil después del tomate lijarre en la sal (lo mismo se hace con merluza pero sin tostar)

Mariatxo Anduezaren apunteen irudia.



Burdinola elkartearen argitalpenak:

Liburuak

2005, ZingiZango Legazpiko euskara

2008, Historia eclesiástica de Legazpi

2009, Gipuzkoako hegoaldeko euskara

2011, Lehengo Aztiri

2014, Leaxpi industri paisaiak

2016, Argitara altxor ahaztua

2023, Atzoko Egialde

Liburuak, Arkeolan Fundazioarekin elkarlanean

2014, Erdi Aroko burdin arkeologia. Legazpi (Gipuzkoa) barrutiko zepadiak

2022, Urbia eta Altzaniako mortuak. Arkeologia, historia, mugarriak eta toponimia

Txinpartak aldizkaria, 2000. urtetik 2024. urtera arte, 50 ale. Ale bereziak::

2008, Ehun urteko historia-Centenario de PESA

2009, Diaz de Agirre leinua Legazpin

2017, Saletxe, poeta ikusezina

2018, Familia, sociedad y poder. La transición del Antiguo Régimen en Legazpi

2019, Homenaje a Carlos Ausserladscheider. Agur eta ohore

2020, Elbarrena, auzo ahaztua

2023, Don Bruno, un agente nazi en Legazpi después de la Segunda Guerra Mundial

Koadernoak

1996, Burdinolak. Material didaktikoa / Ferrerías. Material didáctico

1996, Burdinolak. Dibulgazio teknikoa / Ferrerías. Divulgación técnica

1998, Haizeolak. Antzinako burdinolak / Haizeolas. Ferrerías primitivas

2002, Altzairua historian zehar nola egin izan den / Acero. Su obtención a lo largo de la historia

Gainera: katalogoak, mapak, triptikoak, egutegiak eta beste

www.legazpi.eus/burdinola

Zer eta zergatik

Zer dakar liburu honek? Garai bateko Santa Maria kaleko etxe eta familien historia.
Orain ehun urte, kale hori oso zen luzea, Olaberrin hasi eta Mantxola alderaino luzatzen zen.
Bikuñaldea, Kontsejualdea eta Kalebarren, hori dena kale haren parte zen.

Egia esateko, ez dakigu hemen azaltzen diren etxe denak Santa Maria kalekoak ziren; adibidez,
Agirreplaza eta Ajuex baziren, ez ziren? Hainbeste axola dio?
Azkenean, erabaki genuen "kalealdea" sartzea argitalpen honetan.

Lan guztiek beren muga dute.
Liburu batean ezin da dena sartu, eta guk bi muga ipini dizkiogu geure buruari,
muga geografikoa (alde batera utzi dugu Kale Berria) eta muga denborazkoa
(soilik hogeigarren mende erdi arteko etxeak hartu ditugu kontuan).

Toda una calle

Esta publicación ofrece la historia de lo que en un tiempo fue la calle Santa María.
Hace cien años esa calle era realmente larga, comenzaba en las casas de Olaberri y llegaba hasta la zona de Mantxola.
Abarcaba lugares como la zona de Bikuña, los alrededores de la casa consistorial y toda la llamada popularmente Calle Vieja.

No sabemos si todas las casas que aquí aparecen estaban englobadas en la calle Santa María. ¿Ajuex y Agirreplaza estaban dentro? ¿Tanto importa?
Finalmente, decidimos que el libro hablara "de la calle" en general.

Todos los trabajos tienen un límite. No todo puede caber en un libro y hemos dejado fuera las edificaciones de la Calle Nueva.
Además, nos hemos limitado a las casas surgidas antes de la mitad del siglo XX.

ARGITARATZAILEA:

LAGUNTZAILEA:

ISBN 978-84-128144-0-8